

**LATIEGI'tar BIXENTE**  
(Euskerazaintzakoa)

# **GURE DENBORA AUETAKO ELIZA**

(Lenen-Ludi-Gudua — Totalitarismoa — Españiko Gudua  
Bigarren-Ludi-Gudua — Bigarren Batikan-Kontzilioa)

**ELIZ-EDESTI-SORTA**

**LATIEGI'tar BIXENTE**  
(Euskerazaintzakoa)

# **GURE DENBORA AQUETAKO ELIZA**

(Lenen-Ludi-Gudua — Totalitarismoa — Españiko Gudua  
Bigarren-Ludi-Gudua — Bigarren Batikan-Kontzilioa)

**ELIZ-EDESTI-SORTA**



© Latiagi'tar Bixente

Idazten ditudan liburuetan nere norabidea emateko oitura beti izan bait dut, ona, irakurle, Gazteiz'en, zure esanera, non aurkituko nauzun:

INSTITUTO POLITECNICO DIOCESANO

Nieves Cano kalea

O1008 Vitoria-Gazteiz

Eta nere urrutizkiña, (945) 13 22 11.

Badakizute zuen deia nora zuzendu, liburu oni-buruz, alde edo aurka, zerbait esan edo zerbait galdetu nai ba'didazute.

Eskerrik beroenak aurretik, zuen dei oien truke.

Wilsen Editorial  
La Fuente, 2  
Teléfono (948) 52 11 36  
31282 ACEDO (Navarra)

I.S.B.N. 84-85918-60-6  
Depósito Legal: NA - 1014 - 1990

Imprime: Wilsen Editorial  
31282 ACEDO (Navarra)

Goian bego.  
Aberriaren onerako eta Euskeraren alde  
ainbat ekintzetan lagun zintzo eta  
adiskide kutun izandako  
OÑATIBIA'tar DUNIXI aztu-eziñari,  
oroipen xamurrez.



## ITZAUURREA

- Ale onen aurkezpena.
- Erantzun bat. Ni, gogorregia? - Akesolo'rekin eztabaidan.
- Liburu ontako euskera.
- Segura Kardenalaren omenez.
- Gomá kardenalaren omenez.
- Eugenio Pacelli Estadutzako Idazkari Kardenalaren eskutitz garrantzitsu bat.
- Irakurle batzuen iritziak.
- Bibliografia.
- Euskotarron aurka.

Eskuetan duzu, irakurle, Eliz-Edesti onen laugarren liburua. Seguruaski, lengo lauak ezagunak izango dituzu:

SAN IÑAZIO'REN DENBORAKO ELIZA: Elizak Birjaiotza edo Rinascimento" aroan, 1447'tik 1623'ra arte XV eta XVI mendeetako giro naasian ibilli bear izan zituan bideen azalpena.

DENBORA BERRIETAKO ELIZA: "Argikuntza", "Illuminisme" "Illuminisme". "Ilustración", "Enlightment", edo, "Aufklarung" esaten zaion aroko Elizaren edestia. "Azkoiti'ko Zalduntxoan" eta zaldun onuragarri aundi aiek eta beren lagunek sortu ziguten "Real Sociedad Bascongada de Amigos del País", eta Alkarte bikain orrekin batera irasi ziguten Bergara'ko Seminario aintzagarriaren denboretako edestia, ain zuzen. 1623'tik 1814'era artekoa.

DEMOKRAZIAREN DENBORAKO ELIZA": 1814'tik 1914'era Elizaren ariketa aurkezten dizun liburua.

Laugarren onek, GURE DENBORETAKO ELIZA darabilki azterketa-gaitzat, 1914'ean XV Benedikto Aitasantu egiña izan zanetik 1978'an I Jon Paul il zitzaigun arteko denbora. Ortik onuntzarakoa gugandik urbillegi dagoalako, ez bait daiteke izan oraindik edestiaren alor egokia.

I Jon Paul'en aurretik ere, II Batikan-Kontzilioa bera, eta, jakina, Kontzilio bikain orren ondorengo gertakizunak ere ez dira oraindik bear bezala, aro luze baten altzoan, eldu, ondu, eta zoritu, oso-osoan edestiaren mami lez erabilliak izateko.

Idatzi, bai; idatzi dira azkeneko gertakizun oietaz liburuak ugari. Baiñan oraindik, azken denbora onen mamia erarik onenean ezagutu ta ulertu aal izateko, aldizkariak dituzu lanabesik egokienak.



Artu-berri dutan eskutitz bati erantzuna. "XIX mendeko integrismoa nere ustez gogorregi makillatu duzu" esanaz, adiskide zar batek idatzi dit. Erantzun bezaio nere orde z Oiarzabal'dar Andoni'k. Idatzi didan adiskide orrek ezagutzen du, --au ere nik adiskide dutan-- Mosr. Andoni Oiarzabal kanonigoa, eta ez du seguruaski ezkertiar biurritzat eukiko.

Ona bñ zer idatzi digun Oiarzabal'ek Deia izparringian, Newman kardenalak Erroma'ra egin zuan ibilladiari-buruz:

"No era brillante que digamos la Iglesia romana con la que Newman se encontró: hundida en lo más bajo del conservadurismo, confundiendo la tradición con la pereza mental, con una teología que tenía verdadero pavor a todo cambio. Vió la verdad rodeada de durezas, rodeada de suspicacias, de apéndices absolutamente innecesarios. Sin embargo, viendo que aquella verdad era la verdad, la que realizaba, más mal que bien, lo que Cristo y los Padres de la Iglesia quisieron, la abrazó con toda su alma".

"Por otro lado, todo el integrismo de la Iglesia de la época recibió de uñas a Newman; como a un semihereje de quien no había que fiarse demasiado, hasta tal punto que sólo cuando hubo cruzado la barrera de sus ochenta años, se fió de él León XIII, nombrándole cardenal con la oposición de toda la curia romana". (15-IV-1990).



Akesolo Euskerazaintzaren Lendakariak oar bat. Lendabizi eskerrak eman nai dizkiot. Izan ere, euskal-literatura ezagutzen gizonik yayoena, --askoz eta askoz yayoena--, bera dugularik, eskertzekoa bait da "Revista Internacional de Estudios Vascos" deritzan aldizkarian, 1988'ko bigarren liburuan, egin didan kritika ederra.

Bi akats aurkitu omen ditu nere Eliz-Edestiaren aurreneko bi liburuetan.

Bata, nik, "SAN IÑAZIO'REN DENBORAKO ELIZA"n, Jon Gurutzekoa Osuna'n il zala, idatzi dutala. Ori, "bear bada utsegite bat besterik ez dala", jakifiarazten die Akesolo'k bere irakurleei. Eta orixe izan ere izan zan:

"lapsus calami", "lumaren irristada" bat, nere bigarren liburuaren itzaurrean argiturik utzi nuan lez, "Ubeda'n il zala"kotik, "Osuna'n il zala"korako aldakuntza nola sorginkeriz egiña izan zan esanez.

Garrantzi geiagokoa derizkiot leporatzen didan bigarren akatsa: Naiz nik "ko" atzizkia ere bein baiño geiagotan erabili, maizenik "ko"ren ordez, "ren" atzizkia erabiltzen dutala.

Orrela, "urlia il dalaren berria jaso dugu" geiago esaten omen dut nik "urlia il dalako berria jaso dugu" baiño. Eta orrelakoetan "ren" atzizkia ez baiña "ko" atzizkia erabili bear omen da, gramatikaren araura.

Ez nator, oso-osoan, berarekin bat.

Izkuntza, erriaren egintza da. Eta egi borobil oren ondorioz, izkuntzaren gramatika ere, erriaren egintza da. Erriak egin duan gauza. Are geiago: bere izkuntza erabilliz, unetik unera mendeak-zear erriak egiten duan gauza. Bizidun oro bezala, izkuntzak ere, jaiotza ezkeru unetik unera aldatzen doazten izakiak bait dira. Aldaketa oiek danak, sortzaille, bizi emaille ta eragille duan erriaren ekitez gertatzen zaizkio izkuntza bati.

Eta izkuntzari aldaketa oiek egiñaraztean, jakiña, naitanaiez aldatzen dizkigu erriak izkuntza ortako gramatikaren arauak.

Akesolo'k aitortzen du, gaur-egun idazleek sarritan erabiltzen dutela "ren" atzizkia, len "ko" erabiltzen zan esaldietan. Egia. Maiz erabiltzen dute. Eta geienetan gaizki gaiñera. Erriak erabiltzen ez dituan esaldietan.

Barkatu beit Akesolo'k, idazleek ez ezê, erriak ere, eta ez ain gaizki nere ustez, Gipuzkoa'n beintzat, "ren" ori askotan erabiltzen bait du, Akesolo'ri, itsuraz beintzat, atsegin ez zaizkion esaldietan.

Eta, erria bait da, ez idazledia, gramatikaren nagusi bakarra, erriarengana jo dut argi-billa:

Bada Tolosa'n gizon bat. Dendaria. Janari-saltzaillea. Txit buru argiko gizona. Alkarrizketa gozo baterako berdiñik gabeko laguna. 89.--larogei ta bederatz-- urteko agure gazte sendoa, eta bere 89 urte ta guzti, egunero, kale nagusiko bere dendan aurki dezakezuna: Iñaxio Garmendia, Abaltzizketa'ko semea, eta ezkondu zanez gero Tolosa'n, bere lankerari eskerrak, napar eta giputz, Tolosa-inguruko euskaldun-jendearekin etenik gabeko alkarrizketa yorian bizitu dana. Euskerari-buruzko auzi auetarako erriaren ordezkari bikaiñena beraz. Izan ere..., Iñaxio Garmendia bera Euskalerra ez ba'da, Euzkadi'n Euskalerririk ez bait da.

Gure Iñaxio orrengana joan naiz bâ "ko" eta "ren" atzizkien arteko arazo au argitu naiean:

- Aizu, Iñaxio: Egizu kontu, Ameriketean seme bat duan Abaltzizketa'ko etxejoaun bat il dala. Semea Ameriketatik bereala etorri zaiola adierazteko, nola esango zenuke zuk:

Aita il dalaren berria jaso duan bezain laister etorri da Ameriketatik semea?

ala,

Aita il dalako berria jaso duan bezain laister etorri da Ameriketatik semea?

Ta, ona, zer erantzun didan zalantzarik gabe lñaxio'k:

- Gizona! "Aita il dalaren berria jaso duan bezain laister etorri da Ameriketatik semea", esango nuke nik.

Eta une batez pentsatzen egon ondorean:

- Ez beintzat, aita il dalako. Ori beste gauza bat da: "Aita il dalako , berria jaso duan bezain laister etorri da Ameriketatik semea". Eta bi esaldi oien arteko ezberdintasuna adierazi nairik, argi ta garbi agoskatu zidan nik azpimarraturik eman dizudan kakotx ori.

Gramatika zarraren arau zarrei lotuegi gelditzea geiegizko arkaismo edo antziñakeria daiteke; eta bizirik diardun izkuntzarentzat kaltegarria gertatu. Gaurko euskeraren gramatika, gaurko gramatika da; ez, atzokoa. Eta gaurko, atzoko, eta biarko, ta betiko, gramatikaren sortzaillea, zaintzaillea eta birreratzaillea erria bait da, eman dizudana duzu gaurko erriaren aburua.

Alatagutziz, jakin nai izan dut gramatikarien iritzia ere. Ta Akesolo'k nere liburuari egindako ikerketa bikain ortan l\xidro Baztarrika beneditar euskaltzaiña eta arras gramatikari jakintsua aipatzen bait du..., eta l\xidro Baztarrika Aita oso urbil daukadan gizona bait da..., Estibaliz'ko Lekaidetxera jo dut zuzenean aren iritziaren billa:

- l\xidro: "Aita il zalaren berria jaso zuan bezain laister etorri zan Ameriketatik semea", ongi esana al zegok?

- Bai, gizona. Egongo ez duk bâ!

- Zer iduritzen zaik obeki esana: "Aita il zalaren berria jaso zuan bezain laister etorri zan", ala "aita il zalako berria jaso zuan bezain laister etorri zan"?

- Biak zeudek ongi esanak. Nere ustez, arazo orrek ez dik denbora galtzen ibiltzerik merezi --, esanez amaitu zidan l\xidro Baztarrika gramatikariak bere oraingo irakaspen labur au. Ez, berak eman izan didan bakarra!

Orra bâ, auzia, erriaren aldetik eta gramatikaren aldetik argitua.

Orregaitik, nik, "ren" erabilliz jarraituko dut onako kinka auetan:

- Argitasunak eta ulerterreztasunak ori eskatzen duan guztietan. Tamalez, gure jendeari zail egiten zaio eskeraz irakurtzea. Ori orrela dalarik, gure jende orri euskera idatziaganako zaletasuna sortu dezaiogun, al dugun argienik eta errezenik idatzita eman bear dizkiogu gure liburuak.

- Kakofoni edo doiñu zakarretik iges egiteko bearrezkoa danean. Iguingarri egiten zaio bâ doiñu zakar oro, berez ain bertsozale eta eresi-maitale dan gure erriko jendeari.

- Eufoni edo doiñu goxoak ori eskatzen duan guztietan. Euskerak prosodi-azenturik ez du. Melodi-azentua da, euskeraren azentu bakarra. Orregaitik dugu ain garrantzi aundiko gauza gure euskeraz idaztean, eta itzegitean, eufoniari, ots, doiñu goxo atsegiñari dagokion guztia. Esan ere

esan bait daiteke, Euskera izketa utsa baiño geiago, eresia dala, musika dala.

Alatagutziz, gramatika utsaren aldetik,--oraiñarteko gramatikaren aldetik--, auzi ontan garaille, bearbada, "ko" izango litzakelako..., Akesolo arras gizon jakintsua dalako..., eta nik Akesolo'ri diodan eraspina benetan aundia dalako..., atzizki ori erabilliko dut nik ere, baiña aipatu ditudan kinka bereizi aietan izan ezki! Ez bait-dugu aztu bear euskal-gramatika euskeraren serbitzura dagola, eta ez euskera gramatikaren serbitzura.

Dezagun beti gogoan gramatikaren sortzaille izandako Marco Flavio Quintiliano'ren aolku jatorra.

"Ez du norbaitek oker esan,--non invenuste dictum fuit-- gauza bat dala gramatikaren arauak zintzo gordetzea, eta beste gauza bat dala latíñez dotore mintzatzea"

Kintiliano kalagurritarra zan; Kalagurri berriz erromateko "baskoien" uririk aundiena. Bai ote zekian Kintiliano'k euskeraz? Ta..., euskerak eufoniarri ematen dion garrantziak bultzata idatzi ote zuan ori bere "Institutiones" izeneko liburu ederrean?



Liturgi-liburuetako euskera dala-ta, "Az" eta "Z" atzizkietaz ere badut zerbait esanbearra. Nik, len, "Z" erabiltzen nuan beti, bai itzegitean eta bai idaztean ere. Adibidez, "len esandakoa gogoratu", eta ez, "len esandakoa gogoratuaz".

Baiña liturgiak bere idazkietarako "Az" atzizkia artu bait zuan..., eta atzizki ori pulpittuetatik ere maiz etortzen bait zitzaigun..., eta gure urietan ere, itxasaldean bereiziki, sarri entzuten bait zan..., nik ere "az" erabiltzea erabaki nuan. Batez ere, Liturgiaren bidetik ibiltzea, Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko euskalkien alkartusunerako txit gauza egokia iduritzen zitzaidalako.

Orain ordea, Liturgiak "Z" darabilki liburu berrietan. Ederki, nere ustez. "Az", atzizki bat ez baiña bi atzizki bait dira. "A", aditz bati erantsita leentasuna adierazten digun atzizkia; eta "Z", gaillutasun edo instrumentalitatearen adierazlea.

Gauzak orrela, eta oraingoan ere Liturgiari jarraituz, (ez, jarraituaz), "Z" erabilliko dut nik, naiz orrelako zuzenketak liburu ontan bertan egiten asteko, beranduegi izan.

Aitor dezadan "Z" utsaren aldekoa dugula Zatarain'dar Anburtzi. Iñor izatekotan, bai bait da Zatarain Euskerazaintzakoa, gure gramatikaren, eta erriaren izketaren, ezagule bikaiña.





Segura Kardenalaren Omenez. Maiz itzegingo dugu Segura'z gure idazlan ontan, eta ez beti aren aintza kantatzeko. Gizon aundia izan zan. Arerio asko bildu zuan bere inguruan, baiña baita miresleak ere. Auetakoa dugu Julio Ugarte apaiz euskotarra, "Odisea en Cinco Tiempos" liburuaren egillea.

Ikus, Segura kardenalaren goratarrea abestuz, beste eusko-apaiz askorekin batera Karmona'ko espetxean baiturik egon zan Julio Ugarte'k idatzitako esaldi onuragarri batzuk:

"El cardenal Segura fue el primero en visitarnos, apenas llegados. Hombre de estilo directo, fue al grano desde el primer momento. No quiso perder el tiempo en reconocer nuestras "cavernas". "No vale la pena", respondió a nuestra invitación para hacerlo. "Ya sé lo que son las cárceles". Tampoco le interesó saber las razones de nuestro encarcelamiento. Conocía y admiraba al Clero Vasco y, despreciando motivos y condenas, sólo le preocupó la forma de sacarnos de aquel agujero. Mientras tanto, puso a nuestra entera disposición su bolsa".

"Cuando más tarde el jesuita Pérez del Pulgar concibió ese engendro abominable de la "Redención de Penas por el Trabajo", aprovechó la ocasión para ofrecer su diócesis a los sacerdotes vascos presos, en régimen de libertad, durante el tiempo necesario para "redimirnos". Obsesionado por ese objetivo hizo varios viajes a Madrid, intentando convencer al ministro de Justicia, el durangués Esteban Bilbao, de la legalidad y conveniencia de su propuesta. Puso tal empeño en conseguir ese propósito que llegó a soportar en silencio el hecho de que un hombre tan clerical como el de Durango se negara a recibirlo, delegando el asunto a un subalterno. Extremó su delicadeza durante esa época de gestiones al punto de visitarnos exclusivamente para tenernos al corriente de las mismas, leyéndonos todas las cartas cruzadas entre él y el Ministro relativas al asunto".

Urte aietan Españi'ko katolikoen arteko giroa nola zegoan zabarturik jakiteko, egokia dugu, eusko-apaizen askatasuna eskatzen zion Segura kardenalari, "Patronato de Redención de Penas"en izenean, Cuervo jaunak idatzitako gutuna. Ikus, bera, Julio Ugarte'ren liburutik artua:

"Aun dentro de los límites hasta aquí enunciados, según los términos de la ley y las declaraciones auténticas dadas por el Jefe del Estado, el primero de enero de 1939, éste sólo concede la redención de penas por el trabajo a aquellos que manifiesten de una manera inequívoca estar resueltamente adscritos a la excelsa tarea nacional, sin cuya demostración previa deben extinguir su condena en toda la duración asignada por los tribunales de Justicia. Para que esta condición se cumpla y atendido el caso especialísimo de que aquí se trata, el Patronato estima necesario preceda una declaración pública de adhesión explícita y concreta al Glorioso

Movimiento Nacional firmada por los que desean acogerse a este beneficio de la Redención de Penas por el Trabajo; en la que se exprese, además, clara y rotundamente que la ayuda prestada por el Nacionalismo Vasco a los rojos durante la pasada guerra fue criminal y culpable; no solamente ante la Patria sino también ante Dios; por haber cooperado directamente a la destrucción de la Religión en España; el asesinato de sus ministros y prelados y, por tanto, que el que suscribe se adhiere en todas sus partes y hace suya la Pastoral Colectiva del Episcopado Español, de fecha 1 de julio de 1937. El Patronato estima, por último, que, dadas las circunstancias del caso presente, esta declaración no puede tenerse por suficiente sino después que aparezca firmada en la Prensa y sea leída públicamente por los párrocos de las iglesias en que los dichos sacerdotes prestaron servicios religiosos antes de su condena".

Segura, jakiña, ez zan Cuervo Jaunarekin batera etorri, ta bereala idatzi zion, eusko-apaizen iaretasunareko beste bide batzuk eskeiñiz.

Españi'ko Jaurlaritza bera, oartu zala dirudi, eusko-apaizek ez zituztela sekulan balditza zipotz aietara beren buruak makurtuko, eta, munduaren aurrean, apaiz aiek beren oldozbide ta jardunbideetan tinko jarraitzen zutela jakiteak, on baiño kalte geiago ekarriko ziola Franko'ren Gurutzada Santuari. Ez zitzaizen beintzat azkenean --, apaiz baituei --, baldintza aiek betetzerik eskatu. Entzun Julio Ugarte'k diona:

"Es obligado notar que a ningún preso se le hizo pasar por esas 'horcas caudinas'. Es más; en el caso de Juan Ajuriagerra, la redención de su pena se le impuso por la fuerza, sin ninguna declaración previa de acatamiento al Movimiento. Negativa que le costó ser enviado a una cárcel de las Islas Canarias".

Noiznai agertu izan zituan Segura'k bere eusko-apaizenganako begirunea ta maitasuna:

"Cuando una vez liberados se nos repartió por toda la piel de toro excepto el País Vasco incluida Navarra, a los seis sacerdotes destinados (a la diócesis de Sevilla) en esa especie de lotería, Segura les colocó en puestos de verdadero lujo y responsabilidad".

"Su 'vasquismo' llegó al colmo, años después, durante la misión, a escala diocesana, con participación de predicadores de toda España. Al organizar el alojamiento de los curas forasteros, él reservó su palacio para un grupo de misioneros vascos. Antes de tomar la primera sopa les hizo oír un disco con el himno vasco: el "Gora ta Gora". Es más; cuando después de la emisión de Radio Nacional comenzaban a sonar los himnos "de rigor", su hermano Emilio cerró el aparato diciendo: "En esta casa están prohibidos".

Bein batean, Sebilla'ko "Gobierno Civil"en bitartez, apaizen artean sortutako salaketa bat iritxi omen zitzaion,--Segura'ri--, eusko-apaizen aurka. Ona, Segura'ren erantzuna, aipatutako liburutik artua: "Me preocupa más el

"sevillanismo" de los curas de Sevilla que el separatismo de los curas vascos".

Eta beste bein apaiz giputz bati, gudatearen erdian, apaiz ark "el contubernio de los curas vascos con los rojos" aipatu zionean: "me preocupa mucho más el patriotismo que se ha desatado en los pulpitos de la España nacional que la posición de los curas vascos", erantzun omen zion.

Goratzarre aundiak, Julio Ugarte'k Segura kardenalaren omenez egiten dituanak. Bereala idatzi omen zion,-- Segura'ri--, "Cuando confabulados Franco y Tedeschini ... consiguieron deponerlo de su silla metropolitana. Eta baita Segura'k erantzun ere:

"Mucho le agradezco su bondadosa carta de adhesión y el recuerdo que me dedica con motivo de mi intervención en el suceso de Carmona. Mucho más hubiese querido hacer por Vds., porque comprendía que eran víctimas de un indigno atropello, mas, siquiera, tuve la satisfacción de defenderles con toda entereza dentro de mis posibilidades".

Ederki dio Julio Ugarte'k: "Yo no tengo información suficiente para juzgar de la última fase de su vida ni de los motivos que tuvieron en la Curia Vaticana para deponerle de su silla. Pero es muy sospechosa la lista de mitrados que en Yugo-España fueron quedando arrinconados: Vidal y Barraquer, Múgica, García, Segura...

Arrazoi du Julio Ugarte'k. Kezkagarria da gotzai baztertu oien zerrenda. Guk beintzat, euskotarrok, esker bereizia zor diogu Pedro Segura kardenalari. Izan ere aundia izan bait zan ark guban izan zuan uste ona.

Ezagutzen dut nik ori egiztatzeko, oraindik argitaratu ez dan gertakizun bereizi bat, Luis Egia Rezola apaiz tolosarrak neri il aurrean kontatutako txit garrantzi aundiko gertakizun bereizi bat.

Luis Egia, euskaltzale sutsua, euskal-idazle dotorea eta pentsaeraz abertzale sendoa, Sebilla'ko elizbarrutian ari izan zan urte-pillo aundiz mixiolari bezala, eta beste iñori ez bezala eman zion Segura'k bere konfiantza. Ona, orain, Egia'k jakiñarazi zidanaren muiña. (Liburua irarkolan daukat-eta, ez dakit gertakizun au bertan idatzirik daukadan, baiña, badaezbada, garrantzi aundikoa dala iduritzen zaidalako, merezi du emen ere gogoratua izatea).

Gudatekoan, apaiz euskotarren artean, iñork Franko'ri egiazko gaitz aundirik egin ba'zion, apaiz ori, Londres'ko eta Paris'ko irratietatik emandako bere itzaldien bidez, Alberto Onaindia kanonigoa izan zan zalantzarik gabe.

Orra bâ: Segura Kardenalak, gaixorik iltzer zegoanean, Alberto Onaindia'rentzat bakarrik izan zuan bere konfiantza guzia:

- Don Luis: Vd. conoce a D. Alberto Onaindia. Este paquete contiene documentación mía reservada y secreta. Se lo doy a Vd. para que se lo entregue a D. Alberto,--esan omen zion Segura kardenalak bere adiskide

miña izan zuan Luis Rezola apaizari.

Baiña zori txarrez Sebilla'ko goigotzaitegiko gela aren ingurutik entzun bide zituan beste norbaitek ere Segura kardenalaren itz aiek. Luis Egia Madrid'era iritxi zanean, zai bait zeukan an, bultziaren geltokian, Segura beraren illoba bat:

- D.Luis.--esan omen zion onek--, Me ha avisado mi tío por teléfono que me haga cargo del paquete que él le ha entregado a Vd.

Segura'ren dokumentu aiek, betirako galdu ziran!



Baita Gomá Kardenalaren omenez ere. Oso maiz aipatuko dugu, Españi'ko Elizaren arazoak aztertzerakoan, Isidro Gomá Toledo'ko goigotzai kardenala. Eta gure aipamen oiek ez bait dira geienetan aren goratarrea egiteko izango, eta, bestalde, Españi'ko gotzaiek, frankotarrek beren mendeko lurraldean egiten ari ziran ikaragarrikerien berri aratzik izan ote zuten, maiz galdetuko bait diogu gure buruari, txit egokia deritzait azken-uean jakin dedan gertakari baten berri itzaurre ontan ematea:

Gomá kardenalak, eriotz-aurreko gaixotasunean ogeraturik zegoala, Lizarra'ko Gumersindo Aita kaputxin edo buruñurduna izan zuan aitorle eta gogo-zuzendari.

Ta egun batean, aipatu omen zizkion onek Naparroa'n frankotarrek egindako jende-erailketa biurriak, eta gaiñerako gaiztakeri guztiak. Arri-arri egiñik gelditu omen zitzaion kardenala. Eta bere arritasunaren zulotik itzuli zanean, onako auxe esan omen zion:

-Aita Gumersindo: Utzi nazazu orain bakarrik. Nere testamentua birregitera noakizu oraintxe bertan, eta zure eskuetan utzi nai dut testamentu ori.

Esan da egin, egin zuan Gomá'k bere testamentu ori, eta, baita, agindu bezala, Lizarra'ko Gumersindo Aita buruñurdunaren eskuetan utzi ere.

Il zan Gomá kardenala. Il zan aren atzetik Gumersindo buruñurduna. Baiñan Gomá'ren testamenturik ez zan agertu. Buruñurdun frankozaleek lapurtua, eta seguruaski errea edo beste nolabait ezereztua izan bait zan!

Mauro Elizondo, Estibaliz'ko Abata beneditarra izan da berri oiek eman dizkidana. Berak, Frantzisko Salazar eta Jon Goia apaizek esanda jakin omen zuan ori guztia. Frantzisko Salazar, Gumersindo Aita buruñurdunaren adiskide aundia omen zan. Jon Goia Uriguen berriz, (Bilbao, Henao 54, 1º. Urrut.4233744), zori onez adiskide aundia dut nik.

Joan naiz Jon Goia'rengana, eta egin diot arazo oni-buruzko galdea.

- Egia da Mauro Aitak esan dizun guztia,--erantzun diit--. Fantzisko Salazar, Gumersindo Aitaren lagun aundia zan, eta baita nere adiskide miña

ere. Gomá'k, egin zuan testamentu ori; eta eman zion, Gumeresindo Aitari; eta Gumersindo Aitak euki zuan il zan arte Goma'ren testamentu ori. Baiña Gumersindo Aita il zanean, Gomá'ren testamentu ori norbaitek lapurtua izan zan. Neroni ibillia nauzu, buruñurdunen konbentuz-konbentu testamentu orren billa. Alperrik. Ezin izan dut iñon, ez testamentua bera, ez testamentu orren berririk jaso. Testamentua, buruñurdunek beraiek lapurtua ta ezereztua izan zan, ezpairik gabe, frankozale amorratuak bait ziran orduan buruñurdunen zuzendari guztiak.

Zori txarra izan dugu euskotarrok Segura'ren dokumentuak eta Gomá'ren testamentua galdu izatearekin.



Eugenio Pacelli Estadutzako Idazkari Kardenalaren Escutitz bat.  
Garrantzi aundikoa deritzait, Erroma'k Españi'ko gudatekoan Errepublikaren Jaurlaritzari nola aterik itxi ez zion adieraz- teko, Mauro Elizondo Estibaliz'ko Abatari zor diodan eskutitz au emen argitaratzea. Gutun au, Españi'ko gudua aztertzen dutan atalean egon bear luke, baiñan atal ori eta liburu guztia irarkolan osoturik daukatalako, emen, itzaurrean, emanen dizut:



SECRTERIA DI STATO DI DUA SANTITA -. Nº 5169/37-. Da citarsi nella risposta.

DAL VATICANO, 29 dicembre 1937.

Ill.mo y Re.vmo Signore,

Me è regolarmente pervenuta la pregiata lettera 4 corrente mese con la quale la S. V. Ill.ma e Rev.ma informava circa il recente suo colloquio con codesto Ecc.mo Ministro di Giustizia, Signor Irujo, in merito alla proposta apertura al culto publico di qualche Chiesa in Barcelona.

Il Santo Padre, informato della cosa ne ha preso conoscenza con vivo interesse, ed ha espresso la Sua profonda pena per la rilassantezza dei costumi, che, come la S. V. rivela, va purtroppo accentuandosi "en progresión dolorosísima" tra codesti cari fideli pel prolungarsi della totale assenza del culto publico.

Qualora l'attuazione della proposta in parola contribuisse ad ovviare, in parte almeno, il lamentato inconveniente, la cosa non potrebbe che tornare di grande consolazione al cuore del santo padre, che tanta sollecitudine ha per il bene spirituale di codesti dilette figliuoli. Occorre, però, come è ovvio, che si abbiano al risguardo le dovute garanzie: come, ad esempio, che tutti i fideli, non solo i Baschi, possano liberamente frequentare dette Chiese;

che sia garantito il tranquillo esercizio del culto medesimo e che siano prese inoltre le necessarie misure per impedire che tale esercizio fornisca l'occasione o il pretesto di nuove vessazioni contro il Clero e codesti già tanto tribolati fedeli.

Voglia pertanto la S. V., che essendo sul luogo dispone degli elementi necessari per formarsi un'idea esatta della situazione, ponderare "coram Domino" la delicatissima questione, e facendo uso della podestà diocesana ordinaria de cui è investita, prendere al riguardo quei provvedimenti che crederà possibili ed opportuni per il maggior bene delle anime affidateLe.

L'Augusto Pontefice con cuore paterno è più che mai vicino in quest'ora di durissima prova a codesti diletti figli che soffrono. Egli ne conosce le tribolazioni e la Sua più grande sofferenza è di saperli, in mezzo a tante pene, sprovvisti sovente di quei conforti celesti che solo la nostra Santa Religione può dare.

Sua Santità eleva tuttavia fiduciosa la mente a Dio benedetto pregandoLo affinché, nella Sua infinita bontà e misericordia, si degni de venire in aiuto di tanti cari fedeli che soffrono per il Suo Nome e per la Sua legge; invita codesti fedeli a moltiplicare le loro fervide preghiere per ottenere dal Divino Redentore che cessi finalmente tanto male, e nella paterna sollecitudine per tutte le anime affidateLe dalla Divina Provvidenza implora la misericordia Divina anche su coloro che oggi così crudelmente perseguitano la Chiesa.

Con tali sentimenti il Santo Padre invia di gran cuore a Lei, a codesti cari Sacerdoti ed ai fedeli tutti, quale auspicio di tempi migliori, la particolare Sua Benedizione Apostolica.

Profitto volentieri dell'incontro per raffermarmi con sensi di distinta e sincera stima

di V. S. Ill.ma e Rev.ma

Aff.mo per servirLa

(izenpena eskuz)

E. Card. Pacelli

Euskeraz:

"Bartzelona'n gurketa iarerako eliz bat edo beste iriki aal izateko aurkezpenari-buruz, Irujo Justizi-Ministro Jaun Txit Argiarekin izan duzun alkarrizketa agertzen didan, il onen 4'eko zure eskutitza bere bidez iritxi zait.

Bere mamiz jabeturik, arreta aundiz artu du Aitasantuak auzia, eta zuk diozunez, gurketa-iriki-oreren-falta luzatuz jarraitzea- ren erruz kristau maite oien artean era ain mingarrian aunditzen ari dan oituren zabarketaz, agertu nai izan du bere biotzeko min sakona.

Baiñan itez aurkeztu dizutena egi biurtzeak gaitz ori zerbait beintzat gozatzeko egokia izango litzakelako, ori, bere seme maite oien gogosasunaz ain kezkatuik dagoan Aitasantuaren biotzarentzat pozgailu



sendoa izango litzake.

Alatagutziz, berez gauza argia dan lez, aurretik, bearrezkoak diran eskiertasunak artu bearrak dira: adibidez eliz oietaz kristau guztiak, eta ez euskotarrak bakarrik, iareki baliatu aal izatea, agintarien aldetik gurketa pakean egin aal izango dalaren itza eta elizkizunak apaizen aurka eta ain zigortuak izan diran kristau oien aurka saminketa berrietarako aitzaki eta iturri izango ez diralaren itza.

Zuk, or bertan zauden ezkeru, orko egoera ongi ezagutzeko bearrezkoak diran xeetasunen jabe zeralarik, "Jainkoaren aurrean" arazo arras kezkgarri au auznartu ondorean, legez dagokizun, eta baduzun, elizbarruti-barrurako aalmena erabilliz, artu itzezu arlo ortan zure ardurapeko animen onerako izan daitezkeala iduritzen zaizkizun, eta zure eskuetan daitezken, erabaki guztiak.

Aitasantuaren biotza, larritasun-une ontan mindurik aurkitzen diran kristau oiengandik iñoiz baiño bertago dago: Ezagutzen du Kristau oien egoera garratza, eta bere samiriik aundierna, kristau oiek, gure erlijio doneak bakarrik eman dezakean gogo-pozez erantzirik egon bearrean aurkitzen dirala jakitea da".

Altagutziz Jainko bedeinkatuagan ipintzen du Aitasantuak bere gogoia, eta Aren ize eta legearen maitasunagaitik oiñazeturik bizi diran ainbeste kristau maiteri Bere neurrigabeko ontasun eta errukiz laguntzera etorri dadila daskaio; kristau oiei berriz, orrenbeste gaiztakeriren amaia Jainko Gaizkalleagandik lortzearren otoizketa sutsuak ugaritzeko arrendagie; eta, guraso lez, Jaikoaren Ardura Orokorrak zaintzapean ipiñi dizkion animei dien maitasunak eraginda, dei-dagio Jainkoaren errukiari Eliza ain okerki zigortzen ari diranen alde ere.

Gogoeta oien araura, zuri, apaiz maite oiei eta kristau guztiei, onspen bereizi bat bidaltzen dizue Aitasantuak denbora obeen adigarri

Nik ere gogo onez baliatu nai dut gure artueman ontaz zuri egiazko adiskidetasun bereizia eskeintzeko".



Pacelli, geroxeagoko XII Pio, erretolika-zale portitza izan zan beti. Orrela dago, erretolika-orbelez jantzia, bere eskutitz au ere. Alatagutziz, ikuz dezagun orbel orotik gutun ori, eta Aulki Donearen zabaltasuna ezagutzeko arras laguntza aundikoa izango zaigu.

José María Torrent, Neri'ko Felipe'ren Anaidiko oratoritarra, Bartzelona'ko Elizbarrutiko Bikario edo Ordezkarri Orokorra izan zan. Irujo berriz, Errepublikaren Jaurlaritzan Justizi-Ministro, eta, orregaitik, bere ardurapean aurkitzen zan Elizari zégokioken guztia.

Irujo'ren lenen-lenen leia, Errepublikaren agintepeko lurraldeetan

berriro elizak irikitzea eta Elizarekingo arazo guztiak era paketsuan konpontzea izan zan.

Ortarako, Bartzelona'n bait zegoan Jaurlaritza, bereala asi zan Torrent ordezkariarekin arremanetan. Ez zion prailletxo onek geiegi lagundu. Bartzelona "gorrian" kristau-gurketa iareari ostera bide-emateko arazo ontan, aski txoraa iza bait zan beti bere jardunkera. "Txoraa"; ez dut itz egokiagorik aurkitzen. Berak, "Erroma'tik jasotako aginduen erara" zebillela esan oi zuan.

Irujo'k bere asmoak azaldu zizkionean, arek, Erroma'rekin itzegin bear zuala erantzun zion. "Opuso Ud. a estos propósitos la necesidad de recibir del Vaticano instrucciones previas a la reapertura de una iglesia". (Irujo'ren eskutitza).

Torrent Ordezkariak Batikona'ra egin dako galdearen erantzuna dugu beraz, irakurri-berri duzun Pacelli'ren gutun ori.

Dirudianez, Irujo'ren asmoa, eliz bat irikiz astea zan, ikusi dugunez "una iglesia" esaten bait du berak, eta, "la iglesia", goraxeago eskutitz berean. Eliz bat izan zan beraz Torrent Ordezkariak Aulki Doneari egindako gutunaren muiña.

Poz aundia damaigu, Pacelli'ren eskutitz ortan Aulki Donea askoz baikorragoa agertzen dala ikusteak; Torrent'en eta Irujo'ren "eliz bat" ura, una iglesiaura, "qualche chiesa", eliz bat edo beste biutzen bait du, laister XII Pio izanen zan eta orduan Estadutzako Idazkari zan Eujenio Pacelli kardenalak; eta gutun berean, gutxitasunaren adierazle dan "bat edo beste" ori azturik, lerro batzuk beerago ezpairik gabe pluralitate edo ugaritasun-erak erabilliz, "chiese", ots, elizak, idatzi bait zuan: "che tutti i fideli, no solo i baschi, possano liberamente frequentare dette Chiese", "kristau guztiak, ez euskotarrak bakarrik, eliz oietara askatasun osoan joan daitezkeala".

Itxuraz, Torrent ordezkariak ez zion Aulki Doneari gauza bere osotasun guztian aurkeztu. Irujo'ren asmoak, berak anitz tokitan esanik ita idatzirik utzi zuan bezala, bir-iriki nai zituan eliz aiek ez bait ziran -- leendik ere eliz bat Bartzelona'n irikirik bazuten -- euskotarrentzat bakarrik izango, kristau guztientzat baizik. Eta Españi'ko Errepublikaren lurralde guzian; ez Bartzelona'n bakarrik. Eta, -- au ozen esan bearra

da--, berekin zuan ekintza ortan Errepublikaren Jaurlaritza osoa. Alare ez zuan Errepublikako Jaurlatritzaren Justizi-Ministroak ezer lortu.

Zergaitik?

Ez Españi'ko Errepublikaren erruz.

Torrent ordezkariaren jardunkera "de actitud fría, hasta molesta" izan zala diosku Onaidia'tar Alberta'k.

Torrent Ordezkariak ordea, Erroma'ren kerizpean ipintzen zuan bere jardunkera. "En una ocasión me dijo que seguía en lo posible,



instrucciones recibidas de Roma, a saber, de quien fue subsecretario de Estado, monseñor G. Pizzardo, creado cardenal en 1937", idatzi zigun Onaindia'k berak.

Ikus ordea zer esanten digun Pizzardo'ri-buruz, Salvador Rial Tarragona'ko Ordezkarri Orokorrak, arazo auetaz arekin Erroma'n itzegiten egon ondorean: "A este prelado no le cabía duda de que llegar a la normalización de la vida religiosa, contando con la tolerancia del Gobierno y la asistencia del pueblo, era una ventaja y una necesidad. No se explicaba bien cómo hubiera sacerdotes ni autoridades eclesiásticas que creyeran que eso podía no ser conveniente" (Onaindia'ren liburutik artua).

Era berdiñean mintzatu omen zitzaion,-- Rial Ordezkarri Orokorriari --, Tardini, Estadutzako Idazkaritzan Arazo Larrietarako Idazkari zana. "Mons. Tardini volvió otra vez a manifestarme su gesto de extrañeza considerando el motivo de la consulta". Au izan omen zan Tardini'k eman zion agindua: "Recoger todas las posibilidades de normalización de la vida religiosa. Abrir capillas privadas, semipúblicas, iglesias, bautizar, confesar, autorizar matrimonios y otras actividades". Bigarren aldiz diosku Torrent Ordezkarriak: "Mons. Tardini se quedaba extrañado de que esto tuviera que consultarse".

1938'ko udazkenean egin zuan Rial'ek Erroma'runtzko ibillaldi ori.

Jite ulerkaitezko gizakumea, benetan, Torrent oratoritarra. Irujo ministroak apaizei babes-txartel bat eskeiñi zienean, muzin egin zion, txartel orri. Bera ordea, C.N.T.-ko karnetarekin ibiiltzen zan.

Bere jokaera zuritzeko, Erroma eta Pizzardo aipatu zizkion Onaindia'ri. Baiñan Erroma'ri dagokionez, ango autoritaterik aundienak, Pacelli estadutzako Idazkariak, argi aurkeztu digu, irakurri duzun gutun orren bidez, bere eta Aitasntuaren oldozkera. Baita Rial Tarragona'ko Ordezkarri Orokorrak Tardini'rena ta Pizzardo ber-berarena.

Amabiren bat illabeteen epean aburuz aldatu ote zuan bâ Pizzardo'k?

Edota, Pizzardo'rengandik zuzenean ez baiña beste bitarteko baten bidez iritxi ote zitzaion Torrent'eri, bitartekeri oietan zentzuz aldaturik, Pizzardo'ren iritzia?

Ez zan beintzat, Tarragona'ko Rial'en antzera, gure Torrent zuzenean Erroma'ra joan, naiz ortarako Irujo'k Jaurelaritzatik bidea irikiko ziola, naitanaiez bera ziur egon bear.

Zoritarrez, ez zuan Irujo'k ere, Jaurlearitzatik Jaurleri- tzara, bikario orokorren gaindik zuzenean Aulki Donera jo.



Irakurle Batzuen Iritziak. Txit-onuragarritzat dauzkadan jaun ospetsu batzuei eskerrak emateke ezin izango dut itzaurre au bukatu.

Eskerrikasko,

- Telletxea'tar Joseba Iñaki edestilari ezagunari. Lamennais eta bere denborako Aitasantu izandako XII Leon, VIII Pio, eta XVI Gregorio'ri buruzko arazoak oraindik arras eztabaidatuak bait dira, eta aski illunak beti, Telletxea'ri eman nion, aztertu zezan, nere "DENBORA BERRIETAKO ELIZA" deritzan libururako, arazo oietaz idatzirik neukana. Jakin beza poz aundia eman zidatela bere oniritzi beteek.

- Ansorena'tar Joseba Koldobika Gazteiz'ko apaizgaitegian irakasle bikaiña izandako apaiz jakintsuari. Bi gutun bidali zizkidan. Aurrenekoa, "San Iñazioaren Denborako Eliza irakurri zuanean, eta bestea, "Denbora Berrietako Eliza" irakurri ostean. "Demokraziaren Denborako Eliza" irakurtzeko, ez zion eriotzak astirik eman.

Euskalerriko apaiz jaunek ondo dakite zenbateraiñokoa zan Ansorena'ren kultur oparoa nik eskuartean darabilzkidan arazo eta auzi auei-buruz. Ortik, nik aren goratarrei ematen diedan balio berezia:

"Zorionak, Bixente! Egia esaten dizut. Gutxitan irakurri izan det liburu bat zure ori bezin gustora". "Baduzu gogaiak "plastiko" biurtzeko abilitadea. Orrenbeste urtez irakasle erakusten ibilli izatetik datorkizu abilitade ori". "Teolojiaren eta filosofiaren zoko izkutuak ederki ulertzeko eran argitzen dituzu. Filosofiaren edesti bat idazteko egokia zerala iduritzen zait. Lan au bukatzean zergatik ez dezu beste lan ori asten?"

- Labayen'dar Andoni'ri. Nork ez du euskal-elertizaleen artean Labayen ezagutzen? Adiskide dut. Orregaitik, ez ditut nere liburu auei-buruzko aren iritzi eta aburuak agertuko. Geiegizkoak iruditzen bait zaizkit. Adiskidetasunak sortâraziak, seguruaski!

- Zubikarai'tar Joseba karmeldarrari. Lengo iru liburuetan bezala oraingo ontan ere egoki lagundu bait di nere "lumaren irristaketak" zuzentzen.

- Garnika'tar Xabier gure Lanbide-lkastetxeotako irakasle yayoari, liburu onen eraketan eragaillua erabiltzen ain ederki erakutxi didalako.

- Arrinda'tar Anes edestiaurrelari ta jakintsu ezagunari, Donosti'n nere "Denbora Berrietako Eliza"z egin zuan aurkezpen bikaiñaren truke. Euskerazaintzako Anes Arrinda'tarra eusko-erlijioari--buruzko gaietan Doktorea da, eta baditu gai ortaz idatzitako liburu ederrak. Garrantzi aundikoak ditugu beraz "aurkezpen" artan eman zizkigun aburuak. Irakurri itzezu. Ondo merezi dutelako, emen, jarraian, ematen bait dizut gure euskerazain ospetsuaren "Aurkezpen" ori:



Bibliografia. Eskuetara damaizudan liburu berri au borobiltzeko aurrean izan dudan idaztidiaren aipu bereizi bat emen egitea, bearrezko gauza

izango dut noski.

Eliz-Edesti liburu orokorrak, nere edesti-bilduma onen bigarren liburuaren itzaurrean aurkeztu nituan.. Laugarren au eratzeko, irakurriak ditut Gazteiz'ko Apaizgaitegiko Liburutegira etorri diranak, edo beintzat interesgarriak iduritzen ziztzaizkidan altal bat edo bestean azertuak.

Geiena erabilli ditudan idaztiak, oraingo ontan, Aldizkariak izan dira, Gazteiz'ko apaizgaitegiko liburutegi ederrera mundu guztitik ain ugari etortzen zaizkigun aldizkariak.

Liburuetatik, idazle auen lanak aipatu nai dizkizut bereiziki: - Gregorio R. de Yurre'renak, danak. Batez ere, "El Liberalismo" "El Totalitarismo", "El Marxismo", "Etica", eta "Lecciones de Filosofia Social".

- Miguel Maura'ren "Así cayó Alfonso XIII". Liburu interesgarria. Bere egillea, Miguel Maura, 1931'an Españi'n konbentu ta elizak erreak izan ziranean, Barne-Auzietarako Ministroa zan Errepublikaren bitarte-bateko Jaurlaritzan.

Liburu ontan ederki zuritzen du Miguel Maura'k bere burua, erreketara ura eragozia ez izatearen errua jaurlaritza artako Lendakariari eta bera ez gaiñeko beste ministro guztiei boteaz.

Baleike, gauzak, arek dion bezala gertatu izatea. Baiñan... 1966'ean Miguel Maura'k liburu ori argitara eman zuanean, jillak ziran ordurako Lendakaria eta beste ministro jaun aiek danak!

1949'an il zan Alcalá Zamora, bitarte-baterako Jaurlaritza aren Lendakaria. 1940'ean Azaña. 1949'an Lerroux. 1946'ean Largo Caballero. 1949'an Fernando de los Ríos. 1954'ean Alvarez Alborno. 1950'ean Casares Quiroga. 1962'an Prieto. Urte ortan bertan, 1962'an, Martinez Barrio. Eta 1961'ean, Nicolau D' Olwer "azienda" edo "laterri-diru-zaintzako" ministroa. Azkenean, beste guztien atzetik, Maura bera il zan 1971'n.

- Gomá y Tomás Kardenalaren "Por Dios y por España". Bere itzaldi eta idazlan batzuen bilduma.

- "Juan Iturralde"ren "El Catolicismo y la Cruzada de Franco". Iru liburuk osotzen duten idazlana; edestilari orok, Españi'ko laterkide-arteko gudu ankerraren izkutukiak ezagutu nai ba'ditu, naitanaiez irakurri bear duan liburua. V.Palacio Atard edestilari frankozaleak berak "Diccionario de Historia Eclesiástica de España" deritzan iztegian, "Iglesia y Estado" izeneko atalean, iru liburu auek "documentada obra" dirala diosku, eta ez da Iturralde'k idatzi zuanari ezertan akatsik billatzera ausartzen.

- Alberto Onaindia Kanonigoaren "Hombre de Paz en la Guerra". Auxe bai dala edestilari guztiek sakonki azertu bearko duten idaztia!

- P. Altabella'ren "El Catolicismo de los Nacionalistas Vascos". Euskotarron aurka idatzi dan gauzarik nardagarriena..., eta parregarriena; alakoak bait dira bertan,-- Erroma'ko Kepa Deunaren Jauretxe Nagusian kanonigo zan apaiz onek--, botatzen dituan izugarrikeriak.

- Pio Baroja'ren "Judíos, Masones, Separatistas y Demás Ralea",-- ori dala uste dut bere izen burua--, ezin izan dut aurkitu. Baroja'k guda asi ondorean Franko'ren omenez idatzi zuan liburu ori, lendik zure liburutegian ez ba'duzu, ezin idoro izango zuk ere. Pio'ren illobek bildu bait zuten edizio osoa.

Aldizkariei dagokienez berriz, badu Gazteiz'ko apaizgaitegiaren liburutegiak akats aundi bat: Geiegi dirala jasotzen dituanak: ia-ia mill'ardi bat! Eta danak interesgarriak. Orixe bera esan zigun Congar teologilari frantziar txit ezagunak Liburutegi ura ikusi zuanean:

"Ederra, oso ederra guztia. Baiña aldizkari geiegi artzen dituzute. Denbora asko galduarazi lezaiokete lan bereizi bat egitera datorrenari. Zaila bait da aldizkari oien deiari erantzun gabe, nor bakoitza, soilki dakarren lanari mugatzea".



Euskotarron aurkako bekaizkeritxoa. Gure entziklopedi ugari bikaiñen artean aipu bereizi bat egin nai diot, nere lengo liburu artan ere aipaturik utzi nuan "Diccionario de Historia Eclesiástica" deritzan iztegi españiar españizaleari.

Iztegi orren II liburuan, "Iglesia y Estado" deritzan atalean aurkituko duzu Palacios Atard'ek idatzia, Españi'ko Bigarren Errepublikaren eta onen ondorengo Laterkide-Arteko Gudu ankerraren edestia.

Aipatzen du, jakiña, eta gustora gaiñera, Mujika eta Olaetxea gotzaiak eusko-abertzaleen jardunkera gaitzetsiz idatzi zuten pastorala. Baiñan gero pastoral artaz Olaetxea berak esandakorik eta Mujika'k idatzitakorik ez du aipatzen.

Aipatzen du Iturralde'ren "El Catolicismo y la Cruzada de Franco" ere, baiñan... ez du bertatik ezertxo ere aurkezten, naiz liburu ori "documentada obra" dala aitortu.

1933'ko auteskundeetan eusko abertzaleak ez ziran Españi'ko katolikoekin alkartu. Zergaitik? "Porque no podían esperar concesiones políticas en su pretensión a un gobierno autónomo que fuera primer paso hacia la creación de un Estado Vasco independiente". Eta, errua, beren eskubide oiek eskatzen zituzten abertzaleena dala dirudi Palacio Atard'en idazlan ortan; ez, eskubide oiek ukatzen zizkieten Españi'ko katolikoena.

Danadala, euskotarron elburu nagusia zer dan Palacio Atard'ek ederki ulertzen duala aitortu bearra dugu.

Ez ain ederki, eusko-abertzaleak politika eta erlijioa nasteko, ez dirala Españi'ko katolikoak bezain zaleak. Onela jarraitzen bait du: "Semejante acción política quería respaldarla el Partido nacionalista vasco con la creación de una "Iglesia Vasca" desligada jurisdiccionalmente de la "Iglesia

Española", es decir, no dependiente del Primado de Toledo. Las tentativas para crear la "Iglesia Vasca" autónoma se tradujeron en gestiones llevadas a cabo cerca del nuncio de Madrid y en los círculos vaticanos y, sobre todo, en la fracasada misión de José Antonio Aguirre y otros diputados en Roma (enero de 1936). Sin embargo el Vaticano no dio audiencia a tales pretensiones, en las que razones de humana política querían utilizar a la Iglesia como instrumento. En todo caso los católicos del Partido Nacionalista quedaron marginados desde entonces de la línea seguida por los otros católicos españoles de la derecha con respecto a las instituciones republicanas".

Tarragona'ko Vidal y Barraquer goigotzaiak ere asmo berak zerabilzkiala, izkera legunagoz aitortu ondorean, Gomá Kardenalak txosten batean idatzitako itzak damaizkigu Palacio Atard onek:

"El hecho de que coincidan ciertos esfuerzos en el orden eclesiástico con los que se hacían en el orden político en algunas regiones con daño de la unidad nacional", omen zan Gomá kardenala geienik kezkatzen zuan gauza. (Azpimarraketa nerea da).

Nor ote zan orduan bere politikaren onturrerako Elizaz baliatu naiean zebillena? Agirre Lendakaria? ala Gomá Kardenala?

Gure Palacio Atard au bezala, Españi'ko apaiz edestilari danak mintzaten dira ederki Manuel Irujo'ren jardueraz. Ona aietako baten aburua:

"Irujo trató por todos los medios de contener las violencias e intentó convencer a sus colegas de la necesidad de cambiar de política con respecto a la iglesia. Irujo era persona de reconocido prestigio por su catolicismo militante y su honradez personal, aunque pudo obtener muy poco de sus compañeros de gabinete no obstante las constantes gestiones realizadas para conseguir el acercamiento al Vaticano" (Cárcel Ortí).

Ez da egia azkeneko itz oien bidez Cárcel Ortí onek adierazi nai diguna. Argi utzi du bâ arazo oietan buru-belarri sarturik ibilli zan Onaindia'tar Alberta kanonigo ospetsuak, Irujo'k ezer lortu ez izatearen errua ez zala "de sus compañeros de gabinete" izan. Ezta Batikano'ko buruzagiena ere. Errua, soilki, Bartzelona'ko eliztarren batena izan zala!, itxuraz beintzat.

Baifian, ortaz, Palacio Atard'ek deus ez zekiala dirudi. Entzun eiozu berriro:

"En efecto, en agosto de 1937, siendo ministro de Justicia del gobierno Negrín, D. Manuel de Irujo, del partido Nacionalista Vasco, trató de establecer contacto con la santa sede a través del cardenal Verdier, arzobispo de París. Un emisario personal de dicho cardenal, monseñor Tarragó, hizo un viaje informativo por la España republicana en septiembre-octubre de 1937, pero no tuvo éxito el intento. Tampoco logró el gobierno

republicano, más adelante, que el vaticano enviara a monseñor Fontenelle en viaje de información como se había prometido. Por su parte, los católicos de la Unión democrática de Cataluña tantearon el restablecimiento oficial de la Iglesia en Cataluña, gestionando en 1938 que fuera nombrado un administrador apostólico en la diócesis de Tarragona, para lo que estuvieron en tratos con el cardenal Vidal y Barraquer en Roma y buscaron el apoyo del cardenal Verdier en París. Pero tampoco lograron su propósito, no obstante el complicado montaje de intrigas que se hizo en torno al propósito". (Azpimarraketa, nerea).

Azpilan izkutuak,--"intrigas"--, bai noski,izan ziran, eta ugari, zori txarrez, arazo guzti artan. Baiñan "nork ez jarriak", Onaindia'tar Alberta'k anitz argi utzi digun gauza da, istillu oiei dagokien atalean aurkeztuko dugun bezala.

Egia bait da asmo on aiek ziturik emateke igaro zirala, baiñan ez, "Diccionario de Historia Eclesiástica de España" k sinistarazi nai digun bezala,-- Irujo'k eta Onaindia'k eskuartean erabillitako ekintzei dagokienez beintzat --, Jaurlaritza "gorriaren" erruz, eta askoz gutxiago, beti besozabalik eta beti Errepublikarekin pakeak egin naiean egon zan Aulki Donearen erruz. Eskubitarrak izan ziran eragozpen-ereilleak, bere tokian ikusi aal izogun dugun lez.

Ema'iogun bakoitzari berea. Naikoa dute "gorriek" egin zituzten gaiztakerien errua. Gaiztakeri aiek, -- zuriek egindakoen antzera --, ez bait ziran, ez orixe, nolanaikoak izan. Eta naikoa du Errepublikaren Jaurlaritzak, Erroma'rekin pake osoak len-bait-len egitea, politikaren aldetik ere arras konbeni zizaion gauza zala ikusi ez izatearen errua.

Bein bakarrik damaigu "Diccionario" orrek Onaindia'ren izena. Ikus nola:

Aulki Donearen eskariei erantzunaz, eusko-abertzaleen eta frankotarren artean pakea lortzeko, zerbait egin nai izan omen zuan Gomá kardenalak 1937'an. "En su informe a la Asamblea de Metropolitanos en noviembre de 1937, el cardenal Gomá comunicaba su intervención en el asunto y la actitud positiva de las autoridades nacionales, pero hacía notar también la actitud del influyente canónigo D. Alberto Onaindia, exiliado en San Juan de Luz, que había manifestado que los nacionalistas vascos ni podían ni debían rendirse". (Ni izan naiz, berriro, azpimarratzaillea).

Baiñan Gomá'k esan ez zuana,--edo esan ba'zuan--, Palacio Atard'ek oroitzen ez diguna, auxe da: Bere "autoridades nacionales" aiek ez ziotela Eusko-Jaurlaritzari deus berririk eskeintzen; ezer-ezen truke eskatzen ziotela, izkilluak utzita aien esanera burua makurtzea.

Gomá'k aipatzen duan Onaindia'k eman-edo zualako aolku ari buruz zer esan? Gomá'k ez zezakeala aolku ortaz 1937'an ezer jakin. Ez du berak ere albiste ori nondik jaso zuan esaten. Franko'ren propaganda-



erakundeetatik, seguruaski.

Beste onako au ere irakurri aal izango duzu "Diccionario" ortan: "Las relaciones diplomáticas entre el gobierno republicano y la santa sede quedaron rotas". Ez da egia. Bai, ta ez. Erdi-egia. Gezurra baiño okerragoa. Erdi-egia. Legearen aldetik Errepublikak ez bait zituan beñere arreman oiek ukatu. Ezta Aulki Doneak ere.

"DENBORA BERRIETAKO ELIZA" LIBURUAREN AURKEZPENA  
(A.Arrinda'k)

Donostia, 1987-IV-24.

Andre-jaunok:

Liburu baten aurkezpena egiteko bildu gera gaur emen: Denbora Berrietako Eliza (Argikuntza, Jakintza Berriak, Iraultza) du izenburu idazti onek, bosteun eta berrogei ta amabi orrialde aundi-beteak osatzen dutena.

EUSKERAZAINTZAKO illeroko azken billeran aukeratu ninduen aurkezpen au zuei egiteko.

Bixente bezala ni ere apaiza naiz, eta idazlea.



Kilo bateko liburu mardul au ez da bakarra, sorta baten bigarrena baizik. San Iñazoren Denborako Eliza du izen lenengoak, eta laureun eta ogeita amar orrialdek osatzen dute. Urtebeteko epea bien artean, eta egillea, berbera.

ELIZ-EDESTI-SORTA saillekoak dituzu biak eta beste batzuk ere laister agertuko zaizkigu egille berberaren eskutik sail onetan.

EUSKERAZAINTZAK argitara ditu biak eta baditu beste idatzitzi batzuek ere argitara emanak.



Nor da liburuaren egillea? Latiegi'tar Bixente (Euskerazain-tzakoa) dio idaztiaren ezalak.

Bixente izen aukerakoa dezu. Irugarren gizaldiaren aizken aldeko martiri euskaldunaren izena. Diokleziano'ren erasoan erail zuten Cesar-Augusta'ko diakono zalarik. Bere gotzaia, "ignarus linguae", "mintzaira gabekoa" zalako, diakono Bixente erabiltzen zuan itzultzaille, Jaikoaren itza erriari banatzeko.

Euskalduna zan Bixente ura, gurea bezala. Gurea, Latiegitarra degu, Euskalerrian sustraitua. Errotik euskaldun. Ez edonun errotua, Gipuzkoa'n baizik; Tolosa'n baizik.

Amabost milla urtetik onerako sustrai luzeak ditu euskaldunak

Europa'n. Bere mintzairak ere baditu millaka batzuek. Orduko Franko-Kantauri Kultura begien aurrean ipiñi ezkeroz, auxe ikus-ten degu:

Asturias, Santander, Bizkaia, Gipuzkoa, Naparroa, Pirenemendiak, eta Garona ibaitik gora, Dordoña'arteko tartean, eunka daudela leizeak gure arbasoen egoitza izanak. Oien arteko askoetan utzi dizkigute marrazki margodunak eta xixillatuak, geure aurrekoen kultura bereizia osatzen dutenak.

Garai bateko Europa'ren "substractum" izana da kultura au.

Gure gaurko erri zaarra, kultura onen ardatzean dago, ertz zabalak galdu ba'ditu ere. Asturias'tik Bizkai'ra eta Naparroa'tik Dordoña'ra bitarteko egalak dira galdu dituanak. Alaz ere dirau oraindik erriak kultura zabal orren biotzean.

Ez du nortasunik galdu mintzairari eskerrak.

Mintzairak, ordea, oraindik Erri zaar onetan diraunak berak ere egalak galdu ditu eta erriaren biotzean kokatu da. Euskalerrria Franko-Kantauri kulturaren biotzean eta ardatzean ba'dago, Tolosa, biotz orren biotzean eta ardatz orren ardatzean daukazute. Ez da bada arritzeko Tolosa-ingurukoa ba'da Euskerarik jatorrena.

Bizkaiak, Arabak, Naparroak, Lapurdik, Zuberoak, bostak dituzte beuren egalak erderaren lurraldeekin bat eginda. Gipuzkoa, berriz, besteen erdian gelditu da gordeta mendeetan zeär, guztien biotzaren antzeko. Baiña guzti oien ardatzetik ardatzena Tolosa-ingurua da: Tolosa'tik Aralar-aldera. Ez da ziorik gabeko gauza Orixe ingumari ortan sortua izana, Euskeraren gordelekurik ziurrena eta garbiena toki ori izan bait da beti.

Bazuten, beraz, arrazoirik Azkue eta bere Euskaltzaindiko lagunak Gipuzkoa'ko euskera batasun-biderako aukeratu zutenean... Orain, berriz, ez dakit nungo aizeak eman-da, iturri garbienekoa eta jatorrenä utzi eta egaleko euskera bat artu dute euskera guztien batua egiteko...



Esandako onek danak onera datoz: Bixente euskaldunak, Latiegitarrak, iturburu garbienean edan duela bere euskera. Eta euskera ori amaren bularretik egoski zuela.

Gertakizun onek izugarritzko abantailla ematen dio gizaki euskaldunari: buruko estrukturak eta moldeak euskaldunak izatea; alegia. Euskeraz pentsa eta euskeraz mintza. Ez dago bien bitartean aldaketarik: pentsa-moldea euskalduna, eta orreri dagokion mintzaira ere bai. Eta, ori, nekerik gabe lortua amaren magalean.

Bixente'ri ez zaio, ainbeste eta ainbeste euskaldun berriei gertatzen zaiena gertatzen: erderaz pentsa, alegia, eta euskerazko itzez mintza. Tradutore traditore gertatzen zaie beren barrena, euskerarik menperatzen



ez dutelako. Bai, bai, kursillo pilloka daukete egiña; agiriak, berriz, kartera-bete; baiña irakurri itzazu oien idaz-lanak eta, begien aurrean erderazko idazkia ez ba'dezu, lanak izango dituzu euskerazko itzulpenak ulertzen.

Gaurko egunez jende asko bizi da euskeraren errapetik. Iragarkiak lurralde osoa bete dute bi izkuntzetan: erderaz eta euskeraz. Ez du iñfortxok euskerazkorik irakurriko eta, orregaitik edo, iragarkia ipintzen duanari berdin zaio ulertu-erreza edo ulertu-gaitza izatea. "Legea betetzen da" euskeraz ipiñi ezkerro; ondo ala gaizki, berdin da, legea bete ezkeroztik; orrek, "legea betetzeak", du nunbait orrelako garrantzia.

"Legea bete", ordea, euskaldunentzat zera esan nai du, legearen azala betetzea, mamirik betetzen ez ba'da ere.



Gure-arteko gudatean nere amuna eta bere lagun Gergori, biak oso gizenak, Lekeitio'ko ingurumarietan zeuden, mendi-bide batean, automobil baten barruan. Gerturatu zaie miliziano taldetxo bat galdezka:

- Qué hacen ustedes, señoras?

Gergori, Amoroto'ko alaba euskalduna zan eta onela diotza nere amumari:

- Berba eixu, Pillipa...

Baiña Pillipa'k berbarik bez,--esaten zidan andik denboratxo batera Gergori'k.

Pillipa'k berba egiteko asmorik ez zuela ikustean, bera asi zan:

- Este señora de hijo de auto; no poder ser andar.

Miliziano aien algarak

- Qué dice, señora?

- Facil, facil; este, señora de, hijo de, auto...

- Aiek mutil tontuak ziran,--esaten zidan gero Gergori'k--. Ez eben ezer be ulertzen

Gergori'rentzat arazoa oso garbia zan: Au (este) andrearen (señora de) semearen (hijo de) automobilla (auto). Este señora de hijo de auto ser". Errezago esan ezin. Euskeraz pentsa eta euskeraz itz egin berba erdaldunekin. Gaur eguneko zenbait itzultzaileek orixe egiten dute, baiña alderantziz: erderaz pentsa eta erderaz itz egin, berba euskaldunekin.



Latiegi'ri ez zaio orrelakorik gertatzen, naiz ta dotoretasuna duen apaiza izan, irakaskintzan beti ibilli euskeratik at, eta izkuntza askoren jabe bere burua egin bere bizian. Oiek danak ez diote euskerarik galdu-arazi, azpiko oiñarriak eta beeko solairua euskera jatorrez egiña duelako.

Gaiñera, Euskera zaindu du. Euskerari ekin dio. Eta Euskerazaintzako sortzaille bat ere bada. Liburugintzan lanean ikusten degu etenik gabe, eta bien bitartean or ari da su-ta-ke aldizkarietan lanean (ZER, KARMEL eta SASKI\_NASKI) eta izparringietan ("Diario de Navarra"n adibidez). Eeuskera-arloan beti.



Euskera, ordea, ez da bere ogi-bidea; euskerarentzat bizi ba'da ere, ez da euskeratik bizi. Gazteiz'ko Instituto Politécnico'ren zuzendari izan da urte luzeetan.

Beraz, bere lana ez zan euskeraz idaztea, ez eta Elizaren edestia egitea ere. Beste askoren artean, au ere egin du atsedeen-aldietan, lasai-uneetan.

Atsedena, lana aldatzea da. Bixente'k bere ogibideko eginbearrak bete ondorean, lan au osatzea artu zuan atseginbide.



Lagungarriak: Gazteiz'ko seminarioan bizi izana degu eta bertako liburutegi ederrean zuan liburu-zerrenda luzea, gai oneri buruzkoa. Liburu onen asieran, bosgarren orrialdetik amargarrenerako bitartean dakarzuki idazti oiek banan-banan. Sailla luzea benetan.

Aiek danak eskuetan erabili eta aietatik liburu berri bat ateratzea, orixe bai buru argi eta indartsu batentzat benetako lana... eta gozamina. Buru ergel batentzat, zorabioa.

Joseba Zubikarai Markiña'ko karmeldarrak lagundu dio makiña--utsegiteak zuzentzen.



Denbora eta garaiak: Edozein liburuxkaren egilleak esango dizu, itzetik ortzera, bosteun ordu bear izan ditula idaz-

ti-arazoa bere elburura eramateko. Eta gero, berriz, neurri orretan egiten dituzte beuren diru-eskabideak gizarteko elkarteeri.

Zenbat urte bear izan dituzu zuk, Bixente, edesti-liburu auek bere onera ekartzeko? Ta erantzuna, zuk zerorrek eman diguzu: Ogei urtez, arazoa eskuartean, irakurriz eta oarrak idatziz... Ogei urte, zazpi milla eta irureun da bost egun dira. Egunak esaten ari gera eta ez orduak. Eskerrak ez zenduela lan au ogibidetzat artu...!

Gai oneri buruz, ara zer dion liburu onen amaseigarren orrialdean Latxaga ospetsuak:

- "Pozik eta atsegin aundiz irakurri det zure liburua. Ondo oartu naiz zuk ere pozik idatzi dezula; zoriotsu izan zerala ori idazten ari izan zeran denbora guztian; egiazko gozotasuna izan dala zuretzat eginkizun au".

Eta lana gozo egiten danean, orduan, lanaren fruitua eta ondorena ere gozoa izan oi da.



Eliza osoaren edestia gauza zabala da bai tokiz eta bai denboraz. Tokia laburtu ezin, esirik ipiñi ezin, Eliza osoa bait doa aurrera ibilli eta ibilli. Garaiak banatu bear.

Eta liburu onen garaiak bi gizaldi osatzen dute: amazazpigarren eunkia eta emezortzigarrena. Berreun urte mando!

"Codex Juris Canonici" egin arte, Elizaren legediak liburu asko biltzen omen zituen, eta, jakintsuen iritzira, "onus multorum camellorum" omen ziran, "kamelu askoren zanpagarritzko pixua" osotzen omen zuten danen artean. Elizaren berreun urte alakoak liburu batean esitzea, ori ere neri "onus multorum camellorum" iruditzen zait. Amazoniako oianean sartzearen antzeko. Basoa ikaragaragarria gurdi-bidez eta bidetxigorrez josia.



Nundik nora jo? Amazonian urratzen ari diran antzeko bide zabala egin digu Latiegi jaunak: Aita santutik Aita Santura dijoan bide zabala. Andik aterako dira zearretako gurdi-bide ta bidexkak. Orrela ez dago arriskurik norbere burua oianean galtzeko.



Liburuaren gaiakin sartu baiño len, beste oartxo bat ere esan bearra daukat. Euskera jatorraren jabe izanik, bere pentsakera eta pentsakera orren itz-moldeak jatorrak izanik, idazkeraren soiñekoa ere jatorra erabiltzen du Bixente'k: Euskaltzaindiak irurogeita amabost urte luzeetan erabillitako soiñekoa.

Orain urte gutxi, gazteen iraultza bateri amor emanez, Euskaltzaindiak, bide zabala utzi, lortuta zegoan batasunari bizkarra eman, eta zearkako bidea artu zuan, euskerari buruz, biotzekoa laga eta egalekoa artuz eta idazkerari buruz naaspilla eta zailtasunak bearrik gabe sortuz.

Erabiltzen eta aoskatzen ez zan izki edo letra bat tartean sartu zuten belardian karda-azia baiño ugariago, idazkera zaildu eta itxusituz, irarkola galestituz eta berriatik ikasi bear duanari eragozpenak duan ipiñiz.

Antzututa sekulotan egon dan Euskeraren errapea, gaur aberatsa

degu; eta esne orrek eraginda, jendeak lanean ekiten du zailtasun eta guzi, gaitzez betetako euskara ori ikasten. Berriro antzutuko ba'litz, orduan ikusiko genduke euskaltzale berri auen adorea noraiñokoa dan.

Izki berria naikoa ez dala, zaarrak kendu dituzte, Ñ, LL eta J, eta edonoiz entzungo dezute lan-gi-lea esaten, langillea esan bearrean. J erditik kendu ezkeroz, or dabilta axolagabekeriak esaten, eta bitartean, dijoa aditza idatzi ezin, eta orretarako H ipiñi J izkiaren orde, dihoa, eta aoskatzen ez dan izkia emen J bezala aoskatu bear.

Oraingo egoerak negar-gura ematen diola, esan zigun joan dan astean D. Manuel Lekuona'k telebistatik.

Liburu onetan orrelako zailtasunekin ez duzu topo egingo. Euskera bera erreza eta jatorra, eta idazkera ere berdin. Gain\_soiñekoa alegia, tolesterik gabea.

Kanpotik ere ondo egiña dago liburua. Gauza bat du eskasa: azala. Akatsik aundiena orixe duela uste det. Irarkolako utsak ere beditu; baiña oietik idazti bat libratzea, batez ere euskeraz ba'dago, oso da gaitza eta zaila.



Gaia. Eliz-Edesti-Sorta onen gaia, denbora aldetik, bi milla urteko Elizaren kondaira dezu eta, toki-alde, mundu zabala. Denbora aldetik mugatu bear eta orrela edesti onen lenengo atala XV gizalditik argitaratzen asiak gera, naiz-eta gertaerak aurretik etorri: Erdi-arotik, alegia.

Erdi-arotak moldaketa luzea izan zuan, bein Erri basatiek, Erroma'ko Erresuma apurtuta, laterri berri gazteak sortu zituztenetik aurrera. Oiek danak, eta urrerakoak, gerora argitaratuko dira.

Edesti onen lenengo alea, joan dan urtean San Iñaziorekin elkartua etorri zan, onek eta bere konpañiak garai artan izandako garrantziagaitik. Iñigo, berriz, gurea da, gain-gaiñeko euskalduna.

Erri basatien artean Elizak begirunea eta aginpidea bazuan, jakintza eta buruko argitasuna berekin zualako. Jakintza Elizaren eskuetan izanik, au, gizartea bere gixara eratzten saiatu zan, Jainkoa ipiñiz jakintza guztien gai. Ikastola Nagusietan, Unibersitateetan, teologia erakusten zan gairik nagusien bezala.

Jakintzarekin batera agintaritzza ere Elizaren eskuetan zegoan; Aita Santuenetan batez ere, baña baita Gotzaienetan ere. Gotzaia, "pontifex" zan: "zubi-egille", alegia; eta Aita Santua, "pontifex maximus". Orrek esan nai du jakintzarekin batera, bazutela dirua ere; eta agintaritzza.



Gizadia aurrera doan neurrian, sekularrek beuroen adiñera eldu ala, Elizaren menpetik beuren buruak askatzeko irrika zeuden eta ortik sortzen zaie Elizaren aurreko garaietara begiratzeko gogoak: Erroma eta Greziako jakintzara eta artegintzara, jentillen bizi-moldera, alegia. Baita Eliza beronen lenengo egunetara ere. Orixe dezu Renacimiento edo Birsortzea.

Elizaren menpetik beuren buruak libratzeko giro orretan jaso zuan Lutero'k bere askatasun ikurriña. Elizaren aginpidetik libratzeko, errege eta printzipeen gain ipiñi zuan aginpidea, eta orretarako, beuren errien Aitasantu eta Gotzai izendatu zitun.

Ortik sortuko da erregeen absolutismoa eta Estaduaren eliza.

Beste aginpiderik ez du Lutero'k ezagutuko Bibliarena ez ba'da. Baiña Biblia ori bakoitzak bere erara argituko du.

Biblia orrela irakurtzeatik eta erregeen eliz-aginpideatik izugarrizko zatiketa sortu zan Kristiandadean. Zatiketa orretatik, berriz, Elizaren eta Bibliaren mesprezioa.

Zatiketa, borrokaz beteta zetorren. Nundik pakea lortu?

Nundik batasunera eldu? Emendik artzen du asiera orain aurkezten ari geran Sortaren bigarren liburu onek.



Lenengo Inghaterran eta geroago Holanda'n arrazoiaren aldeko kanpaiña sortzen da pakearen eta batasunaren oiñarri bezala. Fedearen orde, arrazoiak: giza-arrazoiak. Jainkoaren orde, Izadia beronen legearekin. Jainkoak, baldin ba'da ere, ez du izadiaren ardurarik.

Sustrai auetatik sortzen da Argikuntza edo Ilustrazioa.

Onen ondorean, Deismoa dator. Eta Panteismoa: Izadia bera jainko.

Eta, ortik, Ateismura: ez da jainkorik.

Jainkoa jakintza-bideetatik kendu, eta, bere orde, Izadia ipiñi; eta Izadiaren legeak, Jainkoaren legeen orde. Ori izango da Argikuntza orbanduko duan arra.

Fede berri ori kristau-fedearen aurka jarriko da; Argikuntzaren argi berri onek salbatuko omen zuan erria, baiñan erriak berak parte artzeke. Orixe izango da despotismo ilustrado deritzan zera. Illunbeetan dagoen eri itsua, argidunek salbatuko dute. Iraultza onek despotismoa dakar alde guztietatik, erregeen indarkeria indartuz.



Argi ori zabaltzen ari dan neurrian, erriko jende asko onetan konturatzen da: Argiak salbatuko ba'ditu ez dutela errege bearrik beuren buruak salbatzeko; eta ortik sortuko da Iraultza berri bat: Frantzi'ko iraultza.

Giza-arrazoia bera da jainko. Erregearekin batera aundikiak eta Eliza kendu  
gizartetik eta burgesak jaso aginpidera.



Bi gizaldi luzeko edestia da eta bitartean Elizak zer jokabide duen  
ikusteko, Latiegi'k, len esan degun bezala, bide zabal bat urratu digu Aita  
Santutik Aita Santura eta ortik irteten dute zenbait bidezear bi gizaldi oietan  
Elizan izan diran ezbiderazioak ezagutzeko: Jansenikeria, Galikeria,  
Febronikeria, Josepekeria eta abarren okerkeriak; baita masoienak ere.

Garai naasi eta urduriak, gaur eguneko zenbait okerren sortzaille eta  
sustrai: baiña, garai auen eta aurrekoen berri beste bost liburuetan agintzen  
dizkigu Latiegi jaunak.

Eta bukatzeko, ona berriro Latxaga'ren itzak:

"Lan ederra egin dezu; bikaiña: argiñen lana; Arriz-arri arreta aundiz,  
poliki eta dotore landutako arriz egiña; mamiz eta azalez lan bizi egokia".

Artu liburua eta ao-gozatu patxada onean. Onenbestez aski degu.  
Esaera zaarrak dionez, "gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan  
artu.---(A. Arrinda).



## XV BENEDIKTO (1914-1922)

DELLA CHIESA KARDENALA.- 1914'eko uztaillaren 28'an asi zan Lenengo Ludi-Gudu Nagusia. Dagonillaren 20'ean il zan Pio X Donea. Dagonil orren 31'ean iriki zan Aitasantu berri bat aukeratzeko "Giltzape-Batzarra" edo Konklabea. 52 kardenal bildu ziran Batzar artan; 28, italiarrak; 24, atzeritarrak.

Batzarreko kardenalak, geienak, Pio X'aren garaieko estukeritik Eliza ateratzearen aldekoak ziran, uste bait zuten, gai askotan, batez ere sindikatoei eta modernismoari zegozkien gaietan, Aitasantu izanaren itzalpean, integristak zipozkeri geiegirekin ari izan zirala.

Orretxegaitik, Batzar artan, aitasantugairik aipatuenak, igarotako aitasantutzan bazterturik eukitako kardenalak izan ziran: Maffi, Pisa'ko Goigotzaia, eta Della Chiesa, Boloni'koa. Integristen aitasantugaia, Serafini Kardenal beneditarra izan zan, eliztarren artean santutzat goretsia.

Akats bat bakarra zuan Maffi'k aitasantutzara iristeko: "italianissime", "zearo italizalea" izatea. Naiko akatsa orduan oraindik, kardenal asko Aitasantuen Erregetza birrirabazi zitekealakotan bait zeuden. Orrela, iraillaren 3'an Della Chiesa izan zan aukeratua. 38 autarki jaso zituan; 18, Serafini'k. Arin egiña izan zan autaketa, ez bait zegoan, Europa guztia sutan asia zan une aietan, Batzarra luzatzerik.

Ez zezaketen autalariek gizon egokiagorik aukeratu, Jakoba Della Chiesa izan bait da Elizaren edestian ezagutu dugun aitasanturik onenetako bat.

Liguritarra zan jatorriz, Jenoba'n jaioa, aundikikumea; Chiesa'ko Markesaren eta Migliorati'ko markesiñaren semea. Gaztetatik senti zuan apaizgorako deia, baiña bere aitak aurrena abogadutza ikastera beartu zuan.

Orrela, Legizti-Doktoretza irabazi ondorean asi zituan apaiz-ikasketak; eta diplomazikoak, Elizari alde ortatik serbitzeko.

Adiontasunik bikaiñena izan zuan diplomaziketan oitzeko eta politikaren barrunbe naasietaz jabetzeko, berekin ekarri bait zuan Ranpolla'k Madrid'era, Españi'ko nuntzio izendatua izan zanean, eta gero berekin euki



bait zuan Erroma'n Estadutza'ko Idazkaritzan, Aitasantuak an kargu au eman zionean.

Rampolla iltzean, Della Chiesa egon zan Leon XIII'aren azkeneko urteetan eta Pio X'aren aurrenekoetan, "Substitutus" edo "Ordezko" bezala garrantzirik aundieneko Idazkaritza artan buruzagi.

Baiña batez ere, Madrid'en igaro zituan lau urteak izan ziran Aitasantu-izan-bearrantentzat bere eziketarako saio-girorik egokienetakoa. Bi arazo erabili bear izan zituan Madrid'en Rampolla nuntzioaren laguntzaille bezala: Ozeani'ko Karolin ugarteena eta España'ko integrismoarena.

Aurreneko auzia, ez zan garrantzi aundiegikoa. España eta Alemani eztabaidan zebiltzan ugarte aien jabetasuna zala-ta. Leon XIII'a izendatu bait zuten auziaren epaille, Madrid'ko nuntzitegian egin zan auzi osoaren azterketa-lana. Ez zitzaion gaizki etorri Della Chiesa gazteari, Laterri-arteko-aremankerak nolakoak izan oi diran jakiteko.

Etekin eta protxu aundiagokoa izan zitzaion bigarren auzia: integrismoarena; ikasi aal izan bait zuan katoliko eskubitar ertzakoen burugogortasuna.

Eta beste iñon eta iñoiz ez bezalako izan bait zan orduan España'n Karliten guduen ostean odoletan gorri-gorri egiñik zegoan integrismoa, egoki deritzaigu gertakizun aiek gogora erakartzea, Benedikto XV'aren mentalitatea zer girotan tajutu eta eldu zan ulertu aal dezagun. España'n sortua bait dugu gaiñera, eta aldi artantxe ain zuzen, politikaren alorrerako "Integrismo" itza bera.



1874'e an eman zion militarren indarrezko kolpe batek Alfontso XII'ari España'ko buruntza. Karlistek ez zuten Isabel II'aren seme ura egiazko erregetzat ezagutu zezaketenik pentsatu ere, eta aurrera jarraitu zuten 1872'a ezker zerabilkiten gudu gogorra.

Baiña 1876'e an zearo menderatuak izan bait ziran..., eta Alfontso XII'ak ozenki argitaratu bait zuan "katoliko izateko zekarren asmoa"..., eta zail ikusten bait zan, iñoiz "VII On Karlos" izkilluen bidez Errege Aulkira jaso aal izatea..., laister sortu zitzaigun zarrata karlatarren alderdiaren altzoan.

Pidal bi anaiak, Alexander eta Luis, izan ziran lenengo zarrat-egilleak. Gizon argiak, biak; Alexander, filosofilari tomista eta parlamentuan izlari yayoa zan; Luis, berriz, markesa; Pidal'eko markesa, politikari ernea. Egizat zeukaten bi anai auek Etxalar'ko Bernardo edestilari buruñurdunak dion auxe:

"Había en campo liberal-conservador, formando su derecha, buenos católicos. El programa político de esta agrupación era el reconocimiento de la dinastía alfonsina, el acatamiento total a las decisiones pontificias, sobre

todo a las del Syllabus, pero reconociendo que, dentro del constitucionalismo, había que atemperarse a las circunstancias de los tiempos, haciendo ciertas concesiones, no en el terreno teórico, dogmático, de los principios, sino en el práctico del gobierno de los hombres, por no hallarse España en estado de aplicar tales principios según los procedimientos de los tiempos pasados, procedimientos que a su juicio, serían más perjudiciales que beneficiosos a la Iglesia. En una palabra, según los términos que se hicieron muy corrientes en la contienda que se entablaba, España no se hallaba en el terreno de tesis sino en el de hipótesis".

Orrela sortu zuan Alexander Pidal'ek bere ikur-itza: "Querer lo que se debe, hacer lo que se puede"; "gura bear duguna gura, al duguna egin".

Atsegin zitzaien oso, pentsaera au, Erroma'n Leon XIII Aitasantuari. Ala, 1881'ean Pidal'tarrek "el Partido de la Unión Católica", eraiki zutenean, berelaxe bidali zien arek onespen bero atsegiña. Alde zituzten Pidal anaiek, gotzai geienak ere; danak ia; gotzai auek Alfontso XII'aren Isabel II amak aukeratuak izan bait ziran guztiak.

Ez ziran aburu berekoak izan katoliko sekularrak asko; ez orixe; ezta apaizak ere, auek ez bait zioten Alfontso'ren amari ezertxoren zorrik. Aitasantuari eta gotzaiei entzungor eginda "Unión Católica"ren aurka jeiki ziran, eta nolako amorruekin gaiñera!

On Karlos bera, zer esanik ez, Karlatar Alderdiari jarraitzailleak kentzeko ain egokia zirudian "Unión Católica" aren aurka mintzatu zan bereala zakarki, eta On Karlos baiño zakarrago oraindik arek España'rako izendaturik zeukan ordezkaria: Kandido Nocedal.

Ez da izkera iraingarririk Candido Nocedal'ek eta apaiz integristek, eta prailleek baitipat, pidaltarren aurka erabilli ez zutenik. "Mestizos" izan zan "erlijio-ukatzaille" aiei deitzeko asmâtu zuten itza. Itz ortan zegoan bildurik espainiarrek kolonietan odol naasiko jendei zieten erdeñua; eta gorrotoa. "Mestizos": ez katoliko ez liberal: "Naasiak".

Izkera zakarrean Kadido Nocedal baiño ausardiago zebillen oraindik aren semea, Ramón Nocedal, 1875'ean, Sinismenaren garbitasuna zaintzeko sortu zuan "El Siglo Futuro" izparringiaren orrietan. Ez zan eskierki zorrotzago ibilliko Felipe II'aren garaiean Inkisiziogille Nagusia.

Urkinaona Bartzelona'ko Gotzaia izan zan geiegikeri aien aurka aurrena itzezin zuana. Ez omen ziran iñor katoliko soillak, "los simples legos", iñoren sinispenaren zuzentasuna epaitzen asteko. Ez omen dira sekularrak auresku, "los guías", atzesku baizik, "los guiados". Era berean idatzi zuten Tarragona'ko Goigotzaiak, eta Toledo'koak, eta beste gotzai askok. Era berean mintzatu zan Leon XIII'a ere.

Ez zuten idazki eta mintzaketa aiek ezer lortu. Urkinaona Gotzaia'k Bartzelona'ko "juventud Católica" Bazkuna barreiatzera beartua ikusi zuan bere burua; eta apaizgaitegia itxitzera, berriz, Tarragona'ko Goigotzaiak,

ainbat-eta ikastetxe artan nork erakusten eta nork ikasten jarraituko zuan erabaki arte.

1883'an gertatzen zan ori, eta urte ortan bertan bidali zuan Leon XIII'ak diplomazirako yayoan uste zuan gizona, Mariano Rampolla, Españi'ra nuntzio, biziro kezkatuik bait zegoan españiar eskubitarrek artu zituzten bideak ikustean. Eta Rampolla'k, laguntzaille, Della Chiesa gaztea ekarri zuan.

Iritxi bezain laister bidali zien Nuntzioak gotzaiei aurreneko oarpena katolikoan berritxukeria salatuz: "las deplorables divisiones que separan a los católicos españoles y las ásperas polémicas, las cuales, no obstante los avisos dados por Su Santidad en la encíclica "Cum Multa" y las obligaciones que imponen las más elementales nociones de la moral, continúan todavía en algunos puntos de España escandalizando a los fieles". Gauerdiko auntzaren eztula izan zan katolikoentzat Nuntzio berriaren abotsa, bereala ikusiko duzun bezala.

Urrengo urtean, 1884'ean, Gobernura deitu zuan, ministro, Canovas'ek, "La Unión Católica"ko Alexander Pidal, eta baietz erantzun zion onek, ez, seguruaski, aurretik Rampolla nuntzioarekin itzegin gabe, ez bait zeuden orduan Españi'n gauzak katoliko batek liberalen gobernuan ministeriotza bat arinki artu aal izateko moduan.

Berebiziko ardailla atera ziguten eskubitar ertzakoiek: Fedea zikintzea omen zan liberalekin jaurlaritzan sartzea! Ori egitea, Jainkoa eta deabrua batera nâstea omen zan. Ori zegiana ez omen zan ez Jaungoikoarena ez deabruarena; biena omen zan eta iñorena ez: "Mestizo"!; ez "zuria", (karlatarren izengoitia), ez "beltza", (liberalena); zuri-beltza; "mestizo"; "naasia".

Pidal'en aurka atera zan, asarre, Plasentzi'ko Gotzaia ere. Asarretu zan gobernu ori jakitean eta gauzak len-bait-len garbi ipintzeko eskatu zion, Konkordatoaren izenean, Elizari. Leon XIII'ak berak eman zizkion ordainkizunak gobernuari, eta Leon XIII'ak berak agindu zion Gotzai erretxinduari, izketarakoan ardua geiagorekin ibiltzeko.

Ez ziran makurtu integristak. Aitasantua goian zegoala nunbait-eta, Rampolla nuntziolari eraso zion "El Siglo Futuro"k. Baita Erroma'k laister erantzun ere: "Teorías febronianas y galicanas", zirala Ramón Nocedal'en izparringiak idazlan artan zerabilzkian esariak, zion Estadutzako Idazkariak.

Ez zan pakerik egin. "Los extremistas del tradicionalismo español criticaban sin reparo y aun desobedecían a los jefes eclesiásticos y a sus documentos públicos, y siendo personajes laicos y no bien fundados en telología se alzaban a dogmatizar sobre cuestiones religiosas" (García Villoslada).

1885'ean il zan Kandido Nocedal, integristen buruzagia, eta, On Karlos'en izenean, Alderdi Tradizionalistaren zuzendaria. Danak uste izan

zuten On Karlos'ek Kandido'ren semea, Ramón, izendatuko zuala aitaren lekuan Alderdiaren ordezkari. Ez zan orrela gertatu. Kezkaturik zeukaten errege-naia, Nocedal'tarrek Elizarekin zerabilzkiten ixkamillek.

On Karlos, --beretarren "Karlos VII'a-- , ez zenuan iñoiz mentalitate estoko gizakumea izan. Zentzuzko liberaltasunetik bertago ibilli zan beti, integrismokeritik baiño, aren pentsaera.

Orain gaiñera, integrismoa mardultzen ari zan urte auetan, Navarro Villoslada naparraren itzala zebillen errege-nai aren gaiñean, eta biziro onuragarria izan zitzaion itzal ura, tajuzko gizon egokia bait zan benetan Biana'n jaiotako politikari yayo eta izlari ta idazlari ospetsu au. Bera egin zuan On Karlos'ek Alderdi Tradizionalistaren Zuzendari.

Integristak neurriera erakartzea izan zan Navarro Villoslada'ren aurreneko ardura. Alperrik! Zailki bait zezakean berak, Leon XIII'ak lortu ez zuana jardetsi. Ez zan ikaratu; bere esanera makurtu nai ez zutela ikusirik, Alderdiik jaurti zituan 1888'an "El Siglo Futuro" eta beste 25 izparringi.

Izparringi oiek oiñarritzat artu-ta eraiki zuan urte ortan Ramón Nocedal'ek "Alderdi Integrista"; "El Siglo Futuro"n idatzi zuanez, "para el firme mantenimiento de la INTEGRA verdad católica". Ortik sortu zitzaien izena: "Integristas", "osotasun-zaleak".

Emendik aurrera ez dira integristen etsairik gorrotatuenak Alexander Pidal'en "los mestizos" izango, Navarro Villoslada'ren "tradizionalistak" baizik, eta auei ekingo diete amorruez izparringietan ozkaka.

Tradizionalistentzat ordea, biak izanen dira etsai: "mestizuak" eta "integristak"; aiek, On Karlos utzi-ta erregetzat Alfontso XIII'a ezagutzen zutelako, auek, integristak, alderdiaren txeeztaille ziralako. Borroka bikoitz ori giartsu aurrera eramatearren eraiki zuan On Karlos'ek, "El Siglo Futuro"ren ordez, "El Correo Español" izparringia.

"Nunca las discusiones entre los católicos fueron más enconadas, nunca mayor la confusión. Hubo confesores que negaron la absolución a los penitentes por esas diferencias partidistas" (García Villoslada). Gotzaiek, "mestizuen" aldekoak ziran. Apaizak, karlistak: Ramón Nozedal'en Integristeen aldekoak, batzuk; Navarro Villoslada'ren tradizionalisten alderdikoak beste batzuk.

Praile-jendea, integrista zenuan. Agustindarrak bakarrik irabazi aal izan zituan Rampolla'k bere asmoak aurrera ateratzeko. Muzin egin zioten beste guztiek, iñakitarrek batez ere, eta ori, Nuntzioak. Josulagundiaren buruzagiekin aurretik itzegin zuala!

Beste toki batean aipatu ditugu eta ezagunak dituzu Rampolla'k Erroma'tik ekarri zituan asmoak: Alfontso XII'aren inguruan pakea ta baretasuna edatzea, ta karlisten eta liberalen arteko gudu zitalak bein betirako eragozte.

Eta, baita, katolikoan arteko adiskidetasuna nolabait lortu zitekean

ikustea ere.

Azkeneko arlo ortan beintzat ez zuan ezer aundirik lortu, naiz katoliko batzuk, eta apaiz jaun ospetsu batzuk ere, bere alde jarri. Ona zer idatzi zuan orain, Sardá y Salvany'k, "El Liberalismo Es Pecado" len idatzi zuan arek berak, katolikoen alkartasuna eskatuaz:

"Católicos son como nosotros muchos de nuestros hermanos carlistas; católicos son como nosotros muchos de nuestros hermanos alfonsinos; católicos son como nosotros muchos de nuestros hermanos que no gustan apellidarse con mote alguno de los arriba dichos, entre los cuales nos encontramos".

Saiatu ziran gotzaiak ere Rampolla Nuntzioari laguntzen, ortarako "Congreso Católico"-sail bat eratuaz. Madrid'en aurrenekoa 1889'an. Ona zer esan zuan Batzar artan Martzelino Menéndez Pelayo gazteak: Zalaparta oiek danak "esas estúpidas cuestiones sostenidas por católicos españoles sobre interpretación del "Syllabus", grados de liberalismo, tesis e hipótesis, integrista y mesticismo", Españi'ko katolikotasuna aultzen ari zirala.

Itz oiek berak damaigute Españi'n pakea lortzea gauza arras zailla zalaren ezaguera; Menéndez Pelayo'k aipatzen dituan arazo aietako batzuetan alkarrizketa ta eztabaida, --gauzak argi ikusita pake zail ura lortzeko--, bearrezkoak bait ziran.

Danadala, borrokan jarraitu zuten Españi'ko apaiz, praille eta katolikoek. Ona zer idazten zion, mindurik, Leon XIII'ak Katalauni'ko gotzai bati 1890'ean:

"Algunos eclesiásticos se han olvidado de su deber, y lo que es peor, también algunos religiosos de antiguo distinguidos por su fidelidad y amor a la Sede Apostólica, los cuales secreta y públicamente ayudan a que este mal arraigue del todo y se propague más y más, con gravísimo daño de los más altos intereses de la Iglesia y de la Patria".

Nik azpimarratutako lerro oietan, Josuren Lagundia zeukan Aitasantuak begien aurrean. Ondo merezia zuten iñakitar aiek Leon XIII'aren asarrea. Ez zituan beren Aita Iñaki Loiola'koak ikusten!!!

Jaso zuten iñakitarrek ziria. Baiña ez pentsa beren aldakuntza argitara ain azkar atera zutenik.

1890'ekoa da Leon XIII'aren eskutitza. 1905'ean agertu zan argitara aldaketa aren aurreneko aztarna "Razón y Fe" izeneko aldizkarian. Aita Beñantzio Mari Mintegiaga izan zan idazlan ospetsu aren egillea. "El Mal Menor", "Okerrik Txikiena", oi zan katoliko irikiak politikagintzarako ipintzen zuten elburua; "el bien mayor" "onik aundiena" aizatu oi zuten integristek, eta, ordurarte, iñakitarrek. 1905'eko idazlan artan, "onik aundienaren" atzetik ibiltzea, askotan amets utsaren atzetik ibiltzea dala-ta, maizenean "okerrik txikienarekin" poztutzea dugula gizartean tajuzko bidea, zion Mintegiaga'k.

Berealaxe asi ziran Mintegiaga'ren atzetik iñakitar danak era berean mintzatzen.

Tamalez, 1905'erako bazeramazkian bi urte illobian Leon XIII'ak. Liberalek ez baiña integristek mindu zioten Frantzi'tik eta Espaiñ'tik aitasantutza.

Iñakitarrek, eman zuten amore. Baiña ez gaiñerako integristek. Pio X'ak, ostera berriz, artu bear izan zuan luma 1906'eane espaiñar integristak baretzearren. Asmo ori zekarren "Inter Catholicos Hispaniae" izeneko "gutun labur" edo "brebeak". Urte ortan, Della Chiesa zan oraindik Estadutzako Idazkaritzan "substitutus" izenarekin buruzagi.

1907'an il zan Ramón Nocedal, arrazoi guztia berea zualaren ustean. Uste oietan jarraitu zuten alderdikorik geienak ere; ez bait duzu eskubitarren integrismoa, ain errez sendatzen dan izurria!



Izan zuan, ikusi aal izan duzun bezala, Benedikto XV'ak ortaz jabetzeko adiontasun egokia, bai Madrid'en, --integristen buruzagi guztiak ezagutu bait zituan an--, eta bai, gero, Erroma'n ere, Estadutzako Idazkaritzan, Leon XIII'ak Rampolla'ri kargu ori eman zionean berekin eraman bait zuan onek laguntzailletzat Erroma'ra aitasantu izatera iritxiko zan idazkari langille ura.

Erroma'n Rampolla'ren "minutante" izan zan, ots, "idaztegian laguntzaille"; baiña esku aundikoa; bâ..., "nei casi difficili, i diplomatici, e altri che avessero grandi affari col Vaticano, andavano spesso a consultare «il Piccoletto»; "diplomazilariiek gai zailletan, eta Batikano'arekin auzi lodietan zebiltzan jende guztiek, «Ttipittoa» rengana jo oi bait zuten zuzenean". "Encyclopedia Italiana di Scienze, Lettere et Arti"renak dira itz oiek. Liburu aundi ori berriz, fatxismuaren filosofilari nagusi izandako Jon Gentile'ren zuzendaritzapean eta Mussolini'ren onespen osoarekin argitaratu zan. Gizon auek ez zuten Itali beste Jainkorik izan.

Ez daitezke, beraz bi gizon oiek, Itali-zaleek ain gutxi maite izan zuten Aitasantu aren alde beroegi itzegin ote zutelaren kezka, zalantzan ipiñiak izan.

"Il Picoletto", "Ttipittoa", Erroma'ko erri zirikalariak Della Chiesa'ri ipiñitako izen gaxi-goxoa duzu, txikia, bait zan au, okertxo, bi bizkarrak berdiñak ez zituana, txalkorxamarra, ibiltzeko ere pittin bat errena: "esile e mal conformata persona", "aula eta itxura kaxkarxamarreko gizakumea", (Encyc. Italiana).

Yayotasun berezia zizun Della Chiesa'k irri-izenak irabazteko, Espaiñ'n egon zanean ere, Madrid'ko karriketari erri xeak "el Curita Dos Pesetas" izendatu bait zuan. Erriaren eskerrona darama deikera orrek, bi peza emateko oitura bait zuan, urbiltzen zitzaion txiro bakoitzari, nuntzitegiko



apaiz arek. Eta garai artan bi pezta, jez ziran noski nolanaiko gauza!

Amabost urte egon zan "minutante" Estadutzako Idazkaritzan, oso maitatua eta txit egokitza eukia; batez ere bere oroimen bizkorra eta edonork ikusi aal izan zion zugurtasuna izan ziran bereiziki goretsiak. Rampolla'ren ondorean Idazkaritza artan bertan jarraitu zuan Della Chiesa'k "substitutus" bezala Pio X'aren aurreneko lau urteetan.

Jakiña dugu, ordea, Pio X'aren aitasantutzakoan integristek Elizaren zuzendaritza zenbateraiño eskuetan artu zuten, eta ez gindezke arritu integrista-giro artan Della Chiesa zabal irikia, gizon estu aientzat kuttunegia ez izateaz.

Leon XIII'a bera ere "modernismoaren kidekotzat edo-ta, beintzat, modernismoaren eragilletzat", --"un des responsables de l'erreur moderniste, voire un complice" (Daniel Rops)--, bezala eukia izan zalarik, naitanaiezkoa bait genduan aren adiskide Della Chiesa ere salakuntza beraren zamapera jausi izatea.

Lortu zuten inegristek, alaolakotzat zeukaten "substitutus" ura Elizaren kargurik garrantzitsuenetik botatzea, eta baita, dirudianez, Pio X'aren biotzean arenganako kezka beltz-edo bat landatzea; beintzat, zazpi urte egon zan Della Chiesa Boloni'n Goigotzai, kardenal izendatua izan gabe, naiz kargu arek, oituraz, kardenaltza berekin eraman.

1914'aren orrile'ko 25'ean, ia-ia beste munduko atarian zegoanean eman zion Pio X'ak titulo guren ura; andik iru illabetera, dagonillaren 20'ean il bait zan Aitasantua.

Bazuan oarmenik aski Della Chiesa diplomazilariak begi okerxamarrez begiratua zalaz jabetzeko. Eta bai bait zuan umorea ere, ona zer esan zion Aitasantu egiña izan zan bezain laister Elizako Jaun integrista bati irripar goxoz: "gaurgero ez duzu noski nere sinismenaren ortodoxiaz zalantzarik izango"!



Amabostgarren mendeko Nikolas V'az gero, ez zan iñoiz kardenaltzan ain denbora gutxi zeramakianik Aulki Donera jaso izan. Estadutzako Idazkaritzan egon zanetik bazizun ordea auzi-erabilketarako oitura-ta, "suscitò subito le maraviglie per la prontezza con cui si mostrò padrone dell'altissimo grado", "arritu zuan jendea, ain laister beargintza guren artan bere burua nagusi trebe agertu zualako" (Ency. Ital.).

Nagusi "bakarra" gaiñera, ikusi aal izan bait zuten integristek aurreneko entziklika irakurtzean, beren nagusitasuna galdua zutela Elizaren jaurketan.

Españi'n bezala Frantzi'n ere urrutiegi iritxi ziran integristak.

Oker dabil Daniel Rops, --oi! oro Frantzi'n sortua dala uste izateko frantziarren zaletasuna!--, "intégrisme" itza, politikarako, Frantzi'n, 1910'ean

ain zuzen, sortua izan zala dionean. Milla aldiz irakurria zuan Integrista itza Aitasantu berriak ordurako, Españi'tik Estadutzako Idazkaritzara iristen ziran izparringietan eta nuntzioaren txosten eta informeeetan.

Baiña itza sortu ez ba'zuten ere ez dugu iñolaz ere esango Frantzi'ko integristak Españi'koak baiño motelagoak izan ziranik, batez ere Pio X'ak 1907'an modernismoa gaitzetsi zuan ezkerero.

Frantzi'ko integristen buruzagiak auethek izan ziran: Le Floch, Gogo Deunaren Anaidikoa, "L'Action Françaiseran" adiskide sutsua, Erroma'n "Frantziarren Apaizgaitegiko" erretore zalarik; gaitz-egiteko lekuri egokienean zegoana; Karlos Maignen apaiza, "amerikanismoaren" aurka ain arinki idazten ikusi duguna; Imanol Barbier apaiza, iñakitarra izana, "Ralliement" izeneko igikundearen etsaia, modernismoaren aurkako borrokalari zakarra, "Catholicisme social" edo "Katolikotasun gizarteratzailearen" arerioa; "Roger Douget" izengoitiarekin idazten zuan Boulin apaiza, naiz bere gotzaiak apaizkuntzarako baimenak kendu, bazter guztietan masoiketaren eskua ikusiaz katolikotasun "osoaren" alde gogorki ari zana...

Españi'n bezala baziran Frantzi'n izparringi integristak; eta baita Itali'n ere. Integristok ez ziran, --leenxeagoko Louis Veuillot edo Leon Bloy bezala--, katoliko buru-bero amorekaitz eta besteenganako-eroanpenik-gabekoak bakarrik; ez. Integrista auek soilki beren buruak bait zeuzkaten egiazko katoliko bakartzat.

Iru ezaugarri zituan jende bizkor aien katolikotasun "aratz" orrek:

- "Osotasuna" lendabizi. Elizaren gauza eta gauzatxo guztiek zuten aientzat balio berdiña: Dogma edo egi sinisbearrek, eta eraspen utsezko sinisteeek, aitasantuen aginduek eta santuen esanek, edestiaren erakutsiek eta erriarengandiko kondairek. ¡Milan'go "izara donearen" egitasuna eta Loreto'ko Etxea aingeruen eskuetan aidez ekarria dalakoa zalantzan ipintzen zitalako salatu zizuten Ulises Chevalier kanonigoa Aulki Donearen aurrean!

- "Aldaezintasuna". Eliza-baitan ez zitekean ezer aldatu; ez legerik, ez oiturarik, ez errezoak egiteko erarik, ez izketarik, ez zirimoni txikienik. Berria zitekean oro zan aientzat modernismoa, izan ere, "modernismoa" eta "berritasuna", ez al ziran bñ biak bat? ¡Ez da zillegi berrikeriekin Sinispidea zikintzea!

- "Indarkeriaren zaletasuna". Egurra omen zan Agintarien indarra; eta Legearen zigorra, ludiak eta Elizak bear zuten sendagaia. Betoz bada len-bait-len eskomikak, betoz zalantzarik gabeko gaitzespenak!

Indarkerirako zaletasun onek eraman zituan integristak politikaren baratzen erkalaren usai zezakean guztiaren ain arerio .





Aipatu dugu beste toki batean integristak nola alkarte batean bildu ziran katoliko motelei guda egiteko. "Sodalitium Pianum" eman zioten, Pio V'aren omenez, beren "Alkarte" ari izena: "Bazkun Piotarra". Masoiketaren antzera eraturako ixillezko bazkun bat zan, iru mailletan eraikia. Goienero maillari, "La Sappinière" "Izaidia" deitzen zioten beren arteko arremantarako asmatuak zeuzkaten izkutuzko izkeran eta idazkeran.

Dana zan aien artean izkutuzkoa, dana isilla, dana illunbean gordea. Erroma'n bertan zeukaten buruzagitza; Estadutza'ko Idazkaritzan bigarren idazkari bezala, --ez alajaiña nolanaiko karguan!-- lan egiten zuan Unberto Benigni'ren etxean, onek sortu ere bait zuan aipatu dugun "Piotar Bazkuna".

Berak sortu zituan Erroma'n Izparringi integrista bat, eta, munduko izparringiei gai egoki ugariak eskeintzeko, albiste-etxe bat ere. Paris'era, Biena'ra, Milan'era, Bruxeletara, Koloni'ra, Berlin'era, eta Madrid'era... iristen ziran etxe arek barreiatzen zituan albiste eta aolku integristak.

Alde izan zituan beti Benigni apaizak, De Lai eta Billot kardenalak, Merry del Val Estadutzako Idazkaria, eta Pio X'a bera.

Egia da azkeneko onek ez zuala sekulan jakin "Piotarren" ausardia noraino iristen zan, baiña egia da, bait'ere, bere geiegizko tradiziozaletasuna-bitarte aien neurrigabekeriari giro egokiegia prestatu ziola.

Aitasantuak modernismoaren antzeko zitekean guztiari erakusten zion zigorkeri larriak bildurturik zeukan Eliz osoa, eta bildur ortan, gero ta mardulagoak ziran integristen lotsagabekeri ta ausardiak, naiz, --egia bait da au ere--, Merry del Val Kardenalak, bere mendeko Benigni eta beste "osotasun-babesleen" ausardi ari noizean bein egalak moztu.

Teologilarien eta gotzaien zelaketa izan zan batez ere "Piotarren" eginkizun nagusia. Ixillean egin oi zana, baiña milla gauzatxo eta gertakizuntxoetan errez nabari oi zitekean zelaketa.

Izugarrizko ikara ernarazi zuan kristaudian, naiz ikusi ez, errez suma zitekean zelakeri ark. Askatasunik gabe ikusten zituzten beren buruak teologilariak azterketarako, izparringi-gizonak idazteko, irakasleak erakus-kintzarako, eta gotzaiak Eliza gobernatzeko. Eta naiz integristak lurralde guztietan asko izan ez, aundia izan zan, zerabilkiten izkutukeriari eskerrak, Eliz osoan izan zuten indarra.

Baiña aspertu ziran gotzaiak, begi izkutu aien azterketapean biritzeaz, eta jakiñarazi zioten Aulki Doneri, Itali'tik eta Frantzi'tik, guztien atsekabea.

Ez zuten deus aundirik lortu, Pio X'ak eta Merry del Val'ek bildur geiago bait zioten modernismoaren gorputz illari integrismoaren mingain biziari baiño. Bene-benetan, illik zegoan ordurako modernismoa, 1907'ko "Pascendi" entziklikak aren gaitzespena argira jaurti zuan ezkerero. Illik zegoan... gauz auek iltzen diran eran! Elizaren bizitzaren luzaroan, naiz itxura aldatuekin, okerkeriak maiz berbizten bait dira.

Berbizkunde orren aztarnak nun agertu zitezkearen zai egon ziran Aulki Donean jaurle integristak Pio X'aren azkeneko zazpi urteetan. Oroi dezagun ala ere, Pio X'ak berak gaitzetsi zuala Españi'ko integrismoa. Españiar integristak izkutukeririk gabe jokutzen zutelarik, aien geiegikeriak errez ikusi zitalako. Ez zituan italiarrenak eta frantziarrenak ikusi, zakurragoak bait ziran auek.


Frantzi'n modernismoa bezain illa zegoan une aietan Españi'n integrismoa ere, --integrismoaren indarra beintzat--, Ramón Nocedal illobira jetxi zanez gero. Baiñan Madrid'en Nuntzioaren idazkari zala, ikusi bait zuan Della Chiesa'tar Jakoba'k integrismoa sortzen, arreta aundiz jarraitu zion gero Boloni'tik, Frantzi'ko eta Itali'ko iskamilletan. Ala, Boloni'ko Goigotzaia izan zan integrismoaren aurka beren iritzia agertu zuten gotzaietako bat.

Ez da, beraz, arritzekoa aitasantutza artu bezain laister, aurreneko entziklikan, Della Chiesa integrismoaz mintzatu izatea. Labur, goxoki, baiña gotor. Ia-ia Rampolla'k Madrid'en integristei idatzi zizkien itzak berak darabilzki orain Benedikto XV'ak entziklikan, agian itz aiek ere, nuntzitegiko idazkari lez, berak idatzi zitalako.

Ona Aitasantu berriaren erakuskintzak:

Kristau soillak ez dirala Elizako auzietan epaille; Sinismen-gaietan ez dirala irakasle; Elizak epaitu ez dituan gauza guztietan azterketa, eta eztabaida, eta aburuen agertzea, zillegi dirala; jarduketa orrek danak, maitasun-giroan egiña izan bear duala; katolikoek katolikoengandik bereizteko itz zakarrak edo esaera arreak erabiltzea "karitateak berak debekatzen duan gauza dala"...

Azkeneko itz oiek idaztera Madrid'en entzundako "mestizoa" gaitzizena zerabilkian noski Benedikto XV'ak gogoan; baiña, baita, frantziar integristek beren buruak aipatzeko erabiltzen zuten "catholiques intégreaux" edo "katoliko osoak" ura ere.



## XV BENEDIKTO ETA GUDU NAGUSIA

Ondo ezaguna da Gudate negargarri aren asiera. 1914'eko ekaiñaren 28'an, Austri'ko inperatore-gaia, Frantzisko Fernando eta bere emaztea, Sarajebo'n erailak izan ziran.

Austri'ak Serbi'ari jaurti zion erailketa aren errua, eta Alemani'rekin uztaillaren 5'ean isillezko billera bat egin ondorean, uztail orren 23'an baldintza gogor latzak ipiñi zizkion Serbi'ri izkilluz jo-ta menderatua ez izatearen truke.

Serbi'k Errusi'ren aolkua jarraituz, baiezkoa erantzuteko gerturik zegoala jakinarazi zion Austri'ri; baiña askatasuna babestearren, lendabizi auzi guztia Haya'ko Nazioarte-Epaibatzaeren eskuetan ipintzeko baldintza-rekin, bai omen ziran bâ Austri'ren eskarien artean, Serbi'ren askatasunaren aurka zijoazen eta Serbi'ak artu ez zezazkean bat edo bi.

Austri'k ez zuan Serbi'ren erantzuna onartu nai izan. Ezta, alkarrizketa eratzeko, luzapenik eman ere. Altagutziz, uztail artan bertan, ez zuala Serbi'ren askatasunik ala osotasunik urratu nai, jakinarazi zuan. Auxe besterik ez omen zan Austri'k billatzen zuana: Serbi'k, Balkanetan bere aurka, ots, Austri'ren aurka, egiten zan propaganda makurrari ez laguntzea.

Ikus dezakezunez ez da osoro erreza gudaren asiera artan argi-egitea.

Badirudi, aski arrazoiezko erantzuna eman zion Serbi'ren aurka laisterkeri geiegirekin ibilli zala gudari asiera ematen Austri'a. Ala ere Pio X'arentzat eta Merry del Val Estadutzako Idazkariarentzat, legeen araura zuzena izan zan, Austri'ren aldetik gudari ekitea.

Badaiteke sentimenak bi elizgizon guren aien iritzian zer ikusirik izatea. Frantzisko Jose Inperatore zarraren Austri'a zan, une aietan, Laterri Katolikorik aundiena, eta Austri'ren aldeko ziran, Frantzi'n III Errepublikak antikleritasunera jausi zanez gero, Aulki Doneko jendeak.

Ots ordea: naiz demokrazi-zalea eta Frantzi'ren adiskide-edo izan, Pio X'aren eta onen Idazkari aren iritzi berekoa izan omen zan Benedikto XV Aitasantu berria ere, Austri'ren guda-ekintzari dagokion legetasunezko auzi zail ortan.

la Europa guztia sutan aurkitu zuan XV Benedikto'k.

Dagonillaren 1'ean eraso zion Guillermo II'aren Alemani'ak Nikolas II'aren Errusi'ari, onek Serbi'ren alde Austri'ri jo nai ziola, eta, Alemani'ren aurka gudarozte-osaketan ari zala arrazoitzat artuz.

Egia zan ortan ari zala Errusi, baiña ortantxe bertan ari ziran Alemani bera, Frantzi, eta Inghlanderria ere. Esan dezagun Inghlanderriaren omenez, Asquith'en Jaurlaritza saiatu zala, Sarajebo'ko erailketaren ondorean, uztail osoaren luzaroan, Europa'ko giroa baretu naiean. Alperrik. Piztu zan bezain errez zabaldu zan gudua. Dagonillaren 2'an Alemani eta Frantzi alkarren aurka tiroka zebiltzan; 4'ean ekin zion Alemani'k Belxika'ri eta, Belxika babestearren, gau ortan bertan Inghlanderriak Alemani'ri.

Iraillaren 3'an artu zuan Benedikto XV'ak aitasantutza. Belxika osoaren jabe ziran ordurako alemaniarak. Baiña il orren 7'an asi zuan Joffre'k Marne'ko lenen gudu-borroka odoltsua.

Isuriko zan odola galanki gudate zoro artan! Erokeriraiño puztu zan errialde guztietako jendeetan abertzalekeria. Benedikto XV'ak bakarrik eginen du pakearen alde irrintzi. Berak bakarrik maite du pakea, baiña pakearen maitasun orrek, mundu guztiaren gorrotoa bereganatuko dio. "Nola daiteke Aitasantua pakearen alde mintza? Pakea ez baiña Aberriaren garaipena bear dugu, eta etsai danen zigorra, zuzenbide ororen aurka eraso bait diote etsai oiek gure Aberriari".

Nork esan zuan ori? Edozeiñek. Guda artara sartu ziran guztien itzak bait dituzu oiek.

Borrokalaria danek uste zituzten beren buruak garbi eta etsaienak zikin. Ez zuan mundu guztiak, guda eta gudaren bitarteko gurenda beste pentsakizunik. ¡Baziran orduantxe, gauza onuragarriak eta aintzagarriak, gurgarriak ia, Gudua eta Borroka...! Aitasantuarentzat bakarrik ziran gauz oiek nardagarriak.

Entzun bere aurreneko entziklikaren itz auek: "Tristissima usquequaque dominatur imago belli; nec fere nunc est aliud quod hominum cogitationes occupet"; "Gudaren aurpegi ituntzarra dakusgu bazter guztietan nagusi; gizonen buruetan ere ez dabil gudarako ez dan pentsamenturik". Eta ori esan ondorean zeatz-meatz agertzen ditu Aitasantuak erromantikeri txoroz jantzitako guda arek Kristaudiari ekarri bear zizkion ondamen ikaragarriak.

Kristaudia aipatu dugu. Bâ..., Kristaudia gorrotoaren azpian ikustek ematen zion Benedikto XV'ari atsekaberik aundiena: kristauek kristauak gorrotatzen eta erruki-gabe erailtzen ikustek.

Sentimen guztiak baiña aundiagoa izan zan urte aietan guda-zaletasuna, Aberria aintzatu-naia. Eta katolikoek katolikoan aurka bezala joan ziran sozialistak ere, dana aztuta, sozialisten aurka borrokara. Sozialisten bitartez guda eragoztearen aldeko izan zalako erail zuan "abertzale" batek Jon Jaurès Frantzi'ko sozialisten buruzagia, borrokaren

asieran.

Ez zan inor Benedikto XV'ari beste orrenbeste egitera ausartu, baiñan ederki orbandu zuten iraiñez eta itz ankerrez borrokalaria guztiek Aitasantu pake-zale aren izena.

"Baiña gorputzaz ain aul eta koxkorra izan genduan Benedikto XV arek izan zituan, edestiak gaiñera jaurti zion zamari erantzuteko, begi zorrotza ta sakona, biotzetiko indarra, eta gogo-kemen miragarria. Isilik euki nai izan da bere izena, baiña isilune oker gaizto orrek, --"le silence injuste qui enture sa memoire"--, ez dezazke aipatutako doai aundi oiek munduaren oroimenetik urrunduarazi" (Daniel Rops).

Borroka asi zan une beretik, etsaia gaitzesteko eskatzen zioten Aitasantuari gudan sartu ziran Laterriek. Batez ere Frantzi, eta Frantzi'ko katolikoak izan ziran lei orri lotuenak, guda Austri'k asi zuala aitzakitatzartuaz. Eta orrelako gaitzespenik lortu ez zutelako, Benedikto XV'arekin asarre ibilli ziran gudate guztian.

Ez zazula uste, ala ere, alemaniarrek Aitasantuari atsegiñez so-egiten ziotenik; maiz, eta izkera gogorarekin, jakiñarazi bait zion XV Bendikto'k Gillermo II'ari, alemaniarren eginkizunak zuzenbidearen aurkakoak zirala. Ala, Belxika'n sartu ziranean, edo itxas-azpiko ontzien bitartez, Laterri Alkartuetako "Lusitania" itxas-ontzia urperatu zutenean, edo guda'zelaietan lurrin erioarriak erabiltzen asi ziranean.

Ez frantziarrek ez "Aulki Doneko kardenal austri-zaleek ez zuten Aitasantuaren askatasunik makurtu" (Encyclopaedia Britannica).

1916'ean Irlanda, Alemani'ren onetsiarekin Inlanderriaren aurka iraultzan jeiki zanean, Aitasantuaren onespina nai izan zuten, Irlanda'ko, -- eta Alemani'ko ta Austri'ko--, katolikoek. Lenago belxikarrek bezala, onspen ori gabe gelditu bear izan zuten beste auek ere.

Pentsa dezakezu gauzak okerrago jarri zirala oraindik Benedikto XV'arentzat 1915'ean Itali, Alemani ta Austri'ren aurka gudan sartu zanean.

Alatagutziz, gudatearen luzaro guztian, ez zuan Aitasantuak errudunak nortzuk izan ziran epaitu nai izan, "troppi elementi mancandogli a ciò e non essendo simili sentenze nella tradizione apostolica", "ortarako nola-pentsa-gai asko falta zitzaizkiolako orduan, eta orrelako epaiketaren oiturarik Aulki Doneanren edestian lenago iñoiz izan ez zalako" (Enzyc. Ital.).

Etsaien geiegikeriak gaitzestea beintzat itxaro zuten Aitasantuaren-gandik borrokalaria guztiek, frantziarrek bereiziki, alemaniarrek Belxika'n izugarritzko gaitzak egin zituztelako aitzakiaz baliaturik.



Beste iñon baiño geiago piztu zan, agian, Frantzi'n fanatikeria, eta iñon baiño aundiagoak izan ziran an, baita're etsaien gaiztakeriari-buruz zabaldu ziran gezurrak. Frantzi'ren edo Frantzi'ren adiskideen onturrerako zitekean oro, ontzat eta egizat artzen zuten frantziarrek, baita Frantzi'ko elizjendeeek ere. Beste edozerren gaiñetik zegoan an aberzalekeria, baita arrazoi zuzenaren gaiñetik ere; eta ori..., baita arrazoi-gurtzailerik aundientzat, eta liberaltasuneko razionalistarik zorrotzentzat ere!

Integristek berak ez zuten liberalekin edo komunistekin edo masoiekin edo anarkistekin alkartzeko, kontzientziko arrik izan. Bai zera! Erljio berri bat bezala, edo, beintzat, erlijioaren mamirik nagusienetakoa bezala zekusaten abertzalekeria-ta! Alkartasun orri berari ere "L'Union Sacrée", "Alkartzete Donea", deitu oi zioten.

Era berean zebiltzan gauzak Alemani'n ere. Emen, "erlijiotasunez berbiztutako udaberri gaztea" izen-eman zioten guduari Laterriko jakintsu katolikorik ezagunenak, erriarentzat idatzitako Azalpen batean. ¡Errusi'n ere "Guda Donea" esaten zitzaion borroka ari!

Bazuan naiko lan, guda erlijio biurtu zuan mundu aren erdian, pakezale bakarra zan Aitasantu gaixoak! Laister ikusi aal izan zuan etsaiari lepotik zintzilik ipintzen zitzaizkion ankerkeri geienak gezur utsak zirala, eta alemaniarrek Belxika'n txarkeriren bat egin ba'zuten ere, ez zirala txukunago ibilli errusiarrak Galazi'ko lurraldeetan.

Zugurki ibilli zan, beraz, Benedikto XV'a, eta iñor izenez bereiziki gaitzesteke, "bein da berriro, eten gabe, gizakumeen eskubideen aurkakoa zitekean guztia gaitzetsi zuan, okerra norena zan begira egon gabe"; "condannó volta per volta le violazioni del diritto delle genti chiunque ne fosse l'autore" (Enzic. Ital.).

Gudak zigortutako guztiengana iritxi zan Aitasantuaren ardura. Zaurituek, katigiek, borroka-lekuetako uriek, uri oien bonbaketek eta uri oietako gudari ez ziran jendeek, agureek batez ere, eta aurrek, guda-epaigeletan epaitu-bearrek, borroken ibilkerak senditik bereizirik eta etsaien mendean uzten zituan pertsona guztiek..., nekepetu eta zori-txarrak-jotako danek izan zuten Benedikto XV'aren biotzean toki.

Bearkizun orori erantzuna ematen saiatzeko, lan-gela bereizi bat eraiki zuan Batikan-Jauregian. 90 pertsonak egiten zuten gauez eta egunez lan, mundu guztiarentzat irikirik zegoan gela artan; Aitasantuak ordaindu zitun, -- milloika asko--, ekintza orrek sortu zituan gastu guztiak.



Baiña bazekian Benedikto XV'ak izurripetuei laguntzea naikoa ez dala izurriari berari sendagairik aurkitzen ez ba'zaio. Bi eratara egin zuan arlo onetan lan: gudaren zabalketa galerazi naiez, eta gudari amaiera onoretsu

bat aurkitzen saiatuz.

Gudaren zabalketa galerazteko ari izan zan, Itali gudan sartzea eragoztearren, ezteki ekiñean. Asmo orretxegaitik erabili zuan gudaren aurka ain izkera gogorra; guda erlijiozko birtute egiñik zeukaten abertzale zoroak, ez alde batean ez bestean, ulertzeko gauza izan ez ziran izkera.

Batez ere, Aitasantuak gudari "l'inutile strage", "alperrikako sarraskia" deitu zionean asarretu zitzaion jendea, danek uste bait zuten guda ura "alperrikakoa" ez baiña Aberriaren aunditasunarentzat bear-bearrezko gauza sagartua zala.

Oraingoan, italiarrak izan ziran asarretuenak; auek ere erotu bait zituan abertzalekeriak Frantzi'ren alboan Itali gudian sartu zanez gero. Ordurarte gudan sartzearen etsai, pakearen maitale eta oso-osoan Austri'ren zale izan ziran katolikoak, ia ango katoliko danak, Austri'ren etsai biurtu ziran orain bat-batean; eta pozik alkartu zitzaizkigun liberal antikleristarik gogorrenekin.

Aitasantuak zionez, "strage", "sarraskia", bazan eskierki gudua. Baiña "inutile"? Nola zitekean "alperrikakoa", austriarrak Adagio-aranetik bialduta, Aberriaren osotasunerako, Itali guztiak bear-bearrezkoa zuala uste izan zuan "gudu santu ura"?

Borroka amaituarazteko Benedito XV'ak egin zituan lan guztiak aipatze utsa ere aspergarri izango litzaizuke, gelditu gabe ari izan bait zitzaizun, ortan, guduaren luzaera guztian.

Baiña, batez ere, orduan politikarien artean eta gaur edestilarien artean zaratarik geiena atera zuan ekintza, Benedikto XV'ak 1917'aren dagonillean saiatu zuana da. Ikus dezagun, ordea, aurrena, zergaitik zitekean ain aundia Aitasantuak guda amaitzeko zuan guraria:

- Eriotz eta oiñazeak bukaarazi nai zitualako, bai noski;
- Benedikto XV'a, bere oldozkerak bultzata gudaren etsai eta pakearen adiskide sutsua zalako, zalantzarik gabe.

Baiña baita beste bi arrazoigaitik ere:

- Europa guztia txikiturik eta batez ere osoro naasirik geldituko zala ikusten zualako.

- Austri'a ondamenetik salbatzeko; Aitasantuak eta bere laguntzailleak, "etsirik bait zeuden, eta Biena'n baiño zugurrago, guda luzatzen ba'zan Austri-Ungari eriotzako arriskuan aurkituko zala"; "Ils étaient convaincus, plus encore qu'on ne l'était à Vienne, que l'Autriche-Hongrie, par la prolongation du conflit, était engagée dans une lutte pour la vie ou la mort" (Aubert).

Aitasantua bera, sentimenez, Frantzi'ri erantsiagoea zan, agian, Austri'ri baiño; baiña maite zuan Biena'ren Inperio-lur katolikoa. Ez zezakean aantzi Austri izan zala luzaroan sortaldetiko erasoetatik Europa babestu zuana. Ainbeste erri ez berdiñez osatutako Latèrri Zabal ura aulegia zan guda luze bati aurpegi emateko, eta, guda galdu ostean, bere altzoko erridi ez berdin



aiek batean alkaturik gordetzeko. Luzea ikusten zan, berriz, guda 1917'aren dagonillean; oso berdinduak bait zeuden une artantxe bi alderdien indarrak.

Orduan aurkeztu zien Zazpi Puntutan, Benedikto XV'ak, bi alderdietako borrokalaria odol-ustuei, Pake Zuzen Onoretsu bat bereala antolatu aal izateko Egitarau edo alkar-konponketarako-bide bat.

Bazekian Aitasantuak, odolaren usaiez basapizti biurturik zeuden gizakume erremindu aien artean, Pakearen deiak, entzuna izateko, oso posibilitate gutxi izango zituala; baiña alatagutziz, Pakeak oro merezi zualaren ustean, zugarri asi zan bere asmoetaz borrokalariai jabetuarazten, --Austri'ko eta Alemani'ko inperatoreak lendabizi, bai bait zirudian orduan bi inperatore auen gudarozteek, Errusia'ren aurka lortutako garaipenen ostean, bentajaxo pittin bat bazutela--; eta, gero, Frantzi'ko eta onen Laterri adiskideetako agintariak; Jorrallean Laterri Alkartuak gudan sartu ziran ezkeru bentaja alderdi ontara igaro zala zirudialako.

Sakonak eta zugarriak ziran Aitasantuaren Zazpi Puntuak. Arrazoi osoz diote gaur edestilariak, guda amaituta pakea egiteko Wilson Lendakari amerikarrak mundu guztiaren txaloz inguraturik aurkeztu zituan "Amalau Punttuen" mamia bi urtez aurretik aurkeztu zuala Aitasantuak! eta "Con maggior senso pratico", "Gauzen aldetik zentzu aundiagoarekin" edatuak, dio Itali'ko Entziklopedi fatxistak. Ikus orain Benedikto XV'aren "Zazpi Puntuak":

- Gudaren asieran zituan mugen barrura bilduko ditu Laterri bakoitzak bere gudarozteak. Indarrez artutako lurak oro, lengo jabeari itzuliko zaizkio.

- Belxika'ri askatasun osoa birremango zaio. (Asko maite zuan Belxika Benedikto XV'ak).

- Frantzi'k eta Alemani'k, Austri'k eta Itali'k eztabaidan darabilzkiten lurraldeak, "secondo le aspirazioni dei popoli", "lurralde oietako errien guraria ta leia kontuan artuz" konponduko dira. (Orra or, Frantzi'ko Iraultzaren Demokraziak usmatu ere egin ez zuan "Urrezko Araua". Arau ori kontuan artu ez zualako kendu zion Frantziar-Iraultzak Ipar-Euskalerrari Lege Zarra; eta Iraultza aren pentsaera Españi'ko Legediaren izpiritu egin zanean izan zitzaion kendua Ego-Euskalerrari ere, era berean, indarrez, Lege Zar ura bera).

- Balkan-Mendietako erridien auziak, eta Poloni'ren auzia, eta Armeni'rena ere bai, bertako errien aburuen erara konponduko dira. (¿Ez al da ori --eta soilki ori-- egiazko demokrazia?)

- Guda amaituta, izkillu-egiteari neurri ipiñiko zaio. (Orra or, gaur egungo "désarmement" edo "izkillu-ezereztea", ain goiz Aitasantuak eskatua).

- Gudatik sortutako zorrentzako barkamen osoa emanen da, "salvo eccezioni per ragione di giustizia e d'equità", ots, auzi bereizi batzuetarako,

"zuzenbideak eta zentzu onak besterik eskatzen ez ba'dute beintzat".  
(Batare errurik gabe Belxika'k jasan bear izan zituan ondamenak dauzka punttu ontan bereiziki Benedikto XV'ak begien aurrean).

- Itxasoa, danena, --eta danentzat iarea--, izanen da; "Libertà e comunanza dei mari".

- "Instituzione di un arbitrato obligatorio"; "Danak bere esanera beartzeko almen izango duan Zaindaritza Guren bat ipiñiko da" Laterri guztien gaindik, Zazpi Punttu auetan aurkezten dana bear bezala guztien partetik betea izan dedin". Orain Aitasantuak eskatzen duan Zaindaritza Guren ori, izan zan gero garailleek Jinebra'n irasi zuten "Nazioen Alkartea"ren eredu.



Min dute gaurko edestilariek Benedikto XV'aren Zazpi Punttu oiek erantzunik gabe gelditu izateaz.

1917'ko Dagonillaren 14'ean, Laterriek Benedikto XV'ari baiezkoa eman ba'zioten, milloiterditik bi milloira bizi salbatuko zirala eriotzetik, diote edestilari oiek.

Eta, Europa'ko pakea zuzenkiago egiña izanen zalako, agian Bigarren Ludi-Guduari nundik-eta-zertatik-asirik ez zitzaiola emango ere esan daitekeala uste dugu guk.

Karlos I Austri-Ungari'ko inperatore berriak bakarrik zirudian pake egitearen maitale. Baiña Austri'k ez zezakean Alemani'rik gabe erabaki bat artu; eta Alemani'k, Errusi iraultzan murgildurik zegoala-ta, uste bait zuan guda irabaziko zuala, itz ederrez bakarrik erantzun zion Aitasantuari. Guda nai zuan Alemani'k, azkeneko gurenda arte.

Frantzi'k, eta berekin alkartuek, diplomaziaren araudi eta oiturak agintzen duan guztiaren aurka, ez zioten Aitasantuari erantzun ere egin: ezta aren eskutitza jaso zutela esateko ere. Arro bait zeuden aiek orduantxe, iparramerikarrak, borrokarako, aldean zituzten ezkerro. Bijoa aurrera guda, arerio danen indarrak zearo desegin arte!

Egia esatekotan, ordea, bi aldekoek ipiñi zutela, esan bearko genduke, Aitasantuari erantzuteko oso ardura koxkorra.

"Alde ontakoen" iritziz, Aitasantuak "beste alde" salbatu nai zuan, eta "beste alde artakoen" iritziz berriz, "alde au"!

Katolikoan, batez ere Itali'ko eta Frantzi'ko katolikoan jokabidea izan zan Aitasantuarentzat mingarriena.

Leon Bloy idazle integrista ospetsuak, "Pilato" deitu zion. Ondo ezaguna da Sertillanges izlari domingotarra. Ona zer esan zuan onek Malen Deuneko pulpittutik: "Très Saint-Père, nous ne pouvons pas, pour l'instant, retenir vos appels de paix"; "Ez dezakegu oraingoz, Aita Txit

Santua, zeure pake-deirik entzun". Izlariaren atzetik Amette Kardenala bera, Paris'ko Goigotzaia omen zegoan, eta onen baietsia zeramala eman omen zan argitara, Serillanges domingotarraren itzaldi doakabe ura.

Arrazoi osoz dio Daniel Rops'ek: "La France eut le triste privilège de s'illustrer dans la campagne d'insultes qui se déclencha alors"; Aitasantuaren aurka "piztu zan irain-edaketan bere burua ezagun egiteko bereiztasuna lortu zuan orduan itunki Frantzi'ak tamalez". Clemenceau'k ere ipiñi zion bere izentxo Benedikto XV'ari: "Le pape boche"; "Aitasantu boxtarra", izen onen bidez, deitzen bait zitzaien alemaniarrei Frantzi'n: "les boches".

Ez zeuden alemaniarrek ere atsegin osoz; Frantzi'ren eta Itali'ren eta batez ere Belxika'ren aldeko, etsitzen bait zuten an Aitasantua.

Austri-Ungari'an bertan Benedikto XV'ak "Schwarze Schaffe", edo "ardi beltzak" obeki tratatzen zituala, zioten, "weisse Schaffe", edo "ardi zuriak" baiño. Ardi zuriak, jakiña, austriar eta ungiar katolikoak ziran; "ardi beltzak", Frantzi'ko liberal antikleri-zaleak, Itali'ko aitasantuen-erregetzaren-ebasleak, Errusi'ko ortodoxiarrak, eta Ingianderriko ta Ameriketako ereje protestalariak.

Bere ardiengandik, bere ardi "beltz" edo "zuriengandik" izen onik osoro berrirabazi gabe il zan Benedikto XV'a. Ona zer idatzi zuan askoz geroago, 1934'ean!, Iztegi Katoliko ospetsu batek: "Meme an 1934 il est trop tôt pour formuler a ce sujet un jugement définitif" (Dictionnaire d'Histoire et de Géographie Ecclésiastiques): Benedikto XV'ak guduan erabilli zuan jokaerari-buruz "beinbetiko epai-itx seguru bat eman aal izateko azkarregi da oraindik 1934 ontan ere". Frantziar-abertzalekeri ustela!!!

Asko kosta zan Benedikto XV'aren aunditasuna ezaguna egitea, baiña jakintsu eta idazle askok eta askok eman zuten, bai noski, ordurako, Aitasantuaren alde, beinbetirako, beren epai-itza.

Ona zer dion Itali'ko Iztegi fatxistak Benedikto XV'ak gudateko gizagaixo guztien alde egindako lan arrigarri guztiak oroitzean: "Il papa fu nella guerra un elemento essenziale". "Bear-bearrezko pertsona izan zan Aitasantua gudan".

Egia! Bear-bearrezkoa, "essenziale", baiña batez ere guda-gurketa orokor aren zurrunbilloan, gizakumeen elburua ta zoria, guda ez baiña pakea zala, berak bakarrik ezagutu ta ozenki aitortu zualako. "E quantunque gli Stati si alternassero nel dir male del pontifice, finirono per comprendere che non potevano ignorarlo"; "eta naiz Laterriek txandaka Aitasantuaren aurka gaizki esaten ariak izan, ikusi zuten azkenean ezin zutela Aitasanturik kontuan ez artu" (Enzyc. Ital.)

Ederki esana! Guda amaituta Laterri aiek pakegintzarako bildu ziranean ez zuten Aitasanturik deitu, --orixe eskatu ere bait zuan Itali'k gudan sartzeko: Aitasantua kontuan ez artzea--, baiña an zegoan danen begien

aurrean, Aitasantuaren itzala, eta aren Zazpi Punttuen oroia; izan ere puntu aien eta bere gaiñerako idazkien bidez, Benedikto XV'ak "ezarri bait zituan "Nazioen Alkartea" izenez ezaguna dan eta 1919'ean irasia izan zan Erakundearen oiñarriak"; "Sketched in large lines the organizations established in 1919 and known as the League of Nations" (Catholic Encyclopaedia).

A! Ingländerriaren Entziklopedi onek ere, "Austri'k eta Alemani'k eraginda, argitara eman zituala, uste du, Benedikto XV'ak Zazpi Puntu ospetsu aiek.

Arrazoiz deitu oi zaio Benedikto XV'ari "ezagutua izan gabe igaro zan Aitasantua".

¡Eta eskertua izan gabe! Badute ontan erru galanta "edestilari katoliko askoren txarkerizko eta lotsagabekerizko ariketek"; baiña au idatzi zuan Daniel Rops bera ere, --frantziarra izaki!--, Aitasantua alemaniarren eta austriarren alde zebilelaren ustekoa dugu.

Beste era batera jokatu gura zuan Benedikto XV'ak. "Zuzenbidezko eta luzarorako pake bat nai omen zuan ezarri, --berak dioskunez--, "une paix stable et équitable", eta ez gorrotoak eta apentza-goseak sortârazitako pake bat, orrela egindako pake guztiek "ordaiña izultzeko leia esnaarazi, eta ezin ikusia gizalditik gizaldira bizirik gorde besterik ez omen dute, bada, egiten beti"; "préparent la revanche et transmettent la haine de générations en générations".

Igarle irten zan Aitasantua. 1919'ko pakea izenpetu bezain laister gorputz-artu bait zuan Bigarren Ludi-Guduaren mamuak, Europa'ko etorki-zuna beztuaz.

Egiatzko pakea, errien eskubideak eta naikunde jatorrak kontuan artuz bakarrik egin omen daiteke, "pesant les droit et les justes aspirations des peuples". A, nolako ikasgai ederra demokrazizaleentzat!

Aitasantu bikaiña zala, XV Benedikto!

Agian orretxegaitik Benedikto XV'ari egin zaion goratzarrerik aundiena Laterririk demokrazikoiaren Lendakariak egin zion, Suizi'ko Lendakariak; laister gaiñera; 1924'ean; eta Jinebra'n bertan; "Nazioen Alkartearen" altzoan. Entzun Joseph Motta'k frantzieraz ludi guztiko Laterrien ordezkarien aurrean esan zituan itzak:

"Si l'humanité parvient un jour á supprimer la guerre, --ce qui est encore peut-être lointain--, c'est au principe de l'Arbitrage, tel qu'il fut proposé par Benoît XV, qu'elle devra cette conquête, d'une valeur inestimable"; "Iñoiz gizadia guda eragoztera iristen ba'da, --oraindik urruti dagoan lorkuntza, noski--, Benedikto XV'ak aurkeztu zigun "Zaintza Guren" ari eskerrak iritxi aal izango da. Bagenduke, benetan, ori, balio ederreko lorketa".

Suizi'ko Lendakariak ez zuan Wilson aipatu; Benedikto XV'a aipatu

zuan. Ez zituan Wilson Laterri Alkartuetako Lendakariak batzar artara ekarri-berriak zituan Puntuak aipatu. Soilki Benedikto XV'aren "Zazpi Puntuak" aipatu zituan. Bazekian zer ari zan!

## ERRUSI'KO IRAULTZA

Baiki zan zori txarreko erria mende onen asierako Errusi'a:

Igartua eta legortua, Laterri despotikoi baten serbitzari mutu besterik ez zan Eliz Ortodoxiarra; Usteldua zegoan jauntxoen eta aundikien aristokrazia; erdiaroko joputzaren uztarripean, erri ez-jakiña. Ain zuzen kendu berria zan, --1851'ean--, joputza; baiña, legea lege, len bezala jarraitu zuan eguneroko bizitzaren maillan erriak. Inperatorea, --II Nikolas 1894'aez gero--, borondate oneko gizona zala diote edestilariek, baiña kemenik gabea.

Ez da arritzekoa giro ortan Bakunin'en anarkismoa, Marx'en sozialismoa baiño geiago zabaldu izatea, erri guztia nekazaritzatik bizi bait zan Errusi'n; lan egiñaz erria, lan orren zitua-janez aristokrazia. Ez zan industririk. Alatagutziz, Bakunin'ek ez baiña Marx'ek atera zuan aurrera Errusi'n Iraultza.

Iraultzarako bereiziki jaioa izan zala dirudin gizon baten merezimendua izan zan ori: Vladimir Ilich Ulianov "Lenin"en merezimendua. Lev Davidovich "Leon Trotsky" izan zuan laguntzaille. Iraultzalari trebea au ere; berak tajutua da Errusi'ko "gudarozte gorria".

Gizarte-mobimentu osoa izan zan Errusi'n txit berandukoa. 1905'ean lortu zuten liberalek "Duma"ren irikitzea. Altagutziz, izen utsezko Parlamentua geiago izan zan "Duma" ura, egiazko Lege-Batzarra baiño. Ala, ez zituan liberalik geienen gurariak bete, demokrazi osoa eskatzen bait zuten, despotikeriz aspertuta.

Marxitar-Alderdia, 1898'koa da. Plekhanov'ek sortua. Laister egin zituzten beren buruak ezagunak alderdi artan Lenin eta Trotsky gazteek.

Oso-osoan marxitarrek ziran alderdikide aiek danak, Marx'ek bezala Iraultza ekonomia-baitan berez sortzen dan gertakaria zala uzte zutenak. Aien iritziz, odei anpatuak euria, edo bei ernarituak erditzea berezkoak dituzten bezala, naitanaiezkoa duala kapitalismoak ere iraultzaren lerketa, esango genduke, gauzak irudien bidez argitzea zillegi balitzaigu; eta beiaren erditze-ostean biziki berri bat mundura agertzen dan bezala, agertuko dala kapitalismoagandiko Iraultzaren ondorean beste bizitza berri bat: komunismoa.

Iraultzarik gabe ez dago, beraz, komunismorik, baiña ezta Iraultzarik ere, kapitalismorik gabe. Orixen, --eta orixe bakarrik--, bait zan Marx'ek berak Iraultzari-buruz pentsatzen zuana ta erakutsi zuana. Orregaitik, Plekhanov, Lenin, Trotsky, Vera Sassulitsch eta gaiñerako errusiar marxitarrek, kapitalismoaren sorketari ats ematea eta kapitalismoari azitzen eta bizkortzen laguntzea izan zuten lenen elburu nagusia. Luzarorako uzten zuten Iraultza.

Ortantxe zegoan, ain zuzen, une aietan Marxitarren eta Bakunindar anarkisten arteko bereiztasunik aundiena, Bakunindarrentzat Iraultza bereala egin bearra zan gauza bait zan, eta indarkeriz egin bearra gaiñera, ameskerizko utopi alua iruditzen bait zitzaien Marx'ek asmatutako Iraultzaren "berezkotasunaren" kontu ura dana. Ortik zetorren anarkizaleek marxitarrei zieten iraiña.

Iraultza-zai jarraituko zuten oraindik marxitarrek Errusi'n, anarkizaleen Iraultzari-buruzko aburua marxitar aietako baten adimenean sartu ez balitz. Lenin izan zan marxitar ura. Aurka irten zitzaizkion Plekhanov, Martov, Vera Sasolitsch, Trotsky bera, eta Errusi'ko marxista geienak; baita ludi osokoak ere: Kautsky, adibidez, edo Rose Luxemburg, eta Marx'en eta Engels'en adiskide izandako Bebel... ¡Entzun bear izan zuan itz zakarrak aski, Lenin'ek, marxitarren aldetik...! Baiña yayoki jokatu bait zuan Errusi'ko Alderdi marxitarren altzoan, laister ziran geiengo, --"boltxeviks"-- Lenin da lenindarrak, eta gutxiengo, --"mentxeviks"--, marxitar ortodoxoak, ots, marxitar uts garbiak.

Lenin dugu, beraz, Marx'en "pentsaera" "biziera" biurtu zuana, Marx'en teori-utsezko munduetako Iraultzari mundu ontako gertakizun izateko posibilitatea eman ziona. Lenin gabe, ez zan ludian Laterri Komunistarik izango, marxitasuna teori uts geldituko zan; filosofiaren ortzadarrean margo bat geiago.

Baiña Lenin'eri, bere asmoak mamitu aal izatea, gertakizunen urratsek eman zioten.

1871'an Paris'en Komuna sortu zuan Iraultzaren antzekoa dugu Errusi'n Komunismoa sortu zuan Iraultza.

An bezala, emen ere gudatiko ondamen aundi bat dugu Iraultzaren sorburu. An bezala, emen ere, Autoritaterik ezak ematen dio ats Iraultzaren txinpartari. An bezala, emen ere, Iraultza izkilluzko borrokaren ondorio indarrezkoa da, ez ekonomiaren emaitza. "Garde Nationale" edo "Nazio-Ertzaindiaren" laguntzari eskerrak aurrera atera zuten anarkistek Paris'ko Iraultza: Errusi'ko gudari asarretuak eta mariñelak erabiliko ditu Lenin'ek bere Iraultza garaille ateratzeko.

Ordurako bereganaturik zeukan Trotsky izan zuan, Lenin'ek, izkilluketa ura prestatzeko lagunik egokia.

Paris'ko Komuna sortu zuan Iraultza, Errepublika baten aurka egiña



izan zan, Frantzi'ko III Errepublikaren aurka; ez Napoleon III Inperatorearen aurka. Era berean, Errusi'n komunismoa ezarri zuan Iraultza ere ez zan II Nikolas "Tsar" edo Inperatorearen aurka egiña izan, Errepublika baten aurka baizik, ordurako inperiotza deseginda, irasia bait zuten an Lvov Printzipe liberalak eta --naiz marxista izan ez-- sozialista zan Kerensky'k Errusi'ko Errepublika demokratikoa.

Bi iraultzen sorkuntza ain berdiña izanik, San Petersburg'ekoak Paris'ko arek baiño ondorio zakarragoak zergaitik ekarri zizkigun?

A)- Errusi'n gudateko ondarena aundiagoa izan zalako. Prusi'ren aurka Frantzi'k gudateko borroka bat galdu zuan 1870'ean Sedan'en. Errusi'ak guda osoa 1917'an, sarkaldeko mugetan, Alemani'ren aurka.

B)- Sedan-ostean ere, Frantzi'ko gudaroztearen izpirituak bizkor eta sendo jarraitu zualako. Abertzaletasunez beterik zirauten Frantzi'ko gudariak, borroka prusiarren aurka jarraitzeko leiaz, eta ala, borrokan, jarraitu ere zuten gartsuki. Ez zuan gudarozte artan iñork iraultzagiterik pentsatzen. Errusi'ko gudaroztea, berriz, izpiriturik gabe eta moralitaterik gabe gelditu zan, guda-lekuetatik igeska, San Petersburg'eko bideetan apentza deika; agintarien erruz eriotzara, bear-bezalako prestaketarik gabe jaurtiak izan zirala uste bait zuten, arrazoi guztiarekin gaiñera, gudari zanpatu aiek. Ikaragarria izan zan Errusi'ko gudarozteak eraman zuan jipoia. Milloika-eta milloika, utzi zituan zelaietan gorputz illak; konta ezin ala, zaurituak. Atsik gabe, beren buruenganako lotsaren apurrik gabe zetozen San Petersburg'era gudari gizagaixo aiek, borroka-tokietatik izuturik igesi, amorrus beteta, edozein moduzko iraultzarako gerturik.

Frantzi'n 1871'eko iraultza ez zuten gudariak egin; Paris'ko, "Nazio-Ertzaintza" zeritzan miliziatarren laguntzarekin, anarkistek egin zuten, eta jakiña da miliziatar aien zintzotasuna eta moralitatea beti izan zirala nolabaitekoak. Frantzi'n, gudariak, zapaldu egin zuten odoletan Iraultza, eta nolako gogorkeriz gaiñera!!!

D)- Frantzi'ko eta Errusi'ko errien bizierak zearo ezberdiñak ziralako. Frantzi'ko erria, erri aberatsa zan; alderantziz, Errusi'koa, ezbearrik audienean bizi zan. Orregaitik Frantzi'n, eta Paris'en bertan ere, erriak ez zuan anarkizale-txorta baten iraultza ura berekotzat artu. Erriak, III Errepublikako Agintariak artu zituan bereak lez. Agintari aiek ziran erriaren ustez prusiarren aurka Frantzi babesten zutenak; are geiago, Agintari aiek ziran Frantzi.

Errusi'ko erriak ere pozik onartu zuan Errepublika, baiñan, tamalez, Errusi'ko Errepublika onek, Frantzi'ko III Errepublika arek bezala, gudan jarraitzea erabaki zuan. Kerensky'k ez zuan ikusi noraiño zegoan Errusi guzia bildur-ikararik audienaren azpian izuturik, eroturik ia.

Frantzi'ko erriak ez zion gudan jarraitzeari bildurrik. Ez zuan, beti gorrotatu izan dituan prusiarrengandik nolanaiko pakerik nai, pake onuratsu



bat baizik.

Errusi'ko erriak ordea ez zien alemaniarrei gorrotorik. Bazekian, --edo beintzat uste zuan--, guda zearo galdurik zeukala, eta pakea nai zuan. Berealako pakea. Edozein erako pakea. Edozein baldintzetan, pakea!!!

Ez; ez ziran gauza berdiña Frantzi'ko erria 1871'ean, eta Errusi'ko erria 1917'an.

Orregaitik, larritu ziran Errusi'ko uri eta baserrietan gudarien amak, Kerensky'k gudan jarraitzeko asmotan zegoala azaldu zuanean.

Erotu egin ziran gudariak berak, Poloni-aldeko zelaietara itzuli bearko zutela esan zitzaizenean, bai bait zekiten alemaniarren aurka borroka-egiteko izkillu egokirik ez zutela. Erotu, batez ere, mariñelak, eta ez arrazoirik gabe, Alemani'ko ontzien kañoiak Errusi'koenak baiño urrutirago iristen zirala ezaguna bait zuten. Oroitza txarra zetorkien gaiñera errusiarrei burura; amabi urte lenago, arrazoi beragaitik, ots, japoindarren kañoiak elmen luzeagoa zutelako, urpera joan bait ziran Errusi'ko mariñel danak Tsuxima'ko itxas-borrokari.

Kerensky'ren asmoa ez zan agian alemaniarrei aurrez-aurre aurpegi ematea, Errusi'ko lurren zabalera amaigabeaz eta bertako neguen otx gogorraz baliaturik, basa-borroken bitartez guda luzaaraztea baizik.

Eskierki, azkeneko guda ontan izan dan bezala, ura izango zan orduan ere Alemani'ren ondarena. Errusi'ko gudari ta mariñel izutuek ordea ez zuten orrelakorik ikusi, eta berealaxeko pakea eskeintzen zien Lenin'en atzetik jeiki ziran Errepublikaren aurka.

E)- 1914'ean itxaropenez beterik sartu zitzaizkigun gudari aiek berak Serbi'aren alde borrokara. Jende guztiak uste zuan Errusi'n ere, bere gudarozteek aisa ta azkar lortuko zutela, aberriaren aunditasunerako, garaitza betea. "Gudu Donea", izen-eman zioten Frantzi'n bezala borrokari, eta danek, --liberalek, sozialistek, anarkistek, eta aristokrazikumeek--, danek egin zuten bat "gudu done" artara alaiki joateko.

Baiña Errusi'ko gudarozteak ez zuan kixazko izkillurik, ez bear aiñako prestakizunik, ez agintari egokirik. Ala ere, gudarien kementasunari eta ausardiari eskerrak, ederki jokatu zuan gudaren asieran. Ez luzarorako.

- 1915; Laister agertu ziran gudarozte aren akatsak eta ikaragarritzko jipoia eraman zuan bere sarkaldeko guda-lerro guztian, Galitzi'n batez ere. Erriak Jaurilaritzari jaurti zion ondamen guztiaren errua.

Ez zitzaion arrazoirik falta. Gudaroztea ez ezê; Errusi'ren erakunde osoa ere ez bait zegoan gudakeña baterako prestatua. Orregaitik laister asi zan gosetea ain Laterri zabal aren baztar guztietara edatzen.

- Rasputin izeneko ala-olako lekaide bat zan une aietan politikaren izkutuzko zuzendaria, bere esanera bait zeuden Nikolas II'a eta, batez ere, onen emaztea. Ezin ikusi zuan iñork Errusi guztian lekaide ausarti arek Tsar-Tsariñen baitan zuan almena.

- Dumak, ots, Parlamentuak Laterriaren gidaketa zuzentzeko erabaki portitzak artzen saiatu zedilla eskatu zion Nikolas II'ari. Eta errusiar ez ziran eta Laterriaren altzoan bizi ziran beste enda ta errien eskubide-eskariak kontuan artzeko. Nikolas II'aren erantzun bakarra, bere burua guduaren Zuzendari Nagusi izendatzea izan zan. Ezertarako balio ez zuan izendatze txoraa, edonork bait zekian Errusi'n, Nikolas II'ak eginkizun artarako gaitasun-apurrik ez zuala.

- 1916; Ala ere, saiatu ziran, Aberriaren alde, Dumako diputaduak, eta erriko jendeak, al zutena egiten. Kementasun orren emari izan ziran udaberrian, eta udan, guda-zelaietan lortutako irabazketak.

- Udazkenean, ordea, kontserbatzailleak sartu zituan, liberalak botata, Inperatoreak Jaurlaritzan. Aldaketa ura, Rasputin'ek ordaindu zuan larrutik, aristokraziko liberal batek bizia kendu bait zion. Tsar'ek eta Tsariñe'k agertu zuten samin neurrigabeak, eta lekaide eraillaren omenez ospatuarazi zituzten illeta aunditsuek, jende guztia, aundikiak eta txiroak, danak, asarrearazi zituzten.

- Jaurlaritzako kontserbatzailleek, --guda irabazterik ez zeukatela ikusten zutelako nunbait--, Alemani'rekin pakeak egin nai izan zituzten. Laister ikusi aal izan zuan gudarozteak, kontserbatzaille aiei guda garaitsu ateratzeagaitik ajolik ez zitzaie; pakea nai zutela edozein moduz.

Konfiantzarik-eza aundia sortu zuan jokaera onek gudarien artean.

F)- Gosea, gero ta aundiagoa zan Errusi guztian, batez ere urietan.

- 1917. Goseak maiz darama jendea urduritasunera eta matxinadetara. Borroka-tokietan, izkillu egoki faltaz, ezer egiteko gauza ez dirala ikusteak, sumindurik zeuzkan gudariak.

- Epaillean, San Petersburg'eko erria jeiki zan. Bildur ziran Dumakoak erri arek geiegikeririk egingo ote zuan, eta, igikundea neurritik atera ez zedin, beren buruak erri urduri aren buruzagi ipintzea izanen zala onena, uste izaten zuten. Ori ikusiz gero, epail orren 12'an utzi zuan Nikolas II'ak buruntza, beste atera-biderik ez zualako, Dumaren eskaria onartuz. 17'an eman zion Dumak sortzea Errusi'ko Errepublikari.

Lenin'en Iraultza, beraz, ez zan, askok uste duten bezala, Tsar'en despotikeriaren aurka egin; Errepublika liberal baten demokraziaren aurka egin zan.

G)- Marx'ek iraultzari-buruz erakutsitakoari uko egiñaz, iraultzarako prest zegoan ordurako Lenin. Oroi, bei ernariaren sabelean txala berez azi ta jaiotzen dan bezala, Iraultza ere ekonomiaren altzoan berez jαιο ta berez lertu bear duan gauza dala, idatzi zuala Marx'ek. Ori uste zuten Errusi'ko "mentxebikeek" ere, eta ori uste zuan Trotsky'k berak. Ez zitzaion ordea arrazoirik falta Lenin'i, iraultzalariek egiten ez ba'dute, iraultzarik ez dala sekulan berez sortzen, oi u egiten zuañean.

Laister ibilli bearra zuan gaiñera, Errusi'n iraultzarik egin nai ba'zuan.

Bestela, demokrazizko Errepublika ezarri-berri aren altzoan berez sortuko zitzaion gauza, iraultza ez baiña, langilleen Alderdi liberal paketsu bat izango bait zan: Inghlanderriko Labour Party'ren antzeko Alderdi sozialist-liberalkoi bat.

I)- Errepublika azaltzean, bi Agintaritzza Nagusi agertu zitzaizkigun, batera, Errusi'n: Dumak izendatutako "Bitarterako Jaurlaritzza", "Gobernu Probisionala", eta langille ta gudari sozialistek eraturako "Sobiet" edo "Bazkun" Nagusia.

"Bitarteko Jaurlaritzaren" lendakaria, Lvov printzipe liberala izan zan. Marxitarren lendakaria, Lenin, Suizi'n erbestetua zegoan; eta, orregaitik, mentxebikek ziran "Sobiet Nagusiaren" jabe. Ez zegoan, beraz, orduantxe bertako iraultza baten arrisku aundiegirik.

Alatagutziz, "Sobiet Nagusiar" oiñarri sendoak emateko, langilleen eta gudarien artean "Ekintzarako Sobiet Txikiak" irasten bizkor saiatu ziran, mentxebikeek. Noski, sobiet aietan sartzen ziran gudariak eta mariñelak, danak, amorraturik Iraultzaren billa zetozenak ziran. Ederki landua aurkituko zuan beraz Lenin'ek lurra, Suizi'tik etorri bezain laister Iraultzari su emateko.

"Bitarteko Jaurlaritzak" ez zuan "Sobiet Nagusia" menderatzeko indarrrik aski, onen alde bait zeuden gudari eta mariñelak, ia danak, San Petersburg'en beintzat, eta Mosku ta gaiñerako uri aundietan. "Sobiet Nagusia"k ere ez zuan "Bitarteko Jaurlaritzza" lurrera botatzeko asmorik, ortarako, "Sobiet Nagusi" artan kemenik aski zuan gizonik ez bait zan.

Gaiñera, mentxebikeek ez ezê, boltxebikeek berak ere, ez zuten uste, aurrena Alemani edo Frantzi bezalako Industri-laterrietan Iraultza garaille irten gabe, Errusi'n iraultzagintzan pentsatzen asi zitezkeanik.

J)- Gorrotoak, sumiñak, eta errabiak eraginda, gudari ta mariñelak bakarrik ziran orduan San Petersburg'eko karriketetan iraultza berealaxe egitearen alde; baiña auek ere ez ziran, buruzagi baten faltaz, eginkizun artarako gauza.

Ikusi zuten ori Alemani'ko Agintariak, ikusi zuten azkenean Errusi'n Lvov eta Kerensky'ren Erkala berealaxe egitera zijoazen auteskundeetan garaille irtengo zala, eta sarkaldean ekiteko, sortaldean ain bearrezkoa zuten pakerik gabe geldituko zirala, eta beren ondamena izango zutela Errusi'ko zelai amaigabeetan gudan jarraitu bearra.

Ikaratu ziran, eta Errusi'n Tsar bera baiño etsai bildurgarriagoa izan zezaieketen Errepublika ezerezteko, Suizi'ko Lausana'n erbesteraturik bizi zan Lenin'eri bidea irikitzea pentsatu zuten.

K)- Orrela iritxi zan Lenin San Petersburg'era alemaniarren laguntzarekin.

Alemani da beraz, Errusi'n garaille irten aal izateko, komunismoari lenen bultzada, garrantzitsuena gertatu zan bultzada, eman ziona. Ikusten ote zituan Alemani'ko Kaiser'en Jaurlaritzak bultzaketa ark ekarri zezazkean

ondorioak?

Danadala, Errusi'ko mugetan naitanaiez bear zuan Alemani'k pakea, bere indar guztiak sarkaldean Frantzi ta Inlanderriaren aurka botatzeko; ziar galduko bait zuan bestela guda.

Lvov'ek aurrena, eta gero aren ondorean Lendakarikatza artu zuan Kerensky sozialistak Alemani'rekin pakea egin ba'zuten, ez genuan, seguruaski, Errusi'n Iraultzarik izango. Alemaniarrek berak ere gogokoago izanen zuten sortaldeko mugetan Errepublikak liberal bat, Laterri komunista bat baiño. Esan dezagun ordea, alemaniarrek 1917'an ez zezaketala Errusi'ko Iraultza, azkenean nolakoa izango zan aurre-ikusi; ezta an komunismoa eskier ezarriko zanik ere.

vvv

Bein San Petersburg'en, Lenin'en aurreneko eginkizuna bere boltxebikeen mentalitatea aldatzea izan zan: oraindik "marxistegiak" ziran sozialista teori-zale aien biotzetan, berealako Iraultzaren guraria esan-araztea.

Laister bururatu zuan bere guraria. Orrillaren 7'rako Alderdiaren Batzar Nagusian geiengo bere alde bait zuan Iraultzarako prest.

Teoriz, erreza zuan orain lana: "Bitarteko Jaurlaritza" deseginda, "Sobiet Nagusia" Errusi'ko Agintari bakar biurtzea naikoa bait zuan. Lan ori, ekitez, ez zuan ain erreza; ez ordea zaillegia, berekin bait zituan ortarako mariñelak eta gudariak. Azkeneko kolpearen prestaketa Trotsky'ren eskuetan gelditu zan.

Uztaillean, Kerensky sozialista zan Jaurlaritzaren Lendakaria, eta alemaniarren aurka kolpe berri indartsu bat emateko agindu zuan; zori txarrean. Ondamenez aspertuta ez bait zeukaten gudariak borrokarako gogorik. Iges ere egin zuten askok borroka-tokietatik. San Petersburg'en langilleak eta mariñelak karriketara irten ziran matxinadan, pake-eske.

Ikaratu zan "Sobiet Nagusia" bera ere, eta matxinada aren zuzendaritza eskuetan artzea erabaki zuan, langille aiek, eta batez ere gudari amorratu aiek izugarrikeriren bat egin ez zezaten. Kerensky'k gudari leialak ekarriaraziz erantzun zion matxinadari, baiña laister, gudari auek ere sobietarren alde jarri ziran.

Baserrietan nekazaritzako jopuak ere jeikiak ziran ordurako Jaurlaritzaren aurka eta artuak zituzten toki askotan beren nagusien lurak.

Urrillaren 23'an, lortu zuan azkenean Lenin'ek, Alderdiaren Bazkun Nagusiagandik, Iraultzarako baietsia, eta andik egun batzuetara, azaroaren 7'an San Petersburg'en garaille ziran, boltxebikeen esanera, langille, gudari, eta mariñel iraultzalariak.

Kerensky lendakariak, birrirabazi nai izan zuan Jaurlaritza; bildu zituan

artarako gudari-sail batzuk, baiña sail auek ere iraultzalarien alderdira igaro ziran. ¡Garaille zan Iraultza!

Ots, ordea; Lenin'en Iraultza ez duzu Marx'ek iragarritako Iraultza. Ez duzu ekonomiazko Iraultza, izkilluzko Iraultza baizik, edestiaren luzaroan gerta izan oi diran beste iraultzak bezalakoa.

Lenin'ek Errusi'n ezarri zuan "Proletarien Diktaturtza" ere ez da Marx'ek erakutsia bezalakoa, Marx'ena, proletari guztien "Bitartekorik-gabeko-Demokrazi" bat bait zan; eta denbora gutxi, kapital-jabeei beren kapitalak kentzeko bearrezkoa zan denbora bakarrik, iraun bear zuana. Lenin'ena, berriz, betirakoa duzu, eta egiazko Diktaturtza, gizon bakar baten Agintaritzza, edozein militarizarren Diktaturtzaren berdin-berdiña.

Baiña, guri, Errusi'ko Proletari-Diktaturtza arek erlijioarekin nola jokatu zuan ajola zaigu batez ere.

Eta gaur aundia bait da marxitasuna eta kristautasuna bateratzeko leia, auxe dugu noski, Marx'en dotriñak erlijioari zer balio ematen dion aztertzeko, une egokia. Eta onako auxe aurreratu dezakegu zalantzarik gabe asieratik: Marxitasuna kristautasunarekin konpondu ditekela uste duana, ez dala Marx'tar Karl'en marxitasunaz ari, berak asmatutako beste marxitasun batez ari dala; Marx'en erakutsietatik nai duana artuaz eta nai duana utziaz, marxitasun berri bat asmatu duala; baiña ori ez dala Marx'en "marxismoa".

"Asmakizun" bitxi orren bitartez, asmazaille orrek, Marx'ek erakutsitakoetan kristauontzat onuragarri daitekean gauza bat baiño geiago badagoala adierazi nai ba'digu, arrazoi duala aitortuko diogu pozik, eta, orregaitik, marxitasuna osoan gaitzestea, zillegi ez izateaz gaiñera, gure onturrearen aurka jokatzea izango litzakela, marxismoan aurkitu daitekean on guzia, kristautasunatik jaso bait da. Baiña era berean aitortu bear diogu, argi eta garbi, Marx'en marxismoa, Marx'ek kapitalismoa desegiteko asmatu zuan marxismoa, portizki, eta bere izaera beraren eskariz, erlijio ororen aurkakoa dala.

Karlos Marx'ek berak ez zuan sekulan sinismenik izan. Amak bai. Ama, Henriette, olandarra jaiotzez, Rabi edo judutarren irakasle baten alaba, judu-erlijioaren jarraille zintzoa izan zan..., azkenean bere sendiak beartuta kristau protestalari egin zan arte. Karlos'en aitak, Heindrich artu zuan izen, bataioaren bidez itxuraz --itxura utsez-- kristautasunera sartu zanean. Ordurarte Rousseau'ren jarraille eta, ura bezala, panteista-deista izan zitzaigun.

Ez ala Heindrich onen anai zarrena, Samuel, gure Karlos'en osaba. Au, Treberis'ko Sinagogan Rabi edo irakasle izan bait zan.

Bi auen aita, --Karlos'en aitona--, Hirschel, Marx Leby zeritzan Rabi baten semea izan zan; eta judutar zintzoa izan zuten ama ere, Eve Mosses, Hirschel aren emaztea, Karlos'en amona.

Maiz izan zituzten aldi ta denbora latzak judutarrek Alemani'n. Aldi latz oietako batean utzi zuan Leby abizen judutar nabarmena, Hirschel gure Karlos'en aitona. Eta onen bigarren semeak, gure Karlos'en aitak, abizena ez ezê utzi zuan izena ere bataiatu zanean, erdaintzakoan ipiñi zioten Hirschel judutarraren ordeaz Heinrich doixtarra beretzat artuz.

Bataio ori, Napoleon jausi ezkerero Prusi'n judutarren aurka ematen asi ziran legeetatik babestearren egiña izan zan. Eta, ona, gauza arrigarritxo bat: Karlos'en sendia, Treberis'en bizi zan. Treberis, oso-osoan katolikoa zan. Karlos'en aitak ordea, katoliko ez baiña lutertar egin zuan bere sendia. Prusi'ko Jauriaritza lutertarra zalako?

Bere sendi guztia eraman zuan Heinrich Marx legegizon ospetsuak bataiora, bere emaztea izan ezik, au benetan bait zan sinismenez judutarra. Baiñan, azkenean, onek ere, zortzi urte geroago, makurtu zuan bere burua eta egin zan kristau lutertarra.

Sei urte zituan Karlos'ek bataiatu zanean, eta ez zuan sekulan, gero, erlijioarentzat begirunerik izan. Ez zan ontan bere amaren antzekoa irten. Ez dugu zertaz arritu; bere amaz lotsatu egin bait zan beti Karlos, bere aita legegizon ospetsuaren alboan emakume ura kultura kaxkarrekoa iduritzen zitzaiolako.

Ez dirudi Karlos Marx bere aitaren antzera, panteista edo deista sekulan izan zanik. Baiñan ura bezala Rousseau'ren ikasle zaletsu, miresle sutsu eta jarraille iraunkorra..., ori bai, ori beti izan zan Karlos.

Ez zien batere onik egin bataiaketako iskamil aiek Karlos umeari, erlijioa, gizartean eskubide guztiakin bizi aal izateko gizarteak berak indarrez gizartekide guztiei arrerazten dien erakunde bat zala ustearazi bait zioten betirako; ots: tiranikeri bat besterik ez zala.

Ala ere aski poliki ikasi zuan Karlos Marx gazteak Martin Luter'en dotriña. Naiz Treberis'en, gizakume bakan batzuetaz landa, protestalaririk izan ez, lutertar egin bait zan, eta egin bait zuan bere sendia esan dugunez Heinrich Marx'ek. Orregaitik, Karlos'ek bere liburuetan Eliza astintzen duanean, aren Eliza, bereiziki, Katolikoa ez baiña Lutertarra dala, errez igarri daitekean gauza da.



Karlos Marx'ek ez du sekulan galduko gaztarotik "Argikuntzari" eta batez ere Rousseau'ri izan zien eraspenna, baiña bai, laister, iñoiz deista benetan beintzat izan ba'zan ere, "argituen" eta Rousseau beraren "deismo" ergela: Berliñ'en ikasle, "Gazte Hegeldarren Bazkunean" sartu zan bezain laister. An galdu zuan sinismena beste judutar gazte batek ere, Marx'en "anai bizki" bezala izan bearra zan Federik Engels'ek; danek egin bait zuten bere, Bazkun artan, Hegel'en jainkorik-gabeko oro-jainkotasuna:



panteismoa.

Marx'ek berak, bere jitez, Erljioaz zer pentsatzen zuan jakitea, oso gauza zailla duzu, ez bait zuan berez erlijioari-buruz ezer astiro pentsatu.

Ez zuan gai nagusi ortaz "bere" abururik. Soilki, "berez", erlijioaren aurkako gorroto-sentimen bortitz bat besterik ez zuan izan; urteekin gero ta amorrugarriagoa eginen zitzaion gorrotozko sentimena. Sentimen orrek eraginda, Erljioaren aurka entzun edo irakurritako guztia eginen zuan pozik bere, aitaren etxe traketsetik naitanaiez ateismora okerturik irten zala dirudian gizakume borrokalari zakar arek.

Iturririk ezberdiñenetatik datozen urak, danak izanzen dira ur gozoak Marx'entzat, Erljioa, erlijio oro, deusezteko baliotsuak ba'zaizkio.

Arrazoi aundiz dio Yurre'k marxitasunari-buruzko bere liburu mardulean, Marx, "intellectus quaerens ateismum", "jainkogabetasuna lortzeari lotutako adimena" izan zala; "entendimiento dominado por la pasión atea", "Jainkorik-ez-dala sendo ezartzeko irrikak mendean artutako adimena".

Ala, ateismoa munduan zabaldu ta tinkatzeko egokiak iduritzen zitzaizkion aburu guztiak ontzat artu zizkigun Karlos Marx'ek, aburu aiek nork asmatuak izan ziran oldozteke: XVIII mendeko "argitu" jainkogabeek asmatuak?, Hegel'ek?, Positibistek?, Hegel'en ondorengo idealistek?, Feuerbach'ek? Zio orrek ez zuan beñiere gure Karlos'ik kezkatu. Bata bestearen etsai zirala pentsalari aietako batzuk beren arrazoiketan? Ez zitzaion ajolik. Esandakoa, inporta zitzaion. Nork esana izan zan, ez ainbeste. Eta zergaitik izan zan esana, batere ez.

Filosofian ikasi xamarra danak, eta baita gure idazki au arreta pixka batekin irakurri duanak ere, errez ikusi aal izango du norengandik artuak ditun Karlos Marx'ek bere "Jainkorikgabeko Sinismenaren" atal nagusiok:

- Gizakumea da, izadian, Izaki Nagusia. Gizakumearen gaindik ez dago ezer.

- Jaungoikoa, gizakumearen sorkari da.

- Adimenak pentsa lezazkean edertasun, bikaintasun, duintasun eta almen guztiak batera ametsezko IRUDI batean bilduaz, sortzen du bere IRUDIMENEAN gizakumeak Jainkoa. Beraz,

- Jainkoa GIZAKUMEAREN irudi besterik ez da, gizakumeak izan nai lukean GIZAKUME betearen IRUDIA. Era berean, Zerua, gizakumeak ludi ontan aurki nai lukean MUNDU betearen irudia da.

- IRUDI diralarik, Jainkoa eta Zerua, ez dira ARRAZOIAREN fruitu. Irudimenarenak baizik. Zentzuek, eta adimenak emandako gaiekin eratuak, baiña irudimenaren asmakizuna, adimenaren sorkuntza baiño geiago; Ametsak, dira, mamirik gabeko izakiak, irudi utsak, egiazko izaterik ez duten gauzak, ipui edo mitoak, gezurrak.

- Naigabeetan eta gabetasunetan atseden eta poz-indar artzeko

asmatu ditu gizakumeak Jainkoa eta Zerua; zailla bait da, itxaropenik gabe, bizia. "Mundu ontan ez dut zorionik; A!, baiña izanen dut bestean!". Orrela, berak sortutako erlijioak, itxaropena damaikio gizakumeari, eta pozik artzen du gizakumeak erlijio ori, dakarkion itxaropena, berak sortutako gezurrezko itxaropena besterik ez dala oartzeke.

- Baiña erlijioak gaitz egiten dio gizakumeari; egin daitekean gaitzik aundiena: bere izatea ber-bera desegitea:

Gizakumearen Zertasuna, "Essentia", "Das Wessen", "bere-buruaren-jabe-izatea" da.

Erljioaren bitartez, berriz, gizakumeak jabetasun ori Jainkoari ematen dio; ori egitean, jabetasuna galtzen du, ots, Zertasuna, "Esenzia". "Beste batena" egiten bait du bere burua "berea" izatez utzita: "ALIENUS" egiten da: "Besterena". "Gizakume izatez utzita "beste izaki" bat biurtzen da; "bere-burutasuna", ots, bere "esenzia", galdu duan gizakumea ez bait da arrezkero gizakume, beste gauza bat baizik; "bere-burutasuna" galtzean Zertasuna, ots, "giza-izatea" ber-bera, galdu bait du.

"Alienaketa" edo "Besterentze" osoa dugu, beraz, erlijioa. Bi eratara, gaiñera:

A) Erljioaren erruz gizakumea --bere buruaren jabetasuna galtzean--, BESTERENA biurtzen dalako, eta,

B) ,--bere zertasuna galtzean--, BESTE izaki bat biurtzen dalako.

Badakit gaur eguneko saiaketa batzuek, Marx ez baiña Marxitasuna nai luketela Kristautasunarekin "eztaitu"; --barkatu ezaidazute itza, ez bait zait eztaien itxurapena okerra danik iduritzen--, baiña Marx bezain urruti dabil erlijio orotik Marx'en Marxitasuna ere. Ikus:

- Marxitasunaren aurreneko "egi-sinisbearra", aurreneko "dogma", auxe duzu: Oro da Gorpuzki, "Materi"; Gogorik, Izipiriturik, ez da. Eta gorpuzkien eginkizun eta bearkizun bakarra, gorpuzki geiagoren sorketa eta lanketa bait da, ots "produkzioa", ekonomia da edestiaren eta gizadiaren bitzta osoaren eragillea, zentzua, ta elburua.

Atzo, gaur, eta beti, orixe duzu marxitasunaren barne-muiña. Ta barne-muin orren gunean jainkogabetasuna daukazu. Ateismoa da marxitasunaren zertasan edo "das Wesen" ber-beraren iturburua.

- Marxitasuna eta Erljioa alkarrekin bizi ez daitezken izakiak dira. Komunismoan ez da erlijiorik izango. Berez desegingo dira erlijio guztiak; Erljioa, erria menderaturik eukitzeko kapitalismoak sortutako mamua bait da. Kapitalduna, nagusia, jauna, Jainkoaren ordezkari egiten ditu erlijioak. Jaunei ez obeditzea Jainkoak zigortzen duan gauza da; Jainkoak oparo saritzen duan gauza, berriz, aien esanera egotea eta aien onturrerako apalki lan egitea dugu.

- Beste batzuetan, Marx'ek, aberatsak ez baiña, oiñazeen eztigarri, txiroek sortua dala, dio, Erljioa. Orrelako kontradikzioak, erlijioari-buruzko



gaietan batez ere, sarri aurkituko dituzu Marx-baitan, unean-unean erlijioa zanpatzeko egoki zetorkion guztia artzen bait zuan ontzat, geiagoko azterketarik gabe. Danadala, komunismoa iristean ez bait da ez aberatsik ez beartsurik izango..., berez ezereztuko omen da erlijioa.

- Baiñan, Marx'en ustez, --izan ere psikologia bera, marxitasunean, ekonomiaren gain-erakunde edo supraestruktura besterik ez bait da--, aberatsen eta txiroen arteko psikologiaren emari ez ezê, ekonomiaren ondorio ere badugu erlijioa. Ikus nola:

Gizadi guztiaren eta gizadiaren edesti osoaren azpi-erakunde edo "infraestruktura", ekonomia omen da; gaur-egun, ekonomi kapitalista. Gaiñerako gauza guztiak, gizartean, azpiera-erakunde orren "supraestruktura" edo gaiñerakunde ditugu. Gaur-egun, ekonomi kapitalistaren gaiñerakunde.

Azpiera-erakunde kapitalistaren zertasuna, ordea, gizadia bi zatitan, bi mailletan, ots, "bi-klaseetan-naitanaiez-zatiturik-egoteko-beartasunean" omen dago. Naitanaiez ebakitzen omen du bi zatitan kapitalismoak gizadia: Nagusiak eta Morroiak edo kapitalistak eta proletariak, ekonomiaren arloan, Jaunak eta Serbitzariak, soziologiaren barrutian, eta Agintariak eta Mendekoak, politikarenean.

Infraestruktura orren gairik kultur edo "supraestruktura" zatiketa orren fruitu besterik ez dalarik, mundu kapitalista ortan naitanaiez sortu bear omen du erlijioak; eta, gaiñera, mundu guzi orren gaillurra izan bear omen du erlijioak.

Zergaitik? Zertasunez edo esentziz zatiketa dan azpiera-erakundeak, naitanaiez, fruituz, bera ere esentziz zatiketa ta ezberdintasuna dan kultura eman bear duelako, eta, zatiketazko kultur ortan erlijioa naitanaiez sortuko dalako; Erlijioa bait da izan daitezkean zatiketarik aundiena: Alde batetik Jainkoa, Orotasun Oparo Neurrigabea; bestetik, gizona, ezereztasun utsa.

Azpiera-erakunde ezereztean, ordea, arekin batera berez ezerezten bait da aren gaiñerakunde, erakunde kapitalista au desegiten danean, berez ezereztuko da erlijioa ere besterik gabe.

Orregaitik, Marx'ek ez zuan bereiziki erlijioa erasotzekorik agindu. Zerdalata, berez akituko dan mamu baten aurka borrokan asi?

Lenin izan zan, beste gauza askotan bezala ontan ere Marx oker zebilela oartu zana, eta erlijioari guda gogorra egin bear zitzaioela oiur egin zuana. Ikusi bait zuan kapitalismoarekin erlijioak zer ikusirik ez duala, eta, orregaitik, naiz kapitalismoa ezereztu, erlijioak len bezain bizirik jarraituko zuala, ta, okerragoa zana, komunismoak orduan, --kapitalismoa erortzean--, erlijioa ezerezten ez ba'zuan, erlijioak menderatuko zuala azkenean komunismoa.

Ortik, Errusi'n, Txina'n, Laterri Komunist guztietan erlijio orok eta Elizak bereiziki jasan bear izan duan eta oraindik jasan bearko duan zigorketa

gaitza.

Alatagutziz esan dezagun, Lenin'ek eman zion orrazketaren aurretik eta ark eman zion aldaketaz landa ere, berez, marxitasuna kristautasunaren etsai zala, dala, eta izango dala beti, naitanaiez. Zergaitik?

- Jainkoa ukatzen dualako lendabizi.

- Dan guzia gorpuzki edo materi utsa dala aitortzen dualako.

- Gizonaren elburua mundu ontan ezartzen dualako.

- Gizonak bere burua Jainkoaren mendeko aitortzean, bere burua beste baten mendeko egiñaz, "alienatuaz", bere zertasuna ta nortasuna galtzen dituala erakusten dualako.

- Beste mundu batean sinisten ez dualarik, eta gizonaren eginkizun bakarra mundu onen barruan dagoala uste izatean, naitanaiez, erlijioa bere etsairik gogorrena eta arriskugarriena lez ikusi bear dualako; beste mundua galtzen ba'du naiz mundu au irabazi oro galdu duala erakusten bait dio erlijioak gizonari.

Ortik, Marx'ek eman ez zion eta, gaur, marxismoak aipatzen duan alienazioari eman oi zaion bigarren zentzua: erlijioak gizona egiazko mundu ontatik eta mundu ontako lanetatik aterata beste gezurrezko mundu batera eta beste mundu ortako lanetara aldatzen duala.

Utzi dezagun ordea Marx, gaur mundu ontako marxismoa Lenin'en marxismoa da-ta. Izan ere, beste ura, Marx'en marxismoa, aingerukerizko beste mundu ameskoi bateko utopia bait da. Ikus:

- Hegel'en dialektika utseziña zala uste izan zuan Marx'ek. Ameskeri utsa, bai noski, ori uste izatea. Baiñan, ortaz gaiñera,

- Hegel'ek gogapenen sorkuntza ulertuarazteko asmatu zuan dialektikak munduko gauza ta pertsona guztien izaera ta ariketa ulertzeko balio zuala uste izan zuan Marx'ek; baita gizarteko arazoak ulertzeko ere. Uste trakets ustela; Lenin'ek aintzat artu ez zuana.

- Ala, ekonomiaren arloan, kapitalisten eta proletarien arteko dialektika utseziñari eskerrak, iraultza berez eta naitaneiez ekonomiaren legeen indarrez sortuko zala uste izan zuan. Ederkitxo oartu zan Lenin, uste orren ezerezkeriaz.

- Marx'en "Proletaritzaren Diktatura" bitartekorik gabeko erkala da: "democratia directa". Ots, Rousseau'ren "demokrazi bitartekorik gabea", demokrazi orri bakarrik esaten bait zion Rousseau'k "demokrazi".

Baiña Rousseau oartu zan ori mundu ontan lortu ez daitekean gauza dala. Orregaitik zion "demokrazia, naiz jaurketa-erarik ederrena izan, lortu eziña zala": "n'est pas possible". Marx'ek ordea posiblea zala uste izan zuan, izankorra.

Lenin'ek laister ikusi zuan aingerukeri geldoa besterik ez zala Marx'en uste ori; mundu ontan diktatura izankor bakarra, betiko militar-usaidun diktatura dala.

- Marx'en komunismoa anarki utsal da.

Komunismoa etortzen danean, ez du inork aginduko, gizakume orok jakingo bait du, une orotan zer egin. Ez du inork inor lanera beartuko, inoren aginduaren bearrik gabe, beren gogoz eta al duten erarik onenean gizon-emakume guztiek egingo bait dute lan. Pentsa daitekean aingerukeririk txoroena, bai noski. Azkar ikusi zuan ori Lenin'ek eta orregaitik, bein batean, onela erantzun zion "bere diktaturaren bidez komunismoari etorrera eragozten ari zala" esan zion Trotsky adiskideari: "Inork agindu gabe eta inork ikusteke gauzak beti ongi egiteko gai diran gizon-emakumeen bikote bat ekartzen ez didazuten artean, diktatura, -- egiazko diktatura militarra--, izango duzute Errusi'n.



Ta? Ez ote dezakegu kristauok Marx'engandik ezer onik ikasi? Bai zerbait, baiña ez asko. Entzun XII Pio Aitasantuari: "No todo lo que dijeron Marx y Lenin fue falso y erróneo; a veces dijeron la verdad, y hasta tan exagerada que dejaba de ser verdad" (Alberto Onaindia'k gazteleratua).

"Exagerada"! Ez da arritzekoa; zerbait aurkitzen duan gizakume oro, aurkitu duan zerbait orri neurri guztien gaindiko garrantzia ematera okerturik egoten bait da. Orrela,

- Marx'ek idoro ta azaldu zigun giza-maillen arteko borroka, "Die Klassenkampf"; eta, beste asmatzailleek egin oi duten bezala, duan baiña askoz garrantzi geiago eman zion idoroketa orri, gizarte-maillen arteko borroka edestiaren ardatz bakarra dala esanaz.

Orixe bera gertatu zitzaion ekonomiarekin ere, ekonomia izadi osoaren oiñarri nagusi egin zuanean. Bai ekonomiak bai gizarteko borrokak badute garrantzia, baiña ez dira izadi-gizadiaren oiñarri eta ardatzik garrantzitsuenak; ezta bakarrak ere.

- Egia da kapitalismoak errukirik gabe zanpatu duala proletaritzta, eta kontzientzirik gabe baliatu dala proletarien izardiaz eta odolaz. Ori, errez ikusi zezakean Marx'ek, Alemani'n, Belxika'n, Frantzi'n eta Inghlanderrian, lurralde auetan bizitu zan denboretan.

Baiña ez da egia arazo zikin nazkagarri orren irteera bakarra, iraultzaren bidez aurrena eta anarkiaren bitartez gero kapitalismoa oso-osoan desegitea danik. Askoz gutxiago, Lenin'en bidetik, gizakume soillen kapitalismoa deseginda Latterria kapital guztien jabe soilla egiñik kapitalista bakarra biurtzea. Ori, langillea nagusi alguztidun baten menpean eskuz ta oiñez loturik ipintzea bait da!

- Azkenik, marxismoa bere jainkogabekeriz erazten ba'dugu ere, beti geldituko zaio kristautasunarekin zailki konpondu dezakean ataltxo bat: Marx'ek olagintzako ondasunen jabetasunarako eskubidea ukatzen dio

gizakume soillari, jabetasun ori oso-osoan Laterriari aurrena eta, gero, bere-ameskerizko azken-anarkiaren ametsezko Gizarte bati, emateko.

Aisa ikusi zuan Lenin'ek azkeneko punttu au txolinkeri gordiña besterik ez dala, eta arrezkero, Lenin'ek Errusi'n egin zuan lez, Laterriari ematen dio betirako jabetasun ura komunismoak errialde guztietan.


Elizak ordea, Laterriaren aurrean gizakumeak bere askatasuna gordezteko, bear-bearrezkoa dala gizakume orori jabetasun artarako eskubidea on-ezagutzea, uste izan du beti.

Orixe, eta ori bakarrik adierazi nai du Elizak, gizakume orok jabetasunarako eskubidea baduala esaten duanean.

Orregaitik, gizakume bakoitza Laterriaren aurrean babesteko beste era egoki bat aurkitzen ez dan bitartean, beti izango da Eliza eskubide ura gizakume orori ematearen aldeko.

- Zer esanik ez Lenin'ek Errusi'n, eta gero beste buruzagi komunistek Laterri Komunistetan ezarri duten diktatura zekenaz. Eliza, beti totalismoaren etsai eta, demokrasi osoan bizi daitezken errietan, demokrasi osoaren babesle izango bait da.

Errusi'ko komunismoak Elizarekin erabilli duan jardunkera, beste atal batean ikusiko dugu.



## BENEDIKTO XV'AREN POLITIKA-BIDEAK

Bi arazo gogor aurkitu zituan Aitasantu berriak Elizaren jaurketan asi zanean: beti mingarri zan "la Questione Romana" eta Aurreneko Ludi-Gudua.

Bigarren onek eraman bait zituan ia Benedikto XV'aren ardura guztiak, ez dakigu "Erroma'ko Auziari" buruz Aitasantu trebe arek zer asmo zituan, baiña bai, dirudianez, auzi mingarri ura, era bat, bein betirako konpontzekotan zegoala.

Oroituko zera, Bitor Imanol II'ak Pio IX'ari erregetza kendu zion ezkerero, Pio IX'ak berak, Leon XIII'ak eta Pio X'ak tinko eskatu zutela beti beren Erregetzaren itzulpena; Batikan-Jauregiaren barruan itxita, katigutzat eta baitutzat euki zutela beti beren burua; ez zirala sekulan Jauregi aren barrunbetik kanpoko aizera irten; Itali'ko erregeek (Bitor Imanol II'a, Umberto I'a eta Bitor Imanol III'a) Elizarekin asarre bizi bear izan zutela; ez Leon XIII'ak ez Pio X'ak, Aitasantu egiñak izatean ez zutela "Orbi et Urbi" edo "Munduarentzako eta Uriarentzako" onespelik agirian Batikan-Jauregiaren leio nagusitik eman nai izan, orrela, beren atsekabea, Munduari eta Uriari agertu naiez; Pio IX'ak katolikoei Itali'ko auteskundeetan parte artzea galazi ziela; eta Leon XIII'ak berak ere Udal-Batzar eta Probintzi-Batzarretarako bakarrik jaso ziela debeko ura katolikoei, ez ordea Parlamenturako auteskundeetan parte artzeko.

Benedikto XV'a ere ez zan Leio Nagusira "orbi et urbi" onespena enparantzan bildutako jendearen aurrean ematera irten, ez zan bâ bat-bateko aidakuntza zaratatsuen zale; baiña, esan dugunez, badirudi berekin zekarrela "Erroma'ko Auzia" bein betirako konpontzeko asmoa. Sumatu zuten laister, konponketa ori Aitasantuen Erregetzaren kaltean izango zalaren bildurra, integristek!, Aitasantu berriak Estadutzako idazkari Ferrata aurrena eta au berealaxe iltzean Gasparri gero, txit gizon idikiak biak, izendatu zituala ikusi zutenean.

Izan zizun Benedikto XV'aren aitasantutza guztiak asiera-asieratik "alako berritasun eta beretasun bereizi bat", "un'impronta nuova e sua" (Encyc, Ital.), aitasantuena izandako Erregetzaren auzi oiñazegarri ontatik

berberetik asita.

- Bera izan zan Aitasantuen Erregetza babesteko Itali'ko Jaurlaritzaren aurka izkera zakarrik erabili ez zuan lenengo Aitasantua.

- Pio IX'az gero Aitasantuek ez zuten artzen Itali'ko Erregea ikustatzen zuan Laterri-Bururik. Benedikto XV'ak ausi zuan Itali'ko Jaurlariei ainbeste burukomin emandako oitura gogor ura.

- Gogorik maitetsuenarekin lagundu zion Sturzo apaiz siziliarrari, politikarako "Il Partito Popolare Italiano" aurrera ateratzen. Gizon aundia, gizon argia Sturzo apaiza; Itali berriak izan duan gizonik bikaiñenetakoa. Bere Alderdia zan Itali'n aurreneko aldiz Gotzaien agintaritzatik iare osotzen zan katolikoen Erakundea. Eta, geroago, "Kristau-Demokrazi-Alderdia" izenez ezagutuko oi diran Alderdien eredu izan zitzaigun.

- 1919'an desegin zuan Benedikto XV'ak katolikoei Parlamenturako Auteskundeetan sartzea debekatzen zien legea.

Ondorio alaigarritz, urte ortan bertan egin ziran auteskundeetan 103 aulki irabazi zituan Partito Popolare Italiano'k Parlamentuan. Bazirudian osotu zuala On Sturzo apaizak katolikoen batasuna, bere inguruan bildu bait ziran Benigni'ren integristak, "Opera dei Congressi"tik zetozen burgesitarrek, eta Murri apaizaren "Lega Democratica"n ari izandako liberal katolikoak.

Pozik zegoan Benedikto XV'a, ez, katolikoak alkarturik ikusten zitualako ain zuzen, aski bait zan bera politikari argia "Partito Popolare" altzoan bildu ziran indar ezberdin aiek luzaroan bata bestearen ondoan jarraitu ez zezaketela ikusteko. Katolikoak Itali'ko politikagintzan sarturik ikusteak alaitzen zuan Aitasantua, neurri aundian Elizaren babesa bereiziki katolikoen politika-ekintzan zegoalaren ustekoa bait zan.

- Kepa Deunaren Aulkira igo bezain laister asi zan Itali'ko Jaurlaritza-rekin alkarrizketan.

1917'tik 1919'ra, Orlando zan Jaurlaritza aren Lendakari, eta bazirudian Aitasantua eta Lendakaria konponketa batera iritxiko zirala; baiña, orduan, Lendakaria jausi zan agintaritzatik.

Aurrera jarraitu zuan Aitasantuak, ondorengo Lendakariekin, eta batez ere 1921'ean, Aitasantuaren eta Itali'ren arteko konponketa ia egiñik zegoala mundu guztiak uste zuanean, orduan..., Aitasantua joan zitzaigun mundu ontatik. Ez zan bere elburura iritxi, baiña urraturik utzi zigun bidea. Bide ortatik jarraituz, errex iritxiko da elburu zail artara Benedikto XV'aren ondorengo: Pio XI'a. Baiñan merezimendo guztia, XV Benedikto'rena da. "Sin Benedicto XV resultaría imposible la reconciliación entre la Iglesia y el Estado de Italia". (Schenk).

Izan ere, badirudi orixe izan zala Aitasantu arentzat --XV Benedikto'rentzat--, Jainkoagandiko mezua: Mundu berrian Elizari bideak irikitzea: irikitzea, soilki; bide oiek-zear Eliza, mundu berriaren billa, ibilketan



ipintzea, eta ibilketa ori, Bigarren Batikandar Kontzilioaren muñoetaraino eramatea, aren ondorengo aitasantuen eginkizun izanen da.



- Garrantzi aundiko alorra iduritu zitzaion politikaren alorra XV Benedikto Aitasantuari. Aren atzetik, XI Pio'k eta XII'ak ez zuten, gero, politikan arek aĩñako uste on beterik izan. Bai ordea XXIII Jon'ek. Pozik eginen zuan bere, XV Benedikto'k, XXIII Jon'ek asmatutako, politikaren definizio edo azalpena: "Politika, gizartea zuzen eta egoki bizi dedin, lege egoki eta zuzenak eratzea da".

- Orregaitik eman zien alako garrantzi aundia XV Benedikto'k politikagintzarako Alderdiei. XI Pio'k ordea ez zuan Alderdi politikoetan konfiantza aundirik izan. Ez aundiegirik, XII Pio'k ere. Alderantziz, XV Benedikto'ren bidetik jo zuan XXIII Jon'ek. Ortik, Aitasantu onek bere entziklika ospetsuetan politikalariei-buruz eta politikagintzari-buruz egindako goratarreak.

- Gaur-egun "Irugarren-Mundu" esan oi zaion gizartearen zati zorigabe ori benetan maite izan zuan XV Benedikto'k. Ez "maitatu izan" bakarrik, sinistu ere benetan sinistu bait zuan "Irugarren-Mundu"ko gizakumeen edozertarako-gaitasunean. Garai artan, ez politikariek ez elizjendeek, ez zuten uste "Irugarren Munduko" gizakumeak kargu garaietarako eta garrantzizko eginkizunetarako duintasunik izan zezaketenik. Bai ordea, bene-benetan, XV Benedikto'k.

Ortik, XV Benedikto'k mixiolurrak bertako apaiz eta gotzaien eskuetan len-bait-len ipintzeko erakutsi zuan leia.

- Bere politikagintzaren elburua, pakea izan zan, I Ludi-Guduan erabilli zuan jokaeraz ulertu aal izan dugun lez. Pakea lortzeari eta pakea gordetzeari zegozkienetan ez zuan katolikoan eta ezkatolikoan arteko bereiztasunik egiten. Sinisle izan, sinisle ez izan, danentzat nai zituan pakea eta zoriona.

- Gizon guztien baitan, naiz zokeren batean izkutatutrik datzan ontasun-txingarrean siniste betea ukan zigun XV Benedikto'k.

- Bere ardurarik bizenak, beren buruak babesteko gauza ez ziranentzat izan zituan. Gudatekoan batez ere.

"En un mundo dominado y arrastrado por la fuerza de la guerra era necesario afirmar el derecho".

Laterri borrokalariek etsaien gaitzespena eskatzen zioten, baiña berak, "tomó resueltamente la defensa de los oprimidos por el poder de la fuerza"; era berean jarri zan gotor itxasoetan egiten ari ziran gaiztakerien aurka, eta "beren lurraldeetatik indarrez ateratako" edo "deportatuen" alde.

"El papa está por el derecho contra cualquiera que lo viole; y mira, más

allá de la guerra, a los arduos problemas de la paz que antes o después se plantearán a los responsables de pueblos y naciones" (Federico Alessandrini. Bereak dira goraxeago irakurri dituzun gaztelarazko beste esaldiak ere).

Pake zuzen bat len-bait-len ezarri nai orrek eraginda aldarrikatuko ditu, ikusi dugun lez, bere 7 ("6" esaten dute beste batzuek) "atal" ospetsu aiek.

Frantzi, Alemani, Inghlanderrria, Austri-Ungari, Laterri borrokalaria guztiak ikusiko dituzu Benedikto XV'aren aurka.

Ez zan Aitasantua kukildu, eta irmo jarraitu zigun guztien okerkeriak era berean gaitzesten.

"Sólo en los últimos años los historiadores objetivos comienzan a reconocer, junto con otros dones, su imparcialidad y su previsión profética" (Id.). Ez da oso-osoan egia "comienzan" ori. Gaur-egun edestilari danek bait dagite ago batez ezpairik gabe Benedikto'ren goratzarrea.

Atsedetik gabe saiatu zan alde bateko eta besteko katiguen zoria obeagotzen: "Decenas de millares de prisioneros fueron intercambiados por los beligerantes, gracias a la acción diplomática intensísima de Benedikto XV; otros prisioneros, gravemente enfermos fueron llevados a Suiza, tierra neutral; una oficina de información, constituida en el Vaticano, trabajó intensamente para buscar desaparecidos, internados, prisioneros, y por restablecer los ligámenes rotos con las familias de origen" (GER).



Politikagintzari dagokionez oso gizon zabala ikusiko dugu Benedikto XV'a.

Gudak ez zion protestalariekin jardunean asteko betarik eman. Baiña izan zuan ekumenegintzarako gogoia. Ala eman zuan pozik, Lord Halifax politikalaria inglandar txit ezagunaren eta Mercier kardenalaren artean "Manilas'ko Alkarrizketak" asteko baimena. Alkarrizketa aietan partaide izan zan, Mercier'en Ordezkarri Orokor lez, gero, Malinas'ko goigotzaigoan, aren ondorengo eta kardenal izango zan Van Roey ospetsua.

"Con este permiso que otorgó a Mercier, en contra del parecer poco favorable de los propios católicos ingleses, Benedicto XV hizo que se abatiera la barrera de recíprocos celos" (J. E. Shenck).

Eskertu zioten angiltarrek. Il zanean, itz auek esan bait zituan aren omenez, Westminster'ko "Dean"ak bere katedralean:

"Aundiak dira Erroma'ko eta Inghlanderriko Elizen arteko ezberdintasunak, baiñan, alatagutziz, alkarren kide gera danok Eliz orokorraren altzoan. Egizute bâ une batez otoitz ildakoaren alde, orrela gure ongi-naia Eliz erromatarreko kristauei erakutsi dezaiegun".

Era ortan asi zan, aien eta gure artean ezaguera obeago batera

iristeko, gero-ta-zabalagoa egiten ari dan ibilbide berri bat.

- Sortaldeko Ortodoxoekin alkartasunaz jarduteko astirik ez zuan izan gure XV Benedikto'k, naiz ortarako gogorik peitu ez.

Eratu zuan Sortaldeko auzietarako Kongregazio edo "ministeriotza" berri bat Aulki Doneko Jaurlaritzan: "Eliz Sortaldetarrentzako Kongregazioa"; Pio IX'ak eraturakoa "Propaganda Fide"ren altzora sartua izan bait zan, orrela bere garrantzia, eta osoro bere askatasuna, galduz.

Sortu zuan, baita're, Erroma'n, "Jakintza Sortaldetarrentzako Istituto" edo "erakunde" bat. Jakintzari dagokionez, goien-goien maillakoak izan bear zuten, Erakunde artan, ikerketak eta ikasketak oro.

Etxe ura, katoliko edo ortodoxo, kristau sortaldetar guztientzat egonen zan irikia, eta arâ joan bear ko zuten, aurrerantzean, Sortaldean lan egiteko gertutzen ari ziran mixiolari katoliko guztiak.

Eraspen aundia eta maitasun betea izan zien Benedikto XV'ak Sortaldeko Elizei, eta eraspen eta maitasun oiek txertatu nai izan zizkien aruntz joan bear zuten mixiolari guztiei.

Bi Elizak, Sortaldekoa eta Sarkaldekoa, kide dira, eta era berdiñean bien Aita da, Benedikto XV'ak sendo sentitzen zuan lez, Erroma'ko Aitasantua.

Baiñan, berak esan oi zuan bezala, "Aita batek, naiz seme guztiak berdin maite, seme gaixoarentzat izaten bait ditu ardurarik goxoenak", Armeni'ko Eliz gaixoarentzat izan ziran Benedikto XV'aren arretarik bizienak.



Mintzatu gera Armeni'z Elizaren Edesti ontako beste liburu batean ere; leendik bait zetorren Armeni'ko errialde kristauaren sarraskia.

Mingarria, 1919'ko epaillaren 10'ean errialde gaixo ari-buruz, XV Benedikto'k egindako itzaldia.

860.000 gizakume izan ziran, armenitarren artean, edo eraillak, edo, Turki'ko Jaurlaritzak nazio guztia Errusi'ko mugaren albotik irtetzera beartu zuanean, gosez, nekez, eta gaitzez illak. 100.000 ume eta emakume, indarrez musulman egiñak. 300.000 berriz, atzerrira iges egitea lortu zutenak. Nazio guzia izan zan birrindua.

Izugarrikeri aundiak egin zituzten turkitarrek:

Mikel Khachaturian gotzaiari, bizarra eta agiñak errotik atera zizkieten; eta, gero, lurrean etziñik lau zugatzen enborrei lotuta ipiñi, ta aren bularraren gaiñean sua piztuta kafea berotu zuten. Gotzai gaixoa bizirik zegoala, jakiña.

Beste gotzai bat, Santiago Thopuzian, asti luzez zintzilika euki ondorean, sutara jaurti zuten bizirik.

Andrés Tchelevian, gotzaia au ere, zutik, lurrean egindako zulo batean

gerriraiño sartua izan zan; eta, azkenean, aizkoraz burua bi erdi egin zioten. Eraillak izan ziran berekin katigu zijoazen 600 kristaueatik geienak; aien artean, lekaime guztiak.

Zekai-Bey, Zesarea'ko Jaurleak, edo bizia galdu edo musulman biurtu, ipiñi zien aukera kristauei.

"Izan genituan bildurrez bizia aukeratu zuten batzuk; baiña geienak tinko iraun zuten kristautasunean", --dio apaiz armeniar batek--; "Ils furent massacrés atrocement, en criant vive Jésus-Christ sauveur du monde": "Izugarriki oiñazetuak izan ziran, gora Josukristo munduaren salbatzaillea, oiuz zegiten bitartean".

Ziñopa miresgarri auen artean bai omen ziran umeak ere.

Mikel Der Asdvazaturian apaiza, zigorrez larrutua izan zan, eta iru egunez gizakumeen kaka iruntsitzera beartua; gero, begiak atera zizkioten, eta azkenean, gurutze batean iltzez josi". (Id).

Ori dana, armeniar uniata edo katolikoan artean.

"Baiñan armeniar kristau ezkatolikoan artean ere ugari izan ziran, Kristo ez ukatzeagaitik, bizia galdu zuten ziñopak. Ez nuan uste gure anai bereizien artean ainstesteko sinismen sendorik eta artaraiñoako kemenik izan zitekeanik--, idatzi zuan sendagille armeniar katoliko batek--. Nere gaixotegira etortzen zitzaizkidan, ontziño batean izkutaturik eden eriogarria zekartela onako galde zoragarri au egiñaz, neskaxa gazteak, baita ezkatolikoak ere: "Sendagille jauna: gu kristauak gera eta kristau izan nai dugu beti. Turkitarpean indarrez arturik birgintasuna ez galtzeagaitik geren buruak illaz bizia galtzea, ¿zillegi al zaigun gauza al da"?

Guda amaitu ondorean ere izan ziran ziñopak lurrez aldatzera beartutako armeniarren artean; 1920'ean, arroligoz bizirik erreak, batzuk Zilizi'n, lurralde artatik frantziarrak irten ziranean. Gudakoan Frantzi'ko gudaroztea iritxi bait zan arâ. Ain zuzen, oraingoan, turkitarrek, gudari frantziar aietako batzuk ere erre zituzten. Ikaragarrikeri aundiak egin ziran kristauen aurka.

Felipe zeritzan lekaide trapatar agure bat iltzez gurutzatua izan zan musulmanek sutan ipiñitako, aren, Akbes'ko lekaidetxearen aurrean.

Ikaragarrikeri oien aurka, Benedikto XV'arena izan zan abotsik sendoena. Europa'ko Laterri garailleek ez bait zuten ezer kixazkorik egin. Ezta Frantzi'k ere, naiz bere gudari batzuk sutan erreak izan, esan dugunez. Ezta, Ameriketatik, Laterri Alkartu guztialdun demokrazi-zale porrokatuek ere.



Ori, Armeni'ren zori makurra, izan zan XV Benedikto'ren arantzik oiñazegarriena. Ori, eta Errusi'ren egoera. Eta, baita're, etorkizunean

aurreikusten zuan beste guda baten sorkuntza.

"... si oculos in Europam convertimus, hinc quoque magnae moles molestiarum Nobis obversantur. Ex iis enim quae scitis proxime evenisse, Venerabiles Fratres, plane perspicuum est populorum inter ipsos simultates et iras nondum resedisse, bellique fere incendio restincto, bellicos tamen spiritus vivere" (Kardenalei Konsistorio batean esana).

Euskeraz:

"... begiak Europa'ra itzultzen ba'ditugu, badakusgu aurrean kezka-pillo mardula: Gertatu-berri diranetatik, danok, Anai Eraspangarriok, jakin aal izan duzute bâ, errien arteko gorroto eta aiertasun izkutuak ez dirala baretu, eta, naiz gudu-galda itzalia izan, gudarako gogoek bizirik jarraitzen dutela".

Baziran orduan, bai noski, politikolari eta laterri-gizon argi ospetsuak. Aiek danek baiño askoz argiago ikusten zuan XV Benedikto'k etorkizuna; esan ere esan bait daiteke, II Ludi-Guduko tiroak aurreentzuten zituala!

Palestina'ko borrokak aurreikusten zituan bezala!

Benedikto XV'a Aitasantu zala asi ziran judutarrak Palestina'n Laterri bat eratzeko asmoak aurrera eraman naiean.

1917'ko azaroaren 17'an, Balfour Inghlanderriko Ministroak, Palestina'n "bizitoki ziur" bat, "a home", eskeiñi zien judutarrei. Ordurarte Palestina, eta arabitarren lurralde guztiak, Turki'arenak ziran. Guda amaituta, Frantzi'k eta Inghlanderriak beren artean banatu zituzten lurralde aiek danak, bertako biztanleei ezer galdetu gabe, jakiña, ez dakit nungo demokraziaren araura: Siri eta Libano, Frantzi'rentzat. Palestina, Irak, gaurko Jordani, eta Arabi bera, Inghlanderriaren babespean gelditu ziran, asko edo gutxi. Zearo Inghlanderriaren menpean Palestina bera.

Clemenceau eta Lloy George artxidemokrazi zaleak izan zitzaizkigun, 1920'ean demokrazizko arau ororen aurka ebakuntza ura egin zutenak.

Baztar guztietatik asi ziran judutarrak Palestina'ra taldeka joaten; Inghlanderriaren laguntza osoarekin, asieran beintzat, an-bertako arabitarrak asarretzen asi ziran arte.

Arroegi zetozten judutar aiek-eta, larritu zan XV Benedikto, gertakizun latzak usmatzen bait zituan, an kristauak aspaldidanik zituzten eskubideen kalterako.

1918'an izan ziran, andik, Siri, Libano eta inguru aietako lurraldeetatik, turkitarrak tiroka jaurtiak. Poztu ziran Europa'n mota guztietako kristauak. Itali'n, eliz geienetan, ezkillék ozenki ospatu zuten gertakizun ura; baiñan isilik gelditu ziran Batikano'koak.

Ikus nola agertu zien bere urduritasuna Benedikto XV'ak Konsistorio batean kardenalei, Palestina'n Asis'ko Frantzisko Donearen semeek egindako lana gorapatuz gero:

"Praeterea, cum foederatorum copiis christiani denuo Loca Sancta in suam potestatem redegissent, nos communem bonorum laetitiam

participavimus ex animo; sed gratulatione timor ille suberat, quem in eadem vobis oratione aperuimus, ne ex facto per se praeclaro et laetabili id consequeretur, ut in Palaestina hebraei iam praevalerent praecipuoque quodam iure fruerentur".

Euskeraz: "Kristauak, gudarozte alkartuen indarrez, Lur Santuen jabe bir-egin ziranean, gizakume on guztien alaitasunean kide izan nintzan ni ere; Baiñan, orduan esan nizuen lez, bazan nere pozaren azpian bildurra: berez aintzagarri eta alaigarri genduan garaitza aren ondorioz ebetarrek geiegizko nagusitasunaren eta eskubide berezien jabe egingo ote zitzaizkigularen bildurra, ain zuzen".

Gero, Aitasantuak, itzaldi artan bertan, bildur ura mamitzen asia zala dio, Palestina'n azken-emandako lege berriak, "agian emailleen naimenaren aurka", bide ortatik zijoaztelako; "orain arte kristauak izandako eskubidea beeratuz, judutarren onturrea goratzen" ari omen ziran bñ lege aiek".

Palestina'ren erabateko politikazko gizarte-era antolatzen asi aurretik, Benedikto XV'ak, katolikoek eskubideak, eta, baita "beste kristau guztien eskubideak ere" bear bezala babesteko eskatzen zien antolaketa ura egin bear zuten Laterriei.

Benedikto, ez da judutarren etsai: "Ez naiz iñolaz ere judutarren eskubideak apurtxo bat ere moztutzearen zale; baiña beraiei, era berean, kristauen eskubide sagaraturik ez zapaltzeko eskatzen diet".

Ona, Benedikto XV'aren itzak:

"De iuribus quidem hebraei generis quicquam deminui nos sane nolumus, sed iidem contendimus sacrosancta christianorum iura iis opprimi omnino non debere".

Ikusten zuan XV Benedikto'k Palestina'ko auzia auzi zailla zala, eta luzarorako arras mingarria izango zala. Ez bait da gauza erreza, bi aldiz Naparroa baiño aaundiagoa ez dan lurralde batean, ainbeste arabitar, katoliko, protestalari, ortodoxo, ta judutar, estu-estu bata bestearen ondoan alkarrekin pakean bizitzea.

Nazioarteko politikagintzarako arturik zeukan bidetik joaz, Palestina'n pakea ezarri aal izateko, gure Benedikto'k, erlijio eta enda guztien eskubideak leialki on-ezagutzea eskeintzen zuan oiñarri; eta on-ezaguketa ortara iristeko, alkarriketa erabiltzea eskatzen zuan: danen arteko alkarriketa eraspentsua, ez guda ta borroka.

Geiegi eskatzen zuala? Bai, noski; baiñan berak eskatzen zuan ori lortzen ez dan bitartean, ez da Palestin'an pakerik izango.



Luigi Sturzo apaizaz mintzatu gera. 1918'an sortu zuan onek "Il Partito Popolare" edo "Erri-Alderdia", Itali'ko politikagintzarako.

Alderdi au, politikazko arazoetarako, ez zan Itali'ko Elizaren menpekoa izango. Liberalekin eta zentzuzko sozialistekin batera lan egiteko gerturik agertzen zan gaiñera.

Bi arrazoi oiengaitik, eta baita katolikoek Itali'ko politikan eskua sartzea integristei atsegín ez zitzaielako, aurka izan zuan Erri-Alderdiak Itali'ko elizjende ugari.

Ez ordea XV Benedikto; eta kezkarik gabe eman zion bere oniritzia Sturzo apaiz jaun onuragarri ari.

Era berean izan zitzaigun gizon zabala XV Benedikto sindikaltzaren arloan. Esanik utzi genduan, X Pio'ren egunetan sindikalaritza katolikoa aski begi makurrez ikusia izan zala. Iñakitar bat, Monetti, eta onek iñakitarren "Civiltá Cattolica" aldizkari integristean idatzitako lan bat egon ziran aierkunde aren astapenean. "Kristau" eta "Sindikato" itzak jez omen zitezkean alkarrekin batu!

Zentzu berea zuten, berealaxe aldizkari artan bertan beste iñakitar batek, Chaudiano Aitak, argitaratu zituan zazpi idazlanek.

Ez gaitezen arritu. "Semantika" edo "itzen esan-naiari" zegokion arazo batek lausotzen zituan gizon aien buruak.

Oroi, gure artean, oraindik asko ez dala, "sindikalista" itzak "anarquista" esan nai zuala. Era berean, "sindikalista" esatea, gure gizon aientzat, Itali'n, "anarkista" esatea zan.

Zoritxarrez, kalte aundia egin zuan naste-borraste orrek sindikalaritza katolikoaren aurrerapenerako.

Toniolo gizartiztilaria izan zan Itali'n naasketa aren aurka lendabizi jeiki zana. Eta iñakitar bat, Dasent Aita, Frantzi'n. Ta, auek baiño lenago, Irlanda'ko gotzaiak, Inghanderrian ere "sindikalista" eta "anarkista" errez alkarrekin nasten ziran itzak bait ziran.

Baita're, indartsu jeiki ziran sindikalaritza katolikoaren alde, beste gizaseme ospetsu batzuk ugari: Harmen zaarra, Mercier Kardenala, eta, onen atzetik, Belxika'ko Jaurlaritza bera. Eta baita Babiera'ko Jaurlaritza ere.

XV Benedikto'ri dagokionez, sindikato kristauak beti izan zuten aren onespena. Bere aitasantutzakoan sortuak ditugu, Itali'n, 600.000 kide izatera iritxi zan "La Confederazione Italiana del Lavoro"; eta Belxika'n "Langille kristauen Alkartea". Alemani'ko Sindikato kristaua, 1.250.000 kide biltzeraiño iritxi zitzaigun.

Orduan sortu zan Malinas'en "Gizarte-Ikasketerako Nazioarteko Alkartea". Eta, 1920'ean, Olanda'n egindako Batzar batean artu zan "la Confédération Internationale des Syndicats Chrétiens" irasteko erabakia.

Ez ziran ordea integristak kukildu. Benedikto XV'a il zanean, 1924'ean, Frantzi'ko iparraldean Lille uriaren inguruko euntze-oletako ugazabak jeiki



zitzaizkigun sindikatoak kristautzearen aurka. Baiña XI Pio'rekin egin zuten topo, eta, 1929'an onek sindikatoen babesle zen Lienart Lille'ko Gotzaiari idatzi zion gutun irikiarekin.

Eta, XI Pio"k Lienart ura berealaxe egin bait zuan kardenal, ulertu zuten danek kristaudian, Aitasantua sindikatoen alde zegoala, eta, arrezkero, auzi ori lardaskatzerik iñori zillegi izango ez zitzaion gauza zala.

Alatagutziz, Belxika'n eta Alemani'n izan ezik, asko kostatzen zitzaien katolikoei XV Benedikto'ren eta aren ondorengo Aitasantuen bidetik kezkarik gabe ibiltzen astea. Ori, katoliko beraien eta Eliz osoaren kalterako; langilleek, beren eskubideak babesteko, sindikato "gorrietara" jo bearrean aurkitzen bait ziran naitanaiez.



Beste atal batean aipatuko dugu, jakintzen maitale aundia izan zan Aitasantu bikain arek --naiz artarako gudateko ta gudate-osteko arazo larriek beta aundirik eman ez--, jakintzen arloan egin aal izan zuana.

Era berean aurkeztuko dugu aren eriotzaren aunditasun xumea, beste toki batean. Oroi dezagun emen, aren eriotzaz mintzatzerakoan edestilari batek diona:

"Podemos afirmar que a su muerte su figura se vió rodeada de respeto y de cortesía, pero nada más. Uno y otro bando contendiente siguieron en el fondo considerándolo vendido al contrario porque los dos habían recibido sendas admonestaciones del que a sí mismo se consideró pastor común".

"Papa grande. Como pocos. El clamor de Pio XII se acercará, cuando una nueva guerra mundial asole al mundo, al acento de Benedicto XV en su nota de 1 de agosto de 1917; pero a fuer de honestos hay que decir, aunque siempre las comparaciones sosn odiosas, que nunca logrará superarlo" (Schenk).

Beste gauza bat esatea peitzen zaigu: gorputzez ain aula zirudian gizon ura, kemenez, iñori bildurrik ez zion gizandi bat izan zala:


Sutan zegoan oraindik Lenen-Ludi-Gudua, geroxeago XI Pio izango zan Achilles Ratti'ri itz auek goxo-goxo esan zizkionean: "Alde batekoek eta bestekoek, danek, beren mendera makurtu nai naute; edo, beintzat, isilik egotera beartu. Alperrik dabilta. Ez dute gura dutenik lortuko; ez da, batzuei eta besteei, pakea, pakea, pakea deadar egiten jarraitzea erago-ziko didanik".

"Goxo-goxo". Barren-indar aundiko erraldoi ura gizon goxoa bait zan; bakuña, apala, arraia, umore onekoa beti.

Unerik larrietan ere, bere umore goxo ori, ez omen zuan beifñere galdu.

"En última instancia creo que hay que juzgarlo como autor de un gran acercamiento al mundo. Y desde una perspectiva sobrenatural, su pontificado fue el «don más hermoso» con el que Dios pudo obsequiar a la humanidad". (Idm.).

Egia.



## XV BENEDIKTO'REN 7 ATALTXOAK

(Maiz aipatu dugu, XV Benedikto'k, 1917'garren urteko Dagonillaren 1'ean, gudan ziarduten Laterrietako Buruzagiei idatzi zien gutuna. Illabete geroago, Iraillaren 1'ean agertu zan gutun ori "Acta Apostolicae Sedis" izenduan, Aulki Donearen legezko-aldizkarian. Garrantzi aundiko idazkia dalako, emen damaizut gutun ura, frantzeraz aurrena, "Acta Apostolicae Sedis"en agertu zan bezala, eta euskeraz gero,, euskaldun orok ulertu aal dezan).

ACTA APOSTOLICAE SEDIS

COMMENTARIUM OFFICIALE

ACTA BENEDICTI PP. XV

Quarto ineunte bellorum anno, nova pontificis summi ad moderatores populorum belligerantium adhortatio, qua certae quaedam considerationes suggeruntur, componendis dissidiis et paci restituendae idoneae.

AUX CHEFS DES PEUPLES BELLIGERANTS.

Dès le début de Notre Pontificat, au milieu des horreurs de la terrible guerre déchainée sur l'Europe, Nous Nous sommes proposé trois choses entre toutes: garder une parfaite impartialité à l'égard de tous les belligérants, comme il convient à Celui qui est le Père commun et qui aime tous ses enfants d'une égale affection; Nous efforcer continuellement de faire à tous le plus de bien possible, et cela sans acception de personnes, sans distinction de nationalité ou de religion, ainsi que Nous le dicte aussi bien la loi universelle de la charité que la suprême charge spirituelle à Nous confiée par le Christ; enfin, comme le requiert également notre mission pacificatrice, ne rien omettre, autant qu'il était en Notre pouvoir, de ce qui pourrait contribuer à hâter la fin de cette calamité, en essayant d'amener les

peuples et leurs chefs à des résolutions plus modérées, aux délibérations sereines de la paix, d'une paix «juste et durable».

Quiconque a suivi Notre oeuvre pendant ces trois douloureuses années, qui viennent de s'écouler, a pu facilement reconnaître, que, si Nous sommes restés toujours fidèles à Notre résolution d'absolue impartialité et à notre action de bienfaisance, Nous n'avons pas cessé non plus d'exhorter peuples et Gouvernements belligérants à redevenir frères, bien que la publicité n'ait pas été donnée à tout ce que Nous avons fait pour atteindre ce très noble but.

Vers la fin de la première année de guerre, Nous adressions aux nations en lutte les plus vives exhortations, et de plus Nous indiquions la voie à suivre pour arriver à une paix stable et honorable pour tous. Malheureusement Notre appel ne fut pas entendu; et la guerre s'est poursuivie, acharnée, pendant deux années encore, avec toutes ses horreurs; elle devint même plus cruelle et s'étendit sur terre, sur mer, jusque dans les airs; et l'on vit s'abattre sur des cités sans défense, sur de tranquilles villages, sur leurs populations innocentes, la désolation et la mort. Et maintenant personne ne peut imaginer combien se multiplieraient et s'aggravaient les souffrances de tous, si d'autre mois, ou, pis encore, si d'autres années venaient s'ajouter à ce sanglant triennat. Le monde civilisé devra-t-il donc n'être plus qu'un champ de mort? Et l'Europe, si glorieuse et si florissante, va-t-elle donc, comme entraînée par une folie universelle, courir à l'abîme et prêter la main à son propre suicide?

Dans une situation si angoissante, en présence d'une menace aussi grave, Nous qui n'avons aucune visée politique particulière, qui n'écoutons les suggestions ou les intérêts d'aucune des parties belligérantes, mais uniquement poussés par le sentiment de notre devoir suprême de Père commun des fidèles, par les sollicitations des Nos enfants qui implorent Notre intervention et Notre parole pacificatrice, par la voix même de l'humanité et de la raison, Nous jetons de nouveau un cri de paix et Nous renouvelons un pressant appel à ceux qui tiennent en leurs mains les destinées des nations. Mais pour ne plus Nous renfermer dans des termes généraux, comme les circonstances Nous l'avaient conseillé par le passé, Nous voulons maintenant descendre à des propositions plus concrètes et pratiques, et inviter les Gouvernements des peuples belligérants à se mettre d'accord sur les points suivants, qui semblent devoir être les bases d'une paix juste et durable, leur laissant le soin de les préciser et de les compléter.

Tout d'abord le point fondamental doit être, qu'à la force matérielle des armes soit substituée la force morale du droit; d'où un juste accord de tous pour la diminution simultanée et réciproque des armements, selon des règles et des garanties à établir, dans la mesure nécessaire et suffisante au

maintien de l'ordre public en chaque Etat; puis, en substitution des armées, l'institution de l'arbitrage, avec sa haute fonction pacificatrice, selon des normes à concerter et des sanctions à déterminer contre l'Etat qui refuserait soit de soumettre les questions internationales à l'arbitrage soit d'en accepter les décisions.

Une fois la suprématie du droit ainsi établie, que l'on enlève tout obstacle aux voies de communication des peuples, en assurant, par des règles à fixer également, la vraie liberté et communauté des mers, ce qui, d'une part, éliminerait de multiples causes de conflit, et, d'autre part, ouvrirait à tous de nouvelles sources de prospérité et de progrès.

Quant aux dommages à réparer et aux frais de guerre, Nous ne voyons d'autre moyen de résoudre la question, qu'en posant, comme principe général, une condonation entière et réciproque, justifiée du reste par les bienfaits immenses à retirer du désarmement; d'autant plus qu'on ne comprendrait pas la continuation d'un pareil carnage uniquement pour des raisons d'ordre économique. Si, pour certains cas, il existe, à l'encontre, des raisons particulières, qu'on les pèse avec justice et équité.

Mais ces accords pacifiques, avec les immenses avantages qui en découlent, ne sont pas possibles sans la restitution réciproque des territoires actuellement occupés. Par conséquent, du côté de l'Allemagne, évacuation totale de la Belgique, avec garantie de sa pleine indépendance politique, militaire et économique, vis-à-vis de n'importe quelle Puissance; évacuation également du territoire français; du côté des autres parties belligérantes, semblable restitution des colonies allemandes.

Pour ce qui regarde les questions territoriales, comme par exemple celles qui sont débattues entre l'Italie et l'Autriche, entre l'Allemagne et la France, il y a lieu d'espérer qu'en considération des avantages immenses d'une paix durable avec désarmement, les parties en conflit voudront les examiner avec des dispositions conciliantes, tenant compte, dans la mesure du juste et du possible, ainsi que Nous l'avons dit autrefois, des aspirations des peuples, et à l'occasion coordonnant les intérêts particuliers au bien général de la grande société humaine.

Le même esprit d'équité et de justice devra diriger l'examen des autres questions territoriales et politiques, et notamment celles relatives à l'Arménie, aux Etats Balcaniques et aux territoires faisant partie de l'ancien royaume de Pologne, auquel en particulier ses nobles traditions historiques et les souffrances endurées, spécialement pendant la guerre actuelle, doivent justement concilier les sympathies des nations.

Telles sont les principales bases sur lesquelles Nous croyons que doit s'appuyer la future réorganisation des peuples. Elles sont de nature à rendre impossible le retour de semblables conflits et à préparer la solution de la question économique, si importante pour l'avenir et le bien-être

matériel de tous les Etats belligérants. Aussi, en Vous les présentant, à Vous qui dirigez à cette heure tragique les destinées des nations belligérantes, Nous sommes animés d'une douce espérance, celle de les voir acceptées et de voir ainsi se terminer au plus tôt la lutte terrible, qui apparaît de plus en plus comme une massacre inutile. Tout le monde reconnaît d'autre part, que, d'un côté comme de l'autre, l'honneur des armes est sauf. Prêtez donc l'oreille à Notre prière, accueillez l'invitation paternelle, que Nous Vous adressons au nom du divin Rédempteur, Prince de la Paix. Réfléchissez à votre très grave responsabilité devant Dieu et devant les hommes; de vos résolutions dépendent le repos et la joie d'innombrables familles, la vie de milliers de jeunes gens, la félicité en un mot des peuples, auxquels Vous avez le devoir absolu d'en procurer le bienfait. Que le Seigneur Vous inspire des décisions conformes à sa très sainte volonté. Fasse le Ciel, qu'en méritant les applaudissements de vos contemporains, Vous vous assuriez aussi, auprès des générations futures, le beau nom de pacificateurs.

Pour Nous, étroitement unis dans la prière et dans la pénitence à toutes les âmes fidèles qui soupirent après la paix, Nous implorons pour Vous du Divin Esprit lumière et conseil.

Du Vatican, 1er Août 1917. BENEDICTUS PP XV .

---

## EUSKERAZ

"Gudan diarduten errialdeetako buruzagiei:

Nere Aitasantutzaren asieratik, Europa elbarritzen ari dan gudu ikaragarri onen giroan, iru izan dira batez ere nik izan ditudan asmoak:

- Bere seme guztiak, --guztien aita dalako--, maite dituan Aitari dagokion bezala, ez auen ez aien alde okertu gabe, tinko, beti alderdirik artzeke irautea;

- Iñorenganako zaletasun geiagokorik gabe, iñoren nortasunari, erlijioari ala nongotasunari jaramonik emateke, al dezakedan on guztia danei egiten saiatzea; ori agintzen ere bait didate, bai izadi lege orokorretik datorzkigun karitate-arauek, bai Kristo'gandik artua dudan gogo-eginkizun gurenak;

- Eskuetan izan dezakedan aalmen guztiak erabiltzea --bat bakarrik ere utzi gabe--, gudaren ondamen au geldiarazteko; --izan ere, nere eginkizunaren eragiñez pakegille izatea bait dagokit--. Saiatu naiz ortarako, erriak eta errien buruzagiak asmo bakunagoetara eta alkarrizketa baretsu batera eramaten, pakea lortu naiez: pake iraunkorra, zintzotasunëan oiñarritua.



Igaroak ditugu iru urte mingarri. Nere ekintzaz jabetu danak, errez ikusi aal izan du nola gorde dedan nik, erne beti, iñolaz-ere-alderdirik-ez-artzeko eta beti ongintzan jarraitzeko nere asmo sendo bikoitza; eta --era berean ikusi aal izan du-- ez naizela beiñere, erriei eta buruzagiei, senide izatera biurtu daitezela arren egitez aspertu, naiz, ain egokia dan elburu ortara iristeko egin dedanak, bear bezalako zabalkunderik jaso ez.

Gudaren aurreneko urtea bukatzerakoan, egin nizkien eskari biziak eta, baita, bide egokiak eskeiñi ere Laterri borrokalariei, danontzako pake zintzo eta iraunkor bat antolatzeko gai izan zitezen.

Zoritxarrez gure dei ura ez zuan iñork entzun, eta aurrera jarraitu digu bi urtez guduak anker, bere ikaragarrikeri guztiakin. Are geiago; odolkariagoa biurtu eta geiago zabaldu, egin zaigu, bai lurrez, bai itxasoz, bai aidez. Ikusi aal izan dugu, babesik gabeko urietara, erri paketsuetara, jende errugabeen artera, ondamena ta eriotza nola joan diran edatzen.

Eta orain, iñork ez dezake asmatu ere, iru urte odolezko oien atzetik gudu-illabete, edo okerragoa litzakena, gudu-urte geiago etortzen ba'zaizkigu, guztion oiñazea zenbateraiño gogortu ta ugaritu daitekeen. Gizakume burutsuon mundu osoa erio-landa biurtu bearra ote dugu bâ? Ain aintzaz eta aurrerapenez betea izan dugun gure Europa'k, erabateko zorotasun beltzak jota, amildegiruntz leiatu bear ote du, an bere burua bere eskuz erailtzeko?

Orra bâ:

Egoera larri orrek eraginda, eta orrelako etorkizun beltzaren zemaipen..., nik, politiketatik onturrerik itxaron ez dedan onek,

ez alde bateko ez besteko borrokalarien onura ta aieruetara okertzen ez naizen onek,

nik,

soilki guztien Aita gurena izatetik datorkidan bearkizunak bultzata, nere itza eta nere bitartekotasun pake-sortzaillea eskatuz nere seme-alabek zuzentzen dizkidaten eskariak entzunaz,

eta, baitare, gizadi osoaren eta Arrazoi ber-beraren abotsa era berean entzunaz,

nik,

berriro,

pakearen aldeko oiur bat jaurti, eta pakerako dei estukor bat bidali, dagiet gaur, Laterrien zoria beren eskuetan daukaten guztiei.

Baiñan, ontara ezkerre, orain arte bezala, goi-gogapenen mailla orokorrean egoteke, --mailla ortara beartu bait naute gaur arteko gertakizunek--, orain ordea,

xeetasun jarraigarrietara jetxi nai dut gaurko ontan, pake zuzen iraunkor baten oiñarri izan daitezkeela diruditen atal batzuk aurkeztuz,

eta atal oiek ontzat artzeko Laterri borrokalarietako Jaurlaritzei dei

egiaz.

Bedi Jauriaritza beroien eginkizuna, atal oiek geiago mugatzea eta osotzea.

- Aurreneko atala, beste guztien oinarri izan bear duana, auxe da: Izkilluen indar itxuari uko eginda, izkillu oien ordez, soilki, zuzentasunezko eskubideen indarra ontzat artzea.

- Bigarrena: Izkilluen kopurua, --era egokian, danek batera, eta danek une berean--, gutxiagotzen asteko Laterri danak alkar-artze zuzen batera erakartzea.

Izkillu-gutxiagotze ori, aurretik tajututako arauen eta eskiertasunen erara egingo litzake, eta Laterri bakoitzeko barren-pakea zaindu-bearrak eskatzen duan askitasunaren neurria.

- Irugarrena: Izkilluen ordez, Goi-Epaiketa-Bide edo arbitraje bat ezarri bezate Laterriek, munduan pakea gordetzeko.

Ori, danen artean eraturako arauen argira izan bearo da egiña; eta, nazioarteko arazoak Goi Antolakunde ortara eraman nai ez dituan edo Goi Antolakunde orren erabakiak onartu nai ez dituan Laterriaren aurka, zigorrak aurretik antolatu ta ipiñiaz.

- Laugarrena: Gizarte-bizitzarako Zuzentasuna eta zuzentasunetik datozen Eskubideak era ortan Nagusi ezarri ondorean, ezabatu bitez, Erriek alkarrekingo arremanetarako bearrezkoak dituzten bideentzako kaltegarriak diran eragozpen guztiak, eta, lege egokien araura, ziurtu bedi itxasoen guztientasuna; eta askatasuna.

Ori egiteak, gorroto-zio asko ezereztuko litzuke; eta danontzako aurrerapeneta-aberastasun-iturri berriak iriki.

- Bostgarrena: Gudatik sortutako gaitzak eta zorrak ordaintzeko, Arau Nagusi lez, nik ez dut alkarren-arteko barkapena baiño beste bide egokiagorik ikusten.

Barkapen osoa! Izkillugintzari uko-egitetik sortuko liraken irabaziek oparo ordainduko bait litzukete barkapen ortatiko galerak oro.

- Seigarrena: Indarrez artuak izan diran lurraldeen itzulketarik gabe, ez daiteke ain onura txit aundiak ekartzekoa dan pake-itun ori tajutu.

Orregaitik:

Alemanik, Belxikatik irten, eta Belxikari beste edozein Laterriarekingo arremanetarako askatasun osoa eman bearo lioke, bai politikari, bai gudarozteari, bai ekonomiari, dagozkien arazoetarako. Era berean irten bearo luke Frantzi'renak diran lurretatik.

Eta beste aldeko Laterri borrokalariek, era ber-berean, Alemani'ri bereak zituan koloniak itzuli bearo lizkiokete.

Bada auzirik errialdeen jabetasunari buruz, beste toki batzuetan ere. Itali'ren eta Austri'ren artean, adibidez; edo Alemani'ren eta Frantzi'ren artean. Izkilluketari uko egitetik sortuko litzaken ontasuna gogoan artuz,

Laterri oiek, beren arteko auziok adiskide lez eratzen saiatuko dirala, itxaro dezagun.

Baiñan, beti ere, maiz aski esana dugunez, al dan guztian, eta zuzentasunaren neurrira, Laterri oiek, errien guraria aintzat artu bezate; eta, --Laterri oiek--, ber-beren onturrea gizarte osoaren onturre orokorrarekin kidatzen arduratu bitez.

- Zazpigarrena: Badira, lur-jabetasunaren eta politikaren arloetan beste arazo batzuk ere munduan: arazo oiek, era berean, zuzentasunaren eta egokitasunaren argira izan bear dute erabakiak.

Ola, adibidez, Armeni'ri, Balkanetako Laterriei, eta Poloni'ko Jaurerri zarrarenak izandako lurraldeei dagozkien arazoak. Bada noski azkeneko Jaurerri au, edestia-zear gorde duan nortasunagaitik eta jasan bear izan dituan gaitzengaitik, bereiziki gudu ontan bertan izan dituan kalteengaitik, Laterrien naimen-ona egiaz irabazteko diña!

Oiek dira, nere ustez, Errien antolaketa bir-eraikitzeo oiñarri ziurrak. Oiñarri oiek, badute oraingo au bezalako borrokaldien itzulpena eragozteko, eta, --Laterri borrokalarion etorkizunerako eta bizitz-ontako zorionaren gertuketarako ain garrantzitsua dan-- ekonomi arazoen konponketa lortzeko gaitasunik aski.

Orregaitik, atal auek, zuei, une erio garri ontan Laterrien etorkizuna zuen eskuetan daukazuteno i aurkezterakoan, badut itxaropen gozo bat biotzean: Atal auek ontzat artuko dizkidazutelaren itxaropena; eta, ondorioz, gero ta aluagoa dakusgun sarraski izugarri au len-bait-len amaiturik ikusi aal izango dugularen itxaropena.

Bestalde, izkilluetatik irabazi daitekean goi-aipua, bai alde batekook bai bestekook, ontara-ezkero irabazia duzutela, mundu guztiak aitortzen duan gauza da.

Entzun ezazute bâ nere eskari au.

Onartu eidazute, Aita lez, --Pake-Errege dan gure Salbatzaillearen izenean-- dagizuedan oi u au.

Oroi, Jainkoaren aurrean eta gizadiaren aurrean guztiok duzuten erantzun-bearra.

Zuen erantzun ortatik zintzilika daude:

zenbatu eziñ-aiñako sendien atsedena, eta poza;

aneika gizaseme gazteen bizitza;

itz batez esateko, Errien zoriona, iñolako aitzakirik gabe lortzera bearturik zaudeten zuen Errien ondasun osoa.

Jaunak eman bezaizue zuen ekintzetan Berak nai duan bezala jarduteko grazia.

Jainkoak bezaizue, gaurko gizakumeen txaloak irabazteaz gaiñera, etortzekoak diran belaualdiengandik "pakegintzaille" izena --izen ederra-- danok irabazi aal izateko aalmena.

Nik, pake-gose diran gizakume on guztiekin otoitzean bat egiñik, Nik,  
Gogo Deunari, zuentzako, bere argia eta bere gidaritza, daskaiot.

Batikan'etik, 1917'ko Dagonillaren lenen egunean.--. BENEDICTUS  
PP XV. (Azpimarraketak, nereak dira).

## BERTSALLES'KO ITUNA

Bertsalles'ko Itunak eratu zuan Europa berria, I Ludi-Gudua bukatu zanean.

Itun aren bidez zatiturik gelditu zan Austri-Ungari, mozturik Alemani, Bulgari eta Errusi, ta ederki zabaldurik Errumani ta Greci. Sortu ziran Laterri berriak ere: Finlandi, Letoni, Estoni, Lituani, Poloni, Txekoslobaki, eta Yugoslabi. Austri eta Ungari, bata bestearengandik bereizirik, Laterri iare egiñik gelditu ziran, baiña len baiño txikiagoak, aienak izandako zatiak Errumani'ri, Yugoslabi'ri eta Itali'ri eman bait zizkien Bertsalles'ko Itunbeak. Serbi ta Bosna Gora edo Montenegro Yugoslabi osotu berriaren barruan gelditu ziran. Izan ere Serbi izan bait zan, Belgrado bere uri nagusiarekin, Laterri berri aren gunea.

Laterri oietan, bizirik iare jarraitzeko, Poloni'k izan zuan nekerik geiena. 1919'an Errusi'ko Sobietarren Gudarozte Gorria etorri bait zitzaion gaiñera. Baiñan jakin zuten poloniarrek, urte bete lenago Bertsalles'ko Itunak eman zien askatasuna babesten, eta Bartsobi'ren aurrean menderatu zuten Gudarozte Gorria Pilsudski mariskala buruzagi zutela, Frantzi'ren laguntzarekin.

Ez zitzaion Benedikto XV'ari Poloni'n eta beste Laterri berrietan zer-egiñik peitu, Laterri aien danen oben nagusia abertzalekeria izanik, okerkeri aundiak egin bait zituzten abertzalekeri orren zekentasunak bultzata.

Laterri aietako batzuetan gaiñera, begi gaitoz so-egiten zitzaion Eliza Katolikoari. Errumani'n adibidez, edo Yugoslabi'n, eta Txekoslobaki'n.

Errumani, guda-aurrean ortodoxiarra zan ia oso-osoan. Gudaren ondorean ordea, Ungari'rena izandako Transilbani, eta Errusi'renak izandako Betsarabi ta Bukobina, Bertsalles'ko Itunak emanda bere-egin zitualako, katoliko-sail ugari batekin aurkitu zan bere muga berrien barruan. Ia milloi t'erdi katoliko "latindar" eta ia iru milloi "uniata".

Oso gaizki jardun zuan katolikoekin, "uniatekin" batez ere, Errumani'ko Jauriaritzak, Laterriaren batasuna sendotu naiez.

Laterriaren batasuna egitea, sendotzea eta bizkortzea, Laterri berri auen danen apetarik nagusiena izan bait zan ain zuzen, ia II Ludi-Gudua piztu arte.

Errumani, luzaroan turkitar musulmanen ankapean egondako erria dugu. Eta kristautasunari eskerrak gorde zuan bere nortasuna musulman anker aien menpean. Errumani'ko kristautasuna ordea Ortodoxia izaki-ta, Ortodoxia erabili nai izan zuan 1918'aren ondorean Errumani'ko Jaurlaritza nazionalistak Laterria bateratzeko.

Ori zala-ta, ortodoxiar biurtu nai izan zituan "uniata" katolikoak indarra-ta- zipozkeria-bitarte.

Gauza bera gertatu zan Yugislabi'n, naiz ain era gogorrean ez. Ugariago bait ziran emen katolikoak! Eta baita azkarragoak, jakintsuagoak eta aberatsagoak ere! Eslaboni eta Kroazi dira bâ Yugoslabi'ko lurralderik aurreratuenak.

Alatagutziz, Serbi ortodoxiarraren inguruan eratu bait zan Jaurerri berria...; eta Serrbi'ren uri nagusia, Belgrado ortodoxiarra, Jaurerri berri osoaren Uri Nagusi izan bait zan egiña..., Ortodoxia erabili nai izan zuan emen ere Jaurlaritzak, endaz eta izkuntzaz ain ez-berdiña zan Laterriaren batasuna mamitzeko.

Oso ezberdiña zan gaiñera erlijioz ere: 5.500.000 ortodoxiar, 4.700.000 katoliko, eta 1.100.000 musulman.

Gaztediarentzat "Yugoslovenski Sokol" izeneko erakunde abertzale eta katolikotasunaren etsai bat eratu zuan Jaurlaritzak eta erakunde ortara sartu nai izan zituan Jaurerriko gazte guztiak. Egiñalak egin zituan, Eliza Katolikoari gazteen eziketa eta irakasketa galerazteko ere, eta aski esku lapurra erabili zuan eliz-ondasunen ebasketan.

Txekoslobaki'n katolikoa zan Errepublikaren %95'a. Baiñan emen ere, Elizaren aurka asi zan era zoroan Jaurlaritza nazionalista; Txekoslobaki'n, jaurleri masoi-liberal-antikleristek etsai bezala ikusten bait zuten Eliza Katolikoa.

Austri'renak izandako Boemi, Morabi, eta Eslobaki'rekin eratu zuan Txekoslobaki berria Bertsalles'ko Itunak. Eliza berriz Austri'ren adiskide izan zan beti edestia-zear, eta orain ere min bizia sortu zuan katolikoan eta elizjende askoren biotzetan Austri-Ungari, munduko Laterri katolikorik aundiena puskatua, bazter guztietatik moztua, eta zearo auldurik garrantzi-gabeko errialdetxo bihurturik ikusteak.

Ortik Txekoslobaki'ko jaurliaren bildurra. Orregaitik:

- Beren laguntza guztia eman zieten protestalariei, Morabi'n batez ere, eta, ortodoxiarrei, Errepublikaren sortaldeko Karpazi'an.

- Boemi'n, Eliza Katolikoaren aurka sortutako Txek-Eliz-Nazionalaren alde jarri ziran nabarmenki, eta aski indar aundia artu zuan Eliz ark Jaurle aien laguntzari eskerrak, 1920'az gero.

- Eliza Katolikoari Txekoslobaki osoan gaztedia kentzeko asmoz eratu zuten "Sokol" zeritzan erakundea.

- Eliza parregarri uztea zuan elburuetako bat, 1925'ean Huss ereje

zarrari egin zitzaion omenaldi zaratatsuak.

- Danubio ibaiaren ertzetan ungaritar endako laterkideak eta iparraldean "sudete" alemaniarrek menderatzeko, Eliza Katolikoa Laterriaren tramankulu biurtu nai izan zuan Jaurlaritzak; Txekoslobaki'n ere aundia izan bait zan enda ezberdiñetako jendeak nazio batean len-bait-len oretzeko guraria. Enda bat ez dugun ezkerre, egin dezagun Nazio bat!

- Eliz-ondasunak ebasten, eta baita gotzai batzuk erbesteratzen, eta Elizari ikastolak eragozten ere, bizkor ibilli zan Errepublikak gazte antiklerikala.

- Eta, azkenik, "josefismorik" jatorrenaren bidetik, egin zituzten alegiñak, Elizaren bizitza gobernatu naiean, Errepublikaren buruzagiek.

1927'an, Europa'ko giroa Txekoslobaki'rentzat era bildurgarrian aldatzen ari zala ikusi zutenean aldatu zuten jokaeraz. Eman zitzaion Elizari askatasuna gotzaien aukeraketarako; Jaurlaritzaren baietsia besterik ez zuan aurrerantzean gotzai aukeratuak bearke; itzuli zitzaizkion, --Elizari--, len kendutako ondasunak; eman zitzaion ikastola ta ikastetxeak irikitzeke baimen osoa; eta ez zitzaion geiago eragozpenik ipiñi "Erriaren Alderdi" katolikoari.



Beste era batera, baiñan Poloni'n ere aski gaizki ibilli ziran gauzak Jaurliaren abertzalekeriaren erruz; an ere Laterriaren batasuna, zorioneko "Laterriaren-Batasuna" lortzearren oso era okerrean jardun bait zan Jaurlaritza gutxiengo edo minoriekin, bai izkuntzaren bai erlijioaren gaietan. Oro nai izan zuan "polonizatu".

Ala, gaizki erabilli zituan ortodoxiarrak eta baita Eliz "uniatako" katolikoak ere; eta gaizki erabilliak izan ziran an izkuntzari ta kulturari dagozkion gaietan, bere mugen barruan gelditu bear izan zuten lituanitarrak ere.

1916'ean, lenen garaitzen ondorean Austri'k eta Alemani'k, eraiki zuten Errusi'ri kendutako lur polonitarrekin "Poloni'ko Jaurerri" iare bat. Pozik artu zuan Beenedikto XV'ak Poloni'ren askatasunaren albistea, eta bere poz ori adierazteko idatzi zuan urrengo urtean, Batikan-Uria-baitan, "nota diplomatica" esan oi zaion gutun bat.

Azkartxo ibilli zan Aitasantua. Poloni'ko erriak ez bait zion alemaniarren sorketa ari abegi onik egin. Ez noski erri ura askatasunaren etsai zalako; Alemani'k eta Austri'k XVIII mendean kendu zizkieten puskak ere ostera beretzat nai zitalako baizik.

1917 artan, beste arazo batean ere badirudi azkarregi ibilli zala XV Benedikto, egia ba'da beintzat Efen Donea Eliz Osoaren Doktore, Errusi'n Elizaren alkartasunari bidea irikitzeke, izendatu zuala. Iraultzaz gero, Laterria



Elizagandik bereiztean, Eliza iare gelditzen zalako, Errusi'ko Ortodoxia eta Erroma'ko Katolikotasuna alkartzeko giroa gertutzen ari zala uste izan omen zuan bâ!

Aulki Doneko gazterik argienetako bat bidali zuan Bartsobi'ra ordezkari: Akiles Ratti, Pio XI'a izango zana.

Ez zitzaion oni Poloni'n lanik peitu, esan dugun lez poloniarren geiegizko abertzalekeriak, lituaniarrak ez ezê, Austri ta Alemani'gandik birirabazitako Pomerani'ko eta Silesi'ko zatiak len-bait-len "poloniarrezeko", eman bait zituan zuzentasunaren aurkako urratsak.

Era berean ari izan zan oker Erruteni'ko "uniatekin" ere. Latiñezko liturjiara erakarri nai bait zituan auek, Poloni'ren "batasuna" sendotzeko, poloniarren abertzalekeri neurri-gabe ark.

Poloni'rena bezala, Lituani'ren, Letoni'ren eta Estoni'ren askatasuna Bertsalles'ko Itunaren zitu izan genduan. Eliz osoaren pozgarri gozoa, iare bait zan arreskero, Errusi'ren ankapean bizitako lurralde aietan, katolikotasuna. Ez zan, beraz, Elizarentzat Bertsalles'ko Ituna, katoliko askok uste izan zuten bezain kaltegarri gertatu. Protestalariak eta masoiek egindako Pakea izan omen zan bâ Bertsalles'ko pake ura!

Egia esateko, ez ziran pake-egille aiek Elizaren adiskide beroegiak: Wilson, Laterri Alkartuetako Lendakaria, protestalari "puritan" edo garbikerizalea; Lloyd George, Ingalannderrikoa, protestalari presbiteritarra; Sonnino, italiarra, antiklerizalea; Massarik, Txekoslobaki'aren eratzaillea, masoia; eta, Clemenceau, Frantzi'ko ezkertiarren buruzagia. Baiña Clemenceau'k esan zuan bezala, "obea izan zan pakeegilleak baiña pakeegilleek egindako Pakea": "La paix valait mieux que ceux qui l'avaient exécuté".

Egia da, katolikoek samiñez zioten lez, munduko Laterri katolikorik aundiena, Austri-Ungari, pakegintza artan desegiña izan zala. Baiña, erri ezberdiñez, indarra-medio osaturiko Laterri baldar arek, errialde txikien askatasunaren unean osorik jarrai zezakeala uste ote zuten katoliko aiek?

Errez aztutzen zuten beintzat, Bertsalles'ko Itunean, "Bertsalles'ko Pakeak", Alemani'ren koloni izandako lurraldeetako mixioak zuzenki Aitasantuaren mendean ipintzea erabaki zuala, naiz Koloni aiek, batzuek, Laterri protestalarien mendean gelditu. Bazan, beraz, erabaki ura Aitasantuaren biotza poztutzeko aiñakoa, Aitasantuak izpirituari-buruzko galetan mundu guzirako zuan almena ezagutzea bait zan.

Errez aztutzen dute, --katoliko erretxinduek--, baita're, pakegille aiek naimen onaren puskatxo bat beintzat bazutela beren baitan. Izan ere, "Bertsalles'ko Itunetik" sortu zan Jinebra'ko Nazioen Alkartea. Asmo onarekin sortu zan eta Aulki Donearekin ez zan gaizki konpondu.

Egia da Pakegintzan eta ondorengo Nazio-Alkarte artan Aitasantuak ez zuala tokirik izan. Orixe ain zuzen eskatu bait zuan aurretik Itali'k Alemani'ren

aurka gudan sartzeko, Benedikto XV'ak Nazio danen aurrean Erroma'ko erregetza eskatuko zualaren bildurrez; baiña aurkitu zuan Benedikto XV'aren zentzu onak bere abotsa nazioetako ordezkari entzunarazteko modua.

Ofizialtasunik gabe, baiña bai aktibitate edo ariketaz bizkor, Cerretti Gotzaia izan zan Bertsalles'en Benedikto XV'aren ordezkari.

Eta, gero, "L'Union Catholique des Études Internationales" erabilli zuan Aitasantuak Jinebra'ko Nazio-Alkartean present egoteko.



Itzal aundia artu zuan Nazio-Arteko bizitzan Aitasantuaren izenak: Benedikto XV'ak asi zuan bâ, oraindik Arabi'n eta beste musulman-errietan bizirik jarraitzen zuan esklabutza-oituraren aurkako ekintza, eta baita 1922'an Errusi'ko gosetekoan ango beartsuei laguntzeko igikundea.

Bertsalles'ko Itunean parterik ez artu izatea bera ere, onuragarri izan zan azkenean Aitasantuarentzat, ez bait zuan onela arek erantzukizunik Itun aren okerkerietan, ez zan bâ pakegintza ura bear bezain zuzena izan.

"La paix imbecile de Clemenceau"; "Clemenceau'ren pake ergela", deitu zion Aristides Briand sozialistak. "Ez dira gorrotoaren sustraiak ezereztu" deadar egin zuan Benedikto XV'ak "Pacem Dei Munus" entziklikan. Usmatzen bait zuan Aitasantuak pakegintza artan bigarren gudu baten azia ereiñik gelditu zala.

Ala ere gogo osoz ekin zion Benedikto XV'ak ludiko arazozen konponketari. Eta aurkitu zuan, baiki, ludian zer konpondu. Bere aitasantuzako denbora guztian iraultzan naasirik ibilli bait zan Mexiko, eta orduan argitaratu bait zitzaigun an, Elizarentzat ain kaltegarri zan 1917'ko Kostituzio zipotza.

Ezer gutxi egin aal izan zuan Mexiko'ko iskamilletan Aitasantuak. Ezer gutxi Sorkaldean ere turkitarrek kristauen aurka asi zuten zigorketa odoltsuan. Zori ohea izan zuan bere beste saioetan, Frantzi'koan adibidez.



Diplomazigintzan ere bide berri bat asi zigun zalantzarik gabe, Benedikto XV'ak: zabaltasunaren bidea, patxadaren eta konfiantzaren bidea, eta bide ortatik jarraituko zuten ondorengo Aitasantuek.

Frantzi'k, ausiak zeuzkan Aulki Donearekin arremen guztiak; baiña illik zegoan an, ordurako, mendearen asierako antiklerikeria, eta Aristides Briand'ek, ostera ar-eman aiek birrezartzeko eskatzen zuan.

Gudateko arriskueta berriz, "frantziar guztien artean egin zan "l'Union Sacrée" ark, Leon XIII'aren ariketak lortu ez zuana lortu aal izan zuan: "le Ralliement a la République": katolikoak Errepublika onartzera eramatea. Izan

ere, gudatekoan, Paris'ko Goigotzaiak, Amette Kardenalak, bete-betean lagundu zion Errepublikako Jaurlaritzari. Abertzaletasunez beterik joan ziran apaizak borroka-lekuetara gudari. 25.000 eliz-gizon eta apaiz-edo-praille-gai izan ziran leku aietara eramanak eta 5.000'ek galdu zuten an bizia. Bost milla baiño askoz geiago izan ziran zaurituak Errepublikaren esanera borrokan.

Zalantzarik gabeko gauza zan, antiklerizalerik itxuenentzat ere, orrela jardun zuten apaiz aiek Errepublikaren etsai ez zirala, eta are gutxiago Frantzi'ren arerio.

Ederki jokatu zuan Aitasantuaren esanera Cerreti ordezkariak, Bertsalles'ko pakegintzakoan, Frantzi'ko Jaurlariekin. Erreztasun guztiak eman zituan Benedikto XV'ak ostera Frantzi'ra itzuli ziran Alsazi eta Lorena'ko elizbarrutietako arazoak bir-eratzekoan; eta frantziar guztien biotzak irabazteko, --bai integristen bai ezkertiarren biotzak irabazteko--, aldareetara igo zuan Alacoque'ko Margarite Mari. Eta baita Ark'eko Jone ere, gudate artan frantziar guztiek Aberriaren Aingeru lez maiz oroitu izan zuten "pucelle" edo "neskatilla".

Jaso zuan Jaurlaritzak Aitasantuaren naimen-onezko keiñu ori, eta enbaxadari-kategoriko ordezkari bereizi bat bidali zion Erroma'ra kanonizazio artarako. Eta Aristides Briand'ek baretu bait zituan azkeneko diputadu antiklerizaleen kezkek, birrezarri aal izan ziran azkenean, Frantzi'ren eta Aulki Donearen arteko arremanak.

1922'an izan ziran izendatuak nuntzio bat Paris'erako, eta Enbaxadari bat Erroma'rako: Aitasantuaren zabaltasunari eskerrak batez ere.

"Je ne veux pas de tout faire venir la République Française à Canossa", jakiñarazi zien Erroma'ko integristei: "Ez dut inñolaz ere Frantzi'ko Errepublika Kanosa'ra ekarri nai". Era berean jokatu zuan Frantzi'ko Errepublikak.

Elizak, Jaurlaritzari, gotzai aukeratuen izenak aurretik ezagutu aal izateko eskubidea eman zion, konkordatoa desegiña izan ez baliz bezala; eta Errepublikak, Elizari, erlijiosoen Anaidi eta ikastetxeak ezartzeko eskubidea, III Errepublika-aurreko konstituzioa desegiña izan ez balitz bezala.

Frantzi'ko jauretze eta gaiñerako eliz-ondasunen jabetasunaren auzia garbitzeko, Cerretti'k "les Associations Diocésaines" asmatu zituan; asmakizun erreza, Bazkun auek, urte batzuk leenago Frantzi'ko gotzaiak eta Pio X'ak gaitzetsitako "Associations Cultuelles" aiek besterik ez bait ziran mamiz. Oraingoan, errez izan ziran onartuak, bai Jaurlaritzaren aldetik eta bai Aitasantuaren aldetik ere. Orrela, bidea Elizarentzat Frantzi'n iare utzita il zan XV Benedikto.

lare utzi zion Itali'n ere.

Itali'ko Jaurlaritzak Aitasantua pakegintzatik baztertze eskatzen zuan une berean, kardenalen bazkun bat osotzen ari zan Benedikto XV'a, Aitasantuen Erregetzaren auzi mingarria erabat Itali'rekin nola konpondu

zitekean aztertu zezaten.

Guda amaituta, auzi ortaz itzegiñarazi zion Cerretti'ri Paris'en Itali'ko diplomazilariekin; eta, Pacelli lege-gizonari Erroma'n, Itali'ko Jaurlaritzarekin gai ortaz beraz mintzaketan asteko agindua eman zion.

Mundu guztiak zeukan Itali'n, auzi ura konpontzeko gogoia.

Ezkertiarrek, bestela Itali gobernatzerik ez zegoala ikusten zutelako. Era ortan ain zuzen ari ziran mintzatzen "Il Messagero" liberal ezkertiarren izparringia, eta "Tempo" jaurlaritzako liberal baretsuena.

Nai zuan Aitasantuak ere; ikusten bait zuan italiar katolikoek Itali'ren Batasunaren aldeko izan nai zutela, Aitasantuaren aldeko izatez utzi gabe; eta, auzi doakabe aren erruz bi adiskidetasun oiek batera bildu ez zitezkealako, biotza saminki erdibiturik zebillela jende katoliko ura.

Beti egon zan irikia XV Benedikto Aitasantuaren biotza; eta baita begia ere. Bera izan zan fatxismuaren garaitzaren posibilitatea aurrena ikusi zuenetako bat, eta garaitza artatik Elizari zer arrisku etorri lekizkioken jakiteko, zalantzarik gabe onartu zuan Gasparri'ren eta Mussolini'ren artean alkarrizketa baten egitea.

Era berean jokatu zuan, italiar katolikoak politikan sartzearen arloan. Pio IX'ak eta Pio X'ak, eta baita Leon XIII'ak ere, Itali'n, bildur zieten Alderdi Katolikoei, batez ere alderdi katoliko demikrazikoiei. Benedikto XV'ak, ez. Ala eman zien politikagintzarako askatasun betea katolikoei; eta ikusi aal izan zuan, pozik, On Sturzo'ren Alderdiaren garaitza. Zugurki lagundu zion isillean Alderdi ari; isillean!..., Aitasantutza politik'era bati eta katolikotasuna Alderdi bati ez lotzearen.

Irikirik utzi zuan, bai, Itali'n ere bidea Benedikto XV'ak, eta errez iritxi aal izango da, bide ori-zean, Pio XI'a "Erroma'ko Auziaren" amaia.

Izan zuan Aitasantuak, politikaren arloan beste pozkida bat ere: Irlanda'ren askatasuna, ainbeste odol eta nekeren ondorean 1921'an lortua!

1916'ean izan zan Sinn-Feinners edo Abertzaleen azkeneko matxinada odoltsua, alemaniarrekin alkar-artu ondorean sortua, eta, Inghlanderriaren aldetik, errukirik gabe, iraduz zapaldua. Urkamendian galdu zuan bizia Sir Roger Casement, abertzaleen buruzagiak.

Baiña guda amaitu bezain laister, Wilson lendakariak nazio txikien nortasunaren alde sortarazi zuan igikundeaz baliatuak, matxinada odoltsuan ziran osteria Sinn-Feinners abertzaleak. Burutsuki uste izan zuan oraingoan Lloyd George Inghlanderriko Jaurlaritzaren Lendakariak, Ugartearen arazo neketsuari azken egoki bat emateko garaia iritxia zala.

Egokia? Ez danen iritziz. Ala, askatasun aren aurka irten zan De Valera ber-bera, Laterri iarean Ulster'ko probintziaren zatirik aundiena, gaurko Ipar-Irlanda, sartzen ez zalako. Baiña Lloyd George'k geiago egiterik ez zeukala aitortu bearra da, Ipar-Irlanda'ko biztanle geienak protestalariak bait ziran,

Inglanderriaren altzoan jarraitzearen aldekoak.

Jende aiek irlandarrak ez zirala esaterik ez dago gaiñera, an bait zegoan jende ura amaseigarren mendea ezker. Irlanda protestalari eta inglandar biurtzeko bidaliak izan ziran Irlanda'ra XVI mendean. Gaur oraindik majiña bat odol-ixurtzearen iturburu da Inglanderriko Errege Tudor protestalarien politika-bide zoro anker ura. Baiña azkeneko iskamil auek ezagutu gabe il zan Benedikto XV'a; Irlanda oraindik askatasun irabazi-berriaren gozotasuna alaiki txastatzen ari zala.



Atal onen zatitxo au amaitzeko, galdera bat. Zer eragimen edo influentzi izan zuan Benedikto XV'ak Jinebra'ko Nazio-Alkartearen sorketan?

Alkarte ospetsu aren sorkunde-eskaria, Wilson'en 14'garren punttua da. Baiña puntu ori Benedikto XV'aren 7'garren punttua zan.

Wilson'ek ezagutzen zituan Aitasantuaren Puntuak, batez ere 7'garren ori, puntu ortaz bereiziki, eta sakonki gaiñera, ari izan bait zan Suizi'n guda-denboran bertan, "l'Union Catholique des Etudes Internationales" billera bitan jarduten.

Wilson bera, 1919'garren urtean egon zan Erroma'n Aitasantuarekin itzegiten, eta naitanaiezkoa zuten puntu orretaz mintzatzea.

Beintzat, 1920'eko lbeltzaren 10'ean Nazio-Alkarteak, Paris'en bere aurreneko eseraldia egin zuanean, ez zitzaion --Alkarte orri-- Benedikto XV'aren onespén leialik peitu.

Danadala, esan bearra da, Nazio-Alkatea Benedikto XV'aren punttuen araura tajotua izan balitz, askoz era egokiagoan, zuzenagoan, eta eranginkorragoan tajotua izanen zala.

Maitetsu eta arreta aundiz begiratu zion Benedikto XV'ak Bertsalles'ko Itunean eratutako Europa Berriaren sorkundeari. Batez ere Alemani Berriaren sorkundeari; an izan bait zan arriskurik aundiena:

Errusi'ren antzera Alemani ere komunismora jausteko arriskua. 1917'an Errusi'n bezalakoa bait zan 1918'an Alemani'ko politika-giroa: Guda, galdua; Laterria, omenik gabeko Itun baten bidez lotsagarri menderatua; erriko jendea agintariekin asarretua, eta etsai garaille zipotzen aurka amorratua; eta sumindurik gudaroztea bera; eta autoritate sendorik eza, --Alemani osoko Kaiser'ek ez ezê, Inperatore aren azpian oraindik, izenez beintzat, Laterri-Buru lez jarraitzen zuten Erregeek ere galdu bait zuten erregetza...

Òrtaz gaiñera, indar aundia artu zuan langilledi gaztearen artean "Spartakus" erakunde marxitar iraultzalari biurriak, eta, odola irakiten zuala, iraultzara irten ere egin zan gaztedi ura Alemani'n komunismoa ezartzeko!

Liebknecht eta Rose Luxemburg izan ziran Iraultza artan buruzagi.

Jeiki ziran marxitarren alde Berlin'go proletariak; eta arriskugarriagoa zana, 1917'an Errusi'ko aiek bezala jeiki ziran era berean Baltik-Itxasoko guda-mariñelak ere; ta, zabaldu zan Prusi'tik landa beste Laterri alemaniarretara matxinada. Ain zuzen, Babiera'n, nuntzitegia bera artu zuten indarrez iraultzariak. Ez zuten an okerkeririk egin, baiña betirako sartu zioten Pacelli nuntzioari, --geroagoko Pio XII'ari--, komunismoaganako kezka berezia.

Ez zuan Alemani'n komunismoak bururik jaso aal izan. Errusi'ko eta Aemani'ko erriak ez bait ziran berdiñak. Are gutxiago ziran berdiñak bi lurraldeetako gudarozteak.

1917'an ondatua zegoan zearo Errusi'koa. Baita 1918'an Alemani'koa ere. Baiña errusiar gudariek bazekiten beren agintari militarren erruz izan zirala ondatuak; alemaniarrek ordea ziur uste zuten, ondamen artan agintari militarrek errurik ez zutela; iñori errurik botatzekotan, politikalariei bota bait zitzaien an errua, ez militarrei. Aratz irten zan, beraz, Bertsalles'ko Itunetik gudaroztearen izena, eta gudarozteak leial jarraitu zuan, eta gudarozteak deuseztu zuan 1919'ko Ilbeltzean spartakustarren iraultza.

Weimar'en bildurik, Errepublika bat sortu zuten Alemani guztiko ordezkariak: "Weimar'ko Errepublika". Gustora jakin zuan Aitasantuak Erroma'n Errepublika aren jaiotza, eta Munich'tik Berlin'era aldatu zuan Pacelli nuntzioa. Ez zetorkion gaizki Errepublika gazteari Aitasantuak eman nai zion laguntza, katoliko askok, Gillermo II'arekin ederki bizi izan ziralako, Errepublikari muzin egiten bait zioten.

Eta bazuan Benedikto XV'ak Errepublikari itxaropentsu begiratzeko arrazoirik aski.

Indartsua zan katolikoek "Zenter Parte" bizkorra; Alemani'ko politikalaririk yayoenetakoa zan, Alderdi aren buruzagia: Erzberger; Ots aundikoak eta almen aundikoak ziran "Katholikentag" edo "Katoliko-Bazkunak", bosteun aña bazkide biltzen bait zituzten urteroko billeretan. (Ospetsua zan Bazkun aien altzoan Konrad Adenauer, orduan Koloni'ko alkate eta gero Alemani'ren salbatzaille izan bear zuanaren izena); eta 1919'ko Kostituzioak, iaretasun osoa eman zion Elizari: ainbeste urteren luzaroen katolikoek gura izan zuten iaretasuna!

Bazuan XV Benedikto'k zertaz pozik egon Alemani'ko Errepublikari begira.

Bazuan, ala ere, Alemani gazte arek, bere arra. Politikalariek garailleen aurrean burua geiegi makurtzen zutela-ta, gero ta militarren aldekoago egiten ari bait zan an jendea!

Erzberger 1921'e an eraila izan zan; Alemani'ren errenditzea 1918'aren azaroan berak izenpetu zualako, an aurka joan ziran ba bereiziki militaristen gorrotoak. Agian ura izan zan, Alemani'ko ekonomia



birpiztu zuan Matias Erzberger yayoaren oben bakarra: errenditze ura, guda galdu zuten jeneralei izenpetuarazi bearrean, berak izenpetu izatea. 1921'ean izan zan bere jatorrizko Oian Beltzean tiroz koldarki erailla. Etorkezun beltz baten aztarna gogorra.

Makurragoa oraindik "Zentral Partei"ren barruan gertatutako zatiketa. Alderdiak protestalari-jendea errezegi bere altzoan onartzen zuala aitzakitzat artuz, Alderditik irten ziran Babiera'ko katolikoak, eta beste Alderdi bat, "Bayerische Volkspartei" edo "Babieratar Erri-Alderdia" osotu zuten. Laister alkartu zan alderdi au militarikeri eta abertzalekeri gogorrenaren lagunekin.

Orrela ari zan Alemani'n izkilluenganako gurraketa mardultzen. Alemani'ko gudaroztea ez omen zan garaitua izan. Alemani'ko gudaroztea saldua izan omen zan. Gudaren serbitzura edatutako politika bat bear omen zuan Alemani'k bere aunditasuna birrirabazteko. Giro ortan sortu zan 1934'ean Hitler'en diktaturtza, baiña 1922'an il zan Benedikto XV'ak ez zezazkean oraindik arrisku aren ondorioak, zeatz aurre-ezagutu.

Ungari'n irten zan garaille komunismoa; an ere, Errusi'n eta Alemani'n bezala, izan bait zan Autoritatearik-eza; eta jendearen amorrua, guda galtzearen ostean.

Austri'rekin baturik zegoan Ungari guda asi zanean, naiz Laterri iare izan. Laterri-Burua zuten bi errialdeek bat bera: II Frantzisko Jose, eta, au 1916'ean il zanean, I Karlos. Orduan Ungari'k bazituan 325 milla terdi kilometro laukoi edo kuadratu. Zearo txikituta 92.883 kilometrorra moztua utzi zuten guda ostean pakegilleek. 3 milloi ungarier gelditu ziran, naitanaiez, Ungari berriaren mugetatik kanpo.

Karlos I'a baztertuta, 1918'aren azkenean bere burua Errepublika egin zuan Ungari txikitu arek; laister, 1919'ko Epaillean, nagusi ziran an marxitarrak. Bela-Kun izan zan gobernu komunistaren buruzagia; baiña Ungari'ko erria, --eta askoz gutxiago gudaroztea--, ez bait zan komunista, eta gobernu komunista ark artaraiñeko izugarrikeri odoltsuak egin bait zituan une motzean!, Horthy almiranteak azpiratu zuan auzoko Laterrien laguntzarekin Bela-Kun'en diktaturtza gorria.

Biotz guztiz lagundu zion XV Benedikto Aitasantuak edestia-zearko bere aunditasuna ankapeturiñ ikustean negar zegian Ungari makurtuari. Batez ere, Schioffa nuntzio argiaren bitartez Alderdi katoliko baten eraiketan lagundu zion: "Ungari'ko Alderdi Gizartezale Kristauaren" eraiketan.

Uste aundia zuan Benedikto XV'ak Alderdi katolikoetan, eta demokraziaren ariketan. Austri'n, Txekoslobaki'n..., baztar guztietan ats eman zien orrelako Alderdiei.

Itali'n ere Alderdi Katoliko bat izan balitz, Itali gudako gaitzetatik salbatu aal izango zuala pentsatzeak ematen zion min. Izan ere, pakean gudatik at

gelditzearen aldeko ziran an katolikoak 1915'eko orrillaren aurretik. Alderdi Katoliko bat izan balitz orduan Parlamentuan, ez zan agian Itali gudan sartuko.

Baiña ez zan Alderdi Katolikorik, katolikoek galazirik bait zeukaten Pio IX ezkerko politikagintza.

Ludi guztiarekin alkarrizketan leialki asteko beti egon zan prest Benedikto XV'a.


Errusi'ko Jaurlaritza komunistarekin ere nai izan zuan tratuan asi eta bidali zituan ortarako ordezkari batzuk. Baita're, Eliz ortodoxiarrak, komunisten azpian zeramakian zigor latza jakiñarazi zionean, eta laguntza eskatu zionean, berealaxe egin zuan Gasparri Kardenal idazkariaren bidez Lenin berarentzako oarkunde bat, Errusi'ko Eliz Ortodoxiarraren alde.

Chicherine atzerri-auzietako komisarioaren bidez erantzun zion Lenin'ek idazki luze bat. Idazki ori izan zan saiaketa aren zitu bakarra, baiña, an agertu zan "L'Osservatore Romano"ren orrietan eta an dago Aitasantuaren naimen onaren adigarri.

Ez zan naimen on ori alperrikakoa izan, iñoiz baiño gorago igo bait zuan Aitasantuaren ospea. Benedikto XV'a Aulki Donera iritxi zanean 14 enbaxadari aurkitu zituan bere alboan. Il zanean, 27'k lagundu zioten illetetan.

Laterri guztiek nai izan zuten Aulki Donearekin ezaupideetan sartu. Baita Japoi bezala kristau ez ziran aiek ere. Zergaitik? Olanda'ko Jaurlaritzaren lendakariak, Van der Linden'ek, emanen digu erantzuna. Ona zer esan zuan parlamentuan jaurle protestalari onek, Aulki Donerako Olanda'ren enbaxadaritza irikitzerakoan, lenengo enbaxadariak Aitasantuari eraman zizkion itzen araura: "Il n'existe pas aujourd'hui de centre politique plus important que le Vatican pour exercer une influence dans l'intérêt de la paix. Le pape fait vraiment partie des grandes puissances". Gure izkeran: "Pakearen alde lan egiteko ez da Batikanoa baiño politika-leku oberik. Egiaz, Aitasantua, agintaririk indartsueneren kide da".





## XV BENEDIKTO ETA MIXIOKUNTZA

Batez ere, mixioei eman zien eragiñagaitik izan da Benedikto XV'a mundu guztiaren aldetik aintzaldua. Bizi zan oraindik bera, "Mixioen Aitasantu" izen-eman zitzaionean. Ondo merezitako izena, ez mixioei indar berria eman zielako bakarrik, mixiokuntza egiazko bidera eraman zualako baizik: mixiogintza mixio-lurrak Eliz Gazte iare biurtzera zeramakian bidera, ain zuzen.

Gregorio XVI'a ezkerro giro berri bat, giro egokia benetan, sortu zan XIX mendearen bigarren erdian mixioketarako. Iru gertakizunek eratu zuten giro berri egoki ori. Ona iru gertakizun oiek:

1<sup>a</sup>- Lurriñezko itxas-ontzi berriek bidazti guztiei, baita mixiolariei ere, alde batetik bestera joateko ekarri zieten erreztasuna;

2<sup>a</sup>- Lur berrien billaketan lur-ikerleek Asi'an eta Afrika'n egindako lana. Egia da ibilkari ausarta aiek, geienak, edo politikazko edo ekonomiazko arrazoiek bultzata ibilli zirala. Baiña aien eskutitz, idazti, eta liburuek, zirrara aundia sortu zuten kristau-gaztediaren idurimen-biotzetan.

Gaiñera ibilkari aien artean baziran mixiolariak ere. Mixiolari katolikoa zan Huc lazarista, 1851'ean "Souvenirs d'un voyage dans la Tartarie, le Thibet et la Chine", ("Tartari'ra, Tibet'era, eta Txina'ra egindako Ibilketa baten Oroitzak") izeneko liburua argitaratu zuana. Mixiolari protestalaria izan zan lur-ikerleetan ospetsuena, Dabid Livingstone. Eta nolako mixiolari zintzoa gaiñera! Ikus zer idatzi zion 1858'an Inglannderriko "Royal Geographical Society" laguntzailleari:

"Nere ibilketa guztien elburu nagusia auxe duzute: lurralde auetako gizakumei beste aberastasun guztiak baiño geiago balio duten kristautasunaren aberastasunak eman aal izatea"; eta adiskide bati 1859'an: "Ez nau arrotzen, orain arte ezezagunak ziran lur izkutuak aurkitu ta argitara atera izateak; Mixiokuntzari bideak iriki izateak arrotzen nau".

Mixioetarako gogoia ernâzazteko garrantzi aundikoa izan zan, protestalarien artean batez ere, 1857'an Livingstone'k argitaratu zuan liburua: "Missionary Travels (ibilketak) and (eta) Researches (idoroketak) in South Africa".

Ibilkari, mariñel, eta lur-ikerleek lortutako idoroketa berriekin batera, bidegintzarako teknika berriak zetozen:

1869'koa da Suez'ko ubidea.

Europa'ko ekonomiak azoka berriak bear zitualako, Laterri indartsuek, irikiarazi zituzten Sortaldean, atzerritarrentzat itxirik zeuden lurraldeetako ateak. Bata bestearen atzetik zabaldu zitzaizkigun Indotxina aurrena, Txina gero, Korea atzetik eta Japoi azkenean. Eta 1872'an eman zigun Xabier'ek landutako lur onek jauretxeak eraikitzeke baimena, eta andik laister, bertako jendea bataiatu aal izatekoa, eriotzez zigortua bait zeukaten japoindarrek kristau egitea.

3<sup>a</sup>. Mixiokuntzarako Anaidi eta Lagundi berrien sorketa arrigarria. Ordurarte, mixiokuntzarako bakarrik sortutako Lagundia, Paris'ko "Société des Missions Étrangères" izenekoa zan soilki, batez ere Aita Rhodes'en ekintzari eskerrak 1664'ean sortua.

Orain, berreun urte geroago Aita Lieberman'ek argitaratu zigun, mixiokuntza utserako pentsatua, 1841'etik 1848'ra, "Gogo Deunaren Lagundia".

Bereala, Paris'koaren antzekoa, bagenduan Milan'en, 1850'ean, "Atzerri-Mixioetarako Lagundi" bat.

Eta bi Erakunde auen atzetik, urduri sortu zitzaizkigun Kristaudi osoan Mixioetarako bereiziki edo mixioetarako bakarrik asmatutako Erakunde berriak. Anaidi zaarretan ere birpiztu zan mixiokuntzarako leia; eta, kristauerrian bertan --bai protestalarien artean bai katolikoen artean-- iñoiz baiño gartsuagoa bait zan mixioketarako lei ori, laister zabaldu ziran ludi guztira Kristo'ren igarleak ugari.

Ugari... eta kristaudiaren bazter guztietatik etorriak. Españi'ko "Patronato" edo Portugal'eko "Padroado"en mendean zeuden lurraldeak ez bait ziran artean, legez, mixio-lurtzat eukiak..., frantziarrak ziran, legez beintzat, mendearen asieran ia mixiolari katoliko guztiak.

Orain, mixiolari berri auek ez dira gizonezkoak bakarrik, gizasemeek bezala entzun bait dute mixiokuntzaren deia neskatil kristauek.

Mixio protestalarietan beti izan dira ugariak emakumezkoak, baiña mixiolarien emazte bezala mixioetara joanak geienak. Badu noski merezimendua senarrari lur arrikugarri aietara laguntzeak, baiña aundiagoa da, bai noski senar baten babesarik gabe, soilki Kristo'ren eta lagun urkoaren maitasunak eraginda, mixioetara joan ziran lekaima katolikoen ospea.

Bedi gure esker ona emakume aientzat; baita protestalariarentzat ere, lan ederra egin bait zuten emazteki aiek, eta bereiziki, beren jarduketarekin ederki erakutsi bait zien lurralde aietako emakumezkoei, atsedenean bezala nekeetan ere emazte kristauak bere senarrari nola lagundu bear dion.

XIX mendearen asieran ez zan oraindik lekaimerik mixioetan. 1824'ean,

Ama Javouhey ezagunak bidalitako txortatxoa bakarrik. 75 urte geroago, mendearen amaieran, lekaike mixiolariak badira 44.000, ludiko zoko guztietara zabalduak. Gizonezkoenak bezain oparo sortu bait ziran urte oien epean, mixiokuntzarako eraturako emakumezkoen Lagundiak.

Badu mixioketa berri onek beste zertan jakingarri bat ere: mixiolarien espezialitasuna, bereiztasuna, ots, lan bakoitz baterako, baitipat artarako bereiziki prestatutako pertsonak erabiltzea, sortu ere artarako sortu bait ziran Lagundi eta Anaidi mixiolari berri geienak: erakuskintzarako, gaixotegietarako, umezurtzen zainketarako... Au da: ekintza soil baterako bereiziki mixiolariak trebetutzeko.

Mixiokuntza artan ez da mixiolarien ariketa bakarrik arrigarri eta aipagarri. Arrigarriagoa da oraindik kristau erriaren baitan mixioetarako sortu zan leia, zaletasuna. Otoitzez eta limosnaz, pozik lagunduko die erriak mixiolariei. Urtean-urtean ugariagoak izango dira "Sinismenaren Zabalkundea" eta "Aurtzaro Donea" izeneko bi "opera Pontificia" edo "Aitasantuen Ekintzetan" sartuko diran kristauak.

Berealaxe sortuko dira beste bi orrelako Ekintza: "San Pedro Apostoluarena", 1889'an Bigard Andreak asmatua, eta "Eliz-gizonen Mixio-Alkarte", Milan'en 1916'ean Paul Manna'k sortua.

Garai berekoak dituzu mixioetako aldizkariak ere: kristau-erria-baitan mixioen zaletasuna bizirik egoki gorde eta bikainki bizkortu zuten aldizkariak.

Lan aundi arrigarria egin zan 100 urteen epean. Ikus:

Sahara-azpiko Afrika guztiak ez zituan 1800'ean 2 eliz-barruti besterik; bai ordea 61, mende aren azkenean. Indi'an, 4'tik 27'ra igo ziran elizbarrutiak; Txina'n 16'tik 39'ra; Ozeani'an, 11'tik 22'ra. Ez noski nekerik, izardirik eta odolik gabe! Oro 1886'ean Uganda'n bizia eman zuten eta gaur aldareetan dauzkagun lenengo martiri beltzak.

Lavigerie Kardenal baionatarrak sortutako "Aita Zuriak" eraman zuten lur artara kristautasuna; eta Inghlanderriko mixiolari protestalariak! Martirien artean izan ziran protestalariak ere. Kanonizaketakoan, Paul VI'ak ez zituan, katolikoak bezala Kristo'gaitik odola ixuri zuten martiri protestalari beltz aiek Santu aldarrikatu. Beste mundurako garrantzirik gabeko arazoa noski; an, maitasun berdiñaz "kanonizatu" bait zituan Kristo'k batzuek eta besteak. Ez, ordea, mundu ontarako; "Anai bereiziei" bear zaien maitasuna agertzeko, adiontasunik onenetako bat galdu bait zuan, gure ustez, une artan Elizak.



Mixioenganako zaletasunak sortarazi zuan mixiogintzaren altzoan mixio-jakintza, misionologia.

Amasei-amazazpigarren mendeko mixiolari aiek gogapen aratz, bakun,

ximple bat bakarrik zeramakiten buruan: animak gaizkatzea. Igokundeko Martin gipuzkoar martiri Donearen eskutitzak irakurtzea naikoa duzu, mixiolari aiek jentilledia, beste irten biderik gabe, zuzen-zuzen infernura joaten zala uste zutela ikusteko.

Emeretzigarren mendeko mixiolariak bazekiten teoriz beintzat, kontzientzi garbiko jentillak salbatzen dirala, baiñan alatagutziz jende garbi oiei ere, eta oiei bereiziki, Jainkoaren Jaurerriaren berri eraman bear zitzaiela. Zertik eta zertarako berri-eramate onen bearkizuna? Edo, berdin dana, ¿zein da mixiokuntzaren azken-arrazoirik sakonena?

Misiojakintzaren muiña dan galdera oni erantzuna aurkitzeko, protestalariak asi zuten azterketa. Alemaniarrek aurrena, inglanderriarrek gero. Azterketa oien emaitzak ikertzeko, 1910'ean bildu zan Edinburg'en protestalarien lenengo "Ludi-Mixio-Batzarra". Esan daiteke urte ori izan zala misionologiaren edo mixioiztiaren jaiotz-urtea.

Azterketa, jakiña, leenago asia izan zan: 1864'ean Erlangen'en, Karlos Graul'ek; 1867'an Berlin'en, Plath'ek; eta Edinburg'en, Duff'ek; 1897'an Halle'n, Gustabo Warneck ospetsuak; au dugu mixioiztitzari jakintza-tankera egiaz eman ziona.

Iru erakunde garrantzitsu sortu ziran Edinburg'eko Batzar artatik: Gaurko eguneko "Ekumene-Igikundea"; "Nazioarteko Mixio-Bazkuna": ("International Missionary Council"), eta "The International Review of Missions".

Alemanin' jaio zitzaigun mixioizti katolikoa ere. Bere sortze-emailleak, -- Roberto Strei OMI, eta Jose Schmidlin--, biak protestalarien ikasleak izan genituan, Warneck'enak batez ere. Ipiñi dezagun 1911'garren urtea gure mixioiztiaren sorkuntzaren urte lez; urte ortan Breslau'n ospatutako Batzarrak erabaki bait zuan gai onen azterketa ta erakusketarako Münster'ko Unibersitatean Erakunde edo Istituto bat eratzea.

Sasoirik ederrenean zeuden, beraz, mixioak, XV Benedikto'ren aitasantutzakoan, Lenen Ludi-Guduak naitanaiezko geldiuenera sartu zituanean. Zorionez, gure Benedikto XV'a, Aulki Donean eseri dan gizonik egokienetako bat, zegoan orduan Elizaren buruzagi, ez mixioiketari berbizkunde berri bat eratzeko bakarrik, baizik-eta baita jardun-bide zintzo bakarra erakusteko ere; era okerrean bait zebiltzan aldi aietako mixiolariak, -- protestalariak eta katolikoak--, borondaterik onenarekin, beren ariketan.

Ortarako idatzi zuan Benedikto XV'ak 1919'ko azaroaren 30'ean "Maximum Illud" entziklika, edestilarien aburuz "mixiokuntza berriaren oiñarria": "Charta Magna Missionum".

Aitasantuen dokumentuetan beti gerta oi dan bezala, entziklika onen gogapenak ez dira Benedikto XV'aren sorkari. Argitaratuak ziran ordurako teologilari eta mixiolarien idazkietan, adibidez Leon Joly kanonigoaren eta Bixente Lebbe lazaristaren idazkietan: batez ere, entziklikak lurralde

guztietan bertako semeak apaiz eta gotzai egiteari-buruz azaltzen zituan gogoetak.

Bereiziki, Lebbe'k bere gotzaiari Txina'n idatzita "Propaganda Fideraiño" iritxi zan eskutitz bateko itzak eta Aitasantuak bere entziklikan darabilzkianak ain berdintsuak izateak, argi adierazten digu Aitasantuak Txina'ko mixiolariaren eskutitz ura ezagutzen zuala. Ez dio orrek Benedikto XV'aren merituari kalterik egiten, ain zuzen Aitasantuaren eginkizuna orixe bait da: Elizaren buru izatea; Gogo Deunak Eliza-baitan, an edo emen, sortarazten duan zuzentasun oro bere-egin-da Eliz guztiari irakastea.

Benedikto XV'aren idazki guztiak dira irakurtzeko atsegiñak, baiña au bereizkiro: "Maximum Illud".

Erreza ta gardena da Entziklikaren aria: Lan aundia, arrigarria egin da mixioetan; lan orrek ordea, bere miragarritzko neke guztiekin, ez du bear zan aiñako uztarik ekarri. Zergaitik? Mixiogintzari katolikotasuna peitu izan zaiolako. Orregaitik, atzerritar eta erbesteko iduritu izan zaie mixiolurretako jendeei, batez ere Japoi, Indi'a, eta Txina bezalako erri jakintsuei mixiolariak erakutsi nai izan dieten Kristautasuna. Sendakiñak? Mixiolariak beren kulturaz eta aberriz aztutzea; lurralde bakoitzeko jakintza zaarra aintzat artzea; lur bakoitzeko semeak apaizgorako eta gotzaigorako prestatzea; orrela al danik azkarren, errialde bakoitzean Eliza bertakoa izatera iritxi dadin.

Dotore azaltzen dizkigu Aitasantuak ordurarteko mixiokuntzaren akatsak eta utsuneak. Aztertu ditzagun, pixka bat, mixiolaritzaren oker oiek eta beroien izkutuko erroak.



1<sup>a</sup>- Kolonizaketa: Politikazko kolonizaketa. Itxasoz-arunzko lurretan, kolonizalari izan ziran, maizegi eta geientsu gure mixiolariak. Ez da arritzekoa, beren denborako seme bait ziran naitanaiez. Denbora ura berriz, kolonizapenaren denbora izaki!

Kolonizatzailliek irikitako bideak-barna joan ziran mixiolariak. "Ozeani'ko itxasoetan ugarteren batean Inghlanderriko Ikurriña azaltzen ba'da, an agertzen dira berealaxe Inghlanderriko mixiolari protestalariak", idazten zuan baztar aietako mixiolari batek. Ori bera gertatzen zan mixiolari katolikoekin Laterri katoliko batek bere-egiten zituan kolonietan.

Kolonizaketak iriki zizkien mixiolariei mixiogintzarako bideak. Kolonietara iritxitako agintariei eskerrak ari izan zitezkean beren lanean pakean. Bearrezkoa etsitzen zuten kolonizaketaren iraunpena, beren lan artan jarraitzeko. ¿Nor arritu mixiolari aiek kolonizaketaren aldeko izateak?

Jardunketa orrekin, bai beren buruak eta bai iragartzen zuten kristautasuna bera ere, indarrez-ankapetutako-errien izakeraren etsai egiten zituztelarik, ¿erri aietako semerik jatorrenak eta bikaiñenak Elizagandik

uxatzen zituztela?

Ori, gaur esateak, ez du meriturik. Ezagutzen bait ditugu gaur jokaera aren ondorenak. Orduan, ordea, oraindik ondorenak ikusten ez ziranean, ez zuan iñork orrelako gauzarik pentsatzen. Uste ere, koloni aiek beti koloni izango zirala uste bait zuan jendeak.

Mixiolari bakoitza bere aberriaren kolonietara joaten zan gaiñera bereiziki; eta garai artan sortu bait zan, ain zuzen, erromantikeraren aizera guk ezagutzen degun abertzaletasun bereizi au, ez da arritzekoa mixiolariak ere abertzaleak izatea; eta mixiolurretan, --emen kolonizalarien aurretik, an kolonizalarien atzetik--, kristautasuna ez ezê, bakoitzak bere Aberriaren agintaritza ezarri nai izatea.

"Zorionez, iritxi dira gure mixiolari katolikoak ugarteren batera inglanderriarrak baiño leenago; eta, baita, aien atzetik Frantzi'ren ikurriña ere", jarraitzen zuan len aipatu dugun Ozeani'ko mixiolari frantziarrak.

Mixiolarien sikologiaz landa baziran beste arrazoi batzuk ere mixiolariei eta Elizari begiak lausotzeko.

Laterriek laister ikusi zuten, mixiolariek kolonizaketari eman zezaioketen laguntza.

"Gure diplomazientzat, berri-biltzaillerik yayoenak eta laguntzaillerik seguruenak mixiolariak dira", ("les meilleurs informateurs et les plus sûr agentes"). "Ortiz gaiñera, mixiolariak dira Frantzi'ko kulturaren aitzindariak atzerriko bazter guztietan" ("les pionniers de la culture française!"), zion arro Paris'en Fernando Brunetière akademi-gizon katolikoak.

Napoleon I'ak diplomazigintzarako mixiolarien posibilitateak zenbatean jotzen zituan ikusi dugu. Bâ, Napoleon III'aren denboran, Laterriaren kontura zituzten joan-etorrietarako itxas-ontziak Frantzi'ko mixiolariek.

¿Nola Laterriarekin esker onekoak izan ez Frantzi'ko mixiolariak eta Frantzi'ko Eliza bera? ¿Arritzekoa al da, mixiolari auek kolonizaketaren asieran, mundu guztia Laterri indartsuen artean zatitua izaten ari zala ikusten zutenean, beren Frantzi'arentzako al zitezkean zatirik geienak irabazi nai izatea?

Laterriek mixiolarien laguntza bezala Elizak ere nai zuan Laterrien laguntza eta asmorik zintzoenarekin eta eginkizunik onenetarako gaiñera. lkus:

Mixiolurretan esklabutzaren oitura oraindik bizirik zegoala-ta, oitura nardagarri aren aurka asi zan, Leon XIII'aren onespenearekin Labigerie Kardenala 1888'an.

Aitasantuak Kardenal baionatarraren ekintzaren alde Laterrien laguntza eskatu zuan, eta bikainki erantzun zioten aiek: 1890'an Bruselas'en bilduta "Esklabutzaren aurkako Erabakia" izenpetuz, eta mixiolariei lagunduko zietela itz-emanaz.

Orra zer fruitu ederra, kolonizapenari zor zitzaiona!



Mixioen bizitzarako, Laterrien laguntza naitanaiezko baldintza zuala, lurralde askotan, Txina'n bereiziki, uste izan zuan Aulki Doneak.

1844'ean lortu zuan Frantzi'k, indarra-medio, Txina'ko Jaurlaritzagandik, frantziar mixiolari katolikoen zaindari izatea, eta geroago mixiolari katoliko guztiena, eta azkenean baita Txina'ko jende katolikoarena ere.

Frantzi'k, pasaporte bereiziak ematen zizkien Txina'ko mixiolari katolikoei, eta pasaporte oien bitartez bazuten mixiolariak Txina'ko agintariekin eta Txina'ko erriarekin izan zezaketen ardailla guztietan Frantzi'ko diplomazilarien laguntza ezkatzeko eskubidea. Eta Aulki Doneak, eskubide ori kezkarik gabe erabiltzeko aolkua eman zien mixiolariari.

Europa'ko Laterriek iriki zituzten Txina'ko eta beste Sortaldeko errialdeetako ateak. Laterri aienganako bildurrak gordetzen zituan ate aiek zabalik. Europa'ko Laterrien laguntzarik gabe ez zegoan Sortaldean mixioegiterik. Ortaz ziur zegoan Eliza.

Mixiolarien eta kolonizatzaileen arteko on-ulertze orren azpian bada beste zerbait ere; sakonagoa, izkutuagoa:

Leon XIII'aren denboretan batez ere, Aulki Donea, Elizaren eta Laterrien alkar-konponketa Europa'n egin naiean zebillen.

"Inmortale Dei"n aurrena, eta "Inscrutable"n gero, Elizaren laguntzarik gabe Laterriak ez dezakela gizarte eroso bat antolatu, erakutsi zuan Leon XIII'ak. Erakusketa orren proba egiteko ez al ziran mixiolurrak tokirik egokiena? Orrela, kolonietan Elizaren eta Laterriaren ondo-konpontzearen zituak ikusten ba'ziran, errez lortu aal izango zuan Europa'n ere Elizak ain gura zuan alkar-laguntze ori.

Bazuan bâ begi zorrotza Leon XIII'ak, baiña ala ere ez zuan ikusi bere jokabide arekin askatasuna maite zuten erri guztientzat Eliza iguingarri biurtzen zuala.



2ª- Kulturazko Kolonizaketa: agian, politikazkoa baiña kaltegarriagoa. Luzeagoa, iraunkorragoa, dalako; eta mixiolarien berriona zuzenki aditua izateko orduan eragozpen aundia gerta zitekealako; lurralde askotan, Afrika'n adibidez, jendea gure oiturak --gizarte-erako gauzak batez ere-- ulertzeko, oraindik ez bait zan gai!

Europar-Laterri bakoitzeko mixiolariak, beren Laterri artako biziera lur berrietan ezartzera ere joan ziran, baitipat mixioak beren Laterriaren kolonietan ba'zeuden. Badu noski gauza ederrik Sortaldeko errietako kulturak! Mixiolariak ez zuten edertasun ura ikusi. Zakarra ta itxusia iduritu zitzairen an idoro zuten guztia. Txina'n oril, edo Indi'an!, edo Japoi'nen! Afrika'ko edo Ozeani'ko arri-aroko kulturekin zer gertatuko zan esan bearrik



ez dago!

Etsi-etsirik uste izan zuan denbora artan Europa guztiak Sarkaldeko kulturaz landa beste kulturarik ez zala. "Zibilizamenik gabeko jendeak" deitu oi zitzairen kultura ontatik kanpora bizi ziran erriei. Danei! Europa bakarrik zan "zibilizatua"; Europa, eta Europa'ren erraiñu besterik ez zan Amerika. Era berean uste oi zan zibilizatua izatea, zoriontsu izateko bear-bearrezko baldintza zala.

Orixe bera uste zuten mixiolariak maizegi; eta, uste ere bait zuten Sarkaldeko "zibilizazioa" bakarrik zala "zibilizazio kristaua"..., orra or zegaitik ain gartsuki saiatu zitzaizkigun "salbajeak zibilizatzen", ots, beste kultura bateko "salbaje" aiek Europa'ko kulturaz jazten..., eta, une berean, Eliza, jende aientzat, jatzerritarra biurtzen!

Ontan katolikoak baiño beroago ibilli ziran protestalariak, Inglan-derrikoak batez ere, inditar bakoitza, edo beltz bakoitza, edo ozeaniar bakoitza, axalez ezin aldatu ba'zuten ere, izpirituz beintzat inglanderriar biurtu izan nai bait zuten.

Etz alper gaiztoan? Geldi! Azkarregi da oraindik zibilizaketa arek ekarri lezazkean emari guztiak ezagutzeko, eta edonork daki, Indi'n, Txina'n, eta Japoi'n, eta bazter guztietan, gure zibilizakera onek gauz on asko eta asko piztu dituala. A, bai! Txarrak ere bai, bai nōski, baiñan auek ez diote iñori beste aiek aztutzeko eskubiderik ematen.



3ª- Eliz-Kolonizaketa. Mixiolurretako kulturari baliorik ez ematean naitanaiezkoa zan gure mixiolariak ango kultur ori liturgian eta katekesian ez erabiltzea. Aberritik eramandako abestiak, oiturak, eraspentak, eta otoizkerak irakasten zizkieten Ameriketan, Ozeani'n, Asi'n eta Afrika'n, alkarrekin ezertan ere antzik ez zuten erriei. Ondorioa: kultur aundiko errietan, kristautasuna atzerritarrentzat, ez bertako jendeentzat, sorturiko erlijioa agertzen zala.

"Kultur-gabeko" lurraldeetan, jendeak, kristautasunetik, begiz ikusgai ziran zirimoniak bakarrik ulertzen zituan: prozezioak-eta, bataioa-ta, ur bedeinkatuaren erabiltzea-ta...; gaiñera sakramentu ta zirimoni oietatik ere, mamiraiño sartzeke, axal utsa artzen zuan, eta orrela, jende arek danak, edo geienak, bataioa artu ondorean ere, lengo siniskeri eta sasi-erlijioetako oiturekin jarraitzen zuan.

Are geiago: Mixiolariak erakutsitako sakramentu, irudi, zirimoni, otoitz eta oitura ber-berak ere, siniskeri-gai biurtzen zituan maiz aski.

Kulturei bezain balio txikia eman zieten beti europarrek beste lurraldeetako gizakumei. Baita mixiolariak ere.

Ziur-ziur uste izan zuten mixiolariak, jende aien eskuetan Elizaren zoria

uzterik ez zegoala, jende aiek umeak bezalakoak zirala, eta orrela izango zirala beti: aurrak, adinaren osotasunera iristeko gaitasunik gabeak. Orregaitik, era berean uste zuten, mixiogintza amairik gabeko lana izango zala; lurralde aietako gazteak gotzai izateko gauza ez zirala, eta Europa'tik joandako mixiolariak izan bearko zutela beti, an, kristautasunaren zuzendari.

Dirudianez, mende artan ez zitzaigun oso ezberdiña izan Aulki Donearen ustea; izan ere, mixioketaren utsunik-gabeko-jarraipena aseguratzea billatzen bait zuan bazter guztietan Aulki Doneak, mixio-lur bakoitza Erlijosio-Anaidi bati betirako "gomendatu" zionean. Danadala, mixiolaritzaren "betikotasunaren" uste ura geiago bizkortu zuan oraindik "gomendioen" sistema orrek.

"Bizkortu" bakarrik; ez, "sortu"; "gomendioak" oso berriak bait dira, 1827'garren urtetik onerakoak, eta oso zaarra berriz "betirakotasun" aren ustea. Gogoz onartuko dizut, teoriaren arloan Aulki Doneak ez zuala ori sinisten; baiñan, praktikean, orrela pentsatu balu bezala jokatu zualako, ori sinistaarazten zuala, erantzungo dizut. Gotzaiek nola pentsatzen zuten... errez igarri dezakezu.

Entzun, zer zion 1847'an Aulki Donera Txina'tik idatzitako txosten batean, Aita Gabet'ek, ots, begi zorrotzaren jabe ziran mixiolari bakan aietako batek:

"Gogapen utsen maillan danak onartzen dute zalantzarik gabe "bertako apaizgoaren" bearra. Baiña gertakizunen maillan, emengo mutil gazteak sagaratzea pentsatzen asterakoan, orduan dana eragozpen biurtzen zaie; lurralde ontako gizasemeak, ain adimen-gabeak eta ain aluak omen ditugulako, ez omen dira bâ apaiztasunaren aunditasuna eta duintasuna ulertzeko eta apaiztasunaren bearkizunak betetzeko gauza": "les hommes de ce pays sont tellement dépourvus d'intelligence et faibles de caractère qu'ils sont incapables de concevoir la grandeur et la dignité du sacerdoce et d'en observer les obligations".

Orren antzeko zerbait idazten zuan Indi'atik 1899'an, mendearen amaiean, lurralde aietan Pio X'aren ordezkari zan Monseñor Zaleski'k. Eta, Indi'an ori! Eta Txina'n! Pentsa zakezute zer usteko zuten Afrika'ko oianetan, ango "salbajeei"-buruz gure mixiolariak.

Jentilledia gaitasun-gabekotzat arteaz gaiñera bazan beste arrazoi bat ere mixioetako gazterik apaizgora ez jasotzeko: mixiokuntzaren elburua ondo ulertu ez izatea. XIX mendeko mixiolariak, ere, XVII mendeko aiek bezala, "animak salbatzera" joan ziran jentillerrira, an Eliza ezartzera baiño geiago. Anima salbatzea, berriz, Sakramentuen bitartez animei Grazia ematea da, eta ortarako naikoak --eta ziurragoak-- omen ziran Europa'tik joandako mixiolariak.

Ontan katolikoak baiño okerrago zebiltzan protestalariak, eta esan dugunez, inglanderriarrak bereiziki, teknikaz erri aurreratuagoen seme

ziralarik, aundiagoa bait zan aiengan jakintz-arrokeria.

Gaiñera, berez, protestalarientzat, batez ere jerarkirik gabeko milla sekta edo "kristau-sailletako" protestalarientzat, "Elizak" ez du katolikoentzat aiñako garrantzirik. Ezta lutertarrentzat ere. Oroi, Martin Luter'entzat Eliza, "Itza aldarrikatzea" besterik ez zala, eta protestalaritzari asiera eman zionean, bere arazorik larriena eta nagusiena, ia bere arazo bakarra, bere animaren salbamena izan zala.

Orregaitik, katolikoak baiño geiago joan ziran oraindik protestalariak mixioetara..., "animak salbatzera".

Danadala, oso gutxi ziran, mixioetan, bertan jaiotako apaizak, Benedikto XV'ak aitasantutza artzerakoan. Ez, Elizak apaiz aien sagarakerarik eskatu eta agindu ez zualako. Izan ere, arazo oni buruz, zuzen pentsatu bait zuan Elizak. 1622'an sortu zan "Propaganda Fide" Bazkuna. Zortzi urte geroago, asi zan "bertan jaiotako apaizen bearraz" mintzatzen, 1630'ean Tonkin'go eta Kotxintxina'ko mixiolariei zuzendutako Oarkizun batean.

Arrezkero bein baiño geiagotan itzegingo du gai beraz "Propagandak", eta baita Aitasantuek ere: 1680'an Inozentzio IX'ak; 1893'an Leon XIII'ak.

Alperrik. Ez, mixiolariak agindu aien aurka zeudelako; agindu aiek nola bete izan zitezkean ikusten ez zutelako baizik, ez bait zuten jentillediko gaztedia apaizgorako gai epaitzen. Ezta, Indotxina'ko Zigorkada odolgarrian, --Balentin Berriotxoaren denboretako zigorkadan--, Indotxina'n jaiotako apaizen jokaera bikaiña ikusi ondorean ere. Leialki eman zuten bizia Sinismenaren alde zigortzailleen eskuetan jausi ziranak. Asko izan ziran martiri auek: Annam'go inperioerrian, apaiz annamdarren ia-ia irurden bat: 115.

Martiri aien odolak ez zuan mixiolarien pentsaerarik aldatu, sustrai sakoneko belarra izaten bait da uste okerra.

Indotxina'ko apaiz ziñopa auek, mixioetan, --Indotxina'n bai beintzat--, mixioetan jaiotako apaizak bazirala adierazi nai digute. Zenbat? Ez da estadistika segururik XIX mendearen asierarako.

Indi'n baziran bertako apaizak, bereiziki siri-malabartarren artean. 1840'ean sagaratu ziran aurreneko bi senegaldarrak eta amabi urte geroago irugarrena. Angola'k bost besterik ez zituan 1853'an naiz portugaldarrak XVI mendea ezkerrean egon. 1882'an artu zuten apaizgoa aro ontako aurreneko bi japoindarrek. 1895'ekoak dira lenengo apaizak Kongo frantziarrean, eta 1899'koak Gabon'en. Urri zebillen ikus dezakezunez,, bere jatorrizko apaizez Afrika.

Obeki zebiltzan Indi'a, Txina eta Indotxina. Europa'n itzal aundiko gizon batzuk, Lavigerie Kardenala batez ere, eta mixioetan adimen zorrotzeko mixiolari bat edo bat, bultzaka ari ziran-da, urteak aurrera zijoazen eran

ziojoazen aurrera, ugaritzen, bertako apaizen ordenaketak, eta mendearen bukaeran apaiz angotarrak geiago ziran kanpotik joandakoak baiño. Ona emen 1896'ko zenbaketa au: Indi'n eta Zeilan'en, bertakoak 1.600, kanpokoak: 796; - Indotxina'n, bertakoak: 426, kanpokoak: 408;

Txina'k ere bazituan 373 seme apaizgoan, eta 26 Japoi'nek; ez oraindik mixiolari atzerritarrak aiña, baiña bai sailtxo polita.

Baiña sagaraketa aiek ez zuten bertako apaizgoaren auzirik askatzen; ez zuten askatuko, amar aldiz geiago izan ba'lira ere, apaiz mixiokume aiek bigarren mailleko apaizak bait ziran mixiolariantzat: laguntzailleak; egoki-egokiak, bear-bearrezkoak nai ba'da, baiña laguntzaille utsak, mixioen zuzendaritza artzeko gauza ez ziranak. Eliz aiek, orrela, atzerritarren eskuetan egon bearko zuten beti. Obeto esateko, ez ziran Eliz, Elizaren koloni baizik.

Mixio-lurretan egindako kontzilio edo sinodo bateren batean arkituko duzu, mixiolariei, apaiz lurrekosemeen gaiñetik, "prezedentzia" edo aurrekotasuna ematen zaiela; adibidez 1880'ko Hong-Kong'go Sinodoan. ¿Mixiolarien arrokeria?

Ez. Aulki Donearen agindu zâr baten betetzea. Propaganda Fidek lurralde aietara bidalitako mixiolariei, berekin abantail oiek zituan titulo bat eman bait zien aspalditik; "Missionarii Apostolici" izeneko tituloa. ¿Aulki Donearen endakeria?

Ezta're. Mixiolurretan beren ekintzarako babes geiago izan zezaten bakarrik eman bait zien "Propagandak" titulo ura.

Baiña askotan asmorik onenak ondorio txarrak ekartzen ditu, batez ere garaiz aldaketarik egiten ez ba'da. Eta "Propaganda Fide"k ez zuan orrelako aldaketarik egin 1924'garren urtera arte. Eta ordurako, jbaziran bost urte XV Benedikto'k "Maximum Illud" entziklika idatzi zuala! Erroma'n bertan gauzak argi ikusten ez ziralaren siñale zorrotza.

Ez dezagun iñor errudun epaitu, aurretik gure buruari so-egin gabe. Gure artean, ez al ditugu guk ijitoak bigarren mailleko gizakumetzat jotzen? Bai al dute beren jatorrizko apaizik? Saiatu al gera beren gizartean apaizgorako leiarik sortarazten? Ez al ditugu apaizgorako gaitasunik gabeak etsi? Ijitoen artean sendi-bizitarik ez dala?, eta sendi kristaurik gabe...apaiz-sorketarik ez dala?

Bai! Orrelako arrazoiak pilloka asmatzen zituzten europar mixiolariek ere mixioetan, baiña arrazoiketa orri danari "mancam mendosamque rationem" izen-ipiñi zion "Maximum Illud" eskutitzean Benedikto XV'ak: "arrazoiketa motza eta gezurtia".

Lau gauza eskatu zizkien eskutitz artan Benedikto XV'ak mixiolariei:

- nun-bertako apaizak sagaratzea;

- apaiz aiek egiazko apaiztat eta ez laguntzailletzat bakarrik artzea.

"Neque enim clerus indigena eatenus parandus est, ut missionarios

advenas, humilioribus ministeriis addicti, adjuvet".

- apaiz aiek gotzai sagaratzea;

- mixiolurretako Elizak bertako apaiz eta gotzaien eskuetan uztea.

Ez zan Benedikto XV'aren erakusketa au Eliza-baitan ain errez sartu. Baiña urraturik laga zuan bidea eta bide ortatik jarraituko dute ondorengo Aitasantu danek.

Ontan ere beste gaitan bezala bide-irikitzaile izan genduan Aitasantu kaxkar gorputz okerreko eta biotz aundiko ta adimen argi zorrotzeko ura. Eta, ez, katolikoentzat bakarrik; baita protestalarientzat ere.

Esan dugu katolikoak baiña baldarrago zabilzela auek mixio-gauzetan, eta ala da. Elizak, Eliz aundiak, ez ziran mixioetaz arduratu ere. "Revivalism" ("Berbizte") edo "Réveil" ("Esnatze") igikundeetan Elizetatik landa sortu zan mixiokuntzarako gogoia.

Elizek kezka aundiarekin so-egin zioten mixioketari. Kristau sekularrengandik eta "sektaetatik" bakarrik jaso zuan, --mixioketak--, laguntza. Ala sortu ziran "Mixioetarako-Lagundiak"; Elizen ikara aundiagotzeko, ¡Eliz guztietatik bildutako mixio-zaleez osotutako Lagundi naasiak!

Elizek ez zituzten Lagundi auek eraikitako Mixiolari-lkastetxeak legezkoztat artu; ezta, ikastetxe aietatik itendako "artzaiak" ordenatu nai izan; eta, "artzai" auek, "Mixio-Lagundi" erdi-zismatar aietatik artutako ordenaketa bakarrarekin mixioetara joan ziralako, Elizek ez oi zieten, mixioetatik itzultzerakoan Eliza-baitan "artzai" aiei kargurik ematen.

"Katolikotasunak", "nun-naiko-tasuna", ezan nai du. Ots: Elizak munduko kultura guztietaz jantzi bear duala, munduko Erri guztietakoa izan dedin. Eliz Protestalariiek ordea, luzaroan, ez diote katolikotasun orri arreta aundiegirik eman.

Orregaitik, ez zuten mixioetan bertako artzairik ordenatu bearrik ere sentittu. 1865'ean sagaratu zuten Anglitarrek gotzai, Nijeri'n, Samuel Adjai Crowlher beltza, eta 1912'an Indostan'en Azariah inditarra.

Biak ziran kristau zintzo bikaiñak; biak jakintsu ezagunak eta giziztilari yayoak. Baiña biak gotzai laguntzailletzat bakarrik erabilliak izan ziran, 1922'an sagaratutako txinatarra edo 1922'ko bi japoindarrak bezala.

Gaiñera, jez dakizu nola asarretu ziran kristau anglitarrak inditar bat gotzaigora igoa ikusi zutenean!

Katolikoan artean, denbora berri auetako lenen gotzai mixiolurkumea, inditar bat izan zan, Tutikorin'goa, iñakitarra: Frantzisko Roche, 1923'an Pio XI'ak sagaratu.

¡Ez dakizu oraingoan ere nola asarretu ziran kristau asko, katolikoak, jakiña, eta zenbat idazki argitaratu zan Aitasantua "premature", "azkarregi", ibilli zala deadar egiñaz!



Orrela obeki jabetuko zera XV Bendikto'ren merezimenduaz.

Esan dugunez, XV Benedikto "Mixioen Aitasantuaren" leiarik biziena mixiolurretako Eliza len-bait-len bertako semeen eskuetan ipintzea izan zan. Baiñan bitarterako, eman zizkien mixiolariei, "Maximum Illud" entziklikan, irakaskizun egoki zorrotzak:

"Neque enim clerus indigena eatenus parandus est, ut missionarios advenas, humilioribus ministeriis addicti, adiuvet, verum ut ipse, par divino munere obeundo, recte possit populi sui gubernationem aliquando suscipere".

Euskeraz:

"Tokian tokiko apaizdia ez da, --garrantzirik gabeko eginkizunetan arituz--, atzerritiko mixiolarien laguntzaille izateko prestatu bear, baizik eta, Jainkoagandiko mezu beraz jantzirik, bere erriaren jaurketa noizbait artzeko gai izan dedin".

Bitartean, Europa'tiko mixiolariei, beraiek ere tokian-tokiko jendearen serbitzura bakarrik lan egiteko, itz gogorrez agintzen die:

"Miserum sane foret si quis ez missionariis ita suae dignitatis immemores viderentur, ut potius de terrena patria quam de coelesti gogitarent, eiusque plus equo studerent potentiam dilatare gloriamque super omnia extendere".

"Esset haec quidem apostolatus pestis teterrima".

Euskeraz:

"Mixiolariek, beren gurentasuna aztuz, eta lur ontako aberrian zerukoan baiño geiago pentsatuz, egokitasun ororen gaindik lureko aberri aren indarra luzatzen eta izena zabaltzen saiatzea, benetan izango litzake gauza zekena".

"Eta, apostolutzarentzat, izurrik makurrena".

Lenen-Ludi-Guduaren giro artan, zintzotasunezko meurri guztiak urratuz era zoroan azi zan Europa'n, ia-ia aberri-gurketa ere bazan abertzalekeria. Kutsatu zituan giro txolin orrek elizgizon batzuen burumuiñak ere. Oientzako dituzu XV Benedikto'ren izketa zorrotz auek:

"Magnae Nobis quidem aegritudinis illa sunt de rebus Missionum commentaria quae hisce postremis annis vulgari coepta sunt, in quibus non tam studium apparet Dei regnum dilatandi, quam propriae civitatis amplitudinem augendi".

Euskeraz:

"Asarrebide aundia izan zait, azken-urte auetan nun-nai entzun daitekean izketa; izketa oietan bakoitzak bere aberriaren aalmena aunditzeko leia nabarmenago agertzen bait zaigu Jainkoaren Erreiñua zabaltzeko guraria baiño".

Ez zaio XV Benedikto'ri, mixiolariei, joaten diran tokietako izkuntza ikastera bearturik daudela, jakiñarazterik aztutzen:

"Non enim contentus esse debbit levi huius quadem cognitione sermonis, sed tanta ut expedite atque emendate loqui possit".

Gure euskeraz:

"Eta, ez du aski etsi bear izkuntz ori axaletik ezagutzea; alderantziz, -- izkuntz ori--, errez eta txukun itzegiteraiño ikasi bear du".

Ez ote zeukaten ori gogoan gure gotzaiek, ain maite zuten Franko "artxikatolikoaren" denboran Euskalerriko seminarioetatik euskeraren ikasketa ezabatua izan zutenean? (¡A, nolako modu ederra apaizek erriko izkuntza "errez eta txukun", "expedite atque emmendate", itzegiten ikasteko!).



Mixiokuntzari dagokionez, ederki dio frantzerazko "Eliz-Edestiaren Iztegi" mardulak, azken urte auetan indar berri aundia artu digutela mixiolaritzak eta mixioiztiak berak; eta "igikunde orren iturburu XV Benedikto izan zala".

"Il est a l'origine de cet remarquable mouvement".

## XV BENEDIKTO ETA SORTALDEKO ELIZAK

Errepublika Sozialist Sobietarren Alkartasunaz mintzatzerakoan, zerbait esan dugu, lurralde aietako Elizetaz ere. Azaldu dezagun orain laburki, nola jardun zitzaigun Sortaldeko Eliz Katolikoekin gure XV Benedikto.

Aipu bereizi baten duin da Aitasantu bide-irikitzaile onek sortaldetarrei-buruz asitako jokaera. Zoritzarrez, denbora peitu zitzaion era berri ortan lan egiteko. Baiñan zorionez ez zuten ondorengo Aitasantuek, Jon XXIII'ak batez ere, aren irakaskizunik aantzi. Ta..., zer esanik ez, Paul VI'ak.

Baiki, Benedikto XV'ak bere-egin zuan Leon XIII'aren ariketa Sortaldeko eliz-arauen alde. Ala lagundu zion errutenitarren buruzagi zan Szeptyeki, Lwow'eko Metropolitari, Poloni'ren askatasun-ondorean, Bartsobi'ko Jaurle katoliko "poloniarzailleen" aurka.

Gurutze larria erruteniar uniatek jasan bear izan dutena. Poloni zatiturik gelditu zanean gaizki ibilli ziran Errusi'ren menpean jausiak, baiña ikusi bear izan zituzten bereak Austri-Ungari'ren mendera igaro ziranak ere, Ungari'ko Jaurerria "batu" eta "berdindu" naiean asi ziran ungaritarren zitalkeripean.

Gero, ostera Poloni osotzean, polonitarrak izan zituzten Lateria "batu" eta "berdindu" zaleak, zaletasun orren ondorioz, errutenitasunaren zanpatzaille. Geroago, Bigarren Ludi-Gudaren ondorean, ikaragarria izanen da errutiarrentzat sobietarren zigorra.

Merezi du aipamen Szeptyeki Goigotzaiak ere. 44 urte izan zan metropolita, eta, gaur, bere Santutzerako auzia asirik dago Erroma'n 1925'az gero. Erruteniar Eliza bizkortzeko ez zitzaion Aitasantuaren laguntzarik peitu. Laguntzaille izan zuan Mercier Kardenal ospetsua ere, eta, Anaidien artean, --Szeptyeki'k Sarkaldeko Anaidien laguntza eskatu bait zuan--, erredentoristena batez ere. Auetatik asko igaro ziran, Eliz ura obeto berbizkortu aal izateko, Erruteniarren Eliz-Araudira.

Erruteniarrekin oso gaizki jardun oi ziran beti Errusi'ko Ortodoxiarrek. Ez zan ori, Benedikto XV'arentzat, ikusi dugun bezala, aitzaki izan Errusi'ko Eliz Ortdoxiarraren alde bereala lanean asteko, Eliz arek laguntza eskatu zionean.



Armenitarrek sobietarrendandik eta turkitarrendandik jasan bear izan dituzten erasoetaz ere mintzatu gera. Oroï dezagun, orain, eraso gogor alien azpian armenitarrek ez zutela Sarkaldeko Laterri Demokrazizaleengandik laguntzarik izan. Soilki Aitasantua mintzatu zala alien alde, era egokian.

Ala, 1895'ean Alidad Hamid Sultanaren gudariek 300.000 armenitar sarraski iguingarri baten bidez il zituztenean, XIII Leon Aitasantua bakarrik izan zan protesta edo osteketa egin zuana. Ez noski oso era gogorrean, Sultanak, asarreturik, odolketa aundiago bat egin ez zezan; baiña aski gogorki alatagutziz, Frantzi'ko liberalak, Inghlanderriko demokrazizaleak eta Alemani'ko kultur-gurtzailleak, ezer kixazkorik egin gabe gelditu bait ziran.

1895'ko sarraski ura zala-ta irabazi zuan Alidad Hamid Sultanak "Sultan Gorri" izengoitia.

1915'etik 1922'ra Armenitarrek ez ezê zigorpean aurkitzen ziran Turki'an Melkitak eta Antiokiari Patriarkaren esaneko Jakobatarrek. Baita Libano'ko Maronitak ere. Auek ordea ondo zekiten lendik zigorra zer zan, baitipat drusiarrek Libano'n 1860'ean egin zuten erailketaz gero. Lenengo Ludi-Gudatean 3.000 elizkide galdu zituzten Turki'ren lurretan marondarrek, eraillak batzuk, erbesteratuak besteak.

Baiña Benedikto XV'aren meriturik aundiena ez da Leon XIII asmoak, sortaldeko Liturgien alde, bere-egin izatea; Eliz guztien Batasuna nola egin zitekean pentsatzen asi izatea baizik. Leon XIII'ak ez zuan Ekumenitzaren posibilitaterik aintzat artu; Benedikto XV'ak, bai.

Len ere esan dugun bezala, 1917'an uste izan omen zuan Errusi'ko Eliz Ortodoxiarrarekin batasun-izketak asteko aroa iristen asia zala. Ez da arritzekoa, Tsarren autokrazia jausi ondorean, an, Lenin'en Komunismoa ez baiña Errepublikak demokrazikoï baten liberaltasuna garaille jeiki zala oroitzen ba'dugu.

Laterria ez zan an arrezkero Elizaren "babesle" izango; ezta Eliza Laterriaren otsein naimenik gabea ere. Zoritxarrez, Lvov'en eta Kerenski'ren Errepublikak gazteak, Alemani'ren aurka gudua jarraitu nai izan zualako, lepoa moztu zion bere buruari, eta Lenin'en diktaturtza gorriari ateak iriki.

Ekumenitzarako gogoa zuzpertzeko bi urrats eman zituan Benedikto XV'ak: Sortaldeko auzietarako Bazkun bereizi baten sorrera, (Congregatio pro Ecclesia Orientali), eta Sortalderako apaizak prestatzeko, Ikastetxe baten eraiketa: "Istituto Pontificio delli Studi Orientali". Iñakitarren zaintzapean ipiñi zuan apaizgaitegi eraiki-berri au.



Baiña Aitasantu onen ekumene-asmoak ez zijoazen Sortalderuntz

bakarrik; asi bait zan protestalariekin zer egin zitekean pentsatzen ere. Bide ori urratzen astearren agindu zuan 1915'ean Batasunaren aldeko Bederatziurrena Jauretxeetan egiteko, eta abegirik onenarekin onetsi zituan 1921'ean Mercier Kardenalaren eta Lord Halifax'en arteko alkarrizketak.

A! Eta Amerika'ko Eliz Episkopaliarraren babespean Eliz guztien "World Conference" edo Ludi-Bazkuna sortu zanean, Benedikto XV'a ez zan Bazkun artan sartu, baiña eskertsuki artu zuan Bazkunaren deia, eta leialki eskeifni zion bere laguntza.

Igartzen duzu noski, Aitasantuak protestalariei lagundu nai ziela jakitean, katoliko-erridi guztiko integristek soifnekoak urratuz, nolako marruak atera zituzten.

Guda-denborakoan erabili zuan jokaera zuzen bikaiñak, politikagintzarako erakutsi zuan zabaitasunak, eta jakintzari eman zion garrantziak, itzal aundia irabazi zioten Benedikto XV'ari protestalarien artean.

Beti izan zan jakintza-zalea. Italicieraz, frantzieraz, eta gaztelera kultur aundiaren jabe, entziklika goxoa idatzi zigun "Saeculo Sexto Exeunte", Dante'ren seigarren eunkirako, kulturaren goratarrea egiñaz. Aitasantuek idatzi duten eskutizik polittenetakoa. Xarmagarria!

Jakintzaren sendoketarako sortu zuan Aulki Donean Kongregazio berri bat: "Congregatio Studiorum" eta Idazti Doneaganako maitasuna bizkortzeko argitaratu zuan "Providentissimus Deus" entziklika, Jeronimo Deunaren 15'garren eunkia betetzerakoan.

1917'an argitara eman zuan Elizaren Legedi Berria: "Codex Juris Canonici"; baiñan au, X Pio'ren merezimendua geiago da XV Benedikto'rena baiño, aren asmoa izan zan bâ legedi onen osoketa. X Pio'rena..., eta Gasparri Kardenalarena, eginkizun onek egiazko atsemaille eta zuzendaria bera izan bait zuan!

Ariketa guzti auen gaindik, beartsu, gaixo eta oiñazetu guztientzako izan zuan ardurak egin zuan XV Benedikto mundu guztian maitagarri. Il zanean, --Errusi komunistatik izan ezik--, mundu zabaleko Laterri guztietatik iritxi ziran Erroma'ra dolumiñaren adigarriak. Guzti aien artean, bat zaigu batez ere aipagarria iduritzen: Ejito'ko Kairo'tik etorri zana: Ikus:

"He was the apostolic soul of the world's peace. His statue erected at Constantinople, the capital of Islam, affords us the consolation of having always before our eyes his living soul, the memory of his efforts for the peace of the world, his profound respect for justice and man's right to liberty".

Euskeraz: "Munduko pakearen izpiritu zaindaria izan da bera. Kostantinopla'n, Islam guztiaren uri nagusian, altxa zaion irudiak, aren itxura maitetsua, pakearen alde egin zuana, eta zuzentasunari, eta askatasunerako gizakumeak duten eskubideari, izan zien eraspén sakona, begien aurrean beti euki aal izateko poza damaigu".

Irudi bat aipatzen du Ejito'ko Jaurlaritzaren telegramak. Irudi ori, Kostantinopla'n altxa zitzaion, oraindik bera bizi zala. Tupikizkoa zan, eta islamdarren, judutarren eta ortodoxiarren diruz egina izan zan.

64 urterekin il zan. Bere bi aurrekoek, --Pio X'ak eta Leon XIII'ak--, aitasantutza artu zuten adiflean!

Eriotzaren bigaramonean, illetako meza batean, itz auek jalki zituan izlariak: "Aitasantutzaren ospea ez da inoiz gaur bezain aundia izan; urrutira joan bearko genduke, mendeak-gora, beste orrelako aintza-aro bat aurkitzeko".

Izlaria, Milan'go Goigotzai Kardenala zan, Akiles Ratti, bereala XI Pio izanena zana.



Bere laguntzaille batek idatzita, ederki ezagunak ditugu Benedikto'ren azken-gaitza ta eriotza. Ona edesti orren atalik jakingarrienak laburki:

1922. Urtarrillak 1. Eztarri-miña ta eztula, Aitasantuak. Kezkarik gabe lanean jarraitzen du, goizeko 5'etan jeikiz, eta gaueko 10'etan bere gelara bilduz.

Urtarril orren 16'ean eta 17'an, sendagilleek, bere burua arreta geixagoz zaintzeko aolku-ematzen diote. Baina, goixeago etzingo zalako itza besterik ez zuten arengandik lortu.

18'an, bera izan zan sendagilleari dei egin ziona. Eztarria arras arturik zeukala eta ogean jeiki gabe egoteko agindua eman zion onek, naiz gaitzak garrantzi aundirik ez zuala esanaz.

19'a ogean igaro zuan, aldakuntza berririk gabe.

20'ean ordea, neumoni edo biri-gaitzak artua zuan eskubiko biria; eta gaitz ura arin zabaltzen ari zitzaiola jakifiarazi zioten sendagilleek. Elizekoak eskatu zituan orduan berak.

21'ean Gasparri Kardenalari, bere testamentua eman zion.

22'an oso gaizki zegoan. "Aita Santua: zure serbitzariek onespina eskatzen dizute", esan zion Kardenal Penitenzilariak. Keifnu txiki bat eskuz egiteko doi-doi izan zan gauza Benedikto gaixoa.

Geroxeago, Kardenal berak, "Aita Santua: onetsi gaitzazu zure laguntzailleok", eske-egin zion. Oraingoan, ez zan eskua pixka bat jasotzeko gauza izan, eta beatzak igituz erantzun zion. Gauza argia zan erdi-illik aurkitzen zala.

Baifian, une batzuk geroago, "Aita Santua, onetsi ezazu pake-egarri, zure osasunaren kezka mindurik daukazun erria" esan zitzaionean, zuzpeltu zan bat batean azkenekoetan zegoan Aitasantu aundi ura, itzuli zan eriotzaren ataritik, eta, iru aldiz, eta sendo, egin zuan gurutzearen ikurra.

Berealaxe il zan. 6'ak ziran. 1922'ko urtarrillaren goizeko 6'ak.

## ERRUSI. KOMUNISMOA TA KRISTAUTASUNA AURREZ-AURRE

1917'an joan zan Lenin Suizi'tik Errusi'ra alemaniarren onespenerekin. "The German general staff, which reckoned that Lenin's defeatist activities in Rusia would be to the Central Powers" advantage, authorized this passage": "Alemani'ko guda-bazkun-nagusiak eman zion baietsia ibilketa ari; ikusten bait zuan Lenin'en ondamaneko ekintza Errusi'n, Alemani'ren eta onen lagunen onerako izango zala" (Encyc. Brit.).

Jorraillaren 16'ean iritxi zan San Petersburg'era. "Lenin, of course, was not agent of the Germans, but there is evidence that in the following months his party received financial aid from the German Authorities": "Lenin, ez noski, ez zan alemaniarren mirabe. Ala're, gauza jakina da, ondorengo illabeteetan Alemani'ko Agintariengandik diru-laguntza jaso zuala aren Alderdiak" (Ibdm.).

"Ondo bearrezkoa zuan laguntza, bere asmoen zabalkuntza Errusi'n egiteko": "This it badly needed in order to organize its propaganda". (Ibdm.).

Esan dugun lez, oro gerturik aurkitu zuan iraultzarako.

Langilledia, naasirik. (Azkeneko denboretan aski ugartu zan Mosku'n eta San Petersburg'en langilledia. 1917'an baziran San Petersburg'en 400.000 langille, geienak nekazaritzatik eramanak, eta guda-izkilluetako olaetara sartuak; eta aski gaizki sarituak).

Langilledia baiño asarreago zegoan berriz gudari-jendea; guda-landetan jasandako ondamenen erruz, lotsaz, bildurrez eta errabiz betea. Ta..., bazuten zertaz asarretul, Errusi'k gudarako altxa zituan 12.000.000 gudarrietatik 9.150.000 balaz joak izan bait ziran: illak batzuk, zaurituak besteak; danadala, gudarako eta lanerako aski gogor elbarrituak auek ere.

1917'aren uda Trotsky bereganatzen eta Iraultza ez dala "berez-eterriko-dan-gauza", iraultza iraultzalariek beren ekintzaz egin bear duten gauza dala Errusi'ko komunisten buruetan sartzen igaro zuan Lenin'ek. Udazkenean bereak zituan komunistarik geienen buru-biotzak.

Trotsky'k prestatu zuan borroka, eta 1917'ko Azaroaren 5'etik 6'arako

gauean eman zuan iraultza asteko agindua. 7'an, San Petersburg'eren nagusi ziran komunistak. Igesi joan zan Kerensky; ta aldarrikatua izan zan Sobietarren Jaurlaritza.

Lenin izan genduan Buruzagi izendatua.

1918'ko Epaillaren 3'an irten zan gudatik Errusi Komunista, Alemani'rekin Brest-Litovsk'in pakeak eginda. II Nikolas Inperatorea, bere emaztea, ta seme-alaba guztiak, fusillatuak izan ziran. Egin zituan pakeak, -- Errusi komunistak--, Poloni garaillearekin aren askatasuna onartuaz (1921). Garaitu zuan tsarzaleen "Gudarozte Zuria", eta, 1922'an, Errusi osoaren jaun bakarra zan Lenin.

Ez zitzaigun biguifia izan aren agintaritza, baiña, guri, emen, Elizarekin erabilli zuan jokaera axola zaigu bereiziki.

Len azaldu dugunez, Lenin'ek zigortutako Eliz ura, Mosku'ko Patriarkadutzaren Eliz Ortodoxiarra izan zan. Eta Georgi'ko Eliz Ortodoxiarra eta Armeni'ko Monofisita; Poloni eta Lituani katolikoak eta Letoni, Estoni ta Finlandi protestalariak askatasuna lortuta, Errusi'tik at, Laterri iare biurtu bait ziran.

Marx'ek aifia zaletasun urria zion Lenin'ek erlijioari; alatagutziz, bai batek eta bai besteak, beraiek nai baiño geiago eta maizago pentsatu bear izan zuten erlijioaren arazoetan.

Aritza aldatzen dutenek ez ezê aritza botatzen dutenek ere aritz-gizonak ba'dira, Marx eta Lenin oso-osoan erlijio-gizonak izan zirala aitortu bearke dugu. Geiago Lenin Marx baiño, erlijioaren aurka geiago saiatu bait zan au ura baiño. Arras azari-jokuan ordeal

Bi gizon aientzat zan, erlijioa, ekonomiaren zitu, baiña ez era berean: Marx'entzat erlijioa, ekonomi kapitalistatik jaiotako kulturaren adar bat zan. Ekonomiera aldatu, ta berez desegingo zan ekonomi arengandiko kultura, eta kulturarekin, erlijioa.

Lenin'ek ez zuan uste ezer berez desegiten danik. Gaiñera ez zuan erlijioa kulturaren ondorio lez ikusten; Ekonomiatik zuzenean jaiotako landarea zala iduritzen zitzaion. Orregaitik, ez da naikoa kulturaz aldatzea erlijioa ezerezteko; ekonomiaz aldatu bear da: kapitalismoa desegin eta komunismoa ezarri. Orduan ezereztuko da erlijioa, baiña ez berez, komunismoatik egingo zaion borrokaren ondorioz baizik.

Lendabiziko eginkizuna beraz, erlijioa desegiteko ere, komunismoa ezartzea da, ortarako erlijio beraz baliatuz orrela konbeni ba'da. Marx judutarra baiño azari maltzurragoa zan Lenin erdi-kalmukitarra!

- "Pueden darse circunstancias en las que sea conveniente renunciar a una política antirreligiosa y practicar la política de mano tendida para captar los estratos sociales de los creyentes que pueden aportar su ayuda y colaboración a la causa comunista". (Yurre'k gazteleratua). Orra or Alderdi lenindar guztiak onartu duten politika-era! Orra, Euskadiko Ezkerrak,

Europa'ko Alderdi Komunista Lenindarrik gogorrenak gure artean darabilkiana.

- Erljioa zigortu? Bai, zigorketa orrek komunismoari laguntzen ba'dio. Ez, ordea, gaitz egiten ba'dio. "La persecución es plenamente aceptable si es eficaz para lograr el fin: el triunfo de la causa comunista. Pero debe renunciarse a la persecución si la eficacia lo aconseja" (Id.). Gauza argiago esaterik ez dago.

- Apaizak ere sartu daitezke Alderdi Komunistean, komunismoari laguntzeko asmoarekin ba'datoz; ez ordea beren sinismenaren alde lan egitera etorri ba'dira, baiña orduan ere kontuz ibilli bearra da Alderdira urbildu diran apaiz oiekin; soilki, "si se dedicaran en el seno del partido a la propaganda activa de las concepciones religiosas, como acción principal y casi exclusiva" izan bear bait dute Alderditik botreak. Au da: "batez ere eta ia bakar-bakarrik erlijio-oldozkeraren zabalkundera modu eragin-korreetan, lotzen ba'dira". Euro-Komunismoaren sustriak ez dira gaurkoak, Dirudianez!

- Alderdiak, Laterriaren eta Erljioaren bereizketa eskatu bear du.

- Erljioa gizakume bakoitzaren kontzientzi-auzia dala, aitortu bear du, ez, Laterriaren auzia.

- "Ala ere, ez dugu, ez orixe, komunistok uste erlijioaren aurkako ekintza alderdi komunista osoari dagokion gauza ez danik". "Baiñan, komunismoaren ezarketa da auzietan leenena". Laterriak ez du, beraz, erlijio-auzietan sartu bear. (¡Bai ordea, Alderdiak! Zugurki; ori bai). Au dana Errusi'n Nikolas II'ak agintzen zuanean idatzi zuan Lenin'ek. Tsar'en Laterriari eskatzen zion Eleizatik bereizteko. Laterriak ez bait du erlijioan sartu bear.

Bein "Urrilleko Iraultza" ezkerordea, Alderdi Komunistarena zan Laterria! Zer egingo du Lenin'ek orain? Laterriak erlijioan sartu bear duala esan?

Ez. Lengoa bera esanen du orain ere, eta, laister, Laterri Komunistak, erlijiorako askatasuna lege bihurtuko digu. Erljioa ezerezteka ez omen da bâ Laterriaren eginkizuna, Alderdiarena baizik; baiña Lenin'en marxitasunean Laterria Alderdiaren esanera bait dago, Laterriaren indar guztia erabilliko du Alderdiak, erlijioa desegiteko. Kalmuk-jendearen axarikeria noski Laterria-eta-Alderdi-arteke bereizkunde bipil ori.

Poloni'k, Finlandi'k, eta Baltik-itxasertzeko iru Laterriek, --Lituani, Estoni, Letoni, iruek--, askatasuna lortu aal izan zutelako, Lenin'en marxitasunaren erlijio-istilluak ez ziran katolikoekin edo protestalariekin izan, ortodoxiarrekin baizik, eta geroago, Asi'ko lurraldeetako musulmanekin.

Auekin ordea ez zan ain latza arazoa; asiar erridi auek atzeratuagoak eta indar gutxiagokoak ziralako, noski. Alderantziz ortodoxiarrekin! "Errusi Donean" erriaren arnasa ortodoxia bai zan. ¡Ain luzaro egon ziran, an, bat-

-egiñik Eliza ta Laterrial

Ikus dezagun labur-laburki Errusi'ko Eliz Ortodoxiarraren sorkuntza ta aziera, bat-egite ori zenbaiterañokoa zitekean ulertzeko.



Bizanziotarrek eraman zuten, IX mendean, kristautasuna gaur Ukrani esaten zaion lurraldera; ots, geroan Errusi'ko inperiotzaren azi-ale izanen zan, eta orduan "Kief'eko Printziperri" eta baita "Errusi Txiki" ere zeritzan lurralde artara.

Mende aren erdirako bazan Kief urian komunitate kristau bat, eta komunitate arek bazuan gotzai bat ere, Kontantinopla'ko Patriarkaren esanekoa, 867'garren urtean. Eun urte geroago, Igor printzipea ilda, aren emazte Olga zan, semetxo aurraren izenean, Agintari Nagusi: Santa Olga. 957'an artu zuan onek, Kontantinopla'ra artara joanda, bataioa. Olga Deunaren billoba zan erriak Santu izendatutako Bladimir X'a, mendearen azkenaldean Kristautasuna Laterriaren erlijio egin zuana.

Urrengo mendearen, --ots, XI mendearen--, aurreneko urteetatik asita bazuan Kief'ek Metropolita edo Goigotzai bat; Baiña, --ernetzen ari bait zan Errusi Aundia--, buruzagitza Kief'etik Mosku'ra igaro zanean, Mosku'ra aldatu ziran 1328'az gero, Metropolitak ere.

Ordurako, zerga ordaindu-bearretik iare zan Eliza, eta abantail guztien jabe. Urte aietan sortu zan, ain benetakoa izan zan Jaurlaritza-eta-Elizaren-arteko batasuna.

Jaurlaritza ez ezê, Elizarekin bat egiten ari zan erria bera ere.

IX mendearen asieran eraiki zuten Kief'en Andoni eta Teodosi Doneek "Leizeetako Lekaidetxea", "Percheskaya Laura", eta XIV'ean Mosku'ren iparraldean Serjio Deunak "Irtutasun Deunaren Lekaidetxea", "Troitse Sergiyeva Laura".

Arrezkero lekaide-biziera gauza kuttuna izanen da errusiarrentzat, eta, naiz lekaide naiz parrrokietako apaiz edo "pope", itzal aundia izango dute erriaren altzoan "Jainkoaren Gizonek". Orrela asi zan mardultzen Kristautasuna eta Errusitasuna bat ziralaren ustea; eta ezpañetara agertzen, jendeari mendeetan ain atsegin izan zaion, "Errusi Donea" dalako esakizuna, bein eta berriro gozoki erabilitako esakizuna.

XV mendean, Florentzi'ko Kontzilio-ostean, an kostantinoplatarrek burua makurtu zutelako-edo, Kostantinopla'ko Patriarkari ezer esan gabe beren metropoliten aukeraketa beren gisara egiten asi ziran Errusi'ko gotzaiak, eta 1453'an Kostantinopla turkitarren mendera jausi ondorean, Mosku'ri "Irugarren eta Azkeneko Erroma" izen-ematen, eta III Erroma ura mundu guztiko "egiazko" kristautasunaren "egiazko" Buru bakarra zala uste izaten; 1589'garren urtean, gaiñera, Patriarka iare ezagutu bear izan zuan Kostantinopla'ko Patriarkak berak Mosku'ko Metropolita.

Orduan bai zala Errusi'a, benetan, "Errusi Donea", eta bai zirala, egitan, gauza bera, kristautasuna eta errusitasuna!

XVIII mendean ostiko aundia eman zion I Pedro "Aundiak" Errusi Doneko Elizari; patriarkadutza ezereztu bait zuan 1721'ean!, Patriarkaren ordeztu, Elizaren Buru, Sinodo bat ipiniaz.

"Sinodo Done" ura, Sueziko eta Prusi'ko Eliz Protestalarietako Sinodoen erara tajutua, Tsar'en morroi apala izanen zan, bai sinodokide danak Tsar'en adiskide leial izan bear zutelako, bai Sinodoaren "Prokuratzaile" edo Zuzendaria, Tsar'ek berak izendatutako legitzilari sekular bat izanen zalako. Prokuratzaile onek Jauriaritzako ministroen kategoria izan zuan XIX mendean eta bera zan Elizaren egiazko agintaria.

Irain aundia Pedro l'ak Elizari egiña. Eta, ¿ez zuan, Eliza ain maite zuan erriak, ezer esan?

Erliijoaren arloan Sortaldea eta Sartaldea ez dituzu berdiñak. Gure erlijiotasuna, neurri aundian, neurri aundiegian, "religio juridica"z edo "legedizko erlijioz" osotua bide da. Errusi'koa, ordea, "religio mistica" da batez ere; legediz eta teologiz beraz ere baiño geiago, mistikaz, --eta sentimenez, eta otoizkeriz eta erdi-siniskeri diran anitz oiturez--, mamitutako erlijioa.

Pedro l'aren aldaketak, berriz, legedi utsezko aldaketak bait ziran..., ez bait zituzten kristaudi aren eguneroko eraspen-bizitzako oitura zârrak ukitzen..., lasai jarraitu zuan, ezertaz oartzeke, erriak, --eta baita apaizek eta lekaideek ere--, Jauretxe ospetsuetako Ikonoiei, Irudiei, ikustaldi luzeak egiñaz.

Ez, ala ere uste izan, naiz Tsar'en menpeko, Errusi'ko kristautasuna illik zegoanik.

Ugariak ziran lekaideak, eta basoetara otoizkuntzara joaten ziran bakartiarrak, eta kristau xume zintzoak: biziara zuzeneko gizonak eta emakumeak. 1759'an jaio zan eta 1833'an il, santu izenaren jabe, Sarof'eko Serafin, lekaide, gogo-zuzendari, bakartiar, mixiolari, "stilita", edo "zutabegaiñean egon-zale", --kristautasunaren edestian azkenekoetako "stilita" bear bada--, egin zuan guztian gizon ona eta benetan santua izana.

Bazizun indar Eliz areki, Siberi'ko lurretara, Aleutiar-Ugarteetara, ta Ameriketara Alaska'ko itxas-ertzeraiño kristautasunaren berri ona kolonizalari ta elizgizonen bitartez eramateko. Japoi'nen bertan, eraiki ziran jauretxe ortodoxiarrak.

Ez zegoan illik Ortodoxia!

Illik ez zegoalaren zantzu bizkorra, Iraultzakoan Eliz ark erabili zuan jokaera. Oroi, Patriarkarik gabe zegoala I Kepa "Nagusiaren" agintaritzaz ezker. Bâ, 1917'an, azaroan bertan, Iraultza garailleak Laterria ta Elizaren arteko batasuna desegin zuan bezain laister, Patriarka bat eman zion Errusi'ko Elizak bere buruari!



Ez zan nolanaiko gizona Patriarka berri au, Basilio Tikon, Ipar Ameriketako errusiarren gotzai izana, aurrena; eta gero, Lituani'n, Bilna'ko Gotzaia.

Ameriketan, berak utsegiñarazi zien Episkopaliarren eta Otodoxiarren arteko alkartea prestatzearren asiak ziran alkarrizketei, sinismenaren arloan amorerik txikiena ematearen etsai zalako.

Bizkortasun oro izanen zuan bearrezko, Lenin'eri aurpegi emateko; eta eginkizun ortan bikainki jokatu zuala aitortu bearra da. 1919'an "Gudarozte Gorria" eta "Gudarozte Zuria" bata bestearen aurka borrokan zebiltzan. Tikon'ek, politikan sartzea debekatu zien eliz-jendeei.

Elizagandik Laterria bereizi ondorean, Elizari diru-laguntza guztia kendu zion Lenin'en Jaurlaritza berriak, (9-I-1918). Elizarenak ziran lurrak ere Laterrianak egin zituan. Ez zan Tikon patriarka txantxetan ibilli, 1918'ko ilbeltz aren 9'an, eskomika jaurti bait zuan eliz-ondasunen lapur guztien aurka. Espetxera sartu zuan Lenin'ek Orrillean, eta an agon zan Ekainilla arte.

Auek izan ziran urrengo erabakiak Lenin'en aldetik: Elizarena zan erakuskintza oso-osoan Laterriarena egitea, eta ezkontza ere Laterri-azui utsa biurtzea.

Erakuskintzaren barrutian ez zegoan Lenin iñori amore ematekotan; arentzat, erakuskintzaren lenen elburua, komunismoa erakustea, eta biarko egunerako komunista sutsuak ezitzea bait zan.

Ezkontzaren arloan urrutiegi joan zan lendabiziko egun aietan, ezkontza bat urratzeko naikoa ipiñi bait zuan ezkonkide batek ala nai izatea. Ez zan bearrezkoa beste ezkonkideari ezkontzausteko asmorik jakifinaraztea. Orrela gelditu zan ezarria lendabiziko Kostitutuzio Komunistean. 1918'an Kostitutuzio ura izenpetu zanean, "Errusi'ko Errepublika Federala" zeritzan Sobietarren Laterriak.

Bigarren Kostitutuzioan, 1924'ean "Errepublika Sozialista Sobietarren Alkartearentzat" osatutakoan, --au bait zuan orduan Laterriak izen--, zaillagotu zuten komunistek ezkontz-urraketa, ikusi bait zuten ordurako, sendi bizkorrik gabe Laterri bizkor bat eraikitzerik ez dagola.

Gauza bitxia da, gizakuntzea-ta-emakuntzeari-buruzko gai auetan Wilhelm Reich sikologilari txit aipatuari gertatu zitzaiona. Freud'en ikasle izan zan Reich'tar Gillermo au, ikaslerik kuttunenetakoa gaiñera. Alemani'n sikoanalistik ospetsuena zanean, komunista egin zitzaigun.

Orduan komunistek, gaztedia Elizagandik urrunarazteko-edo, kristautasunak lizunkeria gaitzetsiz erakusten duanaren aurka gaztediarentzat idazkiño argi bat idazteko eskatu zioten. Ala egin ere zuan Reich'ek "Gaztediaren Seksu-itxarkundea" izeneko liburutxo batean:

"Lizunkerik" itza bera, eta izen orren azpian datzaten oitura eta agindu guztiak "tabu" utsak omen dira, ots: zentzurik gabeko debekuak. Tabu oiek

ezartzean auxe izan omen zan Elizen elburua: Gazteak bere buruen aurka borrokan ipintzea, gaztediaren indar guztia kapitalismoaren aurkako borrokara irauli ez zedin. Aragikeriari amore lasaiki ematea aolku-egiten zien Reich'ek neska-mutillei, ariketa oiek pertsonalitatearen osakundeak bearrezkoak ditualako.

Orrela gaiñera, gaztedi osoak, sasi-auzietan astirik galdu gabe, bere almen guztiak jaurti aal izango omen ditu egiazko auzi bakarrera: kapitalismoa ezereztera.

Gure gaztediak asko irakurri du Reich'en liburutxo au. Baiña gure gaztediak ez dakin gauza da, bein komunistek Errusi'ko Jaurlaritzan, beste liburu bat argitaratzeko eskatu ziotela Reich'eri, Reich'ek berak aurreneko artan esan zuana ukatuz. Ala egin zuan Reich'ek.

Bigarren idazki ontan, lizunzeria, gaztedia zorabiatzeko kapitalaritzak sorturiko gozakeri alienagarri bat da, gaztedia, lizunzerian mozkorturik, iraultzatik alde-egifñik bizi dedin. Iges egin bear dute beraz neska-mutillek lizunzeritik, bizkorki iraultzari beren buruak lotzeko.

Lizunzeria bai, lizunzeria ez, lizunzeria erlijio biurtu zuan azkenean Laterri Alkartuetan Reich'ek: "The Orgasm-Religion", "Gorputz-Alkartzetiko-Atsegiñaren-Erlijioa", eta burua galdurik, ero-etxe batean amaitu zituan bere egunak.



Tikon Patriarka eta bere Eliza ez ziran Ezkontzari eta Erakuskintzari-buruzko Lenin'en erabakiekin geiegi kezkatu; alde batetik, Sortaldeko Elizetan ezkontz-urratzea Sartaldekoan baiño errezagoa beti izan dalako; eta, bestetik, Sortaldeko Elizak, --Errusi'koa batez ere--, jakintz-eliz edo teologi-eliz baiño mistika-eliz geiago diralako.

Elizako ondasunak lapurtu zituztelako bakarrik eskomikatu zituan Tikon'ek, izenez aipatzeke, Lenin eta lenindarrak.

Laister etorri zitzaion erantzuna:

1918'ko ekañaren 28'an, lege egifña izan zan, ordurako gertakizunen maillan zearo osoturik zegoan Laterriaren eta Elizaren arteko bereiztasuna. Lege onen atzetik izugarrikeri mardulak egin zituan Errusi guztiko urietan erriko-jende lenindarrak apaizen aurka eta lekaidetxeen aurka.

Laterriak, au da, Alderdiak, jainkogabetasunaren zabalkundeari ekin zion bortizki. Gaiñera, legearen erabakiz, pertsonalitaterik gabe eta ezertarako eskubiderik gabe gelditu zan Eliza.

1918'garren urtea urte gogorra izan zan lenindarrentzat, urte ortan asi bait zan Boltxebikeen Jaurlaritzaren aurka, Errusi'ren sortaldean eta Siberi'n "Gudarozte Zuriaren" gudua, eta Poloni'ren altxakundea; eta iaretu bait ziran osoro Finlandi, Lituani, Letoni, ta Estoni. Urte ortako dagonillaren

30'ean izan zan zauritua Lenin bera eraiketa-saio batean. Doi-doi irten zan bizirik.

Lenin il nai izan zuana, emakumezko bat zan: Fanny Kaplan.

Gorputza ez ezê, gogoa ere betirako zauriturik gelditu zitzaion Lenin'i, eta errairik gabeko gogorkerira jo zuan. Orduangoa da Ingländerriko diplomazilari batek "the Red Terror", "izu-lkara Gorria", izendatutako lenindarren politik-era latza. "Puztu'itzegun, --idatzi zion Lenin'ek Zinoviev'eri--, ikara sartzeak iraultzaren arerioen aurka dituan indarra ta balio orokorra"; "encourage the vigour and the wholesome character of the Terror against the counter-revolutionist".

San Petersburg'eko jaurle zan orduan Zinoviev, eta asarre idatzi zion ori Lenin'ek, ark, San Petersburg'en proletariei, komunista baten eraiketaren ondorean, etsaiak zigortzea eragozi zielako. Izugarrikeri aundi bat egin nai izan omen zuten uri osoan proletari lenindar aiek: "react by mass-terror". Ori galerazi zien Zinoviev'ek.

Orrek sumindu zuan Lenin. "You stopped them!, --oiu egin zion eskutitz artan--, and this is impossible", ("im-pos-si-ble", idatzi zuan Lenin'ek itzari indar geiago ematearren izkiak bereziaz). "I decisively protest"! Euskeraz: "Zuk gelditu dituzu! Egin ezin daitekean gauza! Zure ariketa orren aurka jartzen naiz, zalantzarik gabe"!

Ez dira itz oiek dagonilleko zaurien miñak aterarazitako oiua, bi illabete baiño geiagoz aurretik, ekaiñaren 26'an idatziak izan bait ziran. Orrelako izketa maiz erabili oi zuan Lenin'ek. Odolez beterik dago orduan sorturiko Txeka edo Ertzaintza Bereziaren edestia. Indarkeriaren miresle bortitza izan genduan Lenin; eta jakin zuan, kezkarik gabe, indarkeria odoltsuki erabiltzen. Baita Elizaren aurka ere.

1922'ko otsaillaren 23'an zillarki eta urreki oro kendu zion Elizari, gosetearen aitzakia erabilliz.

Egia zan, ainbeste guda ta matxinaden ondorioz ikaragarria zala urte ortan Errusi guztian gosea, baiña Lenin'ek ez zuan esan, lendik Tikon Patriarkak, mezako-ontzi sagaratuak izan ezik, gaiñerako eliz-aberastasun guztiak, gosete aren osagarritzat, Jaurlaritzari emateko agindurik zeukala.

Are gutxiago esan zuan Benedikto XV Aitasantua ere arduratu zala Errusi'ko gosetiei lagundu naiez.

Lenindarrak, ez ziran, baliozko irudi ta ontzien jasoketa utsez ase, jauretxeak berak ere arapatu bait zituzten, biltoki lez erabiltzeko. Arrapaketa orren aurka irtendako apaizak, eraillak izan ziran. Jeiki zan Tikon Patriarka, ebaskeri eta eraiketa aien aurka, eta espetxera jaurtia izan zan.

Bazuan Jaurlaritzak Patriarka espetxeratzeko aitzaki baten gogoa, Errusi'ko erri guztia kristau biotz-bera zala bazekialako ez bait zan nolanai Elizaren Buru gurena zigortzera ausartzen.

Zugurki, errusiar "gorri" eta "zurien" arteko guduan, Tikon ez zan

"zurien" alde jarri, "sinisle bide-galdu guztien aita zala" esanez, baiña, ez bai zuan iñoiz bide-galdu aiek nortzuek ziran argitu, ez zuan Jaurleri Lenindarren eraspenik irabazi.

Are geiago: Gudate aren lau urteen luzaroan, --1918-1922--, gotzai askok igesegin zuan atzerrira; eta gotzai aiei kargurik kendu ez zielako, komunismoaren etsaitzat zeukaten lenindarrek.

Espetxean, zearo aldatu zigun oldozkeraz, Tikon Patriarkak. An, Paul Deunak Erromatarrei egindako epistolan erakutsia buruan erabilli ta aztertuz, oartu omen zan, Jainkoak orduan Errusi'rako onartutako Jaurlaritza, Sobietarrena zala. Ala beintzat esan zuan, 1923'ko ekaiñaren 28'an Elizari zuzendu zion epistola batean.

Lenindarrek, ez ziran aurrez-aurre Eliza zirikatzero ausartzen-eta, atera zuten Patriarka espetxetik, Lenin'entzat leenagokoa bai zan Komunismoa ezartzea erlijioa ezereztea baiño. Al, ori bai, erlijioa ezerezteko al zitekean lan guztia egiteaz atertu gabel

Orregaitik, izugarrizko indarra artu zuan Errusi guztian ateismoaren aldeko propagandak. Zabalkunde ortarako, eman zitzaien 1922'an jainkogabeei izparringi bat: "Bezbornik": "Jainkogabea". Naitanaiezkoa egin zan jainkogabea izatea, Alderdi Komunistean sartzeko; eta naitanaiezkoa zan Alderdi Komunistean sartzea Errusi'n edozein kargurako gai izateko. Gizarteko bizitza orotik landa botreak izan ziran beraz, an, kristauak.

Lenin ilda gero ere aurrera jarraitu zuan Errusi'n, --eta jarraitu du ludiko beste Laterri Komunistetan--, erlijio-zigorketa iguingarriak.

Errusi'n, 1925'ean Batzar Nagusi bat eratu zuten erlijioaren aurkako bazkun guztiek, guztien "Bazkun Orokor" bat eraikitzeko. Bazkun Orokor onek, beste Batzar bat bildu zuan 1929'an eta izen berria eman zion bere buruari, "Jainkogabetasuna Zabaltzeari Lotutako Jainkogabeen Alkartea".

Laterriak, gero ta diru geiago eta laguntza geiago ematen zizkion zabalkunde oni, eta, uzta ugariagoa jaso aal zezan, --kristau jarraitzen bait zuan erriak--, erlijioaren aldeko zabalkunde oro galerazi zuan.

1925'ean il zan Tikon, pakean, Mosku urian. ¿Zer pentsa Patriarka ontaz?

Egia da espetxetik epistola artan, Sobiet Nagusia egiazko Jaurlaritza zala aitortu ondorean, sobietarren aurkako ekintza oro gaitzesten zuala. Baiña orrek ez du esan nai erlijio-gaietan Lenin diktatorearen aurrean burua makurtu zuanik. Ala, Jaurlaritzaren laguntzarekin "Eliz Bizia", --Eliz zismatikoa--, sortu zanean, bildurrik gabe gaitzetsi zuan kristau azalarekin marxitasun utsa besterik ez zan "Eliz" ura.

Eta Tikon aurka irten zitzaiolako, 1922'an eta 1923'an ainbesteko zaratarekin azaldu zan Eliz izeneko erakunde komunista ura, ondoren utzi gabe ezereztu zan. Alperrikakoak izan zitzaizkion Alderdiaren eta Laterriaren diru eta laguntza guztiak.

Beste jokabiderik ez zualako Sobietarren Jaurlaritza egiazkotzat ezagutzean, gure ustez, Tikon Patriarkak, geroago, Ungari'n-eta, Txekoslovakia'n-eta, gotzai katolikoek egin dutena egin zuan. Esan dezagun gainera Tikon'en omenez, asko egin zuala bere Elizari batasuna ta irautea emateko. Batasuna..., sendoa eman zion. Irautea..., ala-olakoa; baiña irauten du beintzat oraindik Errusi'ko Elizaki!

Tikon'en ondorean, Serjio izan zan Elizaren buru lez espetxera jaurtia, 1938'an Tikon'en bidetik jarraituz Sobiet-Jaurlaritzari leialtasun osoa eskeiñi zion arte. Ori bera egiteko agindu zien gainera elizjende danei: Gotzai batzuek ontzat artu ez zuten agindua! Ta Serjio'rekin asarretuta, "Katakunbetakoaren antzeko Eliz" bat sortu ziguten auek; oraindik illunpean bizirik diraun Eliza!

Eten gabe geiagora joan zan Eliz-zigorketa Errusi'n, eta 1937'tik 1938'ra izan zan batez ere garratza zigorketa ori. Zenbat kristau izan ziran espetxeratuak, zenbat Siberi'ko lan gogorretara bidaliak, zenbat eraillak..., esaterik ez dago, sobietarrak ez bait dituzu estadistikeen lagun, eta Elizaren aurkako lan ontan batez ere, isillean ibilli bait ziran.

Bedi gure omena sekulan izenez ezagutuko ez ditugun martiri aientzat.

Ezer gutxi lortu zuan Lenin'en eta Stalin'en ariketa eten gabeak.

Bigarren Ludi-Guduan Errusi sarturik aurkitu zanean, eta, errusiar guztiak gudarako alkartzearren Stalin'ek erlijioari askatasun pixka bat eman zionean, kristau agertu zan ia erri guztia. Lekaidetxeetan bedeinkatutako ikurriñak nai zituzten gudariak; isillean bataiatuak eta izkutuan elizan ezkonduak zeudela gudarozte gorriko ofizial asko ere, arriturik jakin aal izan zuten "Jainkogabeen Bazkunetako" bazkideek.

Aiek bezain arriturik ikusi zuten Espaini'tik joandako "División Azuleko" gudariak santuen irudiak, ikono bedeinkatuak, lorez ta argizariz inguraturik nekazari-etxe guztietako tokirik onenetan ezarriak zeudela.

Itzuli gaitezen, oraindik Patriarka izendatua izan gabe, Serjio, Bikario uts bezala, Elizaren buruzagi zan guda-aurreko denboretara.



Gogor zeramakiten komunistek kristautasunaren aurka borroka. Ortarakoxe eratutako "Jainkogabeen Alkartea" k bazituan 1932'ean 5 milloi bazkide.

Lentxeago, 1929'ko jorrailaren 8'an, Kostituzioak Elizari ematen zion askatasunak jauretze-barruko liturgi-ekintzetarako bakarrik balio zuala, jakiñarazi zuan lege baten bidez Jaurlaritzak. Jauretxeetatik at, ez zuan Elizak ezertarako eskubiderik. Eta ez geiegi jauretzeen barruan ere, gero ta gutxiago bait ziran Elizari gelditzen zitzaizkionak: Ikus:

1914'ean, gudara sartzerakoan, bazituan Errusi'ko Elizak 54 millatik 55 millara jauretxe. Orain, 1939'an, 5.225 bakarrik gelditzen zitzaizkion. "Pope" edo apaizak berriz, 51.105 zituan orduan; orain, 5.665 bakarrik. Konbentuak, gizonezkoenak eta emakumeenak batera zenbatuta, 823 orduan; 37 bakarrik orain.

1924'a ezkerero, --orduan il bait zan Lenin--, Errusi'ko agintaritzan Stalin zan nagusi.

Izan zituan asieran Trotsky'rekin eztabaidak; onek mundu guzian, Alemani'n batez ere, iraultzagintzan jarraitu nai zuan bitartean, arek Errusi'tik landako ekintzak gerorako utzi nai bait zituan. "Orain, gure indar guztiak, Errusi sendotzeko", izan zan Stalin'en ikur-itza. Alderantziz, "orain, --eta beti--, gure indar guztiak, mundu guztian Iraultzari su emateko", Trotsky'rena.

Stalin irten zan garaille; ta gogor jarraitu zuan Lenin'en bidetik Eliza zigortzen, Georgi'ko Eliz Ortodoxitarrean gaztaroan apaizgai izandako gizon anker onek.

Alatagutziz, 1937'an baziran 50 milloi Errusi'ko Elizaren altzoan kristauak: Errrepublika Sozialista Sobietarren Alkarteak orduan zituan biztanleetatik %27. (Sobietarren estadistiketan ordea, lotsarik gabe, sinisleen zenbakiak gutxitu eta sinisgabeenak puztu egiten dirala, gogoan euki bear dan gauza da).

1941'eko Ekainillaren 10'ean ekin zion Hitler'ek Stalin'en Errusi'ari. Serjio'k, bereala, Errusi'ren alde otoizketan asteko agindu zien kristauei, eta, Laterriari laguntzearren, jauretxe guztietan len-bait-len eskariak egiteko. Ondo ezaguna da errusiarren abertzaletasuna. Orduan ere, 300 milloitik gora rublo bildu zituan Serjio'k gudaroztea izkilluz ornitzeko.

Poztu zan Stalin; (izan ere, Alemani'ri aurpegi emateko, errusiar guztien laguntza bear bait zuan). Gorai patu zuan Serjio'ren jardura. Eta eman zion Patriarka izendatua izateko baietsia. (19 gotzaiek sagaratu zuten urte artako iraillaren 23'an).

Sobiet-Jaurlaritzaren ariketa zuritzeko "Errusi'n Egia" izenekoa liburu bat argitaratu zuan orduantxe bertan Errusi'ko Eliz Ortodoxiarrak. Idazti ortan, Errusi'n eliz-zigorketarik ez dala, esaten da; eta zigortuak izan diran elizgizonak eta kristau arruntak, politikan Jaurlaritzaren aurka lan egin dutelako izan dirala zigortuak.

Ori egia ez zala, naitanaiez jakin bear zuan Serjio'k. Bai, eskierki, sarkaldetarrok pentsatzen dugun bezala pentsatu balu. Baiña sortaldetarrek ez dute guk bezala pentsatzen.

Aientzat, fedea garbi gordetzea da garrantzizko gauza bakarra. Fede ori ukatzera berriz, ez zituan zigortutako kristau aiek Jaurlaritzak beartu. Lege bat obeditzera makurtu ez ziralako edo lege aren aurka mintzatu ziralako, zigortu zituan Jaurlaritzak. Lege ura, bai noski, erlijioarekin zer-ikusi

bizia zuan legea zan, baiña, ez, Jainkoa ukatzea edo Jainkoaren Legearen aurka oben egitea zuzenean eskatzen zuana.

Jaurlaritzak esaten zuana bere-egiaz, esan zezakean beraz Serjio'k politikaren arloko ekintzengaitik izan zirala kristau aiek zigortuak; ez, ain zuzen, kristau ziralakoa. "Lege-ematea" eta "emandako legeari ez obeditzea", beti, politika-arazoak bait dira.

Elizaren askatasuna eta iraunpena zeuzkan Serjio'k, len Tikon'ek bezala begien aurrean, orrela jokatu zuanean.

Danadala, asko zabaldu bait zan atzerrian ere liburu ura, gozatu zion Stalin'ek Elizari zerbait, bizi aal izateko giroa.

1944'ean il zan Serjio, eta Alexei Leningrado'ko Metropolita'k artu zuan aren tokia.

Ez zan edozein, komunistentzat ere, Patriarka berria.

Iru aldiz izan genduan gudatekoan Jaurlaritzak ofizialki goretsia; eman zitzaion "Leningrado'ko Babes-Borroka-Domiña", eta "Langilleen Ikurri Gorriaren Alkarteko" lagunkide ere izan zan egiña.

46 Gotzai bildu zituan Kontzilio batean izan zan Patriarka egiña eta sagaratu.

Pakean jarraitu zuan Elizak aren zuzendaritzapean, 1953'an Stalin il zan arte. Egun artan bertan idatzi zuan Alexei'k gutun bat, eriotz arengaitik bere, eta bere Elizaren, biotzeko oiñazea jakinaraziz.

1953'tik 1955'era, Malenkov eta Krushev egon ziran agintzen. Bizkor jarraitu zuan Alexei'k lanean, Krushev asarretu zan arte, Jaurlaritzagandiko oztopo aundirik gabe. Izan ere, bere atzerriko ibillaldien bidez Jaurlaritzaren jarduera zurutuz, laguntza ederra ematen bait zion oni.

Ordain lez, itzuli zizkion Jaurlaritzak jauretze batzuk Elizari; eman zien askatasuna, baitutako eleizgizon batzuei; eta ez zion eragozpenik ipiñi, Patriarkadutzak, gudaren azkenaz gero, argitaratzen zuan "Moskuar-Patriarkadutzaren Aldizkaria" izeneko izparringiari. Aldizkari sendoa; Teologia, Liturgia, Ekumenegintza eta Elizaren Barne-Bizitzari-buruzko idazlan ederrez mamitua.

Berbiztu ziran ikasketak 8 Apaizgaitegietan, eta egokia ta sakona zan Leningrado'ko eta Sagors'eko Akademieta ematen zan irakasketa. (8 Seminario eta 2 Akademi edo Ikastetxe Nagusi auek, Stalin'en denboran Serjio Patriarka zala, izan ziran irikiak).

Ez zazula uste, ala ere, kristautasunaren aurkako borroka legundu zanik.

Gotor jarraitzen zuten ateistek lanean, eta lan ori emankorragoa izan zekien, 1947'an eratu zien Jaurlaritzak "Politika-ta-Zientzi-Jakintzak Zabalitzeko Alkarte Nagusia". Berealaxe asi zan au Errusi guztian idazti-ereiten eta itzaldi-egiten.

Alabazanere, ez dirudi, beraiek eta Jaurlaritzak nai aiña zitu jaso

zutenik. Ori adierazten digu beintzat argi, 1954'ean "ateismoaren zabalketan egindako akatsei-buruz" Jaurlaritzak berak emandako erabakiak.

Asi ziran berriro gotzai ta apaiz-epaiketak, eta itxi zitzaizkion Elizari, 10 milla jauretxe. Esan dugu guda-aurreko 54 milletik 55 millara arteko jauretxe guzti aietatik 5 milla ta geixago gelditzen zitzaizkiola Lenin'en eriotzakoan.

Baiñan itzuli bait zizkion ia 15 milla Stalin'ek, bazituan 20 milla au il zanean. Erdiak berriro kenduta, 10 millarekin utzi zuan Krushev'ek. 8 apaizgaitegi aietatik ere itxi zizkion 5, eta gelditzen zitzaizkion 68 konbentuetatik, 50. Esan daiteke beraz, Lenin baiño okerragoa eta Stalin baiño askoz okerragoa izan zala Krushev Elizarentzat.

Asarretu ziran kristauak, eta egin zuan Alexei'k oiur zekenkeri ura salatuz.

Elizaren aurkako jarduera gogortuz erantzun zion Jaurlaritzak. Beren Parrokien administraketa kendua izan zitzaien parrokoei. Altagutziz, 1969'an Errepublikak Sobietarren Alkarteko biztanleetan %25'ek Errusi'ko Eliz Ortodoxiarraren elizkide zirauten. (Oroi, lentxeago, estadistika sobietarrez esan duguna).

Patriarkadutzak bazuan atzerriko Elizekin jarduteko bazkun bat. Bazkun artako buruzagia zan gotzaia kendu, ta aren orde bestea gotzai bat, Nikodim gotzaia, ipiñi zuan aren tokian Jaurlaritzak berak.

Gizon argi au izan zan une artan Elizaren babesa. Maiz irten zan atzerrira, arreman aundiak eta ugariak izan zituan atzerriko Elizekin, baita Katolikoarekin ere, eta oartuarazi zuan Jaurlaritza atzerrian eliz-zigortzaille ez azaltzea arras konbeni zitzaion gauza zala.

Nikodim Gotzaia izan zuan Errusi'ko Elizak urte aietan bere gotzairik izentsuena, eta mundu guztian ziur uste zuten danek, ura izango zala Alexei'ren ondorengo Patriarka.

Ez ordea. Alexei il zanean Pimen egin zuan Patriarka Mosku'ko Kontzilioak. 1971'garren urtea zan.

Lengoen bidetik jarraituko du Pimen'ek ere, atzerriko Elizekin adiskidetasunak sendotuz, eta Jaurlaritza goxatzearren, bere ibillaldi guztietan Errusi'n Jaurlaritzaren eta Elizaren artean oro pakean dagola atzerritarrei esanaz. Jaurlaritza biguintzearren lagundu zion, ai zuan guztia, "Pakearen Aldeko Mundu-Igikundeari" ere.

Gaur oraindik burua maiz jasotzen duan igikunde edo mobimentu au, Stalin'ek berak sortua da; pakea aitzakitza artuta, Errusi'ren etsaien indarra makaldu eta komunismoari munduko bideak erreteko, jakifa.

Patriarka bezala, artzai zintzoa izan da Pimen, bere Elizaren oiturak garbi gordetzeaz eta liturgiaren egokitasunaz benetan arduratua.





Errepublika Sozialist Sobietarren Alkartean ordea, bada Mosku'ko Patriarkadutzaren mendekoa baiño Eliz zarrago bat: Armeni'ko Eliza; monofisita, ots, Kaltzedoni'ko Kontzilioa ontzat artu ez zuenetakoa.

451'garren urtean izandako Kontzilio artara Armeni'k ez zuan ordezkariarik bidali aal izan, Perti's'ren aurka borrokan zebillelako. Agian orretxegaitik bakarrik, Babgen Armeni'ko Elizaren Patriarka Nagusiak, uko egin zion Kontzilio ari! Ala gelditu zan Erroma'ko Elizatik landa.

"Gregoritarra" ere deitu oi zaio Armeni'ko Elizari: "Ecclesia Gregoriana", bere lenen gotzaia Gregorio "Argitua", --"Gregorius Illuminatus"--, izan zalako. 325'garren urtearen inguruan il zan gotzai au, eta mende ortan bertan, Erroma'ko Teodosio Inperatoreak baiño askoz leenago artu zuan kristautasuna, Armeni'ko Erregeak, Laterriaren erlijiotzat. Armeni dugu beraz ofizialki lenen Laterri Kristaau, leenagoko Osroene izeneko Jaurerri artaz ez bait da gaur aztarnarik gelditzen.

Gaur, Armeni'ko lurra Turki eta Errepublika Sozialist Sobietarren Alkartean artean bi pusketan zatiturik dago. Azkeneko zati onek, Armeniar Errepublika Sozialist Sobietarra osotzen du Kaukas-Mendiaren egoaldean.

Armeni'ko Eliza berriz 4 "katholikatu" ezberdiñetan dago zatitua; Kostantinopla'koa, Zilizi'koa, Jerusalem'goa, eta Etschmiadzin'goa dira 4 katholikatu oiek. Azkenekoa garrantzitsuena, eta ain zuzen Sobietarren Armeni'n dagoana; ta bertako Katholikos'ak, "armeniar guztien Patriarka" deitzen dio bere buruari.

Armeniar Elizak zenbat kristau dituan jakin naiko duzu. Ona bâ:

-Etschmiadzin'go Katholikatua, Errepublika Sozialist Sobietarren Alkartean barruan bi milloitik irura, eta Europa'n, Irak'en eta Ameriketean, bosteun milla.

-Zilizi'koak, seireun milla, Siri, Iran, Txipre, Libano eta Ameriketean. Eliz ontako "Katholikos" a, --armenitarren artean Patriarkari Katholikos esaten zaio--, Libano'n bizi oi da turkitarren zigoretik igesi Zilizi'tik 1921'ean alde egin bearrean aurkitu zanez gero.

-Jerusalem'goak, sei milla elizkide bakarrik ditu; eta Kostantinopla'koak ez askoz geiago: berrogeitamar milla.

Lau katholikatu auetako bakoitzak badu burujabetza osoa, eta Zilizi'koak izan ezik, baita aski adiskidetasun goxoa ere Etschmiadzin'go Katholikos "nagusiarekin".

Ez da munduan erririk, ez da Elizik ere izango, Armeni'ko erriak eta Elizak aifia oiñaze zigor eta samintasun izan duanik. Bai turkitar musulmanek bai errusiar sobietarrek kupidarik gabe eraso izan bait diote. Odoltsuagoak izan dira turkitarrak; legunagoak baiñan ez ariñagoak sobietarrak. Auek, Armeni'ko Elizari eraso diote. Aiek, Elizari... ta Erriari!

Turki'ako Sultaneak kristau guztiñen aurka Birjaiotzakoan eta Argikuntzakoan erabilitako jokaeraz mintzatuak gera. Orduan bezain gogorra izan

zan XIX mendean erabili zutena ere; batez ere, armenitarren aurka erabillitakoa.

1894, 1895 eta 1896 urte odoltsuak izan ziran Armeni'rentzat, eta 15.000 armenitarrek galdu zuten bizia; 200.000'ek berriz, 1909'garren urtean.

1914'ean, I Ludi-Gudua asi zanean, bildur izan zieten turkitarrek ain abertzale ta askatasunzale ziran armenitarrei, Errusi'peko armenitarrekin alkartuta aiek ere Errusi'ren alde eta Turki'ren aurka ez ote ziran gudan sartuko.

Orregaitik, 1915'ean, 3 armenitarretik 2, ots, 1.750.000 pertsona izan ziran Siri eta Mesopotami'ko lurretara abereak bezala indarrez eramanak. Seireun miliek galdu zuten ibillaldi artan bizia. Beste 700.000 miliek, izan zuten erbestera iges egiteko adontasuna. Turki'ren lurretan 300.000 bakarrik gelditu ziran.

Errusi'ko Tsar'ek, ordurako, egin zuten aal izan zuten guzia, beren mendeko armenitarrak errusiarzeko.

1918'an, Lenen Ludi-Gudua amaitzerakoan izan zuten armenitarrek askatasun-aro labur bat. Urte ortako jorraillaren 6'ean, Jeorji'k Armeni'k, eta bi illabete geroago Azerbaijan'ek, Konfederapen iare bat eratu bait zuten: Transkaukasi'ko Konfederapena. Zoritxarrez, bereala puskatu zan Konfederapen ura, ta Errepublika bereizi biurtu ziran Armeni, Jeorji ta Azerbaijan, laister, 1920'ean, tiroka zanpaturik Sobietarren menpera jausteko. Sobietarrek nagusi, asi zan Jeorjjar eta Armenitar Eliz Autokefalikoiertzat, gaur-egun arte iraun duan zigorketa komunista gorriaren izurrite mingarri latza.

Errusi'n "Eliz Bizia" Eliz ortodoxiarrari aurka egiteko sortu zuan bezala, Armeni'n "Eliz Eraberritua" sortu zuan Mosku'ko Jaurlaritzak, Armeni'ko komunisten bitartez bertako Elizari aurka egiteko. Zorionez, eragimen koxkorra eta bizitza laburra izan zuten Eliz komunista oiek, naiz gotzai urri batzuk berenganatu; uko egin bait zien erriak.

Armeni'n tinko aurpegi eman zion "Eliz Eraberritu" ari Kevork V Etschmiadzin'go "Katholikos"ak. Oiturazkoa dutenez, garratzki erantzun zioten komunistek: 2.438 jauretze zituan Eliz ark Armeni'n bertan eta Errepublika Sozialist Sobietarren Alkarteko beste Laterrietan; 2.279 kendu zizkion orain Jaurlaritzak eta 159 bakarrekin utzi; ta, jakiña, seminario guztiak itxi.

Kutz Choren izan zan urrengo "Katholikos"a. Eskeiñi zion Jaurlaritzari leialtasuna, eta idatzi zituan pastoral-gutun batzuk sobietarrek Armeni'n kulturaren eta ekonomiaren barrutietan egin-edo zutelaren aurrerapena goratuz. Ala, itzuli zizkieten komunistek jauretze batzuk eta kendutako eliz-ondasunen apur batzuk: baiña soilki, oraindik irikirik zeuden jauretzeak eta katedrala zaintzeko bearrezkoak ziranak; eta ezer gutxi geiago.

Jaurlaritza sobietarrari erakutsitako leialtasunak ez zuan Choren katolikotzatik jaurtia izatetik salbatu. Kervok VI'a izanen zanak artu zuan aren ordezkari lez Elizaren buruzagitza. Stalin'ek, eman zion Katholikos egiña izateko baietsia, arek, Errusi gudan sartua aurkitu zanean, gudagurdi-talde bat osotzeko bere eliztarren artean jasotako diruaren truke.

Baita're eman zitzaion Eriwan'go apaigaitegia irikitzeko eta aldizkari bat argitaratzeko baimena.

VI Kervok illik, 1956'ean Vasgen izan zan "Katholikos" izendatua, 137 bazkide --40, atzerrietatikoak-- bildu zituan batzar batean. Ordurarte, Bulgari'n eta Errumani'n bizi ziran armenitarren Eliz-buruzagi zala, "Pakearen Aldeko Ludi-Igikundearen" alde egindako lanagaitik eta Mosku'ko Jaurlaritza armenitarren babesle lez maiz goi-aipatu oi zualako, sobietarrek ondo ikusten zuten gizona zan.

Bide ortatik jarraituko du "Katholikos" egiña izan ondorean ere, adibidez mundura "Armeni'ko Elizaren Bizkortasunaz" Azalpen bat bidaliz. Ordaintzat, eman zion Jaurlaritzak, 1962'an Etschmiadzin'en Eliz Osoaren Sinodo bat egiteko baimena. 224 sinodokide alkartu ziran an; 87, atzeritik etorriak.

Atsegiñak izan zaizkio beti Jaurlaritzari Vasgen'ek, atzerriko errialdeetara egindako ibillaldi ugarietan Mosku'ren alde legunki esana ta egiña.

Orregaitik, 1915'ean, 3 armenitarretik 2, ots, 1.750.000 pertsona izan ziran Siri eta Mesopotami'ko lurretara abereak bezala indarrez eramanean. Seireun miliek galdu zuten ibillaldi artan bizia. Beste 700.000 miliek, izan zuten erbestera iges egiteko adiontasuna. Turki'ren lurretan 300.000 bakarrik gelditu ziran.

Errusi'ko Tsar'ek, ordurako, egin zuten aal izan zuten guzia, beren mendeko armenitarrek errusiartzeko.

1918'an, Lenen Ludi-Gudua amaitzerakoan izan zuten armenitarrek askatasun-aro labur bat. Urte ortako jorraillaren 6'ean, Jeorji'k Armeni'k, eta bi illabete geroago Azerbaiyan'ek, Konfederapen iare bat eratu bait zuten: Transkaukasi'ko Konfederapena. Zoritxarrez, bereala puskatu zan Konfederapen ura, ta Errepublika bereizi biurtu ziran Armeni, Jeorji ta Azerbaiyan, laister, 1920'ean, tiroka zanpaturik Sobietarren menpera jausteko. Sobietarrek nagusi, asi zan Jeorjiar eta Armenitar Eliz Autokefalikoientzat, gaur-egun arte iraun duan zigorketa komunista gorriaren izurrite mingarri latza.

Errusi'n "Eliz Bizia" Eliz ortodoxiarrari aurka egiteko sortu zuan bezala, Armeni'n "Eliz Eraberritua" sortu zuan Mosku'ko Jaurlaritzak, Armeni'ko komunisten bitartez bertako Elizari aurka egiteko. Zorionez, eragimen koxkorra eta bizitza laburra izan zuten Eliz komunista oiek, naiz gotzai urri batzuk berenganatu; uko egin bait zien erriak.

Armeni'n tinko aurpegi eman zion "Eliz Eraberritu" ari Kevork V Etschmiadzin'go "Katholikos"ak. Oiturazkoa dutenez, garratzki erantzun zioten komunistek: 2.438 jauretxe zituan Eliz ark Armeni'n bertan eta Errepublika Sozialist Sobietarren Alkarteko beste Laterrietan; 2.279 kendu zizkion orain Jaurlaritzak eta 159 bakarrekin utzi; ta, jakiña, seminario guztiak itxi.

Kutz Choren izan zan urrengo "Katholikos"a. Eskeiñi zion Jaurlaritzari leialtasuna, eta idatzi zituan pastoral-gutun batzuk sobietarrek Armeni'n kulturaren eta ekonomiaren barrutietan egin-edo zutelaren aurrerapena goratuz. Ala, itzuli zizkieten komunistek jauretxe batzuk eta kendutako eliz-ondasunen apur batzuk: baiña soilki, oraindik irikirik zeuden jauretxeak eta katedrala zaintzeko bearrezkoak ziranak; eta ezer gutxi geiago.

Jaurlaritza sobietarrari erakutsitako leialtasunak ez zuan Choren katolikotzatik jaurtia izatetik salbatu. Kervok VI'a izanen zanak artu zuan aren ordezkari lez Elizaren buruzagitza. Stalin'ek, eman zion Katholikos egiña izateko baietsia, arek, Errusi gudan sartua aurkitu zanean, gudagurdi-talde bat osotzeko bere eliztarren artean jasotako diruaren truke.

Baita're eman zitzaion Eriwan'go apaigaitegia irikitzeko eta aldizkari bat argitaratzeko baimena.

VI Kervok illik, 1956'ean Vasgen izan zan "Katholikos" izendatua, 137 bazkide --40, atzerrietatikoak-- bildu zituan batzar batean. Ordurarte, Bulgari'n eta Errumani'n bizi ziran armenitarren Eliz-buruzagi zala, "Pakearen Aldeko Ludi-Igikundearen" alde egindako lanagaitik eta Mosku'ko Jaurlaritza armenitarren babesle lez maiz goi-aipatu oi zualako, sobietarrek ondo ikusten zuten gizona zan.

Bide ortatik jarraituko du "Katholikos" egiña izan ondorean ere, adibidez mundura "Armeni'ko Elizaren Bizkortasunaz" Azalpen bat bidaliz. Ordaintzat, eman zion Jaurlaritzak, 1962'an Etschmiadzin'en Eliz Osoaren Sinodo bat egiteko baimena. 224 sinodokide alkartu ziran an; 87, atzeritik etorriak.

Atsegiñak izan zaizkio beti Jaurlaritzari Vasgen'ek, atzerriko errialdeetara egindako ibillaldi ugarietan Mosku'ren alde legunki esana ta egiña.

Vasgen'en asmoa, jokaera ortan, bere Elizarentzat askatasun pixka bat lortzea izan da; eta ori billatzen zuan Sarkalde eta Sortaldeko Elizekin ezarritako adiskidetasunen bidez ere.



Errepublika Sozialist Sobietarren Alkarteko Eliz Ortodoxiarrak bezain bizitza latz eta zaila darama, jauretxe-barrunbeetan erdi-izkutaturik Jeorji'ko Eliz Ortodoxiarrak.

Sobietarrek Jeorji'ren jabe egin ziranean Ambrosius zan Elizaren Patriarka, eta berealaxe jaso zuan abotsa aien zipotzkerien aurka. Espetxera jaurtia izan genduan, Eliz aren buruzagi guztiekin batera, 1922'an. Bost urte geroago, (1927), apaiz eta kristau geiago jausi ziran espetxera, eta orrela jarraitu zuan, oso era makurrean, Jeorji'ko Elizak, 1932'ean Kalestrato'k Patriarkadutza artu zuan arte. Onek, Mosku'ko Patriarka Ortodoxiarra Jeorji'ko Elizaren Buruzagi Nagusi onezagutu zualako, lortu bait zuan askatasun-pitin bat bere Elizarentzat.

Bide ortatik jarraitu zuten aren ondorengo bi Patriarkek ere: Melkisedek III'ak eta Efrain II'ak. Onek bere leialtasun zintzoa ere eskeiñi zion Jaurlaritzari.

Era berean jokatzuz, bere Elizako 15 elizbarrutiak gotzaiez ornitu aal izan zituan, 1972'ean Patriarkadutzara igoa izan zan Dabid V'ak.



Errepublika Sozialist Sobietarren Alkarteko Diktaturtzaren menpean gelditu ziran katolikoek, ortodoxiarrek baiño milla aldiz zigor gogorragoa jasan bear izan dute. Barreiatuak izan dira: ezereztuak.

I Ludi-Guduaren aurretik baziran Errusi'n 15 milloi katoliko, geienak, "Uniata" edo Erroma'rekin 1596'ean alkartuak. Guda-ostean, Baltik-Laterriak eta Poloni Errusi'tik bereizi ziranez gero, 1.600.000 bakarrik ziran katolikoak sobietarren menpean 78 milloi ortodoxiarren artean. Eta naiz an maometarrak ere aski ugari izan Asi'ako lurraldeetan, esan daiteke Errusi Laterri Ortodoxiarra zala.

1923'an Eliz Katoliko "Uniataren" gotzai danak baituak, erbesteratuak, edo fusillatuak izan ziran, Errusi'ren mendeko lurraldeetan. Seminarioak, itxiak; apaiz-sagaraketa berriak debekatuak; jauretxeak, Laterriaren jabetzara eramanak. Erabat ezabaturik gelditu zan Eliz Uniataren aztarna zitekean oro.

XV Benedikto'k ezin izan zuan ezer egin. Soilki, Von Ropp Goigotzaia espetxetik ateratzea izan zan lortu zuan guzia. Gero, Errusi'ko gosete aundiaren urteetan (1922'an eta 1923'an), artu zuten sobietarrek Aitasantuak bidalitako laguntza, baiña erlijio-ekintza oro galerazi zioten laguntza arekin joan zitzaien Bazkunari.

Iraultzaren asiera-asieratik ikusten bait zuan XV Benedikto'k iraultza aren osteko etorkizuna, etorkizun beltz ari aurpegi nolabait eman aal izateko irasi zituan 1917'an "Eliz Sortaldetarren Kongregazioa", eta "Pontificius Institutus Orientalis" izeneko Erakundea, eta Kongregazio aren altzoan "Errusi'ko Auzietarako Bazkuna".

1920'ean "Bonnum Sane" deritzan "motu proprio" edo "bere-berezko" idaztiaren bidez komunismoaren pentsaera gaitzetsi zigun

Benedikto XV'ak. Ori bera egin zuan XI Pio'k ere "Misserantissimus" (1928), "Caritate Christi" (1932), eta "Divini Redemptoris" (1937) entzikliken bitartez.

1925'ean Michel D'Herbigny Gotzai iñakitarra bidali zuan XI Pio'k Errusi'ra an "uniaten" elizbarutiak bir-eratu zitezkean ikusi zezan; Lau gotzai sagaratu zituan isilllean Aitasantuaren bidali onek, baiña jakin bait zuan ori Jaurlaritza komunistak, lau gotzai aiek espetxera eta D'Herbigny atzerrira boteak izan ziran.

1933'an zabaldu zigun zerbait eskua Sobietarren Jaurlaritzak. Zenbat? ¡Laterri Alkartuetako Enbaxadategian apaiz bat, ¡bat bakarral, izateko baimena eman zuan! Eta apaiz bakar orri Koldobika Donearen jauretxean meza ematen utzi zion! Baiñan an bakarrik, eta enbaxadategietako atzerritarrentzat bakar-bakarrik! Orixe izan zan Sobietarrek katolikotazunari iriki zioten zirriku bakarra.

Oiñazeturik bizi zan, jakiña, Erroma'n XI Pio Aitasantua. Eta diplomaziaren bidetik ezer egiterik ez zeukan ezkerro, aszetikaren bidetik jo zuan mundu guziko katolikoei komunismoaren aurka otoiz egiteko eskatuz.

II Ludi-Gudua amaitu zanean, "uniata" asko gelditu ziran, beren borondateen aurka, Errusi'ko sobietarren mendean Yalta'ko Itunaren aginduz. "La Conferencia de la tres Potencias en Yalta (Febrero 1945) que convertía a toda Europa oriental en zona de influencia soviética, abrió un terrible calvario de sufrimientos para cerca de 70 millones de católicos de once países.

"El golpe más duro cayó sobre los católicos de las regiones nuevamente incorporadas a la Unión Soviética" (G. Adrianyi. M. Villanueva'k gazteleratua).

Guruzpide ortara sartu bearrean aurkitu ziran orain, Errusi'ren menpean, Poloni'ko Sortaldean bizi ziran "uniatak" ere. Zenbat, ziur ez dakigu; uniata askok Poloni'ri Sarkaldean eman zitzaizkion alemaniarrak izandako lurretara iges egin bait zuten.

"1946. After the ocupation of the territory by the Soviet Union this Church ("Uniaten" Eliza) was officialy suppressed and the bishops imprissoned": "Sobietarren Alkarteak 1946'ean lurralde ura beretzakotu zuanean, "uniaten" Eliza, ofizialki, ezerezturik gelditu zan, eta gotzaiak baituak izan ziran" (Encyc. Brit.).

Ez gotzairik, ez jauretzerik, ez apaizik..., gaur-egun, legez, Eliz "Uniata" Katolikorik ez da sobietarren lurraldeetan.

Zigor gogorra jasan bear izan dute Estoni'n-eta izkera latíñeko katolikoek ere. Alatagutziz oraindik sinispidean zintzo jarraitzen dutela badakigu. Guztira, gaur, lurralde aietan, "uniata" edo "latindar", zenbat diran katolikoak, ez dakigu. Badirala, bai; baiñan zenbat diran, ez.



Jarduera berdiña erabili du komunismoak bere-egin dituan baztar guztietan; lurralde oiek danak Errepublika Sozialist Sobietarren Alkarteko Kostitutzioa bera artu bait dute eredutzat. Eta oiñarri-lege orren altzoan, Laterri-ta-Elizaren arteko bereiztasuna ere artu dute, baiña Eliza ezerezteko Laterriak Alderdiari lagunduz!

- Komunist-erri guztietan, gogorren erabilitako erlijioa kristautasuna izan oi da; eta Kristau-Elizen artean, Katolikoa.

- Eliz bat baiña geiago diran Laterrietan, Jaurlaritza, Elizen-arteko gogorrotoa ta borroka sortzen saiatzen zaigu, azkenean danak ezabatu aal izateko itxaropenez. Edota Eliz bat bestearen mendean jarri nai izango du. Ala, Txekoslobaki'n, 1950'ean, Presov'eko Elizbarruti "uniata" Mosku'ko Patriarka Ortodoxiarraren mendean ipiñi nai izan zuan Jaurlaritzak. Ez zuten ordea katoliko aiek eta beraien apaizek bururik makurtu nai izan, Aitasantuaren esanera tinko jarraitu gura zutela esanaz; eta atzeruntz egin bearrean aurkitu zan Jaurlaritza.

- Eliza, zatituz, ezabatzeko, beste eliz bat sortu izan oi du komunismoak ori errez egin dezakela iruditu zaiion tokietan. Ala sortu zuan, Errusi'n, komunistekin eta ordurako bereganaturik zeuzkan elizjendeekin "Eliz Berria", Eliz Ortodoxiarra jendez ustutzeķo asmotan. Armeni'ko Eliza aultzako, "Eliz Eraberritua" sortu zuan Armeni'n; eta "Eliz Abertzale Katolikoa" Txina'n, katolikoei aurka egiteko. Asmo bera zuan Poloni'ko "Eliz Nazionalak". Eta baita Albani'n ere irasi zuan "Nazio-Eliz" bereizi bat.

- Eliz bat ezin irasi duan lekuan, apaiz-alkarteak eratzen ditu, apaizak, eta apaizekin kristau sekularrak bereganatzeko. Txekoslobaki'ko "Pakearen aldeko Apaiz-Igikundea" adibidez, edo apaiz progresisten "Chekolov" taldea Poloni'n. Ungari'n ere gauza berdiña egin ziguten.

- Jaurlaritza komunistek badute, danek, "Gurketa-Ministro" bat. Bere egiazko eginkizuna? Legunki, baiña gogorki, erlijioaren ezabaketa aurrera eramaten saiatzea.

- Gotzaiei Erroma'rekingo arremanak zailtzen ere gogor ari izan dira Jaurlaritza komunistak guztiak.

- Katolikoak Aitasantuarengandik geiago urruntzeko eta bereizteko, Erroma'rekingo arremanak ausi zituzten, asieran, arremanik bazuten Laterriek. Ala, Txekoslobaki'k 1954'ean, eta Yugoslabi'k 1952'an, adibidez.

Gero ordea, Laterri Demokratikoen onezaguketa irabazteko beren aurpegiak zuritzearren, ostera Erroma'rekin, naiz oso-osoan ez, arremanak bir-erutzen asi zitzaizkigun Laterri aiek berak.

- Laterri demokratikoetako katolikoek naimen ona irabazten leiaz saiatu oi dira; Iraultza egin daitekela iduritzen zaien Laterrietan batez ere. Ala berenganatu zuten, katolikoek laguntzari eskerrak, Kuba'ko Jaurlaritza. Eta orrela berenganatuko dute agian Nikaragua'koa bera.

- Katolikoak ugari diran Laterri Komunistetan, katoliko oiek gelegi

asarretzen ba'dira, Gotzaidiarekin itunak edo tratuak egiten asiko zaizkigu. Oroi Poloni.

- Elizari, edozein kristautasun-ereinketa edo zabalkunde egiteko izkillu guztiak kenduko zaizkio.

Ala, gaztediaren eziketa osoa Laterri bakarraren eskuetan egongo da soilki, eta eziketa ori, ikastoletan aurrena, unibersitateetan gero, Ikastola Nagusietan, gudaroztean, lantokietako itzaldietan, sindikatoan, eta zer esanik ez Alderdi Komunistean, beti-beti, eziketa ateista izango da: ots, ez jainkorik gabea bakarrik, Jainkoaren aurkakoa baizik.

- Izparringi, irrati, irratikuska, aldizkari, gizarteko mezu-bide guztietan, eten gabe ariko da komunismoa Jainkoaren aurka borrokan, ortarako Jaurilaritzaren eta Alderdiaren diru eta tramankulu guztiak oparo erabilliz.

- XVIII mendeko "Josefismo" aren araura, lotsarik gabe sartuko du muturra Elizaren barru-bizitzan, seminarioen erakusketan, gotzaien eta gaiñerako eliz-buruzagien izendaketan... Al duan txoko guztietan!

- Gizarteko edozein kargurako, komunistek, Jainkoari uko egitea eskatuko dute, ori egin dezaketen Laterri guztietan.

- Jakintza-erak erabilliz sinismenaren-aztarna oro ezabatzeko, Akademiak eta Jainkogabeen Bazkunak sortuko dituzte.

- Eguneroko gizarte-bizitzan bertan ere, sinisle izate utsa parregarri biurtzeko, gaur goxoki biar garratzki, atsedetik artzeke saiatuko dira lanean.

Alatagutziz, ez dira sinismena desegiteko gauza izan!

Iñoiz baiño bizkorrago jarraitzen du Poloni'n kristautasunak. Baziran an 1965'ean 24 milloi ta geiago katoliko. 14.420 apaiz, 6.999 parroketan; 9.402 praille eta 25.472 monja 3.020 konbentuetan. Gaiñera, 9 urte geroago, 1974'ean, zenbaki oiek gora jaso ziran beera jetxi bearrean, eta bagenituan orduan an 77 gotzai eta 4.200 apaizgai ere.

Bizirik jarraitzen du Elizak Yugoslabi'n; Eslaboni'n eta Kroazi'n batez re.


Giro txarragoan bizi zaigu gure Eliza Ungari'n eta Txekoslobaki'n baiñan an ere bizirik dirau oraindik.

Beste Laterri komunisteetan, Txina'n adibidez edo Rumani, Bulgari, eta Laos ta Kanboya'n, katolikoak gutxi ziran, eta aien berri aundirik ez dugu, baiñan bai, Txina'n adibidez, tinko jarraitzen dutelaren aztarna. Zer esanik ez katolikoak ugariagoak ziran Bietnam'en eta ia osoki katolikoa zan Kuba'n.

Errepublikak Sozialist Sobietarren Alkartean bertan "oraindik sinestunak sinismenik ez dutenak aiña badirala" esan-berri digu andik etorritako komunist ospetsu batek.

Albani'n bertan ere, ez dirudi egia danik, 1973'an, azkeneko jauretzea itxi zuanean Jaurilaritza komunistak egin zigun erronka: "Itxi dugu azkeneko eliza. Albani duzute, Komunist-Laterrietan, erlijioa erabat ezabatu duan Laterria".





## XI PIO (1922-1939)

Jarraitzaille bikaiña izan zuan Benedikto XV'ak, Elizarentzat iriki zituan bide guztietan, Ambrosio Damian Akiles Ratti Ionbarditarra. "Jarraitzaille"l Maiz aurkituko dituzu bâ XI Pio'ren idazkietan, onako onen antzeko esakizunak: "XV Benedikto'k asitako bideari jarraituz"...

Jarraituz, bai, baiña "ala-ola", "tel qu'elle", jarraituz, dio Daniel Rops'ek, eta egia dio; Della Chiesa eta Ratti ez bait ziran gizon berdiñak. Demokrazikoiagoa ura, fatxista usaitxo geixeagokoa beste au, batez ere bere agintza-aroko aurren urteetan. Baiña, alatagutiz Aitasantu aundia izan zan benetan Pio XI'a. Bai orixe.

Ala're eztabaida aundiak ibilli zituzten 1922'ko otsaillaren 2'an Konklabera bildutako kardenalek. 53 ziran guztiak; 29 italiar eta 24 atzerritar.

Bi sailletan banaturik zeuden. Integristek, Pio X'aren denboretara itzuli nai zuten, eta aien aitasantu-gaia Merry del Val zan. Besteek, Benedikto XV'aren jarduera jarraitu nai zutenak. Gasparri zuten gai. 24 autarki jaso zituan onek; 17 arek.

Kinka artatik irtetzeko, irugarren gai batera jo zuten danek, eta irugarren au Akiles Ratti izan zan. Ez dirudi Giltzape-Batzarra astean Ratti onek Aulki Donera igotzeko adontasun geiegi zuanik, aurreneko autarketa guztietan, --Merry del Val eta Gasparri, bai-izango-ez-izango zebiltzan artean--, berak ez bait zituan 4 edo 5 autarki besterik jaso.

Bai-eza arek ekarri zizkion, beraz, eskuetara Elizako Giltzak, Akiles Ratti jakintsuari. 65 urte betetzera zijoan. Il berria zan Aitasantuak baiño urte bat geiago.

Pio artu zuan izen. Berak kardenalei jakiñarazi zienez, "ez, soilki, Pio IX'aren aitasantutzakoan bataiatua izan nintzalako; ezta Erroma'ra deitu ninduana Pio X'a izan zalako ere. "Pio", izen paketsua dalako baizik, eta nere leiarik aundiena pakea izango dalako".

Monzza'ren alboko erritxo batean jaioa zan, Milan'dik bertan, eta, gogoz, milandarra izan zan beti. Aitasantutzan ere, al duan guztian, milandarrak deituko ditu laguntzaille. Milandarrak, eta iñakitarrak; fede

aundia bait zien Loiola'koaren semeei.

Aurtzaroan ez zuan deusen faltarik izan; ola eder batean zuzendari bait zan bere aita.

Amar urtekin sartu zan seminariora, eta Erroma'n amaitu zituan ikasketak, iru doktoraduren jabe. Beti izan zan ikasle zintzoa, langille aundia, ixil-xamarra, berriketa gutxiko mutikoa. "Kaixo, nere gaztetxo zaarra" maitetsu esanaz agur egiten zion bere goigotzai adiskideak.

Gazte "zâr" bati zegokion langintza eman zioten ikasketak amaitu zituanean ere: liburutegi baten zainketa. 30 urte igaro zituan liburu-artean. Milan'go Ambrosiar Bibliotekan aurrena. Erroma'ko Batikandar Bibliotekan gero. Bietan iritxi zan Zuzendari Nagusi izatera.

Ziñez maite zituan liburuak eta zoriontsua izan zan an, bakardadean. Kultur aundiko gizona, bikainki idatzi zuan aldizkarietan edestiaz eta liturgiak. Ez zitzaion irakasketarako ere denborarik peitu. Bereak zituan gaiak erakutsi zituan: edestiari eta idazkiei-buruzko gaiak. Eta baita eberkera ere.

Benedikto XV'aren begi zorrotza, oartu zan liburu-gizon aren balio aundiaz, eta atera zuan liburutegiko illunpetik, birjaio-berria zan Poloni'ra bere ordezkari bidaltzeko.

"Gazte zaar" izandako jakintsu ura ez bait zenuan, iñolaz, mundutik at bizi zan gizona. Aurkitu bait zizun, alderantziz, kiroletarako denbora ere. Mendigoizaletasuna izan zuan kirolik kuttunena.

Baiña gazte zaarkoi arek men guztiarekin, seriotasun osoarekin, egiten zituan gauza guztiak, baita kirolketa ere, ta txantxetan ibilli gabe prestatu zan, arkaitz-igoketaren teknika benetan ikasiz, maillo garaiei aurpegi emateko.

Jendeak entzuna dauka Pio XI'a alpinista izan zala, baiña mendira ibiltalditxo bat egitera joan oi geran mendizaletxoon antzeko zerbait izan zala agian uste du.

Oker dabil orrela pentsatzen duana. "Txo"rik ez bait zan Pio XI'arentzat. Era aundian egin oi zituan gauza guztiak, eta alpinista ere, lenen maillako alpinista izan genduan. Aipaturik utzi dugun prestaketa benetako orren ostean igo zituan lokarri-medioz Alpeetako aitzik gogorrenak: Turlo, 1885'ean; Alpe-Mendietako bigarren tontorra dan Rosa'ren "Dufour" izeneko arkaitza bi eguneko igoketan alderdirik zailletik, Macagnaga aldetik, 1889'an; Mont Blanc bera, Mendi Zuria, 1890'ean Rochers edo "Arrieta" izeneko malkarretik; Grigna iparraldekoa, 1913'an.

Urrengo urtean, Lenen Ludi-Guduak eragozi zizkion Akiles Ratti'ri bere aitzetik-aitzerako ibillerak.

Ibilliaz eta igoaz gaiñera, idatzi ere egin zigun mendigoizaletasunari-buruz. Idazki aiek "Scripti Alpinistici" izeneko liburu batean bildurik daude.

Bartsobi'n, nuntzio yayoa irten zan liburuzai trebe eta mendigoizale

ausarti ura. Ederki etorri zitzaion Poloni'n bizi izatea. An ikusi aal izan zuan sortaldetar katolikoan biziera zanpatua, sarkaldetar katolikoan nagusikeritik erruteniarrak babestu bearrean aurkitu bait zan. Arroak izan bait gera sarkaldetarrok betil!

Edestilari egitsua zalarik, bazekian Ratti'k ori leendik ere, baiña, agian, Poloni'n begiz ikusi zuanak sortarazi zion biotzean aitasantutzakoan sortaldetarrei erakutsi zien begirune leiala.

Poloni'n ikasi zuan baita're, laterkeriaren arriskua; erruteniarrak latinzaleengandik bezala, babestu bear izan bait zituan, an, Poloni'ra igarotako silesiarrak Bartsobi'ko zentralisten abertzalekeritik.

Ez zitzaion, au egin bearra, gaizki etorri, gero aitasantutzakoan Alderdi totalitariengana geiegi ez urbiltzeko; bai bait zizun berez Akiles Ratti'k teokrazirako eta teokraziaren aidetasuna baduan totalismorako joeratxo bat. Ala, aski nabarmenki lagundu zion Mussolini'ri fatxismoaren aurreneko urteetan; baiña, gero, agian Poloni'n ikusiaz oroiturik, errez igarri aal izan zuan fatxismoaren eta nazismoaren okertasuna.

Eta baita Españi'ko frankismoarena ere, naiz azkeneko au ikusteko zailagoa izan, bere alde bait zituan Franco'k munduko ia gotzai guztiak.

Poloni'tik, esana dugu zergaitik, Milan'era ekarri zuan Benedikto XV'ak Ratti nuntzioa; Ratti'k berak ainbeste maite zuan Milan'era. Onela saritu nai izan zuan Aitasantuak bere ordezkariaren langintza: Milan'go Goigotzai eta Kardenal egifiaz, bearbada ordezkari jakintsu leial arek azkeneko egunak patxadatsu bere lurraldean Alpe-Mendien azpian igaro zitzaion, 64 urteko gizon eldua bait zan ordurako. Andik ilabete batzuetara Benedikto XV'aren Aulkian zegoan, XI Pio biurturik.

Ilabete motx aietan, Katoliko-Ekintza bizkortzen asi zan Akiles Ratti; lagundu zion Gemelli frantziskotar jakintsu ospetsuari Unibersitate Katolikoaren sorketan; eta irabazi zuan milandarren naimen ona; bai bait zekian liburu-arteko eta mendi-gaiñetako bakarti arek, nai zuanean, jendea bereganatzeko, gizartean bere burua atsegingarri agertzen.

Ez zan, berez, gizon atsegin eztsua, latza baizik, seta gogorrekoa, purrustalaria, basati-xamarra. Ondo ezagunak ziran kuriatarren artean, Pio XI'ak, asarretzen zanean, mai-gañean jo oi zituan ukabilkadak.

Ots, ordea. Ukabilkada aiek ez ziran, maiz, oartzeke emanak, zero naita baizik, milandar langille arek ezin jasan bait zuan kuriako erromatarren nagitasuna. Baiña, alatagutziz, agintzeko jaioa zala eta agintzea asko gustatzen zitzaion gauza zala, ezin dezake iñork ukatu.

"Oro berak zuzendu, oro berak aztertu, eta oro berak egitea, zitzaion atsegin. Oso gutxitan eskatzen zuan iñoren aolkurik. Entziklikan idazketan ere parte aundia artzen zuan berak, beste Aitasantuek baiño askoz aundiagoa" (Aubert).

Ausardi aundixeagoz Daniel Rops'ek dionez, "borrokalaria" bat omen

zan, "un combatant dont les saintes colères étaient notoires et dont la prudence n'était peut-être pas la vertu préférée": "Borrokalari bat. Ondo ezagunak ziran aren asarraldi santuak, eta ez da noski neurritasuna arek, geien maitatu zuan birtutea".

Frantzierako "prudence" k, emen "zugurtasuna" esan nai ba'du, ez goaz iñola ere Daniel Rops'ekin bat; zugurtasuna, "elburura iristeko elbide egokiak aukeratzea" bait da, "dispositio mediorum ad finem", eta ori egiten Pio XI'ak, xamurkeri geiagorekin edo gutxiagorekin, iñork ez bezala jakin bait zuan.

Gogorra zala? Ez zan beintzat emekeri-zalea. Izan zituan akatsak, baiña alatagutziz Aitasantu bikaiña izan zan; andienetakoa, guda-osteko aldi naasi ark bear zuan bezalakoa. Zoritxarrez bear baiño lenago il zan apika. Totalismoen gaiztakeria ulerturik, okerkeri gaitz ari aurpegi emateko gerturik aurkitzen zan uneani

Ema'ogun, --XI Pio Aitasantuari--, beste meritu bat ere; gizon aundiaren meritua: Bazekian baliozko gizakumeak ezagutzen, eta balio oietaz egoki baliatzen.

Otoiz-bizitza sakoneko gizona ere bazenuan Pio XI'a. Gogo garbiko gizona, Jaungoikoaren serbitzari zintzoa, gizakumeen maitale benetakoa, egiazko Apaiza.

Bere denbora ia dana ikasketan eta liburu-azterketan igarotako jakintza-gizona izan arren, liburu-jakituriz ain motxa izandako Ars'eko Apaiz xaloaren miresle izan zitzaigun, eta baita Normandi'ko karmeldarren lekaimetxe batean iñork ezagutzeke biri-miñez il zan, Josu Aurraren Terese izeneko neskatil arrunt maitagarri arena ere. Biak jaso aal izan zituan, pozez beterik, aldareetara.

"Terasetxo" Deunak "iñoiz ezer miragarririk egin ez zuala" esaten ziotenei, ain zuzen "dana ondo egin zualako bakarrik" santu eginen zuala erantzuten zien, eta bere ustez gaiñera, lekaimetxe apal ura izan zala XIX mendeko santurik aundiena.

Teokrazizko oldozkera aundien giroan bizi zan gizon arek gauza txikiei ta pertsona apalei jaramon-egiten bazekiala azaltzen digu bere jardunkera orrek. Are ta geiago, lekaimetxetik beiñere irten gabe bizitutako neska gazte ura, Xabier'ko Frantzisko'ren kide, Ludi guztiko mixioen zaindari orokorra egin zuala gogoratzen ba'dugu.

Ortik igarri dezakegu beste gauza bat ere: Bere entziklika eta ekintza bikaiñek ospetsu egin zuten Agintari yayo zail arek isillezko otoitz izkutuari ematen zion garrantzia. "Santuen Alkartea" deritzan dogmaren argira bakarrik ulertu daiteke Terasetxo Donearen izendaketa ori, baiña ez dezagun aztu XI Pio izan zala Kristo'ren Gorputz Mistikoaren dogmak izan duan sinislerik eta mireslerik sendoenetako bat. Ain zuzen dogma ori dugu aren teokrazi-itxurako pentsaeraren iturburuetako bat.

## XI PIO'REN DIPLOMAZI-KERA

Akiles Ratti'ren aitasantutzako denboran sortuak bait dira Europa'ko Alderdi fatxistak, eta aren ekintzarik ospetsuena Mussolini'rekin burututako Letrango Ituna bait dugu, maiz irakurriko ta entzungo duzu, Aitasantu ospetsu ura fatxismora ixurixamarra-edo izan zala bere oldozkeran. Bearrezkoa dugu, beraz, gai au naiz laburki jorratzea.

Pio XI'a edestilaria zan. Ikasia, sakona, edestiaren azterketara oitua. Agian, azterketa oietan sortu zitzaion "Kristaudia" ganako zaletasun berezia. Ots: Ez zan "Kristaudia" bera, aren izpiritua baizik, XI Pio'k ederetsitsen zuana.

Badakigu erdiaroko Kristaudi ura, "la Chrétienté", "La Cristiandad", teokraziaren araura tajutua egon zala: Jaungoikoaren Seme Kristo goian zeru-lurren Errege. Bere ordezkari Aitasantua, Kristo'ren izenean, gizarteko autoritate ororen iturburu.

Autoritate orren erdia, Eliza gobernatzeko, bere eskuetan gordetzen zuan Aitasantuak. Autoritate orren beste erdia, gizartean mundu ontako gauzak gobernatzeko bearrezkoa dana, Inperatoreari ematen zion, eta, Inperatorearen zuzendaritzapean, Errege eta Printzippei. Aitasantuaren izenean agintzen zuten Erregeek eta Inperatoreak berak.

Gotzaien antzeko zerbait ziran beraz mundu ontako Agintari danak; guztien gaiñean, egiazko Agintari Nagusi eta Aginmen ororen iturburu, Aitasantua bait zegoan. Egia esateko, gotzaiak dirana baiño gutxiago ziran erregeak; gotzaiet Jainkoagandik bait datorkie agintaritzat; aiei ordea, erregeei, alderantziz, Aitasantuagandik bait zetorkien. Au zan Inozentzio III'aren teokrazia. Orra bâ; mundua ostera Kristaudi biurtu zezakean eraketa teokrazikoi ori, arras atsegiña zitzaion Pio XI'ari.

Ulertu nazazu. Pio XI'a ez zan ameslari buruariña. Ez zan Kristaudi eta teokrazi aien "gorputza", berak ostera ezarri nai zuana. Ondo zekian Erregeen autoritatea eta Aitasantuena bestelakoak dirala, eta Erregeen aala ez dala Aitasantuen aaletik sortua, demokrazizko sistemen aldeko bait zan gaiñera XI Pio politikaren erabideetan.

Ain zuzen Errepublikaren aldeko izan zan Espaiñ'n ere, eta

Errepublikara sendotu aal izateko asmoz bidali zuan Madrid'era Tedeschini nuntzioa. Ez dio ori errez barkatuko, sumiñak eraginda "el Papa republicano" izen-eman zion Segura Kardenal Alfonso-Amairugarren-zale portitzak.

Baiña mugaketa oiek kontuan artuz, esan dezakegu Pio XI'aren teokrazia "aussi imperieuse que c'elle d'un Innocent III", "Inozentzio III'arena bezain bizkorra" izan zala. (Daniel Rops), "mais redicalement différente", "baiñan zain-zaiñetik bestelakoa".

Egia; Pio XI'ak ez bait zuan politika utsezko auzietan sartu nai, Jainkoaren aintzari eta animen bizitzari zegozkienetan baizik. Politika, Alderdi politikoen eskuetan uzten zuan, eta Alderdi oietan sartzeko eskatzen zien kristauei.

Gregorio VII'aren itxurakoa-edo izan genduan beraz, Pio XI'a, zerbaitetan beintzat; erdiaro-gaillurreko Aitasantu arek ere "sub ratione peccati", "pekatua tarteko zan auzietan" bakarrik, nai bait zuan politikan sartu.

Ala ere Gregorio VII eta Pio XI ez dira berdiñak. Arek, "sub ratione peccati", "pekatua tarteko zalako", Inperatoreari agintaritzea kendu zion. Pio XI'ak ez zuan orrelako eskubiderik beretzat eskatzen. Bai ordea, Laterrien bizitzetan pekatua tarteko zan une orotan pekatu ori agerian salatzeke eta gaitzesteko eskubidea. Eta ori egitera, XI Pio, VII Gregorio, eta Aitasantu guztiak daude beartuak.

Mundu guztirako, Errege eta Agintari danen gaiñetik, Zuzentasunaren irakasle eta epaile guren izan nai zuan XI Pio'k: Munduko anima guztien Errege. Erdiaroko teokrazitik, "gorputza" ez baiña "izpiritua" iruditzen zitzaion, guda-osteko ezbearrek urduriturik zerabilkiten mundua pakera-tzeko egokia.

-Al, --diokezu--; ¿ez al da bâ ori, okerkeriak, injustiziak salatzea, Elizaren eginbearra, eta, Eliz osoaren izenean, bereiziki, Aitasantuena? Bai noski. Baiña salaketa ori egin aal izatez gaiñera, beste zerbait nai zuan Pio XI'ak: Mundua Kristaudi biurtu nai zuan; era berri batera, baike, baiña Kristaudi. Laterriak, --Laterri katolikoak batez ere, jakiña--, "kristau" egin nai zituan. Kristau-gorputz baten antzeko zerbait biurtu nai zituan. Ez; ez dira ulertzeko errezak XI Pio'ren asmoak. Berak ber-berak ere ez bait zituan anitz argi ikusten!

Ez zuan erlijio-askatasunik ukatzen, baiña Laterriak, Laterri katolikoak, legez, ofizialki kristau izan bear zuan, konfesionala, erlijioduna, Laterriko erakunde edo instituzio guztietan: kristaua oso-osoan gizarteko bizitza guzian. Oro kristautze oni esaten zion "Regnum Sociale Christi"; gizartearen Errege egin nai bait zuan Kristo; eta gizartea, Kristo'ren Jaurerri.

Orixe adierazteko, bere ikurritza "Pax Christi in regno Christi" izanen zala jakiñarazi zigun "Ubi Arcano" izeneko bere aurreneko entziklikan,

"Kristo'ren gentza Kristo'ren Jaurerrian".

Al nolako gauza ederra "Kristoren Jaurerrian Kristo'ren pakea"!

Bai; baiña ez dugu aztu bear, "naiz arrigarri iduritu, ain gaurkotar izan genduan XX mendeko Aitasantu onek Jaungoikoaren jaurerriaz bere aurrekoek baiña pentsaera igikorrigo bat zuala, askok erdiarokoa zala uste izan duten pentsaera": "Très curieusement, ce pape du plein XX siècle, si moderne à tant d'égards, eut, de ce règne de Dieu, une conception plus impérieuse encore que celle des ses prédécesseurs, une conception que d'aucuns jugèrent médiévale" (Daniel Rops).

Mentalitate orren altzoan izan bear du ulertua izan Kristo Erregearen omenezko Jaiaren sorkundeak.

"Quas Primas" entziklikaren bitartez 1925'an eman zion jai orri sortzea Pio XI'ak. Eraspena bera, ez zan berria; XVII mendean zituan erroak: Josu'k Alacoque'tar Margarite Deunari Paray-le-Monial'en egindako agerkundeetan. Gero, Paray-le-Monial'ko lekaimetxe aren itzalean eratu bait zuten Aita Drevon'ek eta Soratxaga'ko Baroiak eraspen berri onen izpirituan "Josu Kristo'ren Erregetzaren Lagundia": "la Société du Règne de Jésus-Christ".

Kristo Erregearen eraspena, mende onen asieran eta lengoaren azkenean ain zipozki ari izandako antiklerikeriaren aurkako jeikitze bat izan omen zan.

Alare ez ziran danak Eliza-baitan Jai berriaren aldeko. Jaiaren sorketa, Batzarre baterako Erroma'n bildurik zeuden 62 kardenalek eskatu zioten 1922'an Pio XI'ari. Eskari ori, Aitasantua losintxa-zaleak eraginda egin zuten edo ez, ez dakigu, baiña urrengo urtean 340 izan ziran, --kardenalak, gotzaiak, Elijioso-Anaidietako zuzendari nagusiak--, Jai berriaren eskaleak.

Alatagutziz aurka irten ziran liturgilariak, bai omen zuan bâ Elizak betidanik Kristo'ren Erregetzaren jai bat: Epifani eguna.

Ez zan Pio XI'a auen iritzi berekoa. Epifani egunean ospatzen dan Kristo'ren erregetza, eskatologizko erregetza omen da; eskatologiako erreñu batean, eskatologizko erregetza, ots: beste munduko erregetza. Eta ez zan ori Pio XI'aren guraria une aietan.

Mundu au nai zuan Kristo'ren erreñu biurtu, eta Kristo, mundu ontako Errege. "C'est au pied de la lettre qu'il faut prendre l'affirmation de l'encyclique que «le Christ règne», qu'il est le seul maître de l'humanité". "Itzek berez duten zentzuan ulertu bear da entziklika'k diona: «errege lez agindu bear duala Kristo'k», eta berá dala gizadiaren nagusia".

Agian ez dira ondoegi neurtuak Daniel Rops'en itz oiek, baiña egia da, ala ere, adierazi nai dutena; gure ustez Aitasantuak berak ere Kristo'ren Erregetza orren mugak, politikagintzarako bereiziki, ez bait zituan argiegi bere adimenean ikusten.

Bai ote zuan Jai berria erriaren biotzean ain errez sartuko ez ote zalaren



kezka? Bai bait dira, Kristo Erregearen egunez Josu'ren Biotzari munduaren eskeintza egiteko, orregaitik agindu zuala dioten edestilariak. Kristo Erregearen Jaia, jendeen biotzetzako otzagoa omen zan bâ! "Parlant moins au coeur des foules".

Josu'ren Biotzaren eraspenna sakonki zegoan kristaudian sartua. Iñakitarrak izan ziran ludi guztian eraspen orren zabalzailleak, eta zuzendariak. Josu'ren Biotzaren Jaia, josulagundiaren Jaia zan. Jai berriak beren Jai ari itzal egingo ote zion azpi-bildurrak jo-ta, ez ote genituan iñakitar auek izan Aitasantuari bi jaiak nolabait alkartzera eragin ziotenak?

Orrela ba'da, atzipeturik zebiltzan iñakitarrak eta baita Pio XI'a ere. Kristo Erregek ez zion, asieran beintzat, Josu'ren Biotzari itzalik egin, eta Josu'ren Biotzaren eraspenak ez du balio izan Kristo Erregearen eraspenari sendotasunik emateko. Atzekoz aurrea gertatu ez ote dan ere pentsatu leike, moteldu egin bait zaigu lèn ain bizkorra izandako Josu'ren Biotzaren eraspenna.

1928'an izan zuan onek bere gaillurrik goiengoena, Pio XI'ak "Miserentissimus Redemptor" Entziklika idatzi zuanean. Beera eta beera joan zaigu arrezkero.

Kristo Erregearen eraspenak, --erdiaroko eraspenna geiago bait da gaur eguneko demokrazi-denboretakoa baiño--, ez du sekulan kristau erriabaitan oiartzun aundirik sortu, integristetaz landa. Danok dakigu nortzuek izan diran Españi'ko karlisten sailletan "Viva Cristo Rey" deadarka ibilli diranak, eta gure lurraldean beintzat oiurri oiulariek ber-berek nolako zentzua ematen dioten.

Españi'ko gurutzadakoan "Viva Cristo Rey" oles egiñaz jendea bideertzetan epaiketaren aztarnik gabe erail zutenek ere ez zioten Kristo Erregeari mesede aundirik egin, eta are gutxiago egin diote, pake-denbora ontan fatxismua birrezartzeko Aren izenean bilduta beren buruei "los Guerrilleros de Cristo Rey" izen ipiñi dietenek.

Kontuz! Kristo Erregeak maitale zintzoak izan dituanik ez dugu ukatzen. Gogora datorkigu adibidez, Pro Aita martiri mexikotarra, liturgizko beren zentzu egokian, jai ederrak bait dira biak, bai Jesus'en jaia, bai Kristo Erregearena



Kristo Erregearen gudaroztea izan zedin berriztu zun Pio XI'ak Katoliko Ekintza. Ez bait zuan, Benedikto XV'ak eta baita Leon XIII'ak baike izan zuten bezala, Pio XI'ak, Katoliko Alderdietan usterik, konfiantzarik. Don Sturzo berari eta onen Katoliko Alderdiari ere ez zien begi onegiaz begirutzen. Sortuak ziran eginkizunetarako Alderdi Katolikoen baliorik ez zuan gutxiensten, baiña...

Katoliko Alderdiek ez zioten Pio XI'ari balio, gizadian egin nai zuana lortzeko.

Alderdiak, politikagintzarako sortuak izanik, Elizaren agintaritzatik landa ari oi dira beti. Aien lana, giza-erakuntzan, kanpotikoa da: gizartearen bizitza zuzentzeko zer politika-era tajutu erabakitzea. XI Pio'ren asmoek ordea, ez zuten gizartea kanpotik ukitzen, barrundik baizik: Gizartearen izpiritua nai zuan eratu kristauki.

Pio XI'ak politika era guztiak nai zituan "kristauditu", Kristaudiaren atal biurtu. Barrundik egin bear zan lana zan ori. Elizak egin bear zuana; eta ortarako sortu zuan gaurko Katoliko-Ekintza.

Ordurarte, gizartean on egiteko asmatutako bazkun eta lagundi orori deitzen zitzaion Katoliko-Ekintza.

Emendik aurrera Katoliko-Ekintza izaki bereizi bat izanen da: eta Izaki orren zertasuna, "Elizaren jerarki-apostoluzan sekularren partaidetza", izanen da, gizarteko erakundeak --danak-- kristautasunaren araura moldatzeko"; eta Izaki ori, oso-osoan gotzaien mendean egongo da. Orrela, Katoliko Ekintzaren bitartez Eliza bera izanen da gizarteko Erakunde danak eraberritzen saiatuko dana.

Teokrazi batean Alderdiek ez dute tokirik barru-lan ortarako. Teokraziaren izkillua Katoliko-Ekintza da. Alderdi politikoentzako ere, Katoliko-Ekintzak prestatuko ditu zuzendari egokiak, Alderdi katolikoek beren politika-lana zintzo egin dezaten.

"Nere begietako ninia" deitu oi zion Pio XI'ak Katoliko-Ekintzari. Ala ere Katoliko-Ekintzak ez ditu, arengan Pio XI'ak ipiñi zituan itxaropen eta uste gozoak bete. Izan zuan ogeiren bat urtetan indar; Belxika'n langille gazte-artean Gardijn apaizak sorturiko "Gaztedi Katoliko Langille" edo "Jeunesse Ouvrière Catholique" k emandako indarra baitipat, baiña gero, moteltzen eta moteltzen joan zan.

Pio XII'ak ere, --iñakitarrek berena ez zuten Katoliko-Ekintzari bekaizkeri apurtxoren bat ziotelako?--, iñakitarren "Congregationes Marianas", edo "Maria'ren Alkarteak" ere, bete-betean Katoliko-Ekintza zirala aldarrikatu zuanean zearo urardotu zigun XI Pio'ren Katoliko Ekintza. Iñakitarren Alkarte aski "burgeskoi" biurtutako aiek Katoliko-Ekintzaren izpiritutik milla leguaz urruti bait zeuden!

Pio XI'ak Alderdiei bezala Pio XII'ak Katoliko-Ekintzari kezkatxo-ttantta bat edo baziola ere aitortu bearra da gure ustez. Ez zuan beintzat XII'ak XI'ak oi zuan bezala "participatio" itza erabiltzea maite. Naiago zituan bere itzaldi ta idazkietan beste itz batzuek: "collaboratio", "adjutorium"... Au da: Jerarkiaren apostoluzan "parte artzea" ez baiña "laguntza ematea" adierazi nai duten itzak.

Sekularrek Elizaren apostoluzan ofizialki parte artze ori gogortxo iduritzen zitzaion nonbait.

Giroa ere, oso giro txarra aurkitu zuan Katoliko-Ekintzak, batez ere Langillediaren Katoliko-Ekintzak.

Laterri batzuetan, Itali'n, Alemani'n, Jaurle fatxistak aurka izan zituan. Beste Laterri batzuetan gotzaiek ez zuten bear aña kemen erabili. Beste batzuetan berriz, diktadurtzapekotan, Españi'n, Portugal'en, adibidez, ezertarako gai ez zalako bakarrik utzi zioten agintariek Katoliko-Ekintzari bizitzen.

Orrela, Katoliko-Ekintza ori Laterri fatxistetan kaltegarri ere izan zitzaion apika Elizari; gotzaien alienapenarako eta Jaurlearitzen okerkeriak eraspenkeri goxoz estaltzeko izan bait zan biziro egokia! Franko'k berak ere, Katoliko-Ekintzatik, edo oraindik mottelagoak ziran "Propagandistatik" edo "Opus Dei"ko teokrazizaleetatik atera zituan bere ministrorik ospetsuenak!

Gaur-egun, bide berriak asmatu-zai bezala, kukildurik dago mundu guztian Katoliko-Ekintza. Ala ere ezin aztu dezakegu langillediaren alde ainbeste on egindako J.O.C. edo "Gaztedi Langille Katolikoa", 1913'tik 1925'era, Cardijn gero Kardenal izanzen zanak sortua, berealaxe Kristaudi osora zabaldua, Pio XI Aitasantuak ain kutunki maitatua, eta politikabide fatxista guztiek, bai gorriek bai zuriek, ain gorrotatua.

Baiki, "JOC"en areriorik kaltegarrienak ez ziran alatagutziz jaurle fatxistak izan, aldakuntza ororen bildurrak jotako gotzai ta katoliko burgeskoiak baizik.

Danadala, fatxistek "JOC" ausarditsuari egindako aurkakeri beltza dugu, Pio XI'a fatxismuaren okerkeriaz oartzera eraman zuten arrazoietako bat.



Oraindik fatxismoa aski begi gozoz ikusten zuanean asi zuan "Questione Romana" edo "Erroma'ko Arazoaren" konponketa.

Aitasantutza artu zuan une beretik jarri zan Pio XI'a arazo mingarri ura len-bait-len kixaz amaitzeko asmotan. Ori adierazi nai izan zuan Pio IX'aren ondorean aurreneko aldiz, bere lendabiziko onespina "Orbi et Urbi" ematera Batikan-Jauregiko leiora irten zanean.

Eta Estadutzako Idazkari lez Kepa Gasparri, Benedikto XV'aren Idazkaria bera, artu bait zuan, jabetu zan noski Idazkari onen bidez, Benedikto XV'ak buruan zerabilzkian asmoetaz ere.

1922'ko otsailla zan.

Urte ortan bertan, Urrillaren 30'ean egin zuten fatxistek "Erroma'rako lbillaldia" eta bereala Benito Mussolini Itali'ko Jaurlearitzaren buru zan. Itali gaixoa liberalen eta sozialisten artean aspaldi naasirik bait zebillen, ez da

arrizkeoa Aulki Doneak eta Itali'ko jenderik geienak aldaketa ura atseginez artu izatea.

Pio XI'a baiño geiago zan, Mussolini'ren aldeko, Gasparri Idazkaria. Gasparri'k, gaiñera, Aitasantuek, beren askatasuna gordetzeko, Laterri koxkor baten Errege izatea naikoa zutela uste zuan, eta baita, bear bada, Laterri aundi bateko Nagusi izatea baiño egokiagoa ere; Laterri gaurkotiar aundi batek buruauste geiegi sortuko bait lioke munduan Kristo'ren Ordezkarri izan bear duanari.

Pio XI'ak berak, alde batetik, --ez bait zan Pio IX'a, Leon XIII'a edo Pio X'a bezala Aitasantuak errege zirala eliz-lanetan jarduna--, ez zien Eliz-Laterriek aiek aiñako laztankeririk, edo, naiago nai ba'duzu, ez zan bera, beste aiek sentimenez naitanaiez izan bear zuten bezala, "abertzalea"; beste alde batetik berriz, ez zuan lurralde bateko politika-buruzagitza gura; mundu guziko politikan gogo-zuzendaritza nai zuan.

Mussolini'k, berriz, bere agintapena zuzendu nai zuan; eta ezer ez zitzaiokean artarako "Questione Romana" arantzatsu ura konpontzea bezain ballotsurik; ori egitean, osoro bereganatzen bait zituan Itali'ko eta munduko katoliko guztien naimenak. Ez zan ergela Mussolini orrelako onturrerik ez ikusteko.

Berealaxe asi ziran isillean alkarrizketak. Tacchi-Venturi iñakitarra izan zuten bitarteko.

Bi urte geroago, 1924'ean Matteoti sozialistaren erailketaren ostean, Itali'ko Diktatore egin zuan Mussolini'k bere burua. Alderdi politikoko guztiak ezereztuak izan ziran, baita Luis Sturzo'ren "Partito Popolare" katolikoa ere. Don Sturzo'k berak Londres'era aldegin bear izan zuan. Ez ziran oiek Aulki Donearekingo alkarrizketarentzat eragozpen, esan bait dugu Pio XI'ak Alderdietan geiegizko usterik ez zuala, eta, ezta Don Sturzo'ri ere ez ziola maitasun aundiegirik.

Apaiz siziliar bikain au, Itali gobernatzeko sozialistekin alkartzearen aldeko zan; eta orixe, ain zuzen, ez zitzaion Pio XI'ari atsegin. Sozialisten atzetik komunistek gobernua artu zezaketela uste zuan, eta "Bartsobi'n nuntzio lez Errusi'ko komunisten arriskupean bizitu zanez gero, bildur aundia gorde zien sobietarrei": Ces soviets dont, depuis Varsovie, l'ancien nonce gardait l'horreur" (Daniel Rops).

Mussolini'ren Diktaturtza, zalantzarik gabe, komunismoagandiko arrisku ororen amaia izanen zala uste-edo izan zuan. Ongi etorria zedila beraz, agian Itali'ren salbapen bakarra zitekean Diktaturtza ura. 1923! Sobietarrak orduan Errusi'an zegiten sarraskiaz oroitzea naikoa dugu noski, Aulki Donearen pentsaeraz ez arritzeko.

Aurrera jarraitu zuten "Erroma'ko Arazoari" buruzko alkarrizketek. Geldi, baiña aurrera. Geldiegi Mussolini'ren iritziz. 1926'ean gogapen auek azaltzen zizkigun Mussolini onek bere izparringi "Il Popolo d'Italia'n: "Itali'k,

lurralde katolikoa dalako, naita naiezkoa du Elizarekingo auzi guztiak eroso antolatzea". Auzi oiek konpontzerik ez omen zegoan Aitasantuen erregetzaren auzia egoki erabaki gabe. --Al zuan guztia egiteko prest omen zegoan bera auzi ori Aitasantuaren eskubideen kalterik gabe, bear bezala atontzeko.

Idaz-lan ura Aulki Doneari ez ezik Itali guztiari, eta, geiago oraindik, mundu osoari begira idatzia zegoan. Ez zan bâ nolanaiko mutilla, publizitaterako, Benito Mussolinil Eta ez ziran itzak bakarrik, une artan erabilli zituanak.

Gurutzea ikastoletan eta epaitokietan birrezarria izan zan; Erliijoaren erakuskintza, bearrezkoa ezagutua; Ezkontz-austea baiesten zuan legea, ezabatua; gudaroztean kapillauak ezarriak; Lapurtutako ondasun asko, Elizari itzuliak; Milan'go Biotz Donearen Unibersitatea, ofizialki ezagutua; eta, masoitzza, debekatua!

Ori dana Mussolini Jaurlaritzaz jabetu bezain laister egin ba'zan..., eta illabete batzuk lentxeago Aulki Donea, eta munduan jende asko, Itali komunismoaren mendera erori aal izateko arriskua egiazkoa zala usterik zeudela, kontuan artzen ba'dugu..., eta lan-uzte eteengabeen bidez aspaldian arttega zeuden urietako karriketara pakea, "l'ordine"!, itzuli zala..., eta, Laterriak asitako erri-lanen bidez, geldirik zeuden langilleei nun-jatekoa-irabazi sortu zitzaiea aztutzen ez ba'dugu, errez aditu dezakegu Pio XI'ak Milan'go Katoliko Ekintzaren lendakari zan Dominioni konteari esan ziona: "asko egin aal izango dugula uste dut, Mussolini onen agintepean".

Ez zegoan isilik Mussolini ere: "Gure gizartearen zutabeetako bat Eliza dalako, aspaldi eman genduan guk, Elizarik ukituko ez dugularen itza. Orra bâ; Ez dugu Elizarik ukitu; askoz gutxiago, kaxkarragotu. Sendoagotu egin ditugu, alderantziz, Elizaren aala eta ospea". "Izan ere, Erroma ez daiteke bizi orokortasunezko, unibersalitatezko, asmorik gabe; nik, ordea, dasaizuet, gaur Erroma'ren orokortasun bakarra, Batikano'ko orokortasuna dala. Nik dasaizuet, Erroma zaarraren izpiritua, antziñako latindarren inperiotzaren izpiritua, gaur, soilki, katolikotasunean irauten digula bizirik, kristauditasunaren izpirituan".

Mussolini sozialista katoliko biurtu ote? Ez. Mussolini ez zan beñiere katolikoa izan. Ez zuan sinispen bereizi bat izan, eta sinispenik gabe il zitzaigun seguruaski. Bere maixuak Nietzsche eta Machiavelli izan ziran.

Marx eta Lenin, eta baita Hitler bera ere, filosofi bat asmatzearen zale izan ziran; Mussolini, ez. Orregaitik Itali'ko fatxismoak ez zuan filosofirik izan.

Mussolini soilki bere-buru-zalea, eta aberri-zalea, izan zan. "Agindu", nai izan zuan; eta Itali aunditu. Ta ori lortzeko, Machiavelli'ren araura, jokaera egoki guztiak erabilliko ditu eta lagundu lezaiketeten gizakume eta erakunde guztietaz baliatuko da. Orregaitik Aulki Donearekin len-bait-len pakeak egin nai izan zituan.

Orain, Aulki Donearen aldetik Frantzisko Pacelli letraua, Eujenio Pacelli Alemani'ko nuntzioaren eta gero Aitasantu izanen zanaren anai zarrena ari zan, XI Pio'ren ordezkari, lanean; eta, Jaurlaritzaren aldetik, Mussolini berbera. Izan zuan lan zailik Frantzisko Pacelli'k; bai Mussolini bai Pio XI'a jite gogorreko gizakumeak bait ziran; eta alkarrizketa bera ere arras neketsua izan bait zan.

200 billera egin ziran, iru edo lau ordukoa bakoitza; eta, ori, aspertzeko naikoa ba'zan ere, billera bakoitzaren ostean beste iru edo lau orduko eseraldia zuan Frantzisko Pacelli'k Aitasantuarekin; ez jolasaldi gozorako; gero ta geiago ari bait zan Pio XI'a fatxismoagandik urruntzen. Frantzisko Pacelli bera ere, Pio XI'ak Gasparri Kardenala baztertu zualako zegoan Aulki Donearen ordezkartizan.

Asko sentittu zuan Gasparri'k baztartua izatea, baiña Mussolini'ren lagunegia ote zalako galdu zuan Aitasantuaren konfiantza.

Frantzisko Pacelli'k ederki burutu zuan eman zioten lana; ta "La Conciliacione", ots, Aulki Donea ta Laterriaren arteko "Pakeratzea", Letran'go Itunaren bitartez, 1929'ko otsaillaren 11'ean lortu zanean, Markes egin zuan Pio XI'ak Frantzisko Pacelli leial ura, eta Printzipe, Bitor Imanol III'ak.

Merezi zuan dana Pacelli'tar Frantzisko'k.

Itun aren bitartez, Pio XI'ak betirako uzten zituan Eliz-Laterri izandako lurralde guztietarako Aitasantuak izan zezazkean eskubide guztiak; eta Itali'k, Città del Vaticano izeneko Laterri iarearen Errege ezagutzen zuan betirako Aitasantua; eta Elizarentzat txit onuragarria zan Konkordato bat onartzen zuan.

Laterri txikia, Batikano'ko Uria; 104 ektareko lur-pusketatxoa, baiña zearo Laterri iarea ala ere, Laterri batek dezazkean eskubide guztien jabea. Naiko Laterria, munduaren gogo-gidari besterik izan nai ez zuan Pio XI'arentzako. Zenbat eta txikiagoa erregetasunezko agintaritza ura izan, ainbat eta aundiagoa egiten bait zan Aitasantuaren Izipirituzko Agintaritza.

Letran'go Itunari baiño garrantzi geiago ematen zion Pio XI'ak Konkordatoari. Baita Itali'ko Jaurlaritzak ere, Itunak ez baiña Konkordatoak eraman bait zituan, bere prestaketarako, ainbeste eseraldi eta ainbeste ordu. Itunak ez zuan eragozpenik aurkitu. Al, bai; azkeneko orduan Itali'ko Errege Bitor Imanol III txatxuarena: Lotsagarri omen zan iñori Itali'ren puska bat ematea. Puska ori, Itunak Aitasantuari "ematen" (?) zion Batikano'ko Uria zan!

Konkordatogintzan puntturik latzena, gaztediaren eziketa izan zan; beretzat nai bait zuan eginkizun ori Mussolini'k osoro. Aitasantua, makurtu zan Scouts katolikoak Alderdi fatxistaren "Opera Nazionale Balilla"ren zaintzapera igaroazteko baimena ematera, baiña tinko babestu zuan Katoliko-Ekintzaren askatasuna. Ontan, Mussolini'k makurtu bear izan zuan

burua. Balillentzako kapillauak izendatzen uzteko ez zuan eragozpenik ipiñi.

Ez dezakezu pentsa zenbateraiñoko garrantzia ematen zion Pio XI'ak Katoliko-Ekintzari. "Katoliko-Ekintzaren Aitasantua deitu izatea nai nuke", idatzi zion 1929'an Segura Kardenalari.

Mussolini ez zan konkordatoaz Aitasantua bezain gustora gelditu, eta Konkordato ura Itunetik gauza berezia lez euki nai zuan; Itunaz bai, Itunaz oso pozik bait zegoan. Itunik ukatu gabe Konkordatoa ukatu aal izateko eran ipiñi nai zuan bere burua. Baiña Mussolini baiño argiagoa, eta baita burugogorragoa ere bazan Pio XI'a, eta onek, batera, biak, dokumentu bat-bakarra bezala, nai izan zuan argitaratzea eta beti eukiak izatea:

"Simul stabunt, simul peribunt" izan zan aren epai-itza: "Batean egonen dira eta batean jausiko dira". Bazekian bâ, Mussolini'k ez zuala sekulan Ituna "jausten" lagako.

Itunaz eta konkordatoaz gaiñera egin zan une berean Letran'en dirutratu bat ere. Tratu orren bitartez 750 milloi lira eman zizkion Itali'ko Jaurlaritzak Aulki Doneari, eta, gerora, urtean errenta bat emanen zion. Ezer gutxi; diru ura, geiena, bere Laterritxo kixaz tajutzen gastatu bait zuan Aitasantuak.

(Batikano'ko Uriaz gaiñera Aitasantuen agintepean ipiñi ziran Erroma'ko lau Basilika Nagusiak; Assis'ko, Padua'ko, eta Loreto'ko Jauretxeak; Castelgandolfo; eta Erroma'ko zortzi jauregi eta idazlantegi: Letran'goa, "Ofizio" Donearena, Kantzilleriarena, Datariarena, Propaganda Fiderena, Bikariotzarena, eta Sortalde Auzietako Kongregazioarena).

"Simul peribunt"! "Alkarrekin jausi bearko dute"! Pio XI'aren denboran ez zan gaizki pentsatua. Baiña gaur? Komunistek Itali'ko Jaurlaritzara igotzen ba'dira, seguru da Konkordatoa ukatuko dutela. Konkordatoa jaustean, konbeni ote zaio Elizari Ituna ere jaustea?, ots, Aitasantuak bere erregetza eta bere askatasuna galtzea?

Pio XI pozik gelditu zan Elizarentzat eskatu zituan ia abantail danak eman zizkion konkordato arekin; "Jaungoikoa Itali'ra ekarri, eta Itali Jainkoagana eraman omen zuan bâ", Aitasantuak berak zionez, konkordato amaitu berri ark.



Benedikto XV'ak bezala fede aundia zien Pio XI'ak konkordatoei. Baita Leon XIII'ak ere. Baiña, iruek era berean irrika zuten Elizaren babespenaz landa, bazuan Aitasantuotako bakoitzak bere elburutxo berezia konkordatogintza onetan. Leon XIII'arena, Aulki Donearen diplomaziarentzat ospea, eta Aitasantuen erregetzaren birrezarketarako laguntza lortzea, izan zan. Benedikto XV'ak, berak "presenzia" esan oi

zuana billatzen zuan, gizartearen erakundean, edozertarako prest Agintarien artean "egotea". Pio XI'ak, gizartearen "kristauditzea" zeukan begien aurrean, eta "kristatuditze" edo "kristiandaditze" ori lortzeko, Katolik-Ekintzaren sendotasuna.

Pio XI'a izan zan konkordato eta alkar-artze geiena izenpetu zizkigun Aitasantua: 17!

Letoni'rekin, Poloni'rekin, Babiera'rekin, Lituani'rekin, Txekoslobaki'rekin, Austri'rekin, Errumani'rekin, Prusi'rekin, Baden'ekin...

Baiñan, bereiziki, Alemani osoarekin egin zuana, eta Itali'rekin izenpetutako au dira arras ospetsuak.

Ez ziran danak Erroma'n, Aitasantua eta Gasparri, edo onen ondorean Estadutzako Idazkari izan zan Eujenio Pacelli bezain konkordatoen miresle. Konkordatoetan Eliza munduko Potentzien aurrean munduko beste Potentzi bat bezala geiegi agertzen omen da bâ! Konkordatoek ebanjelizatzeari baiño diru-interesei eta legeengandiko bentajak lortzeari geiago begiratzen omen diote.

Beste batzuen iritziz, idatzitako paperetan ainbesteko fede eta uste ipintzea, bai omen zan geiegi ziko bakuntasuna ere: "ingenuità" (Sforza): gizagaixokeria: erriak esango lukean lez, "inoxentekeria".

Gaur, konkordatoek, etsai asko dituzte, gure artean batez ere, oroipen txarra utzi bait digu azkena izan dugun konkordatoak. Eta, seguruaski, konkordatoek ez dute gaurko egunetarako balio.

Baiña gaurko balio ez duan gauzak balio zezakean atzo: "Distingue tempora et concordabis mora" dio legiztilari zarren esaerak: "Ez itzezu denborak nâsi, oiturak ulertu nai ba'dituzu". Pio XI gaiñera ez zan "gizagaixo" bat. Edestilari primerakoa zan. Eta bazekian, denbora bakoitzean, denbora ark eskeintzen dituan posibilitateak erabili bear dirala.

Konkordato aiek on aundia ekarri zioten Laterri bakoitzean Elizari... "orduan".

"Gero" konkordato aiek kaltegarri biurtu ba'ziran, aldakuntzarik egiñ ez izatea ez da Pio XI'aren erru.

Elizari ez ezik on egin zieten Laterriei ere konkordato aiek, batez ere, Poloni bezala birpiztuberri ziran Laterriei eta askoz geiago oraindik Letoni bezala askatasunera orduan jaiok ziranei; beren buruenganako konfiantza sendotu bait zien.

Al, ta izugarritziko ona... ¡demokraziari! egin zioten; konkordatoen eragiñez Eliza gobernu demokrazikoiekin lan egitera bearturik aurkitu zan bâ, ta örrek, lengo gorroto ta ikarak aztuta demokrazia ulertu aal izateko gauza egin bait zituan katolikoak. Puntu ontan ez zuan, ¡oraindik!, Pio XI demokrazi-zaleak katoliko eskubitar ertzakoen uste onik irabazi. Au garbi utzi bearra da: Pio XI'a demokrazi-zalea zan.

Garbi utzi bearra da, batez ere aren teokrazikeriz eta fatximo-tankeraz



ari geran atal onetan, Pio XI'aren teokrazitasuna, zearo eta osoki erlijioari, izpirituari, animei, zegokiona zala. ¡Nola, gaiñera, izpiritu utsaren mundukoal Pentsa: Maritain'en iritziz, Pio XI'aren merezimendurik aundiena, bere jarduketa ororen sustraia ain izpiritukoia izan arren, izpiritu uts garbien, gogapenen, teorien, eraspenen, eta gogo-bizitza bakarraren zuzendaritzaren munduan gelditu ez izana omen da.

Ez zan orrelako arriskurik: "Aitasantu baiño len, mundu ontako gizona naiz, eta mundu ontako gizonei nai diet itzegin, mundu ontan aurkitzen dituzten arrisku eta nekeetan gizon oiei laguntzeko", esan zion Aitasantuak berak Marc Bonnet adiskideari.

Fatxismoari-buruz, berriz, Pio XI'a, demokraziaz bizi zitekeala uste zuan Laterri guztietan demokraziaren aldeko izan zala, esan bearra dugu. Eta aren demokraziaganako zaletasuna norainokoa zan ulertzeko oroitu dezagun Españi'n ere, Errepublikakoan, demokrazia aurrera atera zitekeala uste izan zuala, eta Errepublika sendotzearen alde jarri zala. Bere-bere gogoz ez zion Franko'ren gurutzadari ere oso begitarte arraiarekin begiratu sekulan.

Demokrazia komunismoak zanpatu zezakean errialdeetan bakarrik egin zion abegi on fatxismoari, eta ori, bere aitasantutzaren asieran, fatxismuak, ez Itali'n ez Alemani'n, oraindik bere egiazko izakera agertu ez zuanean. Gero, fatxismo orotik urrunagotzen eta urrunagotzen joango zan; eta azkenean, era iriki-irikian, fatxismo mota guztien aurka jarri zan. 1935'ean izan zan aldakuntza ori.

Baiña itzuli gaitzen Itali'ko konkordatoa izenpetu zan denboretara. Konkordato artan ezer gutxi eman zion Itali'ko Jaurlaritzari Elizaren Laterrietaz landa. Bazan ori zerbait ematea katoliko integristentzat: Tol; Napoles'ko mugaetatik Po ibaiaren ertzetara ia Itali'ren gerrialde guztia! Ez zan ordea ezer Pio XI'arentzat, edestilari ikasia izanik, ondo bait zekizkian Laterri aiek askotan Aitasantuei ekarri zizkieten okerbide ta kalteak, baita're Aitasantua mundu ontako errege ez baiña Elizaren Buru dala, eta ori kixaz izan zedin, zuan askatasuna zaintzeko, lur-puxketatxo bat naikoa zuala. Ona zer esan zuan bein adiskide artean, bere Laterritxoaz jolasean:

"Bai; bada zatiko txikia, baiña bada munduko almenik aundienaren oifarrri izateko naikoa ere. Eta, orrek, ez neurriek, egiten dute benetan Aundi; bere-baitan Izpirituzko Almen Nagusia errutua egoteak izpirituzko izakia biurtzen bait du lur-pusketa ori, eta Izpirituzko Almen Garai orren Nagusitasuna eta Aunditasuna txertatzen bait dizkio".

Arrazoi zuan. ¿Zer, ludian, Batikano'ko Laterri koxkor ura baiño aundiagorik?



Batera demokraziale eta "teokraziale" izan zitzaigun Aita-santu oniburuz, azkenean zer pentsa?

- Gizon aundia izan zala.

- Egiaz eta bene-benetan izan zala demokraziale.

- Politikagintza, Alderdi politikoen eskuetan uzteko zale izan zala.


- Alderdi politikoetan konfiantzarik izan ez zuela esaten dugunean, ez gerala politikaz mintzatzen ari, mundua kristautzeas baizik, eta ortarako Alderdi politikoek ez ziotela balio, esan nai dugula. Izan ere, Alderdi politikoak ez bait dira ortarako.

- Ortarako, mundua kristautzeko, osoki kristautzeko, Katoliko Ekintza sortu zuala. Katoliko Ekintzak sortu eta eziko zituan, Alderdi politiko, langilleen sindikato, kultur-erakunde eta gaiñerako gizarte-erakunde guztien bitartez, gizarte osoa kristautuko zioten buruzagi eta zuzendari katoliko zintzoak.

- Pio XI'ren "teokrazi" ura, ez bait zan ori besterik izan: Gizartea, eta gizarteko erakunde guztiak, kristau biurtu nai izatea. Eta, ori, soilki gizarteari Kristo'ren dotriña erakutsiz, indarkeri eta gogorkeri orori oso-osoa uko-egiñik!

- Pio XI'aren Teokrazia ez zan sekulan erdiaroko ura bezala politikazko Teokrazia izan. Pio XI'ak ez zuan politikazko agintaritarik nai. Ez zuan Imperatore berri bat izan nai. Ez zuan erregeak kendu eta erregeak jartzeko politikazko aalmenik gura. Bazekian ori ez zala aitasantuen eginkizuna. Demokraziale sendoa zen. Soilki, Jainkoaren ordezkari bezala, Jainkoaren izenean espirituari dagozkion auzi eta arazoetan munduaren gidari izan aal izateko eskubidea eskatzen zuan.

- Eta orain, galdera bat: Ori Teokrazia al da? Izen ori Pio XI'aren pentsaerari ematea, zillegi al zaigun gauza al da? Baietz erantzuten ba'didazu, ori teokrazi-nota zearo erri bat dala esan beariko dizut, zorioneko teokrazi berria, erdiaroko teokrazi zaar arekin zer ikusirik ez duana



## XI PIO TA FRANTZIKO FATXISMOA

Benedikto XV'ak asitako politika-bide zabal irikia jarraituaz, ederki konpondu zan Pio XI'a, erkalaren araura gobernatzan ziran Laterriekin. Txekoslovakia'n izan zutuan iskamillen batzuk, eta, Calles Lendakariaren Mexiko'k erkalderriz izena merezi badu, baita Mexiko'n ere.

Bi Aitasantuen ariketa guztiaren eragillerik bizkorrena pakearen irrika izan genduan, eta orregaitik Pio XI'ak ere ats-eman zien nazio-arteko pakearen billa lanean zebiltzen erakunde guztiei, Amerikako "Catholic Council for International Collaborations" onuragarriari adibidez, eta Suizititik Benedikto XV'ari gudatekoan ainbeste lagundu zion "Union Catholique des Études Internationales" izenekoari.

Baiña, bi Aitasantuen samitierako, oso gutxi, millakatzoren batzuk bakarrik ziran, munduko katoliko guztien artean, nazio-arteko pakearen alde gogo osoz lan egiteko asmotan zeudenak, kristaudi geiena abertzalekeriak txorabiatua bizi bait zan.

Orretxegaitik, ain zuzen izan zan Benedikto XV'a, katolikoan aldetik ere, ikusi dugun bezala, ain oker ulertua, gaizki ikusia, eta gutxi maitatua.

Pio XI'ari, --batez ere izkillu-ugariketaren aurka "Nova Impendent" entziklika idatzi zuan ezker--, "pacifiste" deitu zitzaion, "Pakezale"; izen ederra, bai noski, baiña itz arek, gero Franko'ren agintzapeko Espaini'n "pacifista" itzak izanen zuan erdeñuzko zentzu bera zeramakian, eta koldarra esan nai zuan, kemenik gabeko gizon emekoia.

Gizon borrokalari garaillea, zan, urte aietan, gizakume abertzalearen eredu miretsia.

Kristaudiaren geiengoa ez ezê, txorabiatu zigun orduango abertzalekeri txatxuak, Teologia bera ere: Morala, Oituriztia, batez ere, egiazko Teologirik, Dogmaen azterketari dagokion Teologirik ez bait zan apika, katolikoan artean, mendearan lendabiziko 25 urte aietan izan.

Izan..., izan bezala, bai: izan zituzten apaizgaiak dogmatikari-buruzko esku-liburuak ugari, "ad mentem Sancti Thomae" idatziak danak, baiña oso gutxi balio zuten liburutxoak, lén esana birresan besterik egiten ez zutelako. Liburu aien egilleek ez bait ziran oartzen "ad mentem Sancti

Thomae", ots, "Donetomasen pentsaerara" lan egitea, ez dala arek zabalki esan zuana bera, berriro laburki jalkitzea, arek orduan bere denborako arazoak aztertzeo ibilli zuan "era", orain gure denbora ontako arazoak aztertzeo erabiltzea baizik.

Tomas Deunal Ari ziran bâ azkeneko Aitasantuek tomismoa berbiztuarazteko entziklika-idazketan gogotil Baiña entziklika oiek zitu laburra eman zuten teologi-jakintzan, agian Aitasantuek entziklika oietan azaltzen diguten "tomismoa", "tomastasuna", egiazko "Tomas'en Era" ez dalako. "Lengoa berriz esate" ori, ez bait da, iñolaz ere, Tomas Deunak berea lez artuko lukean "tomismoa".

Ala ere, gure teologia, aro artan, arrizko eta ondarrezko lekaro antzua izan zala uste ez dezazun, pozik aitortuko dizugu izan genituala pentsalari bikain batzuk, Max Schele lentxeagoko irakasle jatorraren jarraileak. Bi izen aipatuko dizkizugu, zuk ondo ezgutzen dituzunak biak: Karl Adam, eta Romano Guardini. Aurreneko aren idazkiak izkuntza guztietara izan ziran itzuliak; bigarren onen itzala txit izan zan unibersitate-jendeen artean aundia. Baiña denbora aietan teologilaririk gaillurrena ez dugu katolikoa, protestalaria baizik: Karl Barth, eta teologi-lanik bikaifena, aren "Dogmatika" galanta.

Aipa dezagun, irazezan, zori ohea izan zuala tomismo berriak filosofiarren baratzen, gizon adimentsu, langille, egizale porrokatu baten ariketari eskerrak. Onen izena bai duzula, ondo ezaguna: Jacques Maritain.

Gizandi onen alboan, naitanaiez aipatu bear ditugu, mailla beeragokoan, Sertillanges domingotarra eta Marechal iñakitarra. Eta bi auek baiño aundiagoa, Maritain'en aurretik jardun zan Mercier Kardenala.

Filosofiarren ataritik sar gaitezen moralisten arlora, gure mendearen aurreneko erdia teologilariena baiño geiago moralistena izanen bait da bai katolikoen artean, bai protestalarien artean ere.

Oiturizti edo Moraliztiak, izan zuan iraulketa argi-argi bat bigarren Ludi-Guduaren inguruko urteetan, gizarte-auziei ordurarte iñoiz eman ez zitzairen ardura bereizia asi bait zitzairen orduan ematen: gizadi osoaren senidetasunari, adibidez, nazioarteko pakeari, ekonomiari, aberastasuna zuzenki banatzeari... Pozik aitortuko dugu, iraulketa orren eragille, sozialismuaren zabaikundearekin batera, Benedikto XV'aren eta Pio XI'aren entziklikak, itzaldiak eta ariketak izan zirala.

Moralista oien aitzindari, Belxika'ko iñakitar bat, mundu guztiak ezagutzen duana: Jacques Leclercq maitagarria, Izadiagandiko Moraliztian lan bikain mardul oparoaren egillea.


Baiña mendearen lenen urteetako moraliztia ez zenuan orrelakoa, estua baizik, itxia, eta individualista, gizakumea izaki soil bakarra ba'litz bezala aztertzen zuana, Saint Cyran'go baionatarraren jantsenikeritik oraindik zearo garbitu gabea. Puntu batean bakarrik zizun gizartea ukitzen,

eta puntu ori ain zuzen abertzaletasuna zan.

Gudateko odol-sarraskian puztuta, abertzaletasun ori iñoiz baiño suminkorragoa zanean jazo zitzaion Pio XI'ari Elizako ibillera zuzentzea. 1924'atik 1925'era egindako enkuesta batek auxe erakutsi zigun argi: "Erabaki bat artzeko orduan, katoliko geienek, baita eliz-gizonek ere, aberriaren onturrea, interesa, garrantzi geiagokoa epaitzen zutela Elizarena baiño": "Ils font passer practiquement l'intérêt national avant l'intérêt de l'Église" (Vaussard).

Ori, abertzalekeri usteltzeko uste makur ori, totalismorako eta fatxismorako izan daitekeen biderik ziurrena zan, ezbairik gabe.

Eta beste iñon baiño lenago Frantzi'n jaio bait zan totalismo zekena, Iraultza-aroko "jacobins" aien naziokeri zipotz aren ondorioz... eta XIX mendean totalikeri trakets orren buruzagi Charles Maurras izan bait zan, atal bereizi batean aurkeztuko ditugu XI Pio'k Franzi'ko fatxismoarekin eta fatxismo orren buruzagiarekin izan zituan arazoak.



## PIO XI'A ETA MAURRAS

Frantzi'n eman zion lanik geiena Pio XI'ari eliztarren, --benetako eliztar zintzoen--, abertzalekeri orrek; Frantzi'a izan bait zaigu, izan ere, Robespierre'ren iraultza-arotik asita De Gaulle'ren aunditasun-ametsen egunetaraño, "la Patrie" izeneko "Jainkoeme" txoroaren gurtzaillerik nabarmenena eta arroena. Frantzi'n sortu ere sortu bait zan, ain zuzen, gure denborotako abertzaletasun-mota au.

Eta, Argikuntza erdi-jainkogabearen altzoan ernetu eta Iraultzaren bularretan azia izan dan arrokerizko abertzaletasun onek, katolikoak izan ditu gero maitalerik eta babeslerik sutsuenak; katoliko integristak batez ere: eskubitarrak!

Pio XI'aren agintaritzakoan Frantzi'ko katoliko "la-Patrie-gurtzaille" gogor oiek danak, "Action Française" izeneko igikundeak, mobimeentuan, zeuden bildurik. Mintzatu gera leenago igikunde ortaz, Pio X'aren aitasantutzakoan, eta esan dugu bere buruzagia Karlos Maurras zala, gorputzez koxkorra, baiña adimen argikoa eta naimen kementsukoa. Zillegi bezaigu buruzagi borrokalaria onen filosofiaren atalik nagusienak azaltzea, bera dugu bâ fatxismoaren aitzindaria politikaren aldetik:

- Nazio bakoitzak badu, bere zertasunaren muin, alako indar bizi izkutuzko bat: "Physique des Moeurs", esaten zion Maurras'ek indar orri, "Oituren Fisia", agian euskeraz obeto, Oiturengandiko "Dinamika", "Indarra", "Igikuntza", "Bultzakada". Dakusazunez, irakurle, endakerizale bat geiago izan genduan Charles Maurras, endakeria fatxistek Itali'n eta Alemani'n modan ipiñi zuten garai aren aurretik. Fatxismo guztien kutzia, endakeria! Españi'n ere, --nun eta Españi'n!--, laister, gurutzada aurrera atera aal izan bezain laister, ipiñiko bait zuten frankotarrek ospe aundiko "Dia de la Raza" bat!

Chamberlain'ek Endaren sorburua Odolean ipintzen zuan bezala, Oituretan ipiñi zuan Maurras'ek, ez bait zezakean onek, ainbat nazionalitatez osotua dan Frantzi'n Odol batez itzegin.

¿Oiturak ere franko ezberdiñak dirala an, Saboia'tik Euskalerrira, Katalauni'tik Normandi'ra edo Alsazi'tik Bretoierriera? Bai noskil, baiña



Maurras'entzat Nazioa, Latterria zan: Richelieu'k, eta Luis XIV'ak eta Bossuet'ek, Robespierre'k eta Voltaire'k, Chateaubriand'ek eta Maistre'k edo Bonald'ek, eta Bonapartetarrek, eta Clemenceau "Katamotzak", eta Marne'ko borroka irabazi zuten gudari garailleek, bizkortu, apaindu, eratu ta birreratutako Latterria; eta orrela bai; itzegin zezakean orrela Maurras'ek Oituren Dinamikaren batasun batez, bai bait du Laterri orrek bere "era" bereizi bat.

- Nazioaren mamitzea Aberria omen da; "la Patrie"; eta gizonarentzat, beste ororen gaindik, Aberriak egon bear omen du: "La Patrie au-dessus de tout". "Ororen gaindik Aberria"! Hitlerarren "Deutschland über alles" zalako ura bezala! "Todo por la Patria", biurtu zuten gogapen ori Españ'ko falangistek.

- Oituren Dinamika orrek, bere lege bereziak sortarazten omen ditu, eta lege oiek Aberriaren onturrerako era egokian erabiltzea omen da Politika. Liberal zaarrak ekonomiaren legeak aldaezifñak eta ukiezifñak zirala esaten zuten bezala, politikaren legeak zirala ukiezifñak, esaten zuan Maurras'ek. Elizak ez du, beraz, politikaz mintzatu bearrik. ¡Utzi politikari, bere ariketan, pakean!, --"¡politique d'abord"! "politika aurrena!--, Aberriaren onturrerako politika ori egokia baldin ba'da, besterik gabe zuzena ere bai bait da. Machiaveli'k erakutsi zuan gauza bera!

- Elizak politikan zer esanik ez ba'du, Eliza baztertu bearra ote? Ez orixe!, Eliza bait da erribarrengo baretasunarentzat, ordenarentzat, oifarri seguru bakarra eta babes. Orregaitik, sinisgabeek ere benetan saiatu bear omen luteke, politiko yayoak balira, Elizari laguntzen. Oroitzen al duzu aburu berekoa izan zala Napoleon ere?

Baiñan Maurras, filosofilaria zan, eta gauzen zioa azaltzearen zale. Elizak ez omen du Naziobarruan pakea ezarri aal izateko almen "miresgarri" ori Nazaret'eko Kristorengandik artua. "Le Christ hébreu", "Kristo ebertarra", anarki-ereintzaille bat omen zan. "La Tradition de l'Église": "Elizaren aoz-aozko Jakintza Zârra", izan omen da "les turbulentes Escritures orientales" edo "sortaldeko Idazki zurrunbillotsuak" "kimatu, birreratu, eta zearo aldatu" dituana: "tronquer, refondre, transformer".

Entzungo duzu Mussolini onen antzeko zerbait esaten... Maurras'engandik ikasia zuan "zerbait" ori!

Gaztaroan idazten zuan Maurras'ek orrela. Gero, katoliko zintzo egiñik, ez zuan orrelako izketarik erabilli; baiña pentsakera ori beti egon zan, zomorrotua, aren mentalitatearen muñean.

Egunetik-eguneko politikagintzan ere Pio XI'aren aurkakoa izan zan Maurras, eta Maurras'ekin "action-françaisetar" guztiak.

Nazio-arteko pakearen aldeko zan Pio XI'a. Maurras'entzat nazio-arteko arremanetan zentzurik gabeko gauza zan "pakea". Bat bakarra bait zuan elburu gaillena: Frantzi'ren aunditasuna.

Frantzi-barruan, Pio XI'ak katolikoak Errepublikaren onartzera eraman  
nai zituan. "Action Française"ko integristak, ordea, Leon XIII'aren denboran  
lenen "Ralliement" ura ondatu zutenak berak edo aien semeak ziran, eta  
bero zeuden orain "le second ralliement" esaten zioten onen aurka. Ez  
aantzi gaiñera, maurrastarrak, geienak, monarkikoak zirala; erregezaleak.

"Action Française" igikunde bat eta izparringi bat zirala ere esan dugu.  
Bâ, izparringiak eguneroko solasa zuan nazio-arte "pakezale gezurtien"  
aurka aritzea, eta Aitasantuari ain kutun zitzaion "Frantzi eta Alemani  
alkarregana urbillagotzearen" aurka; eta Eliza ta Errepublika diplomaziazko  
adiskidetasunean sartu nai izatearen aurka.

Errukigabe iraindu zuan Paris'ko Nuntzioa, bere oiturak oso txukunak  
ez ziralaren aitzakiarekin. Gogor ekiten zion baita're Errepublikak Erroma'ra  
bidalitako enbaxadariari. Ain zuzen, orain enbaxadari zan onek menperatu  
zuan Maurras Frantzi'ko Akademian sartzeko nor-geiagoketan.

Alderdi baten antzekoa zan "Action Française" igikundeak, bazituan, --  
orain Españi'ko "Kristo Erregearen Gerrilleruek" bezala, eta ezkerreko ta  
eskubiko Alderdi fatxista guztiek bezala--, kaleetan iskamilla sortzeko eta  
propaganda zabaltzeko gaztedi-talde bereziak; "les camelots du roi":  
"erregearen txerpolariak". ¿Izen ori zergaitik? Antziñako Frantzi'n, erriz-erri,  
saltzeko gauzekin batera gogapen berriak ere, saltzaille bidalariek, "les  
camelots" edo txerpolariak, eramaten zituztelako.

Naste-borraste ori dana bazan Aitasantua kezkatzeko aifia, batez ere  
Aitasantuak "Action Française"ren oldozkera zabaltzen ari zala ikusi zuan  
ezkero: Seminarioetan, apaizgaien laurden bat, eta baita irurden bat ere,  
maurrastarrak ziran; eta 1925'ean Belxika'n gazteen artean egindako  
enkuesta batean, Maurras agertu zan, geiengo aundiarekin gaiñera,  
gaztediaren iritziz idazlerik onena.

Bazan zerbait egiteko garaia-ta, Pio XI'ak Pio X'aren denboran  
idatzitako Txostena eskatu zuan. Esan genduan orduan, Liburu  
Debekatuen Zerrendarako Kongregazioak 1914'ean Maurras'en idazkiak  
gaitzetsi zituala, baiña Aitasantuak gaitzespen ura argitaratzerik ez zuala nai  
izandu. "Ondo gaitzetsia dago" esan zuan; baiña bere esku artu zuan,  
gaitzespen ura noiz argitaratu. "Maurras Elizaren eta Aulki Donearen  
babesle jatorra da", esan zion Kongregazio artako Kardenal zuzendariari.

Egia zan beintzat, Frantzi'ko Errepublikaren liberaltasun zipotzarekin  
izandako borroka guztietan, eta modernismoaren gaitzespenakoan, bere  
alde izan zuala Aitasantuak "Action Française" guztia. Alde ortatik, zorretan  
zegoan "Action Françaisesekin" Aulki Donea. Badakigu San Pio X'a, politika-  
gaietan monarki-zalea zala.

Agian orregaitik, Maurras'en "alde ona" eta "alde txarra" kidatzerakoan,  
txikia iruditu zitzaion alde txarra alde onaren ondoan, eta, alde txar ura,  
beste era batera zuzendu zitekeala uste izan zuan. Sumatzen zuan gaiñera,

--Aitasantuak--, guda ler-zorian zegoala, eta une larri artan ez zuan, agian, Frantzi'ko katolikoen kontzientziarik naasi ta urduritu nai izandu. Danadala, gaitzespen ura argitara atera gabe il zan Pio X'a.

Beste kera bateko gizona zan Benedikto XV'a, baiña zentzu aundiko diplomazilaria ere bai bait zan, "gudak irauten duan bitartean, ez litzake munduan, gaitzespen au egoki ulertu aal izateko, animeko baretasunik aski iñun aurkituko", erabaki zuan, Indizekoek idatzitako Txosten ura irakurri zuanean.

Bazekian zer erabakitzen zuan; "Action Françaisetar" izparringi danen iritziz Benedikto XV'a "Austri'ren eta Alemani'ren alde saldurik zegoan gizona" bait zan.

"Indizeko" zuzendariak, ez ziran Pio X'aren denboran idatzi zuten Txostenik aurkitzeko gauza izan. Izkutatua? Galdua?

Pio XI'ak orduan Frantziar-gotzaidiko gizon ospetsu batek Txosten berri bat eratzea nai izan zuan; baiña Frantzi'ko gizon ospetsu aien artean ez zuan lan ori gustora artuko zionik idoro, --ipentsa nola zeuden an gauzak!--, eta Bordele'ko Kardenal zaarra, Andrieu, izan zan eginkizunaren jabe egin zana. 1926'ean argitaratu zuan Txosten berri ori. ¡Baiña nolako izkera gogor zakarrarez idatzia! Ez zuan gaiñera Maurras eta Maurrastarren pentsaera, "action-françaisetarren" pentsaeratik egoki bereizten, ez bait zuten auek danak aiek bezala pentsatzen.

Andrieu'k, ordea, danak kolpe batean oben beraren errudun epaitzen eta gaitzesten zituan. Arrazoez erantzun zion Dubois Paris'ko Kardenalak "Txosten artan, zuzentasunaren araura bearrezkoa zan bereiztasunik ez zala egiten". Biribiziko naasketa sortu zan katolikoen artean; eta naasketa ori mardulagoa egin zan oraindik Pio XI'ak, "jentiltasunaren berbizkundera" "une renaissance du paganisme" zanpatu zualako Bordele'ko Kardenala idazki baten bidez eskertu zuanean.

Fatxismu guztiek berezkoa duten Laterri-Gurketa zeukan begien-aurrean Aitasantuak itz oiek erabiltzean, baiña Frantzi'n ez ziran gauzak ain aratz ikusten. Egia zan Bordele'ko Kardenalaren Txostena gaizki egiña zala. Baiña egia zan, baita, gaizki egindako Txosten arek gaitzesten zuan gauzean, Aitasantuak zerbait gaitzesgarri ikusten zuala ere. Zer egin?

Maurin, Lyon'go Kardenalak, "itxoiñ-alditxo zugur bat" egiteko eskatzen zuan, eta arek bezala pentsatzen zuten elizgizon askok, eta baita sekularrek ere. Auen artean, "Action Française" igikundeak zuan gizonik adimentsuenak, Jacques Maritain'ek "Salbatu daiteke gure igikundera--", zion--, Aitasantuak adierazten dizkigun okerrak garbitzen eta ezerezten ba'ditugu". Ta, lan ori egoki egiña izan zedin, Igikunderako kapellau jakintsu batzuk izendatzeko eskatzen zien gotzaiei.

Gauzak, orrela, paketsu zeudelarik, murrastar ertzakoiek ondatu zuten gutzia; "Action Française" egunerokoaren bidez Aitasantuaren

berberaren aurka ekin bait zuten itsu.

Pio XI'ak, "dogmaren eta moralaren aurka zijoaztelako", murrastarren gogoetak ondo gaitzetsiak zeudela jakinarazi zuan bereala. Baita "Action Française" egunerokoak laister erantzun ere, "Non Possumus", "Ezin dezakegu", deadar egiaz. Ezin dezakegu Aitasantuari obeditu. Gure auzia ez da dogmari edo moralari dagokiona; gure auzia politikazkoa da.

Murras baiño azkarragoa eta erneagoa zan Mussolini. ¿"Non Possumus, ê? Mutill: Aitasantu bati Non Possumus esaterik ez zegok. Oker zabilzate", jakinarazi bait zion egun aietan Erroma'n zegoan Frantzi'ko adiskide murrastar bati.

Laister jakin aal izan zuten murrastarrek Mussolini'k arrazoi zuala. Orduan, gairera, izan zan aurkitua 1914'eko Txostena, Pio X'ak aginduta egia. Txosten artan zegoan, Pio X'aren izenpenarekin tinkatua, Murrastarren gaitzespena. Izan zan ura zori oneko idoroketa Pio XI'arentzat! Pio X'a bait zeukaten benetako Aitasantutzat murrastarrek. Benedikto XV'a eta baita azkeneko urte aietan Pio XI'a ere X Pio'ren "déplorables successeurs" omen ziran, "ondorengo tamalgarriak".

Aulki Doneak, bâ, Pio X'aren gaitzespen ura bera argitaratu zuan. "Action Française" izparringiaren gaitzespena bakarrik erantzi zion 1914'eko idazki arri, orduan Pio X'ak ez bait zuan izparringia ukitzen.

"Action Françaietar" askok makurtu zuten oraingoan burua. Ala, bereiziki, Maritain'ek. Liburu zoragarri bat idatzi zuan onek bere jokaera, arrazoi egokiz ondo jantzia, adierazteko: "Primauté du Spirituel", "Gogoari dagokionaren Leentasuna". Bada baike liburu ortan, Maritain, gero danok mirestuko dugun filosofilari bikaiña.

Baiña beste askok lengoan jarraitu zuten, apaiz eta praille ugariren laguntza isillarekin. Gotzai asko ere, --eta goigotzaietan 17'tik 11--, aiekin zeuden isillan.

Isiltasun gutxiagorekin mintzatzen zan Aulki Doneko jauregietan, "Action Française"ren alde, Billot Kardenala. Ez zan luzaroan mintzatu, kargu guztiak utzita, iñakitar uts bihurturik konbentu batera bere burua baztertu bearrean aurkitu bait zan. Frantzi'ko gotzaiei, Aitasantuak argitaratutako gaitzespena zuzentzat artzen zutela aitortzen zuan eskutitz bat izenpetuarazi zitzaien. Ori egin nai izan ez zutenak, baztertuak izan ziran. Baiña geienak, 116'ek, apaiki makurtu ziran Aitasantuaren esanera.

Apaizen eta prailleen artean, asko izan ziran zigortuak. Murras bera eta bere lagunak, eroturik bezala-edo gelditu ziran, dirudiane; ez bait dago bestela beren izparringietan zebilkiten izkera nardatsa ulertzeko modurik. Aitasantua ez zuten ifoiz bere izenez aipatzen. Aientzat Aitasantua "le menteur", zan: "Gezurtia".

Baiña, Aitasantuari "non possumus esaterik" ez dago. Laister ikasi zuan ori Murras'ek berak, gero ta bakarrago ari bait zan gelditzen. Eta oso

gelditu zan bakarrik, bere jainkotxikiak, ots, Frantzi'ko errege-leiñuaren buru zan Gisa'ko Dukeak ere 1937'ko "Azalpen" batean Aitasantuaren erakutsiak onartuaz "geiegizko naziozalekeriari", murrastarrek "nationalisme integral" esaten zienari, uko egin zionean.

Edestilari askok diote Pio XI'a gogorregi ibilli zala. Egia da ez zala biguiña ibilli, "Murrastarrei sakramentuetara urbiltzea, eta apaizei, aietako bati zearo damaturik ez zegoalarik, barkapena ematea debekatu bait zien. Baiña ez ziran biguiñago ibilli murrastarrak berak: Apaiz asko izan ziran "suspendituak", --ots, sakramentuak egin aal izateko baimenaz erantziak--, murrastarren ezkontzak isillean egin zituztelako edo eriotzako orduan damaturik ez zeudenei ere sakramentuak eman zizkietelako.

Izan ziran murrastarren artean, ordu latz artan bururik makurtu nai izan ez zutelako, illobira elizeko illetarik gabe joan ziranak ere.

Lan asko egin zuten gogortasun ura gozatzearen Gillet, orduan domingotarren Zuzendari nagusi zanak, Verdier, Paris'ko Kardenal eta "askorentzat Pio XI'arekin eta Pacelli Kardenalarekin garai artan Elizak zituan iru gizon ospetsuenetako bat" zanak (Onaindia), eta baita Teresetxo Deunaren Lisieux'eko lekaiame karmeldarrek ere. Ikus, integrismoa konbentuetan ere zenbaiteraiño sartua zegoan: Lisieux'eko lekaimetxo batek bere bizia eskeñi zion Jainkoari, Maurras'en itzulpenaren truke, eta lekaimetxo au il zanean beste batek egin zuan bere, aren eskeintza.

Zorionez, esan dezakegu, itzulpen ori, naiz astiro ta geldi, egin zala beintzat! 1926'aren abendu'ko 29'koa zan gaitzespen ura. Amaika urte geroago, 1937'an eskutitz eder bat bidali zion Maurras'ek Aitasantuari, eta bereala erantzun zion onek, bere eskuz idatzitako iru orri gozoen bidez. Gero "Action Française"ren zuzendaritza osoak idatzi zuan, bere damua agertuz, eta 1937'ko urte orren uztailaren 5'an iritxi zitzaien barkapena.



Aita Gillet aipatu dugu lentxeago. Bâ, domingotar orrek sartuarazi zuan Pio XI'a, beste Frantzi'ko ixkamil batean: "Sept" aldizkariaren auzian.

Españi'ko gudatekoan izan zan. "Sept" aldizkaria, domingotar sail batek sortu zuan, gizarte-jakintzak jorratzeko asmotan. Aita Bernadot, gizon jakintsu ta zintzoa, zan zuzendari.

Ondo gizon ezaguna da Aita Bernadot, bai bere liburuengaitik, bai "La Vie Intellectuelle" aldizkariaren sortzaille eta zuzendari izan zalako ere. Bi aldizkarietan Franko'ren aurka jeiki zan, eta Eliza Franko'k asitako guduan sarrarazi nai zutenen aurka; Toledo'ko Kardenal Gomá'ren aurka bereiziki eta aren atzetik zijean gotzaidiaren aurka. "Sept"en egin zuan bereiziki lanketa ori.

Aratza zan aren arrazoiketa: Guda Franko'k asi du; Franko'k erantzun

bear du gudaz. Franko'k asitako guda ori ez da gurutze-guda; anai-arteko guda da; ez du beraz, Franko'k eskubiderik Eliza gudara eraman nai izateko.

Españi'ko guda asi aurretik ere, Mussolini'k Abisini'ri ekin zionean, guda aren aurka atera zan "Sept". Mussolini asko asarretu omen zan; eta Gillet ere aski zapuzturik gelditu omen zan, Mussolini'ren adiskide zalako, edo, beintzat, Mussolini'ri onek egin zizkion mesedeengaitik, esker ona agertu bearrean aurkitzen zalako.

Baiña ez zitzaion orduan "Sept"i ezer gertatu. Españi'ko gudatekoan etorri zitzaion zigorra. Pio XI'aren onespenearekin Aita Gillet Zuzendari Nagusiak aldizkariaren argitaratzea debekatu zuan.

Baiña, Bernadot Frantzi'ko kultur-jendearen artean oso bait zan begirunez artua, Frantzi'ko enbaxadaria bera joan zitzaion Erroma'n Aita Zuzendari Nagusiari gaitzespen ari-buruz azaipenak eskatzea.

Ona Aita Gillet'ek Charles-Roux enbaxadariari erantzun ziona:

- Debeku ura ez zala iñolaz ere gaitzespen bat.

- Ez zuala, iñolaz ere, ez dogmari-buruz ez soziologiari-buruz, "Sept" aldizkariaren pentsaerarik ukitzen.

- Debekua, Domingotarren Anaidiaren altzoan urraketa bat eragoztearren egia zala.

- Españi'ko eta Inghlanderriko domingotarrak izan zirala zaratarik aundiena atera zutenak eta aldizkariaren debekua eskatu zutenak.

¡Praille-arteko borroka illun artara sartuarazi zuan, beraz, Gillet'ek Aitasantu zaar nekatual

Aldizkariak, izenez aldatuta, aurrera jarraitu zigun sekular-sail baten eskuetan.

Aita Bernadot'ek asko sufritu bear izan zuan, aren soziologi osoaren aurka bait zeuden integrista guztiak, bere Anaidikoak batez ere, eta Aitasantuarengana jo zuan zuzenean akiturik: bere bizi guztiko pozarik aundiena jazotzeko. An, ¡Erroma'n! "goxoki eta alaiki artu omen zuan Aitasantuak, eta patxadaz entzun". Eta, atseginki, "denboraz aurretik bizitzea, berrogeitamar urtez aurretik bizitzea beste errurik ez duzu zuk", esan omen zion; eta "orrelako gizonik ez zuala jendeak ulertzen", eta "orrelako gizonen pentsaeraren aurka jeiki izan zirala len ere beti jendeak". "Baiña Aitasantuak ulertzen zaitu. Zoaz. Zoaz ostera Paris'era, Aitasantuaren onespenearekin zure lanean jarraitzera".

Franko'ren aurka lanean ari izan zalako bere anai domingotarrek gaitzetsi zuten gizonari esan zion ori XI Pio Aitasantuak!

Irabazi zuan Bernadot'ek bere animako pakea; Pio XI'ak, ordea, ez du oraindik demokrazi-zaleen onginairik osoro irabazi.



Txekoslobaki eta Mexico aipatu ditugu atal onen asieran.

Txekoslobaki Lenengo-Ludi-Guduaren ondorean, 1918'an, jaioa du, bi abertzale sutsuen sorkari. Bi abertzale oiek, Massaryk, Errepublikaren aurreneko Lendakaria, eta Benes izan ziran; azkeneko au, Errepublikaren bigarren Lendakaria. Lau errialde ziran Laterri berria osatzen zutenak: Boemi, Morabi, Eslobaki, eta Erruteni'ren zati txiki bat: Karpat-Mendien sortaldera zegoan zatitxoa. Lauak, endaz, eslabitarrak dira. Eslabitar auetaz gaiñera bazituan mugen barruan alemaniar batzuk ere: Sudeteak, Laterriarentzat aizto eriogarri izanen ziranak.

Bi guduen artean Laterririk aurreratuenetakoa izan zan Txekoslobaki; baita aberatsenetakoa ere. Praga'n zuan Jaurlaritza Nagusia, egiaz demokraziaren araura tajutua. Oso liberalak ziran Jaurleri aiek, eta bateren batzuk, Benes bereiziki, masoiak ere bai omen ziran.

Baiñan naiz liberal demokrazizalea izan, sartu zan Jaurlaritza ura Aulki Donearekin auzietan, ikusi dugun bezala. Altaguztiz, Elizaren iskamiñak ez ziran batez ere Jaurlaritzarekin izan, apaiz sail batekin baizik, eta Boemi'n bakarrik.

Askatasuna politika-maillan lortu bezain laister, askatasun aren antzeko zerbait nai izan zuten apaiz aiek ere erlijioaren maillan. Ortarako Praga'ko goigotzaigoa Patriarkadu egitea eta boemiera liturgian erabili aal izatea eskatu zuten. Zailtasun aundirik gabe lortuko zuten ori Benedikto XV'arengandik beste zerbait geiago ere eskatu ez ba'lute: sekularrek Elizaren administraketan eskua sartzeko almena, eta, bereiziki, apaizek ezkontzako sakramentua artu aal izatea. Ezetz erantzun zuan Aitasantuak 1920'ean.

Orduan, apaiz aiek "Boemi'ko Nazio-Eliz Bereizi" bat osatu zuten, -- egiazko zisma--, bosteunen bat milla kristaurekin. Jaurlaritzak, bereala ezagutu zuan legekotzat Eliz berri ori; eta, orregaitik, maiz itzegiten da zentzu aundirik gabe edestilari katolikoen artean Jaurlaritza aren aürka gogorregi. Baiña demokraziako Jaurlaritza liberal batek, erlijio-era guztiei legearen babesean eskubide berak eskeintzen zizkien Jaurlaritza batek, naitanaiezkoa zuan jokatu zuan bezala jokatu bearra.

Naitanaiezkoa zuan Erroma'rekin arremanetan sartu bearra ere, bere laterkiderik geienak katolikoak ziran ezkerero. 1928'an izenpetu zan Pio XI'arekin "modus vivendi" edo "biziera-modu" bat, Aitasantuaren eta Laterriaren gustora.

Jaurlaritzaren eskarira kendu zuan Pio XI'ak 1931'an --gure ustez arrazoi osoarekin--, germanizale aundiegia zan Praga'ko Goigotzaia; eta Jaurlaritzak ere begirune aundiarekin erabili bait zituan arrezkerero Elizaren gauzak, pakean bizi izan ziran Bigarren-Ludi-Gudura arte Aulki Donea eta Txekoslobakia.



Goazen orain Mexiko'ra. Mexiko'ko edestia ulertzeko gauza dan kristauak erlauntza bateko marmarra ere ulertu lezake, Mexiko'ren edesti guztiaren zear puntu bat bakarra bait da beti ere segurua: seguritate ororen falta.

Mexiko'n Elizak jasan bear izan zuan zigorketaren berri eman dugu; oroi dezagun orain zigorketa arek bi aro izan zituala, eta bietan ezberdina izan zala. Aurrenekoan, Venustiano Carranza lendakariaren aroan, Frantzi'ko "jakobitarrena" bezala, era zoroan egiña; bigarrenean, Obregon inditarraren eta Calles erdi-inditarraren lendakaritzetakoan, metodo geiagorekin tajutua, Errusi'ko boltxebikeenaren antzekoa.

Alatagutziz, zigorketa aren kolperik gogorrena Carranza'k 1917'an osotu zuan "Keretaro'ko Kostitutuzioa" izan zan; eta Kostitutuzio aren atalik kaltegarriena, Mexiko'ko Laterri Alkartu bakoitzari, bere lurralderako zenbat apaiz bear zitan erabakitzeke eskubidea ematen zion ura. —

Era ezberdinean erabilli zuten eskubide ori Mexiko'ko Laterriek; baiña danak era zipotzean. Ala gertatu zan azkenean, Mexiko guztiak, 18 milloi biztanle katolikoentzat 293 apaiz baiño geiago ez izatea.

Eta legea gogorregia ez zanean ere, apaizei ez zitzaien pakean bizitzen uzten. Ala, uri askotan, ertzainiek karriketan arrapatzen zuten apaiza, espetxeratua izaten zan, eta baita erailla ere bein baiño geiagotan. Ederki jaso zuan denbora aietako giro zipotz ori Graham Greene'k "The Power and the Glory", "Almena eta Aintza", deritzan eleberrian.

¿Zenbat izan ziran eraildako apaiz eta katolikoak? 5.300, Calles'ek lendakaritza utzi zuanean, Daniel Rops'en iritziz, baiña zenbaketa ziurrik ez dugu.

Beste astakeriek, --adibidez jendea iltzeko makillak erabiltzeak, lekaime gazteak indarpean artuta zikintzeak, apaizaren bat bizirik illobiratzeak... apika, aipatzerik ere ez dute merezi, asko izan ez ziralako lendabizi, (indarpetutako 200 lekaimeak izan ezik), eta bigarren, orrelako ankerkeriak, eta aundiagoak eta ugariagoak ere, Mexiko'ko iraultzalariek beren arteko borroketan etsaiei uri bat artu ondorean-edo, maiz egin oi zituztelako.

Garrantzi geiago du lkastoletan, Errusi'n bezala, ateismua erakusten asi izateak. Txepelkeri utsa da, berriz, ikastoletako umeak kliniketara, emakumeen erditzeak ikustera, eramatea. Orri, Calles'en jendeak, "educacion sexual" esaten zion.

Askoz garrantzi geiago du, guretzat, zigorketa aren zioa ezagutzeak: gogorkeri ura dana zergaitik?

Galdera ori bera egin zion Benedikto XV'ak Guadalajara'ko Goigotzaiari 1915'ean, asia bait zan ordurako zigorketa.

"Gure asaben obenak ordaintzen ari gera", erantzun zion Goigotzaiak.

¿"Conquistadores" ziralako aien gogorkeriak?, itaundu zuan Aitasantuak ostera.



"Ori, gutxienik. Ori baiño geiago, inditarrak apaiztasunetik kanpora utzi izatea, dugu obenik aundiena", izan zan Goigotzaiaren azkeneko erantzuna.

Egia zion noski, baiña ez da ori arrazoi bakarra. Ala ere gustora entzungo zuan ori, andik lau urtera "Maximum Illud" entziklikaren bidez lurralde bakoitzean apaizgora eta gotzaigora bertako semeak igotzeko eskatuko zuan XV Benedikto'k.

Beste arrazoi bat aurkitu aal izateko bidea, katolikoek Jaurleri zigortzaillei osteketa indartsu bat egiteko aukeratu zuten ekintzan daukagu apika.

Ekintza ori bankuetatik diruak erretiratzea izan zan. Era egokia, Jaurleari amorrarazteko, baiña baita nor bere dirua babesteko ere, diru ori seguruago bait zegoan Iparreko Laterri Alkartuetan Mexiko'n baiño; era egokia, batez ere, Mexiko, diru-jario aren erruz, gero ta geiago txiroagotzeko.

Or: katolikoek zuzentasuna baiño dirua, eta elizjendeek erriko jende landerra baiño jende aundiki aberatsa maiteago izate ortan dago beste arrazoi bat. Aundienetakoa noski.

Mexiko'ko erria ez zan ordea Errusi'koa eta laister oartu ziran agintariak Elizarekin pakeak egin gabe gobernatzerik ez zeukatela. Mendietan tiroka zebiltzan "cristero"etaz aparte, gero ta aundiagoa zan erriak erlijio-auzietan gobernuari egiten zion jazargoa, aurkaketa. Zigorketak bizkortu egin zuan kristautasuna.

Bizkorketa orren aztarna zan, Guadalupe'rako ibildeunetaz gaiñera, langilleen sindikatoetan katolikoek artzen ari ziran indarra.

Bada Mexiko'n 300 jauretze dituan urixka bat: Cholula. Bâ, Calles'ek lendakaritza utzi zuanean zutik zeuden tinko irureun eliz aiek, katolikotasunak Mexiko'n bizirik jarraitzen zualaren adigarri. Zutik egon ziran zigorraldikoan ere. Zutik, baiña itxirik, bat ez gaiñeko Mexiko'ko beste jauretzeak bezala:

"La Basílica de Guadalupe estuvo abierta incluso en los días de la persecución, cuando la señora del Presidente Calles enviaba frecuentemente obsequios, flores, cirios a la Virgen Patrona"; "Guadalupe'ko Jauretze Nagusia zabalik egon zan zigorraldiko egunetan ere, eta maiz bidaltzen zituan arâ bere opariak, loreak eta argizariak, Birjiña Zaindariaentzako Calles Lendakariaren andreak ere" (Onaindia).

Jauretzeak ez zirala gobernuak itxiak izan, esan genduan beste atal batean: gotzaidiak itxi zituala, "Interdikto" baten bitartez; bai bait zekiten gotzaiek, orrekin erria Jaurlaritzaren aurka gogorki ipiñiko zutela. Baiño dirudianez gotzaiek uste baiño asarreago erantzun zuan erriak; Jaurlaritzaren aurka asarre, ari botatzen bait zion jauretze-istearen errua.

Darío Miranda, Tulacingo'ko Gotzaiak Alberto Onaindia'ri esan zionez,

gotzaiek berak asi omen ziran banaka banaka jauretxeak irikitzen, erria Jaurларien aurka geiekireren bat egiten asiko zalaren bildurrez. Lekuko bikaiña Onaindia'tar Alberto bera, jakintza-gizon burutsua, munduko baztarrik garrantzitsuenak ikusi dituana, ainbeste gizon ospetsu ezagututakoa, eta munduan izan dan irrati-izlaririk aundiena, Mexiko'ko zigorketa-osteko erlijioaren bizkortasunaz gu jabetzeko. Arriturik ikusi omen zuan erri aren Sinismen sutsua. Ez omen da sinismen ura siniskerizko itantto batzuk gabea, baiña ala ere ondo merezi omen du gure begirune guztia.

Eta egia dio. Ez bait da, eta ez bait daiteke, mundu onetan ezer osoro garbirik!

Jaurларitza oartu ba'zan Elizarekin konpontzea bearrekoa zuala, oartu zan Pio XI'a ere Laterriarekin pakeak egitea len-bait-lengo gauza zuala, jauretxeak itxi zituan "interdiktu" arek bai bait zuan bere arrisku aundia: Elizkizunik eta sakramenturik gabe, ots, janaririk gabe, Sinismena auldu, kaxkartu, eta il aal izatearen arriskua.

Calles'en ondorengo lendakariak Elizaren aurkako legei ez ikusia egiten asi ziran. Kolpean geiegi eskatu gabe, abegi onez erabilli zituan Aitasantuak ere ango gauzak. Eta gauza oiek gozatzen geienik lagundu zuana, aipatu berria dugun Darío Miranda izan genduan, Mexiko'ko Kardenal Goigotzai egirik. Ain zuzen Onaindia'ri zor izan zion, seguruaski, kardenaltza.

Ona nola gertatu zan gauza.

Mexiko'tik etortzean Pio XII'arekin ari zan izketan Onaindia. "Badakit Mexiko'n egon zerala. Emaidazu ango berri. Iberamerika'k maiz loa kentzeraiño kezkatzen nau, ango apaiz-urritasunaren erruz. Baiña Mexiko'k, ematen dit poz ederra ere, zigorketaren ondorean, itxaropen ederra sentiarazteko eskeintzen bait digu gairik aski". (Aitasantuaren itzak).

- "Mexiko Uriko Goigotzai izanen dana ezagutu dut an", esan omen zion jolas moduan Onaindia'k.

- ¿Mexiko'ko Goigotzai izanen dana? ¿Jakin al dezaket bere izena?--, Aitasantuak irriñoz eta arritu-itxurak egiaz.

- "Nerejaun Darío Miranda, Tulacingo'ko Gotzaia, zazpi izkuntzen jabe dana, edestilari eta edesti-idazlea, ekintza-gizona, Laterriko agintarien eraspena osoki irabazi duan eliztarra"--, Onaindia'k.

Jarduketa amaitzerakoan onela galdetu omen zion ostera Aitasantuak: ¿"Nola esan didazu dala Mexiko'ko Goigotzain izango danaren izena"?

- "Nerejaun Darío Miranda".

Laister zan Darío Miranda Mexiko Urira eramana.



Baiña Mexiko'k itaun bat dagigu oraindik. ¿Nork egin zuan Mexiko'n zigorketa?

Ez beintzat erriak. Mexiko'ko erria ez zan, Españi'ko urietako erria bezala, apaiz-jalea, apaiz-maitale sutsua baizik.

Eta beste itaun bat. ¿Zenbat izan ziran zigortzailleak?

Oso gutxi.

Baiña erria alakoa ba'zan, eta zigortzailleak ain gutxi izan ba'ziran ¿nola izan zan posible Mexiko'n zigorketa?

¡A zenbat gauza erakutsi lezazkioken teologiari, batez ere pastoraleko teologiari, itaun oien erantzun burutsu batek!

## XI PIO TA SALAZAR

Laterri-barrungo guduan Mikel osaba garaituta, Mari II'a, Brasill'eko Pedro I'aren alaba, utzi genduan Portugal'en erregin. Pakean gobernatu zuan Mari onek bere Jaurerria, eta baita bere ondorengo Pedro V'ak (1853-1861) eta Pedro VI'ak ere (1861-1889).

1889'tik 1908'ra Errege izan zan Karlos Lenengoarekin asi ziran iskamillak, onen ministro Joao Franco'ren diktaturtzak, asarretu bait zituan Portugal'eko demokrazizaleak.

Erregea bera eta bere seme zarrena, eraillak izan ziran, eta urrengo Erregea, Manuel II'a, aukitit botea 1910'ean.

Amar illabete iraun zuan "Bitarteko Gobernu" baten ostean, Errepublikak izan zan 1911'ren dagonillean ezarria, eta Errepublika orren Lendakari, Manuel Arriaga izendatua, Teofilo Braga'ren agintaritzak laburraren ostean. Arriaga'k lortu zuan erriko pakea. Baiña 1915'ean Arriaga'k lendakaritza utzi zuanetik, 11 urte motzetan, 10 lendakari izan zituan Errepublikak, eta auetako bat, erailla izan zan 1918'an: Sindonio Pães.

Matxinada-giroan bizi zan Portugal gaixoa; eta ortaz gaiñera, Lenen-Ludi-Guduan Alemani'ren aurka sartu bait zan, igarri'zakezu bere ekonomia nola ibilliko zan.

Gobernu liberalek, beren amorrua Elizaren aurka irauli zuten. Ez dira iñon liberalak Portugal'en bezain apaiz-ta-praille-zigortze-zaleak izan. Egia da Portugal'eko katolikoak, bazter geienetakoak lez, demokraziaren etsai zirala, eta diktatore eskubitarren aldeko. Ala, "o homem puro", "gizon garbia", izen ipiñi zioten luzaroan Joao Franco diktatore izanari.

Baiña katolikoek jokaera orren erruaren pusketa aundi bat liberalen burugabekeriarena da.

Manuel II'ak buruntza galdu zuan bezain laister asi zan, Teofilo Braga'ren lendakaritzapean "Bitarteko Gobernu" Elizari biziera mintzen. Erroma'rekingo adiskidetasunak ausiak izan ziran, ia gotzai danak beren gotzai-lekuetatik jaurtiak, jai-egunak kenduak, sotana-jantzia debekatua, eta ezkontzaustea onetsia.

1911'ko Kostituzioak, gainera, Erlijiosoen Ordena guztiak galerazi zituan, eta..., --jtori'zu ozpin-ttannta bixigarri bat!--, apaizei ordainduko zitzairen saria apaizen alargunek eta umezurtzek ere jaso zezaketela erabakitzen zuan oinarri lege arek--.

Lege egin zuan, baita're, Elizaren eta Laterriaren arteko bereizketa. Bereizketa auxe, ona zan Elizarentzat, Aitasantuari iareki Portugal'eko gotzaidia aukeratzeko eskubide osoa ematen bait zion. Baiña, orduan, ori, bereizketa, Pio X'aren aitasantutzakoan, Jaurlaritza batek egin zezakean obenik astunena zan, eta zintzo jeiki ziran, agindu orren eta kostituzio osoaren aurka, benetako erregezale ziran gotzaiak: Portugal'eko gotzai guztiak.

Gotzai aietako batzuentzat iraiña eta besteentzat erbestea izan ziran Jaurlaritzaren erantzunak; eta seminarioak arrapatzea, eta Koinbra'ko Unibersitate ospetsuan Teologi-Fakultatea ezereztea.

Seminarioetan erakuskintza Laterriaren zuzendaritzapean eginen zan, ordura ezker bere-egin zituan bâ, Laterriak, seminario guztiak.

1911'ean, matxinadan jeiki ziran erregezaleak; eta 1912'an berriro. Bi alperrikako iraultza-saio aien buruzagia, "el legendario y caballeroso" Enrike de Paiva Couceiro izan zan, espaiar integristen izkeran. 1917'an, zut genduan oster matxinada, eta kolpe onen bitartez Sidonio Paes eskubitarrak artu zuan lendakaritza.

Katolikoa zan eta agintari yayoa. Berealaxe ezereztu zituan Elizaren aurkako legerik gogorrenak, eta atzerrian zeuden gotzaiiei deitu.

Erne bait zegoan Erroma'n Benedikto XV'a, bazirudian Portugal'en gauzak zuzentzera zijoazela, are geiago auteskondeek Paes lendakariari geiengo nabarmena eman ziotenez gero. Portugal, bai noski, katolikoa zan, eta Lendakari katolikoari eman zion ia osoan bere konfiantza. Baiña Paes eraila izan zan bereala.

Ala ere, aren urtebeteko lendakaritza ez zitzaigun alperrikakoa atera, bide berri bat erakutsi bait zien Portugal'eko jaurlariei: Bereizketaren giroan ere Elizarekingo konponketa-bidea.

Elizak aiña irabazi zuan konponketa orrekin Errepublikak. Orregaitik, 1919'ean Paiva Couceiro'k beste matxinada berri batean Erregetza birrezarri nai izan zuanean, erriak ez zion jarraitu; eta urte ortan bertan, gotzaien babespean, "O Partido do Centro" sortu zanean, Alderdiaren aurreneko azalpenak, ez errege-zale ez errepublika-zale, katoliko bakarrik izango zala Alderdi berria, eta Errepublikaren jaurlaritza ontzat artzen zuala jakinarazi zuan.

Aro berean idazle-sail ospetsu batekoek, lotsarik gabe, katoliko aitortzen zituzten beren buruak. Ori, urtetxo batzuk leenago, iñolaz ere itxaro ez zitekean gauza zan.

Zer gertatu zitzaigun Portugal'en? Zuzperketa bizkorra izan zuala an

katolikotasunak. Zuzperketa orren sustraiean Andre Mari'ren Fatima'ko agerketak daude, 1917'aren loreilleko 13'an asi ziran agerketak. Udaberrian loreak bezala, piztu ziran loreil artan Portugal'eko katolikoen gogoak.

Baiña Nazaret'eko Neskatilla ez bait zan diru-jakintzetan ikasia, eta Zerura jaso izan ondorean naiz Izadiaren Erregin izendatua izan, ez bait da diru-auzien konponketan sartzearen zale, konponketarik gabe jarraitzen zuan Portugal'eko ekonomiak. Ez zan matxinada-girorik ere ezerezen. Ala, bi matxinada lertu ziran bi urteren epean. 1926'koan, Gomez da Costa jeneralak, diktatore egin zuan bere burua; 1927'koan Carmona jeneralak artu zuan lendakaritza.

Ekonomiazko ondamena eta politikazko sekuritate-falta ori, Pio XI'aren jokaera ulertu aal izateko oso gogoan euki bear diran gauzak dira; baita Salazar'en diktatutzaren izaera berezia ere.

1927'an Gomez da Costa indarrez garaituta, agintaritza artu zuan Carmona ura, 1928'an Lendakari aukeratua izan zan auteskundeetan. Carmona, eta 1927'ko kolpean garaille atera ziran bere beste adiskideak, militarrek ziran, eta, --gauza arrigarria militarren artean--, izan zuten, berak bakarrik Laterri bat gobernatzeko gauza ez zirala ezagutzeko apaltasunik aski.

Ekonomiaren ondamena zan, Portugal'en gorputzean, zauri eriogarria. Zauri gaitz ori osatzeko sendagille, orduan Portugal'ek zuan ekonomistarik onena aukeratu zuten: Antonio Oliveira Salazar, Koinbra'n gai ori bera irakasten zuan gizon gazte ospetsua.

1928'garren urtea zan.

Salazar, mastitegi dan Dao lurraldeko Santa Comba'n sendi lander baten seme jaio zan, eta amaika urte zituala Viseu'ko apaizgaitegian sartu. Koinbra'n burutu zituan, ekonomi-arloan, bere ikasketak, eta 26 urteko gaztea zalarik, uri artako unibersitatean zegoan, oposizioen bidez, irakasle. Bazan karrera polita.

Jaurilaritzan ere, ekonomiaren arduradun lez, ain bikain ekin bait zion ekonomia sendatu eta bizkortzeari..., berari eman zioten militarrek agintaritza osoa 1933'an. Esan bearra da, zakarkeri geiegirik gabe ekonomia berbiztuz gaiñera, asko jaso zuala Salazar'ek bere erriaren biziera. Seguruazki ez da iñoiz munduan diktatore bat izan erriak ain maitatua.

Geroago, --Angola, Mozanbika, Ginea--, kolonietako iraultzek ondatu zioten ain yayoki jasotako ekonomia..., ta Jaurilaritzaren eskiertasuna, ta jendearen onginaia, ta bere politika-bidearen baretasuna, ots, geiegizko-indarkeri-ankerrik eza.

Azkeneko egun aietan, Afrika'n batez ere, gogortu zan leenago aski biguiña izandako "o Estado Novo". Aski biguiña..., bai beintzat beste diktaturen aldean.

Asieran ordea, eta Pio XI'aren aitasantutzaren luzaro guztian,

Salazar'ek ez zuan diktatore-itxurarik. Katoliko, --bere ustez zintzoa--, Frantzi'ko integristen eta emeretzigarren mendeko gizartelari katolikoen ikasle, ez zan, ez noski, demokrazi zalea eta parlamentuaren bidez gobernatzearen adiskidea, baiña askoz gutxiago zan oraindik Itali'ko eta Alemani'ko Alderdi Totalitarien dotriñaren maitalea. Ez; Salazar ez zan Mussolini, eta askoz gutxiago oraindik, Hitler.

Bai; egia da: Pio XI'ak atsegifñez ikusi zuan "O Estado Novo"ren jaiotza. Ots ordea; Salazar'en eta Pio XI'aren alkar aditzeak ez du bi maiteminduen eztaien antzik. Biak ibilli ziran arretaz.

Salazar'ek, baztertu zituan Elizaren aurkako lege ziztril guztiak, baiña 1929'an ikastoletan erlijioa erakusteko baimena eman zuanean, Laterriarenak ez ziran ikastoletarako eman zuan. Aitasantuaren aldetik, eta aren aolkuz, Cerejeira, Lisboa'ko Kardenala, Diktatorearen jauregitik urruti ibiltzen zan. Adiskideak ziran biak, Kardenala eta Diktatorea, adiskide laztanak Koinbra'n lankide izan ziranetik, baiña jende guztiaren aurreko ospakizunetan bakarrik ikusten zuten alkar.

Ez batak eta ez besteak, ez zituzten alperrik Portugal'en jende ikasiaren artean ain ugari ziran antiklerizaleak zirikatu nai.

1933'ko kostituzio berriak, Elizaren eta Laterriaren bereizketa, --eta bereizketa orren giroan alkarrenganako begirunea ta laguntza--, lege egin zituan. Pozik gelditu ziran Pio XI'a eta Salazar.

Elizarentzat onuragarria izan zan 1940'ean izenpetutako Konkordatoa. Ona bere atalik garrantzitsuenak:

- Elizaren eta Laterriaren bereizketa. Batak besteaganako begirunea;
- Dotriña Kristaua, ikastola guztietan izango da erakutsia; baita Laterriarenetan ere; Kristau-giro garbian egingo da irakasketa oro Portugal'eko ikastetxe guztietan;
- Elizari, ematen zaio ikastola ta ikastetxeak irikitzeke eskubidea;
- Portugal'en Kolonietan, Laterriak lagunduko die mixioei, eta erbesteko mixiolarietari ere ematen zaie koloni aietara etortzeko baimena.

Konkordato orren itzalean, aski era paketsuan bizi izan dira Portugal'en Eliza ta Laterria; laterkideentzat politikarako eskubideak eskatzera ez bait da beifere ango gotzaidia ausartu. Oporto'ko Gotzaia bakarrik ausartu zan zerbait esatera. Bereala izan zuan aurka Salazar Diktatorea, eta atzerrira alde egin bearrean aurkitu zan. Bere orde, "Apostolutzako Administradore" bat ipiñi zuan Erroma'k Oporto'n.

Alatagutziz, Portugal'en, Eliza ez bait zan beifere Diktatorearen politikarekin nâsi, ez zuan naigaberik izan diktatortza jausterakoan.

Amar urte geroago, 1943'ean, Laterriaren eta Elizaren arteko pake-giro ori onesten zuan XII Pio'k enbaxadari berri bateri ongiatorria egiterakoan. Une berean, Fatima aitatu gabe, Portugal'ek Andre Mari'ri, batez ere Andre Mari'ren Jasokundeari izan dion eraspenna goratzen zuan; eta, --Pio XII'aren


ustez--, Andra Mari'k "bere lur oni", Portugal'i, "a Terra de Santa Maria", izan-dion esker ona!

¿"Nao seria indício de que à Rainha dos ceus era grato este culto, o facto de que muitos feitos decisivos concidiran com as festas da Asunção, como, por exemplo, Aljubarrota, que assegurava a independência, e Ceuta que dava principio à cruzada de além-mar e onde Nossa Senhora de Africa ficava para lhe abençoar a vocação missionaria"?

Euskeraz: "Ez al da Zeruko Erregiñari eraspen ori atsegiña izan zaiolaren adigarri, Portugal'eko edestiaren anitz erabateko gertakizun, Aren Jasokundearen jai-egunean burutu izatea? Askatasuna ziurtu zion Aljubarrota, adibidez, edo bere, itxasoaz-aruntzako, gurutzadaren asiera eskiertu zion Zeuta. Emen (Zeuta'n) gelditu zan, Portugal'en mixioetarako goi-deia onespenez babesteko, Afrika'ko Andre Gurea"!

Aljubarrota'n, (1385), Portugal'ek, España garaitu zuan. Zeuta berriz, Birjaiotzaren aurreneko uneetaz gero Europa'ko Laterri batek bere Europa'ko mugetaz kanpo indarrez arrapatutako lenen lurra izan zan, (1415'ean).





## PIO XI'A ETA MUSSOLINI

Egia ba'da ere, --eta ala da--, Daniel Rops'ek dion bezala Pio XI'ak Mussolini'ren etorrera "avec une sympathie certaine", "egiazko atsegiñarekin", artu zuala, oso laister mingoztu zitzaion atsegin ura. "He lent qualified support to fascist movement", adierazten digu "Encyclopaedia Britannica"k; "Fatxismoaren igikundeari itzal ederreko laguntza" eman ziola, alegia.

Bai; eman zion laguntz ori, fatxismoa ezigarria zitekeala uste izan zuan bitartean; bai bait zituan fatxismo gazte arek, okerkeri batzuen artean, Elizari naitanaiez gustatu bear zitzaizkion gauzak: Autoritatea goietsitzea; gizarteko pakearen, ots, ordenaren, zaletasuna; jerarkiaren zentzua; Lateralria "corporatio" bat, au da, "gorputz baten antzera" eraturako zerbait zala uste izatea, eta uste orren ondorio lez, anarki mota oro gorrotatzea; sendiaganako, batez ere ume askoko sendienganako eraspena; liberalkeriari uko egin izatea; masoitza debekatzea; eta, bereiziki, komunismoari zion etsaigoa; 1922'aren ondorengo urte aietan komunismoa ikusten bait zan erlijio ororen etsairik aundiena; areago oraindik, etsai bakarra.

Laister erakutsi zituan, ordea, fatxismoak bere atzapar beltzak. Eta ez bait zan Akiles Ratti, liburuzain basatia, isilik egoteko jaioa, laister asi zan fatxismoaren zipozkeriei, oiuka, muzin egiten, eta azkenean, --Pio VII'a Napoleon'entzat bezala--, Pio XI'a izan zan Mussolini'rentzat burukomin emailerik aundiena.

1922'an artu zuan Benito Mussolini'k jaurlaritza; 1925'ean egin zuan bere burua diktatore; 1926'ean sartu zion Pio XI'ak aurreneko ziri mingarria, "Itali'ko Elizaren zigorketaz" agirian itzegiñiaz. Zigorketa!, "zigorketa...", ausardikeriz betea, gaiztoa: ez Jauretxeen donetasunari, ez gotzaien garaitasunari, ez apaizen sagaratasunari, begirunerik ez diena", oi u egin zuan Aitasantuak. Zer ote zan urte aietan gertatu zana?

- "Alkandora Beltzek" Minzoni apaiza il zutela.

- Itali'ko Alderdi Fatxistak, bere buruari erlijio-itxura eman nairik, "Katekisma" paganitar bat osatu zuala.

- Erljio-joku ortan aurrera jarraituz, Alderdiak Laterri Fatxistari aldareak eraiki zizkiola.

- Ia Jainko bihurtutako Laterri Fatxista onek, Gabirel D'Annunzio'ren idazlan guztiak argitaratu zituala.

(Arras ziran lan aiek lizunak, eta Liburu Debekatuen Zerrendan sartuak zeuden denak. Baiña D'Annunzio, fatxismuaren jainkotxiki bat zan, Mussolini'ren aurren-aurrenekoetako laguna).

(1919'ean, epailean, tajutu zuan Mussolini'k Milan'en lendabiziko "fascioa" edo "sorta". Sei illabete geroago, iraillean, artu zuan indarrez D'Annunzio'k Itali'rentzat, Bertsalles'ko Jaunek Yugoslabi'rentzat nai izan zuten Fiume'ko Uria. Arrezkero adiskide kuttunak izan ziran D'Annunzio ta Mussolini).

- 1925'ean Milan'en egindako itzaldi batean Mussolini'k, fatxismuaren mami izkutua agertu zuala: "Oro, Laterrien bidez; ezer ez Laterriatik-at; eta Laterriaren aurka, deus ez". Ori izan zan Totalismuaren lenen iragarketa. Ez zan berria dotrin ori Pio XI'arentzat. Ori bera, naiz azalez legunagoa eta goxoagoa, mamiz ordea gordiñagoa eta okerragoa bait zan "Action Française"ko Maurras'en dotriña; Pio XI'ak aspaldian begien aurrean zerabilkian dotriña. Ordurako, aren gaitzespena ia prestatu ere bait zeukan.

Ez zitzaion arrotza Mussolini'ri, era berean, frantziar integristen oldozkera; Jose Bottai'k dionez, "arreta aundiz aztertu bait zuan "Action Française"ren jardunkera, ta Maurras bera ere irakurria bait zuan". Eta Bottai'k bazizun noski Mussolini'ren berri, onen Jaurlaritzan Korporazioen ministro, Erakuskintzako ministro eta Erroma'ko jaurle izatera iritxi bait zan.

- Sindikalitza iarea debekatua izan zala eta aren ordeaz "il Corporativismo", "Korporatibitza" eraikia. "Corporativismo" itza, Volgensang, La Tour du Pin eta gaiñerako emeretzigarren mendetar gizartelari katolikoei artua zan; ez ordea mamia.

Itali'ko "Corporazioni" auek, gero Franko'ren Españi'n "Sindicatos Verticales" esango zaienak dira, "ni sindicatos ni cristianos" (Pildain Gotzaiaren iritziz), "ez sindikatu ta ez kristau": Politikagintzarako tresnak, Jaurlaritzaren esanera. Itali'n, Bottai izan zan arlo ortako ministrorik ospetsuena. Españi'n, Solis. Min aundia eman zion XI Pio'ri Sindikato Katolikoen ezerezteak.

Ez ziran jakiña, Pio XI'ak 1926'ean egindako zigorketa-salatze arekin gauzak konpondu: 1927'an "Scout Katoliko maiteak" (Pio XI), indarrez "Balilla" bihurtuak izan bait ziran.

Urte bete leenago, fatxismoaren profetarik ospetsuenetakoa zan Evola'k itz auek jaurti zituan Elizaren aurpegira: "Laterriari Jainkotasuna ukatzen dio kristautasunak. Orregaitik, kristautasuna etsai dugu". Bereala jaso zuan Aitasantuaren erantzuna:

"Erakutsi nai diguten Laterri-dotriña, zuzen-zuzenean dotriña katolikoaren aurka dago. Bere onturrerako bakarrik osatutako Laterria, Laterkide guztientzat Azken Elburu lez aurkezten dan Laterria, ororen arrazoi gurena izan nai duan Laterria, oro irentsi nai duan Laterria, ez da Laterri katolikoa".

Orrela zeuden, gogor, gauzak, Duce'ren eta Aitasantuaren artean konkordatoa izenpetzeko unea iristerakoan. Ain asarre ba'zegoan Aitasantua, zergaitik konkordatu ura izenpetu zuan?

Ariñegi uste izan oi dute jendeek Aulki Doneak Laterri batekin konkordato bat egiten ba'du, Laterri au egokitza, edo beintza, legekotza artzen duala, eta Laterri ortako agintariak zintzo eta zuzen, santu, edo gutxienez erdi-santu epaitzen dituala. Konkordatoa, beraz, politik-era bat edo politik-ideologi bat bedeinkatzera, sagaratzera, kanonizatzaera etortzen dala.

Zearo besterik da egia. "Pake-naiak eta gizarte-bizitza orok eskatzen duan zurgutasunak eraginda, ideologiei begiratzeko, Laterri mota guztiekin sartu bear izaten du Elizak alkarrizketan, baita, askotan, izenpetzera dijoan dokumentuek egiazko babesaren sekuritate aundirik ematen ez diotela ba'dakinean ere" (Latreille).

Orrela eman zion Pio XI'ak konkordato ari baiezkoa: "Gaitz okerragoetatik Eliza, ta Itali, salbatzeko", berak esan zuanez. Ez dezagun aantzi Pio XI'a Sobietarren Errusi'rekin ere tratuan asi naiean ibilli zala. Mussolini'rekin tratu-egitea lortu zualako, muzin dagiote ezkertarrek; Lenin'ekin egitea lortu balu, eskubitarrek izanen ziran, --gero Paul VI'ari bezala--, muzin egiñen ziotenak.

Izan zituan Mussolini'k ere eragozpentxo batzuk Letran'go Ituna eta Konkordatoa fatxista guztiei arrerazteko.

Alderdi Fatxistak bazuan talde ezkertiar antiklerizale bat; eta ez, alajaña, motelena: D'Annunzio, Gentile, Evola, Misseroli... Ezkertiar auen onetsia irabaztearren iareegi ibilli zuan Batzarre Nagusian Mussolini'k mingaña: "Ez dugu Letran'en Aitasantuaren Erregetza berbiztu, betirako obiratu baizik".

Eta askoz itxusiagoa dana, --Maurras'en argumentu berak erabilliaz--, gizartearen ordena ezartzeko Eliza laguntzailerik egokiena izanen zitzaiela jakiñarazi nai izan zien fatxismoaren buruzagiei, eta gero, bere kasa, Elizak ordenaren oiñarri izan aal izate ori Kristo'ri ez baiña Erroma zârrari zor ziola, azaldu nai izan zien. ¿Zer, bâ, Erroma berriak, Erroma zârraren emaitza zan Eliza, bere onturrerako erabiltzea baiño egokiagorik? Ona Duce beraren itzak:

"Jaiotzean, kristautasuna, judutarren arteko sekta txiki bat besterik ez zan; Palestina'ko lur beroetan ernea, Erroma'n biurtu zan Eliz, au da, kixaz tajututako Erakunde. «Mendiko Itzaldia», Erroma'n osteria birpentsatua eta Erroma'ko jakinduriz jantzia izan zanean burutu zan kristautasunaren

aldakuntza ori". Itz oiei, ez al diezu Maurras'en usairik artzen?

Andik egun batzuetara Gasparri Idazkariak itz oiek ereji zirala, eta, ereji baiño oraindik geiago Elizaren zertasunaren eta nortasunaren zentzurik ere ez izatearen ume zirala iardetsi zion Duce adiskideari, mundu guztirako argitaratu zan "Eskutitz Iriki" batean.

Fatxismoaren ertza ezkertiarak ez zuan beñere konkordatorik iruntsi aal izan. Aitasantuaren ingurukoek ere ez zuten dokumentu artan itxaropen geiegirik jartzen. Konfiantza geiago zerabilkian Pio XI'ak berak, eta ez zan atzipetu; Napoleon'en garaieko konkordato frantziar arek bezala, zitu onik aski ekarri bait zizkion Letran'go onek Elizari, naiz Elizaren eta Laterri fatxistaren arteko pakerik egiteko balio izan ez.

Baiña Pio VII'ak Elizaren eta Bonaparte'ren artean pakea gauza ia-eziña zala bazekian bezala, iñork baiño obeki zekian orain Pio XI'ak Elizaren artean eta fatxismoaren artean pake-egiterik ez zegoala.

Baita Erroma'ko jendeak ere bazekian ori. Ikus zer irri-mintzo asmâtu zuan erriak Letran'go egun aietan bertan. Jakiña da Letran'go Ituna eta Konkordatoa Mussolini'k eta Gasparri'k izenpetu zituztela. Bâ, izenpeketaren ondorean Gasparri zalpurdiz Batikano'ra zijoala, bi mutil ikusi omen zituan karrikaren erdian mutur-joka. "Jetxi zaitez eta galdetu iezu ea zenbat denbora dan konkordatoa izenpetu zutela", agindu omen zion gurditzaiñari.

Irri-kontu onek ez digu esaten mutil aiek zenbat denbora zeramakiten konkordato baten bidez bateratu ziranetik, baiña edestiak bai, edestiak esaten digu Laterri Fatxista laister asi zala Elizari ekiten.

Katoliko-Ekintza izan zan fatxisten asarrearen zioa, arrazoa.

Katoliko-Ekintzari bildur beltza zion fatxismuak, aundia bait zan gaztedian aren indarra.

Ez du gure lur auetan iñork aztu, Franko'ren Jaurlaritzak, plebiszitokoan edo Carrero Blanco'ren eriotzakoan, edo beste edozein gertakizunekotan, edo soilki "el Caudillo" aintzaldu bear zanekean, nolako "Campañas de Prensa" edo "Izparringi-Ekiñaldiak" biribiltzen zituan. Bâ, orrelako lenen ekiñaldi totalitarra izparringien eta irratiaren bidez, Itali'ko Jaurlaritzak Katoliko-Ekintzaren aurka Letran'go konkordatua burutu ondorean asitako au izan zan.

Katoliko-Ekintzaren "Azterketa-ta-lkasketa-Billerak" zituzten, fatxistek, ezereztu nai. Argumentu bakarra: Laterriak eta Laterriak bakarrik, duala gaztedia ezitzeko eskubidea. Éra ortan itzegin zuan Mussolini'k berak, eta era ortan idatziaz zuan liburu bat ere: "Date a Cesar": "Emaiozute Zesar'i". Debekatuak izan ziran eta itxiak, ekiñaldi fatxist aren aurka irten ziran izparringi guztiak.

Katoliko-Ekintza ordea Konkordatoan bereiziki babestua bait zegoan, konkordatoari uko egiteko asmotan zebillen Mussolini, baiñan Itunik --

Letran'go Itunik-- ukitzeke, Ituna arras konbeni zitzaion gauza bait zan. "Bi dokumentu bereizi dira Ituna ta Konkordatoa, --oiu zegiten orduan Itali'ko izparringi ta irrati guztiek Duce'ren agindua beteaz--. Konkordatoa aldakorra da. Aldatu ez daitekeana, Ituna da".

Pio XI'a ez zan arritu. Bare-baretsu, Mussolini'ren liburua "Index"ean sartu zuan; Konkordatoa eta Ituna dokumentu bat zirala jakinarazi zion mundu osoari; ta ori aldarrikatzeko, "Divini Illius Magistri" entziklika argitaratu zigun 1929'ko abenduaren 29'an.

Irakaskintzarako askatasunaren eta guraso-eskubideen babesketarik bizkorrenetakoa dugu, entziklika au: "Eskubide osoak eta eskubide guztiak dituzte gurasoek umeen eziketarako... umeak Laterriarenak ez baiña gurasoenak diralako". Ez zaio Mussolini'ri azkeneko esakizun au aantziko.

Urrengo urtean (1930), eta urrengoan (1931), bigarren "totalitar-izparringi-irrati-liburuskaitzaldi-ta-mitin-ekiñaldia", Katoliko-Ekintzaren aurka Itali guztian, eta, batez ere, Milan'en. Luis Sturzo'ren "Partito Popolare" demokrazikoiaresanera omen zeuden eta fatxismoaren aurka ari omen ziran Katoliko-Ekintzaren batzokiak.

¿Katoliko-Ekintza konkordatoaren babes-pean zegoala? Ta zer? "Konkordato ori egiterako bazekian Pio XI'ak gu Laterri fatxista totalitar bat giñala. Badaki Laterri totalitar bat zer dan, eta Laterri totalitarrak bere izaerakoa duala atsegin ez zaion guztia desegitea". Alderdi Fatxistako Idazkariaren itzak dituzu itz oiek, eta Alderdiko Idazkaria bazan noski norbait Itali'n, gero Franko'ren Españi'n bezala. Jaurlaritzako ministro baten gradua bait zuan: "Ministro Secretario del Partido"; fatxismo guztietan lenen mailleko "jerarkia".

Pio XI'ak, Schuster Milan'go Kardenalari idatzitako "Eskutitz Iriki" baten bidez erantzun zuan, ez zuala iñoiz Katoliko-Ekintza babesik gabe lagako jakinaraziaz. Eskutitz ortakoak dituzu itz auek: "Animaren bizitza ere bere mendeko egin nai lukean Laterri Totalitar bat, teoriaren maillan zentzugabekeria litzake, eta praktikaren maillan, izugarrikeri bat".

Badirudi, ori entzutean erotu egin zirala fatxistak; eta, amorrubizian, Katoliko-Ekintzaren aurka asi ziran: Katoliko-Ekintzaren batzokiak puskatu, neskak eta mutillak jo, bi gotzai-jauregietara eta Erroma'ko Lorentzo Deunaren Jauretxera indarrez sartu. "Civiltà Cattolica"ren idaz-gelak purruratu, "L'Osservatore Romano" saltzen zuten kioskoak erre, urietan "Bêra Aitasantua"! "Bêra Ratti"! deadarka ibilli, eta abar, astakeri-mota oro egin zuten "Alkandora Beltzek" fatxismorik benetakoaren araura.

Ratti Aitasantuak asarrerik gabe baretsu erantzun zien itzaldi-sail baten bidez, "Katoliko-Ekintza Elizaren zatirik bikañenetakoa zala", "Katoliko-Ekintzari erasotzea Elizari erasotzea zala", eta, "Katoliko-Ekintza iraintzen zuanak Aitasantu iraintzen zuala". (Franko'ren Españi fatxistean ez zan, jakina, orrelako jazoketen berririk argitara ematen).

Orduantxe jaurti zuan ago bete-betez Mussolini'k bere esakizunetatik borobillenetako bat: Umeak Laterriarenak dirala; ez, gurasoenak.

Lentxeago, "umeak gurasoenak dira", deadar egiña zan Aitasantua, Laterriari erakuskintzako monopolioa eragoztearren.

Arantza bezala sarturik zeuzkan Aitasantuaren itz oiek Mussolini'k biotzean; Itali guztia Fatxismoan ezitzeko bear-bearrezkoa bait zuan Itali'ko ikastola guztiak bere eskuetan eukitzea. Gurasoen izenean egiten zion aurka Aitasantuak. ¿Umeak gurasoenak dirala? Ez Jauna. "Umeak, jaiotzen diran une beretik Laterriarenak dira; Laterriarenak bakarrik. Laterriarena dan jabetasun ortan ez du beste ifortxok parterik", izan ziran Duce'k erabilli zituan itzak.

Gero Mao Tse Tung'ek, umeak sozietatearenak dirala esanaz, bere-eginen duan oldozketa bera da. Txinatarrek, gaurkoz atsegiñago dute Laterri itzaren orde z Sozietate itza erabiltzea, eta "Sozietate" esaten diote Laterririk Laterriena dan diktaturtza komunista ari. Euskalerriko ikastoletan "umeak sozietatearenak dirala" esanaz ibilli diran "progresistek" ez dakite esakizun ori "progresista" (¿?) ez dala; fatxista dala; Mussolini'k sortua dala!

Erantzuna, oraingoan, portitza izan zan Aulki Donearen aldetik: "Non Abbiamo Bisogno" entziklika, Pio XI'ak berak pentsatu, eta berak bere eskuz italiaraz idatzia. "Nik neronek ikusi ditut Aitasantuak lumaz idatzi zituan Entziklikaren 75 orriak" (Fontenelle gotzaia). 1931'ko ekaiñaren 29'an izenpetua. Italiaraz; aldatzailleen bearrik gabe Mussolini'k eta italiar guztiek Aitasantuaren eskutik irten zan bezala irakurri aal zezaten.

Entziklikak fatxismoari "statolatria pagana" deitzen dio, eta Alderdi Fatxistak erakusten duan dotriña onartueziña dala aitortzen du, eta Alderdi onek alderdikidei eskatzen dien zin-egitea ere, baliorik gabekoa dala, eta zuzentasunaren aurkakoa. Alatagutziz, entziklikak Fatxismoaren ideologia gaitzesten ba'du ere, ez du Itali'ko Jaurlaritzarik ukitzen; ezta Mussolini'rik ere. ¿Zergaitik ez?

1.- "Pio XI'ak Mussolini'ri izan zion naimen ona" oraindik itzali ez zalako;

2.- Letran'go Itunaren eta Konkordatoaren bidez Itali'ri ta Elizari pakepuska bat beintzat eman zien Duce biurri trakets ari eskertsu gelditu zitzaiolako. Era berean maite izan zuan Pio VII'ak beti, beste konkordato baten bidez Frantzi'ko Elizari pakea ekarri zion Napoleon. (Zalantzarik gabe esan daiteke, bai Pio VII'ari Bonaparte'k bai Pio XI'ari Mussolini'k, pena eman zietela beti; penagarri bait zitzaien adimen eta biotz aundiko bi gizon aiei adimen aundiko beste bi gizon aiek nola beren buruak eta beren buruekin beren erriak ondamenara zeramazkiten ikustea).

3.- "Gauzak oraindik okerrago ez ipintzearren".

Alemaniruntz zijozten Pio XI'aren begiak. Garaille zan an Hitler, Mussolini baiño milla bider totalitarista makurragoa. Austri'ren askatasuna zala-ta, asarre zebillen artean arekin Mussolini. Ez zitzaion --Mussolini'ri--

Alemaniko endakeria, razismua, ere gustatzen. "Zorakeri utsa, aberekeria, burugabeen pentsaera" omen zan hitlertarren endakeria: "Erroma'k Zesar sortu zuan garaiean Alemani'k ez omen zuan idazteko ta irakurtzeko gauza zan gizaseme bat bakarrik ere, eta, orregaitik ain zuzen, Alemani'rako bakarrik balio zuan ideologia" omen zan ura.

Arrazoi aundiz uste zezakean beraz Pio XI'ak oraindik Mussolini bide onera ekarri zezakeala, eta arrazoi aundiz zuan bildur, Mussolini gaitzesten ba'zuan, au, laguntza-billa Alemani'ari begira ez ote zuan ipiñiko.

Mussolini Hitler'ekin adiskidetzea eta alkartzea, Mussolini'rentzat betirako ondamena izanen zan, Itali'rentzat galbide ziurra, eta Elizarentzat izurrik beltzena.

Arreta aundiz ibilli bearra zuan, beraz, Aitasantuak, ain aunditsukerizale zan Mussolini arroxko aren sentimenik ez geiegi zauritzeko.

Baiña, naiz pertsonarik ukitu ez, gogapenen aurka izugarri gogorra bait zan entziklika, arriturik gelditu zan mundu guztia, eta batez ere Itali'a.

Bein-da-berrero, atertzeke, Mussolini'ri "Duce'k beti arrazoi du" entzuten oiturik zeuden danak Itali'n. Eta jorra, orain, nun aitxatzen zan Aitasantu xaarra Duce'k arraozik ez zuala esanaz! ¡Eta esanaz ere..., nolako indarrarekin esanaz! Urteetan eta urteetan ez zuan iñork Itali'n orrelakorik esan. Sinistu ezinik zegoan jendea. Eta... ¡nola igo zan Aitasantuaren ospea! Lau milla ale bakarrik saltzen zituan "L'Osservatore Romano" eun milla ale saltzera iritxi zan!

Alderdi Fatxistaren izparringiak mututurik lez gelditu ziran. Soilki, Alderdiak idatzitako idazki bat argitaratu zuten: Entziklikaren salaketak gezurrak zirala zion idazki bat. Baiñan "L'Osservatore Romano", salaketa aiek egiazkoak zirala azaltzeko, egunean-egunean Duce beraren eta fatxistarik ospetsuenen esakizunak itzez-itx argitara ematen asi zanean, zer esan jakiteke gelditu ziran aiek.

Era berean zeuden isilik, lengo zarata ta txarkerietaz azturik, "Alkandora Beltzak" eta Alderdia bera.

Uri batzuetan Alderdiak katoliko ziran alderdikidei ostera zinketa fatxista birregiteko agindu zien. Txintik atera gabe egin zuten katoliko fatxista auek Aitasantuak baliorik gabekoa zala esan zuan zinketa ura.

Itali'ko Fatxismoaren baretasun aren atzean, Aitasantuaren ausardi itxaron-ezak sortutako arritasunarekin batera Mussolini'ren zugurtasuna ere bazegoan. Nai zuanean bazekian onek txukuna izaten. Bearbada bera zan Itali guztian arritu gabe gelditu zan gizona. Ezagutzen zuan Pio XI'a eta onen naimenaren indarraren berri bazuan.

Argi ikusten zuan, gaiñera, orduantxe iñoiz baiño geiago bear zuala Aitasantuaren adiskidetasuna, munduan eta Itali'n.

Munduan, katolikoaren etsaigoak egin zezaiokean gaitzari bildur ziolako. Batez ere Laterri Alkartuetako gotzaidiaren eta katolikoaren asarreari zion



bildurra, orduantxe bait zebillen Hoover Lendakariarekin alkartzte bat egiteko asmoetan.

Itali'n, berriz, katolikoak etsai zituala, ¿nola bere agintaritzza sendotu? Berak buruan zerabilzkian eginkizun aundietarako ¿nola nazioa prestatu? Ordurako Abisini arrapatzea pentsatzen asia bait zan Mussolini.

Duce ta Aitasantua, biak zeuden beraz alkarrartze berri baterako gerturik. 1930'a ezkeru Eujenio Pacelli Kardenala zan Estatutzako Idazkaria. Baiña Tachi-Venturi iñakitarra, Aitasantuaren konfiantzako gizona ta Duce'ren adiskidea, ibilli zan ostera, bien artean bitarteko lez, ekintza guzti onetan. Yayoki egin zuan bere lana, eta laister izenpetu aal izan zan, gauzak lengora zekarzkian dokumentu berri bat.

Salbatu zitzaigun, orduangoz beintzat, Katoliko-Ekintza! Berbiztutako adiskidetasun ari al zan aldarrikapenik aundiena emateko, Mussolini bera joan zitzaigun, arraunditsu, Aitasantuari Batikan-Jauregian ikustaldi bat egitera.

Ez ziran danak katolikoan artean Aitasantuaren jokaerarekin gustora gelditu. Ain errez eta zaratatsuki Mussolini'rekin adiskidetasunak egitean Itali, oso-osoa, fatxismoari eskuetara eman ziola, iduritu zitzaien katoliko demokrazizaleei.

Egia da, orduan, zearo, itxaropenik gabe galdua gelditu zala Sturzo'ren Partito Popolare onuragarria. Baiña, alderdikide sail bat erbestean, beste bat izkutuan, eta beste irugarren bat fatxismora igarorik, aski desegia zegoan ordurako Alderdia; eta, Pio XI'ak, Alderdi ura jaso aal izaterik ez zegoala bazekian.

Egia zan baita're, orduan Itali'ko katolikoak fatxismora urbildu zirala, baiña Pio XI'ak bazekian era berean, urbiltze ura azal utsekoa zala, garrantzirik gabea.

Aitasantuak arrazoi osoa izan zuala adieraziko zigun gero, italiarrek bertan zegoan gudatean erabilliko zuten jokaerak.

Alemaniar geienak bezala, italiar geienak ere ez ziran fatxistak; abertzaleak ziran. Eta Alemani'ren aunditasunaz mintzatzen bait zan Hitler, eta Itali'ren aunditasunaz Mussolini, Hitler'engana alderatu ziran Alemani'n aiek, eta Mussolini'rengana Itali'n auek; baiña soilki Aberriaren aunditasunaren billa. Abertzaletasunaren sarera jausi ziran.

Orixe gertatu zitzaien, bereiziki, katolikoek; orixe gertatu zitzaien, gure ustez, Gasparri kardenalari, Tachi-Venturi iñakitarrari, eta Itali'n Mussolini'ren alde ipiñitako apaiz eta gotzai guztiei, eta ori gertatu zitzaion, asieran, beti gure ustez, Pio XI'ari berari. Gasparri ez zan fatxista. Ederki konpondu zan demokrazizale osoa zan Benedikto XV'arekin, eta, Benedikto XV'arekin batera, bikainki saiatu zan Estadutzako Idazkaritzatik munduko Laterri demokrazitar guztiakin adiskidetasuna sendotzen. Jokaera ori atsegin zitzaiolako jarri zuan Elizaren kargurik garaien artan, bera ere demokrazi-zale

zan Pio XI'ak.

Ez zan fatxista Gasparri, baiña italiarra zan; italiarra zan Pio XI'a ere, eta italiarrak izanik, Itali'ren bizkortzearen maitaleak ziran. Ain ondatua ikusi ere zuten Itali maite ura, guda ondoreko iru urte aietan, Mussolini agertu aurretik, komunismoaren bildurrez bizi izan ziranean!

Ez dezagun aztu gaiñera, sentipen guztien gaindik Aitasantuak nai zuana, Mussolini Hitler'en atzaparretatik salbatzea zala. Orixe zuan orduan egitekorik garrantzitsuena.

Ez dugu aztu bear, ezta're, leialki jarraitu zuala Aitasantuak bere maixutza-lanean, fatxismoak zegizkian okerkeri guztiak salatzeke. "L'Osservatore Romano" egunerokoa erabiltzen zuan ekintza ortarako. Itzaldietan ere izkutukeririk gabe agertzen zuan ez zegoala gustora.

Bi gauzek samintzen omen zuten bereiziki bere biotza: "Scout" katolikoek beren askatasuna galdu izateak, eta J. O. C. Itali'n debekaturik egoteak. "Scout" gazteak, mendien eta basoen maitale dira; J. O. C., berriz, gaztedi langilleak izan duan eta oraindik duan igikunderik bizkorrena. Naitanaiez kuttunki on-ikusi bear zituan biak, langillediaren babesle sutsua eta mendizale bikaiña genduan Aitasantu arek.

1935'ean alkartu ziran Hitler eta Mussolini. Edestilari trebe zan Pio XI'ak bazekian lendik ere, azkenean ori gertatuko zala; baiña bere eginbearra, ori eragozteko, al zan bitartean al zan guztia egitea zuan, eta ori egiten saiatu zan; ez, noski, itxaropen askorekin. Altaguztiz, orain, Alkartea egifiik zegoala jakin zuanean, min aundia senti zuan bere biotzean. Egifiik zegoan "Erroma-Berlin Ardatza", Itali ondamenera eramane bear zuan Alkarte doakabea!

"Erroma-Berlin Ardatzaren" lendabiziko ondorio txarra, Alemani'ko endakeria Itali'ra zabaltzea izan zan: Mussolini'k berak ain itz zorrotzez iraindutako endakeri ura! Eta, Katoliko-Ekintzak bere billeretan Endaren Filosofia gaitzesten zualako, Katoliko-Ekintzari ekin zion ostera Jaurlaritzak.

Zarra eta auldua zegoan Aitasantua, baiña ez zan kukildu. Endakeria erakusten zuten idazki guztiak "Index"era joan ziran.



"Erroma-Berlin Ardatzaren" izenpetzea bezain mingarria izan zitzaion Aitasantuari Abisini'ko gudua, batere arrazoirik gabe Itali'rentzat "inperio" bat osotzeko asmo utsarekin, Benito Mussolini'k Haile Salassie Abisini'ko Inperatoreari egindako gudua.

Pio XI'ak ez zuan gudarik nai, baiña ez zekian nola guda eragozi. 1935'garren urtea zan. Ler-zori zegoan borroka. Zer egingo-ta, peregrinazio batera deitu zituan Aitasantuak italiar guztiak: urte artan bertan, dagonillean Lurdes'en Andre Mari'gandik pakea lortzeko Aitasantuak berak

eratu nai zuan ibildeun aundi batera.

Peregrinazio bat eratu! Ez ote zezakean Aitasantuak gudaren aurka deus geiagorik egin?

Egia esateko, egin zuan beste zerbait ere. Dagonil artan bertan argitaratuaz zion "L'Osservatore Romano"ri, "Spazio Vitale" edo "Egoki-Bizi-Aal Izateko-Tokia" lortu nai izatea, aski arrazoi ez zala erriaide iare bati bere askatasuna kentzeko.

Baiña garrantzi aundiko gaitzespen ori, bildurrez bezala, labur-laburki, gaiari merezi zuan jaramonik eman gabe izan zan argitaratua.

Bere burua izkutatuz bezala ibiltzeko, ¿zer ote zitzaion gertatzen XI Pio bizkorrari?

Aitasantuak, eskierki, pakea nai zuan, baiña ez zebillen auzi larri artan berak erabilli oi zuan bizkortasunarekin. Eta guda iritxi zanean, isilik gelditu zan, eta isilik jarraitu zuan guda labur aren denboran eta guda amaituta Mussolini'k Bitor Manuel Erregea Etiopi'ko Inperatore aldarrikatu zuanean.

Eta zearo isilik gelditu balitz..., ¡gaitz erdil, esan zituan itzak ez bait ziran, itxuraz beintzat, beretzat eta Elizarentzat onuragarriegiak izan.

Ala,

- Badoglio mariskalak Addis-Abeba artu zuala jakin zanean Itali'ko erriak artu zuan pozari-buruz, tamalez, itztxo arifnegi batzuk askatu zituan. Une bateko utsaldi txikia; ez noski garrantzi aundiko gauza. Baiña...,

- Itzaldi batean, guda artaz ari zalarik, onako mintzaera mottel au erabilli zuan: "Lur-arrapatzeko bakarrik egindako guda, zuzentasunaren aurkako guda litzake. Ez dugu sinistu nai guda au olakoa danik". "Auzi au erabakitzeke, guda ez baiña beste konponketa bide bat aurkitua izan dedila gogo osoz gura-izan besterik guk egin ez dezakegu"! Ez ote? ¿Zer pentsatu zezakean abisiniar batek ori entzutean?

"Ez dugu sinistu nai"...! ¡Baiña Aitasantuak guda ura lur-arrapatzeko bakarrik egiña zala bazekian!

"Ez dezakegu besterik egin...! Noizko dira bâ gaitzespenak?

Ori dana, etikaren arloan. Eta sikologiaren arloan, ¿non da, non galdu da, Pio XI Aitasantu gogor basatiaren kementasun guztia?

Abisini'ko au dugu aitasantutza ontako urratsik naigabezkoena-ta, sar gaitezen Pio XI'aren buru-barrenean Aitasantu bizkor aren jokaera beratz au, --beratza, itxuraz beintzat--, ulertu aal dezagun, ez bait zaigu garbia iruditzen, aitasantutzaren dizdira ez lausotzeagaitik, gertakizun au isilik igaro oi duten edestilari ugarien jarduera.

Egia da Abisini'ko guduak ez zuala garrantzi-apurrik... munduarentzat; baiña bazuan Abisini'rentzat eta Abisini'ko jendearentzat, eta Erri txiki baten eskubideek merezi dute begirunea; eta, beste ororen gaindik, merezi dute begirune osoa, danentzat berdiña bear duan Zuzentasunaren eskubideek.

Elizaren ziurtasunak berak eskatzen digu bere edestiaren izkutuak

argitara zifnez erakartzea, naiz Elizaren omenez Aitasantu bat errudun-  
agertuarazi bear. Aitasantuak gizonak dira, eta gizonik aundienak egin  
dezake une batean oztopo. Gizonik aundienetakoa izan genduan Pio XI'a;  
baiña gizona ala ere.

Aztertu dezagun zugurki aren jokaera, zuk, elizkide orrek, elizkide  
guztiek beren buruzagien jokaera epaitzeko duten eskubidearekin, jokaera  
ori zuzenki epaitu aal dezazun. Ona, une artan Pio XI'aren adimena eta  
naimena erabilli zezazketen gizarteko xeetasunak:

- Koloni-gose izugarriarekin atera zan Itali 1918'an gudatik; eta asarre,  
kolonirik gabe gelditu zalako. Eta bazuan ortan arrazoa: ots; beste Laterriek  
aifnako arrazoa. Aiek koloni berriak lortzeko eskubidea ba'zuten, eskubide  
ori bera bait zuan Itali'k ere. ¿Kolonizaketa oro dala zuzenbidearen aurkako?  
Ernel Orduango soziologia ez zitzaizun oraindik, moralista urri batzuen  
adimen-barruan izan ezik, mailla ortaraino iritxi. Gaiñera, ikusi dugun bezala,  
XI Pio izan zan ain zuzen, koloniak arrapatzearen egindako gudua gudu  
okerra ta gaiztoa dala jakifiarazi zuana.

- Asmatu zuan Mussolini'k non jo. Egia da aukera aundirik ez zuala, lur-  
pusketa gutxi bait zeuden ludian Europa'ko Laterrien jabetasunetik iare.  
Baiña Abisini'k bazizun italiarrak gudara eramateko beste lurraldeek ez  
zuten zertxo bat, italiarrak zorretan bait zeuden Abisini'rekin, 1896'ean  
Menelik II'ak Adua'ko borrokaldian Itali'ko gudaroztea zearo porrokatu zuan  
ezkero. Iritxia zan Itali'ren omen zikindua garbitzeko unea. ¿Ez dala gurari ori  
guda bat zintzo egiteko arrazoi naikoa? Ikusten zuan ori Pio XI'ak ere; baiña  
ikusten zuan, era berean, gurari sakon orren ondorioa zer izanen zan.  
Auxe:

- Itali'ko erri guztiak onartu zuan gudate ura; baita katolikoek ere; eta  
apaizak. Gotzaiek ere askok itzegin zuten gudaren alde. ¿Ez dala ori ere  
Aitasantu batentzat arrazoi naikoa? Ez; bazekian orixe Pio XI'ak. Baiña  
bazekizkian, baita're, beste onako punttu auetxek ere:

- Al zuan gogorrenik itzeginda ere, guda geldiarazterik ez zeukala.  
"Galtzairuzko Alkarte" egifnik zegoala. Hitler'en laguntzarekin indartsu  
ikusten zuala Mussolini'k bere burua.

- Guda gelditzeko oi u egiten ba'zuan Mussolini zearo Hitler'en  
besoetara botako zuala, eta orren ondorioak izugarriak izango zirala; eta  
jalperrik! jezer ez lortzeko!

¿Ondorio oiek?

- Elizaren aurkako zigorraldi beltza, Itali'n, eta baita Alemani'n ere  
seguruaskil! Eta nork igarri zezakean aurretik, zigorketa ura, bai Itali'n bai  
Alemani'n, noraino iritxi zitekean? Bazuan ba Pio XI'ak ordurako, Hitler'en  
anckereriaren aztarnarik askil!

- Katolikoek zigorketa. Espetxea! Eta, ziur-ziur, erailketak ugari.  
Fatxismoak, batez ere Alemani'tikoak, aberriaren etsaiak erail egiten bait ditu

txantxetarik gabe.

- Katoliko guztiak "aberriaren etsai" biurtuko zirala, Aitasantuaren gaitzespen ura ontzat artzen ba'zuten. Eta, --Elizari leial izan? Aberriari izan?--, izugarrizko kezka mingarriak sortaraziko zirala katolikoek kontzientzietan. Eta alperrik. ¿Zillegi al zaio Aitasantu bati, ezer ez lortzeko, orrelako borroka ikaragarriak kontzientzien izkutuan ernaraztea? Askok, zigorrari aurpegi emateko kemenaren faltaz, Eliza ukatuko zuten. ¿Ba zezakean Aitasantuak, ezer ez lortzeko, jenderik orrela tentaldira eraman?

- Itali'n endakeria sartzan asia zan. Alemani'rekin geiago alkartzearekin aundiagoa eginen zan oraindik endakeri ori. Judutarren aurka itzegiten ari ziran ordurako Alderdi Faxistaren izparringiak. Gaizki-itzegite ori, zigor eta odol biurtuko zan, XI Pio'k gudu ura gaitzesten ba'zuan. Zillegi al zitzaion Aitasantuari, bere jokaeraren bidez, judutarrak Itali'n lanik gabe goserik uztea, eta, okerragoa dana, judutar aiek, aneika, espetxeetara, lan neketsuetara, eta eriotz-labeetara jautiaraztea?

- Ez zan Pio XI'a bakarrik Abisini'ko gudatekoan isilik gelditu zana. Isilik gelditu ziran Europa'ko eta Ameriketa'ko eta mundu guziko Laterriak ere. Ez zan Inghlanderria Itali'ko gudarozteari Suez'ko Ubiderik istera ausartu, naiz ori egitera bearturik egon. Jinebra'ko Nazio-Alkartearen neurri guztiak ez ziran itxura besterik izan. ¿Laterriek bildurra besterik ez zeukatela? Bai noski. Baiña bildur ori, zerbait askoz okerragoa gertatu zitekealaren kezka sortua zan: Pio XI'ak, milla aldiz astunago bere baitan zerabilzkiean kezka berak! (Hitler guda orokor baterako gerturik zegoala, gauza jakina bait zan mundu guztian).

Ta orain, elizkide, zurea da azken epai-itza. Xeetasun oiek danak begien aurrean dituzula, Abisini'ko auzi garratz ontan Pio XI'a errudun izan zala iruditzen al zaizu?

Bai noski, Pio XI'a samindurik bezain pozik irten zan arazo artatik Mussolini. Hitler bera etorri zitzaion 1938'an Erroma'ra omenezko ikustaldi bat egitera.



Zoriontsu zan une aietantxe Mussolini; Abisini'ren arrapaketa aztuarazita, Espaini'ko gudak, bereganatu bait zion mundu guztiko katolikoek ongi naia. Abisini'ko auzia zalantzatsua izan ba'zan, zalantzarik gabekoa zan Espaini'koa. Ez al zan ba munduko gotzaidi guztia esan-dasesaten ari, Espaini'ko borroka-lekuetan "Kristautasunaren etorkizuna ari zala jokutzen", eta "guda ura Sinismena salbatzeko" egiten zala?, eta "egiazko gurutzada" zala? ¡Mussolini zan, beraz, kristautasunaren salbatzailea!, guda artan buru-belarri sarturik bait zegoan.

Españi'ko itxasoetan zebillen Itali'ko ontzidia, Españi'ko zeruetan zebiltzen Itali'ko egazkiñak, eta Españi'ko zelaietan eta urietan Mussolini'ren "Divisione Legionarie" garailleak. Bazuan Duce'k Hitler'i arro itxoegiteko arrazoirik aski. Baiña arro zetorkion Führer bera ere, bai bait zekian Españi'n egiazko garaillea bera zala, eta Alemani'ko egazkiñetan Alemani'ko gudariak izan zirala Franko adiskidearen alde borroka irauliarazi zutenak.

Uraxe izan zan fatxismoaren unerik gozoena. Lasaiki so zegioten etorkizunari bi buruzagiek; fatxismuaren indarra mendera-eziña zalaren ziñale, an bait zeukaten begien aurrean Gernika kixkalduaren oroitza.

Pozik une artan Itali guztia ere, ez bait zuan iñoiz bere burua orduan bezain aintzagarri ta doatsua ikusi.

Baiña, bazan an pozik ez zegoana. Fatxismoaren arrokeriak ez zuten XI Pio Aitasantu zaarraren kemenik zimurtu.

Führer arranditsuari, egin zitzaiokean iraiñik aundiena egin zion: bizkarra erakutsi. Hitler Erroma'ra iristean "Erroma'tik atera bait zan Aitasantua, Castelgandolfo'ra..., Erroma'ko karriketan Kristoren Gurutzearen etsai zan gurutze "baten garaitzarik ez ikusteko". "Goazen emendik len-bait-len, --esan zien laguntzallee--, gaurko Erroma'ko aize onek ez bait dit batere onik egiten".

Aize txarrak laga zituan, baike, Hitler'ek bere atzetik Itali'n. Len baiño bizkorrago, aurrera joan zan endakeriaren zabalkuntza. "Il Giornale d'Italia"k, txatxukeri aren babesketa aizatzeke, zarata aundia atera zuten bi idazki argitaratu zituan: "Diffensa de la Razza" eta "Credo Razzista"; biak, judutarren aurka idatziak.

"Endakeriaren izpiritu osoa Kristau Sinispenaren aurkakoa da", jakifarazi zien italiarrei Aitasantuak. Bereala ordea, Batzar Nagusi Fatxistak, endakeriz beterik zeuden ezkontzari-buruzko lege berri batzuk onartu zituan. Pio XI'ak orduan zuzenki Mussolini'ri eta Bitor Imanol III'ari idatzi zien.

Errege-Inperatore ttenttelak erantzun ttenttela eman zion: ona: Bi iritziak, --Aitasantuaren iritzia eta Mussolini'ren iritzia--, bateratzen saiatuko zala.

Zugurragoa izan zan Mussolini; ez bait zuan ezer erantzun.

1938'garren urte ortan oso gogorrek ziran Aitasantuaren eta Duce'ren arteko arremanak, eta aundia zan Aulki Donean bildurra: Erasoko ote zion Mussolini'k Hitler'ek bezala Elizari? Ez zan orrelakorik gertatu. Zergaitik?

Lendabizi, Mussolini Hitler ez zalako; gero, Pio XI'a Abisini'ko auzian arreata aundiz ibilli zalako, eta, azkenik, geroago, munduko politikaren abiadak Itali'ri ganoraz ibiltzea eskatzen ziolako.

Ordurako, izan ere, Mussolini'k badaki Españi'n asitako gudua Europa'ra luzatzekotan dagoala Hitler; eta Mussolini'k, Mediterran'eko lurraldeen kontura Itali'a zabaltzearren, gudu artan sartu naiean dabil. Baiña Pio XI'arekin asarretuko balitz, ez lieteke gustora jarraituko katolikoek, eta

Itali zatitu batekin ezin izango luke borrokara joan.

Beste gauza bat ere badaki Mussolini'k. Pio XI'a laister ilko zaiola. Zaarturik eta zearo auldurik dago Aitasantua. Badu Mussolini'k aski txakurkeri, illabete batzuk isilik egoteko, urrengo Aitasantuarekin obeto konpondu ote litekearen zai. Baretu zituan ostera "L'Osservatore Romano"ren kioskoak erretzen asi ziran "Alkandora Beltzak", eta jakiñarazi zion erriari, berak orain onartzen zuan "razzismo" ura, ez zala beifñere Alemani'koa bezalakoa izango.

Naiz gorputzez zârtua eta auldua, bizkor zegoan oraïndik gogoz Pio XI'a.

1938'garren urte artakoa izan zuan azkeneko Eguberri-ltzaldia. Itzaldi artan ostera, munduari totalismuaren aldetik zetorzkion arriskuetaz mintzatu zitzaigun; egin zuan ostera kristau- ezkontzaren goratarrea endakerien aurka, eta kementsu gaitzetsi zuan gogorkeriaren erabilketa.

Gure ustez, arrazoi osoarekin dio "Encyclopaedia Britannica"k Pio XI'a "izkutuan ibiltzeke joan zala aurrera, naiz ezkerreko naiz eskubiko, totalismo ororen aurka": "He came forward unreservedly against totalitarianism whether of the left or of the right".

## XI PIO TA HITLER

Alemanian, Lenen Ludi-Guduaren ostean Errepublika ezarri zan, "Weimar'ko Errepublika" esan oi zaiona, bere kostituzioa uri ortan jaioa izan zalako 1919'an.

Izan zuan Errepublika onek Benedikto XV'aren eta Pio XI'aren onetsia, demokrazi-giroan askatasun osoa eta lan egiteko erosotasun betea eman bait zizkion Elizari.

Egokiera ortan, eskuartze aundia izan zuten katolikoek, "Zentrum Partei"ren bitartez politikagintzan. Lau kantziller eman zizkion Alderdi onek Errepublikari Von Papen kontatu gabe: Fehrenbach, Wirtz, Brüning, eta Marx; azkeneko au, Wilhem Marx, bi alditan. Katolikoa izan zan gairera beste jaurleri batzuen artean, Enrike Brauns apaiza, 1920'tik 1928'ra amabi jaurlearitza diferenteetan eten gabe Lan-Arazo-Ministro izan zana. ¡8 urtetan 12 gobernu diferente! Ortxe daukazu marratua Weimar'ko Errepublikaren auleriaren aztarna.

Alemanian Kristaudiak 4 milloi katoliko galdu zituan: estadistika-ingietako galera utsa, katoliko aiek Poloniari eta Frantziari bihurtutako lurraldeetan bizi ziranak bait ziran. Gotzaidia, edonon bezala, erregezalea zan Alemanian ere, II Gillermo Kaisarren adiskidea, baiña laister oartu zan Weimar'ko kostituzioak leenago inoiz izan ez zituan bezalako era onak ematen zizkiola lanerako, eta pozik artu zuan Errepublika gaztearen bizitzan parte. Bi gotzai izan ziran batez ere, "Zentrum Partei"n itzal aundia izan zutenak: Lauser eta Kaas, orregaitik ain zuzen "Politik Prelaten" edo "Politika-Gotzai" deituak.

Bi lendakari izan zituan Errepublikak: Elbert (1919-1925) eta Hindenburg (1925-1934), itzal aundikoak biak, batez ere bigarrena, militarra zalako; baiña politikarako sena gutxikoak biak, bigarrena batez ere.

Ateka edo zirkustantzi txarretan erne zan Weimar'ko Errepublika. Gillermo II'aren Inperioak, aunditasun-billa, Laterrak zituan txanpon guztiak guduan ondatu zitualako, gosete izugarria eta lanik-eza etorri ziran Alemanian odol-ustura. Proletariak, jakiña, komunismoara joan ziran, eta Berlinen, Munichen, bazter guztietan, lertu ziran matxinadak.



Matxinada oiek zapaldu ostean ere aundia izan zan gerora komunisten indarra eta aundiagoa oraindik sozialistena, baiña beti azkeneko auek beste aien menpetasunera jausteko arriskuarekin.

Alatagutziz, aterako zuan aurrera Weimar'ko Errepublikak Alemani, Bertsalles'ko pakegilleek, --alemaniarren biotzetan errotu zuten gorroto apentzazalearen bidez bereiziki--, bizi aal izatea ezinezkoa egin ez ba'zioten. "Nous avons gagné la guerre. Maintenant il va falloir gagner la paix, et ce sera peut-être encore plus difficile" esan zuan Clemenceau'k 1918'an: "Irabazi dugu guda. Pakea irabazi bearko dugu orain; ez zaigu noski errezagoa izango".

Ez zan ain zailla. Benedikto XV'aren Puntuetan zegoan ataka astun aren giltza. Puntu aiek zuzentasun-leiak sortuak ziran ordea, ta, baztertuak gelditu ziran. Zuzentasun-leiak ez baiña gorrotoak erabili bait zuan Bertsallestarren gogoia; apaldu eta zapaldu egin nai izan zuten Alemani. Ez ekonomian, ez; ospe, omen, eta izen onean baizik. Aundi-ustezko sentimentuetan nai izan zituzten alemaniarrek zauritu; eta Alemani'ko gudaroztea iraindu; ta lotsaz bete Alemani guzia.

Baiña, gorrototik..., gorrotoa; eta apentzatik..., apentza! Ala, erre-mindurik, apentzaren irrika, lotsapeturik, noiz jeiki-zai zatzan abertzalekerizko zauri gordiñetik ernea zan Alemani'ko "Alderdi Nazional Sozialista": "Nationalsozialistische Partei".

Nazionalisten eta Sozialisten artean zatiturik bait zegoan orduan Alemani, bi zatiak nai zituan batera biñdu Alderdi berriak; eta langillediaren giroan izan bait zan sortua, "Partei" utsaren orde z "Arbeiterpartei" izan zan deitua: "Langille-Alderdia".

Ez zan Hitler'ek sortua izan, Anton Drexler izeneko mekaniku batek baizik, 1918'an. Hitler, alderdian sartu ziranetatik zazpigarren alderdikidea izan zan, baiña bera eginen zan laister danen buruzagi, jabe, eta jainko, naiz beste sei, an, bera baiño leenago sartuak izan.

Esan du norbaitek iñoiz deabrua gizon biurtu balitz, gizon ori Adolf Hitler izanen zala.

Misteriozko gizakumea benetan austriar auxe. Aduana-zain baten seme, Babiera'ren muga-ondoko errixka austriar batean jaio zan, eta Linz'eko uri ederrean azi. Ez zuan ikasketa bereizirik egin, baiña adimen zorrotzekoa zan. Alper aundia, ez zuan beñere kixazko lanik artu; ametsetan igaro zituan gaztaroko urteak, eta baita gerokoak ere. "Somnambulist", "ametsetan ibilkari" izen-eman dio bere biografiari onenetako batek.

Bere ametsa, Alemani'a eta borroka ziran, beste alemaniar geienena bezala, baiña alemaniarrek, borroka Alemani jasotzearren egin nai zuten. Hitler'ek bere burua bakarrik goratu nai zuan, ortarako Alemani'a borrokara jaurtiaz.

Politikarako bezain gutxi zegoan gudarako prestatua. Austri'ko gudarozteak ez zuan soldauskarako egokia aurkitu, gudatean gaztedi osoa deitu zuanean. Hitler, Alemani'ra igarota, boluntario sartu zan infanteri-batalloi batean. Ez zan kabotik gora pasa. Ez zan alaber ustela, eta Alemani'k duan saririk nagusia irabazi zuan borroka-lekuan: Burnizko Gurutzea.

Mussolini'ren miresle aundia, zoraturik ikusi zuan arek 1922'aren urrillean, Jaurlaritzaren debeku-gaifetik eta parlamentuko Alderdien gaitzespenari aurpegi emanaz egin zuan "Erroma'rako Ibillaldia". Beste orrenbeste egin nai izan zuan berak Alemani'an baiña bere "Alkandora Nabarrek" ez bait zuten Mussolini maixuaren "Alkandora Beltzek" aifnako indarrik, espetxera izan zan botea illabete batzuetarako 1923'an. An idatzi zuan, Hess laguntzaille zuala, bere bizitzaren liburua: "Mein Kampf", "Nere Borroka". Batere balio ez duan idazkia da, naiz darabilen izkera portitza izan.

Espetxetik irten zanean Alderdiaren Nagusi zan oso-osoa ikaskuntzarik gabeko kabo arroputz biurri ura; eta amar urte geroago, 1933'an, Alemani guztiarena.

Jabetasun artara nola igo zan? "Alemaniarrei entzun nai zutena bakarrik esaten zielako, eta ori egiteko izkera egoki borobilla aurkitzeko yayoa zalako": "Il savait a merveille traduire en formules lapidaires ce que le peuple allemand souhaitait qu'on lui dise" (Poncet, Frantzi'ko enbaxadaria).

Jendeari, entzun nai duan gauza ari-ta-ari bein da berriro atergabe esaten ba'diozu, jendeak sinistuko dizu, (sikologiako legea da-ta), esaten diozuna astakeririk aundiena ba'da ere; baita bere jatorria beste guztiena baiño goragokoa, --jainkotiarral-- dala, eta bere odola, enda eta kasta, beste gizakume guztienak baiño bikaiñagoak, bizkorragoak, garaiagokoak dirala esaten ba'diozu ere. Bâ ori esaten zien Hitler'ek alemaniarrei, eta itxu-itxuan sinistu zion ain kultur aundiko erri eder arek.

Bertsallestarrek oinpera jaurti nai izan zuten Alemani, oinpean ez baiña, beste Laterri guztien gaindik egoteko sortua zala esaten zioten orain hitlertarrek: Alemani'k ez zuala gudarik galdu. Politikariek saldu egin zutela, gudarozteari bear aifnako laguntzarik eman ez ziotelako.

Eta, orrela, jsaldual, borroka bakar bat ere galdu gabe, pake lotsagarri batera beartua izan zala, baiña aratz eta garbi irten zirala, politikariek eratutako nardakeri artatik, Alemani'ko Gudarozte miresgarriaren izen ona, eta Alemani'ko seme gudarien kemena ta bizkortasuna:

Bera, Hitler, eta bere "Deutsche Nationalsozialistische Partei" berria, Alemani munduaren jabe egiteko, gudaroztea berbiztera zetozela, eta politika guzia munduan berdiñik gabeko gudarozte arrigarri orren serbitzura jartzera. Eta Alemani beste erri guztiak menperatzeko sortua zalako, segurua zala garaitza.

Dana sinistu zion erriak Hitler'i. Izan ere, nola ez sinistu lotsatik irten

naiean zegoan erri abertzale sutsu arek? Nola ez sinistu, izkilluz jeikitzeke zerbait kiskalgarriren billa zebillen gaztedi apentza-eskale bizkor arek? Alemani osoak onartu zituan profezi atsegin aintza-emaille aiek.

Deutschland, Deutschland über alles

Über alles in der welt

Alemanil oren gaindik, Alemanil

Mundu guztian oren gaindik Alemanil,

oiu zegiten hitlertar gazteek Aberriaren Legezko-Ereserki egindako abestian.



Gogapen oiek ez ziran berriak.

Hegel'en orojainkotasun germaniarra dago pentsaera orren azpian, gero 1920'ean Rosenberg'ek "XX mendeko Mitoa", "Der Mythos des 20 Jahrhundert" izeneko liburuaren bidez berbiztua: "Jainkoa izadi eta berezikiki gizadi egin bait zan, eta gizadiaren gaillurra ariar jendea bait da, ariarren artean gaillurrena Alemani bait da, Alemani da berezikiki Jainkoa. Eta Jainkoak menderatua-izan-eziña berezkoa bait du, segurua da Alemani'ren gurenda".

"Alukeriak", oiu zegian irriz Mussolini'k.

Baiña ni neroni naiz alemaniarren siniskeriaren lekuko, testigu, Españi'ko gudatekoan ezagutu nituan angotarren bidez. Ez dakizu, oldozketa au beintzat: "alemaniarren enda beste enda guztiak baiño gurenagoa dala", unibersitateetiko gizon alemaniar eziek ere nolako fedarekin sinisten zuten!

Zugur eta yayo ibilli zan Hitler'tar Adolf, Alemani'ren jabe izatera iristeko bidea gertutzen.

Bere pertsona eta berak zekarrela aldarrikatzen zuan Laterri-barrengo pakea edo "ordena" jende baretsuaren artean guragarriago egiteko, Hitler'ek berak naasi zuan al zuan guztia Alemani'ko gizarte-giroa, ortarako bere politikagintzaren asieran osatu zituan S.A. eta geroagoko S.S.'en bitartez.

Ondo etorri zitzaion, ortarako, munduak 1929'tik 1933'era jasan bear izan zuan ekonomiazko larri-aldia ere.

Alatagutziz, salbatuko zan Alemani'n demokrazia, eta salbatuko zan Alemani bera, gaiñera zetorkion ondameñ ikaragarritik, Hindenburg Lendakariak ain oker jokatu ez balu.

Brüning, "Zentrum Partei"ko lendakaria zan 1930'an kantziller. Hitler'en Alderdia bigarren tokian zegoan oraindik Alderdien artean, eta bazuan Brüning kantzillerrak eskiertasunik aski Laterria ekonomi-gaitz artatik ateratzeko, eta aterea ere zeukan ia, Hindenburg'ek bere kasa,

parlamentuari ezer esateke, kantzilleritza kendu zionean, aren ordez Von Papen ipintzeko, 1930'garren urtean.

Hindenburg, orduan 84 urteko agurea, iñoiz politikarako balio izan ez zuan gizona zan. Ez daki iñork gudarako ere zenbat balio zuan; naiz gudatekoan Alemani'ko gudarozteen Buruzagi nagusia izan, Ludendorff Estadu Nagusiko zuzendariarekin ari izan bait zan. Bere lorketarik aundiarena, Tannenberg'en, 1914'aren dagonillean errusiarrak zearo purrukatu izatea izan zan. Baiña aski izan zuan ori beti militar-zale izan diran alemaniarrentzat jainkotxiki bat izatera iristeko.

Errepublikaren Lendakari zalarik, Prusi'ko nekezaritze-lurren jauntxo aristokrazikoen eta militar zârren kerizpean ibilli zitzaigun, azkeneko urteetan batez ere. Mamu beltz auek eraginda kendu zuan Brüning Jaurlaritzatik.

Kantziller trebe au, (ekonomiaren arloan aldakuntza sakonak egitearen zale zalako, eta ortarako atzerriko gobernuen laguntza bereganatu zualako), komunista iruditzen bait zitzaien aristokraziatiko kontserbatzaille arroputz aiei. "Kantziller Gorria" ipiñi ere ipiñi zioten gaitzizen.



Von Papen, Hindenburg'en otsein apala zan, eta orretxegaitik ain zuzen izan zan parlamentuaren baietzarik gabe kantzillertzara deitua, diktatore-modura bait zebillen azkeneko urte aietan Hindenburg prusiarra. Von Papen, katolikoa ere bazan, eta zintzoa, baiña politikaren arloan larrua errez aldatzen zuan sugea. Len zentrumdarra izana, ordurako Zentrumdik bidalia zegoan.

Iñoren babesik gabe aurkitu zalako, illabete labur batzuk bakarrik irauan zuan kantzilleritzan; eta aren orderengorako, Schleicher jenerala deitu zuan Kantziller, Hindenburg agureak, "baduk, --esanaz--, Alemani'n alemaniarrei gustatzen zaien modura agintzen asteko garai. Ipiñi dezagun Jeneral bat kantzilleritzan".

Jeneral arek, ordea, politikarako ez zuan balio Hindenburg berak baiña geiago, eta igo bezain laister jausi zan kargu nagusi artatik. Ostera, Von Papen egin zuan aolkulari Hindenburg'ek, eta onen eskuetan laga zuan une batzuetan Alemani'ren lema.

Sindikato gorriek, uste gabean, Hitler'i bidea prestatzen ari ziran aspalditik, eten gabeko lan-uzte ta iskamillen bitartez. Eta Schleicher kantziller izandako jeneral ura ere sindikatuuekin eta jeneral sail batekin kolpe baten bitartez ostera jaurlaritza bereganatzeko bidea antolatzen ari bait zan, alkarrizketa batera deitu zuan larriturik, Von Papen'ek Hitler.

Errez atzipetu zuan onek ura, beste alderdietako jendeekin batera eta erarik demokrazikoienean Alemani gobernatuko zuala itz-emanaz. Von

Papen'en aolkua jarraituz Hitler'i eman zion Hindenburg'ek kantzilleritza. Von Papen bigarren-kantziller egina izan zan, kargu ortatik Von Papen'ek Hitler errez bere gustora erabili aal izango zualako ustean. Asmo izan zuan beintzat Hindenburg'ek; eta baita Von Papen berak ere.

1932'ko ilbeltzaren 30'an osotu zuan Hitler'ek bere Jaurlaritza, jendeari iruzur egiteko dotore gertutua: bi ministro bakarrik "national-sozialismus"etik artuak; besteak, katolikoak eta liberalak. Goering, "Reichstag" edo Parlamentuko Lendakari, baiña Von Papen Bigarren Kantziller.

Itxura oiekin errez irabazi zituan urte artan bertan auteskundeak, eta orrela, munduko erarik demokrazikorrenean, egin zan Alemani'aren jabe edestiak ezagutu duan diktatorerik iguingarriena.

Berekin zituan orduan Führer garailleak alemaniarrik geienak:

- Militar-jendea, "reich" berriak gudaroztearen gorazarrea eskeintzen zielako;

- Kapitalistak, ekonomiari ainbeste gaitz egin zioten komunisten eta sozialisten lan-uzteak eragozteko, sindikatoak deseginda langille guztiak Alemani'ren onturrerako gudarozte baten erako "Arbeitsfront" edo "Langintzaren Frente" batean biltzen zitualako;

- Langilledia, "Arbeitsfront" izeneko Sindikato Bakar orren bitartez Laterri-lanetan eta gudaroztea birrindartzeko bearrezkoak ziran lanetan sari seguruak aurkituko zituala ikusten zualako, bai noski; baiña baita, batez ere, Alemani'ko langilledia, proletaritarra baiña alemanitarra geiago zalako, eta marxitasunaren "Proletaritzaren Diktaturtza" bada-ezbadako ura baiña askoz atsegiñagoa zitziolako ta askoz seguruagoa uste zualako Hitler'ek eskeintzen zion Alemani'ren ludi guztirako Nagusitza;

- Bankalariak eta gaiñerako finantziariak, Hitler beren onturrerako nai zuten bezala erabili ondorean baztertu aal izango zutela uste izan zutelako; jende-klase orrek diruarekin, mundua, berak gura duan bezala erabili daitekela beti ere sinistu izan bait du;

- Katolikoak, abertzaletasunak lausotuta ta Hitler'en aurreneko urratsek eta mintzaldiek atzipetuta, lausoturik gelditu ziralako, laister ikusiko dugun bezala.

Bere Alderdian bakarrik aurki zezazkean Hitler'ek etsairik arriskugarrienak; bere adiskiderik estuenak izandakoen artean.

Diktatore guztien erara, eraiketa anker batean ondatu zituan danak. An galdu zuan bizia beste eundakaen artean Hitler'i S.A. antolatzen lagundu zion Roehm militarrek. Izan ziran illen artean, hitlertarrak ez ziranak ere. Auen artean ospetsuena, Schleicher kantziller izan-berria, bere emaztearekin batera S.S. tarrek tiroka idaz-gelan zegoalarik erailla.

Brüning, beste kantziller izanak, gauero-gauero izkutatokiz aldatuaz gorde aal izan zuan bizia. Gerorago aipatuko ditugun buruzagi katoliko batzuk ere an izan ziran galduak.

Errez estali zuan Hitler'ek errua, eraildako "gaizkille" aiek iraultza gertutzen ari ziralako aitzakiaren bidez, erailketa-ondorengo irugarren egunean Hindenburg'engandik artutako telegrama omen-emaille au arranditsu Alemani guztiari erakutsi aal izan zionean:

"1934'eko Uztaillak 2. Iritxi-berri zaizkiten albiste-txostenen bitartez jakin dut, zorionean ito duzula, eta jaio baiño len ito ere, eraturik zegoan matxinada lizun ori. Arrisku auditik gaizkatu duzu Alemani'ko erria. Len-bait-len jakiñarazi nai dizut urrutidazki onen bitartez nere esker ona. Agur eta eskerrikasko".

Hitler'ek berak izenpetuarazi zion, Meissner zakurkoiaren bidez, idazki ura 86 urteko Hindenburg Lendakari ttottelduari.

Urte artan bertan il zan au, eta Hindenburg'ekin il zan, bertsallestarrek pixka bat lagundu baliote, Alemani zoriontsu eta mundua paketsu egin zezakean Weimar'ko Errepublika.

1934. Laterriaren Buru eta Jaurlaritzaren Nagusi, Hitler gelditu zan Alemani'aren Diktatore bakar. "III Reich": "III Inperioa", jaioa zan.

Von Papen'ek kantzilleritzara jasoarazi zuan arte, Elizarekin gaizki konpondu zan Hitler. Alderdi "nazitarrak" aurreneko deadarrak egin bezain laister, 1923'an mintzatu zan aren aurka Faulhaber, Munich'ko Kardenala. 1925'ean, 1926'ean eta 1927'an, entzun zan ostera beste gotzai batzuen abotsa, eta azkenean, gogorrena, 1930'ean, Von Galen, Münster'ko Gotzaiaren gaitzespen nabarmena: "National-Sozialismus onen gogapenetan badira katoliko batek, bere sinismenari uko egin gabe artu ez dezazkean gauzak. Katoliko bati Hitler'en Alderdira sartzea zillegi ote zaio? Alderdi ortako jenderik apaiz batek sakramentuetara artu ote dezake? Nere erantzuna, ezezkoa duzute".

Egiazko trumoia izan zan Von Galen'en oarkizun au; urrengo urtean, gaiñera, 1931'ean bere-egin bait zuten Babiera'ko gotzai guztiek Eskutitz Pastoral batean Von Galen'en gaitzespen gogorra. Ta ez zan ura mintzaketa utsezko gaitzespena izan. Urte ortan il zan Hesse'ko "Gauleiter" edo Alderdi-Buruzagia. Elizako illetarik gabe joan zan lurpera.

Argiegia zan Hitler, gotzaien jokaera arek ekar zezaiokean arriskurik ez ikusteko, batez ere, gotzaiak Pío XI'aren onespen osoarekin ari zirala, seguruaski bazekiala.

Indar aundia zuan katolikotasunak Alemani'n, eta indar ori aundiagoa egin zan oraindik Weimar'ko Errepublikaren demokrazi-giroan. Iñoiz baiño bizkorragoak ziran Katoliko-Gaztedi-Bazkunak; ugariagoa eliz-jendea, konbentuetako gizon-emakumeak, 72.535'tik 88.589'ra igo bait ziran amairu urte aietan, eta, arrigarriagoa dana, industri-urietan ere, langillediaren Elizatik-alde-egitea gelditua izan zan; ta, geiago dana, bi industri-

lurraldeetan, Westfali'n eta Saxoni'n jende-galtzen ez baiña jende-irabazten ari zitzaigun Eliza. Ospe aundia zuten idazle katolikoek.

Oso alkaturik zekusan gaiñera Hitler'ek katolikotasuna.

Ain zuzen, 1932'ko auteskundeetan, Berliñ'ez landa, Hitler'ek autarkirik gutxien jasotako amar lurraldeak, katolikoak ziran.

Jakin zuan Hitler'ek katolikoak --eta protestalariak-- nola iruzurtu. Ona zer izketa goxoa erabili zuan Reichstag'eko diputaduen aurrean, Hindenburg protestalari zintzoak Von Papen katoliko sendoaren aolkuz Kantzillertzara igo zuanean eta gero Alemani'ko erri zugurrak 17.000 autarkizko geiengo aundiz kargu artan tinkatu zuanean:

"Nere gobernu onen iritziz, bi Kristau Elizek gure alemaniar izaera jatorraren zutaberik bikañenak dira. Begirune guztiarekin zainduko eta beteko ditu gobernu onek, Eliz oiek Alemani'ako Laterriekin egindako itun guztiak. Ez da, gerta ala gerta, Eliz oien eskubideen aurka ezer egingo".

Giro ortan izenpetu zuan Pio XI'ak Hitler'ekin Konkordatoa. Ez zuan Hitler'en eskeintzetan batere federik, baiña oraindik Jaurlaritzaren asieran zegoan gizon arekin alkarrizketan astea egokia iruditu zitzaion. Ez zekian bâ oraindik, Hitler'ek zer egin zezakean. Gaiñera, ari agintaritza kentzea, ez zegoan XI Pio'ren eskuetan! Baiña saiatu zitekean aren politikagintza goxoagotzen, edo beintzat, gizakorragoa biurtuarazten; eta ori egin nai izan zuan konkordatoaren bidez.

Orixe bera eskatu zion --Hitler'i-- Alemani'ko gotzaidiak ere. ¿Lengo gaitzespenak aantziak? Ez! "Dotriñen aurkako gaitzespenak kentzeke", eman zien gotzaidi arek katolikoei, Hitler'en Alderdira sartzeko baimena ere, Hitler'ek Reichstag'en egindako itzaldia entzun ondorean. Elizaren eta Laterriaren artean pakeak egiteko, gotzaien aldetik eragozpenik ez zala izango, adierazi nai izan zioten orrela.

Itxaro-zuten gaiñera gotzaiek, Alderdiaren barrendik katolikoek hitlertarren jokabideari gogortasuna kendu aal izango ziotela, agian. Ikusten zuten gaiñera gotzai aiek, ordurako katolikorik geienak begi xamurrez begiratzen ziotela Alemani birjasotzera zetorren buruzagi gazteari. Zergaitik?

- Alemani'n ere katolikoak "kontserbatzailleak" ziralako. Arrigarria; baiña Elizarentzat ain osasuntsua ta bizkorgarria izan zan Weimar'eko Errepublika aren giroan ere, katolikoak errege-zale agertu zitzaizkigun, Kaisarren oroitzaille xamurkoiak --erriko jendea beintzat--, eta an ere, jende auentzat, "Errepublika" itza, kristautasungabekeria, eta "Erkala" itza masoikeria adierazten zituzten itzak ziran oraindik. ¡Kosta zaio katolikotasunari Erregeen kapusaipetik burua ateratzea!

∴ Protestalaritzaren sorkundea ezkerro maiz izan ziran, batez ere Prusi'n, Wurtemberg'en, Saxoni'n; Iparraldeko uri aundietan, eta beste Laterri askotan, katolikoak "alemaniar txartzat" eukiak. Izen orren bildur ziran

orain ostera. Itxuraz, Hitler'en Alderdia zan Alemani jaso zezakean Alderdi bakarria. Alderdi ortara ari ziran biltzen, beren buruak alemaniantzat zeuzkaten guztiak. Ez zuten katolikoek, oraingoan ere, "alemaniar txarrak" zirala entzun nai

- Abertzaleak bait ziran..., beste edozeinek aña nai zuten Bertsalles'ko "diktat" edo "indarrezko baldintz-ezartze" doakabe ura garaitu, eta Austri'rekin batasuna eginda, Alemani'a Batu, ta Aunditu!

- Eta, esan dezagun ostera, gero eta okerragora zijoan ekonomiaren larri-unea ikustean, komunismua etorri ote zitekealaren bildur zirala.

Pozik gelditu zitezkean katolikoak 1933'ko Konkordatoarekin; Elizarentzat, izan zitezkean onenetakoa bait zan. Ez zuan, alatagutziz, Aitasantuaren eta Alemani'ko Gotzaien biotzetan poz aundiegirik sortu, bai bait zuten Hitler'ek itzik beteko ez zualako kezka.

Bigarren Kantziller zan Von Papen'ek bakarrik alaiki oles egin zuan, Konkordatoa argitaratu ondorean; --bera izan zan bâ Pacelli Estadutzako Idazkariarekin dokumentu aren izenpetzaillea--. "Aitasantua nazional-sozialismuari laguntzeko prest omen zegoan, komunismoari guda egitearren". Gezurra zion Von Papen'ek, edo ez zekian zertaz ari zan, ori esan zuanean, baiñan Hitler'en aldera katolikoak eramateko, yayoki zerabilkian komunismoaren mamua.



Hitler agintzen zegoanean deus esatera ausartu ez ziran idazle batek baiño geiagok, edo orduan Hitler'en atzaparretatik urruti zeuden edestilariren batzuek, gogorki bota diote Pio XI'ari aurpegira Konkordatoaren bidez ospe aundia eman ziola mundu guztian nazismoari, Aitasantua omen da bâ "gogo-gaietan munduko Autoritaterik garaiena".

Ori diotenak ez bait dira, asko, katolikoak, merezi du Aitasantuaren garaitasuna ain zabalki goratze orrek gure esker ona.

Baiñan ez dute arrazoirik Aitasantuaren jarduketa iraintzeko. Ikusi dugun bezala, "Alemani'ko erriari kalte okerragoak eragozteko egiñ-aal guztiak egitearren", eta "Elizak infortxori eskurik ukatzen ez diola mundu guztiak jakin aal zezan", --Aitasantuaren itzak dira--, Pio XI'ak Pacelli'ri konkordatoa izenpetzeko baimena eman zionean, une artan erabilli zezakean politikarik egokiena zerabilkian, begiratu luzeko politika, edestilari oiek uste izan duten eta Hitler'ek berak uste izan zuan baiño luzeagoa.

Alemani'ko Elizari legezko izkillu bat eman nai izan zion Pio XI'ak, Hitler'rengandik ia seguro itxaro zuan erasoaren aurka, legez, eta, mundu guztiaren aurrean arrazoi osoz, borroka egiteko gai izan zedin. "Konkordatoa iareki Aulki Donearen artean eta Alemani'ren artean egiña izan da. Ez gaitu ifork beartu. Askatasun osoan eman dugu gure onorezko



itza". "Ez da zillegi, lege guztien araura mundu guztiaren aurrean egindako traturik urratzea. Mundu guztiaren aurrean, Alemani'ren izen ona, Aberriaren ondra, dago jokuan". Orrela mintzatuko dira bein eta berriro Alemani'ko gotzaiek, --aipatutako izketa oiek Faulhaber kardenalarenak dituzu--, orrela mintzatuko dira Hitler'ek konkordatoaren atalen bat zapaltzen duan bakoitzean.

Orrela mintzatuko da, eten gabe, Pio XI'a bera ere. "Ondra" itza beti mingañaren punttan zerabilkian Hitler Alemani'ren ondra-gurtzailleari, "ondra" botako diote arpegira Aitasantuak eta gotzaiek. Ez miñik emateke. Konkordato ura izenpetu izanaz ongi damutua zegoala esan bait zion Hitler'ek berak adiskide bati. "Gu ez gera bâ batere damutu", aitor-egin zion Erroma'n Pacelli'k Hitler'en ateraldi ori jakifiarazi zion frantziar enbaxadariari.

Laister asi bear izan zuten Gotzaiek Alemani'n Elizaren eskubideak babesten, konkordatoa izenpetu bezain laister asi bait zan Hitler ere kristautasuna ezerezteko al zituan guztiak egiten.

Ikus, Laterri-barrengo Auzietarako Ministro Wilhelm Frick zuzendari izan zuan egite nazkagarri aren urratsak:

- Elizaren ikastolak, --15.000--, Laterriaren eskuetara igaro ziran.
- Gaztedi Katolikoaren Bazkun guztiak, baita Andre Mariren Kongregazioak ere, debekatuak izan ziran.
- Katoliko izparringi eta aldizkariak edo hitlertar biurtu edo itxi egin zizkiguten.
- Gaixotegietan, lekaimen ordez, "Aizpa Nabarrak", Nazi-Alderdikoa neskak, ipiñi zituzten.
- Katolikoen artean, batez ere gaztedi katolikoaren artean Enda-Gurketa sartarazteko, indarkeri eta maltzurkeri danak erabili ziran.

Aski parregarri irudituko zaizu noski, baiña enda-gurketa ori, Alemani'ko Endaren gurketa, naiz Hegel'en filosofian oiñarritua, ez da alemaniarren sorketa. Inghlanderriko almirante baten sorketa da, Houston Stewart Chamberlain almiranteak asmatua, bere andrearenganako maitasunak eraginda nai ba'duzu, andre au alemaniarra bait zuan, Rikardo Wagner ereslari ospetsuaren alaba.

Chamberlain'entzat gizadiaren izate guztia odolean dago, eta ezberdiñak bait dira gizadiko endak, ezberdiñak dira odolak ere. Batzuk besteak baiña obeak, eta danetan onena "the Aryan Blood", "Aritarren odola". Gizakumea ez da odolaren agerkari besterik, sagar-lorea sagarrondoko izardiaren agerkari besterik ez dan bezala. Gizakumei beren pertsonalitatearen zertasan eta nortasan guztia odoletik datorkie. Odola da zaindu bearra eta babestu bearra: odolaren garbitasuna.

- Hitler'ek ez zion kristautasunari ideologiaren arlotik zuzenean eraso, agian bera ere katoliko bataiatua izan zala gogoan gordetzen zualako. Rosenberg, Von Schirach, Goebels, Bergmann, eta orrelako gizonak ziran

lan ortan ari oi ziranak; Baita Strasser ere; baiña au, 1934'eko ekaiñaren 30'eko "garbiketan" Hitler'en aginduz erailla izan zan.

Rosenberg'en iritziz kristautasuna kaltegarri zan Alemani'rentzat, "judukeria" zalako, Asi'atiko odolaren sorkaria. Orregaitik, Bonifazio Deuna izan omen da Alemani'ren gaizkillerik aundiena, arek ekarri bait zion, bere jermaniar-odoletik sortutako erlijio bizkor baten jabe zan Alemani'ari, Asi'ako semit-odolak piztutako kristautasun alua.

Hitler'ek ere badu olako esakizun txatxuren bat. Au oroitzen dugu: "Katoliko eta Alemaniarrak, batera izaterik ez dago. Edo bata, edo bestea. Orregaitik Eliz Alemaniarrak batez itzegitea, zentzurik ez duan gauza da".

- Odolaren garbitasuna babestearren agindu zuan Hitler'ek, 1935'ean, buruz edo gorputzez elbarri zitezkean gizon eta emakume guztien esterilizaketa, antzuketa, zearo bizkorra ez zan umerik Alemani'n jaio ez zedin.

- Endakeriaren zabalkundea, eta une berean katoliko ekintza ororen debekua, ez ziran eraso-aldi aren atal bakarrak; ez bait zan katolikoaren gauzen eta pertsonen aurka gogokeri mardulen faltarik izan. Batzokiak eta baita gotzai-jauregi batzuk ere (Wurtzburg, Rottenburg, Maiantz), indarrez zapalduak izan ziran, eta Katoliko-Ekintzako mutil eta neskatil asko makilka eta ukabilka erabilliak, baita Paderborn'eko Gotzaia ere.

- Urteetan eta urteetan, gelditu gabe ari izan ziran hitlertarrak, aitzakirik txatxuenarekin apaizak epaitegiara eramaten, eta, andik, maiz, espetxeetara. 500 izan ziran, bein, batean giltzapetuak.

- Ez zitzaigun martiririk ere peitu. Aipatu dugun 1934'eko garbiketakoan izan ziran eraillak bost katoliko buruzagi: Klausener, Berlin'go Katoliko-Ekintzaren lendakaria, fusillatua izan zan; Beck, Munich'ko unibersitate-jendeen gidaria, "nai-gabea" illa; Robst, Kirol-Batza Katolikoaren Alkartearren lendakaria, kirol-gaietaz itzegiteko Berlin'era deitua...; baiña egun batzuk geroago, jkorreoz artu zituan aren emazteak senarra izanaren errautsak; Gerlich, katoliko izparringirik aundienaren zuzendaria, espetxean "illik aurkitua".

- Odola garbi gordetzearren, ekin zitzaien judutarrei. "Enda madarikatu" artatakoa nor zan, mundu guztiak jakin zezan, soñnekoen izar ori bat erabiltzea agindu zitzaien. Ikusiko dugu "odol usteleko" jende aien alde XI Pio'k egin zuan guzia.

- Eta azkenik, itzik gogorrena: "Konzentrazio-Landak". Eta denetan lotsagarriena eta negargarriena, Dachau; aurrena iriki zana; judutarrekin, komunistekin eta jkatolikoekin! irikia.

Bikain jokatu zuan Alemani'ko Elizak Hitler'en aurka:

Bikainki, gotzaiek, eten gabe aren okerkeriak bein da berrirori salatuaz. Aipamen berezia merezi dute Faulhaber Kardenalak eta Pio XII'ak Kardenal ginen zituan Von Galen, Frings, eta Von Preysing Gotzaiek.

Ederki, apaiz eta praille geienak ere. Praille-jendearen artean iñakitarrak, domingotarrak eta beneditarrak izan ziran geiena sufrittu zutenak. Apaizak, komisari-bidean edo espetxe bidean zebiltzan noiz nai. Apaiz Jaunen artean ospetsua izan zan Laffen, Rostock'eko parrokoa.

Aipa dezagun, martirien artean, Edith Stein lekaime karmeldarra, filosofilari ospetsua. Aipa dezagun Aita Kolbe frantziskotarra ere.

Gotzaien idazki eta itzaldi guztien berri ematerik ez dugu. Oroi dezagun bateren bat aipatzeko, 1937'an Fulda'tik idatzi zuten pastorala. Doistar egazkiñek Gernika kiskaldu zuten urtea da. Sarraski ura nork agindu zuan ez da sekulan jakiterik izango, frankotarrek, tontoak izan ez ba'dira, onezkero artxibuetako aztarna guztiak erreko bait zituzten. Alemani'ko Elizak hitlertasuna gaitzesten zuan urte ortan bertan zerutiko aingeru zaindaria lez artzen zituan Españi'ko Elizak Hitler aren beraren borrokalariak, eta zerutiko mana lez Alemani'ko egazkin, kañoi, guda-gurdi, eta bonbak.

Arrokeririk gabe, esan dezagun Eliza Katolikoa bakarrik izan zala Alemani'n Diktatoreari aurpegi eman ziona, zoritxarrez askoz motelago ibilli bait ziran protestalariak. Izan ziran ala ere auen artean kristau kementsu bikañiak. Bijoia gure omena Niemoeller "artzai" lutertar martiriarentzat.

Ederki jokatu zuan Pio XI'ak ere. Estadutzako Idazkaritzatik gelditu gabe joaten ziran Berliñ'era konkordatoaren aurka egindako okerkerien salaketak. "L'Osservatore Romano" k ia egunero zekarkian hitlertarren aurka zerbait, eta Batikano'ko Irratia ere ia egunero mintzaten zan era berdiñean.

"L'Osservatore Romano" artzea eta Batikano'ko Irratia entzutea, debekatua izan zan Alemani'n, baiña, Gestapo iruzurtuaz, irakurtzen zan an izparringia eta entzuten zan irratia.

Pio XI'ak berak, eskura zetorkion egokiera guztiak arrapatzen zituan hitlertetasuna gaitzesteko: egokiera oietako bat, 1936'ean Erroma'n iriki zan Ludi-Guztiko-Katoliko-Izparringintzaren-Agerketa. An egin zuan itzaldian, aurreneko aldiz berdindu zituan Aitasantuak komunismoa eta nazismoa: "biak, egi orenen etsai berdiñak".

Udaberria zan. Españi'n nazitarren laguntzarekin, Franko, Gobernuaren aurkako altzaketa gertutzen ari zan.



1936'garren urtean gertatua da ori. Ordurako bazan urtebete Pio XI'a bere fatxismoarekingo kuttunkeritxo ziralako aiek danak utzita, oso-osoa totalikeri guztien aurka zegoala. 1935'garren urtean ipintzen dute edestilariak aldakuntza ori.

Artean bai omen zituan oraindik fatxismoa legundu eta ezi aal izateko itxaropenak. Orduan galdu omen zituan danak; eta iñorri Elizarako itzulpena

ez galeraztearren pertsonik ukitzeke, gogor ekin zion totalikeri mota orori. Bi entziklika izan ziran ariketa orren ziturik nagusienak: "Divini Redemptoris", "Jainko Salbatzallearena", komunismuaren aurka, eta "Mit Brennender Sorge", "Arretarik Beroenarekin", nazional-sozialismoaren aurka.

1937'aren epaillakoak dira biak; egun batzuk lenagokoa hitlertasunaren aurkakoa, baiña, agian Alemani'n zirrara aundiagoa egin zezan, komunismoari-buruzkoa argitaratu zuan aurrena: Epaillaren 19'an. Alaitasun aundiarekin artu zuten Alemani'ko izparringi hitlertarrek Pio XI'ak komunismuaren aurka zerabilkian izketa gordiña, gogorra. Oartu da azkenean Aitasantua egiatzko etsai bakarra non daukan!, izan zan aien deadarra.

Arriturik entzun zuten andik iru egunera Erramu-Igandeko elizkizunetara bildu ziran katolikoek "Mit Brennender Sorge"ren irakurketa. Arriturik gelditu zan Himmler ere entziklika ura bazala, eta Alemani'ko jauretxeetan irakurria izan zala jakin zuanean.

Idazki ura Apaiz jaunren eskuetara nola izkutuan iritxi zan ez zioten sekulan bere S.S.'tarrek azaldu aal izan.

Entziklikak, nazional-sozialismoaren dotrin guztia jorratzen zuan puntturik-punttu. Erroma'n Alemani'ko iru kardenalekin eta Von Galen eta Von Preysing gotzaiarekin Pio XI'ak eta Pacelli idazkariak izandako billera batean pentsatua izan zan. Aurreneko idazketa Munich'ko Kardenalak, Faulhaber'ek, egin zuan; bigarrena, argitara emana, Pacelli'k.

Obea omen zan aurrenekoa bigarren au baiño, Pacelli idazkariak, diplomazilaria zalarik, Alemani'n konkordatoaren aurka egindakoen salaketak erantsi bait zizkion Faulhaber teologilariak tajutu zuan gizakumearen eskubideen babespenari. Eta egia da: Pacelli'ren lege-auziak kendu ezkerro bizkorragoa gelditzen da idazkia, --obeki ikusten bait da, konkordato-auzia ez baiña nazitasuna bera dala Aitasantuak gaitzetsi nai duana--, baiña altagutziz dokumentu ederra dugu Pio XI'ak izenpetutako Entziklika au.

Hitlertarren errabia, izugarria izan zan. Atzera berriz Elizaren gauzak apurtzeari eta pertsonak zigortzeari eman zioten "Alkandora Nabarrek". Rottenburg'eko Gotzaiaren etxea zarpildu zuten, eta Friburg'eko Goigotzai-Jauregiko kapillatxoa iraindu eta zikindu. Izparringiak gezurra eta zemaia zerioten Elizaren aurka eta Aitasantuaren aurka.

Pio XI ez zan izutu.

Urrengo urtean, Hitler'ek Austri arrapatu zuanean, Biena'ko Goigotzai Innitzer Kardenalak, bildurrez-edo, abegi onegia egin zion Führer garailleari, eta Austri'ko gotzaidiak, eskutitz baten bidez, ontzat artu zuan hitlertarren jaurlaritza.

Berealaxe deitu zuan Aitasantuak Innitzer Erroma'ra eta gogorki itzegin zion Pacelli Estadutzako Idazkariaren bidez. Ezagutu zuan Innitzer kardenalak bere errua, eta Biena'ra itzulitakoan oroitu zizkien austriarrei

Hitler'en politika-bidearen akatsak.

200.000 bienatar bildu zitzaizkion jauregiaren aurrean "beren gogo utsez", Hitler'i zioten zaletasuna eta kardenalak ematen zien nazka, deadarka adierazteko. Jauregia, indarrez artua izan zan, eta bertan zeuden gauzak porrokatuak, eta sutara boteak. Kardenalaren idazkaria leiotik kanpora jaurtia. Urkamendi bat eraiki zuten enparantzaren erdian, oiñean itz auek zituala: "Emen izanen da Innitzer esegia".

1938'garren urtean, Syllabus'en antzeko, nazional-sozialismoaren oker danen zerrenda bat argitaratu zuan Pio XI'ak eta beste mintzaldi askoren artean, iru itzaldi ospetsu jalki. Itzaldi oietan ez zan, beti ere biotzaren barruan euki zituan judutarretaz aantzi. Orduan esan zuan bere esakuntzarik orogarrienetako bat: "Izpirituari dagozkion gaietan judutarrak gera guztiok".

Jakiña da fatxismoaren aurkako idazki bat idatzita il zala; eta idazki ori, Letran'go "Conziliazione"ren amargarren urte-betetzean, edestiaren luzaroan aurreneko aldiz Erroma'n bilduko ziran Itali'ko gotzaien aurrean irakurri nai zuala. 1939'ko ilbeltzaren 2'an eriotzak eragozi zion asmo aiek bete aal izatea. Pio XI'ak izkutuan euki zuan dokumentu ura, baiña Jon XXIII'ak atera zuan argitara, Pio XI'a ilda ogei urte geroago.

Ez du dokumentu orrek ezer berririk, leen baiño mintzaera gogorragoa erabiltzea ez ba'da; batez ere, izenik aipatu gabe, "dana badakiala uste duan" Mussolini'ren aurka.



Bi meritu bereizi ditu Pio XI'ak Hitler'i-buruzko bere ariketa aspertu gabeen:

- Ez zuala katolikotasuna bakarrik babestu; gizakume orenen eskubideen alde ari izan zala borrokan.

- Borroka ortan, bakarra izan zala. Laterriek, bildurrez, isilik zeuden.

Pio XI'aren jarduketa ez zan alperrikakoa izan. Laterri Alkartuetako gotzaiak esnatu zituan aurrena. Txikago'ko Mundelein Kardenalak egin zion oiartzun lendabizi, eta U.S.A.'ko gotzaidi guztiak gero, danak izenpetu zuten Eskutitz batean totalismoa gaitzetsiaz eta Aitasantua goratuaz.

Katolikoek itzala, aundia bait zan Laterri Alkartuetan, Roosevelt Lendakaria bera auzia eskuetan artu bearrean aurkitu zan, Mundelein Kardenalaren Txikago artan bertan egindako itzaldi batean Ameriketako erriari "indarkeria eta bildurra munduan ezarri nai duten diktatoreen aurka zerbait egiteko garaia iritxia zala" adieraziaz.

Baiña ez zeuden jende danak bildurraren azpian. Asko, Hitler'en aunditasunari begira, lilluraturik bezala zeuden. Jainkotxiki bat zan aientzatz Hitler; berdiñik gabeko gizona; aintzagarrria benetan, ia-ia gurgarrria.

1935'aren eta 1936'aren inguruan izan zan batez ere aundia Hitler'en dizdira miresgarri ura: Aitasantua, fatxismoarekin jostaketak utzita, buru-belarri totalismoaren aurka asi zanean. Orduan bai egon zala bakarrik borrokan Pio XI'a!

"Hitler'en erraiñu dirdaitsu ori ez da Alemani'ren mugaetaraiño bakarrik zabaltzen; mugaetatik aruntz ere, jende eta erri asko lausoarazten ditu", idatzi zuan garai artan Frantzi'ko enbaxadaria Berlin'dik. Egia ziola jabetzeko, naikoa dugu urte aietan Espaiñ'ko eskubitarrek, baita katoliko zintzoez eta elizgizonek ere Alemani'ri nolako laztankeriz so-egiten zioten oroitzea.

Jainkoari eskerrak Pio XI'ak ikusi zizkion garaiz atzaparrak otsoari.

Puntu baten azterketa falta zaigu: Ainbeste denboran artaraiñoko itzal aundia izan zuan "Zentrum Partei" ospetsu ura nola izan zan ain aixa barreiatua?

Batzuen iritiz, Pio XI'ak laguntzarik eman ez zielako desegin ziran bai Itali'ko "Partito Popolare" bai Alemani'ko "Zentrum Partei". Egia da Pio XI'ak Alderdi Katolikoei arreta aundirik ez ziela ematen, Katoliko-Ekintzaren altzoan ezitako politikariaren bidez nai bait zuan Laterrietako politikagintza kristautu; baiña egia da, baita're, Pio XI'aren laguntza ez zala orduan Alderdi aiek totalikeripeko Itali'n edo Alemani'n salbatzeko gauza.

Beste batzuentzat, Kaas Gotzaia izan daiteke erruduna. Kaas orduan "Zentrum Partei"ko lendakaria zan; eta, batzuen iritiz, Aulki Donean Enbaxadari izatea itxaro omen zuan Hitler Kantzillerrarengandik, eta, beste batzuen iritiz berriz, Elizaren ikastolak ukituko ez ziralaren itzematearen bidez Hitler'ek atzipetua izan omen zan. Oñarri-gabeko uste utsak danak.

Egia dana auxe da: Kaas'ek eman ziela "Zentrum"go diputaduei beren autarkiak Hitler'en alde jaurtitzeko aolkua; eta autarki oiek izan zirala Hitler'ek bere burua Alemani'ko Nagusi bakar egiteko bearrezkoak zituanak, autarki oien bidez lortu bait zituan Parlamentuaren bi irurdenak.

Baiña era berean da egia Kaas berak geroago esan zuan onako auxe ere: Naiz aolku ura emana izan ez, "Zentrum Partei"ko diputaduek, lau edo bostek ez gaiñeko guztiek, Hitler'en alde autarki-emanen zutela. Artaraiño bait zeuzkan Hitler'ek katolikoak lilluraturik!

Eta, azkenik, guztien gaindik egia dana beste auxe da: garai artan, Itali'n, Portugal'en, Alemani'n, eta Espaiñ'n, katoliko izan edo komunista izan, Alderdiek bizibiderik ez zutela.

Laterri Totalitarian Alderdi bat. besterik ez da. Alderdi ori da Laterri guztia, Alderdi ortakoak ez diran laterkideak, zugatzetik jausitako ostoak lez, ez bait dira Laterriaren parte, Laterriaren aurkako mamu antzeko zerbait baizik: "La Antiespaña", Franko'ren "caudillaje"koan. Laterri osoa dan Alderdi ori, gorputz baten antzera dago eratua; gorputz bizi bat da, "ens organicum", eta badu bere naia, eta gorputz bati bere bizia eta bere naia

Burutik etortzen zaizkion bezala, era berean datorkio Alderdiari bere Burutik, --"del Caudillo"--, bere ideologia. Nazioaren izpiritua Alderdian dago, eta, Alderdiarena, Buruzagian. Burua, gorputz guztiaren izenean eta gorputz guztiarekin ari izaten da, eta Buruak nai duana gorputz guztiak nai du; ariketaren zentzuaz ari galarik gauza bera bait dira Gorputza eta Burua.

Orixe duzu Españi'n ainbeste goratutako "Demokrazia Orgánica" zalako ura: Buruzagiak gauza bat nai izatea naikoa da gauza ura "erri guztiaren naia" izateko, --"Demokrazia"--, Buruak nai duana gorputz guztiak nai bait du, eta gorputzak "buruaren bidez" nai izaten bait du, --"Orgánica"--.

## ESPAÑI'KO II ERREPUBLIKA

Gaizki, oso gaizki zegoan Españi'n giroa langillediarentzat, eta erriska ta urietako jende arruntarentzat, XX mendeko lenen ogeit'amar urteetan.

Ez ziran paketsuak izan XIX'aren azkenekoak ere. Naiz apaizjendearen adiskide izan ez, gizon zintzoak izan ziran I Errepublikaren lau Lendakariak, Españi'ko erriak merezi zituanak baiño obeak. Ala, matxinadaz eta zalapartaz aski beteak izan zuten beren agintaritzea.

1874'eko urtarrillaren 2'an ezereztu zuan Pavia jeneralak I Errepublika, "Guardia Civil"eko batalloi baten aitzinean zaldiz Parlamentura sartuta.

Serrano jeneralari eman zion Jaurlaritzaren lendakaritzea.

Baiñan urte artako abenduaren 28'an, beste kolpe batez, Martinez Campos jeneralak, XII Alfontso, II Isabel'en semea, aldarrikatu zuan Errege, Sagunto'n. Eta, gudarozteak kolpe ura ontzat artu zualako, garaille sartu zan errege berria Madrid'en.

Maria Kristina Austri'ko Printzesarekin ezkondu zan XII Alfontso. Emakume zintzoa, benetako kristaua.

Elizaren gustokoa izan zan 1876'eko konstituzioa. Laterriaren erlijio egiten zuan katolikotasuna, eta Laterriak artzen zuan bere kargu Elizaren eta elizgizonen mantenua.

Jaurlaritzea, txandaka, Antonio Canovas del Castillo buruzagi zuten kontserbatzaillenen eskuetan eta Praxedes Mateo Sagasta'ren esaneko liberalen eskuetan egon zan.

1897'an il zan Canovas. 1903'an Sagasta.

1876'ean izan ziran erabat karlistak, beren bigarren gudua galduta, betirako menderatuak.

Katoliko on asko zeuden XII Alfontso'ren alderdian, baiñan karlistek, betiko beren bidetik, erregetza "liberalaren" aurka jarraitu zuten Franko'ren altzakundera arte. Karlistak ere zatiturik zeuden beren artean: karlista integristak, alde batetik; karlista utsak, bestetik.

Zatiketa oiek gaitz aundia egin zioten Españi'ko Elizari. Eta Laterriaren politikari ere bai.

1885'ean il zan XII Alfontso, eta andik laister erditu zuan Maria Kristina'k



bere semea, Alfontso XIII'a. 1886'garren urtea zan.

Bazan urte aietan, Españi'n, barrungo-pakea. Baiñan, esan dugun lez, 1897'an anarkista italiar batek, Canovas del Castillo il zuan tiroz Gipuzkoa'ko Santa Agueda baiñuetxean.

Eta urrengo urtean, 1898'an, borroka luze odoltsuen ondorean, Kuba, Puerto Riko eta Filipinak galdu zituan Españi'k.

Españi'ko katolikoek, oitura dutenez, masoiei bota zieten ondamen aien errua:

... "hay que decir que si Cuba, Puerto Rico y Filipinas se desprendieron de la corona de España, la primera responsabilidad, al menos en el archipiélago oriental, corresponde a las logias españolas con su gran oriente, Miguel Morayta, que venía minando el terreno para acabar con la religión y cultura católicas, allí plantadas por los misioneros" (Montalbán).

Jende ikasian, izugarritzko zirrara sortu zuan galera ark.

Ordurako aski ezagunak ziran, eta laister ezagunagoak eginen ziran, idazleen taldeari "98'ko belaunaldia" esan oi zaio, "la generación del 98"; eta badute idazle aiek danek, --Unamuno, Ortega y Gasset, Azorín, Baroja...--, badute danek, alako margo itun, larritasunezko bat. Ez dira, katolikoek --Montalban'ek berak adibidez-- dioten bezala, "Españi'ren etsaiak". Alderantziz, maite zuten Españi, eta beren aberri au Europa'ko beste errialdeen maillara jaso naiean ziarduten.

Borboien erregetzari eta politikagintzari bai, begi okerrez begiratzen zieten. Berdin gudarozteari. Eta baita Elizari ere.

Baroja, adibidez, Elizaren eta batez ere elizjendeen arerio zan; are geiago elizjende ori karlista ba'zan. Baiña ura baiño askoz arriskugarriagoa, Unamuno; danetan idazlerik bikaiñena bera zalako, eta, bereiziki, bere jainkorikgabeko inmanentismo beltza kristautasunezko jantziz estaltzen, era miresgarrian yayoa zalako.

"98'ko Belaunaldiko" gizon oiei eta XIX mendeko krausista ta liberalei jaurtitzen diete katolikoek Españi'n demokraziaganako zaletasuna sortu izatearen errua. Baiñan, ez dute ikusten ori dala ain zuzen Españi'ko katolikoek obenik audienetako bat: beraiek absolutismoan eta kapitalismorik gogorrenen itzalean tinkoturik zirauten bitartean, demokrazia, --demokrazigintza, eta demokraziaren babesketa ta zuzenketa--, federik gabeko edo oso fede otzeko gizakumeen eskuetan utzi izatea.

Langillediaren arazo mingarria ere, sozialisten eskuetan utzi zuten Españi'ko katolikoek, langillediaren alde egin zutena, txit urria, ta "oria", ots, indarrik gabea, izan bait zan. Or, Españi'ko Elizaren beste pekatu larria.

Orrela amaitu zan XIX mendea. Latza izan zan Elizarentzat XX'aren asiera.

1900'garren urtean, antzokietan, Perez Galdós'en "Electra" antzerkia ematen zan, eta emanaldi bakoitzaren ondorean, erria, suturik, apaizen aurka oiuka iretzen zitzaigun kaleetara; eta konbentuei ekiten zien arrika.

Urte ortakoa da, Kongresoan, José Canalejas'en itzaldia, Waldeck-Rousseau frantziarraren bidetik elizjendeari erasoz. Frantzi'ko Jaurlaritza antikleristaren bidetik zijoan Españi'koa ere; eta bazan emen Elizaren aurkako jasa baten bildurra.

1901'ean Sagasta igo zan Jaurlaritzaren lendakaritzara. Romanones'ko kontea zan ezikuntza-ministro. Bereala jakiñarazi zien unibersitateei, "la libertad de cátedra" edo "irakaskuntzarako askatasuna" arrezkero erabili zezaketen gauza zala.

Bereala, erlijioa irakatsi-bearra egiten zuan legea kendu zuan. Ez zan ortan gelditu; praille-jendeari irakaskuntza eragozteko ere, saiatu bait zan aski.

1902'an izan zan XIII Alfontso errege koroiatua. Une zailletan artzen zuan agintaritza. "Monarca muy cristiano --omen zan--, educado por su madre, y que, no obstante sus deslices y deficiencias, amó a España apasionadamente, mantuvo siempre viva su fé y con frecuencia hizo públicas y solemnes confesiones de ella". (Montalbán).

Erregezale amorratuak izan dirala Españi'n katolikoak! Elizjendeak, bereiziki.

"Don Antonio Maura, jefe del partido conservador y dotado de un talento político excepcional, trata en 1904 de cortar los pasos de nuestros anticlericales, pedestres seguidores de los franceses Waldeck-Rousseau y Combes; se esfuerza en mantener el orden público... pero es herido por un anarquista, y en diciembre de 1905 tiene que dejar el paso a un gabinete liberal, que presenta a las cortes un proyecto de ley de Asociaciones inspirado por el sectarismo de José Canalejas. El presidente Moret (jaurlaritza aren lendakaria) manifestó que su idea era también establecer la libertad de cultos, el matrimonio civil y la secularización de cementerios". (Montalbán).

Arrazoi du edestilari inakitar frankozale onek, Españi'ko liberal apaizetsaiak, Frantzi'ko aiek ordurako azturik zeuzkaten bideetatik asi zirala dionean. Orrela jarraituko dute, --Españi'ko liberal txoroek--, laister sortzekoa dan Errepublikaren urteetan ere, ori egiñaz Españi'ko eskubitar beti-gudazaleei "gurutzada santu" batean jeikitzeko arrazoi-ematen ari dirala oartzeke.

1905 artan ere, sumindu ziran borroka-eske, Euzkadi'n batez ere, gure katolikoak:

"Protesta con indignación el episcopado en pleno, siguiendo al

cardenal Sancha; 40.000 navarros acuden a Pamplona a proclamar su fé enérgicamente contra la impiedad del gobierno, dispuestos a tomar las armas si es preciso ; hasta 60.000 manifestantes se concentran en Bilbao, y cosa semejante ocurre en otras ciudades. El proyecto fracasa y sube de nuevo Maura al poder en 1907". (Id).

Orra or, katolikoak erlijioa salbatzeko gudarako prest! Gotzaiak ez dute lan aundirik egingo erlijioa izkillu-bidez salbatzen ez dala erakusteko!

Orduantxe gertatu zitzaigun Bartzelona'ko "Semana Trágica" edo "aste odoltsua"; uztaillaren 27'an.

Matxinadari su eman zion txinparta, Melilla'ra soldaduz betetako ontzi baten irteera izan zan. Gogor ziarduan Riff mendietan beren lurra babesten zuten mauroen aurka gudu odoltsua. Nazkaturik zegoan borroka artaz Españi'ko jende landerra; aberatsak, dirua-bitarte, mendi aietako sarraskitik gordetzen bait zituzten beren semeak.

Nazka orrek eraginda jeiki zan Bartzelona'ko jende xea. Eta Elizari ekin zion!

Zergaitik, XIX mendean sartuz gero, iraultza guztietan Españi'ko erri gaixoak, Elizari ekiten ote dio?

"Anarkistek bultzata", erantzungo dizute eskubitarrek. "Irauitzara anarkistek bultzata irtetzen dalako".

Bai. Ibilli ziran anarkistak, eta baita socialistak ere. Entzun Lerroux'ek idatzi zuana:

"Rebelaos contra todo: no hay nada o casi nada bueno. Rebelaos contra todos; no hay nadie o casi nadie justo. Jóvenes bárbaros de hoy, entrad a saco en la civilización decadente y miserable de este país sin ventura, destruir sus templos, acabad con sus dioses, alzad el velo de las novicias y elevadlas a la categoría de madres para virilizar la especie. No os detengáis ni ante los sepulcros ni ante los altares. No hay nada sagrado en la tierra. El pueblo es esclavo de la Iglesia. Hay que destruir la Iglesia. Luchad, matad, morid".

Aiatagutziz, Bartzelona'ko inpernukeri zoro arentzat anarkisten edo sozialista ertzakoi batzuen jardunkera ez zaigu naiko arrazoia iduritzen.

Ez da naiko arrazoia. Bartzelona'ko "aste odoltsu ark, anarkista bat, Francisco Ferrer Guardia, izan zuan buruzagi. Ura beintzat izan zan buruzagi lez salatua, eta epaitua, eta fuşillatua. Baiñan Bartzelona'ko erria anarkistek aitza zutela egia balitz ere, anarkistek ez zuten ori egiterik izango, aurretik Bartzelona'ko erria Elizari ekiteko gerturik egon ez balitz.

Ta, gerturik zergaitik zegoan jakitea da, emen, beste ororen gaindik ajola zaiguna.

Bartzelona'n, "aste odoltsu" aren epe laburrean, 50'tik 60'ra eliz edo konbentu izan ziran erreak eta ondatuak.

1910'ekoa da "la Ley del Candado" zaratatsua. Moret zegoan

Jaurlaritzan lendakari, baiñan lege ura, "giltzarrapo-legea", berea aifia, edo, agian, berea baiño geiago da Canalejas ministroarena. Lege aren bidez, erlijioso-anaidi edo kongregazio berriak galerazten ziran Españi'n.

Canalejas masoia zala esan oi dute eskubitarrek, baiñan ala ba'zan ere, ez zitzaion ori babes ziurra gertatu; bi urte geroago, 1912'ko azaroaren 12'an, anarkista batek il bait zuan Madrid'ko Puerta del Sol enparantzan.

1914'a eta 1918'a arteko epea aberastasun aski oparoko epea izan zan Españi'rentzat, Europa gudan suturik zegoan artean, bi alderdietako Laterriei salduz, txanpon batzuk bereganatu bait zituan.

Gudu ura amaitu zanean piztu ziran osteria istilluak eta zalapartak ugari.

Alare, 1919'ko orrillaren 30'ean eskeiñi zion Españi, XIII Alfontso'k, Jesus'en Biotzari.

"Al terminar la guerra, cunden las huelgas, los patronos no tienen segura la vida, se reproducen endémicamente, (ots, etenikgabe) los motines populares, los atracos a los bancos, los atentados a personas particulares". (Id).

1921'eko epaillaren 8'an izan zan Eduardo Dato gazteiztarra, kontserbatzaileen buruzagi eta Jaurlaritzako Lendakaria, tiroz illa.

1924'eko uztailaren 4'ean berriz, Zaragoza'ko Goigotzaia, Soldevilla Kardenala, erail zigun beste anarkista batek.

Orrelako okerkeriak gertatuko dira geroago, II Errepublikaren aroan, bereiziki 1931'ko orrillean; eta baita 1936'ean ere. Orduango okerkeri guztietan errua "al régimen republicano", "jaurtze-era errepublikatarrari", jaurti oi diote eskubitarrek; oraingo okerkeri auen errua, "al régimen monárquico"; "jaurtze-era erregekoaiari" botatzea, ez zaie ordea burutik pasa ere egiten.

Arana Goiri'tar Sabin dauka bereiziki gogoan Montalbán edestilari iñakitarrak itz auek idazterakoan:

"La misma unidad de la Patria se hallaba en peligro, cuando vino a barrer toda aquella podredumbre e ineptitud política la dictadura del general Miguel Primo de Rivera, marqués de Estella.

1923'ko iraillaren 13'an gertatu zan ori, kolpe baten bitartez; eta 1929'ko urtarrillaren 1'eraño iraun zuan Primo de Rivera'k agintaritzan. "Dictadura paternal y moderada, en todo caso querida por el pueblo" (Id). Ez, beintzan euskotar abertzaleek maitatua!

5 urte ta 3 illabete aien epean, izan zan erri-barrungo pakea, baiñan ez zan ezer konpondu. Len bezain gaizki edo okerrago utzi zuan diktatore "gurasokoi" ark Españi.

Alatagutziz poztu zituan Primo de Rivera'k katolikoan biotzak, bere burua Jaurlaritzaren jabe eginda bi illabete geroago azaroaren 29'an, XIII Alfontso erregearekin eta Biktoría Eujenia erregeñarekin XI Pio'ri agur egiteko Erroma'raiño joan zanean!

Danadala, arrigarria benetan españarrek, arazo guztiak diktatura-bidez konpondu nai izateko duten zaletasuna:

"Que la situación insostenible de la política española (en 1923) no tenía otro desenlace lógico que la dictadura, era creencia generalizada" (Gabriel Maura).

1929'an Primo de Rivera jausi zanean, beste militar bateri, Dámaso Berenguer jeneralari eman zion, edo eman bear izan zion, XIII Alfontso'k agintaritzaz.

Bi urte ta illabete t'erdi egon zan agintzen; baiñan ez zuan onek ezer kixaz zuzendu; ta 1931'ko otsaillaren 14'ean Alfontso erregeak, beste militar bat, Juan Bautista Aznar almirantea, onartu zuan Jaurlaritzaren lendakari.

Bi illabete geroago, udaletarako egin ziran auteskunde batzuen ondorioz, XIII Alfontso erregeak, erria bere aurka zeukala uste izan zuan. Eta erregetza laga, ta atzerrira erbesteratu zan.

Nagusi zan ostera Españi'n errepublika: II Errepublika.



Auteskunde aietan, 22.150 ziñegozi edo kontzejal jaso zituzten monarki zaleek, eta 5.875 bakarrik errepublikazaleek; baiñan erri ta uri aundietan, ia-ia danetan, errepublikazaleek irabazi zutelako, Errepublikaren garaitza bezala izan genduan auteskunde ura aldarrikatua. Orixe izan zan, esan dugunez, XIII Alfontso berberaren ustea ere.

Erriak, pozik artu zuan Errepublika. Ori ez dute gaur eskubiko edestilariek ukatzen:

"A nivel de calle no debe olvidarse que la República era y representaba el 14 de Abril de 1931 una esperanza alegre de una mejor convivencia en el seno de la sociedad española. Este estado de ánimo era compartido sin duda alguna, por una gran parte de los católicos " (Schenk Sanchis). (Nik azpimarratua).

Laister ikusiko dugun lez, errepublikazale ezkertiarrek izan ziran, egin eta agindu zituzten okerkerien bidez, Errepublikaren aurreneko urtean, "katoliko-sail aundi orren" naimen ona agortu zutenak.

Alatagutziz, ez dugu beñere aztu bear Españi'n beti-beti, baita Errepublikaren lenen egun aietan ere, katolikorik geienak erregezaleak zirala, Errepublika izena beraren arerioak. Katolikorik geienak? Baita ia-ia danak ere! "Moraliter omnes". Zer esanik ez, apezjendea. Baita Tedeschini nunzioa bera aurreneko denbora aietan!

Alatagutziz txukun ibilli zan aurren-une artan Errepublika Aitasantuarekin, bere sorkuntzaren berri eman bait zion auteskundeak egin-arterako eratu zan Jaurlaritzak.

Bi katoliko zeuden Bitarteko-Jaurlaritza ortan; eta garrantzi aundienetako tokietan biak: Niceto Alcalá Zamora, lendakaritzan; Antonio Maura, barne-arazoetako ministeriotzan.

Ez zuan Errepublika'k Elizari erasotzen asteko asmorik egun aietan: "La República Española tendrá que dar ejemplo de comprensión, de mirar el alma nacional, hoy y en su tradición de siglos, y admitir la representación senatorial de la Iglesia", esan zuan Alcalá Zamora'k jorralleko 14'ean bertan egindako itzaldi batean.

Urrengo egunean berriz, 15'an, au zion Fernando de los Rios, Justizi-Ministroak:

"Me he ocupado de sostener una conversación con el nuncio haciéndole saber que la conducta con el catolicismo de España no será distinta de la que se observa en otros países donde hay establecida la libertad de cultos".

"Neutralidad religiosa" omen zan Errepublikak erabilli nai zuan jardunkera. Ots, ez erlijio baten alde ez beste baten alde, alderdirik artzeke, jaurketan jardutea.

Katolikoentzat ordea, Españi'n Jaurlaritzak alderdirik ez artze ori, pekatu zan. "Españi katolikoa da, --esaten zuten--. Katolikoa izan bear du beraz Españi'ko Jaurlaritzak ere".

Orregaitik, Errepublikaren aurka egon ziran beti katolikoak. Eta katoliko ez-apaizak, --bai beintzat buruzagiak--, Errepublika sortu zan une beretik asi ziran Errepublika ura nola bota pentsatzen.

Ez ala gotzaiak, ezta, jez orixel, Aulki Donea ere.

Españi'ko gotzaiak, erregezaleak ziran danak, erregezale ziralako izan ere izan bait ziran gotzai egiñak.

Alatagutziz, ontzat artzen zutela, jakiñarazi zuten, Jorralaren 14'ean jaiotako Errepublika ura, eta eskeiñi ere, eskeiñi zioten beren laguntza. Ori..., Errepublika jaioberriaren Jaurlaritza, "erlijio-neutraliteko" egitaraua betetzen bereala asi zala!

Jorrail artako 17'an, probintzietako jaurleei, elizkizunetara jaurle bezala ez joateko agindu zitzairen. Jaurleak elizkizunetara joatea, Errepublika Eliza Katolikoaren aldekoa zala adieraztea omen zan. Errepublikak ordea, iñorako eta iñorentzako alderaketarik gabea izan bear omen zuan erlijio-arazoetan. Ala ba'zan ere, jaurle aiek zintzo bete bear omen zuten Eliz-Agintariekin gizarteko araei dagokien guzia.

17'an Madrid'ko kanonigoak, Fernando de los Rios Justizi-Ministroari, diosala egitera joan zitzaizkion.

18'an, Tarragona'ko goigotzaia, Vidal y Barraquer, eta Irurita Bartzelona'ko Gotzaia izan genituan diosala ori egiteko, Maciá Katalauni'ko Generalitateko Lendakariarengana joan ziranak.

Al, ta Alkala Zamora eta Vidal y Barraquer arteko gutun-idazketa ugaria,

"cordialisima", "arras biotzetik-biotzerakoa", izan omen zan beti, Vidal y Barraquer Kardenalak aitortu zuanez.

19'an, soldaduei igandero meza entzutea agintzen zien legea ezereztu zan. Eta militarrei ibildeunetara-ta militar lez joatea debekatu zitzaien.

Ez zan izan ori, jaurlaritzaren sekularutzerako, azken-legea; baiñan, alatagutiz, 22'an, beren laguntza eskeintzen zioten Jaurlaritza sekularzegilleari Katalauni'ko gotzaiek.

Urrengo egunean, 23'an, beste lege batek, espetxeetako baituak meza entzutera beartzen zituan legea izan zan ezabatua.

Bigaramonean, 24'ean, Tedeschini nuntzioak, Eujenio Pacelli Estadutza'ko idazkariaren eskutitz bat aurkeztu zion Jaurlaritzari.

Eskutitz artan Pacelli Kardenalak, Aulki Donearen esker ona erakusten zion Errepublikari, onek bere sorkuntzaren berri eman ziolako. Une berean, Pacelli'k Aulki Donearen laguntza eskeintzen zion Errepublikaren Jaurlaritzari.

29'an, Españi'ko goigotzaiei idatzi zien Pacelli'k, Tedeschini nuntzioaren bitartez. Ona nola eman zien Tedeschini'k eskutitz aren berri:

"De parte del Eminentísimo Señor Cardenal Secretario de Estado de Su Santidad me honro en comunicar a V. E. Rvdma. ser deseo de la Santa Sede que V. E. recomiende a los sacerdotes, a los religiosos, y a los fieles de su diócesis que respeten los poderes constituidos, y obedezcan a ellos para el mantenimiento del orden y para el bien común".

Bereala asi ziran gotzaiek, Irurita Bartzelona'n, Gandasegi Balladolid'en, Arce Otxotorena Zamora'n, eta ia beste guztiak, agintari berriei "cristiano acatamiento" eskeiñi bear zitzaiola, beren elizbarrutietako kristauei erakusten. Baita Gomá Tarazona'ko Gotzaia ere.

Argi jakiñarazi zien Pacelli'k Españi'ko goigotzaiei "que la Santa Sede ha ofrecido al Gobierno su colaboración". Eta, Errepublika'ren Jaurlaritzaganako "respeto y obediencia" eskatzen zien.

Laister auteskundeak egitekoa zan Errepublika, erriak Legebatzarrrerako diputaduak aukeratu zitzaiz. Erne ibilli zan Pacelli, auteskunde aien aurretik goigotzaiei arauak emanaz:

"Los católicos prescindiendo de sus personales tendencias políticas a las que pueden seguir prestando su apoyo libremente, deben unirse seria y eficazmente".

Pacelli'k ez zekian Españi'n katolikoak alkartztea zeñen gauza zailla dan. Beste Alderdi katolikoekin alkartu ez baiña beste Alderdi katoliko guztiak irentsi egin nai izaten bait ditu Españi'n Alderdi Katoliko bakoitzak.

Ori egia da bereiziki Españi eta Euzkadi'ko katolikoek alkartzeari dagokionez: Aiek auei "gurekin alkartu zaitezte esatean", "oso-osoa gure esanera jarri zaitezte", esan nai izaten bait diete.

Orrillaren 10'ean, Justizi-Ministroa izan zan Katalauni'ko gotzaiei era adiskidetsuan idatzi ziena; eskerrak emanaz, aiek, gutun batean, Jaurilaritza-rekin batera lan egiteko beren naimen ona agertu ziotelako.

Ala're, eskutitz ortan badu Fernando de los Rios ministroak, naiz izenik aipatu ez, Segura kardenalarentzat ziri minkortxo bat.

Kardenal ura, Jorraitlean, Errepublikajaiotzeak, aski ganoragabeko gutun pastoral bat idatzia bait zan!

Orrillaren 9'an Goigotzaien billera Toledo'n. Danak bildu ziran an, iru izan ezik: Santiago'koa (Zakarias Martínez Nuñez), Indietako Patriarka (Eijo y Garai) eta Burgos'ko Goigotzaia (Castro). Azkeneko onek, ez joateaz gairera, zergaitik joaten ez zan ere ez omen zuan gatzigatu.

Toledo'ko Goigotzai Kardenala, eta Espaini'ko "Primatus" edo Lenen-Gotzaia, Segura bera zan ain zuzen; eta idatzi-berria zuan bere pastoral doakabe ura sartu nai izan zien inguruan bildu zituan goigotzaiei, auetako bakoitzak idatzi ura bere-egin zezan.

Ezetz erantzun zioten goigotzaiek, jakaña.

Segura'k, gutun ura, zugurtasun oro ankapean artuz, 1931 artako orrillaren 1'ean idatzi zuan, eta bereala eman argitara. Ikus idatzi artako ale batzuk:

"... la Iglesia no puede ligar su suerte a las vicisitudes de las instituciones terrenas. Estas se mudan y la Iglesia permanece; estas son perecederas y la Iglesia es inmortal"

"Pero la Iglesia no reniega de su obra. En tiempos de anarquía afianzó con su autoridad el poder real, y con ello prestó servicios inestimables a la causa del orden y progreso, como han tenido que reconocer los mismos historiadores adversos al cristianismo".

Eta gero, XIII Alfontso'rekin jausi-berria dan Espaini'ko Borboien erregeztaren goratarrea egiten asten zaigu:

"No tenemos por qué ocultar, que si bien en las relaciones entre la Iglesia y el poder civil hubo paréntesis dolorosos, la Monarquía en general fue respetuosa con el derecho de la Iglesia".

"El reconocerlo así es tributo debido a la verdad, sobre todo cuando se recuerda con fruición los errores y se olvidan los aciertos y los beneficios. España toda y particularmente nuestra Archidiócesis están llenas de monumentos que hablarían si nosotros callásemos".

"Séanos lícito también expresar aquí un recuerdo de gratitud a Su Majestad D. Alfonso XIII, que durante su reinado supo conservar la antigua tradición de fe y piedad de sus mayores"

"¡Cómo olvidar su devoción a la Santa Sede, y que fué él quien consagró a España al Sagrado Corazón!"

"Y los toledanos, dejando a un lado otros acontecimientos, recordaremos siempre aquel día en que puso su bastón de mando a los



pies de Nuestra Señora de Guadalupe, y aquel otro del pasado mes de octubre en que, asistiendo al Concilio Provincial celebrado en Toldeo, nos hizo evocar otros gloriosos Concilios Toledanos que dejaron profundo surco en nuestra vida nacional..."

"La hidalguía y la gratitud pedían este recuerdo; que siempre fue muy cristiano y muy español rendir pleitesía a la majestad caída, sobre todo cuando la desgracia aleja la esperanza de mercedes y la sospecha de adulación".

Toledo'n eskutitz ori bere-egin nai izan ez zuten goigotzai aiek Segura bezain erregezaleak ziran. Zergaitik egin zioten ba orduan uko?

Segura bezain ausartak ez ziralako? Baleike. Baiñan baita ura baiño askoz zurragoak ziralako ere. Eta batez ere, Pacelli'ren eta Tedeschini'ren bitartez XI Pio Aitasantuak nola pentsatzen zuan, eta Errepublikaganako aren asmoen berri bazekitelako.

Eta, seguruaski, eragimen aundia izan-bide zuten billera artan Vidal y Barraquer Kardenalaren aolkuek. Au, bai. Au benetan zurrura, jakintsua, azkarra, kementsua eta itzal aundiko gizona bait zan.

Alatagutziz, Segura'ri, España'ko gotzaidi osoaren izenean gutun bat idaztea erabaki zuten, "mostrándose plenamente conformes con su actuación y condoliéndose de la persecución de que era objeto por parte del Gobierno".

"Persecución"? Bai noski. Baiñan ¿zer gertatuko ote zitzairen goigotzai aiei, gutun ura, Alcalá Zamora ez baiña Franko agintari zala urte batzuk geroago idatzia izan balitz? Segura'k jakin zuan, bere larrutik ikasita, zer gertatzen zitzaion Franko'ren agintaritzapean askoz gauza arriñegotara ausartzen zanari.

Osteketa edo protesta bat ere tajutu zuten orduan gotzaiak arrazoï osoz, Jaurlaritzak Elizaren eskubideak urratuz egin zituan eta egitera zijoala aldarrikatzen zuan okerkerien aurka.

Ortiz gaiñera, gotzai bakoitzari bidali zioten "elizaren ondasunei-buruz, Rafael Martín Lazaro "propagandistak" gertututako txostena.

Bazan orduan Herrera Oria "La Gaceta" izparringiaren zuzendariak irasitako "Asociación Católica Nacional de Propagandistas" zeritzan katoliko landuen erakunde bat. Erakunde ortakoa zan txosten aren antolatzailea.

Bestalde, aitortu bearra dugu oso era txukunean idatzia zegoala goigotzai aiek eratu zuten osteketa ura.

13 ziran bertan goigotzaiak aipatzen zituzten okerkeriak:

1ª. Gudaroztean eta espetxeetan iganderoko mezaren bearkizuna kendu izatea.

2ª. Illobitegien sekularizazio edo ez-sagaraketa.

3ª. Latteria Elizagandik bereiztea.

4ª. Jaurleei probintzietan elizkizunetara joatea debekatzea.

Militarrei ibildeunetara joatea debekatzea.

5<sup>a</sup>. "Ordenes Militares, edo erdiaroko Lekaide Gudarien Erakunde aien ondorio ziran Espaiñ'ko lau Gudari-Anaidien ezabatzea.

6<sup>a</sup>. Elizak nekazaritza-lurraldeetan zabaldurik zuekan "Asociación Agraria Católica"ri, --"ain zuzen katolikoa zalako"--, Laterriak erakunde orori ematen zizkion eskubideak ukatu izatea.

7<sup>a</sup>. Gure Jaunari, karriketan ofizialki egiten zitzaizkion omenen ezabatzea.

8<sup>a</sup>. Ikastetxe ta ikastoletan erlijioa irakastearen bearkizuna ezereztea.

9<sup>a</sup>. Erlijioa ikasi nai ez duan ikaslerik badan ikastetxe ta ikastoletan Gurutzea jarri aal izatearen debekua.

10<sup>a</sup>. Eliza, "Consejo de Instrucción Pública" zeritzan erakundetik at uztea.

11<sup>a</sup>. "Libertad de Cultos" edo "gurpenbide guztientzako askatasun berdiña", lege egitea.

12<sup>a</sup>. Elizaren erti-lanak Jauralaritzaren zaintzapean ipintzen zituan legea.

13<sup>a</sup>. Laterrilegeen aurrean, epaiketari zegozkionetan elizgizonek zuten eskubide bereizien ezereztea.

Goigotzaien osteketa ori, ez zan berealaxe argitaratu, ekaiñaren 3'an baizik, eta, ordurako Erroma'n erbesturik zegoan Segura Kardenalaren aginduz. Orregaitik, argitara eman zanean, beste laugarren atal bat ere bazuan osteketa orrek, eliz-erreketari buruzko atala, eskierki Segura'k berak erantsia.

Bere kasa egin zuan ori Segura'k, eta sortu zan Espaiñ'n alperrikako urduritasun-apur bat, Agindua Erroma'tik etorri zan ezkeru, agindu ura Aulki Doneak emana izan zala uste izan bait zuan emen jendeak.

Gizon zailla, Pedro Segura Kardenala.

"Prelado celosísimo y hombre de eminente rectitud de intención, estuvo, sin duda, falta de la necesaria prudencia para atemperar su comportamiento a las exigencias de cada momento. A la vista de los hechos resulta claro que el cardenal Segura no podía ser el hombre de la Iglesia española ante la República; como no lo sería ante el general Franco, ni lo sería ante Pío XII «ese papa al que yo no voté» según declaró en plena catedral de Sevilla". (Shenk Sanchis).

Gizon aldakaitza, Pedro Segura Kardenala.

Españarrek ez dute oso maite izan. Batzuek, ura errepublikaren etsai izan zalako. Beste batzuek Franko diktatorearekin konpondu ez zalako. Euskotarrok ordea benetan zor diogu esker ona, euskotarrokin oso ederki ari izan bait zan beti.

Alare, zeillegi bezaigu galde bat egitea:

Segura'ren ordez, Toledo'ko Goigotzai eta Espaiñ'ko "Primatus" edo

"Lenen-Gotzai" Alberto Onaindia izan balitz, eta Españi'ko gotzaiak, ain errege zale izatearen orde, adibidez Aitzol'en antzeko gizon irikiak izan balira, berdiña izango ote zan Errepublikaren eta Españi'ko Elizaren arteko arremanen edestia?

Izango ote zan, azkenean, Españi'n anaiarteko gudarik?



1931'ko orrillaren 10'ean, erregezaleek, Madrid'en "Círculo Monárquico" zeritzan batzoki bat iriki zuten. Une artan, ori egitea, deabrua zirikatzea zan. Eta erne zegoan Madrid'en deabrua, ots, erriko jende landerra. --Barkatu bezaidete Madrid'ko errikide lander eraspengarriek, baiñan, orduan beintzat deabruen antzera nabarmendu zirala, aitortu bearra dala derizkiot.

Egia da bildurrez beterik zegoala jende landerra Madrid'en; monarkizaleek Errepublika ankaz gora bota naiean zebiltzala usmatzen bait zuan. Baiñan, alatagutziz, gizarteko neurri guztiak urratuz eroen antzera ibilli zan orduan.

Ikaragarria, nazkagarria, izan bait zan erri erotu aren erantzuna bigaramonean Madrid'en, eta urrengo bi egunetan Bartzelona'n eta beste uri batzuetan, jauretxeak eta konbentuak erreaz. Nork eraginda? Ez dezagun aantzi anarkistek, CNT sindikatoaren bidez, indar aundia izan zutela Españi'ko langilleen artean.

1931'ko orrillaren 10'a, 11'a eta 12'a, egun itunak izan ziran Errepublikarentzat eta Españi osoarentzat, Españi'ko jendearen kontzientzipean datzan basapiztikeri izkutua, lotsagarriki, agirian gelditu bait zan; urtetxo batzuk geroago, 1936'atik 1939'ra anaiarteko guduan, alde batekoek eta bestekoek, ostera, mundu guztiaren aurrean agertu zuten basapiztikeria: Hitler'ek laister agertuko zuana bera.

Baiñan ez dezagun zokoan utzi, Hitler'ek millaka kilometro geiago eta milloika jende geiago atzi zituala bere mendepera.

1931'ko orrillean, Españi'ko erri ezkertiar landerraren gorrotoa, ez zan monarkizaleen aurka biurtu, Elizaren aurka baizik. Betikoa, aspaldidanik, Españi'n, erriaren jardunkera au. Zergaitik ote? Apalki aitortu bearrean aurkitzen gera, azkeneko 275 urte auetan Españi'ko erriak ez duala Españi'ko Eliza bere Ama lez ikusi.

Eunen bat eliz eta konbentu erre ziran 1931'ko orril negargarri artan. Okerkeri aundiagoak, egin izan zituan len ere Españi'ko erriak, eta egingo zituan, bai orixe, etorri bearrak ziran gudateko urteetan ere.

1931'ko orrillean ez zuan beintzat elizjendeen artean, lenagoko matxinadetan bezala, sarraskirik egin; ez zuan iñork iñor il. Eraiketetak, ezkertiarren eta eskubitarren artean, Errepublikaren azken-denboran izan

ziran. Eta gudatean. Ikaragarria bait da guda-lekuetatik kanpo ezkertiarrek il zuten jendearen kopurua; eta eskubitarrek, kamio bazterretan-da, erail zituzten arerioena! Ta ez dezagun aztu, zuzentasun utsaren argiz oben berdiña dala apaiz bat iltzea edo komunista bat iltzea, eliz bat erretzea edo sozialisten ala eusko-abertzaleen batzoki bat desegitea.

1931'an eskubitarrak poztu ere egin zirala esango nuke nik, eliz-kiskalketa aren ondorean, Errepublikaren aurka borroka gertutzeko kirten egokia iduritzen bait zitzaien gaiztakeri nabarmen ura.



Eun etxe sagaratu aien kiskalketaren errua nori jaurti? Erri landerrari; bai noski. Eta..., ezkertiar liberal jakintsu buruz-landuei? Bai beintzat erreketara gertagarri egin zuan giroaren prestaketaren errua! "El anticlericalismo tenía una raíz intelectual (...) que consideraba a la Iglesia enemiga del progreso y una raíz popular, con una enorme fuerza pasional, que descarga sus emociones en un enconado odio a la Iglesia", diosku Palacio Atard edestilari eskubitarrak. Baiña ez diosku, "odio enconado" ori, erriak, beti, Españi'n Elizaren gaiñera zergaitik iraultzen duan.

Orril artan erria jauretxeei su ematera nork bultzatu zuan, ez digu iñork esaten. Ori, iñork ez dakian gauza bait da.

Iñork bultzatzeke, berez asi ote zan Madrid'en erria sua pistutzen?

Bultzagillerik izan ba'zuan, nor izan ote zitekean bultzagille ori?

Ez beintzat komunistek. Bere ikurrinpera lau katu biltzen ez zituan Alderdi Komunistak ez bait zuan orduan ezertarako indarrrik. Komunismoa, Españi'n, eskubitarrek beren okerkeriak zuritzeko erabilli duten mamua besterik ez da izan sekulan.

Sozialistek orduan? Sozialismoak bi talde zituan une artan: bakuna bat, indarkariaren etsaia, Prieto'k eta Besteiro'k zuzentzen zutena; gogorra bestea, marxikeri gordiñekoa, Alvaro Albornoz'en eta bereiziki Largo Caballero'ren esanera zegoana. Baiñan, auek zikinkerri ura ez zutela agindu, badakigu.

Anarkistek agian? Anarkista zan CNT izeneko sindikatoa, eta ez ziran mutiko gozoak sindikato ortako langilleak. Baiñan erreketara ura anarkistek agindu zutela esatera ez da iñor ausartu.

Jaurlaritzak, bai. Jaurlaritzak badu erruaren zati galanta, erreketara ura eragozteko ez bait zuan ezer egin. Errepublika'k gero 1934'ean Asturietako iraultza zapaltzeko erabilli zuan kemenaren apur bat 1931'n Madrid'en erabilli balu, ez zan Madrid'en eliz bat bakarrik erreko. Ezta bigaramonean, Españi'ko beste urietan ere.

Baiñan ez dezagun zokoan utzi, Hitler'ek millaka kilometro geiago eta milloika jende geiago atzi zituala bere mendepera.

1931'ko orrillean, Españi'ko erri ezkertiar landerraren gorrotoa, ez zan monarkizaleen aurka biurtu, Elizaren aurka baizik. Betikoa, aspaldidanik, Españi'n, erriaren jardunkera au. Zergaitik ote? Apalki aitortu bearrean aurkitzen gera, azkeneko 275 urte auetan Españi'ko erriak ez duala Españi'ko Eliza bere Ama lez ikusi.

Eunen bat eliz eta konbentu erre ziran 1931'ko orrii negargarri artan. Okerkeri aundiagoak, egin izan zituan len ere Españi'ko erriak, eta egingo zituan, bai orixe, etorri bearrak ziran gudateko urteetan ere.

1931'ko orrillean ez zuan beintzat elizjendeen artean, lenagoko matxinadetan bezala, sarraskirik egin; ez zuan iñork iñor il. Erailketak, ezkertiarren eta eskubitarren artean, Errepublikaren azken-denboran izan ziran. Eta gudatean. Ikaragarria bait da guda-lekuetatik kanpo ezkertiarrek il zuten jendearen kopurua; eta eskubitarrek, kamio bazterretan-da, erail zituzten arerioena! Ta ez dezagun aztu, zuzentasun utsaren argiz oben berdiña dala apaiz bat iltzea edo komunista bat iltzea, eliz bat erretzea edo sozialisten ala eusko-abertzaleen batzoki bat desegitea.

1931'an eskubitarrak poztu ere egin zirala esango nuke nik, eliz-kiskalketa aren ondorean, Errepublikaren aurka borroka gertutzeko kirten egokia iduritzen bait zitzaien gaiztakeri nabarmen ura.



Eun etxe sagaratu aien kiskalketaren errua nori jaurti? Erri landerrari; bai noski. Eta..., ezkertiar liberal jakintsu buruz-landuei? Bai beintzat erreketeta ura gertagarri egin zuan giroaren prestaketaren errua! "El anticlericalismo tenía una raíz intelectual (...) que consideraba a la Iglesia enemiga del progreso y una raíz popular, con una enorme fuerza pasional, que descarga sus emociones en un enconado odio a la Iglesia", diosku Palacio Atard edestilari eskubitarrak. Baiña ez diosku, "odio enconado" ori, erriak, beti, Españi'n Elizaren gaiñera zergaitik iraultzen duan.

Orril artan erria jauretxeei su ematera nork bultzatu zuan, ez digu iñork esaten. Ori, iñork ez dakian gauza bait da.

Iñork bultzatzeke, berez asi ote zan Madrid'en erria sua pistutzen?

Bultzagillerik izan ba'zuan, nor izan ote zitekean bultzagille ori?

Ez beintzat komunistek. Bere ikurrinpera lau katu biltzen ez zituan Alderdi Komunistak ez bait zuan orduan ezertarako indarrik. Komunismoa, Españi'n, eskubitarrek beren okerkeriak zuritzeko erabilli duten mamua besterik ez da izan sekulan.

Sozialistek orduan? Sozialismoak bi talde zituan une artan: bakuna bat, indarkariaren etsaia, Prieto'k eta Besteiro'k zuzentzen zutena; gogorra bestea, marxikeri gordiñekoa, Alvaro Albornoz'en eta bereiziki Largo Caballero'ren esanera zegoana. Baiñan, auek zikinkerri ura ez zutela agindu,

badakigu.

Anarkistek agian? Anarkista zan CNT izeneko sindikatoa, eta ez ziran mutiko gozoak sindikato ortako langilleak. Baiñan erreketeta ura anarkistek agindu zutela esatera ez da ifior ausartu.

Jaurlaritzak, bai. Jaurlaritzak badu erruaren zati galanta, erreketeta ura eragozteko ez bait zuan ezer egin. Errepublikak gero 1934'ean Asturietako iraultza zapaltzeko erabili zuan kemenaren apur bat 1931'n Madrid'en erabili balu, ez zan Madrid'en eliz bat bakarrik erreko. Ezta bigaramonean, Españi'ko beste urietan ere.

Katoliko bat zan orduan, 1931'n Jaurlaritzan Barren-Auzietako Ministroa: Antonio Maura. Zuritu zuan onek geroago bere burua liburu baten bidez, ezer-ez-egin-izate aren erru guzia Jaurlaritzako bere kide guztiei boteaz. Ez da Alkala Zamora ber-bera ere, naiz katolikoa izan, Maura'ren orrietatik oso-oso garbi ateratzen. Baiña Maura'k liburu ori, -- "Cómo cayó Alfonso XIII"--, 1966'garren urtean argitaratu zuan. Jaurlaritzara artako bere lagun guztiak illik zeudenez gero.

Danadua, 1931'ko orrrillaren 10, 11, eta 12'an kiskalitako etxe sagaratu aiek ez zuten Elizaren eta Jaurlaritzaren arteko itxura onezko adiskidetasunik urratu.

Orrillaren 13'an bertan irten zan Españi'tik Segura kardenala. Ez zuan Jaurlaritzak bota. Aulki Doneak eskatu zio Españi'tik irtetzeko.

17'an Mujika Gazteiz'ko gotzaia izan zan erbesteratua. Oraingoan bai, oraingoan Jaurlaritzatik etorri zan agindua. Obeto esateko, Antonio Maura, Barne-Arazoetako Ministro katolikoa izan zan, Alkalá Zamora Lendakariaren asmoen aurka, Araba'ko Jaurleari, On Mateo Mujika atzerrira jaurtitzeko agindua eman ziona.

Gazteiz'ko Gotzaiaren auzia, nuntzioaren eskuetan ipiñi omen zuan Alkalá Zamora'k. Ordurako, Mujika'k, Alkalá Zamora'ri idatzia omen zion, zuzendu bearra zan guztia zuzentzeko gerturik zegoala adieraziz; eta eskutitz orren berri eman omen zion Alkalá Zamora'k Maura'ri. Nunzioaren ardurapean omen zegoan beraz arazo guzia.

Ikus nola kontatzen digun Alkalá Zamora'k orduan gertatua:

"En espera de la acción mediadora de la nunciatura, me permití, al dominarse la terrible semana de los incendios, salir en automovil el domingo 17 para dar un paseo que no excedió de 3 horas. No necesitó Maura más tiempo para expulsar al obispo de Vitoria, en cuanto colgó el teléfono cuando yo me despedía para tan corta ausencia. A mi vuelta, me comunicó la insólita medida, y yo no oculté mi rotunda desaprobación y enérgica protesta por tan imprudente audacia".

Ez zan gozoa ibilli dakusazunez, On Mateo Mujika Gazteiz'ko Gotzaiaren aurka Antonio Maura ministroa.

Maura, ez zan ezkertiarra. Alderantziz, eskubitarra zan, katolikoa. Alako

amorruz, zergaitik eraso ote zion bâ elizgizon bati?

Egia da Mujika'k Errepublikaren aurka gogorregi itzegin zuala; errepublikazaleei autarki-ematea zillegi ez zala esateraiño iritxi bait zan. Ez daigun ordea aztu, Mujika'k gaitzesten zituan errepublikazale aiek ezkontzaustearen aldeko eta zearo antiklerizaleak zirala, eta ori gotzai batek ontzat artu ez zezakean gauza dugula.

Alatagutziz, izketa ori Errepublikaren aurka oben aundia zala errepublikazaleek uste izatea, ez da arritzeko gauza. Baiña beste arrazoi bat ematen du Maura'k geroago ikusiko dugun bezala; Segura ere, bigarren aldiz, Maura'k berak erbesteratu bait zuan.

Nonbait irakurria dut, Maura On Mateo erbesteratzen ain azkar eta ain isilik ibilli ba'zan, ori, Mujika euskotar abertzalea zalako ustean egin zuala.

Ez, ordea. Maura'k ez zuan 1931'an ori uste izateko ziorik. Oker ibilli zan geroago Franko bera, Mujika abertzaletzat arturik atzerrira jaurti zuanean.

Mujika ez zan beñere abertzalea izan, naiz, orduan, auteskundeetan abertzaleei autarki-ematea zillegi zala aldarrikatu.

Errepublikaren etsai, bai. Beti izan zan Errepublikaren etsai. Arentzat errepublika, "la nefasta república" izan zan. Ori entzun genion, Gazteiz'ko apaizgaitegiko jauretxean apaizgaiok, Mujika, oso zarra ta itxua zegoalarik, ostera Euzkadi'ra itzuli zanean.

Baiñan, abertzale, ez zan beñere eusko-abertzale izan gure Mujika. Otoi zer aitortzen zion berak Aulki Doneari, erbesteraturik Frantzi'tik bidali zion txosten batean:

"Yo soy el que siendo obispo de Vitoria reprobé el separatismo vasco, digan lo que digan los que me quieren mal, aunque naturalmente amé a mi pequeño país, su idioma, y los buenos usos y costumbres del mismo".

Eta txosten beraren beste bazter batean:

"... soy yo precisamente uno de los españoles que ha hecho resonar más el nombre de España no solo en casa sino también en Alemania y ... (Bera ibillitako lurraldeak aipatzen ditu jarraian On Mateo'k).

Zergaitik aldarrikatu ote zuan bâ, Errepublikaren aroko auteskunde aietan, Eusko Alderdi Jeltzaleari autarkia ematea zillegi zitzaiela katolikoei? Ona zergaitik:

Galde ori egin zitzaiolako, eta bere burua galde ari erantzun bat ematera bearturik zegoala ikusi zualako. Ala ere, ez zuan erantzuna berak bere izenez eman, artarako bere Ordezkarri Orokorraz baliatuz baizik. Entzun On Mateo berari, Aulki Donera zuzendutako txosten batean:

"En las últimas elecciones (1936'garren urtekoetan) pusieron empeño las llamadas derechas en combatir a los nacionalistas vasco por anticatólicos, y fue entonces cuando mi vicario general dn. Jaime Berástegui, publicó de acuerdo conmigo, una nota oficiosa en la que se declaraba que

los nacionalista vascos eran tan católicos como las llamadas derechas y que lícitamente se podía favorecer con el voto a cualquiera de ellos; hubo de contestar a un caso de conciencia que se recibió en la curia. (Azpimarraketa, nereá).

Oartu ai zera irakurle? azalpen ura, beartasunak eraginda izan zan emana: "hubo de contestar", eta kontzientziak beartuta; "un caso de conciencia"ri erantzunaz. Gaiñera, Mujika'k berak dioskunez, azalpen ura, "oficiosa" izan omen zan; ez, "oficial".

Orrenbeste istillu, egin bearra zana egin zala, lotsarik eta bildurrik gabe esateko!

Iru egun leenago, orrillak 10, isillean, Españi'ra itzuli zan Segura; ta, jakiaña, laister, ekaiañak 5, izan zan, Jaurlaritzak oraingoan, atzerrira bidalia. Jaurlaritza baiño geiago Miguel Maura izan zan berriro erbestertzaillea. Entzun bereari: "No fue un choque entre la República y la Iglesia, sino un choque de Miguel Maura, católico apostólico romano pero a la vez ministro de la gobernación, con dos jefes de la Iglesia (Mugica y Segura). Estoy seguro, segurísimo, de haber evitado con ello, graves daños a la paz religiosa y a los maldicientes católicos españoles".

Urrengo bi illabeteak Españi'ko gotzaiek eta eskubitar danek, Segura'ren goratarrea egiten igaro zituzten; baita Tedeschini nuntzioak ere.

Baiñan Segura, "Españi'ko Elizaren ordezkari bera bakarrik izan balitz bezala, bere kasa asi bait zan jarduten", (Schenk Sanchiz), galdu zuan Vidal y Barraquer Tarragona'ko Goigotzai Kardenalaren eta Tedeschini nuntzioaren uste ona. Era berean Aulki Donearena.

Ta, XI Pio'ren eskaria onartuz, Toledo'ko goigotzaigoa uztera bearturik aurkitu zan. Iraillaren leengo egunean egin zan ori, baiñan ez zan il beraren 30'a arte argitara emana izan.

Bi urte geroago, 1933, Ekaiañak 1, Tarazona'ko eta Muskari'ko Gotzaia, Isidro Gomá, izan zan Toledo'ko Goigotzai eta Españi'ko "Primatus" izendatua. Nork eraginda egin zuan Aulki Doneak izendaketa ori, iñork ez daki, baiñan arras izendaketa okerra izan zala, Gomá'k anaiarteko gudatean erabilli zuan jardunkerak erakutsiko digu.

Ez zan beñere Gomá, Vidal y Barraquer'ekin ongi konpondu. Ta, zillegi bezaigu orain len egin dugun galde baten antzeko beste galde bat egitea:

Zer gertuko ote zan Españi'n, orduan Gomá'ren ordez Toledo'ko Goigotzai ta Españi'ko "Primatus", Vidal y Barraquer izan ba'zan egiña?

- "Ez ziran, guda-ostean, Franko ta Eliza, batu ziran bezala batuko", -- erantzuten digu Schenk Sanchiz frankozaleak; eta ortan arrazoi du.

- Baiñan, "gudaren etorrerarik ez zala eragoziko" ere esaten digu, naiz Vidal y Barraquer Franko'rekin konpondu ez, "gorriek" Tarragona'n --Vidal y



Barraquer'en elizbarrutian-- 131 apaiz il zituztela, arrazoizat ipiñiz.

Baiñan arrazoi orrek ez du balio, eraiketa aiek, "gorriek", gudatekoan egin zituztelako, eta, Vidal y Barraquer egon ba'litz goigotzai guda-aurretik Toledo'n, agian gudarik izango ez zalako.

Edo beintzat, guda etortzen ba'zan ere, --ez bait da sinisgarri Españi'ko militar biurri borrokazaleak, fatxismoa Europa'n nagusi zan garaiean, Jaurilaritzaren aurka gudan jeiki gabe geldituko zirala uste izatea--, aien gudua ez zan beintzat kristautasunaren izenean egiña izango. Eta ez zitzaigun ori, ez orixe, Elizarentzat zorion kaxkarra izango.

Segura atzerrira jaurtia izan zanez gero, bereala argitara eman zuten Españi'ko gotzaiek beren lenengo Gutun Pastoralá, katolikoei Errepublikaren aurka indarkeririk ez erabiltzeko aginduz. Eliza bera omen da bâ kristauei "acatamiento y obediencia al poder constituido, aun en los dias en que sus depositarios y representantes abusen del mismo en contra de ella", eskatzen eta agintzen diena.

Galerazia gelditzen da beraz legezkoa ez dan ekintza oro, are geiago iraultzagintza edo gudua: "Cooperar con la propia conducta o con la propia abstención a la ruina del orden social con la esperanza de que, de tal catástrofe, nazca una condición de cosas mejor".

Ori, Aberriari eta Elizari uko egitea omen litzake: "Sería actitud reprochable que por sus fatales efectos, se reduciría casi a traición para con la religión y la patria".

Eskubitarrek entzungor egin zioten gotzaien aginduari. Donosti'ko "La Constancia"ren aburuz, "escudarse detrás de los señores obispos... es algo que no se puede admitir". Zergaitik? Gotzaiek itzegiteko, berak sentitzen zuten bezala itzegiteko, "askatasunik ez omen zutelako"! Ori beintzat zion integristen izparringi arek.

Ta... baleike oso oker ez ibilli izatea; naiz idatzi zutena, gotzaiek, kontzientzi osoz idatzia izan, kontzientzipean beste era batera sentitzen bait zuten.

Ondotxo oarturik zegoan ortaz Gipuzkoa'ko apaiz jaun ura.

Mendietan gudarako prestaketak egiten ikusi zituan "reketeen" gorazarrea egiten ari zala..., ¿uste al duzu, --galdetu zion beste apaiz batek--, gotzaiek agindu digutenaren ondorean, zuk aipatutako prestaketa oiek zillegi diranik?

Ezpairik gabekoa izan zan erantzuna: "Gotzaiak? Gotzai gizagaixoak! Pozik entzungo lukete, baztar guztietan orrelako mutil-taldeak, dauzkagun agintari zikiñok ankaz gora botatzearen, borrokarako prestaketak egiten ari dirala...!

Egia ez dana, beste punttua da: askatasunaren faltari dagokiona. Franko'ren denboran ez, baiñan Errepublikaren denboran bai, izan zuten orduan Gotzaiak askatasuna.



- Jaurlaritzak, bitartean, aurrera zeraman, Espaini Laterri laiku biurtzeko, asieratik arturik zeukan erabakia:

- Agertu zituan Erlijioso-Ordena guztiak ezerezteko eta aien ondasunetaz jabetzeko, zeuzkan asmoak;

- Erlijio-gurketa, jauretxeen barruan bakarrik egiteko agindua eman zuan;

- lare utzi zuan ezkontzaren ezereztea;

- lkastetxeetan ez zan erlijiorik erakutsiko.

Dagonillaren 27'an izan zan konstituzio berriaren aurre-idazkia Legebatzarrera aurkeztua. Ezkertiarra zan parlamentu ura, ezkertiarrek irabazi bait zuten 1931'ko auteskundera.

Parlamentu artan egin ziran ospetsu eusko-diputaduak, Leizaola bereiziki, Elizaren eskubideak babesten. Eta izan zuten, bai orixe, izan zuten zer babesturik!, legebatzar artako ezkertiarrak, Elizaren eskubideen aurka, erarik txoroenean ibilli bait ziran. Entzun errepublikazale bateri:

"La Iglesia no había recibido con hostilidad a la República; su influencia en el país tradicionalmente católico era evidente. Provocarla a luchar apenas nacido el nuevo régimen era impolítico e injusto; por consiguiente, insensato" (Lerroux).

Ala atera zan ain okerra, ain baldarra, ain arrisku beltzez betea, legebatzar artatik irten zan Oiñarri-Gegea.

26'garren atala zuan bereiziki Elizarentzat kaltegarria. Eta beste ororen gaindik, Josulagundiari Espaini'n bizia galerazten zion punttua izan zan zaratarik audiena sortarazi zuana; baiñan beste Erlijioso-Ordenei ere egiten zitzaien gaiztakeri galanta, beren ondasunei muga motza ipintzen bait zitzaien: "Beren bizirako eta beren Ordenari zegokio eginkizunerako bearrezkoa zutena" besterik ez zezaketen Ordenek jabe lez Espaini'n euki: "Solo lo necesario para su vivienda o al cumplimiento de sus fines privados".

Iñakitarrei, Aitasantuaren esanera egoteko eskeintza bereizi bat egiten dutelako, izan zitzaien Espaini'n bizitzea galerazia:

"Quedan disueltas aquellas órdenes religiosas que estatutariamente impongan además de los tres votos canónicos, otro especial de obediencia a autoridad distinta de la legítima del Estado. Sus bienes serán nacionalizados y afectos a fines benéficos docentes".

Agindu ori, zuzenean, Aitasantuaren eskabideen aurka zijoan; Aitasantuaren esanera egotera bearturik, iñakitarrak ez ezê, kristau guztiok ere bai bait gaude.

Ortaz gaiñera, Oiñarrilege aren aginduz, Espaini'ko bizitza, jauretxeen ormetatik at, zearo sekularizaturik gelditzen zitzaigun; eta ez zitzaizkigun, arrazoizkoa zanez, gutxi asarretu eskubitar guztiak, baita errepublikazaleak ere:

"Se rompió la concordia fundamental de los partidos republicanos... Se debilitó con propósito reflexivo, y a la vez suicida, a los partidos republicanos de significación templada, restándoles elementos e impidiéndoles posteriores sumas... Y sin embargo esos partidos templados, pero inequívocamente republicanos, eran fundamento principal del régimen y salvaguardia indispensable, garantía de tranquilidad para los de izquierda...".

"Por si todos estos daños fueran pocos, el artículo 26 oscureció la serenidad para cualquier reforma orgánica, neutra, experimental, limitada, prudente, de nuestra Constitución... Al lado de tantos y tan magnos daños, representa muy poco la alegría de los heterodoxos, disidentes, o librepensadores, satisfechos tan sólo en las pasiones negativas"... (Alcalá Zamora). Azpimarraketa nerea da.

Esan dugun lez, aurka izan zituan lege arek zentzuzko errepublikazale asko.

Alcalá Zamora'k, Lendakaritza utzi zuan, bere asarrea agertzeko, eta Barren-Auzietako ministeriotza utzi zuan Miguel Maura'k; eta, bi auek bezala, aurkako autarkia amen zuten aipatutako errepublikazale paketsu aiek. Ala, adibidez, Ossorio y Gallardo legegizon ezagunak.

Errepublikazale "jakintsuak" ordea, --Marañón, Sanchez Alborno, Sanchez Roman, eta auen kideko jauntxoak--, beren buruak ez nabarmentzearren, lotsagarriki, autarkirik emateke, ez bai ta ez ez, mozorroen antzera kukildurik gelditu ziran, gizonki jokatzeko gauza izan ez ziralako. Auteskunde aurreko izkamizka beroetan itztxo bat esateko ere ez ziran gai izan.

Bai 26'gn atala eta baita Oñarrilege osoa, errez izan ziran Legebatzar artan ontzat artuak: 178 autarki baiezkoren alde; 59 bakarrik aurka.

Baiñan, ez zuten ezkertiarrek gurenda-olesik egiteko zio geiegirik, Oñarrilegeak alde izan zituan 178 diputadu aiek, legebatzarraren bostetik bi besterik ez bait ziran. Bostetik beste iruek, edo aurka eman zuten autarkia, edo ez zuten autarkirik eman, edo batzarrera joateke etxean gelditu ziran.

Ori, eta ezkertiar jakintsu aiek aldeko autarkirik ez eman izatea, ederki erabilli zituan Vidal y Barraquer Kardenalak bere burua itxaropentsu agertzeko, Pacelli Estadutzako Idazkari Kardenalari idatzitako txosten batean. Bi gauza aiek "desprestigio de la Constitución" omen ziran bâ, "por la menguada votación y la ausencia de valores representativos que la hayan hecho suya".

Baiñan ez dugu oraíndik agertu orduango gertakizunik lotsagarriena: Aipatu ditugun jakintza-gizon ustel aiek bezala, ez alde ez aurka, autarkirik eman gabe gelditu ziran, aurreko eztabaidetan ere parterik artzeke, monarkiaren denborako politikolari nabarmenak: Romanones, Alba, Melquiades Alvarez, eta Sanchez Guerra. Auek ordea, ez ziran ustelak

beste aiek bezala; auek, seguruaski Errepublikan era lotsagarrian utzi, eta Errepublikaren aurka katolikoen biotzak sutan ipintzea besterik ez zuten billatzen.

Era zakarrean amaitu ziran autarki-egun ura eta egun aren ondorengo gaua: Entzun berriro Alkalá Zamora ordurarte Lendakari izanari:

"Fue un momento de gran confusión mientras nos poníamos en pie para marcharnos. El hemiciclo estaba lleno de gente, y en los escaños circulaban los diputados y formaban grupos que gritaban. En tanto, el presidente (Besteiro zan Lendakari au) leía el orden del día para la sesión siguiente. Entonces vi que a Leizaola, que estaba en pie, solo, en una escalerilla entre los escaños, increpando a los republicanos, le daban un puñetazo en la nuca. Espantoso griterío y barullo. Los diputados se echaban unos contra otros. Me han dicho que Sigfrido Blasco sacó una pistola. (Egia ote?).

"Pudieron llevarse a Leizaola, mientras Besteiro se desgafitaba queriendo imponer orden".

Alkalá Zamora'ren ordeaz, Manuel Azaña izan zan Lendakari izendatua. Idazle yayoa ta txukuna, baiñan politik-gizon baldarra, ez bait zan oartu, Eliza zirikatzean, izkilluz jeikitzeke aitzaki borobilla ematen ari zala katoliko borrokalariei.

Udazkena zan. Urrillean egin zuan Tedeschini nuntzioak Oñarrilege moldakaitz aren aurka bere osteketa. Ori bera egin zuan XI Pio Aitasantuak ere, Kristo Errege-egunean meza "para que cese la gran tribulación que aflige a la Iglesia y al pueblo fiel" eskeñiko zuala jakifinaraziz.

Abenduaren 9'an, lege zan Españi'n Kostituzio berria.

"La solución que la Segunda República dió al problema religioso fue la menos oportuna en orden a aunar a los españoles en una empresa común. A quienes en aquellos momentos tuvieron poderes decisorios, les faltó modernidad, prudencia y habilidad ante un problema que otros países habían acertado a resolver hacía mucho tiempo, mientras que a los españoles les sobró carga anticlerical". (Schenk Sanchis).

Ederki esana. Europa'n aspaldi illik eta obiraturik zeuden mamuak berbizten ari ziran bñ, ume txoroak bezala, Españi'ko ezkertiar zipotzak.

Abenduak 10. Alkalá Zamora izan zan Errepublikaren Lendakari izendatua, oraingoan erabateko Lendakari. Jaso zituan gotzai batzuen eta nuntzioaren zorionak, baiñan almenik gabeko kargua zan diputaduek eman ziotena, Jaurjaritzako Lenen Ministroaren eskuetan uzten bait zuan Oñarrilege berriak jaurketarako almen osoa. Eta Lenen Ministro au, orduan, aipatutako Manuel Azaña ber-bera zan.

1931'aren azken-egunean, abenduaren 31'an, goigotzaiak izan ziran osteketa egin zutenak. Kementsua eta era berean paketsua, Errepublikari adiskide-eskua luzatuz otzana, izan zan goigotzaien izkera.

Urte oni agur egin aurretik aipa dezagun Etxeguren'dar Justo'ren arazoa.

Etxeguren, Gazteiz'ko Elizbarrutian Mujika'ren Ordezkarari Orokorra zan, eta Angelu'n erbesteraturik bizi zan bere Gotzaia ikustera zijoala, Irun'en baitua izan zan, garrantzi aundiko idazti bat berekin zeramala aitzakitatzat artuta.

Ez zan, egia esateko, aitzakia bakarra, Jaurilaritzarentzat egiaz garrantziko idazkia bait zan ura. Eliza bere diruak Laterritik kanpora eraman naiean zebilela, egin zuan Jaurilaritzak oi.

Edestilari eskubitarrek, Elizak ez zuala sekulan orrelako asmorik izan, dioskute, eta idazki ura, Aulki Donearen aolkua jarraituz, Elizaren ondasunak nola babestu zitezkean erabakitzeke aurre-egitamu bat besterik ez zala; eta España'ko gotzai guztiei izan zitzaie la bidalia. Bildurra sumatzeko ziorik aski bai omen zuan bâ orduan Eliz espña'irrak.

Aztertu dezagun astiroxamar arazo ori:

Etxeguren'dar Justo'ri Irun'en arrapatu zioten idazkia, orrillaren 9'an "Asociación Católica Nacional de Propagandistas" izeneko Erakundekoa zan ekonomista ark goigotzaiei Toledo'n aurkeztu zien txosten ura bera zan.

Ez da egia, jauretxe-erreketa ikaratuta gertutuarazi zuala Elizak txosten ura; erreketak, bi egun geroago 9'an, asi bait zan.

Egia da txosten ura Aulki Donearen aolkua jarraituz, edo beintzat Aulki Donearen onetsiarekin izan zala gertutua. "La Santa Sede dió potestad, mientras duraren estas circunstancias extraordinarias (Laterriak Elizari dirulaguntzarik ez ematea seguruaski), de vender bienes y colocar en lugar seguro dentro o fuera de España, teniendo en cuenta las circunstancias de cada diócesis, los títulos que posea de la deuda pública". (Schenk Sanchis).

- Elizak ondasun aiek atzerrira eramateko asmorik ba'zuan edo ez, naiz edestilari eskubitarrek ezetz esan, iñork ziur ez dakian gauza da. Bazuten gotzaiek ori egiteko eskubidea, lapurreta nabarmenetik bere ondasunak babesteko, an edo emen babesteko, edonork bai bait du eskubidea.

- Beste gauza bat dugu, garai artan ori egitea jardunkera zugarra zan edo ez erabakitzea.

- Zearo egia duguna, auxe da: Ez zirala oso zugar ibilli goigotzaiak Aulki Donearen erabaki orren berri gotzaiari paper idatziz ematean, eta ez zala zugar ibilli Etxeguren, paper idatzitza ura Frantzi'ra izkutuan pasa nai izatean.

- Egia da baita're, eskubitar batek dion bezala, idazki aiek "documentos que comprometían a la Iglesia" zirala. (Cárcel Ortí).


Alatagutziz, Etxeguren gizon egokia, jakintsua, eta apaiz bikaiña zan. Obiedo'ko Gotzai egiñik, gudua asi ta bela il zitzaigun; zoritxarrez! Egiatzko demokrazizalea ere bai bait zan.



1932'ko urtea, Errepublikak Espāni laiku-egiten eta eskubitarrek Errepublikaren aurka gudua gertutzen igaro zuten.

Errepublikaren buruzagiek ez zuten arriskurik ikusi ere egiten.

Urte orren Dagonillean jeiki zan izkilluz Jaurlaritzaren aurka Sanjurjo jenerala. Menderatua eta eriotzara galdua izan zan; baiñan Errepublikak



## XI PIO ETA FRANKO

### "(ELIZAREN GUDU SANTUA)"

Naitanaiezkoa dugu, gure egunotako Elizaren edestia azaltzerakoan, Espainiako Anaiarteko Guduaz itzegin bearra, inoiz edestiaren zear Eliz-Gudurik izan ba'da, uraxe izan bait zan benetan, orduango elizgizonen itzetan eta idazkietan, "Elizaren Gudua", naiz gaurko elizgizonei orduango aien jokaerak lotsarik aski sentiarazi.

Baiña, badira gaur, oraindik, gudu ura atseginki oroitzen duten kristauak. Beste asko, zer pentsatu ez dakitela dabiltz. Orduango gotzainen izkera ez zaie aztu; gaurkoena ezin dute ulertu.

Elizjendearen deia entzunaz, Eliza salbatzen zutelaren ustean joan ziran orduan kementsu Franko'ren alde gudara. Bikainki egin zuten borroka. Anei neke ta arrisku igaro zituzten. "Komunismoaren Ondatzaille, Kristautasunaren Salbatzaille, eta Europa'ko Izate Berberaren Babesle" izan ziran, gudatik garaille itzultzerakoan, izendatuak.

Beste askok ez zuten gudara joaterik izan, baiña "santua" omen zalako gudu artan galdu zituzten, aita, senar, seme, anai, senargai..., ainbeste gizaseme gazte maite.

Galdurik bezala aurkitzen dira gaur jende auek danak, arriturik, oiñazetan, mindurik. Eta oiñazez dagon kristauak merezi du begirunea, eraspena..., eta laguntza.

Nik baditut nere lagun eta adiskideen artean orrelako jendeak. Adiskide laztanak; karlistak, bene-benetako kristau zintzoak, biotz oneko jendeak, borondate zuzeneko pertsonak...

Zuentzako, adiskide karlista maite oentzako, idatzi nai dut Espainiako gudari dagokion atal mingarri au.

Guda ura Guda Santu bat zala uste izan zenduten. Ez zifiaten zuek bakarrak, orduan ori sinisten zenutenak; mundu guztiko gotzai guztiak, ia-ia danak, Franko'ren alde jarri bait ziran gudakoan, eta guda ostean.

Gotzai aientzat, Franko'ren etsai guztiak deabruaren semeen antzeko zerbait ziran. Inglannderriko jendea demokrazi-zalea dala esan oi da beti. Bâ,



Westminster'eko Goigotzai Hinsley Kardenalak ez zituan Franko'ren Españi'tik igesi joandako apaizak bere elizbarrutian artzen; eta Hinsley onen urrengo Goigotzaiak; Griffin Kardenalak, Franko'ren enbaxadategira presentatzea eskatzen zien apaiz erbesteratu aiei, elizbarruti artan apaizlanetarako baimenik artzeko gai izan nai ba'zuten. Geiegikeri txatxuak. Luzarora, ez Elizari ez Franko'ren "Mobimentuaren" zuzentasunari mesede aundirik egingo ez zietenak.

Gotzaiak bezala, Franko'ren aldekoak izan ziran mundu guztian apaizak ere. Zer esanik ez, prailleak eta prailleek argitaratzen zituzten aldizkariak. Eta apaiz eta prailleen atzetik, katolikorik geienak; aberatsak batez re.

Franko'ren aurka ez al zan iñor atera? Bai; gutxi, baiña atera ziran Franko'ren aurka gotzai eta jakintsu katolikoren batzuk: Verdier, Paris'eko Goigotzai Kardenala; Liénart, Lille'ko Goigotzai Kardenala; Feltin, Bordele'ko Goigotzaia orduan eta, geroxeago, Paris'ko Goigotzai Kardenala; Dutoit, Arras'ko Gotzaia; Mathieu, Dax'ko Gotzaia, Aulki Doneak Tolosa'ko Goigotzai Kardenal egin nai izan zuana, eta Franko'ren diplomazia tartean sartu ez balitz, eginen zuana, eta, naiz agirian ezer esan ez, -- Aitasantu batek arreta aundiz ibilli bear bait du--, ¡Pio XI'a bera! dirudianez, gero azalduko dugun bezala. Jakintsu ta elertilarien artean aipa ditzagun Dowson, Mounier, Bernadot, Mauriac, Bernanos, eta Maritain. Eta apika besterik.

Dakusazunez, gutxi, oso gutxi izan ziran "gurutzadaren" aurka atera ziran eliztarrak, baiña alatagutziz, ontan ere Franko'ren "gurutzadak" zearo adur txarra izan zuala aitortu bearra da, aurka irten zitzaizkion aiek, orduan Elizak jerarkiaren eta jakintzaren mailletan zituan gizonik ospetsuenak eta munduan ezagutuenak eta mirestuenak bait ziran.

Agian orregaitik ibilli zitzaigun ain arreta aundiz eta ain zugurki gure Anaiarteko Guda artan Aulki Donea. Orregaitik..., eta Pio XI'a 1935'az gero fatxismuz asperturik zegoalako. Fatxismu-usai aundia nabaritzen bait zion Pio Aitasantuak Franko'ren "Gurutzada Doneari".

"Elizaren Gudua" izen ipiñi diogu atal onen asieran "gurutzada" arri. Ez gera zuzen ibilli. "Eliz-Gizonen-Gudua" esan izan bear genion, Erroma ofiziaiki gudutik at egon bait zan beti.

Españi'n ez zan katolikoaren artean guda aren santutasuna zalantzan ipiñi zuanik.

Euskalerrian, bi zati egin zitzaizkigun katolikoak:

Erregezaleentzat egiazko gurutze-guda izan zan ura, eta uste orrekin joan ziran izkilluetara, eta uste orrekin il ziran, millaka eta millaka, borrokan martiri; ez noski, gaixoak, gaur ikusten dugunez, deus aundirik lortzeko.

Demokrazi-zaleentzat, berriz, gudu ura "izan dan gudurik okerrera" izan zan: "la más injusta de todas las guerras" (Iturralde). Eta burutapen orrekin, Aberriaren alde, eta Zuzentasuna babesten zutelakoan il ziran,

martiri auek ere, sarraski negargarri artan. Alde batetik eta bestetik, jzenbat ama garbien semek galdu zuan gure mendietan bizia!

Ez dizu iñork munduan ukatuko, Naparroa'ko erreketentzat, guda artan erlijioak izan zuan baliorik. Baiña gudua ez zuten karlistek prestatu. Karlistek, --eta alfonsotarrek--, nai zuten guda, eta ari ziran borrokarako gertutzen, baiñan Espaiñi'ko gudua, 1936'ean lertutako gudu ura ez zuten aiek prestatu; militarren laguntzaille besterik ez ziran gudu artan izan.

Militarrek prestatu zuten gudua; eta militarrentzat, --batez ere zuzendarientzat--, erlijioak baliorik ez zuan. Mola ez zan sinismen aundikoa. Franko ere ez orduan; eta gutxiago oraindik Queipo de Llano eta Cabanellas. Sanjurjo'ren eta gaiñerakoen kristautasuna ere, azal utsekoa zan. Jende aien maixuak Hitler eta Mussolini ziran.

Orregaitik ain ederki konpondu ziran Primo de Rivera'ren falanjistekin eta ain zailki Olazabal, Baleztena, Oreja, edo Fal Conde berberaren tradizionalistekin.

Denbora artako edestilari karlistak irakurtzea naikoa duzu, Altzakundearen bezpera-bezpereraiño Mola'k tradizionalistekin ezer jakin nai ez zuala ikusteko. Ezta tradizionalistek ere Mola'rekin; azkeneko unean, beste irten-biderik ez zutelako, joan bait ziran arekin gudara tradizionalisten buruzagiak.

Bazekiten tradizionalismuarentzat ez zutela deus irabaziko; ez bait zuten militarrengandik ezer lortuko zutenen agindurik jaso aal izan!

Ala gertatu ere gertatuko zan. Ainbeste odol ixuri ondorean karlistek ez zuten gudan, berentzako, ezer irabazi. Ez da beraz arritzeko gauza gaurko karlismu berria ain ezkerraldera joan izatea.

Karlistek baiño askoz tratu ohea artu zuten guda prestatzerakoan militarrengandik alfonsotar liberalek: Goikoetxea, Calvo Sotelo eta "Renovación Española"n bildurik zeuden gaiñerako aberaskumeeek. Auen maixua Maurras izan zan, Frantzi'ko erregezale sutsua. Eta, Primo de Rivera, Ledesma Ramos, Onésimo Redondo, Giménez Caballero, Ansaldo, eta beste falangistek Mussolini'ren fatxismua, tximuak lez antzeratu, imitatu, zuten bezala antzeratu zuten alfonsotar liberalek Maurras'en "Action Française" aipatua, ortarako "Acción Española" bat eratuaz.

"Action Française" bezala, "Acción Española", igikunde eta aldizkari baten izena zan. Aldizkari ortan Calvo Sotelo'k idatzi zuan geiena baiña baita tradizionalista askok ere, iñork uste baiño geiago sartu bait zan Espaiñi'ko errege-zale guztien artean Maurras'enganako zaletasuna. Baita karlisten artean ere.

Urteak ziran ordurako Pio XI'ak Maurras gaitzetsi zuala. Baiña Pio XI'a eta leenago Leon XIII'a ez ziran Espaiñi'n, ez Frantzi'n ere, erregezaleentzat maiteegiak izan. Leon XIII'ak Frantzi'n "le Ralliement à la République" egin nai izan zuan, ikusi dugun bezala. Aurka irten zitzaizkion katolikoak. Pio

XI'aren asmoek Espaiñ'ko katolikoengandik "la Adhesión a la República", -- erregezale liberalen izkeran--, lortu nai izan zuan. Aurka irten zitzaizkion emen ere katolikoak. Aurka batez ere katolikorik sutsuenak: karlistak. Baita elizgizonak erel Segura eta Gomá Kardenalenzat, Pio XI Aitasantua "liberalizante" eta "republicanizante" zan.

Eusko-karlismuaren sikologia, batez ere gure apaiz karlisten sikologia, ez da oraindik aztertu. Gauzak guduaren bidez konpontzea ez da kristau-legea. Ondo kristauak izan dira bâ gure karlistak! Ala ere, beren asmoak gudaren bitartez aurrera ateratzearen aldekoak beti.

Ori ¿zergaitik izan dan orrela? Ez dut erantzunik. Baiña badakit Euskalerrari, Katolikotasunari, eta Karlismu berberari, gaitz izugarria egin dietela, pentsaera orren erruz izan bait zan, Naparroa'n adibidez, ainbeste jende fusillatua. ¿Gorriak ere beste orrenbeste egin zutela? Bai. Baiña aiek ez ziran kristauak. Aiek ez zuten ori egitean Elizaren izenik zikintzen. Bai ordea karlistek; kristauak bait ziran auek, eta uste osoko kristauak.

Ori da gure karlismuaren pekatua, eta Euskalerraren lotsa. Euskalerrian, anaiartean, odolezko pekatua. Esan dezagun bat baiño geiago dirala gaur pekatu ori damuz aitortzen duten karlistak, eta erru ori ordaintzearen edozer gauza egiteko gerturik daudenak.

1936'ko gure eusko karlisten jokaera ortan, zer ikusi aundia izan zuan orduan karlisten izparringietan ain nabarmen ikusi zitekean Maurras'en oldozkerak. Katolikotasuna gobernuan ezartzeko era guztiak onak zirala uste zuan arek; eta, era guztien artean, gogorkeria batez ere, gizon indartsuen jokua omen da bâ politika.

Errez sartu zan dotrin ori karlisten buruetan. Izan ere, egia esatekotan, dotrin ori karlisten buruetan Maurras'en buruan baiño lenago sortu zala esan bear ko bait genduke. Oroi XIX mendeko gure karlisten oldozkera. Burubide orrekin joan zitzaizkigun, 1936'ean ere, militarren atzetik, "a la Santa Cruzada Nacional". (Pla y Daniel):

Españi'n katolikotasuna garaille jaurlaritzan bir-ipintzeko, komunismua ta sozialismua dira eragozpenik aundienak. Nola eragozpen ori ezabatu? Komunista ta sozialista danak eta aien adiskide guztiak fusillatuaz. Ori egitean, gaiñera, gibeldian, retaguardian, "Gurutzada Santu" aren aurka sortu zitekean ekintz orori egiten zitzaion, errukirik gabe, sortu aurretik lepo.

Gogoeta auek ez ziran orduan agirian esaten, eta ez ziran, bear ba'da, ikusi ere egiten, kontzientzian baiño geiago kontzientzipean, subkontzientzian, zeuden gauzak bait ziran. Baiña, guda-denboretan kontzientzipeak erabiltzen du batez ere jendea.



Kontzientzipeak bultzatzen zituan militarrek ere gudara. Zergaitik "jeiki" ziran? Ez ziran "jeiki", erantzungo nuke nik; Errepublikak jaio zuen une beretik, Errepublikaren aurka "jeikitzen" ari izan bait ziran. ¿Zergaitik? Gorputzak ori eskatzen zielako, batez ere. Au..., umekeri bat erantzutea dala iduritzen zaizula? Ikus:

- Militarrek ez zuten beñere politikagintzarako ideologi argirik izan. Ori, Balmes'ek, Maura'k, Gil Robles'ek, eta beste edozein politikari eta idazleek esango dizute.

Ori, Primo de Rivera'k ere aitortzen digu! Primo de Rivera falanjetarra, Primo de Rivera diktatorearen semea zuen, eta beste Primo de Rivera, karlisten aurka borrokan, Estella'ko Markes tituloa irabazi zuen aren biloba. Bere sendiko militarrek zuritu bearrean aurkitzen zuen Primo de Rivera falanjista. Altaguztiz gogor mintzatu zuen militarren kulturik-ezaz. Militarren belaunekoak, militarren artean azi eta bizi izan zuen. Bazuan beraz militarren kultura ondo ezagutzeko ziorik, motiburik, naiko.

- 1936'ko Gurutzada Santuaren aurretik ere, iraultzagintza zuen Espaini'ko militarren ia arikizun bakarra. 67 matxinada sortu zituzten 122 urteren epean, esanik utzi dugunez. ¡Eundaogaitabi urtetan, iruregeita zazpi! Ori, lertzeke gelditu ziran iraultza-asmoak kontatu gabe. Ala ere badira --67 iraultza aiek-- urte-pare bakoitzeko matxinada bat baiño geiago.

"Las quejas contra la preponderancia militar, --zian Balmes'ek--, datan ya de mucho tiempo. Desde que hicieron representaciones demasiado célebres, y cruelmente expiadas, el poder civil se puso a discreción de los cuarteles. Las cortes y los ministros no han podido nada contra la fuerza de las armas. Bajo diferentes formas, el mismo hecho: el imperio de la fuerza sobre el imperio de la ley. Este es un mal gravísimo". Gogorra, ¿ez da?

Bada naikoa beintzat, gudarozte orrek "izateko-arrazoia" galdu duala, kezkarik gabe guk epaitzeko. Gudarozte orren gaitza, moralitatea, ots, zuzentasunaren zentzia galdu izatea da. Moralitatea..., eta lotsa.

Emen, ordea, oar bat egin bearra dugula iruditzen zaigu; alegia, "gudarozte" esaten dugun bakoitzean, gudaroztearen agintariak, agintari nagusiak batez ere adierazi nai ditugula; gudari soillek, indarrez izkilluetera eramandako mutil gazteek, Espaini'ko gudari zail, gogor, kementsu, bildurge, eta menderakaitzek ez bait dute izurri nardagarri ontan parterik.

Ta, au kontuan artuz, eta gudarozte ortako gudari soilen birtuteak agintarien akatsak baiño askoz aundiagoak diralako, pozik aitortuko dugu Espaini'ko gudaroztea benetan aintzagarria dala; eta ondo merezi izan dutela agintari bikaiñagorik eta yayoagorik, --jaldunagorik!-- gudarozte ortako gudari xumeek, Espaini'ko emakume apal, langille, onuragarrien semeek.

Ez zaizute orrelakoa izan beti Espaini'ko gudaroztea. XVI, XVII, XVIII mendeetan, egiazko profesional utsak ziran militarrek; zintzoak, munduko

edozein gudaroztekoak bezain onak. Emeretzigarren mendean sartu zitzaizen jeneralei politikagintzarako zaletasun ori. Zergaitik? So-dagiogun edestiari.

Emeretzigarren mendera arte, bazuan gudarozteak lanik aski eta ospirik naiko munduan zearko Koloni zabalak zaintzen eta babesten. Ugaria zan gudaroztea. Eta ugaria bear zuan, lanketa galant artarako. Baiña ugaria bait zan Koloni aietatik jasotzen zan aberastasuna ere, ez zuan gudarozte ugari arek bere bizimodurako arriskurik ikusten. Bazan danentzat lana ta sari segurua, eta aintzarik naikoa.

Jaurerri bizkor indartsua bait zan gaiñera, orduan Españi, Itali'ko, Olanda'ko, Frantzi'ko eta beste bazterretako gudu amaigabeetan bazuten militarrek, beren buruak nun ospetsu biurtu.

Koloniak galtzearekin, galdu zuan Españi'k Europa'ren gidaritzan parte artzeko posibilitate oro. Galdu zuan Laterriak bere aberastasuna, galdu zuten militarrek ere koloniak zaintzeko eta Europa'ko zelaletan borrokan ibiltzeko adontasuna.

Ez zan arrezkero orrenbeste militarren bearrik. Artalde zaindu-bearra txikiagoa, eta lan laburragoa..., jartzainorak pilloka sobra!

Alderantziz, ordea, iñoiz baiño ugariagoa zan orduan gudaroztea; Napoleon'en gudateak aurrena ta ameriketako Kolonietakoak bereala, iñoiz baiño jende geiago eramanazi bait zuten izkilluetara. Ugariegia zan orduan eta ugariegia izan da orduezkero, beti, Españi'ko ekonomi laburrarentzat, gudaroztea. Azkeneko urte auetan ere, 1960'aren inguruan, Frantzi'ko "ofizial" bakoitzarentzat bazituan bi Españi'k; iru, Laterri Alkartuetako bakoitzarentzat, eta lau Inghlanderriko bakoitzarentzat.

Koloniak galdutakoan sortu ziran beraz gudaroztearen gaitzak. "With the radical reduction of its commitments, the army became topheavy, at once an intolerable drain on the nation's economy and more prone than ever to meddling in politics": "Bere eginkizuna ain arras moztua ikustean, burutik naasia bezala gelditu zan gudaroztea, eta nazioaren ekonomiarentzat diru-jario jasan-eziña biurtu zan, eta politikagintzan atzaparra sartzera iñoiz baiño okertuagoa". (Encyclopaedia Britannica).

Lana eta saria bezain kutuna oi du gudarozte batek aintza, omena. Españi'ko jeneralak berriz, Wellington'en itzalpean Napoleon'en gudatekoan aurrena, Ameriketako Kolonietakoan gero, eta geroago oraindik, Kuba'koan eta Filipinetakoan, ez ziran aintza geiegirekin ibilli. Sartu ziran aintza billa, 1859'an, arrazoï aundirik gabe Afrika'ko guduan, baiña ez zuten an atsegin geiegirik idorö. ¡Mende-erdi luze bat, lau mauritar zarpatzuren aurka borrokan, azkenean aintzarik geiena ta Marruekos'en puskarik aundiena ta aberatsena, Frantzi'k eramateko!

Aintzaren egarri, nork bere garrantzia jendearen aurrean agertzeko, iraultzaketara jo zuten jeneralek, eta beren Jaurilaritzaren aurka biurtu

zituzten izkilluak. Lotsagarria izanen da, baiña egia da: Napoleon'en borrokaz gero, orrenbeste denboran, Españi'ko jeneralek irabazi dituzten garaitza guztiak beren erriaren aurka borrokan irabazi dituzte. ¡Bazuan Balmes'ek arrazoirik aski!

Alfontso XIII'aren erregetza izan da batez ere militarren urdurikeriaren aroa. Kuba eta Filipinak galdu ondorean eta Afrika'ko gudua bukatu ezirik, iñoiz baiño aundiagoa bait zan orduan aien amorrazioa. ¡Politikalariek omen zuten ondamen guztien errua! Bearrekoa omen zan Españi jasotzeko militarrek Jaurlaritza beren eskuetan artzea. ¡Ez politikaz, ez soziologiaz, ez ekonomiaz tutik ere ez zekiten militarrek!... Españi jasotzeko?

Politikan sartzeko irrikaz, gudaroztearen almena eta iaretasuna sendotzeko, "la Ley de Jurisdicciones" lortu zuten 1906'ean, eta 1916'ean "las Juntas Militares de Defensa" asmatu zituzten.

"La Ley de Jurisdicciones" edo Eskumende-Legea, "Agintaritza zibillaren errenditze bat, makurtze aundi bat" izan omen zan; eta "ondorio mardul luzeak" ekarri omen zituan: "A serious capitulation of the civil authority that had far-reaching consequences" (Encycl. Brit.).

Lege orrek, militarren aurka egindako "irain" guztia, oben biurtzen zuan, eta oben orren zigorketa epaile militar bakarren eskuetan ipintzen zuan. lare, libre, ziran arrezkero militarrek kritika orotik!

"Las Juntas Militares de Defensa" edo "Babes-Alkarte Militarrek", asieran sindikato baten antzeko ziran, baiña laister sartu ziran oso-osoan politikaren zurrunbilloan, eta nai izan zuten guztia egin zuten politikagintzaren arloan.

Gobernu guztiak erabili zuten Alkarte Militarren indarra moztutzeko asmo sendoa, baiña gobernua baiño askoz indartsuagoak ziralarik, ez zitzaien "Junta" aiei gauza zailla gertatu, atsegin ez zuten Jaurlaritza oro ankanz gora botatzea.

Españi gaixoa ez zitekean okerrago ibilli: Bazeramazkian, ogeitabost urtetan jogeita amaika gobernu! Nork esan du munduko politikarik naasiena Mexiko'koa izan dala?

Alkarte Militarrek ziran Españi'n egiazko gobernua, Laterriaren nagusi bakarrak, eta ala jarraitu zuten Primo de Rivera'ren denboran, eta ondorean ere Errepublikak sortu arte, eta ala jarraitu nai izango dute Errepublikaren denboran. ¡Ez zegoan Balmes begira!



Eliza, ofizialki, Errepublikaren alde-edo jarri zan. Beintzat legezko gobernutzat artu zuan Errepublika 1931'ean aurrena eta 1933'an gero gotzai guztiek argitaratu zituzten Eskutitz Pastoral biren bidez.

Eskutitz aietan erabat debekatzen zuten Errepublikaren aurkako

indarkeri eta matxinada oro, eta gobernu berriaren esanera leialki egoteko agintzen zieten katoliko guztiei. Jaurkera edo "regimen" bat aldatzeko legezko bideak, ots, demokrazizko bideak bakarrik erabili omen zitezkean.

Badu 1931'ko pastoral arek, egun auetan ere eskubiko ta ezkerreko indarkeri-zaleei ondo etorri dakieken ataltxo bat: "Kristauek ez dezakete, gaitzetik ateratzeko ere, indarkeririk edo iraultza-biderik erabili; Jaunaren laguntzarekin, garaitza, Sinismenaren indarrak eta Karitatezko bizitzak emanen digute; eta mundu ontako auzietarako ere Izpirituaren nagusitasuna eta ioritasuna baliozko gauzak dirala sendo sinisteak". "Es la confianza en la supremacía, y fecundidad, aun humana, del Espíritu, es la potencia de la fe y de la caridad activas lo que, con la ayuda del Señor, alcanza la victoria".

Españi'ko gotzai jaun aiek baiño askoz leenago esan zuan orrelako zerbait, gure artean egiazko katolikotasunaren alde beste iñork baiño geiago lan egin zuan batek: "Si entre los hombres triunfan aquellos que conducen a la sociedad por caminos de perdición, no es a la imposición física, ni menos puesta en práctica por la Iglesia, a la que está encomendado el vencerlos. Hay un Dios pródigo sin cuya presencia y provisión no se mueve una hoja de árbol":

"Badira ondamenezko bideak erabilliaz gizartean garaille altxatzen diran gizonak. Ez zaigu zillegi, eta gutxiago oraindik Elizari, gizon oiek menderatzeko indarkerizko bidetik jotzea. Bada ororen ardua duan Jainko bat, eta ez da arek jakiteke eta aren onetsiarik gabe zugatz-orri bat ere kolokatzen" (Arana Goiri'tar Sabin). Orixe da Elizaren egiazko dotriña.

Españi'ko katolikoek ez zioten gotzaidiari jaramonik egin. ¡Bildurrez ikaraturik mintzatu omen ziran gotzaiak! Ori zioten liberalen eta karlisten izparringi guztiak, batez ere Olazabal'en Donosti'ko "La Constancia" k:

"Escudarse detrás de los señores obispos en momentos como los actuales en que no pueden hablar por tenerlos amordazados el gobierno que se ha declarado juez supremo y único de toda doctrina, es algo que no se puede aceptar".

¿Ain koldarrak, ain ustelak, ain gezurtiak, ain mixerableak uste ote zituan Olazabal'ek Españi'ko gotzaiak? ¡Beren kontzientzien aurka itzegin zutela adierazi nai bait digu!

Alatagutziz, naiz pastoral aietan ain zuzenki mintzatu, ez dira errutik zearo garbi gotzaiak, ez bait zioten, errepublikaren bost urte aietan, beren apaiz eta katoliko borrokalarien "maurrastasunari" bear bezala aurpegirik eman.

Bazuan Olazabal'ek eta bazuten arek bezala pentsatzen zuten katolikoek, ia katoliko guztiek, arrazoi-ttanta bat. Gotzaiak Pastoral artan ez zuten beren kontzientziaren aurka itzegin; ez. Baiña bai, beren sentimentuen aurka.

Ez, kontzientziaren aurka, Elizak politikagintzarako eta gizarte-bizitzarako emandako arau danak ederki ezagutzen bait zituzten, baiña bai sentimentuen aurka; gotzai aiek, Vidal y Barraquer kardenalaz beste gaiñerako guztiak, erregezale itxutuak bait ziran. Ikus Aita Segarra iñakitar integrista sutsuak, Alfontso Karlos Erregenaiarentzat eta aren aolkularientzat idatzitako txosten batean zer dion:

"Los Obispos: Muy buenos moralmente y ortodoxos y hasta piadosos. Tienen un pecado de origen... El deber su presentación a las personas de la dinastía reinante, o a la amistad, parentesco o paisanaje con algún político del pasado régimen". "La primera condición que se exigía para ser presentado obispo era que no fuese antidinástico y la segunda que no crease dificultades".

Ulertu duzu. "Gotzaiiek, oituraz onak, sinispidez zuzenak eta eraspenkoiak" omen ziran. Baiña bai omen zuten "Jatorrizko oben bat: gotzai goa Espaiñ'ko erregeen leifuari zor izatea; edota, politika-era artako ministroren baten adiskide, aide, edo erritar izateari". "Gozzai-gai izateko lenengo baldintza, dinastiaren, errege-leifuaren, aurkako ez izatea zan, eta bigarrena, gai aiek ezertan eragozpenik sortaraziko ez zutelaren eskiertasuna".

Arazoi du iñakitar azpi-jokalariak. Gorputz eta anima, errege-zaleak ziran gotzaiak; Errepublikaren arerio gorriak. Kontzientziaren maillatik, Errepublika iraultzaren bidez botatzearen aurka itzegiten auten; baiña ikusten bait zuten erria, zenbat eta denbora geiago igaro, orduan da errepublikazaleago izanik, auteskundeen bidez eta legearen arauz Errepublika botatzerik ez zegoala..., iraultzaren zai zeuden gogo osoz sentimentuen zuloan eta kontzientzipearen maillan. Ortik, Iraultza piztu zanean aien poz eta zorion betea.

Zoriona ta poza... Errepublika desegiten zalako, eta, Espaiñ'n, demokrazia deseginda, indarrezko Agintaritza gogor bat ipintzen zalako. Kristaudiko beste gotzairik asko bezala, erkalaren, demokraziaren, etsai ziran orduan Espaiñ'koak ere ia danak, erriak aspalditik ezker aldera jotzen zuala bai bait zekiten.

Ezker-aldera, Espaiñ'n erria!!!

Alatagutziz, Espaiñ'ko gotzai aiek Espaiñ'ko erria zearo eta osoan katolikoa zala esango digute batere zalantzarik gabe. Frantzi'n maurrastarrek, Frantzi'ko erria "latentement" zala katoliko eta erregezale esan oi zuten; "latentement": "bera oartzeke". Espaiñ'n gotzaiiek, baldintzarik ipiñi gabe oles egiten zuten beren erria katolikoa zala. ¡"Munduko erririk katolikoena", gaiñera!





Ikus dezagun nolakoa zan gotzaiak ain katoliko aitortzen diguten errri ura.

XX mendearen asieran Sancha Kardenala zan Toledo'n Goigotzai. Aren aginduz Madrid'en egin zan estadistika batek... jurian %97'k ez zutela pazkoazkorik egiten agertu zuan! Urte batzuk geroago, 1924'ean, auxe esaten zigun Pastoral batean Manuel Gonzalez Malaga'ko Gotzaiak bere elizbarrutiaren egoeraz: Urian, mezara joaten ez ziranak %93 zirala, eta errietan %90, eta batzuetan baita %99 ere! Bazuan arrazoirik aski Peiro soziologilariak "pueblos hay en que el cura dice la misa solo para él" idazteko.

Malaga'ko elizbarrutian, erririk geienetan, 100'dik 10'enbat joaten ziran mezara. "Y del 10% muy pocos pasan", esaten digu aipatu-berria dugun Manuel Gonzalez Gotzaiak; eta beste orrenbeste gertatzen zala "en otras diócesis cuyas estadísticas conocemos".

Ona, berriz, Peiró'ren itzak: "Tomemos cualquier pueblo de las provincias del centro de España: Cuenca o Guadalajara por ejemplo; es decir, tomemos varios, porque son bastantes los pueblos de las diócesis de Cuenca, de Toledo, de Madrid, de Ciudad Real, en que de mil habitantes asisten a la misa de precepto y cumplen con pascua cincuenta; (ots: Peiró'k ez digu esaten 50 aiek geienak umeak zirala, baiña ala ziran); esto ez, un 5%. Con un 10% de personas que practican y un 90% de personas alejadas por completo de sus deberes religiosos, hay una nube de poblaciones rurales del centro y del mediodía de España".

Ez da, beraz egia, Franko'k guda asi zuanean, ainbesteko zalapartaz esan oi zan bezala, Españi'ko erria, errepublikaren denboran ari zala fedea gaitzen. Errepublikaren denboran gauzak berdin jarraitu zuten; obeki, bearbada; esnatu ta zuzpertz egin bait zan katolikoek erantzukizuna, erresponsabilitatea. Autarkiak ere, 1931'ko auteskundeetan baiña autarki, boto, geiago atera zituzten katolikoek 1933'koetan eta 1936'koetan, Gomá Kardenalak berak Aulki Doneari pozez jakinarazi zionez.

1933'ko auteskundeetara baturik joan ziran errepublikazale burgesitarrak eta katoliko "adhesionistak". Lerroux zan aien buruzagi, Gil Robles berriz auena. Autarkirik geienak ezkerreko Alderdientzako izan ziran, baiña Alderdi auek alkarrengandik bereizirik joan ziralako, "Centro"koak atera zituzten diputadurik geienak eta aiek eratu zuten Jaurlaritza: Eskubiko Jaurlaritza. Lerroux izan zan lendakari; Gil Robles gudako ministro.

Ez zion eskubiko Jaurlaritza orrek katolikotasunari batere onik egin, zearo kapitalista izan bait zan eta Errepublika etorri ezkerreko langille jendeak, nekazaritzakoak batez ere, lortu aal izan zituan onura eta bentajen txikitzaile. Gil Robles'ek, gaiñera, oso politikolari kaxkarra agertu zuan bere burua.

Alatagutziz, urrengo auteskundeetan, 1936'ean, ez zan ezkertiarren eta eskubitarren artean ia diferentziarik izan. Askoz diputadu geiago atera zituzten aiek, auteskunde-arauari eskerrak, eta arau ori oraindik lege izatearen erruz; baiña eskubitarrei bakarrik bota bear zaie erru ori, ez bait zuten auek gobernuan egon ziranean, aldaketarik egin nai izan, arau ura berentzako bentaja izango zalaren ustean.

Ez dugu esan España guztian zenbat ziran elizkizunetatik urrundurik bizi ziran katolikoak Franko'k bere "gurutzada" asi zuanean. "Excepción hecha de los vascos, cuyo estado religioso, como también el social, era en ambas vertientes de los Pirineos especial, el 90% de los españoles vivían al margen de la Iglesia", dio Iturralde'k.

¿Mezara joatea edo ez joatea, norbait katoliko dala edo ez dala esateko, arrazoi naikoa ez dala? Ez; ez da. Baiña zerbait adierazi nai du beti. Onako auxe, adibidez; orduan Salamanka'ko gotzai zan Pla y Daniel'ek Pastoral batean adierasten digun auxe: oso ala-olakoak zirala España'ko katolikoak. "España está llena de tantos católicos durmientes para quienes en el orden práctico el ser católico no es profesar y cumplir una ley de vida sino poco más que haber sido bautizados en la infancia".

Katolikoak ez ziran, beraz, kristauki bizitzen.

Ezta kristauki iltzen ere; Peiró iñakitarrak egindako estadistika arek, uri aundietan %90 sakramenturik gabe iltzen zirala adierazten bait digu. "Hay un 20% de matrimonios civiles; los concubinatos son innumerables; un 20% de niños no se bautiza" (Peiró).

Ez zaio beraz arrazoirik Iturralde'ri falta, onako itz auek idazteko: "De ese 90% de españoles alejados de la Iglesia algunos la odiaban; los más ordenaban su vida privada y pública sin mirar a sus directivas. Eran pocos aquellos en que podía apoyarse la Iglesia para resolver sus problemas".

Ala ere ez dugu uste Unamuno'k Salamanka'ko Gotzaiari idatzi ziona egia danik: "ordurako España'ko erria katolikoa ez zala, ez urietan ez baserrietan". Ez dugu ukatuko erri ori antiklerikala zanik, batez ere urietan, baiña oraindik katolikoa zala uste dugu; sentipen utsez katolikoa, baiña katolikoa; siñiskeri askotan naasia, baiña sineslea. "Catolicismo durmiente", zala, Salamanka'ko Gotzaiak esango digu, espñaarren katolikotasuna.

"Durmiente" ori, garrantzi aundiko itza dala iduritzen zaigu, eta gotzaien mentalitatearen barrura sartzeko giltzarik onena:

Erriaren sinismena lotan zegoan; eta lozorro ortatik esnatzea, bear-bearrezkoa zuan. Erregeak giro ohea ematen ziola Elizari errepublikak baiño esnatze-lan ortan aritzeko, uste zuten gotzaiek. Erregeak indarraren bidez, legezko egiten bait zuan erri guztiarentzat katolikotasuna ikastoletan eta gizarte-bizitza osoan.

Errepublikak, berriz, ez zuan erlijio-auzietan eskurik sartzten; katolikotasunari aña eskubide ematen zion protestalaritzari edo

jainkogabetasunari. Errepublikari, demokrazia zan, eta erria bere buruaren jabe uzten zuan. Baiña erria bere gisara utzi ezkeru, erriaren sinismen motel ura, esnatu-bearrean, ¿ez ote zan erabat ilko? Beartuak zeuden beraz gotzaiak; erkala desegiteko eta bakalduntza ezartzeko al zuten guztian lan egitera beartuak!

Gaurko gotzaiak ez dutela orrela jokutzen? Ez; ikusten bait dute gaurko gotzaiak 40 urteko diktaturtza "katolikoaren" ondorean politikaren bidezko ebangelizatze orren ondorioak nolakoak izan diran, baiña orduangoek ez zezaketen oraindik orrelakorik ikusi, eta erria kristautzeko, beste ororen gaindik, politikaren almena erabiltzearen aldeko ziran. Ortara bearturik zeudela uste bait zuten.

Politika erabili nai orrek, politikaren mendeko biurtzen zuan gotzaidia. Ikus zer zion, Aulki Doneari idatziaz 1939'an, ordurako Franko'k erbesteratutako Mateo Mujika Gasteiz'ko Gotzaiak:

"Es cierto que ha sido empeño viejo de muchos partidos políticos de España el mezclar la política con la religión y blandir la religión como instrumento de su política, y casi puede decirse que los señores nuncios de S.S. no han tenido en todos estos años preocupación más cruel que combatir las graves consecuencias de ese error. Es demasiado claro y probado en los archivos del Vaticano, para que tenga que acreditarlo yo ahora. Y la gravedad mayor vino de que, con la mejor intención, era frecuente que muchos señores obispos alentaran esa confusión juzgando con preferencias políticas, tomadas subjetivamente, acaso con la mejor intención, como exigidas por la causa religiosa, no sabiendo ellos desprender lo accidental de la política de lo substancial de la religión. Es también natural que los poderes políticos quisieran valerse de la influencia religiosa de los prelados para mantener sus miras políticas". (Azpimarraketa, nerea da).

Gogorra On Mateo'ren izketa. Gogorrakoak oraindik nâsketa guzti ortatik jaioak bezala aipatzen dizkigun ondorioak: "Un terrible malestar que hubo en España desde 1876"; "El alejamiento cada vez mayor del pueblo en las tierras de Castilla"; "Que mucha parte del pueblo religioso (en Cataluña y País Vasco sobre todo), y el que no lo era, creyera ver en los obispos unos instrumentos políticos".

Ondo etsirik zegoan On Mateo azkeneko punttu ortaz. Andik urteetara Zarautz'en itxurik bizi zala, ikustaldi bat egin nion Galarraga'tar Juan Mari, Añorga'ko apaiz jaunarekin. Aspaldi irutan zatitua zan Gasteiz'ko elizbarrutia. Font Andreu zan Gipuzkoa'n Gotzai; Morcillo, Bizka'i'n, eta Bueno Monreal Araba'n. Iru gizon auetaz ari giñalarik, "D. Mateo: ¡si más que obispos de la Iglesia parece que son representantes del gobierno que han venido aquí a imponer el centralismo español!", esan nion. Eta berak erantzun: "¡Pues claro que son eso! ¡Y electos inter millia"! Ots: "millaren artean ori egiteko

bereiziki aukeratuak".

Naitanaiez artu bear zuten pozik, orrelako mentalitateko gizonak, Franko'ren Gurutzada Donea.

Baiña, auteskunde batzuetan oiñarritutako Jaurlaritzan baten aurka izkilluz jeikitzea gauza gogorra bait da, bear zuten, konzientzia lasaitzeko Jeikitze ura arrazoiez zuritu. Gotzaiek ez zituzten altzakundearen zioak, motibuak, ezagutzen. Bete-betean aitortzen du ori, Gomá Kardenalak, Altzakundearen alde mundu guztiarentzako idatzi zuan Eskutitzean: "Ignoramos cómo y con qué fines se produjo la insurrección militar de julio". Eskutitzaren aurren-aurreneko itzak dira, eta bi gauz adierazten dizkigute, pozgarriak biak:

A) - Elizak ez zuala Franko'ren altzakundean batere parterik artu. Geiago oraindik: gure ustez, gotzaiek altzakundea ba zetorrenik jakin ere, ez zutela esan daitekela. Ala aurkitu ziran ainbeste gotzai, uste gabeen, "gorrien" eskuetan, borroka asi zan egunean. Pozgarria, benetan, Eliza sarraskiaren prestaketan ari ez izatea.

B) - Sarraskiaren egiazko prestatzailleek, Franko'k eta Mola'k, ez zutela inoiz ere kristautasuna babesterik pentsatu. Ez ziran Elizaz oroitu ere; askoz gutxiago beren asmo eta burutapenen moralitateaz; Españi'ko Elizaren Primatu edo Aitzindari berberari, Gomá Kardenalari, ez bait zioten ez deus esan ez deus galdetu.

Ez da beraz egia "el Glorioso Movimiento Nacional" kristautasuna babesteko egia izan zanik. Ori, Kristautasuna-babeste ori, gero, borroka asi ondorean, militarrek gotzaien laguntza eta katolikoen laguntza bearbearrezkoa zutela ikusi zutenean, asmatutako aitzakia da. Ez gairera militarrek, gotzaiek asmatua baizik.

Guda-aurreko dokumentuetan, militarren dokumentuetan, ez duzu ez Eliza babestearen ez katolikotasuna salbatzearen aipurik aurkituko. Dokumentu aietako izkera, emeretzigarren mendeko militar iraultza-sortzailleen izkera bera da; "Juntas Militares de Defensa" naspillarien izkera. Mentalitatea, berriz, betiko diktatore guztien mentalitea da.

Elizgizonak ere ez dute, lenen pastoraletan-da, altzaketa are elburua Eliza babestea izan zitekeanik esaten. Gomá'k berak, altzaketa santutzeko idatzi zuan Eskutitz artan auxe dio: "el curso posterior de los hechos ha demostrado que lo determinó, y lo ha informado posteriormente, un profundo sentido del amor a la patria". Ez da, ala're, egia Kardenalak diona; aberria maitatzen ez baiño aberria purrukatzen ari bait ziran, aberkide geienen borondatearen aurka, iraultzalari frankotarrak.

Baiña ez da ori, orain bereiziki ajola zaiguna; "El curso posterior" ori ajola zaigu.

Gure ustez, aro artako gotzaien jokaera ulertzeko, oso, oso, oso garrantzi aundikoa da oarkizun auxe: gizon aiei, uztaillaren 18'aren aurretik

gertatua ez zitzaiela une artan importa; Uztaillaren 18'aren ondorean gertatu zitekeana importa zitzaiela: "el curso posterior".

Gotzaien ariketa eta izketa guztien barren-barrengo mamia auxe da: "Ignoramos"; ez dakigula nola prestatu dan gudu au. Ez gaitu, gaiñera, "gorrien" menpeko lurraldean ikusten duguna ikusita, orrek geiegi kezkatzen. Ikusten duguna ikusita, gauza bat dakigu zalantzarik gabe: "gorriak: gudu au irabazten ba'dute, Eliza illa dala Españi'an.

Españi "gorrian" gertatzen ari danak, "el curso POSTERIOR de los hechos", militarrak jeiki ta guda asi ONDOREAN, ango Elizaren zori ikaragarriak erakusten digunez, gudu au, ORAIN, Elizaren aldeko gudua da, eta gudu au prestatu zutenak, naiz agian berak oso kristau izan ez, kristautasunaren alde ari dira ORAIN borrokan". (Kontuz ordea, ori dana nere uste utsa besterik ez duzu-ta).



Danadala, guda ura Elizaren aldeko guda zala sinisten zenuten zuek, karlistek. Orixe sinisten zuten orduan ia munduko kristau danek. Ori uste izan zuan Olaetxea Iruña'ko Gotzaiak ere. Baiña pozgarria da, guda Eliza babesteko sortua izan ez zala jakitea, Elizaren alde guda sortzea, Elizaren legean zillegi ez dan gauza bait da.

Martzelino Olaetxea barakaldotarra aipatu dugu, Iruña'ko Gotzaia. Ez zitzaion, asieran, batere atsegin izan militarren altzaketa. Ona zer esan zien onepen-eske alderatu zitzaizkion falanjisten eta erreketeen ordezkari batzuei:

"No puedo bendecir a las tropas porque van contra el hermano obrero; si lo hiciera, la Iglesia marcharía al servicio del capital a matar a ese hermano obrero que ahora precisamente era cuando vivía un poco mejor. Yo no puedo olvidar que bajo el traje episcopal llevo el traje mahón de un obrero de Baracaldo. Para mí todos son hijos míos, pero miro con más predilección al obrero, por más desgraciado, a la manera que al desgraciado se le mimaba más que a los otros, como sucede en la misma familia con el hijo enfermo o paralítico".

¡Bazan kemenaren bearra orduan ori esateko! "¡S.I. es socialista!" oiuegin zion erreketete eta falanjiste aien buruzagiak an bertan, eta urrengo egunetan izan zuan gotzaiak zemai, irain eta arriskurik naiko. Bazan kemenaren eta ausardiaren bearra.

Baiña geroago, "el curso posterior de los hechos" ikustean, Franko'ren aldera igaro zan Olaetxea eta frankozale sutsua izan zan Iruña'ko, eta gero, Balentzi'ko elizbarrutietan. Altaguztiz, bi gauz utzi zizkigun argiturik Iruña'ko izketa bizkor artan:

- Errepublikak obeagotu zuala langillearen bizimodua.

- Kapitalismua izan zala, militarren atzetik, guduaren eragillea.

On Martzelino boskotarra, naimen oneko gizona zan. "Curso posterior de los hechos" arek iturburu bat bakarra izan zuala: militarren jeikitzea, eta militarrek jeiki ez ba'lira "curso posterior de los hechos"erik ez zitzaigula sekulan gaifera etorri izango, edo, berdin dana, Españi "gorrian" ez zala okerkeririk batere izango, Españi "gorririk" ere izango ez zalako, eta, orregaitik, okerkeri aien danen errudunak okerkeriari atea iriki zioten militarrek zirala esan bagenio, baietz, erantzungo zigun, baiña guda sutan zegoalarik ori oiukatzen astea alperrikakoa zala, ori oiukatzeak "gorrien" jokaerarik zuzenduko ez zualako eta, alderantziz, Elizaren zoria oso kristau ez ziran militar aien eskuetan okertu zezakealako.

Bein baiño geiagotan entzuna izango duzute, uztaileko 18'an, Errepublikaren tiranikeriaz nazkaturik, bat-batean, leenagoko prestaketarik gabe jeiki zirala militarrek.

Calvo Sotelo'ren erailketa tiranikeri aren azkeneko odol-ixurketa izan omen zan. Calvo Sotelo, erregezale liberalen buruzagia, uztaillaren 13'an izan zan erailla. "Guardias de Asalto" izeneko ertzain batzuek egin zuten okerkeri ura. Baiña Calvo Sotelo'ren eriotza aipatu oi duten frankotarrek ez dute sekulan esan, egun batzuk lénago fatxistek "Guardias de Asalto"koei ofizial bat il zietenik.

Au esatean ez dugu ertzain aien ankerkeririk zuritu nai. Apentza bat izan zan ura, eta apentzak ez du beifere nundik zuritu aal izaterik. Gutxiago oraindik apentza ori Jaurlaritzan baten ertzaiñek, beren eskuz, egiten ba'dute. Baiña Franko'ren gudaren arrazoa, zioa, Calvo Sotelo'ren erailketa izan ba'zan, apentza bat izan genduan era berean Frankotarren guda ere, Jaurlaritzaren izkilluak eta gudariak erabilliaz jeneralek egiña; "Guardias de Asalto" aiena baiño milla aldiz gaitzesgarriagoa.

Franko'ren altzakundea, ordea, ez zan bat-bateko gauza izan. Ez zuan odol-ixurketarik bear Franko'k izkilluetara jotzeko. Errepublika jaió zan egun berean esa zien adiskideei, militar-gaien akademia Zaragoza'n egon bearrean, berak nai izan zuan bezala Eskorial'en egon ba'litz, ez zala Errepublikarik sortu izango; berak, --akademiaren zuzendari bait zan--, militar-gaiekin Madrid tiroka erregearen alde artu izango zualako!

Errepublikaren sorkunde-egunetik asi ziran militarrek "pronunciamiento" edo jeikitze batean pentsatzen.

1931'ko jorraillaren 14'ean jaió zan Errepublika. Urte orren udan, Lekeitio'n, Orgaz jeneralak eusko gaztediaren laguntza eskatu zion Joseba Andoni Agirre Lekube'ri "para un alzamiento". ¡Ordurakol, altzakunde ori gerturik zeukaten militar-sail batek eta erregezale liberalek, bien izenean itzegin bait zion, --alperrik, jakiña--, Orgaz jeneralak Agirre jaunari.

Illabete geroago, iraillean, Alfontso XIII'ak eta karlisten errege-gai On Jaime'k, bien indarrak batera biltzea erabaki zuten, orrela erregezale guztiak

militarrei laguntzeko gerturik utziaz. Berealaxe asi ziran karlistak lanean, orduantxe, 1931'garren urtea amaitu baiño lénago, antolatu bait zuten Abarzuza izeneko "Tertzioa" edo gudari-sailla.

Andik sei illabetera, 1932'ko dagonillean, jeiki ziran Sanjurjo Sebilla'n eta Barrera ta Cavalcanti Madrid'en. Barrera ori izan zan aurreneko egun aietan jeneralik urdurienetako.

Jeikitze artan ikusi zuten militarrek erria beren aurka zegoala, eta berak bakarrik Errepublika ezerezteko indarrak naiko ez zutela. Berealaxe, urte artan bertan, jarri ziran Ansaldo'ren bidez Mussolini'rekin arremanetan.

Militarren adiskiderik beroenak erregezale liberalak bait ziran, bildur zan nunbait, On Jaime il ondorean karlisten "errege" zan Alfontso Karlos, matxinadaren emariak banatzerakoan bera azturik utziko ote zuten. Ala, 1932 artan bertan jakiñarazi zien militarrei bera ere altzaketa batean parte artzeko prest zegoala. Olazabal izan zuan orretarako mezulari militarren aurrean.

Urrengo urtea, 1933'garrena, urduritasun aundiko urtea izan zan militarren eta erregezaleen artean. Mussolini'rekin tratoan jarraitzeko Calvo Sotelo bera izendatu zuten ordezkari; eta Alkarte Militarren altzoan, iraultza gertutzeko, bazkun berri bat izan zan eratua: "La Unión Militar Española", (U.M.E.).

Mussolini'rekin izketan asi ziran ezkerero, gero ta geiago, falanjisten odozkera izango zaie militarrei atsegín.

Zerbaiten susmurrua izan zuten noski gotzaiek. Izkilluketa debekatuaz Eskutitz Pastoral bat idatzi bait zuten Españi guztiarentzat. Esan dugu, eskutitz orri ez ziola iñork ere jaramonik egin.

Urte ortan igo ziran eskubitarrak jaurlaritzara. Gil Robles gudako ministroak jnor eta Franko! egin zuan Gudaroztearen Zuzendaritza Nagusiaren Buruzagi: "Jefe de Estado Mayor"; eta an egon zan Franko, ostera ezkertiarak Jaurlaritzara itzuli ziran arte, berak nai zuan bezala, militarrek prestatzen ari zirala ikusi dugun iraultzarako laguntzaillerik egokienak tokirik garrantzitsuenetan ipintzen.

Denbora luze artan prestatu zan astiro eta eskiertasun guztiarekin gudua.

Aurreneko gauza Alemani'ren eta Itali'ren laguntza aseguratzea izan zan.

1934'eko epaillaren 3'an izenpetu zuten Mussolini'rekin itun isil bat Barrera jeneralak, karlistek (Olazabal eta Lizartza) eta liberalek (Goikoetxea). Karlistek 200 (berreun) mutil gazte bidali zituztela Itali'ra, an izkilluen erabilketa ikastera.

Hitler'ekin tratua noiz burutu zan ez dakigu, Alemani'ko Alderdiaren artxibua desegíña izan zalako; baiña esan daiteke 1935'e'an Hitler'en laguntza lorturik zegoala.

Xeetasun geiagoren bearrik ez dala uste dugu, Franko'ren gudua bat-bateko eta ia-ia naigabeko Jeikitze bat izan ez zala adierazteko.

1935'garren urtea, eta 1936'garrenaren aurreneko bost illabeteak Altzakundea noiz asi erabakitzen igaro zituan gudarozteak; eta prestatzen ari zan guda aren Zuzendaritza bere buruarentzat aseguratzen ari izan zitzaigun Franko.

Altzakundea leenago egin zitekean. Egin nai izan zuan Sanjurjo'k. "No ha llegado la hora", erantzun zion Franko'k Gudarozteko Zuzendaritza Nagusitik. "La hora"! Orduak baiño geiago kezkatzen zuan Franko altzaketa Sanjurjo'k egiten ba'zuan Españi'ko nagusi Sanjurjo izango zala pentsatzeak, beretzako nai bait zuan, Franko'k, nagusitasun ura.

Sanjurjo'k baiño itzal geiago egiten zion Mola'k, eta azkeneko egunak arte ez zuan aren laguntzaren eskiertasunik izan. Eta beñere ez aren adiskidetasunik. Orregaitik Mola'ren eriotzak ainbeste esames sortu ditu. Nik badakit, aren alargunak Lekaroz'en, eriotz gerta-berriagaitik sentimena eskeintzen zion praille buruñurdunen zuzendariari, auxe erantzun ziola: "No ha muerto. Le han matado". (Une artan atarian aurkitzen zan Jose Martín Belaustegi buruñurdungaiak esanda dakit ori). Alare, egiaz, Mola istripu utsez il zan. Iñoren errurik gabe.

Gaiñera, Mussolini'rekin eta Hitler'ekin bat egiñik zeuden ezkerero, "nola" eta "noiza" ez ziran Españi'ko gudaroztearen auzia. Iru Laterrien auzia zan ura: Mundu Guztiko Bigarren Guduaren asiera.



Milla aldiz entzun duzute, Franko'ren gudua Españi komunismotik salbatzeko egiña izan zala. Orain arte esan dugunetik errez ikusi daiteke aitzaki orrek arrazoi-itxura aundirik ez duala. Aztertu dezagun alatagutziz, pixka bat komunismuaren gai ori.

Españi'n ez zan komunistarik. Iru milla omen ziran Alderdi Komunistaren alderdikide guztiak.

Alderdi guztiek bezala, bazituan Alderdi Komunistak ere Alderdiari izenik eman gabeko jarrailleak, baiña oso gutxi auek ere, auteskundeetan komunistek ez bait zuten sekulan indarrik izaten.

Orregaitik Calvo Sotelo, Ledesma Ramos eta beste erregezale eta falangisten idazkietan maiz irakurri dezazkezu onako auen antzeko esakerak: "En España no hay comunismo", "No existe ningún peligro de parte del comunismo", "Combatiremos al comunismo cuando el comunismo llege a ser un enemigo, pero hoy no lo es"...

Egia zioten.

Españi'ko ezkertiarak sozialistak ziran mordo aundian, eta aundiagoan oraindik, anarkistak. Bai aiek eta bai auek alkarren etsai amorratuak.



Bein baiño geiagotan irakurria izango duzu Espaiñi'ko ezkertiarrek "Iraultza ikaragarri bat egiteko une-unean zeudela", eta Iraultza ori galerazteko, presaka ta larri irten bear izan zuala gudarozteak kalera.

Baiña, egia dana, auxe da: izkillurik gabe arrapatu zituala ezkertiar aiek danak gudarozteak, kalera irten zanean, eta izkillurik gabe ez dala Iraultzarik egiten.

Gaiñera, kostako zaizu, Gurutzada tiroka asi aurreko idazkietan "ezkertiarren iraultza" orren aztarnarik billatzea. Guda asi ondorean, guda asi zutenek aizatu zuten mamu ori. Baiña asieran guda-sortzaille aien berberen dokumentuetan ez da orrelako mamuaren aipurik.

Badu beraz aitzaki utsa besterik ez dalaren zantzua, eta Espaiñi'ko gotzaiek 1936'eko Idazki Pastoralean, militarren altzakundea sagaratzeko, "Ezkertiarren Iraultza Ikaragarri" artaz mintzatzen diranean, ez dakite zer esaten duten. Atzipeturik ari dira; militarrek emandako itzetan fiatuz.

Egia da militar auek, egun aietan gutxi gora bera, iru dokumentu argitaratu zituztela, komunisten iraultza zalakoari buruz. Komunisten batzokietan aurkituak izan omen ziran. Baiña gaur dokumentu aiei ez die iñork baliorik ematen, ez bait dira egiazkotzat artuak. Frankotarrek berak ere, arin baztertu zituzten iru paper aiek, aurreneko egunak igaro ondorean ez bait dituzte oster a iñoiz aipatu.

Gotzaiek ez zituzten gaiñera dokumentu aiek ikusi ere dirudianez, ez bait dituzte zeatz eta banaka aipatzen, entzundako zerbaitez ari balira bezala baizik: "está documentalmente probado", batere geiagoko argitasunik eta xeetasunik gabe.

Itzetan fiatuz ari ziran beraz. Militarren itzean, ordea, ez zegoan fiatzerik orduan. Maurras, Mussolini, Hitler zituzten militar aiek irakasle; eta fatxismuaren makiabelkeria, izkera eta ekintza guztietarako arau eta lege. Itzak, oorezko itzak berak, ez zuan aientzat batere baliorik, itz ura buruan zerabilkiten asmoa aurrera ateratzeko egokia ez ba'zan.

Ez da nik esaten dedan gauza. Mola'k berak aitortzen du, gezurra esan ziola bere buruzagi goren Batet kapitan jeneralari eta, Altzakunde-egunaren goizean, arek Burgos'tik gezurti esan ziola urrutizkiñez. Aipatutako makiabelkeri ortan bere jokaera zurituaz, "yo mentí a Batet", aitortuko du gero lasai-lasai Mola'k. "Y le fusilé", jarrai zezakean esanaz, atzipetu ez ezé, fusillatu ere egin bait zuten Batet gizagaixoa.

Leendik ere militarrek oso fiagarri ez zirala jakiteko naikoa zuten gotzaiek Espaiñi'ko gudaroztearen edestiko azken-eun urte luzeei birgizatzea.



Bi puntu falta zaizkigu edestian izan dan azkeneko "gurutze-gudaren" azterketa amaitzeko: Errepublikaren tiranikeria eta Errepublikaren legezkotasunik-eza, lejitimitate-falta, biak aipatu bait ziran Franko'ren gudua zuritzeko.

"La nefasta república", "la criminal república"... ¿zer ez da esan, --errerepublikazaleei iñoiz beren buruak babesteko eskubiderik eman gabe--, Errepublikaren lepotik?

Tiranikeria? Ez beintzat ekonomiaren eta soziologiaren arloan, ortan Errepublika, Españi'k oraintxe arte iñoiz izan duan Jauriaritzarik garbiena eta zintzoena izan bait zan. Entzun duzu Iruña'ko gotzaiak ziona: "Errepublikaren denboran asi zirala langilleak bizitzen".

Oraindik korapillo asko zeuzkan askatubearrak, nekazaritzako lur puskatzar aundiei-buruz batez re, Errepublika gazteak; baiña korapillo oiek askatzera zijoan. Ez zuan ori iñork ere zalantzan ipintzen, batez ere 1936'eko auteskunderetan ezkertiarak nagusi irten ziran ezker.

¡"Los Terratenientes"!; lur zabal aundien nagusiek! Sartu zitzaien jauntxo auei ezurretaraíño bildurra. Lau illabete geroago gudaroztea tiroka jaikia zan. "Post hoc, ergo propter hoc"? Emen baleike egia izatea!

Tiranikeria... ¿erlijioaren arloan? Ontan bai, arlo ontan egin zituan Errepublikak txatxukeriak, baiña txatxukerietatik tiranikerira millaka eta millaka urratsen bitartea dago; batez ere teologiak, Jauriaritza baten aurkako izkillu-kolpe bat legezko eta zintzoa izan aal dedin, naitanaiezkotzat eskatzen duan tiranikerira.

Errepublikak, izan zituan erruak; baiña ez da zillegi Errepublikarenak ez ziran erruak Errepublikari itsastea, edo Errepublikarenak bakarrik izan ez ziranak Errepublikari bakarrik leporatzea, edo baike Errepublikarenak izan ziranak, gezurraren bitartez neurritz gairi puztutzea.

- Konbentuen eta Jauretxeen erretzea ta txikitzea, edo apaiz bateren-baten eraiketa..., lendarbizi, ez dira iñolaz ere iraultza bat piztutzeko arrazoi naikoa, eta, --bigarren--, zipozkeri aiek ez ziran Errepublikak egina izan. Erriak egin zituan. Borboiek errege zirala ere gertatu ziran bein baiño gelagotan orrelako nardakeriak. Baita aundiagoak ere. Baiña ez du orregaitik iñortxok Monarkia tirani bat izan zanik esaten. Nardakeri aiek, Errepublikaren denborakoak bezala, ez bait dira Jauriaritzaren egintza, erriko jende xearena baizik.

- Ikastolak --Latterriaren ikastolak-- laiku biurteza, Elizari diru-laguntza moztutzea, Elizatik kanpoko ezkontzaren balioa, ezkontza ausi aal izatea..., oiek bai, konstituzioaren atalak ziralako, Errepublikarren ekintza izan ziran. Baiña konstituzio ura iareki diputaduek eratua izan zan; eta diputadu aiek iareki aukeratu zituana, badakizu zein izan zan: Erria!

Beraz, Elizak, Errepublikarekin ez baiña erriarekin, ¡Erriarekin! zituan konpondu-bearrak auzi oiek danak. Esan dezagun, Errepublikaren

kostitutzioa antiklerikala eta laikua izan zala: orduan munduko kostitutzio geienak bezalakoa, baiña ez aiek baiño okerragoa. Obea, izatekotan. Adibidez Frantzi'koa baiño obea. Altagutziz, Laterri oietan, Eliza salbatzeko, pentsatu al zuan iñork guda bat eratzen astea?

- Segura Kardenalaren erbesteratzea. Arazo zailla; elizaren ondasunak salduta, aien dirua atzerrian ezartzeko prestaketak egiten izan bait zan ura arrapatua. Diru-eramate-gai ortaz eskutitz bat, ordurako erbestetua zegoan Mujika Gasteiz'ko Gotzaiari Segura'k bidaltzen zion eskutitz bat atxiki zuten ertzaiñek Irun'en. Etxeguren, Gasteiz'ko Bikario orokorra, gero Asturietako gotzaia, zan eskutitz ura ixillean zeramakiana.

- Mateo Mujika Gotzaiaren esbesteratzea, bai, zuzen-zuzenean Errepublikaren errua izan zan, eta alukeri aundi bat gaiñera. "Yo soy el obispo, único en aquella fecha (1931'ko ilbeltzean), que publicó normas para las elecciones generales, diciendo entre otras cosas que los católicos de mi diócesis no podían en conciencia favorecer con sus votos a republicanos y republicano-socialistas porque combatían a la religión en sus periódicos, en sus mítines, en sus manifiestos electorales, en todo. Por lo cual, después que a los pocos días vino la república, sin darme más que media hora para salir, me desterró a Francia, donde hube de morar durante dos años", dio On Mateo berak.

On Mateo erregezale porrokatua zan, --"yo soy el obispo que siendo obispo de Vitoria repetía tantas veces en mis conversaciones que, para España, la mejor de las repúblicas sería siempre peor que la peor monarquía"--, baiña bazuan, demokraziaren araura, erregezale izateko eskubidea, eta baita bere katolikoei nola autarki-eman erakustekoa ere.

Gero, Franko'k erbesteratu zuan On Mateo gizagaixoa. Ez zuten orduan eskubitarrek errerepublikaren denboran Errepublikaren aurka bezala, Franko'ren aurka deus esan.

Errepublikak, utzi zion On Mateori Frantzi'tik bere elizbarrutia gobernatzen. Franko'k ez.

- Iñakitarren jaurtitzeak ere ez du iñundik zuzendu aal izaterik. Auek bazuten, demokraziaren araura, Españi'n bizitzeko eskubidea, naiz zearo integristak, eta autokrazi-zaleen adiskideak izan. ¡Gaur ari zaigu Josu'ren Lagundia izaeraz aldatzen!

- Kaleetako ixkamillak, ordenaren falta, ere aipatu oi da Errepublikaren aurka. Erru ori ez da Errepublikarena bakarrik; eskubitarrena ere bada, al zuten guztia egin bait zuten auek Errepublikari gauzak zailagotzeko. Falangistek, talde bereizi batzuk ere osotu zituzten beren "ekintzetarako". Ekintza oiek ezkertiarren erailketak ziran, eta Ansaldó izan zuten buruzagi. Aurreneko egunetan, falanjistei kezkarik aundiena, "ekintza" aietan ezkertiar baiño falanjista geiago iltzen zala ikusteak eman oi zien.

Oroi dezagun gaiñera, karriketan orrelako trakeskeriak, eta

aundiagoak, maiz izan zirala Borboien denboran ere; eta Errepublika, eskubitarrekin beratxa izan zan bezala, gogorra izan zala ezkertiarrekin, Asturietako iraultzakoan adibidez. Al, ta Errepublika-aroko iskamil aiek ez zirala inñolaz ere "el caos" izan. Izparringi integristek asmatutako itza eta kontua duzu ori dana.

-Errepublikaren legezkotasuna, lejitimatea, falta zaigu aztertzeko, gudaren etorrera arte inñork zalantzan jarri ez zuan gauza.

Iru auteskunde izan zituan Errepublikak: 1931'koa, 1933'koa eta 1936'ekoa. Bigarrenaren garbitasuna ez zuten sekulan eskubitarrek ukatu, berak irabazi ere irabazi bait zuten ura. Beste biak ere garbitzat artu zituan mundu guztiak, egin ziranean. "Españi'n izan diran aurreneko auteskunde garbiak" (Romanones). Uste ortakoak izan ziran Maura, Mola, Gomá Kardenala..., eta danak. Frankotarrak, ere, guda-ostean, laister isildu ziran ain argi zegoan gauzaren aurka mintzatzez.



Pentsa aal zitezkean gauza guztiak asmatu bait ziran Franko'ren gurutzada zuritzeko, asmatu zan onako au ere: militarrek ez zutela beren jeikitzea guda luze bat biurtu zitekeanik uste izan. Kolpe bat bakarrik eman nai izan zutela. Kolpe aren atzetik guda etorri zitekeala uste izan ba'zuten ez zirala sekulan altxatuko.

Ez da egia. Alemani'rekin eta Itali'rekin egindako alkarketak guda luze baterako egin ziran. Gaiñera Franko'k berak esan zuan argi-argi: "Si el golpe de estado fracasa, la guerra civil será larga y encarnizada... pero yo tengo fe absoluta en el triunfo".

Esan dezagun militarren omenez, berak ez dirala "guda luzerik gabeko jeikitze" ortaz mintzatu. Gudaren errua eusko abertzaleei botatzeko, elizjende frankotiarren sorketa izan zan ori; abertzaleek Franko'ren aurka atera ez balira ez omen zan bâ Españi'n guda luzerik izango: kolpe labur arin batez artu izango omen zuten militarrek Jaurlaritza! Eta ori, kolpe labur bat bakarrik nai omen zuten militarrek. Ez omen zuten guda luze bat etorri zitekeanik pentsatzen.

Gaiñera, Jaurlaritzaren aurka kolpe bat zuzenbidezkoa izateko ere, aurretik beste era guztiak erabili izatea eskatzen du teologiak: pakezko bide eta era guztiak erabiltzea. Militarrek, berriz, eta eskubitarrek, ez zuten sekulan Errepublikarekin alkarrizketarik izan: ezta nai ere. Aien elburua ez zan Zuzenbidea, ez zan gauzak konpontzea, ez zan pakea. Aien elburua, Errepublika botatzeta zan; jgudal, bai bait zekiten demokraziaren bidez sekulan ez zutela botako, erria errepublikazale zan ezkerero. Gudal Ez, pakerik!

Errepublikak, jeskeñi zien pakea militarrei, altzakundearen bigaramo-  
nean, uztaileko 19'aren egunsentian, Martínez Barrio'ren bitartez.

Martínez Barrio parlamentuaren lendakaria, gobernu berri bat bere  
lendakaritzapean antolatzeko izendatu berria zan, eta gudua eragoztearren,  
berak deitu zion telefonoz Mola'ri pakea eskeñiz eta eskubitarrez ere  
osatutako gobernu bat aginduz. Ezetz erantzun zion Iruña'tik Mola'k.

Orrela jeiki zan España'ko gudaroztea, eta jeikitze orrekin babesik gabe  
utzi zuan Jaurlaritza. Orduan bai. Pentsa daitezkean gaiztakeri guztiak egin  
zituzten kristautasunaren aurka "gorriek": erre, ostu, erail... ¿Zenbat jende il  
zuten? Amaika gotzai, sei bat milla apaiz (oietatik, bi millaren bat, prailleak),  
berrogeitabost lekaima, eta millaka ta millaka sekular. Izugarria, nardagarria  
izan zan ezkertiarren jokaera.

Baiña eskubitarrena ez zan ohea izan. Aiek bezala edo geiago, erre,  
lapurto eta erail ere zuten. Ez da oraindik bear bezalako estadistika bat egin  
nork jende geiago erail zuan jakiteko.

Estadistika orri aurea artuz, zalantzarik gabe esango genuke guk,  
frankotarrek jende geiago il zutela. Ez, gorriak baiño gaiztoagoak ziralako,  
ez; batzuk bezain gaiztoak bait ziran bestea; jende geiago mendean izan  
zutelako baizik; geometrizko arrazoiak: Gudaren asieran bi zati egin zan  
España. Zati bakoitzean, errukirik gabe, arriskugarri-edo zitezkean etsai  
guztiak eraillak izan ziran. Guda orrela amaitu balitz eraildakoen mordoak  
berdiña izango zan bi alderdietan. Baiña guda ez zan orrela amaitu.  
Frankotarrek, beren zatiko arerioak fusillatu ondorean, "gorrien" zatia artu  
zuten; eta, an adore berdiñarekin jarraitu bait zuten fusillaketan, ez bedi ifior  
arritu frankotarrek eraillak geiago dirala agertzan ba'da. Era lotsagarrian  
aztutzen zaie eskubitarrei, bizitzeko, España gorrian apaizek eta falanjistek  
aiña eskubide zutela España urdiñean komunistek eta eusko-abertzaleek.

Mundu guztiak salatu ta gaitzetsi zituan, kristauen artean, izkerarik  
gogorrenarekin gorrien eraillketak. Iñork ez frankotarrenak, naiz auenak  
aienak baiño gaitzesgarriagoak izan; "Gorrien" izugarrikeriak ez bait dira ain  
Jaurlaritzaren erru!

Gudaroztea aurka atera zitzaionean, bere autoritatea zerekin ezarri ez  
zuala gelditu zan Jaurlaritza. Illabete luzeetan batere autoritaterik gabe  
gelditu zan Errepublikaren España-zatia, anarki bizian, eta nai zuan guztia  
egin aal izan zuan erriak, erri amorratuak, ain maite zuan Errepublikaren  
aurka jeiki ziran militarren adiskideekin.

Frankotarren España'ko eraillketak ordea, ez ziran "erriak" egiñak izan,  
agintariek eginduak, edo babestuak eta onetsiak. Ala ere ez zuan gotzai  
batek bakarrik munduan ezertxo ere esan. Aulki Doneak berak, Pio XI'ak,  
eta XII'ak ez zuten frankotarren sarraskia gaitzesteko sekulan tutik atera.  
Baleike Aulki Doneak asieran zer gertatzen zan ez jakitea. Baiña gero,  
Mujika'ren informeen bidez-ta, odolketaren zantzua izan zuanean..., ¿ez al  
da naiko oben Aulki Donearentzat, "Laterririk katolikoenean", "gurutzada"

batean, zer gertatzen zan obeki jakiteko batere saiaketarik egin ez izatea?

Gogoaren muiñean sartutako arantza, oñaze eriogarria, izan zan katoliko askorentzat Aulki Donearen isiltasun ori. Bere baitan Franko'ren aurka zegoan Pio XI'ak, zergaitik ez zuan agerian deus esan? Españi'ko gotzaidi osoa era lotsagarrian ez ipintzeagaitik? Ez zaigu arrazoi naikoa iduritzen. Zergaitik ez zion Españi'ko gotzaiei erailketaren aurka itzegiñarazi? Bateren batek obedittuko ez ziolaren bildurrez?; edo-ta Elizak itzegiten ba'zuan, Franko, Mola, Queipo de Llano eta gaiñerako jeneral "katolikoak" Hitler'en besoetara osoro joango ziralaren bildurrez? Auek balirake bi arrazoi mardul.

Izan zan, ala ere, odol-ixurketa ankerraren aurka mintzatu zan gotzai bat: Iruñia'ko Olaetxea, ez oso agerian eta oso ofizialki, Katoliko-Ekintzaren ikur-ipintze batean mintzatu bait zan. Ez zuan kemenik geiegi salaketa egiterakoan erabilli, ez beintzat berak eta beste gotzaiek "gorrien" erailketak salatzeke erabiltzen zuten kemen aren antzekorik; beranduegi mintzatu zan, iraillean, ordurako Naparroa'ko bide-bazterrak militarren aurka itzegiteko, bear zan ausardirik. Ez zion iñork jaramonik egin, iraiñez eta zemaiz erantzuteke ezik, eta aurrera jarraitu zuan etsai-fusillaketak. Olaetxea'k ez zuan geiago ezertxorik esan. Ezta beste iñork ere. Etxeguren Obiedo'ko gotzaia, Pildain Kanarietakoa eta Tarragona'ko Vidal y Barraquer ez ziran frankotarrak, baiña ez ziran gai ontaz mintzatu, agirian beintzat. Etxeguren azkarregi il zan. Vidal y Barraquer Kardenala atzerrian bizi izan zan guda asi ezkeroztik. Pildain'ek, Franko'ren sindikatoen kristautasuna eta sindikatotasuna ukatuaz idatzi zuan, geroago, pastoral bat; baiñan ez zan iñoiz geiago "gurutzadari" zegozkion gaietaz mintzatu. Gasteiz'ko Mujika'k, jokaera bat erabilli zuan pertsonalki eta beste bat ofizialki, Aulki Doneak isilik egoteko agindu ziolako. Orrelako aginduren bat jaso ote zuten Pildain'ek eta Tarragona'ko Kardenalak?



Aulki Doneak ere badirudi bi erako jokua erabilli zuala, Gomá'k bere egunerokoan idatzi zuana egia bada beintzat; au esan omen zion bâ Pacelli Estadutzako Idazkariak: Franko'ri Batikanoa bere alde zuala jakifñarazteko, alajaña! Legez, ordea, Errepublikaren Jaurlaritza zeukan orduan oraindik on-ezagaturik Aulki Doneak.

Diplomazizko jarduera? Baleike. Aulki Doneak bazuan Alemani'ren eta Itali'ren asmoen berri, eta ziur ikusten zuan Franko'k guda irabaziko zuala; Españi'ren etorrera, Itali'rena eta Alemani'rena bezalakoa izanen zala: aski fatxista; eta Elizarentzat ain arriskugarri zan giro fatxista ortan, eliz-bizitza eta eliz-ekintza nai zituan babestu, baiña oraindik gudan ziarduan Errepublikari asarre-biderik eman gabe.

Orregaitik, ofizialki, Eliza Errepublikarekin zegoan. An zeukan Batikanoan Errepublikaren enbaxadaria, Koldobika Zulueta, eta enbaxadaritzat euki zuan au beti; baita fatxistek, litxarkerien bidez, Erroma'tik alde-egifarazi ziotenean ere.

Errepublikak anarkikeria menderatu-ondorean, Imanol Irujo Justizi'ko Ministroaren bidez Jaurlaritza Elizarekin auziak konpontzen asteko prest agertu zanean, ez zan konponketa artarako Aulki Donearen aldetik batere eragozpenik izan. Aurreneko pausoa jauretxeak irikita meza esaten astea izanen zan. Errepublikak eman zuan aurreneko pauso ori, Justizi'ko Ministroaren lege baten bitartez "autorizando por acuerdo del 31 de julio de 1937 el culto privado".

Pozik artu zuan erabaki ori Aulki Doneak. Pacelli Erroma'tik kanpoan zan, eta Pizzardo'k eta Tardini'k artu zuten Pacelli'ren aginduz Tarragona'ko Bikario Orokorra, Irujo'k emandako pasaportearekin gai oietaz itzegitera joan zana. Ona nola kontatzen dituan bi ikustaldiak Salvador Rial Tarragona'ko Bikarioak berak:

"Llegado al Vaticano me presenté al Cardenal Pizzardo para el cual llevaba una presentación muy expresiva del Cardenal Vidal y Barraquer. Expliqué al Cardenal Pizzardo el objeto de mi visita. A este prelado no le cabía duda de que llegar a la normalización de la vida religiosa, contando con la tolerancia del Gobierno y la asistencia del pueblo, era una ventaja y una necesidad. No se explicaba bien cómo hubiera sacerdotes ni autoridades eclesiásticas que creyeran que eso podía no ser conveniente. Luego me presenté a Tardini (Secretario de Asuntos Extraordinarios en la Secretaría de Estado) y con él hablé extensamente de todos los problemas". Rial'ek Irujo'ri esandako itzak dira, onek bereala idatziak, eta idazki ortatik Onaindia'k jasoak.

Pizzardo'ren iritzikoa izan zan Tardini ere eta aolku au eman zion Tarragona'ko Bikario Orokorri: "aprovechar todos los momentos adecuados para ponerse en contacto con el pueblo. Abrir capillas privadas, semipúblicas, iglesias; bautizar, confesar, autorizar matrimonios y otras actividades". "La Iglesia no podía menos de desear fervientemente que, tanto el pueblo como el gobierno republicano, fueran tolerantes y asistieran a sus sacerdotes. En ello no había ningún inconveniente. Por el contrario, había un gran beneficio al permitir a la Iglesia desarrollarse aplicándose a restaurar la vida religiosa y pastoral. Nada que pueda hacerse en ese orden debe omitirse. Esta es la instrucción concreta de Mons. Tardini".

Arritu-arriturik gelditu omen ziran bai Pizzardo bai Tardini orrelako itaunketarako gizon batek Erroma'ra joan bear izan zuala jakitean.

Ez zuten ezagutzen Españi'ko apaizen frankozaletasuna norainokoa zan.

Errepublika'ren Españi'n apaiz guztiak edo espetxean edo bildurrez

izkutaturik zeudelako, ¿Irujo'ren legea eta Aulki Donearen asmoak alperrikakoak zirala? Iare ziran ordurako apaizak, 1937'ko loreilla ezkerre apaiz guztiak espetxetik ateratzeko agindua emanik bait zeukan Irujo'k berak. "Desde la entrada de Vd. en el ministerio de Justicia, (urte orren loreillean sartu zan), se ordenó la libertad de todos los sacerdotes detenidos "por el hecho de serlo", y empecé a disfrutar de una vida tranquila. Yo mismo, que con mi hermano estaba detenido el mes de julio de 1937, fuí puesto en libertad, según entonces se me dijo porque lo había Vd. ordenado..., para que la vida eclesiástica pudiera restablecerse. Como yo salieron infinidad de sacerdotes que desde entonces no hemos encontrado dificultad alguna". (Rial Bikarioak Irujo Ministroari).

"Me preocupaba la idea de que vicarios y sacerdotes no recogieran el carné que Vd. les daba", dio Rial'ek. Txartel ori apaizentzako bereiziki sortua zan; elizjendearen babesketarako. Zergaitik ez zuten auek orrelako txartelirik gura? Txartelaren aurkakoa zan Bartzelona'ko Bikario Orokor Torrent oratoriotarra bera.

Danadala Txartel aien auziaz ere mintzatu bear izan zuan Rial'ek Tardini'ren aurrean. "Mons. Tardini se quedaba extrañado de que eso tuviera que consultarse. Lo mismo que toman cédula personal y otros documentos, era conveniente a los sacerdotes poseer uno reconocido por la autoridad y que les sirviera para moverse libremente y ejercer su misión... lo cual no significa sumisión a ningún sistema político... Ese era también mi criterio y así lo expuse, pero necesitaba que el Vaticano lo ratificara. Ahora, eso me lo ha ratificado".

Rial tarragonatarrak esaten digun bezala baziran Elizaren eta Errepublikaren arteko giroa gozatzeko arent etsaiak Espaini'ko elizgizonen artean.

Giroa egiaz gozaten ari zalaren eta geiago gozatu zitezkelaren zalantzarik ez dago. Ala uste zuan Aulki Doneak ere. Entzun Rial'ek diona: "Lo único que el Vaticano ha restringido, en vista de que la era de la libertad en la España republicana ha comenzado, es la autorización para poder decir misa sin ningún género de requisitos. Hoy se exigen pocos, pero algunos. Corresponde esa exigencia a la posibilidad que tienen hoy los sacerdotes de proveerse de algunas prendas fáciles de adquirir, y a los fieles de facilitarlas".

Zerk sortzen ote zuan elizjendearen muzinkeria? ¿Kontzientzi estuegi baten erruz, bikario Orokor batek tratua aietan sartzeko eskubiderik ez zuala uste izateak?, Bartzelona'ko Torrent, Bikario Orokorak, Batikanoa aipatzen bait zuan bein da berriro gai oietaz itzegiten zitzaionean. ¿Gobernuaz ez fiatzeak?, Torrent orrek apaizen Txartelako auzian, Gobernuaren baietsia eskatzen bait zuan, ots, "la disposición oficial del Gobierno de la República, que sea fundamento legal de los certificados que el Ministro Sr. Irujo expide



a favor de los sacerdotes". Irujo ez zan ordurako Justizi-Ministroa, eginkizun bereizirik gabeko ministroa baizik: "Ministro Sin Cartera"; baiña, alatagutziz, Ministro!

Amorekaitza agertzen zan beti Bikarioa. "Los nobles empeños, los esfuerzos incesantes y las ansias casi angustiosas del Sr. Irujo, se estrellaron contra una actitud fría, casi molesta, del P. Torrent" (Onaindia). Eliz-irikitze oro debekatu zuan gizon onek, eta orrela irikitako jauretxe batean meza ematen zuan apaiz oro "suspentsioz" zemaitu. Aulki Doneak asieran arreta aundiz ibiltzeko aginduren bat eman ote zion? Pizzardo'k emandako aolkuen erara zebillela esan omen zion bā bein Onaindia'ri.

Iñoiz Aulki Doneak kezkarik izan ba'zuan, orduan beintzat ez zuala batere, ikusi dugu; eta aski errudun daiteke Bartzelona'ko Bikario Orokorra, Tarragona'koa bezala zuzenean Aulki Donearekin mintzo ez zalako. Irikiko zion Irujo'k Erroma'rako bidea, arek ori eskatu balio. Edo-ta, Errepublikari zuzenbiderako atea itxi nai ote zion? "Nosotros creíamos a veces que los elementos de "derecha" eclesiásticos y civiles preferían que siguieran las iglesias cerradas y sacrílegamente profanadas hasta la llegada de las tropas franquistas". "Y probablemente, esos elementos de "derecha" sospechaban que muchas de nuestras iniciativas en el terreno del culto religioso provenían de un afán de prestigiar así ante la opinión pública al frente antifranquista"... (Onaindia).

Gertakizun onek argitu lezake Torrent'en pentsaera: Frantzi'ko diplomazilari baten illetak ziran; Torrent zan illeta aietan apaiz. An zeuden enbaxadaria, beste Laterrietako diplomazilariak, Irujo ministroa, Generalitatearen ordezkaria, Eusko-Jaularitzaren Lendakaritzako idazkari eta Parlamentuko diputadu zan Jauregi, eta beste jaun batzuk. Ona zer esan zion danen aurrean Torrent Bikarioak ornamentuak eskeintzen zizkion Jauregi jaunari: «Revestido, no. Me pondré la estola. Ya basta. Así se enterarán todos cómo estamos en Barcelona».

"En efecto, se puso la estola sobre un gabán gris muy usado y dijo murmurando entre dientes unas oraciones junto al féretro" (Onaindia).

Euskadi'ko Jaurlaritzak Bartzelona'n zuan gaixotegiko elizatzooan gertatu zan ori. Geroxeago bai, Frantzi'ko itxasontzi baten barruan, apaiz-jantzi osoan egin zuan illetaren bigarren zatia.

"Comprendo muy bien que el ministro señor Irujo se sintiera herido y molesto ante semejante conducta de la primera autoridad eclesiástica" (Onaindia). 1938'ko epaillaren 20'a zan.

Zillegi bezaigu galderatxo bat: Zitalkeri aiek danak Torrent Bikarioak Irujo Errepublika "gorriaren" ministroari ez baiña Franko'ren Jaurlaritza artxikatolikoko edozeiñi esan balizkio, edota zakarkeri aiek "Gurutzada Santuko" jeneral baten aurrean egin balitu..., zer gertatuko ote zitzaion Bikario lotsagabe mingain luzeari?

Irujo ez zitzaion asarretu. Egun batzuk geroago, espetxean zan baiturik Bikarioa beste jaun batzuekin. Apaizei laguntzeko atzerritik etorritako dirua isillean jasotzen arrapatu zituan ertzaindiak. Berealaxe asi zan Irujo espetxeratuen alde lanean. Lau egun bakarrik egon ziran baituran, eta egunero eman zuan meza Bikarioak an.

Ordurarteko, euskaldunen baretasuna ezagutzen zualako, ibilli ote zan ain arroxko Torrent Bikarioa? Ori uste zuan Irujo'k, Onaindia'ri 1938 artako Iraillean idatzitako eskutitz batean adierazten duanez:

"El Vicario General está finísimo. Creo sinceramente que a ello le obliga la posición que yo he adoptado. Hago que conteste sus cartas el Jefe de la Sección Política que es el Sr. Maidagán y cuando tengo algo que decirle, se lo dice éste. En lugar del hombre amable, dispuesto a buscarle, a explicar sus diferencias y a insistir en su posición, ve en mí ahora al que ocupa su puesto sin dejación de ningún género. Es una pena tener que tratar a los hombres así, pero el resultado está a la vista".

Baiña emen Katalauni'ako apaiz integristen jokaera baiña geiago ajola zaigu Aulki Donearena. Errepublikari-buruz konfiantza osokoa izan zan au. Katalauni'ko Elizbarrutietako Bikario Orokor guztiekin Bazkun bat osatzea erabaki zuan Tardini'k.

Bazkun ori izanen zan Kristau-bizitza eta Kristau-ekintza oren zuzendaria Katalauni'an. Bere eskuetan egongo ziran Gobernuarekingo artu-eman guztiak. Bera izango zan Aulki Donearen ordezkari. Bazkunaren Lendakaria, Tarragona'ko Bikarioa izanen zan: Rial adimen-zabala.

Frankotarrek Katalauni orduantxe artu zutelako, ez dugu Bazkun arek nolako zituak ekarri zezazkean jakiterik izan, baiñan argi gelditu zan Aulki Donearen jokaera garbia. Ez dirudi jokaera onek apaiz integristei atsegin aundirik egin zienik, Torrent beintzat lengo bidetik bait zebillen.

1938'ko abenduan Jauregi'k Sebero Deunaren jauretxean, agian Bartzelona guztian zikindua izan ez zan Jauretxe bakarrean, erriarentzat meza ematen asteko baimena eskatu zion. Ez zuan, Torrent jaunak baimen ori eman nai izan, baiña Jaurilaritzarekin itzegiteko prest agertu zan: "que cuando el gobierno de la República juzgara llegado el momento de reanudar el culto público, gustoso se prestaría él al diálogo con los señores Ministros de Gobernación y de Justicia para tratar del tema".

Meza ematea eragozteko aitzaki-billa ote zebillen? Bere buruaren goratzea nairik Jauregi jauna gutxietsita, Ministroekin itzezin aal izatea eskatzen ote zuan? Errepublikaren ertzaiña meza-entzuleak babesteko gai izango ez zalaren kezkek ikaritzen ote zuan? Apaizak Jaurilaritza berberaren baimenik gabe ematen ba'zuan meza, apaiz ura, gero, noiznai espetxeratua izan zitekela pentsatzen ote zuan? Edo beste bildur aundiago bat ote zerabilkian bere baitan, Errepublikaren aurrean amore eman zualako Franko'k zigortuko ote zualaren bildurra! Orrela jokatuaz, Franko'ren aurrean

meretzimenduak irabazi nai ote zituan?; edozeinek igarri zezakean gauza zan bâ Katalauni'a frankotarren eskuetara laister jausiko zala.

Bi galdera datozkigu orain lumaren punttara: Aurrenekoa: Ausartuko ote zan Torrent frankotarren agintari bati alako une larrietan Jauregi jaunari egin zion uko bera egitera? Bigarrena: ¿Zer gertatu ote zitekean Españi'ko elizgizonak bi alderdien artean neutral izanik, Errepublikaren Jaurlaritzari Franko'renari bezain naimen zabala erakutsi baliote? Adibidez:

1938'aren epaillak, 1; Onaindia'k Bartzelona'n, "Ministro de Defensa" edo "Babeskunde-Ministro" zan Prieto'ri apaizak izkilluketatik ialetzearen egokitasuna agertu zion. Berealaxe, --epaillak 2--, Onaindia'ren eskaria "Gazeta Oficial"ean, Prieto'ren erabaki batez, lege egiña izan zan. Baiña Españi'ko elizgizonek, Tarragona'ko kardenala izan ezik, ez zuten erdian gelditu izan nai. Alde batera jo zuten. Franko'ren aldera. Oarra: Torrent'i-buruz irakurri, arren, "Itzaurrea" deritzan atalean "Eugenio Pacelli'ren eskutitz garrantzitsu bat".

"La actuación de los obispos y del clero en general ha sido demasiado política en perjuicio de la autoridad e independencia que siempre debe mantener la jerarquía". "El tan proclamado «Derecho de Rebelión» ha trocado en muchos eclesiásticos el espíritu de caridad, suavidad y mansedumbre evangélicas por el espíritu de violencia, represalias y castigos". "Da pena ver cómo los obispos se prestan a hacer una religión patriótica a base de misas de campaña, Te Deum etc. Las tan de moda peregrinaciones al Pilar, más que formar al pueblo en la verdadera religión, tienden a hacer ambiente de hispanidad". Vidal y Barraquer Kardenalak Aitasantuari idatzitako eskutitzetatik artutako itzak dituzu oiek danak.

Españi'ko gotzaiek ez zuten inñolaz ere neutralak izan nai. Bai, ordea XI Pio Aitasantuak.

Orregaitik ez zitzaion inñori gustatu, onek españiar-erromes-sail bati egin zion itzaldia. Izenik aipatu gabe, okerkeriak gaitzetsi, martiriak goraiatu, eta Jainkoari zor zaizkion eskubideen alde ari ziranak onetsi besterik ez bait zuan egin. "Martirien" artean sarturik al zeuden frankotarrek fusillatutako eusko apaizak ere? Jaungoikoaren eskubideen alde eta "kontzientziaren askatasunaren alde lanean ari ziranak, ¿nor ziran? ¿Frankotarrak bakarrik? ¿Frankotarrak eta Gipuzkoa ta Bizkaï'ko eusko-abertzaleak? ¿Españi'n bertan, anarkia garaituta, Errepublika sendotzen eta garbitzen saiatuko diran guzti aiek ere bai? 1936'aren iraille'ko 14'a zan.

Gotzai, apaiz, praille, eta laiku, seireun katoliko zeuzkan itzegitean Pio XI'ak aurrean. Danak frankotarrak; danak Españi "gorritik" igesegiñak. Beste izkera bat itxaro zuten Aitasantuagandik. "Y entonces fue el discurso de vocablos de hielo, las frases que podían haber sido escritas o dictadas por el ministro de estado de una potencia a quien no angustiara de un modo particular la infinita angustia de España"..., idatzi zuan illabete batzuk geroago aietako batek.

Azkenean, Aitasantuaren itzaldia "beren modura" irakurtzea erabaki zuten frankotarrek: ¡"Sí; ya ha hablado la Iglesia...! Ha condenado enérgicamente la actuación de los malos españoles que venden su patria al extranjero; y ha condenado también a los malos católicos que pactan alianza con los marxistas y los comunistas en contra de la patria íntegra y una", zion Gomá Kardenalaren onespenearekin 1937'an argitaratutako idazki batek... ¡Roma ha hecho lo que tenía que hacer, y el papa ha hablado"! Gezurra; Aitasantuak ez zuan orrelakorik esan.

"El Papa... con prudencia, pero de forma bien clara, expresó la condena de la Iglesia por la persecución antirreligiosa desatada en la zona republicana y su apoyo, algo más que indirecto, al bando nacional" idatziko du geroago La Cierva edestilariak ere.

Ez da egia. Ori uste izan zuten errepublikazaleek ere, baiña ez da egia. Aitasantuak ez du "zona republicana"rik aipatzen. "Es muy curioso que la prensa del bando rebelde apenas preste atención entonces al trascendental hecho", dio La Cierva frankozaleak, eta ez du arrazoirik; ixiltasun ura ez bait zan "arrigarria". Aitasantuak, itzaldian, guda, anai-arteke guda batez ere, ipifii zuan gizadiaren gaitzik makurrena. Guda, ordea, militarrek asi bait zuten, arrazoi osoz atera zitezkean Aitasantuaren izkeratik Españi'ko gaitz guztien errudunak gaitz guzti aien sorburu zan guda ura asi zuten militarrek zirala. Errepublikazaleek berriz, gaitzera jausi zitzaizen gudaren zurrunbilloan galdurik, Aitasantuaren izkera artaz baliatu zitezkeanik ez ziran oartu ere.

Ez zuten Españi'ko gotzaiek Aitasantuaren zugurtasunarekin itzegiten! Lotsa ematen du gaur, aiek orduan idatzi zituzten pastoralak irakurtzeak. Toledo'ko Gomá, Burgos'ko Castro, Salamanka'ko Plá y Deniel, Iruña'ko Olaetxea... Jainkoak barkatu bezaie, uste gabean kristautasunari egin zioten gaitza. "En la España nacionalista los obispos podían haber tenido una fuerza directora y decisiva; se necesitaba de ellos... Pero se dejaron arrastrar por la corriente, en gran parte sana, y el timón ha pasado a manos de personas seglares y políticas, dirigidas por fuerzas que no son totalmente cristianas y tal vez procedan del extranjero". "Todo ello dificulta el acercamiento a la Iglesia de las personas indiferentes y apartadas de la religión porque a través de los obispos y del clero la juzgan identificada con el partido dominante... y con la clase rica". Berrero, Vidal y Barraquer Kardenalaren oarkizunak dira; Aitasantuari aurkeztuak.

Majiña bat txatxukeri esan oi dute gotzaiek Elizaren ondamerako edestiaren luzaroan, adibidez Españi'ko III Karlos'ek bere lurralde danetatik inakitarrak erbestera zituanean; Napoleon I'ak konkordatoa izenpetu ondorean; Luis XVIII'ak Frantzi'ko erregetza artu zuanean; Napoleon III'a inperiotzara igotzerakoan..., baiña gure ustez, ez da sekulan gotzaien agotik edo lumatik Franko'ren denboran aifia txorakeri atera, Gomá'ren

"ignoramos" doakabe artatik asita: "Ignoramos cómo y con qué fines se produjo la insurrección militar de julio: los suponemos levantadísimos. El curso posterior de los hechos ha demostrado que lo determinó, y lo ha informado posteriormente, un profundo sentido del amor a la patria". Oñiarri txarrak dira "ignoramos" eta "los suponemos", berrietan tinkatuta mundu guztiari itzegiteko. "Estaba España ya casi en el fondo del abismo y se la quiso salvar por la espada. Quizá ya no había otro remedio", jarraitzen du kardenalak. Ez die "quizá" orrek lengo "ignoramos" eta "suponemos" aiei indar geiegirik txertatzen!

Gomá'rentzat ez zan oraindik orduan borroka ura "gurutze-guda"; "insurrección militar" besterik ez zan. "Gurutze-guda", "Cruzada", borroka odoltsu ari izen-ipintzea, Iruña'ko Olaetxea'ren asmakizuna izan zan.

Ona itz orren sorkuntzearen edestia:

- 1936'ko uztailak 24. Franko'k berak darabilki itzaldi batean "cruzados" itza, baiña politika utsezko zentzuan. Franko ez zan oraindik katolikotasunera biurtu. Entzuleak, lejiotarrak eta mauritar musulmanak zituan, eta gudari aiek ez ziran, jakiña, Kristo'ren "gurutz-artuak", "cruzados de la Santa España" baizik. Orrela izendatu zituan beintzat Franko'k.

- 1936; Dagonillak 6. Mujika'ren eta Olaetxea'ren eskutitza, Eusko Alderdi Jeltzalearen jokaera debekatuaz. Eskutitz ori Gomá Kardenalak eraginda idatzi zutela dirudi. Españi'n sutan zegoan guda, kristauak zegiten guda omen zan, eta kristauen aurka zebiltzan jainkogabeekin alkartzea "ez omen zan zillegi": "non licet".

- 1936; Dagonillak 19. Olaetxea'ren itzaldia: "se ventilan los sagrados intereses de la Religión y de la Patria".

- 1936. Dagonillak 23. Aurreneko aldiz elizgizon batek deitzen dio "Gurutze-Guda" militarren jeikitze odoltsuari. Izkera au, erabilli zuan Olaetxea'k itzaldi batean: "No es una guerra la que se está librando; es una Cruzada"; ¡Jaurti du aizera Iruña'ko Gotzaiak itz doakabea: "La Cruzada"!

- 1936; Dagonillak 28. Balladolid'ko Goigotzaia da oraingoan "los Cruzados de Cristo y de España" goratzen dituana.

- 1936; Iraillak 30. Plá y Deniel Salamanka'ko Gotzaiaren eskutitza. "Bi Uriak", "Las Dos Ciudades" izendatua. Milla aldiz aitatua izango dana: "La actual lucha reviste, sí, la forma de una guerra civil, pero en realidad es una Cruzada".

Eskutitz ortan Agustín Deunak erabilli zuan Bi Urien irudia darabilki berriro, militarren gudua sagaratzeko. Teologilariak ez dira ausartzen Agustín Deunaren "Jainko-Uria" mundu ontako Eliza danik esatera, "Jainko Uri" artan pekataririk ez bait da, eta mundu ontako Elizan bai. Plá y Deniel ez zaigu orrelako korapillotxoak askatzen geldituko. Arentzat "Jainkoaren Uria" Franko'ren Españi da; Errepublikaren Españi, berriz, "Deabruaren Uria". Franko'ren gudaroztean, gudariak, aingeruak dira; Errepublikarenean,

danak deabrukumeak. Ez zan noski aundiegia Plá y Deniel'ek Teologiaren auzietaz zuan ezaguera. Ezta Franko'ren Españi'n gertatzen ari ziran gauzena ere.

Pastoral onek ipiñi zuan Franko, atzera, kristautasunerako bidean.

Bezperan izan zan ain zuzen Franko "Españi Berriaren" buruzagi aukeratua, eta bigaramonean irakurri zuan Pla y Deniel'en Eskutitz Pastoral. Zoraturik gelditu zan Bi Urien dotriñarekin. "(Según comentario posterior del propio Franco), esta carta se convirtió desde el momento de esa primera lectura en parte integrante de la ideología del Jefe del nuevo Estado Español" (R. de la Cierva).

Emendik aurrera, "La Cruzada", frankotar guztiek, eten gabe, erabilliko duten itza izanen da. Baita itzaren sortzaille Iruña'ko Gotzai Oaletxea'k ere: "Esta Santa Cruzada, la más santa Cruzada que han visto los siglos". Olaetxea'k irikitako bide ontatik aurrera jotzen, Josulagundia izan zan ausartiena frailejendearen artean. Wladimir Ledochowsky polonitarra zuan orduan Lagundiak zuzendari nagusi.

1.112 (milla eun da amabi aldizkari argitaratzen zituan orduan ogeitamar izkuntzetan Lagundiak, eta danen zuzendariei idatzi zien Ledochowsky'k Españi'ko guda "gurutze-guda" zala jakiñaraziaz, eta guda artaz mintzatzerakoan, idazkietan beti izen ori erabiltzeko aginduaz. "La causa nacional tuvo así una aprobación definitiva y definida para la conciencia católica del mundo". Ez da oker esana, amairu milloi ale argitaratzen bait zituzten 1.112 aldizkari aiek. (Gaztelarazko itz oiek, J.M. Escudero'renak dira).

Gauza "gozorik" irakurri nai ba'duzu, irakurri itzezu garai artako gotzai españitarren pastoralak. Vidal y Barraquer ez ezê, Herrera Oria ere kezkatzen zuten gotzaien idazkera eta izkera aiek, "porque el día de mañana habría de constituir laboriosa tarea para los apologistas católicos justificar la actitud belicosa de la Iglesia española". Tarragona'ko Kardenalak berriz, ez zuala "Guda Done" itzaz mintzatu ere nai, idazten zion Aita Santuari: "Guerra Santa cuyos desastrosos resultados se van evidenciando cada día más".



Arreta aundiz zebillen Aulki Donea bera. 1936'ko iraillaren 14'koa izan zan aipatu dugun IX Pio'ren itzaldia. "Aitasantuak orduan esana era berberean zan alderdi bateko eta besteko jardunkeraren gaitzespena" (A. Rhodes).

Bazuan nunbait Aulki Doneak, ałare, itzaldi ura frankotarrek beren aldera eraman naiko zutelaren bildurra, amaika egun geroago, askoz otzagoa izan bait zan Pacelli Estadutzako Idazkaria, Izparringilari Katolikoen

Batzarrean, batzarkideei ongietorria egiterakoan. Beste Laterrietakoen artean, "los pertenecientes a la en estos momentos martirizada y siempre gloriosa madre Patria España" ezer besterik esan gabe agurtu zituan Franko'ren Españi'tik joan zitzaizkion izparringilariak.

"Aulki Donearen ariketak asarre zerabilkian "Laterri Berriaren" buru egin-berria zan Franko. Nuntzioak berak ere Errepublikaren alboan jarraitzen bait zuan! Orregaitik bidali zuan Franko'k 1936 artako abenduaren 11'ean Erroma'ra Gomá Kardenala" (G. Hills).

Gomá'k, bere egunerokoan idatzi zuanez, berealaxe sartu zuan patrikan Estadutzako Idazkaritza osoa. Ikus: "1936; 19; Mañana. Pacelli me encarga diga al General (Franco) que todas las simpatías del Vaticano están con él y que le desean los máximos y más rápidos triunfos". Lortu zuan Gomá'k Aitasantuarengandik "onespen bereizi" bat ere Franko'rentzat, baiña ez dirudi oso pozik gelditu zanik.

Pacelli'ren guraririk aundiena "elizaren askatasuna" zan, "gotzaiak erbestèratzeko auziari-buruz batez ere". Onespenak eta gaiñerako izkera goxoek, balio gutxiko gauzak ziran Aulki Donearentzat askatasun ori lortzen ba'zan. Ordurako atzerrira bidalia zan Gasteiz'ko Gotzaia, eta aren itzala zebillen Aulki Donearen gaiñean. Oartu zan Gomá; berak dionez, Erroma'n "un criterio hostil a España" arkitu omen zuan bâ; baiña lortu ere lortu omen zuan "doblegar ese criterio", Pacelli'ri irakurri zion idazki baten bidez.

Ala ere ez zuan bere garaitza oso-oso zanik uste, dirudianeaz, bere atzetik Erroma'n "una conducta a un tiempo fina y algo desconfiada del Vaticano" uzten omen zuan bâ. "Gomá fracasó en esta su misión; es decir, el papa estuvo de acuerdo en que los católicos no debían ayudar al comunismo, pero se quejó amargamente por la ejecución de sacerdotes católicos vascos efectuada por tropas blancas" (G. Hills).

"Elizaren askatasunaz kezkatzeko bazuan Pacelli'k arrazoirik naiko, zer gertatzen ari zan Españi'n ikusten bait zuan.

"Franko'k ez zeukan bere mendean Erroma'ko Eliza, baiña bai Españi'koa. 55 gotzaietatik 41 bere agintepean zeuzkan. Amar illabeteren luzaroan mundutik bereizirik egon bear izan zuten gotzai auek. Franko'k eratutako "Departamento de Prensa y Propaganda"k irakurtzen uzten ziena besterik ez zuten irakurri aal izan denbora artan danean. Eskutitzak ere Erakunde orren azterketa eta baietsia bearrekoa zuten. Franko'k berak jakiñarazi zion Gomá Kardenalari "Mit Brennender Sorge" entziklika argitara eman aal izateko debekua" (G. Hills).

Bazuan Aulki Doneak zertaz kezkatua, gotzaiak zeáro Franko'ren mendean bait zeuden. "Indudablemente el clero español demostró ser tan susceptible a la propaganda como cualquier otro grupo de individuos en cualquier guerra moderna" (G. Hills).

Aulki Donearekin bereiziki asarre aurkitzen dugu Franko 1937'ko

loreillean Alemani'ko enbaxadariarekin izan zuan solas-aldi batean: "desaprobó todas las interferencias del Vaticano en sus (Batikanokoa'renak) negociaciones de paz con el Gobierno republicano", eta gaiñera, elizjendeak gobernuko gauzetan eskumenik txikiena izan zuan denboran izan omen zan aundi Españi, ots, Karlos V'aren eta Felipe II'aren denboran; kaxkar eta txiki, berriz, Batikanoak, almen aundia izan zuan garaietan" (A. Rhodes).

Bazuan noski Franko'k ori esaterakoan, Aulki Donea eta Errepublika ostera arremantetan asteko alkarrizketan zebiltzalaren susmoa. Kilikagarria da benetan Erroma ta Madrid'en arteko alkarrizketa onen edestia; zearo ez-ezaguna bait da gaiñera!

Elizako eta Errepublikako jaunik garaienak ibilli zitzaizkigun mintzaldien antolaketan. Ikus: Aulki Donearen aldetik, Verdier Kardenala, Pacelli Idazkaria, eta auen atzetik, XI Pio. Errepublikaren aldetik berriz, Irujo, Girál, eta Prieto, ministroak irurak, eta auen atzetik, Negrin Jaurlaritzako Lendakaria. Bitarteko bezala, Tarragó Aulki Donearen aldetik; Leizaola, ta Alberto Onaindia Errepublikaren aldetik.

Bein Españi "gorrian" anarkia menperatua izan ezkeru, Elizarekingo zer-ikusiak birrezartzekotan zebillen Irujo. Abegi onez entzun zion Jaurlaritzak, politikaren mailla utsean ere ospe ona ematen bait zion Errepublikari, ifoiz legez ausia izan ez zan adiskidetasunaren aria Elizarekin ostera munduaren aurrean sendotzeak.

1937; Dagonilla 28. Errepublikaren batzorde bat Paris'era doa, Nuntzioarekin itzegitera. Jaurlaritzako Lendakariaren baietsiarekin, Irujo'k bidali zuan batzorde ura. Nuntzioa kanpoan zegoalako, Nuntzitegian utzi zuan batzordeak Aulki Donearentzat zeramakian eskutitza.

Laister zan Erroma'tik Paris'en Aulki Doneko diplomazilari bat, jatorriz frantziarra, Verdier'en eta Pacelli beraren adiskidea, Estadutzako idazkaritzan itzal eta esku aundiko gizona: René Fontenelle. Pacelli Estadutzako Kardenal Idazkariaren mezu bat zekarkian, Españi'ri buruz, Verdier Kardenalarentzat.

Bereala jarri zan Verdier lanean. Paris'ko Kardenal onuragarria izango dugu arazo guzti ontan Españi'ren eta Erroma'ren arteko zubia.

1937; Iraillak 6. Irujo'rentzako Verdier'en eskutitza. Tarragó apaizak ekarri zuan Españi'ra eskutitz ura, baiña aurretik beste mezu au eman zion Fontenelle'k Aulki Donearen izenean Irujo'rentzat:

- "Que la situación de ánimo del Papa y del Cardenal Pacelli era de absoluta neutralidad ante la contienda de España".

- "Que el Vaticano se lamentaba de que se hubiesen interrumpido de hecho (legez ez bait ziran beifñere ausi), las relaciones entre el gobierno de la República y el Secretario de Su Santidad, por ausencia de Roma del titular de la embajada Sr. Zulueta".



-"La conveniencia de estudiar la posibilidad de la reanudación, en mayor o menor escala, de aquellas relaciones, con el fin de llegar a una mayor y más explícita información del problema religioso de la zona Gubernamental ante el Vaticano".

-"La buena acogida que había tenido en los círculos del Vaticano la restauración del culto privado en la zona leal; y, (que por ello), animaba a Irujo a que continuara en su noble afán".

(Irujo'k Onaindia'ren eskariz Frantzi'ko enbaxadariarentzat prestatutako txosten batetik artutako itzak dituzu oiek danak. Enbaxadari au, Eric Labonne, protestalaria zan, sinismen bizkorreko gizona, eta, Españi'n kristautasunari laguntzearren, asmorik onenarekin auzi ontan bitarteko izateko beti gerturik egon zana).

Bigarren urratsa, Verdier Kardenalak eman zuan, Tarragó'ren bitartez, Errepublikak Aulki Donearen ikerle bat artuko zuan Irujo'ri galdetuz. Fontenelle bera izan omen zitekean ikerle ori.

1938; Otsailak 10. Gobernuaren izenean Irujo'ren eskutitza Verdier Kardenalarentzat, Aulki Donearen ikerlea onartuz, eta ikerle ori Fontenelle izan zedilla eskatuz. Ikerle orrentzat Errepublikaren "Placet" edo "Baietsia" Leizaola'k eman zion, eskutik eskura, Verdier Kardenalari; Leizaola, orduan, Euskadi'ko Jaurlaritzan Justizi'ko Kontseillari bait zan.

1938; Otsailak 16. Onaindia'ren, Irujo'ren eta Giral'en arteko billera. Giral au, Estadutzako ministroa zan Errepublikaren jaurlaritzan; gizon burgesitar baretsua. Berak eman zion Onaindia'ri Errepublikak Aulki Donearen ikerlea atsegin aundienarekin artuko zuala, Verdier Kardenalari itzez-itzez esateko agindua.

Ikerle arek, gaiñera diplomazilarien eskubide guztiak izango omen zituan Errepublikaren aldetik, eta nun bizia ere Errepublikak emango omen zion.

Onaindia Jaunari, Españi'n zegoan bitartean atzerrira idatzi aal izateko, Diplomazilarien idazki-zorroa eskeiñi zion Giral'ek, --egun batzuk leenago Frantzi'ko enbaxadaria ere egin zion eskeintza bera--, baiña Españi gudan zegoalako Giral'en eskeintzak Babeskundeko Ministroaren onetsia bear zuala-ta, Prieto'ri onetsi ori Giral'ek eskatu zionean, "dele Vd. valija secreta y yo le daré escolta si la necesita", erantzun omen zuan onek. Bigarren eskutitz batean, Irujo'k jakifiarazi zizkion Verdier kardenalari Errepublikaren asmo on auek. Leizaola'k eman zion osteria idazki au eskura Kardenalari.

1938; Epailak 25. Paris'en Onaindia ta Leizaola, Verdier'ekin izketan. Kardenalak, Irujo'ren bi eskutitzak Erroma'ra bidali zituala dasaie, eta Fontenelle Paris'era erakarriko zuala, Jaun onek Onaindia'rekin itzezin zezan.

1938; Jorrailak 6 eta 7. Onaindia'ren eta Fontenelle'ren izketaldia. Onaindia'k txosten bat damaio Aulki Donerako. Fontenelle'k, Erroma'ra itzuli

bezain laister txosten ori Pacelli berberari emango diola dio. "Me informó (Fontenelle) que obraba en poder del Cardenal Verdier una carta escrita por él mismo por encargo del Cardenal Secretario de Estado, en la que se decía que el Vaticano había acogido con toda simpatía la actitud e iniciativa del gobierno de la República de conceder el Placet a Mons. Fontanelle, y que la Santa Sede esperaba el momento oportuno para tomar una decisión" (Onaindia).

"Une egoki" ori ez zan iritxi. "En adelante hubo un silencio total. Los acontecimientos bélicos de los frentes de guerra no eran los más favorables para iniciar el diálogo más o menos diplomático entre la Santa Sede y el gobierno de la República". "No faltó la buena voluntad de parte de los protagonistas. Pocas gentes hubieran sospechado en aquel momento que, secretamente y de un modo nada oficial pero sí real y auténtico, se preparaba el terreno para una reconciliación" (Onaindia).

¿Pocas gentes? Bai, baiña baziran ala ere, Aulki Doneak Errepublikarekin zerbait ari zalaren susmurrua izan zuten bñ frankotarrak! Eta aien asarrea gozatzeko zerbait idatzi bearrean aurkitu zan Gomá, 1938'ko ilbeltzaren 28'an, "Pio XI es nuestro, está con nosotros" esanaz. "En esa pastoral modera las impacencias de quienes querrian una intervención más directa de la Santa Sede a favor de Franco y arremete contra quienes se declaran católicos, sí; vaticanistas, no " (La Cierva).

"Pio XI'a gurea da; gurekin dago"! Ez zuan asko ezagutzen Pio XI'aren oldozkera Franko'ren Kardenal borrokalariak. Barkatu dezaiokegu oraingoan beintzat, seguruaski "katolikoak bai baiña batikandarrak ez" frankotarrei entzutean, zisma bat Españi'n sortu zitekealako bildur bait zan.



Errepublika eta Aulki Donearen arteko diplomaziari-buruzko auzietan ez-ezê, ibilli ziran elizgizon ospetsu batzuk beste arazo batean sarturik; "gorrien" eta "zurien" artean nola pakea egin ote zitekeanari-buruzko arazoan.

Vidal y Barraquer Tarragona'ko Kardenala izan zan ariketa ontan onuragarriena. "Con un arreglo caritativo y justo se puede conseguir mucho más que con la victoria completa por las armas que deja a los espíritus agriados, humillados y poco dispuestos al perdón y al olvido", idatzi zuan. Franko'k ordea, pakea ez baiña garaitza betea nai zuan eta etsaien desegitea, orrela iñoren eragozpenik gabe Españi'ren Nagusi bakar izatera iritxi aal zedin. Gurenda osoa nai zuten, beren buruzagiarekin batera, Españi'ko gotzaiek ere, eta danen izenean mintzatu zan Gomá, Budapest'eko Nazioarte-Eukaristi-Batzarrean, 1938'ko loreillaren 28'an: "Es preciso que acabe pronto la guerra. No hace mucho pregunté yo al

generalísimo: "¿tendremos guerra para todo el año?" Y el generalísimo me contestó categóricamente: "No". Que venga la paz, pero a punta de espada. No mediante compromisos o reconciliaciones, que nos dejarían igual que antes. No queremos una pacificación que no sea impuesta por nuestras armas". "Gure izkilluak"!; ikaragarritzko itza; Eliza gudalari biurtzen duana.

Gomá'k an txatxukeri asko esan ba'zuan ere, ez zitzaion atzean gelditu Vilariño iñakitarra:"

- "El ejército de Franco es el más católico de cuantos ha habido. Es verdad que ha habido algunos defectillos , pero esto es accidental: El conjunto es admirable empezando por el generalísimo". Millaka eta millaka egindako fusillaketak, "algunos defectillos" eta "algo accidental" besterik ez dira, alajaña, idazle iñakitar ezagunarentzat.

- "Donde entra ese ejército luego hay paz, tranquilidad y orden. En Bilbao, por ejemplo, a poco de ser liberado, teníamos de todo: pan, tranquilidad, orden, religión y moral".

Ez zan uste ortakoa bilbotarren eta Vilariño iñakitarraren Gotzaia: Mateo Mujika: "He de declarar consciente de lo que digo que para los seglares nacionalistas vascos ha sonado el "Vae Victis" y no hay piedad de ninguna clase para ellos. Hablan los carlistas-requetés y dicen: "preferimos matar a un nacionalista que a veinte rusos-comunistas". Funcionan los tribunales de guerra. Ya se sabe la sentencia; si los reos o los supuestos reos están tildados por ellos de nacionalistas: el fusilamiento. Siguen a estos males capitales las más tremendas confiscaciones, dejando en la ruina y miseria a familias enteras. Los periódicos tradicionalistas como "La Voz de España", antigua "La Constancia", fomentan estas campañas en Guipuzcoa, y horrorizadas las gentes huyen de los pueblos en masa a Francia, o a donde puedan. No hay otro léxico que matar", idatzi zion Mujika'k Aulki Doneari.

- "Hay católicos que dudan colocarse al lado del ejército salvador, zion Vilariño'k Budapest'en. Hay que ir a donde van los católicos! Los que están vacilantes es que son católicos tibios, no son verdaderos católicos". Dirudianez, Aita Vilariño'rentzat, Pio XI bera, "katoliko epela" besterik ez zan.

- "El ejército de Franco es también el más valiente. Un oficial alemán me dijo hace poco que el soldado más valiente, el número 1, es la infantería de Franco; y el número 2, la infantería roja. Porque ¡hay que ver cómo los rojos luchan y resisten! Es que también ellos, aunque rojos son españoles". Eta azkenean, españiar gosetien betiko arrokeria:

- "España es, en su conjunto, la nación más grande del mundo, al menos entre las naciones que yo conozco". Ez zuan noski Vilariño'k mundu askorik ezagutzen, naiz iñakitarrak, --eta baita Vilariño ere segurauski--, asko ibilliak izan. Orrelako goratarreak gaiñera atzeritar baten itzetan egon oi dira obeto.

Bi apaiz benezolatarren iritziz zuzenez, Eukaristi-Batzar artan Españi'ko katolikoek "se olvidaron de la Eucaristía para hablar sólo de España, de la guerra civil y del generalísimo Franco. Ni se les ocurrió enviar un telegrama de salutación al Papa, sino al generalísimo" (Iturralde).

Asko asarretu zan Vidal y Barraquer Kardenala ere Ona zer idazten zion Aulki Doneari: "Apena el ánimo ver cómo se proclama que no se puede pensar en la cristiana reconciliación de los hermanos y que sólo por la guerra se puede poner fin a la guerra". "No ya los generales y políticos sino caracterizados eclesiásticos proclaman públicamente no existir otra pacificación posible que la pacificación por las armas, asumiendo la responsabilidad gravísima de trocar el papel de gran mártir y la misión pacificadora que tanto le cuadra a la Iglesia, por el de beligerante, con todas las lamentables represalias del momento y las tristes consecuencias que de ello puedan derivarse para el futuro".

Gogapen ederra "Elizak, borrokalaria ez baiño, martiri eta pake-egille" izan bear duala oroitzen digun ori. Ez da, berez, Kardenalarena, "L'Osservatore Romano"rena baizik. Sei illabete leenago esan zuan onek, 1937'ko urrillaren 21'an; "Ez da iñolaz ere egia, gaur askok uste dutena: Españi'ko guduan argi ta garbi, --"simplemente"--, bi sail ari dirala: "Gorriak" eta "Nazionalak"; eta azkeneko auek, "nazionalak", Batikano'aren laguntza berekin dutela. Eliza ez da politikazko sail batekoa; ezta soziologizko sail batekoa ere. Ez da borrokalaria; martiri da".

Gudaren amaitza pakearen bidez lortzerik ez zegoan ezker, 1938'ko eguberrietan borrokaren ateraldi bat beintzat lortu nai izan zuan Vidal y Barraquer onuragarriak. Asmo orrekin idatzi zion Pio XI'ari: ¿"No podría ser ello el primer paso de una reconciliación fraterna que pusiera fin a la tragedia"?, zion bere eskutitzean, beti ere pakean pentsatzen.

Bere-egin zuan Aitasantuak Kardenalaren asmoa, eta berala agindu zion Cicognani nuntzioari lanean asteko, borroketaren geldiene ura lortzearen alde.

Ezetz erantzun zuan Franko'k, eta abenduaren 23'an eraso zion, indar guztiekin, Katalauni'ari.

Españi'ko gotzaidiaren partetik ez zan pake-oroitzarik iñoiz ere sortu. Gudazalekeriak naasirik zeukan Españi'ko Eliza. Ez dakit nork, baiña garai artako elizgizon ospetsu batek, --Verdier'ek?--, esana da: ¡"Españi'ko Eliza; Eliz osoaren lotsa"! Itz gogorak? Itxon!; gogorrakoak bait dituzu oraindik auek:

Zaarra zan ordurako Pio XI'a. Eta zenbat eta zaarrago ainbat eta kezka geiagorekin begiraten zion Franko'ren jokabide fatxistari. Pio XI'aren adiskide zan, oso adiskide, "La Croix" izparringiaren zuzendaria: Aita Merklem asuntziotarra, txit idazle yayoa eta arras ezaguna. Maiz joan oi zan Erroma'ra, Aitasantu adiskidearen ezpaiñetatik izparringi-langintzarako aolku, zuzenbide eta aginduak jasotzera.

Ikustaldi oietako batean, Europa'ko politika-giroaz ari ziralarik, itz auek esan omen zizkion Pio XI'ak: "En Europa hay tres hombres de la mentira: Hitler, Mussolini y Franco. Y este último va a llevar a su país a la ruina, y en nombre de la religión. Ahí tiene Vd. una pista para sus actividades" (Onaindia). "No me cabe la menor duda de que es verdad, (esan omen zion Mujika gotzaiak Onaindia'ri, onek ori jakifharazi zionean). Pio XI fue efectivamente muy grande, y grande fue también el insigne director de "La Croix", aunque estos señores (frankotarrek) y esta prensa le trataron despiadadamente" (Mateo Mujika'ren itzak).



On Mateo Mujika gotzaiaren eskutik sartu gaitezen, orain Euskalerriko arazo mingarriaren muiñera.

Eusko abertzaleak izan ziran 1936'ean Gotzaiak leendik agindurik zeukatena leialki bete zuten kristau bakarrak; Errepublika legezko eta egiazko gobernutzat artzea, eta politika-eraz aldatzeko indarkeririk ez ibiltzea, zeukaten bâ gotzaiak agindua, ikusi dugun bezala, Gotzaidi guztiaren bi Pastoralen bitartez 1931'ean eta 1933'an.

Orixe zan Elizaren agindua Franko'ren indarrak gudarako jeiki ziran unean. Bâ... eusko abertzaleak bakarrik bete zuten orduan gotzaien agindu ori. Ala ere agindua bete ez zuten eskubitar fatxista eta erdi-fatxista guztiak, "santu" izan ziran goretsiak Españi'ko Elizaren partetik, eta agindua bete zuten eusko abertzaleak, kristautasunaren etsai lez gaitzetsiak; eta aien jokaera, debekatua! "Non Licet"; "ez zaizue zillegi" militarren aurka, Errepublikaren alde borrokan jarraitzea. Ori... ¿zergaitik?

A)- Españi'ko gotzaidiarentzat, Elizak Martiri ez baiño borrokalaria izan bear zualako; edo beintzat, al ba'zuan, Martiri izan aurretik, Borrokalaria. Ez beintzat, azkeneko arnasa arte borrokan ari gabe jausil! "Morir luchando por la Fe" izan da, arabitarrek "Guda Santuaren" gogoeta ekarri zuten ezker, españiar katoliko zintzoenen guraria; eta "la espada de España al servicio de la Cruz de Cristo" duzu aientzat, Españi'ren edesti osoaren mamia.

Izugarri sartua zegoan gaiñera Maurras'en pentsaera Españi'ko katolikoen artean.

Jende askorentzat Maurras zan orduan Elizak zuan katolikorik zintzoena, naiz aren erakuskizunetatik auts-ttantta batzuk kendu bearrak izan. Maurras, Erregezale izan genduan; erregezale utsa, Bakalduntzaren gurtzaillea, Erkalaren arerio portitza; portitzena, orokorrena; Erkalaren izamena bera, ots, izateko arrazoia eta izateko posibilitatea ere ukatzen zituana; arentzat Erkala "Gobernurik-Eza" bait zan. Gaiñera, Maurras, politikagintzan Indarra erabiltzearen aldekoa zan.

Ala ziran Españi'ko gotzaiak ere: Errege zaleak, Erkalaren etsaiak, gudaren maitaleak: ¡"Hijos de Conquistadores"!

B)- Guda asia zegoan eta gudaren asierak leenago politikari-buruz agindutako eta egindako guztia aldatzen zuan; guda ura galtzen ba'zan istillu gorriak bait zeuden Españi'n Elizarentzat. Naitanaiezkoa zan guda irabaztea. Ez zitzaien beraz Eusko Abertzaleei militarren aurka guda jarraitzea zillégi: ¡Non Licet!

Eliza ondamen orotik babestea bearturik zeudela uste izan zuten gotzaiek. Bearrezkoa zan beraz, bein militarrek jeiki ziran ezkerero, guda ura irabaztea. Ez gotzaiek, ez katolikoek, ez zuten Españi'n martiri izateko yoran aundiegirik. ¡Ezarri dezagun ezpataren bidez Kristo'ren legea!

Ala ere "non licet" oiur egin zuten bi gotzai aiek, Iruña'koak eta Gasteiz'koak, ez dirudi oiuketa artan oso gustora ibilli ziranik, ezta oso iare eta beren buruen jabe ere.

Bai; badakigu, gero, Gasteiz'koak Bitor Tarragó'k, "Victor Montserrat" izenarekin, idatzitako liburu bati erantzuteko, apaiz jaun oni eta Alberto Onaindia'ri idatzi zizkien bi eskutitz zakarretan, iare eta bere buruaren jabetasun osoan ibilli zala, bein eta berriro esaten duala, baiña Gasteiz'ko gotzaiak gauza bat esango du beti agirian Gotzai bezala, eta beste bat ixillean Mateo Mujika bezala. Ikusiko dugu On Mateo'ren jokaera bikoitz ori.

Asteko, "Non Licet" ura "Instrucción Pastoral" izeneko idazki batean agertu zan 1936'ko dagonillaren 6'ean. Iruña'ko Martzelino Olaetxea'k eta Gasteiz'ko Mateo Mujika'k izenpetua zetorren, baiña ez zan bi gotzai aiek idatzia. Gomá'k idatzi zuan eta Gomá'k eskatu zien bi gotzaiei idatzi ez zuten eskutitz aren izenpetzea. Idazki ura ez zan iñolaz ere Olaetxea'ren gustokoa. Bai Mujika'rena, au osoro erregezalea, eta, agian oartzeke, aski murrastarra bait zan, eta Españi'ren batasunaren maitale sutsua gaiñera.

Ala ere, biak ezarri zizkioten, izenpetu-aurretik, idazki ari beren ingeratxoak, eragozpentxo txikiak.

Ara nola kontatzen duan Olaetxea'k bere eragozpenen edestia: "Estando él, Olaetxea, en el Santuario de Roncesvalles se le presentaron en un coche los canónigos señores don Federico Santander, vicario general, y don Alejo Eleta trayéndole para la firma una carta pastoral que la leyó y la encontró muy dura. De su propia mano corrigió y añadió el texto presentado, y después, se vió sorprendido al leerla impresa sin las correcciones y adiciones que él había hecho" (Olaetxea berak adiskide bati esandako itzak dira). (Iturralde).

Pastoral ura, Olaetxea'k "aldatu eta erantsi" zionarik gabe argitaratu ba'zan eta orrela argitaratutako Pastoral irakurtzean Olaetxea berbera "arriturik" gelditu ba'zan, ¿esan al daiteke Pastoral doakabe aren eginkizunean Olaetxea iare ibilli zanik?

Mujika'k, Pastoral argitaratu aurretik Eusko Abertzaleen buruzagiekin itzegin aal izatea eskatu zuan. "Entre obispo (Mateo Mujika) y vicario general (Jaime Berastegi), examinaron el asunto, hablaron con los militares y

convinieron en que antes de publicar aquello, convenía ponerse al habla con los dirigentes nacionalistas de Vizcaya y de Guipúzcoa por conducto de un agente seguro, tanto más cuanto que ya el vicario general había hecho presente al cardenal (Gomá) que publicarlo sin conocimiento de ellos podría resultar contraproducente, pues a lo mejor no cuadraría con los hechos" (Iturralde).

Mujika gotzaiak eta Berastegi ordezkariak ipintzen zuten baldintza ori bete gabe argitaratu zuan norbaitek Pastoralara.

"¿Quién ha tenido interés en apresurar la publicación contra todo lo convenido? No lo sé, pero desde luego aquí (Gasteiz'ko gotzaitegian) no ha sido, y me ha parecido una informalidad y una ligereza, pues si luego resulta que las referencias que Vd. tiene son exactas, (ala gertatu zan), el documento carecerá de base y habremos metido la pata hasta el corvejón. Todo me hace creer que la maniobra se ha hecho en Pamplona --Gomá'k?, militarrek?, militarrek eta Gomá'k?--, y la víctima, (Mújika), será el único que no tiene en ella arte ni parte", idatzi zion dagonillaren 6'ean, Pastoralara argitaratu zan egunean bertan, Jaime Berastegi bikario orokorrak Landaburu'tar Xabier, Gasteitz'en izkutaturik zegoan Araba'ko diputadu abertzaleari.

¿Esan al daiteke Pastoralaren argitaratzean Mujika iare ibilli zanik? Are geiago: Pastoralaren argitaratzea Mujika'k egiña izan zanik ¿esan al daiteke?

Bi gotzaiak baiño moralista obea eta adimen zorrotzagoko gizona agertu zan diputadu abertzalea, Landaburu, geroago, Gasteiz'tik era miresgarrian iges-eginda, Euskadi'ko Jaurlaritzan, politikolari kristauen eredu izan zitzaiguna.

Gaiñera, Iruña'ko eta Gasteiz'ko gotzaiak, Gomá Kardenal bildurgarriaren gaindik beste zerbait bazegoala aztu zitzaien: Aulki Donea.

Eta Aulki Donera jo zuan ain zuzen, Onaindia kanonigoaren bitartez, Euskadi'ko Jaurlaritzak, Elizaren Epaitegi Guren artan eusko-abertzaleek gudan zerabilkiten jokaera zuzena zan edo ez galdetzeko. "Habremos metido la pata hasta el corvejón" usmatzen zuan Berastegi bikario orokor azkarrak. Eta arrazoi eman zion Erroma'k.

Bi illabete geroago, auzia bost egun luzeetan ondo aztertu eta jorratu ondorean, "moralmente no hay nada que reprochar" erantzun bait zion Aulki Doneak Euskadi'ko Jaurlaritzaren ordezkariari.

Erantzun ori Pizzardo berak emana izan zan: "Mons. Pizzardo me preguntó si había hablado con Mons. Coffano y al decirle que sí me añadió: "Pues ya lo sabe Vd. todo"!

Pacelli Ameriketara zegoalako, Pizzardo zan orduan Estadutzako Idazkaritzaren Buru. Coffano jaun ori, berriz, teologilari bat dugu, Pizzardo'ren adiskide aundia zalako aren aginduz eusko-auzi latzaren azterketa bere eskuetan artu zuana, eta "Nihil Obstat" ura eman zuana.

Biak zeuden ordurako Franco'ren propagandak irabaziak, batez ere Coffano, eta biak ziran, --Coffano ta Pizzardo--, eusko-abertzaleen adiskide kaxkarrak, irakurria bait zeukaten ordurako Gomá Kardenalak euskotarren aurka Aulki Donera bidalitako txosten doakabea.

Ez zan arritzekoa bi gizon aien kezka, izugarriak esaten bait zituan txosten artan Toledo'ko Kardenal luma-arñiak. On Mateo Mujika'k berak idatzi bear izan zuan gero Aulki Donera, Gomá'ren ustelkeri guztiak garbituta gauzak beren egitasunean ipintzeko.

Baiña Mujika'ren idazki au 1939'koa da; Gomá'rena 1936'ko jorraitlekooa; guda asi aurrekoal lku Txosten aren puntturik nabarmenenak:

- Abertzaleak Kristautasunaren eta Españi'ren etsaiak dira: "El separatismo ha logrado caracteres alarmantes que se han traducido no solo en manifestaciones antiespañolistas sino en alianzas vergonzosas con revolucionarios de toda laya, descreídos, enemigos de la religión y de la patria". (Ori..., jorraitlean idatzial!).

- Abertzaleak endazaleak dira: "Parece difícil excusar al partido nacionalista vasco de las reprobaciones formuladas por la Santa Sede contra los nacionalismos exacerbados. Propende a constituir el nacionalismo en norma de moral y de doctrina, con evidente peligro de los derechos y doctrinas de la iglesia".

- Eusko abertzaleak Elizaren etsaiak dira: "Se acusa al nacionalismo vasco de subordinar su adhesión a la Iglesia al apoyo que la Iglesia le preste; pero sin renunciar al cisma si la Iglesia no se convierte en servidora de sus intereses".

- Abertzaleak demagogi-zaleak dira: "Se acusa al nacionalismo de predicaciones sociales demagógicas encaminadas a soliviantar a los habitantes de caseríos contra los pertenecientes a otros partidos políticos. El hecho aparece general y frecuente".

- Abertzaleak erlijioa ta politika nastearen zale dira: "La mezcla de nacionalismo con la religión ha sido y es causa de división y de escándalo. Es contrario a las normas de la Santa Sede el mezclar la religión con la política, y más contrario aún el hacer servir la religión a la política".

- Mateo Mujika, Gasteiz'ko Gotzaiaren jokaera, okerra izan omen zan auteskundeetan, politika aparte utzita diputadu abertzaleen alde autarkia ematea, erlijioaren aldetik zillegi zala esan zualako: "Esta distinción entre religión y política en este caso es una sutileza escolástica. Con ella queda coonestado el separatismo con todos sus excesos, con todas sus violencias, con todos sus contubernios con los enemigos de España y de la iglesia".

Guda aurretik ori idazten ba'zuan pentsa dezakegu zer esango zuan Gomá'k guda asi ondorean, jaso bait zuten, dirudianez, aren txosten berri bat Aulki Donean, Onaindia Erroma'ra joan baiño leenago.



Giro makur ortan eman zuten beren erantzuna Coffano'k eta Pizzardo'k; ez noski beren gustora: "Algo notaba yo de pena en la expresión de Mons. Coffano. Eso mismo observé momentos más tarde en el Subsecretario Mons. Pizzardo. Algo que yo desconocía nublaba el ambiente. Posteriormente, en más de una ocasión sentí esa misma sensación. Mi presencia no agradaba a mis interlocutores. En tales ocasiones me venía siempre la idea de que les estorbaba la presencia de un sacerdote de mis condiciones, que se encuentra en disonancia con el clero y la jerarquía eclesiástica de España. Siempre he encontrado corrección pero a veces sin pasar de ahí, sin calor, sin afecto. Con algo de esa frialdad salí aquel día de la Secretaría de Estado. Creo que allí hubieran preferido vernos aliados al general Franco, a sus militares, a sus seguidores políticos y a sus partidarios" (Onaindia).

Baiña frankozalekeriak ez zuan erantzuna emateko, orduan, Aulki Doneko zuzendari nagusien bururik naasi, eta ortan badute merezimendu aundia Coffano'k eta Pizzardo'k. Erroma ez zegoan Eusko-Abertzaleen alde; baiña, ez zegoan aurka ere. Erroma'k ez zuan Euzkadi'ko Jaurlaritzaren jokaerarik gaitzesten; ez zezakeala gaitzetsi ere, zion Erroma'k; moralitatearen aldetik Euzkadi'ko Jaurlaritzaren jokaera ura, zuzena zalarik.

Ez zuan Euzkadi'ko Jaurlaritzak argitasun ori besterik eskatzen. Olaetxea'ren eta Mujika'ren bitartez Gomá Kardenalak ain era baldarrean jaurti zion "Non Licet" "Ez Zaizu Zillegi" aren gaindik, "Zillegi Zaizu" aitortzen zion orain zalantzarik gabe Aulki Doneak.

Aitorketa ori bakar-bakarrik eskatu zion Euzkadi'k Erroma'ri. Ez zion bere politikaren alde jartzerik eskatu. Itxura ontako eskaerak, danak, frankotarrek egiñak izan ziran.

Une artan oraindik Aulki Donea frankotarra ba'zan, joan zan, ala ere, poliki-poliki, --Aulki Donea--, pentsaeraz aldatzen. Oroi ditzagun aldakuntza ori egiñarazi zioten gizonen izenak: Onaindia, aurrena; Verdier, eta Vidal y Barraquer Kardenalak gero; eta baita, agian, Segura ere; Mathieu Dax'eko gotzaia; eta guztion gaindik, Mujika, Gasteiz'ko gotzaia.

Aundia izan zan, berak uste ez zuala, Mujika'ren itzala Aulki Donean. "El Obispo de Vitoria es uno de los causantes de nuestra confusión actual" esan omen zion Pizzardo'k Onaindia'ri aipatu berria dugun ikustaldi artan.

Ori gudaren asieran bertan zan; 1936'aren urrillean. Geroago, Mujika erbestetik Aulki Donera txostenak bidaltzen asi zanean, bera izan zan an, begirunerik aundienarekin entzundako albiste-emaillea.

1938'garren urtean Pio XI'ak Aita Merkle'm'i, ea Mateo Mujika ezagutzen zuan galdetu ondorean, onako auxe esan omen zion: "Es un santo varón a quien no le he tratado estos últimos tiempos como él se merecía, debido a las circunstancias en que vivimos. Este Señor Obispo

posee mucha documentación que me ha ido enviando, pero le he rogado que guarde silencio durante diez años". Ori esatean, maiaren gainean zeukan paper-sail bat erakusten omen zion eskuz Aitasantuak.

Pio XI'a il-ondorean ere, Erroma'ra albiste-bialtzen jarraitu zuan On Mateo'k.

Gudaren asieran asko ikusi bear izan zuan gizagaixoak, bai Gazteiz'en frankotarren aldetik, bai Erroma'n Aulki Donearen aldetik.

Biotzez eta adimenez, frankotarra zan bera, eta Eusko-Abertzaleen aurka Olaetxea'rekin Gomá'ren Pastoral izenpetu ondorean, frankotarren alde ari izan zan auek atzerrira bota zuten arte. Erbestean, aurreneko egunetan, frankotar jarraitu zuan oraindik luzaroan. Orregaitik aski frankotarra da erbestetik Aulki Donera bidali zuan lenengo Txostena. Ala ere argi itzegiten du txosten artan frankotarrek Euskalerrian egiten ari ziran erailketa izugarriaz eta gainera zuzengabekerietaz.

Asarre zegoan Mujika militarrek indarrez Berastegi bikario Orokorra kenduarazi eta aren ordeaz, indarra-medio beti, Antonio Perez Ormazabal ipiñiarazi ziotelako. Asarre, militarrek Elizaren auzietan atzaparrak lotsarik gabe sartzen zituztelako. Asarre, militarren alde egin zuan guztia auek ostiko batekin ordaindu ziotelako. "No creo equivocarme al decir sin orgullo, pero con firmeza, que ningún otro obispo de España ha dicho, ha hecho, o ha dado tantas cosas como yo en favor del ejército y de sus auxiliares, los carlistas-requetés, falangistas, etc."

Frankotarrek bezain gogor ibilli zuten gizagaixoa Erroma'ko kuriatarrek; naiz Erroma'n egon, berari ezer esateke kendu bait zioten Gasteiz'ko elizbarrutia.

"L'Osservatore Romano" izparringian irakurri zuan, Aulki Doneak Gasteiz'erako Apostolutza-Bikario bat izendatu zuala gotzaiaren lekuan, eta gotzaiaren eskubide osoarekin, elizbarrutia jaurtzeko, gobernatzeko. Bikario ori Lauzurika'tar Xabier izan zan, Balentzi'ko gotzai laguntzaillea ordurarte, guda lertu zanean eusko abertzaleek Bizkai'n anarkisten eskuetatik salbatua.

Ez zitekean une artan gizon makurragorik lur ontara etorri, gorputz eta animaz frankotarrei emana bait zegoan. "Cuenta Vd., con un general más" esanaz egin omen zion Franko'ri bere buruaren eskeintza Loiola'n Iñaki Deunaren pesta-egun batean, an zegoan apaiz batek dionez.

Iñork maitatu gabe joan zan lurralde auetatik omen abertzaletasunaren etsai orokorra izan ondorean.

Bera españizalea eta frankotarra zalako jokatu zuan ala, baiña baita Franko'ri laguntzean Elizaren onturrearen alde ari zala uste zualako ere. Neronek entzun nion Gasteiz'ko apaizgaitegian: "La Iglesia tiene que ser oportunista".

Baiña oportunitatez baliatze ortan neurri guztietatik pasa zan

Lauzurika. Ez zion iñork ganorabakeri ori aurpegira Segura Kardenalak bezain zorrozki bota.

Sebilla'n zegoan Segura Goigotzai. Sebilla'ko elizbarrutian dago Karmona'ko espetxe ezaguna; eta espetxe artan zeuden baiturik eusko apaiz jaun batzuk, Segura Kardenalaren partetik arreta aundiz eta adiskidetasun osoz tratatuak.

Gauzak ola, Lauzurika Sebilla'ko gotzaitegian agertu zan, Jerez'ko adiskide batzuen alabatxoa bataiatu bear zuala-ta. "Sí, --esan zion Segura'k-- , le voy a autorizar que haga Vd. ese bautizo, aunque no me es grata su presencia aquí; Vd. tiene un numeroso grupo de sacerdotes en la prisión de Carmona, y nunca ha venido Vd. a verles. Ahora, sin embargo, no ha tenido inconveniente en hacer este viaje solo por bautizar a la hija de unos ricachones de Jerez". Ori, entzun zuan Koldobika Egia apaizak kontatua dut. Apaiz au, urte askoz Andaluzi'n mixiolari ibillia, Kardenalaren adiskide aundia zan.

Beste punttu batean ere merezi du aipamen bereizia Segura Kardenalak.

Pekatu aundia zan orduan españiar izan nai ez izatea; lau eusko-probintziak España ez zirala esatea. Pekatu ori zala-ta, Karmona'n baiturik zeuden eusko-apaizak babesteko esan zuan Segura'k Sebilla'ko parrokoen aurrean: "En ningún versículo de la Biblia está revelado, en ninguna declaración dogmática definido, ni en ningún cánón del Código determinado, el número de provincias de que debe constar el Estado español". (Neri Luis Egia'tarrak kontatua). Bear zan ori esateko, une aietan, kementasun galanta. Eta buru argia, España'ko Elizgizonentzat pekatu bait zan "separatismoa".

On Mateo Mujika'k ere, naiz bera españitasunaren aldeko izan, garbitu zuan azkenean punttu ori, naiz berandu, Euzkadi'ren askatasuna politikazko auzia, eta ez erlijiozkoa zala idatziaz.

Gaur, Jon XXIII'ak "Pakea Lurrean" izeneko Entziklikan erakutsi zigunaren ondorean argi dago erri batek askatasun osorako eskubide guztiak badituala, baiña orduan askok ez zituzten gauzak ain argi ikusten. dado tantas cosas como yo en favor del ejército y de sus auxiliares, los carlistas-requetés, falangistas, etc."

Frankotarrek bezain gogor ibilli zuten gizagaixoa Erroma'ko kuriatarrek; naiz Erroma'n egon, berari ezer esateke kendu bait zioten Gasteiz'ko elizbarrutia.

"L'Osservatore Romano" izparringian irakurri zuan, Aulki Doneak Gasteiz'erako Apostolutza-Bikario bat izendatu zuala gotzaiaren lekuan, eta gotzaien eskubide osoarekin, elizbarrutia jaurtzeko, gobernatzeko. Bikario ori Lauzurika'tar Xabier izan zan, Balentzi'ko gotzai laguntzaillea ordurarte, guda lertu zanean eusko abertzaleek Bizkai'n anarkisten eskuetatik salbatua.

Ez zitekean une artan gizon makurragorik lur ontara etorri, gorputz eta animaz frankotarrei emana bait zegoan. "Cuenta Vd., con un general más" esanaz egin omen zion Franko'ri bere buruaren eskeintza Loiola'n Iñaki Deunaren pesta-egun batean, an zegoan apaiz batek dionez.

Iñork maitatu gabe joan zan lurralde auetatik emen abertzaletasunaren etsai orokorra izan ondorean.

Bera españizalea eta frankotarra zalako jokatu zuan ala, baiña baita Franko'ri laguntzean Elizaren onturrearen alde ari zala uste zualako ere. Neronek entzun nion Gasteiz'ko apaizgaitegian: "La Iglesia tiene que ser oportunista".

Baiña oportunitatez baliatze ortan neurri guztietatik pasa zan Lauzurika. Ez zion iñork ganorabakeri ori aurpegira Segura Kardenalak bezain zorrozki bota.

Sebilla'n zegoan Segura Goigotzai. Sebilla'ko elizbarrutian dago Karmona'ko espetxe ezaguna; eta espetxe artan zeuden baiturik eusko apaiz jaun batzuk, Segura Kardenalaren partetik arreta aundiz eta adiskidetasun osoz tratatuak.

Gauzak ola, Lauzurika Sebilla'ko gotzaitegian agertu zan, Jerez'ko adiskide batzuen alabatxoa bataiatu bear zuala-ta. "Sí, --esan zion Segura'k-, le voy a autorizar que haga Vd. ese bautizo, aunque no me es grata su presencia aquí; Vd. tiene un numeroso grupo de sacerdotes en la prisión de Carmona, y nunca ha venido Vd. a verles. Ahora, sin embargo, no ha tenido inconveniente en hacer este viaje solo por bautizar a la hija de unos ricachones de Jerez". Ori, entzun zuan Koldobika Egia apaizak kontatua dut. Apaiz au, urte askoz Andaluzi'n mixiolari ibillia, Kardenalaren adiskide aundia zan.

Beste puntu batean ere merezi du aipamen bereizia Segura Kardenalak.

Pekatu aundia zan orduan españiar izan nai ez izatea; lau eusko-probintziak Españi ez zirala esatea. Pekatu ori zala-ta, Karmona'n baiturik zeuden eusko-apaizak babesteko esan zuan Segura'k Sebilla'ko parrokoen aurrean: "En ningún versículo de la Biblia está revelado, en ninguna declaración dogmática definido, ni en ningún cánón del Código determinado, el número de provincias de que debe constar el Estado español". (Neri Luis Egia'tarrak kontatua). Bear zan ori esateko, une aietan, kementasun galanta. Eta buru argia, Españi'ko Elizgizonentzat pekatu bait zan "separatismoa".

On Mateo Mujika'k ere, naiz bera españitasunaren aldeko izan, garbitu zuan azkenean puntu ori, naiz berandu, Euzkadi'ren askatasuna politikazko auzia, eta ez erlijiozkoa zala idatziaz.

Gaur, Jon XXIII'ak "Pakea Lurrean" izeneko Entziklikan erakutsi zigunaren ondorean argi dago erri batek askatasun osorako eskubide

guztiak badituala, baiña orduan askok ez zituzten gauzak ain argi ikusten.

Beste puntu bat ere argitaratu zuan Mujika'k betirako, eta bikainki gaiñera.

"Zuen politika aztu eta alkartu zaitezte gurekin, danok batera Jainkoaren alde borroka egin dezagun; eta ori egiten ez ba'duzute, Jainkoaren etsai zerate" esaten zieten eusko abertzaleei Españi'ko eskubitarrek. Orixe berbera, eta arrazoi berdiñarekin, esan zezaieketela eusko abertzaleek ere Españi'ko eskubitarrei, dio On Mateo Mujika'k.

Baiña 1945'a arte ez da asiko gauza auek argitan esaten. Ordurarte bikoitza izanen da bere jokaera: Franko'ren aurkakoa, isillean Aita Santuari eta aren kuriatarrei idazten dienean; Franko'ren aldekoa, jendearen aurrean mintzatzen danean. Zergaitik ote? "Un obispo no puede rectificar", erantzun zion ori galdetzen zion Onaindia kanonigoari. Ortaz gaiñera badakigu Pio XI'ak isilik egoteko eskatu ziola.

Alatagutziz, oso serbitzu aundia egin zien Mujika Gotzaiak egiari eta bere Euskalerruari, Erroma'ra bidaltzen zituan txostenen bidez. Ikusi zuan ori Franko'k berak azkenean, eta aitortu zuan "Mateo Mujika Españi-barruan ez gorde izatea utsegite aundia izan zuala".

Utsegitea..., Franko'ren eta frankotarren kalterako, jakiña.



Amaitu dezagun atal negargarri au azalpen bikoitz bat egiñaz:

- Españi'ko "Gurutzadak" kristau moralitatearen araura, iñondik ere salbapenik ez duala.

- Gurutzadakoan gurutzatuek egindako odolkeriak eta sarraskiak, gizakumeak ez ezê abereak ere lotsarazteko aiñakoak badirala, ez bait ziran, "gorrienak" lez, legegabeko jende biurri anarkizaleek egiñak izan, agintariek aginduta edo agintarien onespenearekin egiñak baizik.

¿Zergaitik orduan katolikoak mundu guztian, eta, --sentimenez beintzat--, Erroma'n XI Pio Aitasantuaz landa Aulki Donea bera, Franko'ren alde ipiñi ziran?

Españi'ko Elizaren etorkizunak kezkatzen zitualako.

Moralista katolikoaren arrazoiketeta (Españi'ko gudari-buruz) ez zan gudaren "zergaitietatik" asten, gudaren "ondorioetatik" baizik. Ez zioten moralistek beren buruari, "militarrek gudu au zergaitik asi ote dute", galdetu. Españi "gorrian" anarkistek eta gaiñerako lege-gabeek zeragiten apaiz-eraillketak, jauretxe-erreketak, eta kristautasunaren aztarna ororen ezerezketak, ez zieten galdera ori egiteko astirik ematen.

Orregaitik, beste galdera au izan zan moralista katolikoaren arrazoiketaren asiera: "militarrek guda galtzen ba'dute, ¿zer gertatuko zaio Españi'ko Elizari? Eta naitanaiez, Españi "gorrian" gertatzen ari zana ikusita,

oso "gorria" eta beltza, ikusi bear zuten moralista aiek Españi'ko Elizaren etorkizuna. ¿Españi aipatzean, nola ez Errusi'n pentsatu?

Ezagutu ditut nik, asko gaiñera, Españi'ko gurutzada zuzentasun ororen aurka asi zala pentsatuta ere, bein guda asi ezker, katolikoek guda oker-jaio aren alde ipiñi bear zituztela burua eta biotza sinisten zutenak, militarrek guda galtzen ba'zuten Españi'n Eliza desegiña izango zala uste zutelako. Jaungoikoak bakarrik daki zenbat sufritu zuten kristau zintzo aiek; Aitzol batek, adibidez. Bera ere uste ontakoa bait zan! edo, beintzat, berak ere kezka ori izan bait zuan. Ail, Aulki Donea eta Errepublika alkarrekin pake gozoan konpondu naiean zebiltzala eta ortarako alkarrizketan asiak zirala jakin balute!

Ontan erru izan zuan Jaurlaritzak, gauzak bear bezala Aulki Donearen aurrean argitzen garaiz saiatu ez zalako. Berandu asi zan Erroma'rekin alkarrizketan.

Egia da ordurarte naiko lan izan zuala gudalekuetan militarrei eusten, eta urietan anarkizale gaizkilleei aurpegi ematen, eta, --bata eta bestea lortu aal izateko--, gudarozte berri bat eratzen, baiña errez izango zitzaion Aulki Doneari asiera-asieratik bere asmo zuzena adieraztea; ain zuzen militarrek bait ziran Errepublikaren lurraldean anarkistak zegizkiten astakeri guztien egiazko errudunak, aiek, --militarrak--, Errepublikaren aurka jeiki ziranean, Errepublika anarkiaren aurrean eta matxino gaizkilleen erdian izkillu-jendearen babesik gabe utzi zuten bâ!!!

Ez ote zuan Aulki Doneak ere errurik izan? Gudaren asieran, zuzenean Errepublikaren Jaurlaritzarekin mintzatzen asteko ez zuan deus egin. Gero, isilperik audienean gorde zituan Errepublikarekin asirik zeuzkan arremanak. Zergaitik? Españi'ko militarrek, Hitler'en eta Mussolini'ren bidetik jainkorik gabeko "nazikeri" betera joan zitezkealaren bildur ote zan?

Errepublika ez zan oartu Aulki Donearen adiskidetasunak politika-arloan eman zezaiokean laguntasunaren balioaz. Ori izan zan, Errepublikaren erru bat.

Bestea, 1931'n Euskalerrriari onek eskatzen zion autonomia ez ematea izan zan.

Euskotarrak Franko'ren aurka irten ez ba'lira, militarrek Errepublika berealaxe menderatuko zutelako, Españi'n ez zala gudarik izango, esan oi dute españiar eskubitarrek. Euskaldunak omen dira, orregaitik, gudaren errudun bakarrak. Edo, beintzat, bai audienetakoak. Ori dio Gomá Kardenalak ere.

Ez dakit uste oiek egiak diran edo ez, baiñan badakit beste onako au egia dala: Errepublikak Euzkadi'ri 1931'n autonomi sendoa eman balio, eta gure lau Probintziak --edo lauetatik iru beintzat-- Eusko-Jaurlaritza baten inguruan egon ba'lira eta 1931 ezker Jaurlaritza orren Lendakari Agirre'ren esanera gure ertzaiña eta gure guda-indarrak egon balira, Mola'k Naparroa'n

"mobimentua" prestatzerik ez zuala izango. Ez zuala beintzat Euskalerrria ain errez menderatuko.

Badakit, irakurle, puntu bat falta zaidala, garrantzi aundikoa, eta azertu bearra duguna: Zergaitik ez zuan Elizak Franko'ren Españi'n egindako sarraski ikaragarririk iñoiz salatu?

- Españi'ko gotzaiak, ez dut uste, problemaz jabetu ziranik ere. ¡Artaraaiñakoa zan aien itxutasuna, aien burugabekerial! Españi "gorri" "deabrukoiean" gertatzen zanak itxuturik zeuzkan. Beren Españi "urdin" "jainkotiarrean" zer gertatzen zan ez zuten ikusten ere.

- Españi'ko Eliza salbatzeko militarrek len-bait-len guda irabaztea zan aientzat bearrezko gauza bakarra! "Len-bait-lentasun" ori geldiarazi zezakean oro, kaltegarri zan; eta orduan salaketak egiten asteak gurendaren azkartasuna geldiarazi zezakean, jedo erabat eragozi...!

- Seguruaski ez zuten orrenbeste pentsatu ere, bene-benetan uste bait dut, problemarik ez zutela ikusi.

Ikusi zuan Olaetxea, Iruña'ko Gotzaiak, problema ori, eta itzegin zuan bein, naiz berandu. Gero, ez zuan txintik ere atera. Zergaitik? Berak jakingo du! Agian, beste gotzaien aurka ez ateratzeagaitik? Aitasantua ixilik egoteak bera ere ixilik egotera beartzen zuala uste izan zualako? Zoritzarreko "el curso posterior de los hechos" arek itxutu zualako?

- Mateo Mujika Gazteiz'koak, izkuntza minkatz gogorrarekin salatu zion Aitasantuari militarrek Euzkadi'n egiten ari ziran odol-ixurketa, batez ere amasei apaiz euskaldunen fusillaketa. ¡Santuak zirala apaiz aiek deadar egingo du aien gotzai Mujika minberatuak! Iñork militarren aurka izkuntza zakarrrik erabili ba'du, Mujika gotzai izan da iñor ori. Baiña isillean beti. ¿Zergaitik agirian ez?

Etsirik zegoan, agirian itzegiten asten ba'zan Aulki Donearen aurrean sinistagarritza oro galduko zuala. "Gorrien aldeko duk ori ere; ¿zer esan bear dik orrek"? pentsatuko zutela, uste zuan, Aulki Doneko kuriatarrek. Agirian, Franko'ren aurka itzegiten ez ba'zuan, --are geiago Franko'ren alderdi ona agirian goiaipatzen ba'zuan--, errezago sinistatuko ziotela Erroma'n an Franko'ren aurka itzegiten zuanean, uste izan zuan bearbada.

Ori beintzat dio berak, eta dion ori ez sinisteko arrazoirik ez dugu, batez ere orduan atzerrian bizi zala, eta, naiz Franko'ren aurka oles egin, Franko'ren zigoretik urruti zegoalako, aren bildur izateko arrazoirik ez zuala, gogoratzen ba'dugu.

- Ta, Aulki Doneak?

Asteko, esan dezagun ez dala Aulki Donearen oitura, Errialde bateko gotzaiak isilik dauden bitartean bera itzegiten astea. Gaiñera, orrelako arazo larrietan, Aulki Doneak ez duala Aitasantuaren baimenarik gabe ezer egiten. Aitasantua da beraz, orrelako arazoetan, Aulki Donea. Ta iritxi gera, onela, misterio onen barne-muiñera:

- Zergaitik ez zan Pio XI'a mintzatu"?

Erantzuten asi baiño leenago galdera bat datorkigu burura: Bai ote zekian Pio XI'ak Españi "katoliko" frankotarrean zer gertatzen ari zan? Gaur bai, dokumentuak argiratzen diran neurrian gero ta obeki dakigu gaur, orduan zer gertatu zan; baiña gertakizun aien aroan bertan, ez zan ain erreza zer gertatzen ari zan argitasun naikoarekin jakin aal izatea. Beti da zaila, guduan murgildurik dagoan Laterri baten altzoan gertatzen dana ziurki ezagutzea.

Ez zegoan, gaiñera, Pio XI'a, guda artan zer gertatzen zan jakiteko erarik egokienean.

Izan ere, ia Españi'ko gotzai guztiek eta atzetik ludiko gotzaidi ia osoak, Franko'ren alde itzegiten zioten. Mujika eta Vidal y Barraquer bakarrik ziran beste modu batera mintzaten zitzaizkionak. Baiña bigarren onen txostenak, arenak--, Mujika'renak-- baiño askozaz biguiñagoak ziran; soilki pakea egiteaz, eta Eliza politikatik at eukitzeaz, atzegiten bait zuten.

Vidal y Barraquer'en txosten auetatik ez zezakean Aulki Doneak Españi "katolikoan" zer pasatzen zan zeatz igarri. Mujika'k, berriz, bere Euskalerriaz bakarrik itzegiten zion eta Euskalerrriaren baitan ere, soilki abertzaleei ematen zitzaien zigorketaz, eta ortaz ere, bear aiñeko txeetasunik gabe, ez bait da erreza, len esan dugun bezala, guda ari dan bitartean guda-pean zer gertatzen dan jakitea.

Ala ere, nere ustez, zalantzarik gabe sinisten zion, ordurako fatxismo ororen etsai zan Pio XI'ak Mujika Gotzaiari. Onen txostenak ez ziran aski, frankotarren Españi osoan gertatzen zana jabetzeko, baiña bai katoliko izeneko Españi artan zerbait, izugarria, gertatzen ari zitekelaren susmoa sortarazteko. ¿Zergaitik ez zuan Pio XI'ak itzezin? ¿Zergaitik ez zuan benetako ikerketa bat egiñarazi?

Nere iritiz, bat bakarra liteke arrazoa: Pio XI'aren ustez, frankotarren jokaera gaitzesteak, ondorio onik bat ere ez, eta ondorio txarrak asko ekarriko zituala.

Pio XI'ak bazekian:

- Hitler eta Mussolini, kosta ala kosta, Franko'ri azkeneraiño laguntzekotan zeudela; beraz,

- Gerta ala gerta, Franko'k irabaziko zuala azkenean guda. (Gutxi ziran orduan Joxeantonio Agirre Lendakariak lez, Españi'ko guduua beste gudu zabalago baten asiera zala, eta azkenean fatxismoak guda galduko zuala, ikusten zutenak).

- Franko eta bere militarrek fatxista-usaiekoak zirala ere bazekian; bazekian baita're, bearbada, Españi'ko gotzai geienak politika-gaietan aski murrastarrak zirala.

Ori dana jakinda, Pio XI'ak, nere ustez, gaitzespen batek ez zuala frankotarrek zeragiten eraiketarik geldituko uste izan zuan, fatxistek arerio



bizkor guztien erailketa bearrezkoa bait dute beren "Era Berria", "Orden Nuevo", sendoki erri zapalduen bizkarren gainean ezartzeko. Are geiago, ezer onik lortu gabe gaitzespen arek, Franko eta bere jarraitzaileak, "católicos sí, vaticanistas no", oiuzegiten frankotar aiek danak, Mussolini'ren fatxismora eta Hitler'en totalismora bultzatuko zituala, Espainiako Eliza'ren altzoan zisma bat, edo erdi-zisma bat sortarazteko arriskuarekin. Izan ote zuan XI Pio'k, Espainiako zisma baten bildurra?

Jende ezkertiarri ez zaio Pio XI'aren isiltasun ori atsegin izango. Nik ere, itzezin bear zuala uste dut. Baiña gauzatxo bat oroitu nai diet ezkertiar oiei: Paul VI'ak laterri komunisten gogorkeriak ofizialki salatu ez izateak mundu guztiko eskubitarrei eman dien amorrazioa.

Paul VI'ak badaki Kuba'n askatasunik ez dala; Kuba'n eta Poloni'n eta Errusi'n eta beste Laterri Komunista guztietan jendea espetxean millaka eta millaka dagoala; ez ditu aztuak Laterri oietan egin diran eta, --Kanboia'n eta Biet-Nam'en adibidez--, egiten diran sarraskiak. Zergaitik ez ditu salatzen?

Salaketa orren bidez onik ezer ez eta gaitzik asko lortuko lukela ikusten dualako; ez, noski, eskubitarrek uste dutenez, Paul VI'a komunista edo komunisten adiskide dalako.

Bá, Paul VI'az eta komunismuaz on-aitortzen duguna bera on-aitortu bear dugu Pio XI'az eta frankismoaz ere. Ez zaigu bata neurri batekin eta bestea beste batekin epaitzerik zillegi.



Espainiako guda doakabeari-buruzko atal au bukatzeko, zillegi bezait, oso gutxi ezaguna dan telegrama bat argira bir-ateratzea; 1985'eko jarraillaren 17'an argitaratu bait zuan aurreneko aldiz, gudatekoan Euzkadi Buru Batzarrekoa izandako Ebaristo Martinez de Iturrate Jaunak.

Dom Mauro Elizalde Estibaliz'ko Abata beneditarraren bidez izan nuan nik telegrama orren berri. Eta, nere eskariari erantzunaz, berri geiagoren billa, adiskide duan Martinez de Iturrate jaunari idatzi zion Dom Mauro'k. Ona, jaun orren erantzuna:

"Mi querido amigo Dom Mauro: Como sé que le interesan nuestras cosas, ya históricas por el tiempo, de la Guerra Civil, y, por si no lo sabe, le diré que la famosa Carta Pastoral conjunta de los Obispos de Vitoria Don Mateo Múgica Urrestarazu y de Pamplona Don Marcelino Olaechea a favor del Alzamiento Nacional del 36, tuvo un final curioso. Ocurrió en Octubre de 1936.

Pues bien, una vez expulsado Don Mateo a Francia, una de las primeras cosas que hizo, fue enviar un telegrama al Partido Nacionalista Vasco, en Gran Vía, 41, de Bilbao, el cual abrió Juanito Ajuriaguerra y nos lo leyó a los que estábamos presentes del E.B.B. (Euzkadi Buru Batzar).

Pedia perdón por lo que había hecho, obligado, y preguntaba si el Partido le perdonaba. Se le contestó afirmativamente. No nos pareció prudente darlo a conocer a la opinión pública".

Eta eskutitz orrekin batera, bertan diona 1945'ean argitaratu zuan Deia izparringiaren orri baten fotokopia bidali zigun. Izparringi orren 1945'eko Jorraillaren 17'ari dagokion alean aurkitu dezake irakurleak idazlan ori. "Don Mateo Mugica" darama izen-buru.

Onako au ere irakurri daiteke idazlantxo ortan:

"Un sucedido a Don Mateo: En aquellos días de la firma del documento hubo un desfile militar presidido por las autoridades. Al pasar la bandera todos saludaron, (estaban en el balcón central del Banco de España en Vitoria), y como el obispo no hizo mención alguna, Queipo de Llano le dijo tuteándole: "Mateo, saluda", y entonces levantó el brazo".

Izenpena: "Evaristo Martínez de Iturrate".

Bai. Majiñabat iseka jaso bear izan zuan On Mateo gaixoak eliz-salbatzailleengandik. Baiñan majiñabat kontzientziko kezka eta samintasun sortu zuan berak ere, bere elizbarrutiko kristau abertzaleen artean!

Ona, gertakizuntto bat, adigarri lez:

Gipuzkoa'ko erri aundi batean, dagonillez sartu ziran militarrek. Bereala, bi apaizgai gazte, --illa da bat, bizi da oraindik bestea--, Ernio-Mendia-zear abertzaleen aldera igarotzeko prestaketak egiten asi ziran, beren errian ikusten zutenez nazkatuta. Jakin zuten Don Mateo'ren pastoralaren berri. Txunditurik, apaiz abertzale batengana joan ziran argi-billa, laister militarrek zigortua izanen zan apaiz bikain batengana. Eta apaiz arek, negarrez, "ezin zaitezteke joan", erantzun zien-. "Argi esaten digute bi gotzaiek" "Non Licet". "Ez da zillegi"!

Bi gazte aiek, --iñork ez daki nolako samintasun aundiz--, jmakurtu zuten burua gotzaien esanera! eta beren asmoa bete gabe gelditu ziran, biotz-barrengo sentimenturik maiteenak zapalduz. Bi gazte aientzat eta Apaiz bikain arentzat, Aberriaren deiaren gaindik bait zegoan Elizaren deial Oroi pastoral arek, diotenez, Aitzon berari sortu zion hezka, laister Aulki Doneak Onaindia'tar Alberta'ren bitartez, "moralitatearen aldetik eragozpeniz ez duzute esanaz, auzia erabat argitu zuan arte.

Idatzi ba'zuan idatzi, pastoral ura, laister damutu zan, dakusazunez, On Mateo.

Dagonillaren 6'ekoa da Mujika'ren eta Olaetxea'ren Pastoral. Bi illabete geroagokoa Euzkadi Buru Batzarrari On Mateo'k bidalitako telegrama.

Zergaitik ez zuan On Mateo'k telegrama ura argitaratu?

- ¿Garai artako gotzaiek, beren gotzaigoaren izen ona gordetzea beste gauza guztiak baiño garrantzi geiagokoa zala uste zutelako? Oroi Don Mateo'k berak Onaindia'tar Alberto'ri erantzuna: "Un obispo no puede rectificar".

- Franko'ren aurka agirian jartzen ba'zan, Erroma'k bere txostenei bear bezalako garrantzirik emango ez ziela uste zualako?

Eta..., ¿Euzkadi Buru Batzarrak?

- ¿Batzarkideek ere On Mateo'k Erroma'n egin zezakean lan ori ikusten zutelako?

Ez dirudi.

- ¿Telegrama ura argitaratzen ba'zuten, Españi'ko gotzaiek izugarrizko zalapartak sortuko zituztela militarren alde, eta Euskadi len baiño egoera okerragoan gelditu zitekeala usmatzen zutelako?

Baleike.

- Soilki, ¿On Mateo'ri samintasun geiago ez sortarazteagaitik?

Ori, ontasun eta biotz-beratasun aundiegia izango litzake. Politikolari batzuei zillegi ez zaien biotz-beratasun geiegizkoal

## XI PIO MIXIOLARI. SORTALDEKO ELIZAK.

Bi Guda Aundien artean Europa'n bertan zegoan, zalantzarik gabe, mixio-alorrik gaitzena eta mingarriena Elizarentzat: erabat kristautasunetik-at zegoan langilledia.

Langilleentzat idatzi zuan Leon XIII'ak "Rerum Novarum" entziklika, baiña Entziklika arek ez zuan Elizarentzat langilledirik birrirabazi. Berrogei urteen luzaroan, zabaltzen eta zabaltzen joan zan sozialismo marxitarra. Naitanaiezko zabalketa, "Rerum Novarum" entziklika kapitalismoaren ankerkeriaren oiturak eta ibillerak eragozteko gai izan ez zan ezkerero.

Elizaren auzia ez bait zan sozialismoa, kapitalismoa baizik. Kapitalismoaren nagusitasuna bear zan makurtu, sozialismoa geldiarazi nai ba'zan. Aurreneko puntu ura lortzeke ez zan bigarren puntu au lortuko. Alperrikakoa zan sozialismoari zuzenean aurpegi ematea.

Orregaitik Pio XI'aren "Quadragesimo Anno" entziklikak berrogei urte leenagoko "Rerum Novarum" arek baiño izkera gogorragoa darabilki kapitalismoaren okerrak gaitzesteko eta langilleen eskubideak babesteko.

1931'koa da Pio XI'aren entziklika au. Ordurako, denboratik kanpora zegoan, bai noski, Aitasantuak idazki ontan onetsi gura zuan "Korporatibismoa": La Tour du Pin'ek ain maite izan zuan eta gero Mussolini'k, Hitler'ek, Salazar'ek, Franko'k eta beste fatxista guztiek sagaratu zuten "Korporatibitza"; baiña ala ere aitortu bear da Aitasantuaren korporatibitza au ez dala aiena bezala "goitik beera" Laterriak indarrez eta bere serbitzura ezarria; beetik gora iareki laneko jendeak eraturia baizik, zuzentasun bakarraren serbitzura jarria, eta langillediaren sindikatoak ezerezten ez dituana.

Ez zuan, adibidez, Españi'ko "Sindikatu Bertikalarèn" antzik. Ala're "Korporazio" itz orrek atsegin gutxi egiten zien ordurako, gizartiztilari katoliko aurreratuei; Belxika'koei edo Olanda'koei adibidez.

Pio XI'ak ez du kapitalismoaren geiegikeria bakarrik gaitzesten. Kapitalismoa bera ere, ots, kapitalismo liberalkoia, gizarterako erakunde bezala gaitzetsirik itetzen da Entziklikaren orrietatik.

Kapitalismoa..., eta sozialismoa. Badira gaur, Pio XI'ak entziklika ortan

egin zuan, sozialismoaren azterketa oso egokia ez dala diotenak, baiña gaurko sozialismoa eta Pio XI'aren denborakoa berdiñak ez dirala, kontuan euki bear dan gauza da.

Eta kontuan euki bear dan beste gauza, onako auxe da: 1931 artan, Elizaren burua, Pio XI'a, soziologi-gaietan, Elizaren gorputza baiño milla bider aurretatuagoa zebilela; batez ere, Eliz-dokumentuetan aurreneko aldiz, langilleentzat olen zuzendaritzan eta irabazietan parte artu aal izatea eskatzen zuanean. Ez zeuden kapitalista katolikoak ortan Aitasantuari amore ematekotan.

Ogeitamar urte geroago Jon XXIII'ak "Mater et Magistra" entziklikan dionez, ontan omen dago "Quadragesimo Anno"ren mamia:

A)- Onturrea, --bedi gizakume soillen onturrea, bedi giza-alkarteen onturrea--, Ekonomiaren izpiritua ez dala jakiñaraztean;

B)- Ekonomia, bai Laterri soillen altzoan bai Nazio-Arteko aurremanen maillan, eraketa berri baten bearrean dagoala ikustaraztean.

Ordurarte, 30 urte luze aietan, "Quadragesimo Anno" izan zan katoliko gizarte-zaleen izar gidaria. Baiña gizarte-zaleotaz kanpo, erantzun laburra jaso zuan XI Pio'ren Entziklika eder arek ere.

Frantzi'ko izparringien artean, "La Croix"ek bakarrik eman zuan osoa Entziklika guztia. Besteek, zatiak bakarrik argitaratu zituzten, batez ere, sozialismoa gaitzesten zuan zati luzea.

Ortaz igarri dezakezu, entzungor egin ziotela liberalek, eta lengo bide okerretik jarraitu zutela kapitalistek; baita kapitalista katolikoek ere, liberal aiek bezain ankerrak eta langille-zanpatzailleak bait ziran auek ekonomi-auzietan.

Ortaz, errez igarriko duzu baita're, Langilledia Elizara biurtzeko ta langillediaren sozialismorako joera moztutzeko, eta marxitasunaren zabaltzea eragozteko, ez zuala Entziklikak balio aundirik izan. Gure Kapitalismo au, Kapitalismo au dan bitartean marxismoa eragozterik ez bait dago.



Zori ohea izan zuan, itxas-aruntzko lurraldeetan, Pio XI'aren mixiokuntzak.

Beste ainbat gaietan bezala, ontan ere Benedikto XV'aren jarraile izan genduan Pio XI'a. 1926'eko "Rerum Ecclesiae" entziklikan agertu zituan bere asmoak.

Entziklika orren merezimendua da, eta aundia gaiñera, Koloniek beren askatasunera laister iritxiko zirala, aurrez ikusi izatea. Onela idatzi zuan Pio XI'ak Europa'ren indarra iñoiz baiño aundiagoa zala ematen zuan denbora aietan:

"Kolonietako jendeek, beren buruak kulturaz aski ornitu bezain laister, politikagintzarako gai izango dira eta askatasuna naiko dute. Laterri kolonilarietatik jende agintzailea ere naiko dute gaiñetik kendu: eta agintariekin batera botako dituzte kanpora nagusi, gudari eta mixiolariak. Ori dana lortzeko, indarkerira jo bearrean aurkituko dira".

Bere igarpena ain laister beteko zuanik ez zuan eskierki Pio XI'ak usteko.

Non-bertako apaizdia sendotzea izan zan Aitasantuaren ardurarik aundiena. Benedikto XV'ak, asmatu bait zituan mixio-lurretarako "Elizbarrutiarteko Apaizgaitegiak", "Seminaria Regionalia"... , Pio XI'ak, seminario aien danen zuzendaritza eta ango ikasketen gidaritza, zearo, Erroma'ra, "Propaganda Fide"ren eskuetara erakarri zituan. Zentralkeria? Baleike; baiña orduan zentzuzko zitekean jokabide bakarra.

"Propaganda Fide"k bazuan Erroma'n "Collegium Urbanum" izeneko ikastetxe zar bat, mixio-lurretatik apaiz-ikasketak egitera etortzen ziran gazteentzat. Etxe berri bat eraiki zion Aitasantuak seminario zar ari, eta, Letran'go Ituna izenpetu ondorean, etxe berri orren irikitze-pestarakoa izan zan Aitasantu batek Batikan-Jauregitik kanpora egiten zuan aurreneko irteera.

Aipatu dugu Europa'tik joandako misiolariiek, misiolurretako apaizen aurretik ibiltzeko zuten eskumena. Pio XI'ak kendu zien eskubide ori 1924'ean.

"Ez bedi geiago inñolazko ezberdintasunik egin mixiolurretan Europa'tik joandako eta bertan jaiotako elizgizonen artean", idatzi zuan bi urte geroago, "Rerum Ecclesiae" entziklikan. Arrazoa: berdiña dala danetan apaiztasuna; berdiña eginkizuna; eta, biarko egunean, lurralde aietako semeak izango dirala, apaiz eta gotzai, bertako Elizaren buruzagi.

Txantxetan ez zala ari jende orok jakin zezan, sei apaiz txinatar sagaratu zituan gotzai 1926'eko urrillaren 28'an.

Baiña zaillak bait dira oitura txarrak, eta aldakaitzak..., jbazirala oraindik Txina'n bertan bururik makurtu nai ez zuten mixiolari europatarrak!, idatzi zuan urte bete geroago Van Rossum "Propaganda Fide"ren Kardenal zuzendariak. Misiolari aien iritiz, ez omen zebillen zuzen Aitasantua; Txina'n jaiotako apaizak ez omen ziran, doai bereiziz ornitutakoren bat kendu ezkerro, eginkizun eta kargu garrantzitsuetarako gai.

Idazkiño asko argitaratu zan Europa'n ere mixio-lurretako semeak sagaratzearen aurka. Burugabeko berrikeri-zaleek atzipeturik omen zebillen Aitasantua.

Ez zien onek idazkiño gaizki-esale aiei jaramonik egin; ezta gotzai txinatar aiek beren eginkizuna nola betetzen zuten ikusi arte sagaraketak gelditzeko eskatzen ziotenei ere, eta aurrera jarraitu zuan bere bidetik, Japoi'nen, Indi'an, Indotxina'n eta Etiopi'n jaiotako apaizak gotzai egiñaz.

Laister asi zan gotzai mixiokume aiek beren Laterrietako uririk nagusienetarako izendatzen ere:

1936'ean txinatar bat ezarri zuan gotzai Nankin'en, orduan Txina'ren buru zan urian; eta japoindar bat, urrengo urtean, Tokio'n.

¡Bazuan Pio XI'ak jentillediko semeetan uste onik aski! II zanean, 1939'an, berrogei ta zortzi elizbarruti, mixio-lurretan, bertako semeen agintaritzapean zeuden; 26 Txina'n, 13 Indi'an (13 auetatik 6, sortaldegedikoak), 3 Japoin'en, beste 3 Indotxina'n, 1 Zeilan'en, eta beste bana Korea'n eta Etiopi'an, au ere, Indi'ako 6 aiek bezala, sortaldetarra elizkeraz.

Asko saiatu zan mixio-lurra Europa'ko Laterrien eskupetik iaregin naiean ere.

Frantzi, Txina'ko kristautasunaren Zaindari zala esan dugu. Benedikto XV'ak, ezereztu nai izan zuan mixiokuntzarako orduan ain kaltegarri zan Frantzi'ren itzal ura, eta ortarako nuntzio bat izendatu ere egin zuan: Petrelli gotzaia, baiña ez zuan nuntzio onek Txina'ra abiatzerik izan. Asko asarretu bait zan Frantzi. Eta baita frantziar mixiolari bat baiño geiago ere.

Auen ustez, Aulki Doneak ez zuan Frantzi'ren eskumen ura ukitzeko almenik; eskumen ura, Aulki Donearen emaitza batetik ez baiño Txina'rekin Frantzi'k 1858'an egindako Itun batetik sortua omen zan bâ!

Itxu zebiltzan mixiolari aiek. Arrazoi zuan Aitasantuak Zaintza edo "Protection" ura Frantzi'rentzat bakarrik onuragarri zala esaten zuanean. Frantziar-Jaurlaritzak berak eman zion arrazoia. Ona zer idatzi zien, izkutuan jakifia, Paris'tik bere Txina'ko diplomazilariei Atzerri-Auzietarako Ministeriotza'k:

"Il importe de ne pas se méprendre sur le caractere de la protection que nous accordons aux missionnaires. Nous nous proposons seulement d'utiliser au profit du nom français les progrès incessants accomplis par les missionnaires au sein des populations chinoises"; "Ez da oker ulertu bear guk mixiolariei ematen diegun itzalaren mamia. Aurrerapen aundiak dagizkite mixiolariek Txina'ko erriaren altzoan. Aurrerapen oiek Frantzi'ren onturrerako erabilitzea da, soil-soilki, auzi ontan gure asmoa".

Pio XI'ak eman zion Zaintza doakabe ari aurreneko kolpea, Txina'rako "Apostolutza-Ordezkarri" bat 1922'an izendatu zuanean. Ordezkarri bat, Nuntziorik izendatzerik ez zuan ezkeru.

Nuntzioa, diplomazilari dá, enbaxadari bat. Apostolutzako Ordezkarria, ez; Aitasantuaren "bidali" bat besterik ez da. Nuntzioa, gobernuarentzat izendatzen da; Apostolutzako Ordezkarria, gotzaidiari bakarrik "bidalia" izaten da. Ez zuan zergaitik muzindurik Frantzi'ak.

Baiña muzindu zan: "Ordezkarri ori nundik nora dabillen jakitea bear-bearrezkoa dugu, eta baita, Txina'ko Agintariekin alkarritzetan asi ez dedin al duguna egitea ere", idatzi zuan frantziar-izparringilari batek.

Zelso Constantini izan zan ordezkarri ura; eta Pio XI'ak ez zezakean

gizon egokiagorik aukeratu. Adimen argi eta begi erneko gizona; yayoa, leguna, eta era berean kementsua; zailla, bear zanean; azkarra beti. "Nere asmoa, mixiolariak len-bait-len atzerrien itzalpetik atera eta Txina'ko legearen itzalpean ipintzea da", idatzi zuan Erroma'ra.

Bearrezkoa zuan, ortarako, Txinatar Errepublikaren Jaurlaritzarekin itzegitea; baiña itzegite artarako ez zuala atzerriko enbaxadarien laguntzarik bear, aldarrikatu zuan, Txina'ko Jaurlaritzaren aurrean bera ere atzerritar eta enbaxadari aien morroi agertu ez zedin.

Ta bakarrik itzezin zuan Txina'ko Jaurlaritzarekin, Nankin'en. "Nere jardunketa orrek asarretu du Frantzi; emen, Txina'n, frantziar-diplomazilariak asarretu dira; Frantzi'n bertan, izparringilariak; eta, an eta emen, baita mixiolari-sail bat ere", idatzi zuan Erroma'ra.

Oroituko zera, gaizkilleek mixioei egindako gaitz guztiak saritzera beartua gelditu zala Txina'ko Jaurlaritza, europatarren izkillupera menderatua izan zan ezkeru.

Baiña mixiolari erail baten truke dirua jasotzea ez zitzaion gauza garbia iruditu Constantini'ri; ez omen zan Elizaren oitura, martirien odola dirutan trukatzera. Eta, bera Txina'n zala, gaizkille sail batek erail bait zuan mixiolari bat, Jaurlaritzak eman zuan dirua, ostera txinatarrei itzultzeko agindu zuan, auek asia zeukaten gaixotegi baten laguntzarako zedin; "bai bait dakit, --esan zien bere mixiolariei--, ori bera egin zutela Shansi'ko mixiolari protestalariak 1901'ean tiroz eraildako mixiolari bat galdu zutenean".

1924'ean debekatu zuan Erroma'tik Estadutzako Idazkaritzak martirien trukeko diru-arte oro. Une berean agindu zuan, jauretxeetan-da izan zitezkean galerak, zuzenki, atzerritarren bitartekotasunik gabe, Elizaren eta Txina'ko Jaurlaritzaren artean konpontzeko.

"Soilki Legearen babes eskatzen dugu gure mixiolariantzat; eta soilki Txina'ko Jaurlaritzari eskatzen diogu babes ori: Txina'ko Jaurlaritzari! Ez dugu nai Europa'ko Laterriengandiko Zaintza-edo dalako ori bezalako babesik", eman zuan azken epai-itza Pio XI'ak berak.

Naiz kristauak izan, Erroma'tik bereizirik daudelako, mixio-arlo dira nolabait ere Sortaldeko Eliz ortodoxiar zaarrak. Ez zan aiekin Pio XI'ren jarduera egokiegia izan.

Asko sufrittu bear izan zuten Eliz aiek Lenen-Ludi-Guduaren erruz, Errusi eta Turki'koek batez ere. Bi Eliz auetaz, mintzatu gera len. Ikus ditzagun orain politikatik sortu zitzaizkien gaitzak.



Errusi'an, Iraultza agintaritzaz jabetu zanean, berbiztu aal izan zuan Elizak Pedro I "Andiak" 1720'ean ezereztu zuan Patriarkadutza. Tykon izan zan Patriarka izendatua. Baiñan ez zuan pakean bizi aal izaterik lortu. Erkalak



iraupen laburra izan zuan Errusi'n, eta Erkalaren ondorean Komunismua etorri zan, eta, laister, "gudarozte gorriaren" eta "gudarozte zuriaren" artean anaiarteko gudua. Sortu zan ortik oiñazerik naiko Eliz arentzat.

Kristau asko, atzerrira joan ziran, atzerrietan zatiturik gelditzeko: Ameriketako saila; Europa'ren Erdialdekoa; eta Sortalde-Europa'koa.

Errusi-barruan, Kristauak, batzuk "gorrien" alde jarri ziran eta beste batzuk "zurien" alde. Baiña "zurien" aldekotzat bait zeukan Sobietarren Jaurlaritzak Eliza, gogor eraso zien lekaidetxeei eta Elizaren ontasun guztiei. Tykon Patriarka, nardagarrikeri aien aurka kementsu jeiki zalako, espetxera baitua izan zan.

Orduan, "gorrien" aldeko kristau aiek, Tykon Patriarkaren aurka "Eliz Bizi" izenarekin beste Eliz zismatiku bat sortu zuten. 1923'an egin zuten kristau auek beren "synedrion" edo "sinodoa", eta orregaitik, beren "Eliz Bizia"ri "Eliz Sinodukoia" ere esan oi zaio. Au izan zan Laterri Komunisten edestian lenen Eliz "Komunista".

Biotz osoz maita zuan Tykon Patriarkak bere Elizaren batasuna, eta, Elizaren zisma politikazko kalte guztiak baiño oker aundiagoa iduritu zitzaion. Elizaren batasuna lortzearren, urrats izugarri bat egiteko erabakia artu zuan:

Sobietarrek Oiñarri Lege berri bat egin-berriak ziran. Bâ, Oiñarri Lege ura ontzat-arteza eskeiñi zien Patriarkak agintari gorriei, Sobietarren Jaurlaritzak zisma konpontzeko berak, --Patriarkak--, bearrezkoa zuan askatasuna ematen ba'zion.

Egin zan Jaurlaritzaren eta Patriarkadutzaren artean pakea, ala-olako pakea, baiña Tykon'ek ez zuan gura zuanik lortu. Gauzak okerrago jarri zituan bearbada. Zisman jarraitu bait zuan, Errusi'ren barruan, "Eliz Biziak".

Atzerrian, errusiar guztiak egin zioten uko Tykon "sobiet-zaleari"; eta osotu zuten anitz Eliz iare! Eliz oietako batzuk, Kostantinopla'ko Patriarka Ekumenikoaren babespera alderatu ziran; beste batzuek "autozefalira" edo "beren buruen jabe iare" izatera jo zuten, ori bai, beti Ortodoxiaren Alkartearen altzoan bizitzeko asmoz.

Ondo puskatuta utzi zuan, beraz, Tykon Patriarka'k Errusi'ko Eliza 1925'ean il zanean. Ez ordea bere erruz.

Tykon'ek, Sobietarrekin alkarizketan astean, Elizaren eta Laterriaren arteko bereiztasuna besterik ez zuan lortu izan nai. Iare Laterria bere eginkizunetan, iare Eliza bereetan; batak eta besteak alkarri zor dion begirunea egoki gordeaz.

Baiña, ez Errusi'n ez atzerrian, ez zuan iñork Tykon'en jokaerarik ulertu. Komunismoa onartzen eta onesten zuala uste izan zuten elizgizonek, politikalariek, eta jende arruntek.

Errusi'ko Elizaren Buruzagi-Billera batek, Sinodo Doneak, aukeratzen du Patriarka. Tykon iltzean, ordea, ez zan Sinodoa bildu aal izaterik izan: artaraiño bait zegoan zatiturik eta naasirik Eliza.

Tykon'ek bazuan Bikario bat, Ordezkarri bat; Patriarkadutzako Bikarioa, Serjio, Novgorod'eko Metropolita. Patriarka berri bat aukeratzetik ez zegoalako, Bikario onek artu zuan Elizaren zuzendaritza, eta Tykon'en bidetik joaz Sobietarrekin ostera alkarrizketa len-bait-len asteari ekin zion, eta lortu zuan aiekin Eliz Ortodoxiarraren buru lez "konkordato" baten antzeko zerbait osotzea.

Konkordato orren bitartez Elizak, legekotzat eta egiazko Jaurlearitza ezagutzen zuan Sobietarren Jaurlearitza, eta Jaurlearitzak legekotzat artzen zuan Eliz Ortodoxiarra, eta, Eliz are Burutzat, Serjio Metropolita.

Esan bearrik ez da geiago asarretu zirala atzerriko errusiarrak.

Eta Serjio'rentzat okerragoa zana, Errusi'ren altzoan bertan, Metropolita-sail batek, beste Eliz bat osatu zuan, "katakunbetako" Elizaren antzera bizi bearrean aurkitu zan Eliz adoretzu onuragarri bat, baiña zismatikoa au ere, Errusi'ko Eliz Ofizialaren ustez beintzat.

Erroma'ren jokaera ez zan yayoegia izan, Tykon'en atzetik Errusi'ko Elizak jasan zituan iskamilletaz baliaturik, jerarki katoliko bat ezarri nai izan bait zuan an; alperrik, jakiña; baiñan eginkizun orretarako bidali zuan Legatus edo Ordezkarri bat: D'Herbigny, gotzai diplomazilaria.

Gogorra izan da kristautasun orok Errusi komunistean iragan bear izan duan zigorketa, "jainko-gabeek" Laterriaren laguntza osoarekin aurka egin dioten propaganda atergabekoaz asita, kristau-erailketaraiño.

Ez dakigu zenbat izan diran ziñopak, martiriak; asko iñolaz ere, Stalin'en "garbiketakoetan" baitipat.

Ez dakigu zenbat millaka ta millaka izan diran espetxetara galduak.

Badakigu, ala ere, Itxaso Zuria'ren ertzeko katigu-lantoki batean 150 gotzai egon zirala aldi berean katigu.

Baiña Errusi'ko kristautasunik ez da il. Bizirik agertu zan Bigarren Ludi-Gudua asterakoan, kristaua azaldu bait zan orduan nekazari errietako jende dana, eta uri aundietakoa ere geiena. Kristau dirau oraindik. Zenbat aiñako kopuruetan, ez dakigu.



Ikusi zituan bereak Turki'ko kristaudiak ere. Lenen-Ludi-Gudatean eta gudate-ostean. An katoliko gutxi zan. Asko ziran ordea ortodoxiarrak, eta Eliz "autozefalo" edo "bere buruaren jabe" askotan banatuak. Pakean bizi ziran azkeneko denboretan Eliz auek danak; Istanbul'eko Sultanaren Jaurlearitzarekin begirun osozko alkar-ulertze batera iritxi bait ziran ikusi aal izan dugunez.

Zeero aldatu zitzairen orain pakezko politika-giro xamur ura. Sultanaren orde Errepublikak laiku bat ezarri zan Turki'n bertan, erlijio bereizirik gabea baiña abertzalekeri zorokoa, naziozalekeri gordiñekoa. Eta guda ostein

Turki'k galdu bear izan zituan lurralde zabal guztien oroipenak, gogorragoa eta zakarragoa egiten zuan oraindik agintari aien abertzalekeria. Izan ere, ez zan kokorra gudate artan galdutako lurraldea: Siri, Palestina, Mesopotami, Arabi eta Ejito!

Guda ari zala ere, Grezi Turki'ren aurka sartu bait zan borrokan, eta Kostantinopla'ko Patriarkaren Eliza greziarra bait zan izkuntzaz eta kulturaz, Turki'ren etsaitzat izan ziran eukiak an kristauak. Eta ez Kostantinopla'ko Patriarkadutzaren mendekoak bakarrik, baita besteak ere: Siri'ko Jakobatarrak, eta Armeni'koak batez ere, Marondarrak, Kaldear-Nes-toritarrek, Kopziarrak, Melkitarrak.

Kezka orrek sortuak, ugariak izan ziran guda-denbora berean kristau-ilketak Siri'n, Libano'n, Mesopotami'n, eta, gudatekoan eta gudate-ostean, batez ere Armeni'n, edestia-zear abertzale eta beti gurutz-iltzatua izan dan Armeni'n.

Guda ostean, gauzak kristautasunarentzat okerrago ipintzeko, Grezi'k Anatoli'ren sarkaldeko itxas-ertza arrapatu zuan indarrez. Venizelos zan orduan Grezi garaillearen Jaurlaritzan Lendakari, eta erromate-aurreko Grezi Aundia birregitea zan bere amets ezitia.

Amets orrek eraginda izendarazi zuan Kostantinopla'ko Patriarkadutzarako bere adiskide kutun bat: Meletios Metaxakis. Onen aurreko Patriarka, Sultanaren adiskideegia zala-ta, guda amaitzean Aulkitik botea izan bait zan. Ordurako eramana zuan Venizelos'ek Atenas'era an Metropolita izateko, leenago Txipre'n Kizin'go Gotzai zan Metaxakis; errezago izango bait zitzaion Kostantinopla'n Atenas'ko Metropolita sartzea elizbarruti txikiko gotzai ezezagun bat baiño.

Baiña laister sortu ta amaitutako guduan turkiarrak garaille irten ziralako, bereala izan ziran greziarrak Turki'ko lurretatik boteak, eta Metaxakis patriarka ere bere Aulkia utzi bearrean aurkitu zan.

Gizon azkarra izaki-ta, lan aundia egin zuan Kostantinopla'n Metaxakis Patriarka'k. Gotzaigo edo Metropolis berriak sortu zituan Europa'n eta Ameriketan; turkitar zigortzaillen bildurrez igesi kristauak asko atzerrira joan ziralarik, Turki berriaren barruan ez bait zan, eta ez bait da, ia kristaurik gelditu.

Kostantinopla'ko Patriarkadutzaren Eliz ortodoxiarra bera, antziña ain mardula izandako Eliza, aski gelditu zaigu jenderik gabe, irureun milla kristau besterik ez bait dira gaur zuzenean Patriarka aren esanera daudenak.

Albani'ko Elizak ere 1922'an autozefalidun egin zuan bere burua, eta andik amabost urtera, beste norabiderik ez zegoalako, autozefalitasun ura ontzat artzera bearturik aurkitu zan Kostantinopla'ko Patriarka.

Ordurako aspaldi eroria zan, patriarkadutzan urte t'erdi ta geixago besterik (1921-1923) egon ez zan Metaxakis.

Ez zuan Metaxakis'ek Turki'ren aitzoan bertan, Kemal Ataturk

guzialdunak eraginda 1921'ean Eutimios Gotzaiak sortu zion zismarik konpondu aal izan, (bizi bait da oraindik "papas" edo "goigotzaigidari" arek sorturiko Eliza), baiña lan aundia egin zuan Elizak-bateratzearen alde.

Jardun-aldi adiskidetsuak ere izan zituan ortarako, protestalarien "World Conference of Union" edo "Batasunarako Ludi-Batzarra"rekin.

Sortaldeko Elizak Batasunera erakartzeko, Ortodoxiaren Billera Orokor bat prestatu nai izan zuan 1925'erako, Nizea'ko Kontzilio Ekumenikoaren XVI'garren eunkia urte ortan betetzen zala aitzakitzat artuta.

Metaxakis'en bide beretik jarraitu zuan aren ondorengo Basilio III'ak; ez zuan ordea Ortodoxia'ren Billera nagusi ura egifazterik lortu. Mifi eman zion benetan ezintasun arek, Eliz-Batasunaren maitale zintzoa bait zan. Prest zegoala esan zion, gero Jon XXIII'a izanzen zan Roncalli Gotzai diplomazilariari, Erroma'ra joateko ere, Aitasantuari Kontzilio Ekumeniko baten bearra adierazteko.

Gogoratzen ote zituan Jon XXIII'ak Kostantinopla'ko bere adiskide aren itzak, 1959'an Eliz Osoari Kontzilio Ekumeniko baterako otsa egin zionean? Bazan Basilio III'aren denboran Kostantinopla'ko Elizaren altzoan beste gotzai batasunzale ospetsu bat ere: Atenagoras, Ameriketako lenen Metropolita, goigotzaigo zabal artarako Metaxakis'ek izendatua, gero Patriarka lez Aitasantuen ain lagun izanzen zana.

Baiña 1926 artan ez zeuden Erroma'n gauzak Sortalde zismatikoarekin izketan asteko bear aiña gerturik. Basilio III'ak ez zekian gai ortan Pio XI'ak nola pentsatzen zuan. Andik bi urtera argitaratu zuan onek "Mortalium Animos" izeneko Entziklika, eta itz bakar batekin izugarrizko gaitza egin zion Elizen batasunerako igikundeari, "Fozio'k sortutako okerkerien jarraitzaille", izen-ipintzen bait zien Ortodoxiarrei, idazki artan.

Pentsa dezakezu, nola asarretuko ziran beren buruei, arroki, "ortodoxoi", "zuzentasunaren-zale", deitzen dien kristau zar aiek Erroma'ko Aitasantuak mundu guztiaren aurrean, eta ofizialki, "okerkeri-zale" esaten ziela ikusi zutenean. Eliz iareen buruek, gotzai ospetsuek, teologilariiek, jaso zuten oiua, eta aizatu zituzten aspaldiko argumentu zaarrak:

Erroma'ko Eliza, Itun Zarreko "Babiloni Arroputza" dala; Aitasantuek batasunerako zegizkiten deiak oro gezurrezkoak zirala, eta Sortaldeko Eliz "Uniata" danak Ortodoxia ezerezteko sortuak izan zirala, eta artarako erabilli oi dituala betiere Erroma'k.

Oztopo aundia Pio XI'arena. Akiles Ratti mendigoizale gogorra, bibliotekalari bakartia, jenio minkatzeko gizona, ez zan, iñolaz ere, diplomazizko goxotasunerako jaioa.

Sortaldean, Sultanen babesa galduta, beren eskiertasuna nun oiñarritu ez zekitela zebiltzan Eliz guztiak, bai ortodoxiarrak, bai Erroma'rekin alkaturiko "uniatak". Guda-aurrean Turki'pean zeuden Arabi-lur guztiak, europatarren mendean gelditu ziran: Libano ta Siri Frantzi'ren azpian; Ejito,

Mesopotami, Palestina, eta Jordan-Osteko lurra, Inghlanderriarenean; eta baita Arabi ber-bera ere.



Sultanarekin itzegitera oiturik zeuden Elizak ez zekiten Sarkaldeko Jaurleri "katoliko" edo "protestalari" aiekin nola jardun. Ez zekiten, ezta, Jaurleri berri aien babesean iritxi ziran kristau sarkaldetarrekin nola jokatu ere: katolikoak eta protestalariak ziran iritxi-berri aiek; kristau borrokalaria, teknika berrien oitura ikasia zutenak eta, batez ere protestalariak, diru askoren jabeak.

Azkenik, gudatekoan jasan bear izan zuten zigorketaren erruz, naasita, aulduta, eta ikaratuta aurkitzen ziran Sortaldeko Eliz aiek; danak; katolikoak eta Ortodoxiarrak. Gogorra izan bait zan sarraskia, armenitarren artean batez ere.

Abertzaleak ziralako, beti izan ziran armenitarrak gaizki ikusiak; Sultanaren menpekoak eta, mugaz iparraldera, Tsar'en azpian bizi ziranak. Alexander III'ak eta Nikolas II'ak egin zuten al zutena, legeen bidez guztia, Errusi'ren muga-barruan Kaukas'Mendietan bizi ziran armenitarrak beren Eliz "Gergoritarretik" Errusi'ako Elizara pasaarazteko.

Turki'n legea ez ezê, erabilli zan aiztoa ere Armeni'ko erria desegiteko. 1909'an uri eta errixketako karrketan bizia galdu zuten armenitarrak, bai omen daiteke berreun millaraiño izatea. Gudatekoan, "Gazte Turkitarren" Alderdiak, jendea eraillaz edo erbesteratuaz, moztu zuan erdiraiño armenitarren jende-kopurua.

Batez ere, Turki menderatzeko, Inghlanderri eta Frantzi'ko gudariek Dardaneloetan oiñak ipiñi zituztenean, Armenitarrak aien alde irtengo ziralaren bildurrez, Turki'ko Jaurlaritzak, oraindik bereak zituan Siri eta Mesopotami'ra aldatu zituan armenitar guztiak, era mingarrian, oiñez. Seireun milla il ziran bidean nekez, gosez, eta egarriz.

Guda amaitu ondorean, armeniar-jendea erbesteratzen jarraitu bait zuan Kemal Ataturk'ek, gaur Turki'an armenitarrik ez dala bizi ere ia-ia esan daiteke.

Eta, naiz armenitarrena aiña ez, beste Eliz guztiak ere aski gogor erabilliak izan ziran gudan murgildurik larri zebillen Turki artan.

Era ortan, guda amaitu bezain laister, kristau asko asi zan an Erroma'runtz begiratzan; Erroma'tik ere itxaropen aundiarekin so-egiten zan Sortaldera, Sultana eta Tsarra jausi ondorean Elizen batasunaren egunsentia piztu ote zalakoan. Benedikto XV'ak eman ere eman zituan Eliz oso bat katolikotasunera itzultzen bazan, Eliz oso aren arrera nola egin bear zan jakiteko bidezkoak ziran arau eta aolkuak.

Baiña, batez ere, Erroma'rekin alkaturik zeuden Sortaldetar Elizei, Eliz

"Uniatei", laguntzen saiatu zan Benedikto XV'a, Eliz aiek, aren iritziz, Sortaldeak eskeintzen zizkion oiñarriak bait ziran Ortodoxia irabazi aal izateko; oiñarri txit egokiak: "les marches d'où l'Église romaine s'élancerait à la conquête" (Pernot).

Uste berekoa izan zan Pio XI'a ere, eta ontan, beste ainbat gauzetan bezala, Benedikto XV'aren bidetik jarraitu zuan; edestilari izanik, gaiñera ondo ezagutzen bait zituan eta asko maitatzen Sortaldeko oiturak.

Aski arriskuan zeuden oitura aiek Sorkaldeko Eliz "Uniata" edo Alkartuetan. Eta ez da arritzekoa; Kultura-arloan, Politikagintzan, eta Gudu-zelaietan garaille irten bait zan osoro Sarkaldea.

Poloni berbiztuaren muga-barrenean iru milloi terdi Ukraniar edo Erruteniar uniata gelditu ziran; baiña Eliz sortaldetar ontako zuzendariak, sarkalde-zaleak beti, iñoiz baiño sarkalde-zaleago ziran orain Poloni'k askatasuna birrirabazi ostean; eta, ori, naitanaiez gertatu bearra zan gauza dugu, poloniar kristau katoliko aien etsaia Sortaldea zala oroitzen ba'dugu.

Orduan bertan, politikaren maillan, Poloni'ren askatasuna irabaziberria ezabatzeke, tiroka ibilli zan Errusi komunista, sobietarrek Jaurlaritzaren jabe egin ziran unetik, eta, erlijio utsaren maillan, ¿ez al zan Mosku'ko Eliz ortodoxiarra, beti, Poloni'ko "uniatasuna" ezereztuta, Eliz artako kristauak irentsi naiean ibilli? Orrela, etsai zituzten ukraniar uniatek Sortaldea ta sortaldetasuna!

Gogora dezagun XVIII mendeaz gero Errusi'ko inperiotzaren eta Errusi'ako Ortodoxiaren mendean egon zirala, askatasuna lortzearren eten gabe borrokan, Poloni'ko Erria ta Eliza, orain Errusi'ko iraultza sobietarraren zurrunbilloaz baliaturik iaretasuna bir-lortu zuten arte.

Turki'arenak izandako arabiar lurretan berriz, 1918'az gero, Sarkaldea zan nagusi. Frantzi, Siri'n eta Libano'n; Inglannderria, Mesopotami'n, Palestina'n, Txipre'n, Ejito'n eta Jordan'ez aruntzko lurretan. Ta, jakifia, politikazko nagusitasunarekin, lortu zuan Sarkaldeak an, kulturaren nagusitasuna ere. Bi Laterri sarkaldetar aien izkuntzak ikastea, bearrezkoa egin zan lurralde sortaldetar aietako gizon jakintsuentzat; baita elizgizonentzat ere.

Sarkaldetik zetorren, arrezkero, jakintzaren argia, Sarkaldetik zetozen kristau-pentsaera berriak, eta kristautasuna bizitzeko era berriak, eta, baita, mixiolari arrotzak ere ugari, katolikoak eta protestalariak. Sarkaldeko giroan ezitzen ziran, irakasle sarkaldetarrei entzunaz, sarkaldetarren zuzendaritzapeko ikastetxeetan, lurralde aietako gazteak. Era berean, jakifia, seminarioetako apaizgai katolikoak, neurri aundian.

Gotzaiak eta gaiñerako elizgizonik nagusienak uniaten Elizetarako, bertako semeen artean bai, baiña sarkalde-zale ziranen artean aukeratzen ziran arreta aundiarekin. Igikunde orren gidari, an zegoan Jerusalem'en bertan Latindarren Patriarka, Barlassina, guda-osteko urte aietan, ordurarte

izan ziranak baiño latinzaleagoa eta judutarren, ots, sionismoaren etsai bortitza.

Gaitz aundia egiten zion sarkaldetetze onek sortaldeko kristautasunari, erria-baitan arabiar abertzaletasuna berbizten ari zan unean, Eliz aiek erriarengandik urruntzen bait zituan. Beren izaera galtzen ari ziran Eliz Uniatak. Ori ikustean, esnatu zan garratzago iñoiz lokaturik egon ez dan ortodoxiarren kezka: Erroma'k, azkenean, Sortaldeko kristautasun guztia erromatar biurtu nai dualako kezka. Bai izkeraz, bai oituraz, jerrromatar!!!

Poloni'n Ander Szeptickij "metropolitak" atera zuan garaille ukranitar katolikoen sorkaldetasuna. Berak eraberritu zituan, --ez gotzai ukraniar batzuen aldetiko eragozpenik gabe--, aski sarkaldeturik zeuden Poloni'ko lekaide basilitarrak. Berak, ostera sorkalderatu zuan Eliz artan latinkeriz betea zegoan liturgia ere, ez noski ain sarkaldezale ziran Eliz aren buruzagien artean asarre bizirik aski sortzeke.



Ejito'n, Balkanetan, Arabi-Lurretan, ez zuan sortaldetasunak alako babesle bikaifrik izan-da, sortu zan iskamillik naiko.

Pio XI'ak, kendu nai izan zun Jerusalem'go Patriarkadutza Latindarra, baiña aurka atera zitzaizkion Erroma'ko Kuria, eta "sionismoaren" etsai ziran guztiak, ain zuzen, Barlassina, Jerusalem'go Patriarka Latindarra bait zuan, Palestina judutarrei itzultzeko sortu zan igikunde arek, etsairik bizkorrena.

Oso zabaldurik zeuden oraindik orduan sortaldetasunaren eta judutasunaren aurkako sentipenak.

Pilpillean zegoan une aietantxe Siontasunaren, ots, "judutarrek Palestina'ra itzultzearen" auzia.

1917'ko Abenduaren 8'an sartu ziran inglanderriarrak Jerusalem'en, eta guda amaituta, Inglanderriaren zaintzapean gelditu zan Palestina. Sortu zan munduan iskamillik!

Kristauek, askok beintzat, uste izan zuten an Gurutz-Gudarien denboretako Jaurreria birpiztutzeko garaia iritxia-edo zala. Baiña kristau auek beren artean zatiturik zeuden, eta bata bestearen aurka; katolikoak bait ziran batzuk, protestalariak beste batzuk, eta, auek ere, jzenbat sailletakoak!

Kristauen aurrean, ordea, berea zutela lur ura oiuzegiten judutarrek, aiei "agindutako lurra" zala ura.

Judutarren aurka jeikitzen ziran berriz arabiarrek lur aien jabe berak bakarrik zirala deadarka, an omen zeuden bâ, biztanle bakar, eta oren nagusi, bigarren mendeaz gero.

Benedikto XV'a eta bere ondorengo Pio XI'a lur aiek danentzako zabalik eta Nazio-Arteko Jaurlaritza baten eskuetan ipintzearen aldeko izan

ziran beti. Arrazoa: Judutarrentzat aña zala lur ura santua islamdarrentzat eta, batez ere, siniskera guztietako kristauentzat.

Eta baita beste arrazoi bat ere: lurralde artan pakea ziurki ezarri nai izatea; aurre-ikusten zuten bâ bi Aitasantu bikain aiek, Palestina'ko giro makur artan, naitanaiez, judutarren eta arabitarren artean borroka gogorrek eta odol-ixurketa gaitzak sortu bearrak zirala.

Danadala, Pio XI'ak ez zuan, ain alperrikakoa eta, beti, ain matraka-sortzaille izan oi dan sarkaldetarren arteko zimirkeririk goxatu. Alderantziz, "Mortalium Animos" Entziklikan idatzi zituan zoritxarreko bi itz aien erruz, mikatzagoa egin zuan zimirkeri ura. Zergaitik idatzi ote zituan? lkaratu-edo egin zalako bearbada.

Burutu berria zan Lausana'n "Faith and Constitution", "Sinismen eta Erakunde" deritzan igikunde protestalariaren Batzarra, eta igikunde arek aldarrikatzen zuan ekumenitzara katolikoak okertuko ote ziralaren bildurrak eraginda idatzi zuan Entziklika ura, ari bait ziran idazle katolikorik aurreratuenak, ordurako, ekumenetasunaz mintzatzen. Beauduin belxikatarrak adibidez Kristoren aurpegia Sorkaldeko Elizetan ez ezê, protestalarien Elizetan ere ikusten zuan.

Arazoi zuan beneditar onuragarri arek, baiña ez zeuden oraindik denborak katolikoei era artan itzezin aal izateko. Orregaitik arreta geiagorekin ibiltzeko agindu zitzaion Erroma'tik.

Heiler doixtarrak, Kontzilio berri baten biltzea eskatzen zuan, Batikan-Kontzilioak gauza asko erdizka erabili omen zituan bâ, eta beste asko ukitu gabe laga. Ez zion oni Pio XI'ak ezertxo ere esan, bera ere aburu berdifekoa bait zan.

Ain zuzen, Pio XI'aren merezimendurik aundienetakoa da, aitasantutza artu zuanean Kontzilio Ekumeniku bat bildu bearra zala pentsatzen asi izatea. Ageri dira asmo orren aztarnak 1922'eko "Ubi Arcano" entziklikan. Gaur badakigu, kontziliogintza artarako aurreneko urratsak eman ere eman zirala. Eliz "uniatak", jakiña, Kontziliokide izatekoak ziran. Baiña Aitasantuak bazuan Kontzilio artara Ortodoxiako Eliz "autezafaloak" edo "beren-buru-ebek" ere omenezko batzarkide lez ekarriarazteko asmoa.

Pio XI'aren asmo oiek merezi dute esker ona. Baiña gaur argi dakusgu ez zegoala orduan oraindik Eliza-baitan giroa, Kontzilio Ekumeniku bat egiteko sasoi egokian.

Gure ustez Pio XI'ak ez zuan asmâtu Sortaldeko kristautasunaren auzi ontan.

Bera, bai orixe, Sorkaldeko jende eta oituren adiskide zan. Ala jakiñarazi zigun, "Mortalium Animos" Entziklikaren ondorean ere, 1928'garren urte artan bertan "Rerum Orientalium" edo "Sorkaldeko Gauzei" buruz idatzi zuan entziklikan, eta urrengo urtean, 1929'an, "Sorkaldeko Elizen Legedia" prestatzen asteko agindu zuanean. Ori egitea



Elizaren altzoan katolikotasuna bizitzeko bi Era Ezberdin bazirala aitortzea bait zan; I Batikandar-Kontzilioko Asabek ia-ia entzun ere izan nai ez zuten gauza.

Baiña Pio XI'ak ez zuan latinizazailleen geiegikeririk moztu.

Orregaitik, il zanean, borroka aundia utzi zuan sorkalde ta sarkaldetarren artean; eta, ikusi dugun lez, aski sarkaldetuak bait zeuden orduan Eliz uniatak, auen eta ortodoxiarren artean gorputz-artu zuan bereiziki borroka arek; Grezi'n izan zan batez ere borroka ura zitala, nâsi bait zuan Laterri artako politikaren barrutia ber-bera.

"Latinizazaillerik arriskugarrienak uniatak ditugu...; Nazka eman digute beti uniata oiek ortodoxiarroi. Nazka eta lazura, uniatasun ori iruzur ta azpikeria besterik ez dalako erlijioaren alorrean. Ez zaio iñoiz ere apaiz latindar bati gure eraspelik peituko; beste oien jarduerak ordean beti sortaraziko digu nazka... eta kezka bildurgarria", oles zegian Krisostomo Papadopoulos, Grezi'ko ortodoxiar-buruzagiak.

Ez zion askoz goxoago erantzuten Grezi'ko Eliz Uniata txikiaren lendakaria zan Calavassy Gotzaiak.

Borroka oiek, on egin zioten luzaroan Elizari, ekumenegintzan ardura eta maitasun aundiarekin ekin bear zala erakutsi bait zuten argiro; baiña orduan, ortodoxiarrak eta uniatak osoro bereizi zituan alkarrengandik, eta Eliz Uniateri Ortodoxiaren eta Erroma'ren arteko zubi izateko almen oro kendu zieten; eta ontan dago ain zuzen Pio XI'aren diplomazizko utsegitea; onek, Benedikto XV'ak bezala, zubi izateko nai bait zituan batez ere Eliz aiek.

Beste utsegite bat Itali-barrengo eslabitarrekin izan zuan XI Pio'k. Lenen-Ludi-Gudua amaitzean Yugoslabi'renak bear zuten lurralde batzuk Itali'ri eman zitzaizkion.

Lurralde aietako jendeak eslabitarrak ziran. Saiatu zan, fatxisten indarkerizko erarik jatorrenean Mussolini'ren Jaurlaritza, jende aiek "italiartzen". Egin zuten, beren erria babesteko, lurralde aietako gotzaiak oi. Eskatu zioten Aulki Doneari laguntza. Ez zuten, agirian beintzat, erantzunik izan.


Mussolini'rekin asarretu ezkeru, urrutiko muga artako lurretan ezer lortu gabe, Itali guztian Elizarentzat gauzak okerrago ipiñiko ziralako bildurra? Danadala, eslabitar ankapetu aiei... ustela ta kaxkarra iruditu zitzaien XI Pio'ren isiltasun ura: ustela, moŷa, ta kaxkarra.

¡Zail dala gizonik aundienarentzat ere (bazan bâ XI Pio benetan aundia...), gizonik aundienarentzat ere zail dala gauza orotan eta une guztietan aundi izaten asmâtzeal

Bazan gaiñera beste zerbait, ikaragarria, Aitasantuaren biotza estutu ta larritzen zuana: ia-ia ler-zori zegoan Bigarren-Ludi-Guduaren sarraskial Zama izugarri orren oiñazeak zanpatuta il zan Pio XI'a 1939'ko Otsaillaren 10'ean;

"Alemani ta Itali gudara jausiko zirala, guda artan Itali azpiratua izenen zala, eta Itali gudara zeramakiten agintari fatxista arroputz aiek bizia era gaiztoan galduko zutela iragarritz" (Padellaro).

XI Pio izan zan Elizak izan duan Aitasanturik aundienetako bat.



## XII PIO (1939-1958)

XII Pio! Auxe bai izan zala maitatua, eta aintzaldua, eta zeruetaraño jasoa, beste iñor ez bezala, bizirik zegoan artean; gero, il zan bezain laister, aantzia, maxiatua, eta beera jexia izateko! Neurritz kanpokoak ziran noski leengo gelegikeriak; zuzentasunaren aurkakoak dira geroko txikerkeriak ere. Ez ainbeste eta ez onen gutxi, gizon bikaiña eta aitasantu aundia izan genduan Eukeni Pacelli, Pio XII'a.

Erroma'n jaio zan; Filippo Pacelli eta Virginia Graziosi'ren semea. Aita, lege-gizona zuan; Aulki Donearen serbitzura lan egoki egia. Bi seme ospetsu izan zituzten senar-emazte auek: 1874'ean Francesco eta 1876'ean, Eugenio.

Frantzisko, legitzilari izan zan; aitaren antzera, Aulki Donearen serbitzura ari izan zana. Eta, batez ere Letran'go Ituna prestatzekoan bere lanketa oso bikaiña izan zalako, Pio XI'ak Markes izendatu zuan; eta Printzipe berriz, Bitor Imanol III Erregeak.

Eukeni'k, Elizako bidetik joaz, Gregoriana Unibersitatean ikasi zuan iñakitarrekin Filosofia; eta Capranica Ikastetxean diplomazia. 1899'an apaiz egin zan, eta Aulki Doneko Kurian izan zan lanean ipiña. Aldi berean, Elizaren diplomazilarigaiei, legitzia erakusten zien. Urte aietakoa du bere liburu bakarra: "La personalità e la territorialità delle leggi specialmente nel diritto canonico" (1914) "Nortasuna eta nongotasuna legeetan, bereiziki Kanon-Legeetan". Liburu sakona omen da; baiña baita legorra ere: Lege-liburua.

Lege-gizon, kanonlari eta diplomazilari izango da beti Eukeni Pacelli; idaztegietan, nuntzitegietan eta idazkaritzetan ezia eta azia, iñoiz ere animazaintzaren ezaguerarik izango ez duan gizona. Ala ere, sentimentsua bait zan berez, xamurra, eta erromantikoia, gizon atsegiña agertu zuan jendearen aurrean beti bere burua.

1914'eko urte ortan Estadutzako Idazkaritzan asi zan, Pio X'aren aginduz, Merry del Val'ekin lanean. 1917'an goigotzai egin zuan XV Benedikto Aitasantuak, "uste-on oso'a ziolako"; "che aveva de Pacelli grandissima stima", diosku "Enciclopedia Italiana" fatxistak.

Eta egia dala dirudi; urte ortan bertan bidali bait zuan Babiera'ko Jaurlaritzaren albora nuntzio, "dove negli anni di guerra seppo farsi apprezzare per le notevoli qualità diplomatiche dimostrate e per l'opera benefica da lui compiuta" (Encic. Ital.). "Jakin zuan an bere burua ezaguna egiten diplomazirako yayotasunari eta burutu zituan ekintza onei eskerrak".

Bi izan ziran, naiz berak nai bezala bururatu aal izan ez, guda amaitzearren Pacelli nuntzioak Munich'tik erabili zituan ekintzak:

Aurrenekoa, 1916'ean Biena'ko Jaurlaritzari laguntzeko, Benedikto XV'aren aginduz eratua:

Karlos I'a zan Biena'n Inperatore berria, urte ortan bertan agintaritzat laga zuan Frantzisko Jose zaarraren orde. Nai izan zuan I Karlos onek, Czernin ministroaren laguntzarekin, eta bere ezkon-anaia ordezkartizat artuta, Austri-Ungari aulduaren gainetik guda ikaragarri aren zama gizonki eta zuzentasunaren araura kentzeko zerbait egiten saiatu. Ez zitzaion Benedikto XV'aren eta Pacelli nuntzioaren laguntasunik peitu.

Alperrikakoak gertatu ziran saiaketa guztiak; alatagutziz gizon zintzo pakezale aiek merezi dute oroitzapen ona.

1917'an izan zan bigarrena, alperrikakoa au ere, baiña lengoa baiña askozaz garrantzitsuagoa: Benedikto XV'aren pake-aldeko ekintza nagusia. Laterriek ontzat artu izan balute milloika bizitzak salbatuko zituan ekintza bikaiña.

Zoritxarrez Laterri itxutuek ez zioten Aitasantu argiari zentzuzkoa zan eraz erantzun; baiña Pacelli Aitasantuaren nuntzioarentzat ikaskizun jatorra izan zan Alemani'n "pakearen alde egin aal izan zuan lana; eta sekulan aztu ez zitzaion oroitzapen artatik uste au atera zuan ondorengo bere aitasantutzarako: Aulki Doneak baduala zer-egin garrantzitsurik pakearen alde; baiña ortarako gudan ari diran Laterri guztiekin diplomazizko arremanak gordetzea bearrezkoa dula.

Ikus ori bera "Encyclopaedia Britannica"ren itzetan: "He preserved from the memories of his peace mission in 1917 the thought that the Holy See might have a great peacemaking role to play, provided it kept up formal relations with all the belligerents". Txit garrantzi aundikoak iduritzen zaizkit azkeneko itz auek, Pio XII'ak Bigarren Ludi-Guduan erabiliko duan jokaera ulertzeko: "Asko zezakean Aulki Doneak pakearen alde", baiña, "Laterri gudari guztiekin diplomazizko arremanak ausi gabe gordetzen ba'zitian": "Provided it kept up formal relations with all the belligerents".

Jaso zuan urte aietatik beste oroipen bat ere Eukeni Pacelli nuntzioak: Guda amaituta komunistak Munich'en jabe egin ziranean, nuntzitegian sartu zitzaizkion zalapartaka. Ez zioten gaitzik egin; ez zuten ondamenik sortu; baiña Pacelli'k ez ditu sekulan aztuko aurrean ikusi zituan matxino aiek; ezta matxino aiek berekin zeramaten ikurrin gorri maillu-ta-igitagiz ornitutako ura ere; eta bildur aundia izango dio beti komunismoari.

Izan ere aski izan bait zan bildurgarria 1919'an alemaniarren iraultza komunista!

1920'ean Alemani'ko Errepublikan zan, Nuntzio, Pacelli, eta berak eratu zituan Berlin'dik, Babiera'ko konkordatoa 1924'an, eta Prusi'koa 1929'an. Urte ontan izan zan kardenal egiña, eta urrengoan, 1930'ean, Gasparri'ren ordeaz, Estadutzako Idazkaritzara deitua.

Ezagutzen zuan Gasparri Kardenal ospetsuak bere tokia artzera zetorkion kardenal berri ura; laguntzaille "ontzat-etsia", "collaboratore apprezzato", izan bait zuan idazkari bezala Kanon-Legedi-Bazkunean.

Izkuntza asko dotore itzegiten zituan gizona, serbitzari egoki-egokia aukeratu zuan Pacelli Kardenala Aitasantuak, mundu osoarekin arremanetan aterketarik gabe egon bear duan lan-gela guren artarako. Ez zitzaion Idazkari berriari gaitasunik falta. Entzun Mans'eko Gotzaiak oroitzen digun, egun aietako gertakizun polit auxe:

Udine'k birjaiotzakoan Batikan-Jauregian margoztutako "Mapamundi" ospetsuari begira omen zeuden biak: Kardenala eta Gotzaia. "Excellence, il nous fait être à la taille de cela", esan omen zion Pacelli Kardenalak: "Neurri oien kideko izan bearrak gera, nerejaun argi-argia": gotzai baten biotzaren neurria, mundu osoaren neurrien kideko izan bear duala, alegia.

9 urte latzetan egon zan Estadutzako Idazkaritzan, Pio XI'aren serbitzu leialera. Urte aietan eginkizunik mingarriena Españi'n fatxistek sortârazitako gudu ankerra izan zan: Franko'ren "gurutzada". Ikusi dugu gudu iruzurgille artan ederki gorde zuala Pacelli'k Aulki Donearen neutralitatea, alderdigabekotasuna; agian, Pio XI'a frankozale ez zala ondo zekialako. Bainan ez, len esan duguna oroitzen ba'duzu, orregaitik bakarrik.

Franko'ren altzakunde zipotza baiño askoz ikaragarriagoa, Aitasantuak eta bere Idazkariak ikusten zuten Europa gaixoan beste guda baten arriskua gero ta azkarrago urbiltzen eta mamitzen ari zala. Tamalez, arrisku ori eragozteko ez zuten ezertxo ere egin aal izan.



Giltzapeko Batzarra biltzerakoan, bazan alako kezka bat batzarkide geienen baitan. Aulki Donearentzat pakezko giroa nai zuten. Pio XI'ak Mussolini'ri gogor ekin ziolako, eta Hitler'i oraindik gogorrago ekiteko asmotan il zalako, bildurra-edo zioten kardenal batzuek aren antzeko Aitasantu gogor bati.

Itali'ko Jaurlaritzaren eta Aulki Donearen arteko arremanak era latzean utzi zituan Pio XI'ak. Arreman oiek nai zituzten konklabetar aiek erreztu eta goxatu. Ori lortzearren, "artzai" bat, ots, elizbarruti batean anima-zaintzan ari izandako gizon bat nai zuten Aitasantu, batez ere Itali'ko kardenal batzuek: "Artzaia"; ez Diplomazilaria; ezta kuriatarra ere.

Kuriakoek ordea, Canali'k, Pizzardo'k, Piazza'k eta auen adiskideek, Pacelli eskatzen zuten aitasantu. Konklabeko kardenal atzerritarrek ere, Eukaristi-Batzarrak zirala-ta Buenos aires'en, Lourdes'en, eta Budapest'en jende-aurrean asko azaldu zalako... au zuten, Pacelli, aitasantugai guztietan ezagunena. Ta giltzape-batzar artan bildu bait ziran, urte askoren ondorean aurreneko aldiz, mundu guztiko kardenal danak, aundia zan an atzerritarren aburuaren garrantzia.

Oso erreza izan zitzaion, orregaitik, Pacelli'tar Eukeni kuriatarrari Kepa Deunaren Aulkirako zurubia; aukeratua ere, aurreneko egunean izan bait zan Aitasantu aukeratua! Iru mende luzeetan iñoiz gertatu ez zan gauza.

1939'aren loreilleko 2'a zan egun ura. Amaitu berria genduan Españi'ko Guda irikia; ez ordea guda doakabe arek sortutako sarraskia, guda zearo bukatu ondorean ere neurririk gabe jarraitu bait zuan Franko garailleak arriskugarri iduritzen zitzaizkion bere etsaien fusillaketa. ¿Izan ote zuan Pio XII'ak frankotar guztiz-kristauen espetxe-ikulluetan ziardun odolkeri nardagarri aren berri? Ez noski; askoz urbillago zeuden Españi bertako gotzaiak berak ez bait ziran txerrenkeri artaz ez jabetu ez oartu. Itxukeri ori duzu, ain zuzen, Españi "berriaren" obena.

Baiña Españi'ko arazoa estaliz askozaz ere mardulagoa eta astunagoa ikusten zuan gaiñean, ler-zori, Pio XII'ak, aitasantutzara igotzerakoan, Bigarren Ludi-Guduaren ekaitza, eta zurrunbillo galgarri artatik mundua salbatzera irauliko da oso-osoan, eta ekintza luza-eziñezko ortara irauliko ditu bere kezka, oldozketa eta aalmen guztiak. Ta aundiak ziran, benetan Pio XII'aren gogo-doiak.

Bazituan noski akatsak. Bakartia zan. Bakartia..., bere buruan uste aundia, aundiegia, zualako, eta beste iñorengan fede-izateko gaitasuna falta izan zitzaiolako. Berak bakarrik izan nai izan zuan Eliza. Bera..., Irakasle bakarra; eta bera, Aulki Donean, Jaurle bakarra.

Orregaitik itzegin zuan ainbeste, geiegi, gai orori-buruz. Erretolika-zale nabarmenegia zan gaiñera, eta bere mintzaldi askotan gari gutxi eta lasto ugariegi aurkituko duzu, batez ere aurretiko prestaketarik gabe bat-batean, ain maiz egin izan oi zituan mintzaldietan.

Erretolika-zale bezala, antzokietako era ta moduen maitale ere bazan; atsegin zitzaion, antzerkilarien antzera, jendearen aurrean agertzea: soñeiko zurian medar, luzé, burua atzera botata zerura begira, besoak gurutzaturik, edo, onespenerako, gurutzatutako bi beso luxe aiek, irikita, zabal eta astiro erabilliz. Egia da, berak nai gabe ere, bere gorputz lirañak asko laguntzen ziola artarako. Bere kultur neurrigabeak laguntzen zion bezala.

Zoraturik gelditzen ziran ainbeste tokietako erromesak Aitasantua beren izkuntzan garbi, errez, eta txukun mintzatzen ikusten zutenean; arriturik jakintsuak eta teknika-gizonak, Aitasantua beren jakintza bereizietan ain dotore jantzia aurkitzen zutenean.

Agian bere burua ain ornitua ikusten zualako ez zuan Pio XII'ak besteengan inoiz uste osorik izan. Maglione erabili zuan asieran Estadutzako Idazkari. Eta au iltzean, (1944), ez zuan Idazkari berririk izendatu, bi idazkari-ordezko baizik, bi "substituti", Tardini eta Montini; berak eraman nai izan bait zituan pertsonalki arazo guztiak.

Aulki Donean Estadutzako Idazkaririk ez izate orrek indar aundia eman zion "Sancto Offizio" izeneko erakundeari eta onek beti berea izan duan "eskubikeriari".

1950'a ezker, ordurarte aski irikia izandako Pio XII'aren jokaera guztia egin zan estuagoa, latzagoa, integristagoa. Estutasun orren aztarnak ditugu "Humani Generis" entziklika, liburu askoren "index"ean sartzea, irakasle ospetsu batzuen aurka artutako erabakiak, komunismoaren aurkako aginduak, langilleek olen zuzendaritzan parte arteaz geiago ez itzegitea, "kristau progresisten" gaitzespena, katolikoei ezkatolikoekin arremanetan asteko ipiñi oi zitzaizkien eragozpenak...

Neurri oiek Aitasantuaren asmaketa ziran ala bere inguruko adiskideena, nork lezake jakin? Kardenaletan eta gotzaietan usterik ez zuan bezala, siniste osoa ipiñi bait zuan ixillean beti aldean izan zituan adiskide kuttun batzuegan. Orregaitik esan oi da nepotismura ixuri-xamarra izan zala.

Adiskide aiek inakitarak ziran geienak, doixtarrak; Alemani'ren miresle sutsua izan bait genduan Pio XII'a. Merezi dun gauza da isillezko aolkulari garrantzitsuenetako aien izenak argitaratzea: Bea, bere aitorlea; Leiber, bere idazkaria; Hendrich, irakurgarri zirala iruditzen zitzaizkion galak izparringietan azpimarratzen zizkiona; Hürth, sendi-arazoetarako aolkularia; Gundlach, gizarte-arazoetarakoa...

Ez da erreza, gizon auek eta gaiñerako adiskide eta lagun isillek Aitasantuagan zenbaterainoko eskua izan zuten jakitea, baiña Aitasantuaren uste onaz maiz baliatu oi zirala esaten digu edestilari batek baiño geiagok. Orregaitik izenpetu ote zuan Espaini'rekingo konkordatoa?

Pio XII'a ez zan konkordatoen zale, ikusi bait zuan konkordatoak bizitza urriko landareak zirala. Izan ere, Benedikto XV'ak eta Pio XI'ak izenpetutako konkordato ugariatatik, bik bakarrik zirauten bizirik Bigarren Ludi-Guduaren ondorengo Europa artan: Itali'akoak eta Portugal'ekoak.

Espaini'rekin ere ez zan jendeak uste duan bezain goxoa izan konkordatoaren prestaketa. Ez bait zion Pio XII'ak inñolaz ere Franko'ri eman nai, onek bein eta berriz eskatzen ziona: gotzaiak bere kasa aukeratzeko eskubidea.

"La Saint-Siége n'entendai á aucun prix revenir en arriére sur ce point", esaten digu gaur-eguneko Elizaren edestia ondoen ezagutzen dutenetako batek, Lobaina'ko Unibersitateko Roger Auvert irakasleak. Franko'k, Espaini'ko erregeek izan zuten almen zaar ori nai zuan beretzat,



baiña "Aulki Donea ez zegoan, kosta ala kosta, puntu ortan antziñako denboetara atzera-egiteko asmotan".

Orregaitik, zailla, geldia, oztopoz betea, izan zan konkordatorako bidea. Une-unekeo Itun bat izan zan aurrena, 1941'ean izenpetua; beste bigarren Itun bat 1946'ean, alditxo baterakoa, probisional, au ere; 1950'ean, ostera Itun ura konpondu bearra izan zuten Españi'ko Diktadoreak eta Aitasantuak, itzegin eta itzegin ez bait ziran beren ordezkariak gotzaien autaketako puntu artan batera etortzen.

Azkenean, 1953'ean, izendatu aal izan zuten Franko'k ain gurazko zuan konkordato ura, ez noski iñor amore eman zualako, alde batekoak eta bestekoak erdiko bide bat aurkitu zutelako baizik: Gotzaiak ez zituan ez Franko'k ez Aitasantuak aukeratuko; biak batera aukeratuko zituzten. Ona nola:

Franko'k iru izen aurkeztuko zizkion Aitasantuari; Aitasantuak, iru izen oietatik bat aukeratuko zuan gotzai. Aitasantuari iru izen oietatik iñor atsegin ez ba'zitzaion beste bi iru aurkeztuko zizkion Franko'k eta aiek ere Erroma'ren gustokoak ez ba'ziran, iare gelditzen zan Aitasantua berak nai zuana izendatzeko.

Itunben ortan garaille irtetzen zitzaigun Franko; garaitza orren ordaintzat oparo eman zizkion, Franko'k Elizari, Laterriaren bizitza guztia katolikoa izanen zalaren itza, erakuskintzan eta erri-moralitatean gotzaidiari zuzendari izateko almena, gudaroztean, espetxeetan, Alderdi Bakar fatxistaren gaztedietan eta Elizak nai zuan toki guztietan apaizak kapillau ipiñi aal izatea, apaizgaitegiak eta Jauretxeak txukun zaintzeko, edo berriak egiteko, eta apaizak mantentzeko, dirua...; eta, gotzai, aiek beti ain gogoko izan duten losintxakeria.

Zearo pozik gelditu ziran kuriatarrak Erroma'n, eta gotzaiak, apaizak, eta praille-jende guztia Españi'n, konkordato berri arekin: "tipo ideal de concordato con un Estado católico" (Llorca-García Villoslada). Ez al zion bâ Franko'k, Laterriaren aldetik Elizari, katolikotasunarentzat laguntza eta babesa, "protección y defensa", eskeintzen eta agintzen?

Oso zebiltzan oker garai artako elizgizonak. Franko'k ez zion Elizari ezer ematen, edo, obeto esateko, Elizari ematen zion guztia, bere buruari ematen zion; bai bait zekian, munduaren aurrean bere babesik aundiena "Elizaren Salbatzaille" lez agertzea zuala.

Orretxegaitik nai zuan bere burua Elizarekin eskuzabal eta amoretsu agertu. Elizari ematen zizkion txanpon urri zeken aiek, bere buruaren propagandarik egokiena zituan jeta merkeenal Apaizak, unibersitateetan, gudaroztean, ikastoletan, bere Alderdiaren erakundeetan, irakasle, kapillau ala aolkulari, nai zuten bezala ibiltzeak, ez zion burukomiñik ematen, atsegin aundia baizik, bere eskuetan bait zeukan apaiz aiek aukeratzea.

Erne egon ziran beti Franko'ren mandatariak "Falange"aren aburukoa

agertzen ez zan apaiza zigorrez isiltzeko. Egiaz, ez zuten ontan mandatari aiek Euskalerritik landa lan aundirik izan; ala bait zegoan, Elizaren lotsarako, apaiz jende guztia "Jainkoak bidalitako salbatzaille bereizia" zala sinisten zuan diktatorearen besoetara iraulia.

Franko'ren iritziz, konkordatoa izenpetzearekin "Españi'ko gurutzada" sagaratzen zuan Aitasantuak, eta "gurutzada" ura irabazi zuana, Franko bera, ludi guziaren aitzinean Kristautasunaren Salbatzaille aitortu eta aldarrikatu. Ez zan ori Pio XII'aren asmoa, baiña ez zebillen atzipeturik bestea; arek, Franko'k, nai zuan bezala ulertu bait zuan mundu guztiak konkordatoaren izenpetzea.

Gotzaien autaketaren punttuan batez ere atera zan Franko garaille, naikoa bait zuan bere jokurako iru izenen aurkezte ura; bazekian bâ iru izen aiek Aitasantuaren gustokoak izango zirala. Baiña baita Franko'renak ere! Ez zan arazo zailla ori lortu aal izatea. Franko'ren gustokoak izateko, naikoa zuten aren politikaren aurkakoak ez izatea, eta Aitasantuaren gustokoak izateko, gizon otoizkoiak, akats ezagunik gabeak, eta argiak, izatea. Ez, Franko'ren gurariz beintzat, argiegiak; gotzai oso argia, beti bait da diktatore batentzat arriskugarria. Eta, ori, Franko'k bazekian ongi.

Ondorio txarrak izan zituan konkordato arek:

-Ikastoletan eta unibersitateetan indarrez eta irakasle egokirik gabe erakutsitako katolikotasuna. (Gure gaztedia elizatik kanpora eraman duan arrazoietakoa bat, ori izan da, nere ustez);

-Diktatoreak emandako dirua ez da apaizak era egokian mantentzeko lain izan, baiña bai, jendearen aurrean, apaizak diktatorearen otsein lez agertzeko;

-Gotzaiak beti gobernuarekin naasita ikusteak, Laterria eta Eliza bat dirala sinisterra eraman ditu eskubitarrak; eta katolikotasuna ta frankismoa gauza bera dirala uste izatera, ezkertiarak.

Zergaitik izenpetu ote zuan konkordato-zale ez zan Pio XII'ak Elizarentzat batere onuragarri ez zan konkordato ura? ¿Iñakitarrak artara eraman zutelako? Franko'ren diplomaziak atzipetu zualako?

Iñorengan konfiantzarik izan ba'zuan, iñakitarrengan izan zuan Pio XII'ak konfiantza; Iñakitarrak genituan, berriz une artan frankozalerik audienak Eliza-baitan, Ledochowsky zuzendari nagusiak artara bultzata. Askoz leenagotik, Españi'ko gudaren asiera beratik, "la Compañía de Jesús había concedido a Franco los máximos honores y beneficios espirituales de la orden en categoría de fundador, contadas veces otorgada a lo largo de cuatro siglos de historia. A la hora de su muerte, (de Franco), --rezaba la carta del padre general Wladimir Ledochowsky, ardiente partidario del Caudillo--, los treinta mil jesuitas del mundo ofrecerán tres misas por su alma. ¡90.000 misas!" (R. de la Cierva).

Gogoan euki bear dan gauza da konkordatoa 1950'garren urteaz

ondorengoa dala, Pio XII'aren aitasantutzan eskubialderako eta integrismoruntzako biraketa asi ondorekoa; eta ezin aztu dezakegu, denbora artako josulagunak, aski eskubitarrak eta integristak zirala, geienak. Alatagutziz ez daiteke zeatz esan josulagun aiek konkordatogintzan eskua sartu zutenik. Baina ikusi dugu XII Pio'ren aolkulari kuttun izkutuzkoak danak ifakitarrak izan zirala.

Franko'k atzipezu ote zuan Aitasantua? Ez da erreza, Pio XII'a ain begi zorrotz eta adimen argiko gizona izanik. Konkordatoan lege-egindako gotzai-autaketen era ark, gaiñera, bai bait du Franko'ren interesen kontrako zirriku bat, Franko'k ikusi ez zuana, eta urteak geroago Paul VI'ak, nai dituan gotzaiak, Franko'ri deus esan gabe, Españi'rako izendatzeko erabili duana: gotzai laguntzaillei-buruzko zirrikua. Franko'k ez ikusitako zirriku ori Pio XII'ak ikusi ba'zuan, Aitasantua diktatorea baiño askoz argiagoa izan zala aitortu bearrean gera.

Ala izan ba'zan ere, Españi'ko ezkertiarrek ez diote Pio XII'ari Franko'rekin erabili zuan politika-era barkatu. Eskubitarrak ordea benebenetan izan dute, eta oraindik ere dute, almen guztiz maite; naiz Pio XII'ak frankismoaren alde ifioiz agerpen nabarmenegririk egin ez, sumatzen bait dute Franko'rentzat aren jarduera txit onuragarria izan zala.

Euskaldunok berriz ezin aztu izango diogu 1941'an Franko'rekin egin zuan Ituna ezkerro, bere jarduera aren erruz, emen jasan bear izan ditugun gotzai Euzkadi-zanpatzaille eta Españi-gurtzailleen astunkeri mingarritzko zama: ta gure izkuntzak eroan bear izan duan zigor erailtzaillea; ta gure demokrazizko politika-aburu eta sentimen guztiei ipifi izan zitzairen kate odoltsua.

Alatagutziz bego lasai beste munduan Pio XII'aren gogoa:

Euskaldunok, beti ankapetuak eta beti bazterrera boteak izatera oituak bait gaude; ulertzen dugu gure Erria, erri txikia dala eta orregaitik gure arazoak, eta nekeak, ez dirala munduaren zabaleran Aulki Donearen garaitasunetik errez ikusi aal izateko modukoak; ulertzen dugu, bait'ere, une aietan, gero "Gudu Otzaren" beste urte aietan bezala, gure auziak edozeifni aztuarazteko, zalapartarik aski mundu zabalean bazala, eta errez ikusten dugu, mundu guzia irugarren ludi-gudu baten bildurraren azpian izaturik zegoanean, ez dala arritzekoa, itxuraz beintzat pakean zegoan Españi'n, seguruaski alperrikakoa izanen zan iskamil bat geiago sortarazteko gogorik Aitasantuak sentittu ez izatea.

Ez dakigu gaiñera, bere kontzientziaren barrunbetik zerk eraginda konkordato ura izenpetu zuan. Ez ditugu, ezta're XII Pio'k izan zituan merezimendu eta doaiak ukatzen: gizakumeen artean gutxitan aurkitu aal izan diran doai arrigarriak: Adimen argia, oroimen aundia, naimen sendoa; izugarritzko kultura; jendea bereganatzeko lilluramen bereizia; lanerako ifiorik ez bezalako joera eta gaitasuna; otoitzerako ta mistikarako, gutxiak aifnako

zaletasuna eta ixuria... ¡Bazan Pio XII'a, bere eginkizun gurenerako, egoki jantzitako gizona!


Eta Pio XII'aren merezimenduetaz ari galararik, ezin laga dezakegu ixillean, bera izan zala,

- Irratia, aundikiro, noiznai, eta munduari itzegiteko erarik egokiena lez erabiltzen, Aitasantuetan aurrenekoa,

- Munduko gizakume guztiei, kristauei eta kristau ez ziranei sarri itzegiten, lendabiziko Aitasantua,

- Elizaren oraingo aldaketagintzan lendabizi asi zana. "Much of the agenda of the second Vatican Council was already treated in one or other of his encyclicals" (Encyclopaedia Britannica). "Bigarren Batikan-Kontzilioak erabilliko dituan gaietatik asko, aren entziklika batean edo bestean, jaurkitzen dira"! "Aggiornamento" itza bera ere, Jon XXIII'ak baiño leenago, Pio XII'ak erabilli zuan aurrena. Eta,

- Bigarren-Ludi-Gudakoan, bera izan zan mundu guztian, pakearen alde lanik geiena egin zuan gizona.



## BIGARREN LUDI-GUDUA

Aurrena Alemani'n nuntzio eta gero Aulki Donean Estadutzako idazkari, ederki gertuturik zegoan XII Pio bigarren ludi-guduko arazoei aurpegi emateko. Ez-arian bezala esan dezagun eundaka urteak zirala Estadutzako Idazkari bat Aitasantu egiña izan ez zala.

Bere jakinduri zabalak, batez ere legiztiari ta diplomazi- ari\_buruzko bere jakintzek, eta ainbeste izkuntzen jabe izateak, asko lagundu zioten XII Pio'ri gudu-arteko ekintza larri aietarako

Aulki Donea ber-bera ere arras ongi prestatua aurkitu zuan, diplomaziaren bidez gudua gozaten saiatzeko. Orixe izan bait zan gudatekoan bere ariketa osoaren elburua: minduei laguntzea, eta, al zuan guztia, pakearen alde lan egitea.

XV Benedikto Aitasantutzara igo zanean oso gutxi ziran Aulki Donean ordezkari bat bazuten Laterriak. Baiñan, Aulki Donearen ospea Aitasantu ark ain gora jaso zualako, eta aren ondorean XI Pio'k ospe on ura goian ederki gorde zualako, XII Pio autatua izaterakoan, apika bazan, Errusi komunistaz landa, garrantzizko Laterririk, Aulki Donean ordezkari bat ez zuanik.

Pio XII'a bezain Aitasantu eginkor batentzat, ez zan ori adiontasun koxkorra.

XV Benedikto'ren bide beretik ibilli zitzaigun XII Pio pakearen aldeko jardunketa bizkor artan, une oroz, nekatzeke, pakea aipatuz eta gorapatuz. Borrokalari guztiekin gorde nai izan zituan adiskidetasunak, danei, maitasun berdiñez, on-egin naiean; bere alboan eutsi zien Laterri guztietako ordezkarietara, ortarako XV Benedikto'k pentsatu eta XI Pio'k ain egoki burututako Letran'go Itunetik sortu zan Batikan-Uriaren laterritasunaz baliaturik.



Ondo ezagunak dira, gizadiaren, errialde bakoitzaren eta gizakume soillen eskubideetaz mintzatuz Batikan-Irratitik ater gabe jalki oi zituan

itzaldiak. Zauritu, elbarri, erbesteratu, umezurtz, ala goseti, danentzat, beartsu guztientzat egon ziran zabalik Aitasantuaren eskuak eta biotza.

Eta, on-ekintza oietan jarraitu aal izateko, XV Benedikto bezala, ez zan sekulan ez alde batera ez bestera makurtu. "He was careful never to commit the Holy See to either of the belligerent camps nor to join any ideological crusade, whether against communism or against nazism" (J. Douglas Woodruff). "Arreta aundia ipiñi zuan, borrokalarien alderdi batekin Aulki Donea lotu ez zedin; eta, komunismoaren aurka ala nazismoaren aurka, politikaz-ko gurutzada batean ez sartzeko"

Oroi, orixe bera izan zala I Ludi-Guduan XV Benedikto'k erabili zigun jardunkera

Bai noski, bai; badakigu Benedikto XV'aren denboretako Kaiser alemaniar aren guda eta XII Pio'ren denborako Hitler eta Stalin'en gudu au ez zirala berdiñak izan; eta, orduan borrokaren azpian, alde batetik eta bestetik, abetzalekeria besterik egon ez ba'zan, orain, ideologia, arras ideologi baldarra, ari zala mundua sutan jartzen; eta orregaitik ain zuzen, bearbada, Pio XII'a beartuagoa aukitzen zala itzegitera XV Bendikto baiño.

Badakigu, baitare, badakigu, eta bazekian ori XII Pio'k ere, bigarren gudu au, beste aurreneko ark baiño anitz oiñaze ta gaitz okerragoak eta ondamen aundiagoa sortu bearra zala; eta, orregaitik, borrokaren azpian zeuden oldozkera baldarrak gaitzestea baiño garrantzi geiagokoa iduritu zitzaion munduaren gaiñera jaustear ikusten zituan oker aiek eragozte, edo, beitzat, al zuan guztia goxatzea.

Ori zala-ta, bere baitan, lendabiziko eginkizuna, bearren-bearrena, pakea lortzen saiatzea zuala erabaki zuan.

Idelogia-ri-buruzko arazoak gero ere konpondu zitezkean, edo, bai beintzat, onetsi edo gaitzetsi, konpontzen ez ba'ziran ere.

Guduak zekarzkian milloika ta milloika eriotz aiek orde, geroago konpoduak izaterik ez zuten, ildakorik ez bait da berriro bizitzara erakartzen. Pakea egin bear zan beraz len-bait-len. Eta pakea len-bait-len lortu bearra zala, gizadi osoari oiue egiteko, tokirik eta erarik onenean zegoan gizona bera zan: Bati-kan-Laterri iare paketsuan, Aitasantua, gizakume guztien aita.



Baiña ortarako bear-bearrezkoa zuan borrokalaria guztiekin arremanetan irautea. Esanik utzi dugu, "iñorena-ez-izate" garbiaren bearra, ots, "neutralitaterik" aratzenaren bearra, zenbateraiño egon zan Pio XII'aren gogoan errotua. Badakizu orain, zerk eraginda egon zan ain sakonki errotua: gudatetiko oiñaze gogorra biguindu nai izateak eta

pakea lortzeko al zuan guztia egiteko prest egon nai izateak eraginda.

Ibilli bai, komunistak izan ezik, alderdi bateko eta besteko borrokalarriak danak ibilli ziran Aitasantua berenganatu naiean.

Ala, "he refused the constant pressure of the Germans and the Italians to treat the invasion of the Soviet Union as holy crusade against atheistic Bolshevism. He also refused to say as much as the Allies wanted, and did not denounce Hitler in terms so outright that would shaken the civic allegiance of German catholics".

Euskeraz:

"Hitler'ek sobietarrei ekin zienean, leiaz ari izan zitzaizkion alemaniarrek, -- eta italiarrak--, borroka ura gurutze-guda izendatu zezala eskatzen. Zalantzarik gabe egin zien arek uko. Beste aldekoiei ere uko egin zien bezala, auek Hitler'en aurka beraiek gura zuten guztia esanerazi nai izan ziotenean, eta alemaniar katolikoek kontzientzia estutasunean ipintzeko bezain era gogorrean ez zuan iñoz Hitler'ik salatu" (Enc. Brit.).

Ziur-ziur uste izan bait zuan XII Pio'k pakearen alde lan egiteko bi alderdien erdian egon bearra naitanaiezkoa zuala.

Aitasantutza artu orduko asi zan pake-zaintzan.

1939 artako jorraillaren aurreneko egunean amaitu zan Españi'n anaiarteko gudua. Ez zuan ordea gudu-amaitze ark pake-aro baten asierarik aldarrikatzen. Aski argi zegoan XII Pio bezain gizon argi batentzat, Españi'ko borroka odoltsua, munduari gaiñera zetorkion beste borroka odoltsuago baten ataria izan zala.

Orreagaitik asi zitzaigun bereala Aitasantu berria, gaiñera zetorkigun ondarena eragozteko al zuan guztia leiatzen.

Orrillean, Alemani, Poloni, eta Frantzi, batzar batean nai izan zituan bildu. Inakitar bat, Tacci-Venturi, erabili zuan, iñoz bildu ez zan batzar ura gertutzeko; XI Pio'k Mussoli-ni'rekingo arazoetan erabillitako Tacci-Venturi ura bera.

Baiña tamalez, Hitler, kosta-ala-kosta, Alemani'ren mugak, Bertsalles'ko Itunak Alemani'ri tajututako muga trakets aiek, urratu naiean aurkitzen zan. Itali'k berak ere bazigun bere mugak Frantzi'ren lepotik zabaltzeko guraria; Frantzi'pean bait zeuden Niza (Garibaldi'ren sorterria), Saboia guztia, eta Kotzega ugar- tea.

Mussolini ordea, bera bakarrik, ez zan iñolaz ere gudan asteko gauza izanen, aurretik Hitler'k Poloni'ri ekiten ez ba'zion. An, Poloni'n, zegoan gudaren txinparta sortu zezakean sukarria.

Orregaitik, dagonillean, Poloni'ra zuzendu zituan Pio XII'ak bere arreta guztiak, eta antxe, Bartsobi'n asi zan diplomaziaren bidez guda eragozteko saiaketa bizian.





Zori txarrez, gudak berak moztu zituan, errotik, Aitasantuaren saiaketa aiek danak; bereala, irailaren lenengo egunean eraso bait zion Hitler'ek sarkaldetik Poloni gaixoari. Ta, Hitler'ekin batera, sortaldetik, Stalin'ek! Ortarako, puntu askotan ain berdiñak ziran diktatoretzar aiek, itun bat izenpeturik bait zeukaten aurretik, bien artean Poloni nola zatitu erabakiz.

Dagonillean egin zuten itun ura, eta illabete baiño lenago eraso zioten Poloni'ri. Ez zueden noski geldi ibiltzekotan. Ezer gutxi lortu zezakean XII Pio Aitasantu berriaren diplomaziak gudu-gosezko giro deabrukoi artan.

Bazuan Poloni'k Alemani'rekin, amar urteko pake-babesa ematen zion itun bat; Alemani'k eta Poloni'k bata besteari amar urteko epean gudarik egingo ez ziotela itz emanez, 1934'ean Hitler'ek eta Pilsusky'k izenpetua. Gauza jakifia da ordea itunek eta oorezko itzek totalikerizaleentat zer balio duten. Ordurako ondo jakifia genduan emen euskotarrok ori. Jakin zuan orduan Poloni'k ere. Oso laister jakinen zuan mundu guztiak berak.

Hitler'i dagonil artan ain gogorki aurpegi eman nai izateko, bazuan Bartsobi'ko Jaurlaritzak sarkaldeko bi demokrazi-erri aundiek, Frantzi'k eta Inghlanderriak, laguntza emango ziotelaren itxaropena, biek in itzemanik bait zegoan alkarren babes orrokorerako. Bete zuten bi demokrazi aiek beren itza. Irailaren 1'ean jo zuan Alemani'k Poloni. Andik bi egunera, irailaren 3'an, Frantzi eta Inghlanderria Alemani'ren aurka gudan ziran.

Pizturik zuekan begien aurrean XII Pio'k munduak ezagutu duan giza-erailketarik aundiena eta ankerrena.

Sugar ori itzaltzeko al duan guztia egitea izango da, azkeneko tirora arte, Aitasantu berriaren lendabiziko eginkizuna.

Ortarako, bi izkillu besterik ez zuan: bere izketa eta bere diplomaziketa. Biak erabilliko ditu atertzeke asmo onegarri orren serbitzura.

Eziñezko gauza dugu gai orri-buruz egin zituan itzaldi guztiak zenbatzea; gudateko bere itzaldi danetan egiten bait du egiazko pake oso bat len-bait-len lortu bearraren aipua.

Diplomazizko ekintzei dagokienez berriz, "edestiak esango digu XII Pio'k egin zuan guztia", idatzi zigun, gudaren lenengo urte artan Aulki Donearen alboan Frantzi'ren ordezkari zan D' Ormesson jaunak.

Pakegintzako giro ortan izan bear dute irakurriak eta ulertuak Roosevelt Lendakariaren eta XII Pio'ren arteko eskutitzak. Eta baita Mussolini'ren eta XII Pio'ren artekoak ere.

Giro orren eraginpean genduan XII Pio, gudaren aurren-aro artan, Hitler Jaurlaritzatik kentzeko prestatu zan igikunde bati, abegi onez

begiratu omen zionean --, edestilari batek kontzatzan duan ori egia ba'da beintzat --.

Igikunde ori Alemani'ren barruan borroka asi ta bela prestatua izan omen zan, guda aurreko "statu quo" edo "lengo egoera" oiñarriztat artuz ostera len-bait-len Europa'ko lurretan pakea birrezartzeko. Tamalez, asmo utsetan gelditu zan guztia.



Lau illabete zeramazkian guduak sutan, abenduaren 29'an XII Pio'k, XV Benedikto'ren bidetik abiatuz, bere "Bost Ataltxoen" itzaldia jaurti zuanean. Ona emen, pakearen oiñarriztat gure Aitasantu onek ezarri nai izan zituan bots ataltxo aiek:

1ª: Izamena, -- ots, iarea izan aal izateko eskubidea -- nazio ororentzat;

2ª: Laterri guztiek izkillutegia moztutzea;

3ª: Laterriarteko itunak babestearren Laterri guztien gaindiko Erakunde bat asmaatzea;

4ª: Erri guztien lei eta gurari zintzo guztiak aintzat artuak izatea;

5ª: Zuzentasunezko zentzu biziago batera Laterrietako jaurle oro nola beartu, aztertzen astea.

"Bost Ataltxoen" ekintza ortaz landa ere, onako itz auek, "Zuzentasuna"; "Izadi-legea", --gizarte-ekintza osoaren eragille ta epaile izan bearra dan Izadi-legea --; "Askatasuna"; eta, bere ustez pake-aro luze baterako naitanaiezkoa omen dan Aberastasunen-Zatiketa-Zuzenagoa"... oiek danak, eta gizarte--eraketa zintzo baterako izar gidari diran itz aundi guztiak, bere itzaldi ta idaztietan eten gabe erabiliko dituan itzak dira.

Esan ere esan bait daiteke, bere itzaldi ta idazti oietan kristau-etika oso bat tajutu zigula! Aldi aietan gizartiztilariek ziotena -- ta geroago II Batikan Kontzilioak sagaratuko zuana--, guztia, a edo emen barreiatua XII Pio'ren itzaldi ta idaztietan idoro daitekela.

Egia da, gure Aitasantu au gogapen utsen gaillurrean ibilli zala geienetan, eta gogapenen mundu aratzetik gertakizunen mundu loitu ontara jeisten zanean ere, iñoren izenik aipatu gabe eta iñor ez zipozteko arretarik aundienarekin jardun zala beti.

Orrelaxe mintzatu zan, adibidez, 1940'aren orrillean Hitler'ek indarrez Belxika, Olanda eta Luxenburg zapaldu zituanean, Laterri aietako Buruei,-- Belxika'ko Leopoldo'ri, Olanda'ko Gillermiñe'ri eta Luxenburg'eko Karlote'ri, bere samíña agertuz idatzi zizkien eskutizetan.

Ez dugu baiñan aztu bear, iru Laterri txiki onuragarri aiek

askatuasuna galdu izatea Aitasantuari samingarri izan ba'zitaion ere, milla aldiz mingarriagoa zitzaiola Laterrri aietako jendearen gaiñera bazetorrela aurre-ikusten zuan zigorrezko biziera latza.

Eta biziak salbatu nai zituan XII Pio'k beste ororen gaindik. Laterrien askatasuna birrirabaztearen alde saiatzeko, gero ere izango zuan denbora. Ez zuan ordea denborarik izango ildakoak berpitzuzeko.

Biziak salbatu aal izateko berriz,-- eta, baita, Laterri aietako jende zanpatuaren nekeak arintzeko ere zerbait egin nai izatekotan --, naitanaiezkoa zuan, ez batzuekin ez besteekin asarretu gabe, beti erdian, beti oreka-puntuan, egotea.

Arrazoi aundiz esan zuan, gure ustez, D' Omersson frantziar enbaxadariak, gudaren lenen urte aietan XII Pio "batzuentzat itxaropen-iturri eta beste batzuentzat amorrubide izan zala":

"Espoir des uns, gêne des autres; et toujours devant sauvegarder son indépendance et son impartialité: devant surtout préparer l'avenir. Car les orages humains n'ont q'un jour; mais l'Égli-se,-- qui les a tous connus --, demeure".

Euskeraz:

Auentzat itxaropen, eta aientzat amorrubere alderdirik-eza ta bere askatasuna gorde bearrean aurkitzen zan, etorkizuna aurretik prestatu naiez. Izan ere, gizarteko zurrumbilloak egun batekok izaten dira. Betikoa ordea, Eliza, zurrumbillo oiek danak aspaldidanik ezagutu dituan Eliza".

Ez dazagun ordea, XII Pio gogo auleko gizona izan zanik uste. Pekataririk aipatzeko gogor salatu zituan gudu anker artan egin ziran pekatu guztiak: "at a rate unprecedented in papal history". "Aitasantuen edestian ikusten ez dugun maiztasunez" gaiñera! (Enc. Brit.).

Egia. Salaketaren sarritasunari dagokionez, ordurarteko aitasantuen artean txapeldun izan bait zan XII Pio. Aulki Donearen jardunkera orri-buruzko arlo ortan, egiazko iraultzalaria!



Pozik aipatu ditugu, ain maxiatua izan dan Pio XII'az ari galararik, "Encyclopaedia Britannica" k eskeintzen dion goratarre bikain oiek. Iztegi Britaniar ospetsu au ez bait da inākitarrek, opusdeitarrek ala Aulki Doneak berak argitaratutako idaztia, inglanderaz mintzatzen diran uniberitateek,-- XII Pio'ren babesle izateko batere bearkizunik ez duten Oxford, Kanbridge, Londres, Toronto, eta Tokio'ko unibersitateen bazkun bereizi batzuen laguntzarekin Txikago'ko unibersitateak prestatua ta argitaratua, baizik.

Unibersitate oiek ez dirala Elizarenak eta ez dirala katoliko-ak ere,

eta alderantziz jakintza-kabi ondo ezagunak dirala gauza jakīña da. Zeoro fidagarriak beraz, Aitasantu baten goratzarrea egiten dutenean!

Ar'zazu eskuetan liburu oparo ortan gure Aitasantu oni dagokion alea. Arriturik geldituko zera, Pio XII'aren ariketaz nolako eraspen aundiz mintzaten dan ikusten duzunean.

Pio XII'a ez da euskaldunontzat maitagarriegia. Guk ez diogu ezer aundirik zor. Baiña Aitasantua izan zan, eta kristauak geran aldetik, aren izena ta jandunkera ain goretsiak ikusteak egiazko atsegin aundia damaigu.

Aipatu-berri dugun Iztegi ortakoak dituzu onako itz auek ere:

"He upheld the rights of minorities and of individuals". "He condemned agresive war". "He called for disarmament and criti- cized the rise of totalitarian states, though at the same time recognizing that force was necessary to back law".

Euskeraz:

"Babestu zituan gutxiengoan eta gizakume soillen eskubideak". "Gaitzetsi zuan gudu erasogillea". "Aldarrikatu zuan, izkillu-mozketaren bearra, eta baita Laterri totalitarien sorkuntza salatu ere, naiz legea gordetzeko bearrezkoa daitekean indarra ontzat etsi".


Zuri ere, euskaldun irakurle, XII Pio'ri-buruzko berri oietaz jabetzea, jbaitez alaigarri gertatu! Alaigarriagoa izango zaizu bā, goratzarre oiek 1970'ean, Pio XII, Alemani'ko juduen arazoa zala-ta, idazle askoren lumek ain zakarki erabillia izan ondorean argitaratuak dirala jakitea.

XII Pio'ren aurkako esamesa guztiak, bera il ondorengoak dira. Bizirik zegoala, gutxi izan dira gizakumeen artean ura bezain goraiatuak. Orregaitik dute ain garrantzi aundia, Pio XII'an ilda urte asko geroago idatzitako gogapen mamitsu auek: "The papacy emerged from the war with very much more influence in international affairs". "In accordance with current trends in the relations between the Church and the sotial order, Pius XII underlined the need for toleration in a maner markedly different from that of the syllabus of Pius IX" (Ibm.).

Euskeraz:

"Nazio-arteko auzietarako, askoz eta askoz itzal audiagoarekin irten zan gudatetik aitasantutza". "Elizaren eta gizartearen arteko zer-ikusien alorrean gaur-eguneko giroak eskatzen duanari dagokionez, alkarren arteko eroapenaren edo tolerantziaren beartasuna argi irakatsi zigun Pio XII'ak; ondo era ezberdiñean gaiñera, IX Pio'k Syllabus idaztian erabilli zuan erarekin kidatzen ba'dugu".

1864'ean izan zan Syllabus idatzia. Mendea bete baiño len jbai zarra gelditu zala, 1945'ean II Ludi Gudua amaitu aurretik ere, IX Pio'ren izkera!



## XII PIO ETA ALEMANI'KO JUDUEN AUZIA

Gizon-emakume, aur eta agure, sei milloi judatar erail zituan Hitler'ek gudatekoan.

Guda amaitu zan arte munduak ez zuan erailketa aren berririk izan. Inlanderriak, Laterri Alkartuek, eta Alemani'ren beste etsaiek ez zuten ezer jakin. Alemani menderatuta, eriotz-landetara iritxi ziranean, eta an agertu zitzaiena ikusi ondorean izan zuten ikaragarrikeri aren jakintza.

Ordurarte ez zuten ezer jakin.

Jakin al zuan Pio XII'ak?

Sarraski ura, ezagutzen al zuan bere osotasun guztian?

Jakin ba'zuan ere, nolako ziurtasunez jakin zuan? Agirian Hitler'en aurka salaketa gogor bat egiteko segurantza askirekin bai? Ta, orrelako segurantzarekin jakin ba'zuan, zergaitik ez zuan itzegin?

Orra or, Alemani'ko judu erailketari ta Pio XII'ren isiltasuna ri-buruz aztertu bearko ditugun punttuak.



Bigarren Ludi-Gudua amaitu bezain laister itzuli zituan mundu guztiak Erroma'runtz begiak, XII Pio'ri bere esker ona agertzeko.

Mundu guzia zegoan Aitasantuarekin pozik; mundu guzia eskertsu. Eta beste iñor baiño eskertsuago juduak! Izan ere, Lenengo Ludi-Guduan XV Benedikto bezala saiatu bait zan Bigarreanean XII Pio al zuan guzia mundu guztiari laguntzen; eta juduei, bearbada, beste iñori baiño geiago.

Bi erakunde sortu zituan Erroma'n gudateko ezbearrei aurpegi emateko: "Laguntza-Bazkuna" zeritzana, bat; eta "Informaziorako Langela" izenekoa, bestea. Millaka eta millaka iristen ziran eskariak, Batikan-Urira, ludiko bazter guztietatik. Europa gaixo odol-ustutik, batez ere.

Ondo dakigu, uri osoak nola izan ziran borrokaldi artan bonbaz eta su kiskalgarriz ezereztuak; milloika jende nola aurkitu zan bizitokiz aldatu-bearrean, eta nola jausi ziran errialde osoak etsai ankerren menpera. Alemani'ren menpera, aurrena; Errusi'ren menpera, gero.

Mingarri zaigu, eta lotsagarri, urte nardagarri aietako oñaze zenbatu-eziñak oroitze utsa. Gudari zaurituz beterik egon ziran gaixotegiak; gudari ta katigu arrapatutako edozein motako jendez gañezka baitu-landak. Oroi zenbat Laterrik bere askatasuna galdu zuan, sei urte mingarri aietan zenbat politika-naasketa izan zan, eta naasketa oien erruz, zenbat gizon-emakume espetxeetara jausi ziran ala "konzentrazio" edo "katigu-bilketa-landetan" abereak bezala pillotuak izan ziran.

Alde ontako jendeek ez zeukaten beste aldean gelditutako beren aideen berririk jakiteko modurik.

Borrokalari guztien gaindik, alde batean eta bestean zer gertatzen zan jakiteko, eta ango eta emengo zorixarpetu guztiei laguntzeko beti prest, beste inor baiño era egokiagoan, Aitasantua zegoan, Aitasantua bakarrik.

Orregaitik, Aitasantuarengana zetozen, aide galduen berri jakin naiean, millaka ta millaka, andik eta emendik, gaut'egun, minpetu guztien oiua. Danentzat egon ziran zabalik Batikan-Uriko ateak; baiña, bereiziki, juduentzat! Izan ere, auek, judu gaixoak, izan bait ziran totalitarien agintzapean gizakumerik zorigabekoenak.

Bazuten beraz arrazoirik naiko judatarrek gudua amaitu zanean XII Pio Aitasantuari beren esker ona agertu nai izateko.

1942'an asi zan juduen eraiketa Alemani'n. Sei milloi omen dira, judatar izate utsagaitik, zar ala gazte, aur ala agure, eriotz-labe-etan bizia galdu zuten gizon-emakumeak.

Erailea bera ere, Hitler, judu-odolekoa izan zala esan dugu noski. Judatar baten billoba zan. Judatarra izan bait zuan amona, bere amaren ama. Bazebillen noski, inpernukerizko sarraski aren azpitik Hitler'en sikologiari dagokion zerbait. Zer nai ote zuan Hitler'ek? Bere amonarengandik zekarren "akats" ura sei milloi judu sarraskitu aien odolez garbitu.

Sei milloi errugabe, gaur bai eta biar ere bai, iru urte luzeen epean, lurrin edentsuz eraillak, eta gero labe kiskalgarrietan erreak... eta, naiz ori guztia jakin, Aitasantua isilik! Deabrukeri aren aurka itz bat esan gabe..., isilik betil, XII Pio. Izan ote zuan ereaiketa orren berri? Ez beintzat zenbaki ikaragarri oien jakintzarik! Alemani'ren etsaiek ez zuten ezer jakin. Jakin ote zuan zerbait berak?

Arrigarria, bai benetan, gure Aitasantu aundi aren isiltasuna!

Naitanaiez saiatu bear du edestilari kristauak jardunkera arrigarri orren zioa billatzen. Zer izan ote zan Pio XII'aren ixiltasun aren arrazoia?



Esan dezagun, asteko, Alemani'n juduei gertatukoa jakinda ere, Aitasantuaren jokaera artaz ez zala inor arritu. Ez zuan inork XII Pio'ren isilik-egon-izaterik ezertarako aipatu. Bera bizi izan zan artean, ez zuan Aitasantu

ark, bazter guztietatik, onespena besterik jaso. Gero asi ziran esamesak, kritika latzak, salaketak, eta irainketak. Aitasantua il zanean.

Tamalez, il zanean! Oker-itzegite aiek bera bizi zala jaso ba'litu, izango bait zuan bere burua zuritu aal izateko adiontasuna. Judu-ilketako arazo ikaragarri artan zergaitik isilik gelditzea erabaki zuan esango bait zigun!

Baña salaketa aiek asi ziranean illik bait zegoan bera, beste batzuok egin bearke dugu XII Pio'k Alemani'ko judu eraillen arazo ikaragarri artan erabillitako jardunkera arrigarriaren azalpena.



Mundu guztiko jende arruntaren artean, antzerki batek aizatu zigun auzia, XII Pio Aitasantuaren izen ona zalantzan ipiñiz. "Der Stelvertreter", "Ordezkarria", izan zan Hochhut alemaniarrek idatzitako antzerki aren izena. Gogoan izango duzu noski, 1961'eko elerti-lan arek kristaudi osoan sortu zuan iskamilla.

Katoliko-sail aski mardul batzuk, François Mauriac aitzindari zutela, XII Pio'ren isil-egote aren aurka irten ziran.

Beste batzuk, batez ere edozer gauzetan, beti, Aitasantua baiño aitasantuzaleago azaldu oi zaizkigun oiek, Aulki Donearen donetasuna babesteko, "ez zuala XII Pio'k judu-erailketa aren berririk izan", oiuegin zioten munduari.

Ez da ordea egia oiukatu zuten ori. Pio XII Aitasantuak bazuan erailketa aren berri. "En este punto de la persecución antisemita la Secretaría de Estado tuvo informes, en una época relativamente temprana, del modo cómo se había organizado el asesinato de judíos" (Redin - Repgen. Marciano Villanueva'k gazteleratua).

Oso-osoan, bere ikaragarritasun osoan, ¿izan ote zuan Estadutzako Idazkaritzak hitlertarren ekintza zikin aren ezaguera? "Un documento de la Secretaría de Estado (5, Mayo, 1943) habla de la espantosa situación de los judíos polacos y menciona las cámaras de gas" (ADSS.= Actes et Documents Saint Siège relatifs a la seconde guerre mondiale)

Judu gaixo aien zoria, agirian Hitler'en aurka gaitzespen bat egiteko bearrezkoa zuan eskiertasunaz... ¿ezagutzen ote zuan XII Pio'k? Ezin izango diogu galde orri ziur erantzun, Batikan-Jauregiko idazkitegiak oraindik itxirik daudelarik.

Kroazi, Yugoslabi'tik bereizita Laterri iare egin zuten Alemani'k eta Itali'k. Hitler'ek, ango judatar guztiak Alemani'ra bidaltzeko, agindu zion Kroazi'ko Jaurlaritzari. Bertako uri-buru dan Zagreb'eko goitzaiak eskatuta, beneditar bat, Dom Marcone, bidali zuan Aulki Doneak Korazi'ra, juduen alde al zuan guztia sailtu zedin.

Ona, zer idatzi zuan Aulki Donera Dom Marcone'k beste eskutitz askoren ondorean:



"El Gobierno Alemán ha impuesto que dentro de seis meses todos los hebreos residentes en el Estado Croata deben ser transferidos a Alemania donde según me ha referido el mismo Kvaternik (jefe de policía) han sido asesinados en los últimos tiempos dos millones de judíos. Parece ser que esta misma suerte es la que les espera a los hebreos croatas, especialmente si son viejos o incapaces para el trabajo" (Schenk Sanchiz).

Ertzaintzako buruzagi batek Zagreb'en beneditar bati esandakoa bakarrik, ¿naiko segurantza al da, beste ifondik eraiketa aren berririk ez ba'zuan, Aitasantu batek orrelako arazo larri batean gaitzespen gogor bat jaurtitzeko? Badala beitzat, esango nuke nik, ikerketa sakon bat nuntzioen bidez egiten asteko. Egiña izango zuan seguruaski ikerketa sakon ori. Alatagutziz, gure Aitasantua, isilik egon zan betil

Bai ote zekian, orduantxe bertan, goi-maillako eliztarren artean, ez zirala danak isilik gelditze orren aldeko? Eta, orduantxe bertan, berak,--XII Pio'k--, Berlin'go nuntzioari "ez ezazu itzegin" esaten zion bitartean, Bulgari'ko nuntzioak,-- laister XIII Jon izanen zan Angelo Roncalli'k--, Berlin'go nuntzio ari ber-berari "itzegin bear zenuke", esaten ziola?

Baiña, XXIII Jon ez baiña XII Pio bait zan oraindik Aitasantu, onen aginduz, ez zuan ezer esan Berlin'go nuntzioak. Eta, ezta XII Pio'k berak ere.

Ori..., zergaitik?



"Ikaratu egin zalako", esan du bateren batek. Baiñan ori, norbaitek esan duan ori, ez da egia. Ori esatera ausartu daitekeana, edo XII Pio Aitasantua nolako gizon-mota izan zan jakiteke dabil..., edo Elizari dion griña makurrak darabilki.

Aitasantu orok izaten ditu adiskide eta arerio bereiziak:

- Adiskide sutsuak, Aitasantu ber-beraren gaidiko aitasantu-zaleak, Aitasantua goratzekotan beltza zuria dala uste izateko ere gerturik dauden kristau gartsuak.

- Arerio porrokatuak, Aitasantua nondik eta nola iraindu-billa atsedetik gabe ari oi zaizkigunak, aitasantutza beeratu nairik zuria beltza dala oiukatze beti gerturik aurkitzen diran oldozkera zakarreko gizakumeak.

Pio XII'a ordea adiskide-arerio-mota oietako gizakumeen gaidiko gizakumea izan genduan, zorionez.

Beste gutxi bezalako kultur oparo miresgarriaren jabea, betidanik Egiaren gurketan zaildua, mundukerienganako zaletasunak ukitu gabea, Jainkoaren egiazko maitalea, jakintzaren argiz, otoitzaren su-galdaz eta mistikaren goi-izpiz ia gorputz-gabeño gogo dizdiratsu biurtua, XII Pio ez zan bildurraren menpera jausi daitezkean gizakumeetako.

Izango zituan beste akats batzuk, baiñan, ziur, ez zan akats oietako bat bildurra. Mundu ontako neke guztiek, bizia galdu bear izateak berak, ez zuten Pio XII'ari agoa itxiarazteko aalmenik aski izango, Pio XII'ak itzegin bear zuala uste izan ba'lu.

Bein baiño geiagotan esan zuan gaiñera berak, Hitler egiten ari zan gaiztakerien aurka itzegin bearrak sakonki eta mingarriki pentsatzen zuala! "Al embajador del Gobierno Polaco en el exilio le dijo 'yo tendría que lanzar palabras de fuego' sobre las horribles cosas que están ocurriendo en Polonia. Pero la absoluta certeza de que no haría sino empeorar la suerte de la desgraciada nación polaca, le impedía hablar (ADSS).



- Era berean ez da egia beste batzuek aurkeztu nai izan diguten arrazoia: Eujenio Pacelli, aundikien seme, eta, asko edo gutxi, fatxisten miresle zalarik, judatarrengaitik kezka aundirik sentitzeko gaitasunik gabeko aristokrata izan zitzaigula. Bere sikologian ez zala, juduenganako ardurarentzat tokirik.

Egia da, bai, Eujenio Pacelli, XII Pio, aundikien seme izan zala, eta baita aski aristokrazikoia ere bere izaera guztian, naiz beti lekaide baten laztasunean bizitu. Ez da ordea egia fatxisten adiskide edo miresle izan zanik. Dirudianez, Franko'k bakarrik lortu zuan arengandik begirunearen antzeko zerbait.

Dirudianez; Atal auek bear bezala argitu al izateko ez bait ditugu oraindik zabalik Batikan-Jauregiko idazkitegiaren atea.

Eta Franko'renganako begirunea-edo zalako ortan ere, Franko beraren "merezimenduek" baiño zer-ikusi geiago izan zuten "gorriek" Elizaren aurka gudatekoan egindako ikaragarrikeri zoroek.

Hitler'ekin ordea eta Mussolini'rekin XII Pio'k ez zuan beiflere adiskidetasunik izan; Soilki, diplomaziari dagozkion arreman otz, txukun, garbiak..., eta kitto.

Juduen alde zenbat kezkatu zan berriz, birrensan bearrik ez da, juduak berak bait dira kezka aren lekukorik onenak. Ala "agertu zioten gudua amaitzerakoan juduen erakundeek mundu guziaren aurrean beren eskerrik onena": "At the end of the war Jewish bodies made public expression of their gratitude". (Enc. Brit.)



Badira, XII Pio Aitasantuaren isilik-egote aren sustraia politikaren arloan billatu nai dutenak ere. Auen ustez, komunismoaren garaitza orokor bat eragozi-naiak itxi omen zituan Aitasantuaren ezpaiñak. Errusi'ren aurka, ill-

edo-bizizko borroka gogorrean zenbillen orduan Alemani. Eta ez omen zuan Aitasantuak inñolaz ere une larri artan Alemani'ren indarrrik auldu nai izan, aulkeri artatiko onturrea jasota gudua Errusi'k irabazi ez zezan.

Naiz Pio XII'ak Alemani'ko nazional-sozialismoa eta Errusi'ko komunismoa alkarren kidekoak eta biak gaiztoak zirala jakin, bata edo bestea aukeratu bear izatekotan, jasankorragotzat omen zeukan Alemani'ko totalitarismo nabarra Errusi'ko komunismo gorria baiño.

Ikertu dezagun oldozketa-modu au:

Egia da, Pio XII'a, Alemani'aren maitale eta Germani'ako izaera ta oituren miresele izan zala. Ori, ordea, nork aurpegira jaurti lezaioke?. Baditu Alemani'k akatsak, beste errialde guztiek bezala. Baiña baditu duintasun bikaiñak ere, eta amaika ta amaika gauzetan ondo arrigarria dugu Alemani'ko erri-jende langillea.

Gaiñera, XII Pio'k ederki bereizten zituan Hitler eta Alemani; nazional-sozialismoa eta germaniar-jatorriko jendeen izaera ta kultura zaarra.

Egia da, era berean, XII Pio'k komunismoaren aurka kezka izugarriak izan zituala beti. Ez al zuan ortarako arrazoirik? Stalin zan orduan komunismoaren buruzagi, eta bazirudian komunismo ura, Errusi garaille irtetzen ba'zan, mendeetan eta mendeetan iraun bearra zala munduaren zati zabal aundi batean. Ta... komunismo aren altzoan... Elizak nola bizirik jarraitu?

Agian, kezka ortan dago Franko'rentzat izan zuan geiegizko "abegiontasunaren" zilborra ere: "Gorrien" artean ez zuan Españi'ko Elizak bizitzerik izan. Franko'ren Españi'n, jbi zi zan beintzat!. Aski lotua, bai noski, baiña bizi zan beintzat; eta, itxuraz, oparo eta bizkor. Ostera "gorriek" agintaritza Españi'n artzen ba'zuten, Españi'ko Elizaren zoria..., nork jakin nolakoa izango ote zan?

Alemanira eta Errusi'ra begira berriz, ona zer zekusan Aitasantuak: Franko'ren Españi'n bezala, Alemani'n ere Eliza bizi zan. Aski zapaldua, baiña bizi zan. Errusi'n... Eliza Katoliko'rik ez zan. Doi-doi, eta eriotzara gaitzetsirik bizi zan Errusiar- Ortodox -Eliza bera! Eliza Katolikoak, jbi zi aal izatea pentsatzerik ere ez zeukan! Izamena bera, izateko aalmena, ukaturik bait zeukan.

Orrela, Europa'ren jabe Alemani egiten ba'zan Elizak izanen zuan, zirudiane z beintzat, naiz loturik, zanpaturik, eta aski zigorturik, bizirik jarraitu aal izateko adiontasuna. Alderantziz, Europa'ren jabe errusi irtetzen ba'zan, Europa'n ez zan geiago Elizarik izango.

Edestilari batzuen arrazoiketa orrek itxura geiago du egiazko barren-indarra baiño. XII Pio'k bazekian, gudan ez zala Errusi bakarrik ari. Errusi'ren alboan ari zirala, bearrezkoa izatekotan ari eskuak lotzeko gai, Inghlanderrria eta onen beste adiskideak, Ameriketako Laterri Alkartuak bereiziki.

Orretxegaitik ain zuzen asi zan Roosevelt Lendakariarekin

diplomazizko alkarrizketa gozoan, aal izan zuan bezain laister. XII Pio'k bazekian Alemani'k gudua galduta ere, Errusi ez zala Europa'ren jabe egingo. Are gutxiago munduaren jabe. Ez du beraz balio komunismoaganako bildurra mami-duan arrazoi orrek Aitasantuaren isil-egoterik argitzeko.

XII Pio'ren buru-barnean, ez zuten sekulan komunismoaren aurkako sentipenek ain diplomazilari yayo izan zitzaigun agintari guren aren adimenik lausotu. Ikusi dugu, XI Pio'ren aitasantutzakoan Estadutzako Idazkari zala, naiz ordurako Españi'ko guda Franko'ren alde aski iraulirik egon, nola adierazi zien, Errepublikako Jaurlariei Aulki Donearen aldetasunik-eza, ots, neutralitatea, Jaurleri aiek, Españi "gorrian" jauretxeak bereala bir-irikitzeke, Aulki Donearekin izketan asteko gogoia erakutsi zuten bezain laister.

Alderdi-gabetasun ori izan zan beti XII Pio'ren jaurketa edo gubernaketa osoaren ardatza.



Ori orrela izanik, badaiteke ain oker ez ibiltzea Aitasantua isilik egon izatearen arrazoitzat alderdirik-artu-nai-eza ipintzen dutenak. Ez noski, Aitasantuaren neutralitateaganako zaletasun utsa, baizik neutralitate ura, Aitasantuak, gudua bi alderdietan on egiten jarraitu aal izateko bearrezkoa zuala uste izatea.

Alare, ez da, ori, arrazoi naikoa; gudate artan iñork errukirik eta Aitasantuaren laguntzarik bear ba'zuan..., laguntza ura bear zutenak milloika bizia galtzen ari ziran mota eta adin guztietako judatar aiek bait ziran!

Uste dezakegu zalantzarik gabe, bere sentipenek judu-erriaren alde oiu egitera bultzatzen zutela Aitasantua.

Esan dugu ordea biotzatiko sentipenek ez zutela, iñoiz ere, XII Pio'ren ekintzetan, diplomazilariaren adimenik laifnotzen. Ta, Hitler'en menpeko juduen arazo artan diplomazizko arauen erara jardun zuan XII Pio'k.

Kontuz, alabaña! Diplomaziak ez zuan arentzat izti edo zientzi bezala, berez, batere baliorik. Diplomazia, XII Pio'rentzat, al zuan jenderik geienari lagundu aal izatea besterik ez zan. Eta orregaitik ain zuzen, orretxegaitik bakarrik zuan diplomazia maite: erriei eta jendeei on egiteko eta erriak eta jendeak gaitz okerragoetatik salbatzeko, bear-bearrezkoa zuala ikusten zualako.

Eta ortantxe daukagu, ain zuzen, bere isilik-egotearen egiazko zio bakarra: Hitler'ek menpean arturik zeuzkan errialdeetako jendeari gauzak askoz okerrago ez ipintzea izan bait zan gure XII Pio Aitasantuaren isil-egote aren arrazoi bakarra. Ikusten zuan bâ itzegitearekin ez zuala ezer lortuko. Alderantziz,-- askoz okerragoa dana--, itzegiten ba'zuan, gauzak arras makurrago ipiñiko zituala.

Uste berekoa zuan Orsenigo Berlin'go nuntzioa ere. Ikus zer idatzi zion, Alemani'n juduen alde egindako saioak kontatu ondorean, 1942'ko ekaiñaren 24'ean:

"Protestar airadamente o pedir favores que no están dispuestos a conceder resulta, por lo menos, contraproducentes" (AGSS). "Contraproducente".... "makurragoa"... juduentzat; eta baita Alemani'ko katolikoentzat ere.

Bein Aitasantuak Hitler'en aurka itz egiñez gero, Alemani'ko katolikoak Aitasantuaren alde jartzen ba'ziran, Alemani'ko hitlertar guztientzat, Aitasantuaren alde jartze ura, Alemani'ren aurka jeiketzea izango bait zan. Eta orduan, juduak eriotzera zigortzez uzteke, amorru geiagoz katolikoak ere eriotzez zigortzen asiko zitzaizkigun. Zigorketa ori, ez zan Alemani'ko mugen barruan bakarrik gertatuko; Hitler'ek menpean arturik zeuzkan errialde guztietara zabalduko zan: Europa guztira!

Egiazko arrazoiketan oiñarritutako aburua zan ori. Ikus: G. di Meglio Belin'go nuntzitegiko lenen idazkariak, 1942'ko ekaiñaren 9'an, Erroma'ra etorrita Aulki Doneari aurkeztutako txostenean larri adierazten zuan,

"Que el gobierno nacional-socialista alemán dio un impulso extraordinario a la lucha contra los hebreos durante los años 1941 y 1942. Esto constituía una gradual y progresiva aplicación del programa nacional-socialista en contra de sus tres enemigos: hebreos, cristianos, y masones (Schenk Sanchis).

Eta era berean pentsatzen bait zuten Aulki Donean, ez da arritzekoa Estadutzako Idazkaritzak nuntzioen artean zabalduko diplomazigintzari-buruzko aolkua:

"Un llamamiento público sería contra productivo. Evitar a toda costa proporcionar a Alemania cualquier motivo que moviera al régimen nazi, a acentuar aun más las medidas antijudías implantadas en las regiones sujetas a su dominio y a inventar nuevas y más fuertes presiones en adelante" ("AGSS).



Alderantziz, bein Aitasantuak Hiler'en aurkako salaketa egin, Alemani'ko eta Alemani'ren menpeko lurraldeetako katolikoak Alemani'ren alde irtetzen ba'ziran, Aitasantuaren aurka irtetzen ziran une berean katoliko aiek danak. Kinka ikaragarria edozein katolikorentzat, Aitasantuaren aurka irtetze orrek bai bait darama berekin, beti, alako zisma-usai mingarri nabarmen bat.

Aldi artan gaiñera Alemani'n ez zegoan txantxetan ibiltzerik. Orduantxe aurkitzen zan izan ere bere erpiñean gudua: alde batera jausi ala beste aldera jausi, orduantxe genduan borroka, su ta gar, bere balantza-puntuuan.

Zisma aipatu dugu, eta ez alperrik, aundia bait zan orduan Alemani'n zisma sortu aal izateko arriskua. Aundia zan une larri artan alemaniar guztien abertzaletasuna.

Leendik ere, guda asi zan ezkeroztik, gutxiengo arras txiki bat izan ezik, Hitler'en alde zeuden an katoliko danak, aien ustez Hitler bait zan, Alemani ondamenetik salbatu ez ezik, Alemani'ri, "zor zitzaion" aunditasuna itzuli zezaiokean Führer edo Buruzagi Nagusia. Guda-aurrean bertan, komunismoaren bildurrak eraginda, Hitler'en alde agertu ziran katolikoak. Baita, gero, Hitler'i aurpegi emanez juduen alde geiena lan-eginen zuten aiek ere. Faulhaber eta Von Galen kardenal biak adibidez.

Oroi dezagun alatagutziz guda-aurre artan ere izan zirala katolikoen artean,--eta protestalarien artean--, totalitarismoaren aurka ederki jardun ziran jendeak; eta uste oi dan baiño geiago gaiñera. Aipa ditzagun gizakume bikain aien artean, Preyssing gotzaia, Metzger apaiza, Delp eta Mayer iñakitarrak...

Bañan gudua oreka-punttuan zegoan une artan, apika aurkituko zan alemaniar bakar bat, Alemani'k gudua galtzea nai zezakeanik. Alemani'k gudua irabazteko, ordea, naitanaiezkoa zan Alemani'ko jaurlaritzari laguntzea, ta Alemani'ko jaurlaritza berriz, orduan, Hitler bera zan: Alemani'ko Führer Nagusia.

Gaur, naiz nor-bakoitzaren aberriarentzat arriskuak orduango Alemani arenak bezain aundiak izan ez, ainbeste lekutan ainbeste "norbakoitz" kristau eskubitar Aitsantuaren eta Eliza beraren aurka nola jeiki diran ikusi dugunez gero, ziurtasun osoarekin aitortu dezakegu aro larri ta zail aietan ez zuala XII Pio'k ain oker pentsatzen, bere adimen-begi zorrotzez, zisma baten sorkuntza gerta zitekean gauza zala, aurre-ikusten zuanean.

Ezta XI Pio'k ere urte batzuk lentxeago! Bai bait zuten bi Aitasantu aiek zisma baten bildur izateko arrazoirik aski! Eta, arrisku ori gogoan artuz, Mussolini, Franko, eta batez ere Hitler, agirian ez gaitzesteko.

Naiz, totalitarismu oro zalantzarik gabe agirian gaitzetsi-bearra izan, gaitzespen ori ez egiteko, bi Aitasantu aundi aiek, arras gertakorra ikusten zuten zisma baten bildurrak bearturik ez ote ziran egon?

Ainbeste gizakume errugabeen bizitzak Elizaren osotasunak baiño geiago balio duala? Ziurki, Elizak ez du bere osotasuna gizakumeen eriotzean oiñarritu nai. Altagutziz, zisma ez da soilki Elizaren kalte. Gizartearen kalte ere bada.

Une aietan batez ere, izugarrizko kaltea izango zan totalismoaren menpean aurkitzen ziran Europa'ko Laterrietako milloika jendeentzat. Lurralde oietako katolikoak Aitasantuari bizkar ematen ziotela ikustean, bertako Buruzagi totalitari fatxistek, len baiño gogorrago erasoko bait zieten juduei, eta ez-fatxista guztiei, eta bereiziki, ta errabi aundiagoz, Aitasantuaren esanera leial jarraitzen zuten katolikoei.

Orrela, Aitasantuak Hitler'en aurka egindako gaitzespena, alperrikakoa izatez gaiñera, kaltegarria izanen zan! Arras kaltegarria gaiñera. Neurtu ez dezakegun eran, kaltegarria.

Orregaitik, XII Pio'k, ez zezakean itzezin. Orregatik ez zuan itzezin hitlertarrek Poloni'n adibidez egin zituzten izugarrikerien aurka ere. An alemaniarrek fusillatutako jende aiek katolikoak ziran. Alemani'ren etsai borrokalariai ere ba'zirala? Bai, baiña ez danak. Eta berdin Frantzi'n, Belxika'n, Olanda'n, Txekosloba- ki'n... eraildakoak ere.

Juduek beren senideen erailketa aldarrikatu dute ozenki, eta erailketa izugarri orren albistea mundua-zear zabaldu. Ongi egin dute. Baiña ez-jududatarrek ere asko dira hitlertarrek ildakoen artean. Ijitoak adibidez; ijito gaixoak. 250.000 izan ziran erio-labeetara galduak!



XII Pio'k itzezin ba'lu, ankerragoa eginen zan oraindik Hitler eroaren ankerkeria eta katolikoan aurka irauliko zan batez ere. Alemani'n bertan, Belxika'n, Olanda'n, eta Hitler'ek ain gorroto zituan Txekoslabaki'n eta Poloni'n milloika ta milloika geiago izanen ziran hitlertarren amorruek sortaraziko zituan erailketa berriak, eta neurtu aal izatearen gaidikoak, eriotz oietaz gaiñera, amorru zoro ark ekarriko zituan neke, gaitz, eta mota guztietako ondamenak.

Eta sarraski ori dana, milloika ildakoen odol-itxaso ura guzia, eta ainbesteko negar-malko-putzua... ¡alper-alperrik guztia!, odolketa arek, ta malko aiek, ez bait zuten judu bat bakarrari bizia salbatzeko balio izango!

Ez, Pio XII'ak ez zezakean oiurik egin.

Babes zabala idoro zuten juduek Alemani'ko katoliko askoren artean. Baiñan XII Pio'k itzezin ba'lu ez zuten konbentuetan-da izkutatzerik izango; atzerrira iges-egiteko ezin izango zuten katolikoan etxeetan estalketarik aurkitu. Ezta, diplomaziari dagozkionetan nuntzioan laguntzarik ere.

Ori, Alemani'n, eta baita, Alemani'tik at, hitlertarrek menperatutako lurraldeetan ere. Elizaren itzala izan bait zan toki auetako "nazien" odol-egarritik, bertan bizi ziran judatarrak gorde zituana.

Alemani'ren adiskide ziran Laterrietan ere, Petain'en Frantzi'n, Itali'n, Ungari'n, Kroazi'n, Eslobaki'n, Bulgari'n, Errumani'n, arrisku aundian aurkitu ziran judatarrak. Eta Eliza izan zuten lurralde aietan, babeslerik egokiena.

Ondo ezaguna da Eslobaki ta Errumani'ko nuntzioek juduen alde egin zuten lana. Bulgari'koa berriz, laister XXIII Jon izango zan Angelo Roncalli, Alemani'tik Turkira iges-egin aal izateko juduei iges-bide izkutu bat gertutzeiraño iritxi zan.

Itali'n berriz, juduentzat arriskua larriagotu zan unean, gaixo aiei ate guztiak irikitzeke agindu zien XII Pio'k Itali'ko konbetu guztiei. Zabal-zabal iriki zituan berak Batikano'koak.

Baiñan, bir-esan dezagun, egintza guzti oietaz gaiñera, bere izate utsarekin eman ziela Elizak juduei babesik aundiena. Eliza oiuka zutitu ez zedin, hitlertarrek lurralde katolikoetan Alemani'n bezala juduak zigortzen astera ez bait ziran ausartu.

Alemani'n lasaiago ibilli ziran, an gertatzen zana erri landerrak, eta katolikoek bereiziki, ongi ezagutzen ez zutela bai bait zekiten. Alemani'tik at berriz, ez zuan orduan ia iñork Alemani'n gertatzen ari zanaren berririk izan.

Elizagandiko babes oro galduko zuten juduek Pio XII'a ozenki mintzatu izan ba'litz. Eta katolikoengandikoa, juduak baiño gogorrago zigortuak izango bait ziran orduan katolikoak. Eta gogorragoa izango zan Europa zabalean judu beraien zigorketa ere, Aitasantuaren gaitzespen-oiuek suminduta, aundiagotu, zakarragotu, eta okerragotu egingo bait zan juduenganako Hitler'en gorrotoa.

Orrenbeste milloika ta milloika ta milloika gizon-emakume, Aitasantuaren gaitzespenaren ondorioz, eriotzara beartuak! Ezer ez lortzeko gaiñera! Alper-alperrikako eriotzara beartuak!

Ez. XII Pio'k ez zezakean itzegin.

Alperrik eriotzara bidalitako milloika jende aien aideek, gurasoek adibidez, edo senideek eta emazteek, barkatuko al zioten XII Pio'ri, aurretik mundu guztiak alperrikakoa izango zala pentsatu zezakean salaketa baten egiteagaitik beren aide aiek sarraski artara amildu izatea?

Orregaitik, arreta aundiz ibilli zan XII Pio. Itzegin, itzegin zuan gaiztakerien aurka eta oso maiz gaiñera, baiña gaizkilleen izenik aipatu gabe, gaizkille aiek gaiztoagoak eta beren gaiztakeriak aundiagoak biurtu ez zitezen. Ala, 1942'ko Eguberrietako Itzaldian bizkor mintzatu zan "soilki beren naziotasuna edo endarengaitik destinate a la morte o a un progresivo deperimento' ziran, errurik gabeko jendeen alde", aien aurkako gaiztakeriak gaitzetsiz. "Batere errurik gabeko jende zintzoak" omen ziran orrela zigorturik zebiltzen jende gaixo aiek.

"Un año después, el 2 de abril de 1943, dijo a Preysing que su condena había sido corta pero bien entendida" (ADSS). Preysing ori Alemani'ko gotzai bizkor hitlertarren etsai bat zan.

Bein baiño geiagotan egin zuan salaketa ura bera XII Pio'k.

1943'ko ekaiñaren 2'an adibidez, irratiz.



Alatagutziz, "on peut tutefois se demander si un pape moins diplomate et plus prophétique n'aurait pas dû, quelles qu'en dussen être les conséquences, témoigner plus énergiquement au nom de l'Évangile au lieu de s'en tenir au principe du moindre mal".

Euskeraz: "Danadala, diplomaziari baiño profezigintzari lotuagoko Aitasantu batek, gaitzik txikienaren billa ibilli gabe,



gerta-ala-gerta, Ebangelioaren izenean salaketa bizkor bat egin-bearrean arukitzen zala ez ote zuan uste izango, galdetzea zillegi zaigun gauza da", diosku Roger Aubert belxikar edestilari ospetsuak.

Bide beretik zebillen Doepfner kardenal alemaniarra ere, itz auek idatzi zituanean: "Edestiaren gaillurretik so-egíñez, zillegi zaigu, XII Pio'k gogor itzezin bear zuala uste dutenen aburua zearo legezko aburua dala esan aal izatea. Alare ez zaigu zillegi XII Pio'ren arrazoiaren benetasuna edo bere asmoen zuzentasuna zalatzan ipiñi nai izatea".

Zer erantzun?

Baietz aurreneko puntuari: zillegi zaigula kristauoi XII Pio'ren jokabidea aztertuta, arrazoiaren argira, Aitasantu ark asmatu zuan edo ez erabakitzea. Bear dan begirunez, jakiña; baiña geiegizko "aitasantukeririk" gabe. Gai auetan ez bait da aitasantuen utsezintasuna auzian ipintzen. Ezta aien agintzemen ere.

Baietz, bigarren puntuari ere: XII Pio igarle edo profeta baiño geiago, diplomazilari izan zala, eta diplomazilari bezala ibilli zala juduen auzian. Ez dakigu auzi ortan zer eginen zuan diplomazilari baiño geiago igarle zitekean Aitasantu batek. Baiñan zillegi bezaigu onako galde zorrotz au XII Pio'ren etsaiei egitea: ondorio obeak ekarriko al zituan Aitasantu igarle aren salaketak?

Ez dezagun gaiñera aantzi, beartsuen serbitzura egon zala beti XII Pio'ren diplomazia. Eta, uso ta sugeen irudia erabilliz, ausarti izatea aiña agintzen digula zugur izatea ere Ebangelioak.

Profezigintza, baike, aitasantuen eginkizuna da. Baiñan zugarke eta ez eroki egin bear dana.

Ekarri dezagun berriro gogora, diplomazi-gizonentzat bezala, profetentzat ere, ludi ontako lenen-lenengo aberastasuna, gizakumearen bizitza dala. Eta ori orrela dalarik, ez zitekeala Jainkoagandiko profezigintza izan, ezer ez lortzeko, judatar bat bakarrik eriotzatik ez salbatzeko, alako sarraski ikaragarria sortarazi zezakean profezigintza; are geiago, judatarren artean ere iñor salbatu ez baiña ildakoen kopurua seguruaski ugariagotu eginen zuan profezigintza. Esan dugun lez, Alemanitik kanpora, Hiler'en eskupeko lurralde guztietara zabalduko bait zan juduen erailketa.

1942'garren urte larri artan Roger Aubert edestilaria, Mauriac frantziar idazle guztiz bikaiña, Dopfner kardenala, "Ordezkaría" izeneko antzerkia idatzi zuan Hochhut bera, edo orduan Bulgari'n nuntzio zegoan Angelo Roncalli ber-bera Aitasantu izan ba'lira, profezizko beren salaketak, erailleen ariketa gelditzeke, Europa'ko ia Laterri guztietan milloika ta milloika eriotzen pillo berria sortu zezakeala nabaritzean, eta alperrikako sarraski aren erantzukizuna beren kontzieen gaiñera botatzen zutela ikustean, jaun ospetsu aiek danak, --eta gaur Pio XII'ren isilik-egotea okertzat epaitzen ala zalantzan ipintzen duten beste guztiak--, ausartuko ote ziran orduan itz bakar bat esatera?

Jaurtiko ote zuten Hitler eta bere "nazien" aurka XII Pio'ri eskatzen dioten profezizko gaitzespen-salaketa gogor ura?


Ez, nere iritziz beintzat.

Zuk ordea, baduzu zure iritzia izateko eskubide osoa.

Alatagutziz nere ustez, baleike XII Pio'ren jokaeran utsune bat egotea . Esatea noakizun au, nere uste soilla duzu, baiñan, nere ustez, gudua amaitu-osteko aurreneko urte aietan, juduen erailketa ziurki ezagutzen ba'zuan beintzat, XII Pio'k bazuan munduari bere jardunkera arrigarri aren arrazoa emateko bearkizuna. Bazuan orrelako zerbait esateko bearkizuna:

"Juduen erailketa ezagutzen nuan. Alare isilik egotea erabaki nuan. Auek eta auek dituzute nere isilik egote orren arrazoiak. Nere asmoa zuzena izan da beti. Asmaatu dedan ez dakit. Zuen kontzientziaren argira, asmaatu dedan edo ez erabakitzekeo eskubidea baduzute, Jainkoak zuen danon eta mundu osoaren gogo-gidari ipiñi ninduan ezker".

Uste al duzu, aitorpen apal ori egiteagaitik Aitasantutzaren dizdira lausotu zitekeanik?



## PIO XII'A JAINKOAREN ARTALDEAN ARTZAI

Eukeni Pacelli'ren aitasantutza bi ataletan zatitu bear dala, esan dugu: aurrenekoa, izpiritu zabalekoa, 1939'tik 1950'era bitarteko amaika urteetakoa. Bigarrena, jardunkera extuagokoa, 1950'etik aurrera, Aitasantua 1958'an il zan arte, zortzi urte iraun zuana.

Bein baiño geiagotan gertatu zaigun gauza dugu, Aitasantu baten jokaeraren aldakuntza ori. Oroi Pio IX'a, eta, zerbaitetan, baita Pio VII'a ere, eta, nola ez?, Paul VI'a. Beste era batekoa izan genduan Jon XXIII'a: gero eta gogabide eta jardunketa zabal eta idikiagoetara joan zitzaigun gizona, alegia.

Esan dezagun, aurreneko atal artan batez ere, baiña baita bigarrenean ere, aski Elizaren bizitza eraberritzearen aldeko izan zala Pio XII'a, eta, arlo guztietan, Benedikto XV'ak irikitako bideetatik aurrera jo zuala.

Gizakume bezala ere, gogo-giro alaieko gizona izan genduan beti Eukeni Pacelli; baikorra, optimista, gauzei eta gertakizunei alderdi onetik begirutzen bazekiana, izadian eta gizadian, jakintzan eta teknika berrietan uste ona izan zuana. Argi nabari zaigu aren itzaldi eta idazkietan baikortasun orren zantzua. Idazki eta itzaldi aietan ez duzu Paul VI'aren itzaldi eta idazki askotako ituntasunik, ikara-doiñurik eta estutasunik aurkituko.

"Aggiornamento" itza ere, berak erabilli zuan Jon XXIII'ak baiño lénago.

Eliza "eguneko-egite" orren ondorio izan zan, Pio XII'ak Aitasantutzara Kontzilio Ekumeniku bat egiteko eraman zuan asmoa. Asieran, jakíña, Ludi-Gudako arazoek ez zioten kontziliogintzan pentsatzeko astirik utzi; baiña guda amaitu bezain laister ekarri zituan bere asmoak gogora, eta 1948'garren urterako erabakia zeukan Kontzilioaren eratzea, urte ortan izendatu bait zituan, isillean, prestaketa-lan guztia egin bear zuten Bazkunak. Prestaketa-lan guzti aren idazkari orokor, Aita Charles iñakitar belxikarra ipiñi zuan.

Baita, pentsaturik zeuzkan, azkar bildu aal izatea uste zuan Kontzilio Ekumeniku aren gairik nagusienak ere. Ikus:

- Elizaren Dotriñari-buruzko arazoak. Ikusten zituan Aitasantuak zeinbat elizgizonen erakuskizunetan iritzi arriskugarriak, eta bada-ezbadako iritzi oiek nai zituan aztertu, eta, bear ba'zan, gaitzetsi.

- Andra Mari'ren Jasokundea. Betidanik izan bait zuan berea Pio XII'ak izkutuki ori egi-sinisbearra biurtzeko guraria.

- Komunismoa. Babiera'ko Nuntzio zalarik ezagutu bait zuan bere inguruan Iraultza Komunista, eta ikusi bait zituan, nuntziotegiko areto nagusian, bere-bere begien aurrean, iraultzalari komunistak. Orduan suma zuan zirrararen ondorioz-edo, oso zorrotz epaitu zuan Pio XII'ak komunistasuna. Arrazoirik peitzen ez zitzaiola aitortzekoa da, komunistek Errusi'n, Ungari'n, Txina'n, Indotxina'n, Alemani'n, Poloni'n, Txekoslovakia'n, Balkan-Laterrietan eta nunnai erabillitako erak gogoratzen ba'ditugu.

- Gudua. Bi Ludi-Guduak ezagutu zituan Pio XII'ak; eta ondo ezagutu ere, lekurik egokienetan egon bait zan artarako. Babiera'n nuntzio, aurrenekoan, eta Erroma'n Aitasantu, bigarreanean. Geroago, unetik unera bizi aal izan zituan "Guda Otzaren" gertakizun kezkarri danak. Iñork baiño obeto zekizkian gudaren ondorenak, eta Benedikto XV'a bezala, nazio-arteke Erakunde pake-sendogarri guztien babesle izan zan.

- Eliz-Legediaren bir-eratzeta. Ondo berria zan Legedi ura; Benedikto XV'aren aitasantutzakoa; baiña denboren ibillera azkarrak ordurako atzean utzia.

- Erroma'ko Kuria izeneko jaurri-era edo gobernu-sistemaren eraberritzea. Bera kuriatarra zalarik, beste iñork ez bezala ezagutu zezazkean Pio XII'ak jaurri-era astunegi aren akatsak.

- Katoliko-Ekintza. Pio XI'aren teokrazi-usaieko egitarauetan, Katoliko-Ekintza, Alderdi Katolikoaren lekua artzera deitua zegoan. Jerarkiaren esanera berez ez zeudelako, Pio XI'ak ez zuan beñere Alderdi Katolikoetan uste aundiegirik izan. Orregaitik --norbaiten ustez-- ez zuan Struzzo'ren "Partito Popolare" bear bezala babestu. Pio XII'a, alderantziz, ez zan teokrazira ixuria. Badirudi, Katoliko-Ekintzaz izan zuan aburua beste era batekoa zala, baiña aburu ori nolakoa zuan ez zigun beñere zeatz agertu.

- Mixiokuntza. Pio XII'ak sakonki maite zuan ekintza. Au izanen zan bearbada Kontzilio artako atalik garrantzitsuenetako bat. Ez dezagun aztu Aitasantuak prestaketa-lanerako idazkari autatutako Charles iñakitarra mixioiztilari zala.

- Kultura, Jakintza. Pio XII'a bezalako gizon jakintsu batek baztarrean utzi ez zezakean gaia; mixiogintzari gaiñera estuki lotua zegoana.

Bazituan egitarau onek izugarritzko utsuneak; eta Jon XXIII'ak Bigarren Batikandar Kontzilioarako gertutu zuanaren antzarik ere ez du. Ez bait zegoan, gaiñera, orduan oraindik Eliza, Kontzilio Ekumeniku bat egin aal izateko sasoiean.

Pio XII'a ere, gizon bakartia, iñori uste osorik ematen ez zion gizona, bakarragintzalea, agintari lez biguintasunik eta goxotasunik gabea, oro Erroma'tik zuzentzearen zalea, ez zan noski Eliza Kontzilio Ekumeniku batera eramateko gizonik egokiena.

1950'garren urteaz gero kezkatuago biurtzen ari zana, kontziliogintzarako asmoak ere epeltzen eta moteltzen joan zitzaizkion; eta gero ta asti gutxiago ematen zion Prestaketa-Bazkunetako gizonen ariketaz jabetzeari. Egin zuten lan gizon auek, asieran batez ere, iru urteen luzaroan. Gero, Aitasantuak eskutik uzten zituala ikusten zuten eran, moteltzen joan ziran, eta azkenean, asarretu egin ziran beren artean.



1951'ean izan ziran erabat lan aiek utziak, eta Bazkun danak desegina. Ez zion orrek Pio XII'ari min aundirik eman. Ez zuan Kontziliorik aurrera atera; baiña Kontziliorako pentsaturik zeuzkan gaiak aurrera ateratzen, eten gabe saiatu zan.

Egin zuan dogma, Maria'ren-Gorputz-eta-Animazko-Zeruetara-Jasotzea, 1950'garren urteko azillaren 1'ean.

Gertakizun au, emeretzigarren mendearen asieratik aziaz eta aziaz ikusi dugun Andra Mari'ganako eraspenaren gaillurra izan zan. Emeretzigarren mendean Frantzi izan zitzaigun bereiziki Mari Birjiñaren erria, eta Lurdes'koa Mari'ren Jauretze nagusia.

Ogeigarren mendean, batez ere Pio XI'aren aitasantutzan, anitz zabaldu zitzaigun mundua-zear Maria'ganako eraspenera: Lurralde germaniarretara, Kanada'ra, eta Laterri Alkartuetara, bereiziki. 1917'a ezker, Lurdes'koaren alboan bazuan, eraspen onek, beste Jauretze Nagusi bat ere: Fatima'koa.

Pio XII'aren agintepean, bizkortasun bereizi berria eman nai izan zitzaion, Katolikotasunean ainbeste eta ain sakon --"batzuen ustez geiegi" (Roger Aubert)-- sartu zitzaigun Maria'ren Eraspenari.

Ez ziran baztertu, ez orixe, erriak ain maite zituan eta teologilari batzuei ainbeste kezka ematen zieten eta aspalditik zetozen jaierezko oitura eta egintzak: peregrinaketak, Maria'ren illa, bederatziruak, iru agurmariak, lepa-kutun, eta domeñak, eta abar. Are geiago, zabaldu zan beste jaiera berri bat ere Maria'ren omenez: "Illaren Aurreneko Larunbatan" eraspenera.

Pio XII'aren aitasantutzara arte, jaiera oiek danak, ordea, eta Maria'ren eraspen guztia, teologiatik at bizi izan ziran.

Sortu berria zan Mariologia, Mireniztia; baiña, ordura arte, oso balio urrikoa izan zan teologi-arlo berri ortako literatura. Zalantzarik gabe, Mercier izan genduan mirenzaletasunari teologizko oinarriak emateko geienik lan egindako gizona, berak bultzatu bait zituan 1921'ean mariologilariak, "bitartekotasunaren" izkutukia aztertu, sakondu, eta argitara ateratzera.

Igikunde ari eskerrak, gero eta geiago izango dira 1926'az gero Maria'riburuz idatzitako teologi-idazkiak.

Ariketa ori bizkorragotzeko sortu ziran Pio XII'aren denboran, Frantzi'ko

"Société Nationale d'Études Mariales" eredutzat artuz, Españi'n (1942), Kanada'n (1947), Alemani'n (1952) eta abar, aren antzeko Ikasketa-Lagundiak, eta leenago Erroma'n, 1939'an, "Nazioarteko Azterketa-Leku Mirenzalea" eta geroxeago, 1946'ean, "Mirendar-Akademia". Akademi onek Aita Balic frantziskotar kroaziarra izan zuan eragille; "Azterketa-Leku" arek berriz, "Marianum" aldizkaria atera zigan argitara.

Erakunde auek danak lan ederra egin ziguten, Idazti Donean eta egiazko Eliz-Tradizioan oinarriturik, Maria'ganako Eraspen bikaiñari bere era egoki ta neurri zintzoak bir-emateko; erriaren biotz-berotasunak eta sermoilari sutsu batzuen geiegikeriek maiz atera oi bait zuten eraspen jator ura era egoki ta neurri zintzo aietatik, ekumenetzaren eta sinismen garbiaren kalterako.

Arrezkero, Teologian, Liturgian eta Elizaren bizitza osoan Andra Mari'ri dagokion tokia billatzea izan da Mariologiaren elburua, eta eginkizun ori ez dago oraindik osoro burutua.

Beste gai orotaz bezala, asko itzezin zuan XII Pio'k Andra Mari'ganako eraspenaz ere. Agian auek dituzute bere mintzaldi eta idaztirik garaienak:

- 1942: Fatima'n Andra Mari agertu zanaren 25'garren urtebetetzean, munduko errialde guztiek beren burua Mari'ren Biotzari eskeintzeko eskari-egiñaz, irrat'itzaldia.

- 1946: Fatima'ko Andra Mari'ren irudia koroiatzerakoan, irrat'itzaldia.

- 1950: Andra Mari'ren Jasokundea dogma aldarrikatuz, "Magnificentissimus" bulda. Bigaramonean, jai ura ospatzeko Erroma'ra joan ziran gotzaiei, itzaldia.

- 1954: Andra Mari Erregiñaren jaia ezartzen zuan entziklika. Ain zuzen, 1954'ean gertatzen zan IX Pio'k Andra Mari'ren Sortze Garbia dogma aldarrikatua izatearen eungarren urtea. Orregaitik, "urte done" izendatu zuan XII Pio'k 1954'garren urte ori.

1957: Austri'ko Marizell santutegiaren VIII eunkian, irrat'itzaldia.

1958: Lurdes'eko agerkundearen lenengo eun-urte-betetzea zala-ta Andra Mari'k agerkunde aietan emandako mezuari-buruz Frantzi'ko gotzaiei entziklika.

Fatima'ko Ama-Birjiñaren inguruan, aritzondoaren biran untza bezala, xeibrekeri asko sortu zigan kristau erriaren sentimen izkutukizaleak, eta baita sorketa aietan Pio XII'aren izena nâstu ere.

Ez litzake arritzekoa izango diplomaziaren zimeltasunean ezitako gizakume batek ixkutukerizko xentimenkerientzako bere baitan txoko bat izatea, baiña ez zait iruditzen Pio XII'az ari galararik, olako gauzarik uste izan dezakegunik, aszetika sendoan sustraitutako mistiko burutsua izan bait genduan Pacelli Aitasantua. Maite zuan biotzez Andra Mari, eta gizon otoitzale eta eraspentsua izan zan baiki. Andra Mari'ren eraspenna erriagan zabaldu nai izatea gauza bat da ordea, eta xoxokerietan ibiltzea, beste bat.



Ain zuzen otoitz-bideetatik eta eraspenetatik xoxokeriak kentzeko gurariak eraman zuan Liturgiaren eraberritzeari indar ematera.

Ikus ditzagun eraberriketa aren urratsak.

Itinakitarrak beti liturgilari makurrak izan ditugu. Aientzako, liturgia, zirimoni-sorta bat besterik ez da izan. Eta Argikuntza-aroan itakitarrek euki bait zuten Elizan maixutza, liturgia, orixe besterik ez zan arrezkero: gurketako zirimoniak egoki nola egin erakusten zuan jakintzatxoa. Itaki Deunak ere geiago itzegin bait zuan nor-bakoitzaren gurketabideaz, Jainkoaren erri osoarenaz baiño.

Aburu oien aldakuntza, beneditarrek asi zuten; Aita Lambert Beauduin belxikatarrak batez ere 1909'an Mont Cesar izeneko lekaidetxean.

Liturgi-berriztatzea, ordea, eliz-buruzagi geienentzat, erdiaroko oitura zaarrak ostera jauretxeetara bir-ekartzea besterik ez zan. Ezer aldatzekel

Izan ere, oitura zaar aiek beren antzifatasunari eskerrak bait ziran ain eraspengarriak. Ago batez aipatu oi zan Abila'ko Terese'k-edo esan-bide zuan ura: "nere bizia emango nuke, Eliz Ama Donearen errubrikarik txikiena ausi baiño len".

X Pio'k, nai izan zuan Liturgiaren barrutian aldakuntzak egiten asi. Ez zion eriotzak astirik eman. 1903'koa du bere "motu proprio" gutuna, "de participatione activa fidelium in divinis misteriis", "ariketa santuetan kristau soillek parte artu bear dutela" erakutsiz.

1920'ean agertu zitzaizkigun "alkarriketa-mezak": mutiko laguntzaileaz gairera erri guztiak apaizari erantzuten zioneko mezak. Meza auen aurka jarri ziran elizgizon asko zapuzturik: ¿"nora goaz orrelako aldakuntza izugarriekin"?

Alatagutziz aurrera zijoan Dom Beauduin'ek piztutako igikuntza, Belxika'n, Alemani'n, eta Austri'n. Ospetsu egin zan liturgi-ariketa ontan Maria Laach lekaidetxea. Nork eta nazitarrek eman zioten ats --berak oartzeko-- Germani'ko errialdeetan Liturgiaren suspertze oni; jjauretxe-barrengo otoizketa beste ekintzarik ez bait zioten Elizari laga!

Baiña oraindik Liturgiari-buruzko idazkiek arkeoligi-kutsu geiegi zeramakiten, eta Dom Beauduin'en bidetik baiño geiago zebiltzan liturgilariak, Dom Guéranger frantziarraren bidetik, erdiaroko eraetaz geiegi zaleturik, eta gurketaren apaintasunari geixo-edo so egiñaz. Beneditarrak ere, Beauduin bera bezala gizon banaka batzuek kendu ezkeru, ez bait dira, bereiziki, telogilariak.

Bai ordea domingotarrak!

Bâ, domingotarrak asi ziran liturgiari teologizko oifarrari sendoak emateko lanean. Dom Beauduin izan zuten gidari, eta onen laguntzarekin sortu zuten Paris'en, nazitarrak Frantzi'ren nagusi zirala, "Centre de Pastoral Liturgique" zeritzaion bazkuna. Laister asi zitzaigun Liturgia, Teologi biurtzen; baiña betiko liturgi zaarra!



Liturgi ori ezertan aldatu bearra zanik esatera ez zan oraindik, agirian esatera, inortxo ere ausartzen. Alderantziz, zenbat eta zaarragoa oitura bat, ainbat eta baliotsuagoa zala uste izaten zan, naiz oitura arek zaartasuna beste duintasunik izan ez.

"Nihil innovetur, nisi quod traditum est servetur": "Deus berririk ez; arbasoengandik jaso gorde dezagun". Maizegi eta gai geiegietan uste izaten dugu kristauok Elizaren axala Elizaren izpiritua bezain garrantzitsua dala.

Ez ordea uste izan liturgi-igikunde ura teologi legorrezko ekintza utsa izan zanik.

Dom Beauduin, ekintza aren eragille ta zuzendaria, apaiz izana zenduan lekaidetxera sartu aurretik eta apaiz jarraitu zuan, gogoz, bere bizitza guzian. Orregaitik, liturgi-igikunde ura dana pastoralezko igikunde jatorra irten zitzaigun. Anima kristauei liturgiaren mamia ulerterreza egitea billatzen zuan. Liturgia-bitarte, kristauei Elizaren izpiriturako bidea erreztu nai zien, Jainko berarengana errezago iritxi zitezen.

Apaiz bat eta erredentorista bat izan ziran, Bigarren Ludi-Gudua amaituta, Liturgiaren azalak aldatu-bear asko zuala pentsatzen asi ziranak: Antonelli italiarra eta Löw austritarra, biak Erroma'n "Congregatio Rituum" izeneko bazkunekoak.

Berealaxe izan zuten Pio XII'aren onespena.

Erria aldaketara prestatzeko Liturgi-Batzarrak bilduarazten asi ziran bi gizon aiek. Aurreneko Batzarra Luxenburg'ekoa izan zan 1950'ean; bigarrena Maria Laach'ekoa 1951'an.

Urtero-urtero jarraitu zuten, gero ta kemen geiagorekin, Liturgi-Batzarrok.

Igikunde berri au izketa utsetan gelditu ez zedin, berealaxe asi zan Pio XII'a aldaketa-arauak ematen, eta aldaketak egiten:

- 1950: Sakramentugintzarako Araudi berria. Erri-izkuntzei, Alemani'koari batez ere, toki ematen zien Araudia.

- 1951: Pazko-Bijiliko elizkizunaren berripintzea. Laister Aste Santu guztia izan zan berritua. Eta baita Meza-Liburua ere, 1570'ez gero ukitu gabe zegoan Meza-Liburua.

Negar ere egin zuan bateren batek San Pio V'aren Meza-Liburu santu ura aldatua izan zala ikusi zuanean.

- 1953: Jaunartze-aurreko barauari-buruzko arau berriak. Meza arratsaldean eman aal izateko baimena.

San Pio V'agandiko Mezaren-Erak geiago arindu eta laburtzera zetozen arau berri auek.

- 1955: "Musicae Sacrae" entziklika, jauretxeetako eresiarri-buruz.

Baifia Pio XII'ak liturgiaz emandako entziklikarik mardulena, aldaketak egiten asi aurretikoa da; 1947'koa: "Mediator Dei" izenekoa, teologilarien

azterketa-lanak ordurako liturgiari txertatu zioten izpiritu berria adierazten diguna. Liturgia ez da arrezkero "zirimoni-sorta"; "Elizak Eliza-lez Jainkoari damaion gurrketa" da; "kristau-erriagan diraun eta kristau erriak une oro bir-egiten duan, Kristo'k Jainkoari egindako gurrketa". Zirimoni utsetaz..., ¡bagaude, benetan, urrutil!

Ala ere izan ziran zirimoni-zale asarretuak ugari. Osteketa aundia jaso zuten Pio XII'aren aldaketak batez ere Itali'n, Laterri Alkartuetan, Portugal'en eta Españi'n.

Gogoan daukat oraindik, Jaunartze-aurreko barauaren arau berriak agertu ziranean Bueno Monreal Gasteiz'ko Gotzaiak argira eman zigun pastoralara, Aitasantuak zemaizkigun eskubide aiek noizbeinka larrietarako, "para casos extraordinarios" bakarrik zirala esanaz. Elizak oitura zaarra gordetzea nai zuala, zion gure Gotzaiak; eta, "nor ausartuko da, egi-egiazko beartasun larririk gabe arau berri aiek erabiltzera"?, galdetzen zuan azkenik.

Jauretze guztietan izan zan Bueno Monreal'en pastoral ori irakurria. Urrengo egunean izparringi danek, Aitasantuagandiko arau berriak zekarzkiten: Jaunartze-aurreko baraua oraindik geiago arintzen eta errezten zuten arauak! ¡Bapo gelditu zan gure Gotzai jaunak!

Alaber, bazuan idatzi zuana idatzi izateko zio koxkor bat, Pio XII'ak emandako arau aiek, Elizak ematen dituan lege geienak bezala, baldintzez eta naaspidez beterik bait zetozen.

Ez zuten antziñakeri zaleek orrenbeste baldintz eta naaspide bearrik Pio XII'aren jokaera gaitzesteko. Neronek emakume unibersitate-titulodun bati entzuna da, Burgos'en, onako au: "Bijoa Aitasantua infernura berak ala nai ba'du. Ni ez naiz aren atzetik joango".

¡Askok dirala Elizan, Marcel Lefebvre Gotzaiaren antzera, azala mamia baiño geiago maite dutenak!

Pio XII'ak, egia da, ez zuan Liturgian aldaketa sakonik egin, baiña ala're on-aipagarri da aren ekintza, Liturgiako "rubrikak" eta "rituak" alda-eziñak ez dirala beintzat, erakutsi bait zion mundu kristauari. Bide ortatik jarraituko dute ondorengo Aitasantuek. Ala ere, gaur bertan, Liturgiaren eraberritze sakon bear-bearrezko ori egin gabe dago oraindik.



"Rituen" izenak mixiogintza dakargu gogora, beste iñon baiño bearragoa, mixio-lurretan bait da liturgiaren berriztea. Askok egin zuan Pio XII'ak mixioen alde, ontan ere, Pio XI'a bezala, Benedikto XV'ak irikitako bideetatik joaz; baiñan, ontan ere, aurregira joan gabe. Alabadare, oso ederra dugu Pio XII'aren mixio-gidaritzako edestia.

Benedikto XV'ak iriki eta Pio XI'ak jarraitutako bidearen atalak gogora ditzagun:

- Mixiolariak ez dira beren aberrietako gobernuen ordezkari.
- Ez dira mixioetara aberriaren aintzaren edo onturrearen billa joan.
- Ezta Sarkaldeko kultura mundu guztira zabaltzera ere. Ez bait daiteke esan Europa'ko kultura Indi'akoa, Txina'koa edo Japoin'goa baiño gorenagoa danik. Misiolariak ez dira, beraz, zibilizatzaile, ez beintzat zibilizakera baten zabaltzaile.

- Misiolariek, bitartekotasun-ustearekin jardun bear dute beti. Mixioa, bere izatez, bitarteko erakundea bait da; mixio-lur bakoitzean Eliza eraiki bitarteko denborarako asmatutako erakundea. Orrela, mixiolariaren zertasuna, bitartekotasuna da.

- Mixiolarien elburua beraz toki guztietan Eliza nonbertako egitea da; eta, ortarako, alik leenen nonbertako apaizak eta gotzaiak ezitzea, len-baitlen Eliza nonbertako elizjendearen eskuetan utzia izan aal dedin.

- Europa'tik joandako apaizak ez dira mixiolurretan bertakoak baiño duintasun geiagokoak. (¡Agur, "prezendetziko" edo "aurretik-ibiltzeko", eskumen doakabe ari!).

- Mixiolurretan jaiotako apaizak, kargu guztietarako, baita gotzai izateko ere, gai dira beren izatez, eta kargu guztietara igoak izan bear dute artarako gerturik egon daitezkean bezain laister. (Ordurarte Europa'tiko mixiolarien laguntzaile izateko bakarrik sagaritzen bait ziran mixio-lurretako semeak).

Gotzaitzarako gertuketa ori al zan azkarren lortzeko, ikusi dugu nola berak bere eskuz onetsi zuan Pio XI'ak Erroma'n "Collegium Urbanum de Propaganda Fide" deritzan Ikastetxea. Orain Pio XII'ak 1948'an "Collegium Sancti Petri" izenekoa eraikiko digu, ikasketak sakonagotu nai dituzten mixio-lurretako seme danak Erroma'ra etorri aal daitezen.

- Misiolariek ez dute beren aberriko Jaurlaritzaren babesik eskatuko. Naikoa dute dauden lurraldeko Legearen babesa.

(Oroi Txina. Urteetan eta urteetan, Frantzi izan zan an mixiolari katolikoen zaindari; eta Alemani ta Inghlanderrria, izan ziran protestalarien zaindaria. Txina'ko Jaurlaritzak diruz ordaindu bear izaten zuan, aipatu ditugun Laterri aiek ortara indarrez beartu-ta, matxinoek eta lapurrek Txina'ko Jaurlaritzaren errurik gabe jauretxeei edo mixiolariei egindako kalte oro. Azkenean, txinatar kristautuen ber-beren babesa ere Europa'ko Laterri aiek artu zuten beren gain. Bear al zan geiagorik, txinatarren aurrean Eliza atzerritar, eta bataiatu guztiak aberri-ukatzaille biurtzeko?)

Aitasantutza artu bezain laister jakifnarazi zigun Pio XIIa'k, XV Benedikto eta XI Pio'ren bidetik jarraituko zuala, "Summi Pontificatus" entziklikan, (1939'ko urrillak 20). Baiña ori agindu baiño zerbait geiago ere egiten du entziklika onek: jardun-bide orren teologi-sustrai agetu.

Aitasantuen dotriña ez dala "berena" izaten gauza jakifna da; aurreko urteetako teologilarien azterketa ta adimen-lanaren zitua izaten dala, alegia; Aitasantuek, entzikliketan-da, ofizialki Elizaren dotriña biurtua.

Bâ, lan asko eta bikaiña egin zuten teologilariak mendearen lenen erdian misiologi-barrutian. Lan ori altxa zuan Pio XII'ak bere entziklikan.

¡Bai ederra eta bai atsegiña, aspalditik Españi'ren eta Frantzi'ren ankapean zanpatutako Euskalerrian, batez ere Franko'k, emengo gotzaien onespenearekin, Españi'ko "Batasuna", "la Unidad", zigorka ta tiroka ezarri nai zigunean, entziklika aren irakurketa! Onatx bere puntturik gozoenak:

- Elizaren jardukeraren eredia Jaungoikoak gizadiarekin erabilli duana dugu. Jaungoikoak, gizonei itzegiteko, gizonen kulturaz baliatu da. Bera gizon egin zanean ere, erri baten seme egin zan, eta erri orren kultura egin zuan oso-osoan bere.

- Orregaitik, Elizak ez dezake kultura eta erri-jakintzen artean bereizketarik egin. Elizak ez dezake iñongo kulturik gutxi-etsi, askoz gutziago, gaitzetsi.

- Elizaren elburua errien "Jainkoagandiko barru-batasuna", "Unitas Supernaturalis", lortzea da: erri guztiak duintasunez bat eta eskubidez berdiñak dirala erakusten duan Batasuna; Eliza, errien-kultur-bereiziak-batera-erakartzearen etsai da; Kulturen Berdintze au, Batasun au, "uniformitas", azalekoa litzake, eta gaiñera, izadi-aulgarrria: "debilitans".

Elizak, gizon guztiak anai dirala dio; ez dio ordea, danak, kulturaz berdiñak izan bear dutenik. Orregaitik, Elizak gura duan berdintasuna bizkorgarria da, maitasunean errotua dalako. Beste azaleko "dana-bat-egite" ta oro-berdintze ura berriz, ulgarria.

Arrazoi du Aitasantuak, berdintasun oro-batutzaille ura, zuzen-zuzenean gizadiaren oparotasunaren aurka bait dijoa.

- Agur dagie Elizak maitetsu, etni-sail guztien bereiztasunaren barne-muñetetik sortutako kultur-lili guztiel eta jakintza-era danei. Gizadi osoaren anaitasunaren aurka lijoaken "diskriminazio" edo bereizkeria bakarrik, gaitzetsiko du gizakume danen Aita dan Jainkoaren Elizak.

Ederra eta atsegiña, orduango Euskalerrian--, Pio XII'aren entziklikaren irakurketa.

Baiña baita mingarria ere. Urte artan bertan, 1939'an, eriotzera galdua bait zegoan gure euskal-izatea. Zuberotik Bizkai'ra galazia zan ikastoletan Euskera, ta atzerriko erderetan ziran euskal-aurrak ezitzen. Eta Franko'ren zigorpeko Euskalerrian, erderaz ematen zitzaion euskal-jendeari jauretxeetan Berri Onaren azalpena, erderaz erakusten zitzaian euskal-umei kristaubidea.

Ori dana, Euskalerrria "la España Una" egitera etorritako gotzaien onspen betearekin. Lauzurika, Ballester, Bueno Monreal, Morcillo, Font Andreul: Barka bezaizue Jainkoak Euskalerrriari ta Euskerari egin zenioten kaltea, guk zuei barkatzen dizuegun bezala.

Dirua eskatzeko bakarrik erabilli oi zan, luzaroan, gure jauretxeetan Euskera! Jauretxeetatik at, berriz, kristau euskaldunak ez zuan idazki bat

Euskeraz argitaratzeko eskubiderik izan. Euskera mintzatzea bera, isunez, multaz, zigortua izan oi zan! Ori dana... Españi'ren batasuna eta aunditasuna lortzeko. "¡España una, España grande"! Eta, ori dana..., ¡Elizak deus esateke! Ez gotzaiek ez nuntzioek; Erroma'k bidali zizkigun ordezkari ta nuntzioak ere, --Antoniutti, Cicognani--, jalakoak izan bait ziran!

Isilik egon zan Aitasantua ere. Bail Españi izan zan Pio XII'aren soifeko zurian ttantito ñabar illun bakarra, gure ustez beintzat. "Gure ustez", diot; ez bait dakigu nola ikusten zan orduan munduko naspil erogaitz aren erdian Españi'ko arazoa Aulki Donearen goitasunetik.

Baiña Franko'rekingo beraxtasun ortaz landa, beti izan zan Pio XII'a, erlijioari dagozkion gaietan ez ezik politikari dagozkionetan ere, errien berentasunaren aldeko: "Nel campo di un nuovo ordinamento fondato sul principi morali, non vi è posto per la oppressione aperta o subdola delle peculiarità culturali e linguistiche delle minoranze nazionali, per l'impedimento e la contrazione delle loro capacità..."; "Zuzentasunaren araura tajututako munduaren eraketa berriak ez du tokirik izan bear erri-txikien kulturazko nortasunaren eta izkuntzaren zapalketarentzako; ezta're erri txiki oien iraunpena birrintzearren egindako ekintza agiri edo izkutuentzako", esan zion ludiari 1942'ko Gabon-Agurtean irratiz.

Gogabide orri jarraituz, berealaxe asi zan Pio XII'a mixiolurretako semeak gotzaitasunera jasotzen. Bere aitasantutzaren lenen urtean bertan, 1939'an, 12 gotzai sagaratu zituan batera, eta 12 aien artean, gure denbora berri auetako aurreneko bi gotzai beltzak: Uganda'koa bat, Madagaskar'koa bestea.

1946'ean izendatu zuan kardenal lenen mixiolur-semea: Tomas Tien txinatarra.

Pio XII'ak aitasantutza artu zuanean, 1939'an, 48 ziran mixiolurretan, bertako semeren bat artzai zuten elizbarrutiak; ura iltzerakoan, 1958'an, 139; eun eta ogei ta emeretzi.

Eta jardunbide ortatik jarraituko bait dute aren ondorengo Jon XXIII'ak eta Paul VI'ak, Kontzilioaren asieran 162 genituan nonbertako Artzai batek zaindutako elizbarrutiak; (Asi'an, 126; eta Afrika'm, 36). Kontzilioa amaitzerakoan, bertako seme bat gotzai zuten Elizbarrutiak, baziran 228; (Asi'an 160; Afrika'n 68).

Ikusi dugu nola, 1936'ko "Erabaki" baten bitartez, Pio XI'ak, "Quaestio Rituum Orientalium" edo "Sortaldeko Oituren Arazoa" mantxutar mixioetarako era bikaiñean amaitu zuan. Japoindarrek Laterri iare egin-berri zuten Mantxukuo'rako bakarrik izan zan emana Pio IX'aren "erabaki" zoriontsu ura.

XII Pio izanen zan ordea 1939'an (aitasantutza artu bezain laister) Txina'rako, eta urrengo urtean Indi'arako, Pio XI'aren "erabakia" legezko egitean "Oituren Auzi" mingarri ura erabat konponduko zuana.

Gerontzean ez zaie mixioetara dijoazten mixiolariet, "errietako oiturarik" ez erabiltzeko zin-egiterik eskatzen.

Zin-egite ori 1715'ean Klemente XI'ak "Ex illa die" eta berriro 1742'ean Benedikto XIV'ak "Ex Quo" izen duten bulden bitartez ezarria izan zan. Zin orrek galerazi zion kristautasunari, orrenbeste urteen luzaroan, jakintza zaar dizdiratsuko erri aietan zabaldua izateko adiontasuna.

1715'etik 1940'era bi mende eta ogeitabost urte daude. ¡O zenbat denbora bear duan Elizak oker ari izan dala apalki ezagutzeko eta oker egiña zugurki zuzentzeko!

Baiña kultur-auzia ez bait da "elerti edo literatura apaña" duten erri bakarren auzia, ta "elea" ez bait da "ele idatzia" bakarrik, "ele mintzatua" ere bai bait da, eta, orregaitik, idazten ez dakiten erriek ere bai bait dute beren elertia, ots, "aozko elertia" eta beren kultura, beren erri-jakintza..., kultur idatzirik ez duten erri oien "oiturei" ere adi egon bear zuan betidanik mixiogintzaren Buruzagitzak, agozko kulturako erri oiei ere kristautasuna beren kulturaz jantzirik emateko; ez bait da gaiñera "agozko kultur" ori "kultur idatzia" baiño mamiz aulagoa eta okerragoa izaten! Bedi lekuko Euskalerraren Jakintza!

Baiña Elizaren Lan-Geletako Buruzagiek, kuriatarrek, ez dute sekulan ortaraiñoako asmamenik izan. Gai ontan, beste geienetan bezala, beetik gora sortu zan Elizan, zerbait egin bearra zalaren kezka.

1938'an Belxika'ren Kongo'tik txosten bat iritxi zan "Propaganda Fide" Bazkunera. Kongotarrek bazutela beren erako illeta bat, adierazten zuten txosten artan mixiolariet; "Matanga" izeneko illeta, erriko jendearen artean txit errotua. "Matanga" aren erara nai zuten mixiolariet kristau illeta tajutu.

Zorionez orain ez zeuden Kepa Deunaren Aulkian Klemente XI'a eta Benedikto XIV'a; orain Pio XI'a zegoan; eta urrengo urtean, Pio XII'a. Ederki erabaki zuan Erroma'k auzia oso-osoan Kongo'ko elizgizonen eskuetan ipintzea, Matanga'z nola baliatu berak ikusi zezaten.

Zabaldu zituan Erroma'k eskuak; baiña, orduan, Kongo'ko gotzaien bildurra, eta kemenik-eza, izan ziran Erroma'ren jokaera zuzenari oztopo ipiñi ziotenak. Apaiz mixiolariak baiño motelagoak, Kongo'ko gotzaiak ez ziran aldaketa osasungarri ura aurrera eramateko gai izan. Tamalgarria benetan!

Tamalgarria..., batez ere mixio-lurretako gizarte-giroa zearo aldatzen ari zitzaigulako Bigarren Ludi-Gudua amaitu zan ezkerero. Leenik Indi'n, Indonesi'n eta Indotxina'n piztutako askatasun-guraria, ari zan, uso ta arin, mixio-erri guztietara zabaltzen.

Oartu zan XII Pio. Oartu ziran protestalariak ere. Badirudi auek bildur gutxiagorekin jarri zirala kolonien askatasunaren alde, Nazioarteko Erakunde Protestalarietako zuzendarien maillan beintzat.

Ala, 1945'ean sorturiko "Commission des Églises" edo "Elizen

Batzordeak" elburu au ezarri zuan argi eta garbi bere Oñifarrri-Araudian: "Erri menderatuei ontasuna eta askatasuna lortzen laguntzea". Eta Ebaston'go "Elizen Batzar Ekumenikuak" 1954'ean, "Erri bakoitzak, bere gizarte-bizitza berak nai duan eran antolatzeko, eskubide osoa baduala", aldarrikatu zigun.

Urte betez beranduxeago ibilli zan Eliz Katolikoa. Egia da, Pio XI'az itzegitean esan dugun bezala, askoz leenagotik jakiñarazi ziola munduari Aitasantu arek Kolonietan gertatzera zetorren askatasunaren aldeko igiketa, baiña igiketa ori, berak uste zuan baiño azkarragoa izan zan, eta ondorengo Aitasantua, Pio XII'a, ez zan 1955'a arte Kolonien askatasunaz argiro mintzatu.

Errien Kulturaz bai; ia aitasantutza artu zuan ezkerero ari izan bait zitzaigun erri bereizi guztien kultur bereizi bakoitza goratzen eta babesten; Askatasunari-buruz ordea, aipatutako 1955 ortan iaiki zituan bere aurreneko itzak, Laterri Kolonizalariei "askatasuna gura zuan errialde orori askatasun egokia, gero ta askatasun aundiagoa, ez ukatzeko" eta "askatasunerako bidean errialde oiei eragozpenik ez ipintzeko" argi ta garbi eskatuaz.

Alare, badirudi, eskari au egitean, errien askatasunerako eskubidea baiño geiago, Koloniak askatasunera borrokaren bidez iristeak Elizari ekarri zezaiokean arriskua, euki zuala buruan XII Pio'k. Ez ala XXIII Jon'ek, Errien askatasunari-buruz eta Errien kulturari-buruz, onek jaso bait zigun "Pacem in Terris" entziklikan Elizaren erakuskintza bere gaillurrera.

Entziklika orren 55'garren zenbakian, eta ain zuzen ortarako Pio XII'aren "Summi Pontificatus" 1939'ko entziklika oñfarrizat artuaz, etni-talde bakoitza bere kulturarekin "gizadi osoaren aberastasuna zalantzarik gabe" -- "sine dubio"-- aitortua izan bear duala dio Jon XXIII'ak.

Askatasunaz ari dalarik berriz, etni-talde bakoitzak bere burua Laterri iare biurtzearen aldeko agertuko zaigu, aski argi, entziklika orren 94'garren zenbakian.

Eta bai bait dira, adibidez lurrik ez dutelako, (ijitoak), edo Laterri baten altzoan zearo sakabanatuta daudelako, (Ipar Amerika'ko beltzak), iñolaz ere Laterri biurtu ez daitezkean etni-taldeak...., eta ezintasun ori ondorio gaitzen iturri bait da beti, ("Ex hoc oritur quaestiones magnae gravitatis existant")...., etni-talde batek askatasunik ezin lortze ori gertatzen danetan Laterrietako agintariak etni-talde oiekin zuzentasunaren araura nola jokatu bear duten erakusten leiatuko da 95'garren eta 96'garren zenbakietan.

Baiña gai au Euskalerrarentzat oso garrantzitsua dalarik Jon XXIII'aren aitasantutzaren azalpena egiterakoan geiago aztertuko bait dugu, itzuli gaitezen orain Pio XII'aren denboretara, ez ordea aurretik gure buruari galderatxo au egin gabe: "Irugarren Munduko" erriak askatasunera igo diran azken aro ontan, ¿Kolonialista izan al da Eliza? Erantzuna ez da ain erreza.

Toki batzuetan, adibidez Portugal'en Kolonietan, gotzaiak Portugal'en aldeko atera zitzaizkigun. Ez da arritzekoa; gotzai aiek Salazar diktatorearen

adiskide bait ziran; adiskidetasun orri eskerrak gotzaitzara iritxiak.

Bazituan Españi'k ere bere koloniak: Marruekos, Ifni, Sahara, eta Ginea. Españi'ko gotzaiek ez dute iñoiz koloni oietako errien eskubideen alde tutik esan. Gero euskaldunen alde ere mintzatu bearraren bildur ote ziran?

Ez zuten noski orrenbesteren bearrik isilik egoteko. Naikoa zuten Franko'ri zioten eraspina. Ez al zuten bâ beren kargua Franko'rengandik artu? Egia da Marruekos'en, Ifni'n eta Sahara'n kristaurik ez zala; eta mixiolaririk ere ez.

Ginea'n ordea kristaua zan bertako jendea ia dana, eta ugari ziran an mixiolariak, espāñiarrak ia danak, eta espāñi-zaleak, lur aiek Espāñi zirala uste zutenak. Ez al zituan bâ, ain zuzen Franko'k berak, azkenean, askatasun-zale iraultzalariei aurpegi emateko, lur aiek Espāñi'ko Probintzi biurtu?

- Afrika'ko beste lurralde batzuetan, batez ere Arjeli'n eta gaiñerako lurralde maometarretan, besterik ezifnean artu zuan lurralde aietako gotzaidiak Askatasuna, ez bait zan agintari musulmanetaz fiatzen; eta, baiki, maometar Laterri berri aien askatasunaren asiera, Eliza beraren askatasunaren amaiera ere izan bait zitekean. Bedi Arjel'go katedral mezkita biurtua, Elizak lurralde aietan galtzen zuan guztia irudi.

- Madagaskar bezalako beste toki batzuetan, agiri-agirian eta asiera-asieratik, Askatasunaren alde ipiñi zan bertako Eliza.

- Toki geienetan, ordea, kezkatuagoa agertu zitzaigun gure Eliza. Askatasunaren aldeko, bai; ori zalantzarik gabe; baiña, maillaka, arintasun arriskugarririk gabe, pausoka, eta erria bere buruaren jabetasunerako gertutuz, maillaka lortu bearra zan Askatasun baten aldeko. Ezin ukatu, ondorengo gertakizun negargarriek, eta Laterri aietako politika-giro makurrak, arrazoi osoa eman diotela bertako Elizen jokabide orri.

Izan du Eliza Katolikoak beste merezimendu bat ere.

Jon XXIII'ak sagaratu zuan erriek askatasunerako duten eskubidea. Baiña laister oartu zan politikazko askatasuna naikoa ez zala. Ala etorri ziran Jon beraren "Mater et Magistra" 1961'ean eta Paul VI'aren "Populorum Progressio" 1967'an, erri askatu berri oiek ekonomiaren arloan dituzten eskubideetaz munduari zorrotz mintzatzera.

Esan dezagun gai au amaitzeko, Eliz protestalarien jokaera mixio-lurretan Eliz katolikoarena bezalakoa izan zala. Berdin-berdiña. Eta bein askatasuna lortu ondorean, bazter guztietan Laterri berrietako Agintariei laguntzen mixiolari protestalariak ere leialki saiatu dirala.



Pio XII'aren mixiokuntzaz itzegiteak, komunismoaz ere itz egin bear



izatera garamazki, komunismoa izan bait zan Pio XII'aren aitasantutzakoan mixio-lurretan etsairik aundiena. Oroi Txina.

Bizkor eta indartsu zegoan kristautasuna Txina'n Txiang-Kai-Xek diktatore zala. Iru milloi t'erdi ziran, 140 elizbarrutietan, katolikoak, 5.600 apaizekin. Auetatik, 2.600 bertakoak.

Egia da Txina'ko gotzaiak eta mixiolariak Diktatorearekin alkartuegiak ibilli zirala, katolikoak bezala protestalariak ere, --Txiang-Kai-Xek bera protestalaria zan--, baiña egia da, era berean, Poloni'n eta komunismoaren menpean jausitako beste Laterrietan gertatzen ari zana ikusteak, naitanaiez eraman bear zituala, kristautasunari lepo egitera zetorren komunismoaren aurka, Txiang-Kai-Xek askatasun-emailleari laguntzera.

Bai; ustelkeri orok jotako gobernua zan, izkuntza orotan "Jeneralisimo" esan oi zaion diktatore aren gobernua. Baiña mixiolariak ez zuten salaketagintzan asteko adiontasunik; lendabizi, katolikotasuna Txina'n oso gutxiengo txikia zalako; eta bigarren, eta batez ere, Mao-Tse-Tung'en zemaia gafiñean zegoan artean, eginkizunik bearren-bearrena, Txina'ko Elizaren izamena, bizirik jarraitu aal izateko almena, aseguratzea, eskiertzea, zalako.

Bai ote zuten gafiñera Txina'k mixiolariak Jaurlaritzaren ustelkerien berri? Bai ote zuan Txian-Kai-Xek berak? Gudak ez bait zion, berez zintzoa zan Buruzagi ari, borrokagintza ez zan ezertan pentsatzeko astirik ematen.

Danadala, ondoreak erakutsi zigun mixiolariei arrazoirik peitzen ez zitzaie; Mao-Tse-Tungdarrek Txina'ko agintaritza artu zuten ezkerro asi bait ziran kristautasuna desegiten, eta ortarako gotzaiak espexera gaitzen, gotzai ta apaiz atzerritar danak erbesteratzen, eta "Eliza Katoliko" zismakoi bat, "Eliza Abertzalea" irasten. Sagaratu ere sagaratuarazi zituzten, gotzai koldar bateren baten bildurraz baliaturik, Eliz zismakoi orrentzat zisma-gotzai berriak.

Gaur bertan, Mao-Tse-Tung ilda gero, gaur, 1979'an, Txina'ko Elizaz deus askorik ez dakigu. Ez dakigu zer izan dan Txina'ko katolikoan zoria; Nola bizi dira? ¿Katoliko jarraitzen dute?; Bada oraindik Txina'n Eliza katolikorik?; Bizirik ote dago "Eliz Abertzalea" bera? Ez dugu ezertaz albiste garbirik. Badakigu Pekin'en jauretze batean igandeetan meza ematen dala..., baiña ez ote da ori Pekin'era iristen diran atzerritarren kezkek baretzearren prestatutako iruzurkeri bat? Ematen al da Txina'ko beste jauretzeetan mezarik? Bai al da meza eman aal izateko iare jarraitzen duan apaizarik?

Beste galdera bat: "Txina'ko Eliz Katoliko Abertzalea" ¿zismatikua ote da? Pio XII'ak berealaxe gaitzetsi zituan, bai Eliz ori, bai Eliz ortara igaro ziran gotzaiak, eta baita Eliz orren altzoan sagaratutako gotzai berriak ere. Azkarregi? Pio XII'ak ez zekian Txina-barruan zer gertatzen zan. Guri, "Txina'ko Eliz Katoliko Abertzalea" k frantziar-iraultza-aroko "Kostituzio-Eliza"

dakarkigu gogora. "Txina'ko Eliz Katoliko Abertzalea" onartu zuten gotzaiek, ¿Aitasantuarengandik bereizitako Eliz bat sortzea ote zarabilkiten buruan?, ala, soil-soilki betidaniko Eliz Katolikoa bizirik gorde aal izatea?

Pio XII'ak ez zekian ori, eta guk ere, gaur bertan, ez dakigu, orrenbeste urteren ondorean Txina'n zer gertatzen dan; ziur deus jakiterik ez bait dago.

Baiña esan dezagun Aitasantuaren alde, "Txina'ko Eliz Abertzale" ura txit arriskugarria zala Europa'ko Laterri komunistetako Elizarentzat, Mao-Tse-Tung'ek Txina'n egin zuana bera egin bait zezaketen --batzuek egin ere egin zuten bezala-- emen agintari komunistek, bakoitzak bere Laterrian "Eliz Abertzale" bat sortuaz. Eta Eliz oiek danak administraketako eta gobernuko gai guztietan Aitasantuaren zuzendaritzatik at egon bearra izango zuten ezkerero, ¿nork ukatu Eliz "iare" oien sorketa Elizaren batasunerako zauri gaitz bildurgarria zala? Ortik, Pio XII'aren presa.

Eliz berririk sortu gabe ere, naiko neke eta kalte ekarri zion komunismoak Europa'n katolikotasunari, batez ere Eliza Katoliko Sortaldetarrari, Transilbani'n, bereiziki, eta Eslobaki'n, eta, nola ez, Errusi'k Poloni'ri eta Txekoslobaki'ri kendutako lurraldeetan. Emen, Karpatu-Mendipeko Erruteni'aren txokoan 462.000 ziran uniatak 1944'ean, eta elizbarruti bat osatzen zuten. 1949'an desegin zuten Sobiet'ek Eliz au; eta arrezkerero, Karpatu-Mendietan uniatarik ba'dan ez dakigu. Atzerrian, bai; Iparramerika'n 315.000 dira eta bi elizbarruti badituzte.

Eslobaki'n ere bazan uniaten elizbarruti bat, baiña 1950'ean Txekoslobaki'ko Jaurlaritzak desegifia izan zan. Gaur Ameriketara badute kristau auek gotzai bat Kanada'ko Toronto'n bizi dana.

Baiña, Errusi'pera igarotako Poloni'ren zatian izan zan ifon baiño gogorragoa "uniaten" zoria. "Brest'eko Alkartzea" desegifia izan zan. Oroituko zera, "Alkartze" aren bitartez bateratu ziralda Ukrani'ko Eliz zismatikoa eta Erroma'ko Eliza 1596'ean.

Orain, Bigarren Ludi-Guda ostean, "bildurrak izututako ukrainiar apaiz-taldetxo batek, eta legearen aurkako batzar batean", ("a few terrorized Ukrainian priests in an uncanonical assembly"), egin zuten Alkartze ospetsu aren ezereztea. Ordurako, apaiz izutu aien gotzaiek danak baituak edo urrutiko bazterretara bidaliak ziran: ("after the arrest and deportation of their whole hierarchy").

Zer balio zezaketen apaiz gizagaixo aien batzarrak eta batzar aren erabakiek?

"Brest'eko Alkartzea", ukrainitarren naimenaren aurka, "Poloni'ren lur-irabazi-naiak eta Erroma arroaren agindu-naiak eratua" izan zala, ausartu zan esatera apaiz ikaratuen batzarra: ("by the imperialism of Poland with the help of proud and power-loving Rome"). ¿Ukranitarren naimenaren aurka? Amar ziran 1596'ean Ukrani'ko Elizaren gotzaiak. Amarretik, bederatzik onartu zuten "Brest'eko Alkartzea".

Gaur-egun Errusi komunistaren ankapean, Ukrani'ko katolikoak zenbat diran eta nola bizi diran, jakin ere ez dakigu.

Stalin'en diktaturtzakoan gogorra izan zan an kristau guztien biziera; katolikoena bereiziki.

Erromakeri orori uko eginda "Kief'eko Kristau-Izaerara" biurtu bear zirala uniata guztiak, zegiten oiub sobietarrek Ukrani'n, Kief omen zan bâ Errusi Aundiaren, Ukrani beraren eta "Bielorrusi edo Errusi Zuriaren" sorburua.

Katolikotasuna erabat zapaltzeko 1948'an Mosku'n bertan biltzekoa zan Eliz Ortodoxiarraren Batzarrari beren laguntzarik ez ukatzea erabaki zuten sobietarrek. Errusi'ko Elizaren Askatasunaren sorkundea omen zan Batzar artan ospatubearra. 500 urte, Errusi'ko Eliza, bere buruaren jabe egiteko, Erroma'gandik ez ezik Kostantinopla'gandik ere bereizi zala, eta bigarren bereizte au ere zearo omen zan ospagarri, 1439'an Kostantinopla'ko Elizak Florentzi'ko Kontzilioan Erroma'rekin alkartzea izenpetu zuan ezkeru.

Biziro egoki oroitu zien Pio XII'ak, errusiar Kief'eko kristaukera goratzaillëei Kief'eko Metropolitak ere Kostantinopla'koak bezalaxe onartu zuala Florentzi'ko Kontzilioan egindako alkartea, eta "Errusi guztien izenean izenpetu ere izenpetu zuala alkarte ura".

Sobietarren mendera erortzerakoan baziran iru milloi t'erdi ukrainiar uniatak. Gaur-egun zenbat diran ez dakigu. Diasporakoak, ots, mundu zabalean Errusi'atik kanpora sakabanatutakoak 800.000'ra iristen dira, eta badituzte 14 elizbarruti: 5 Laterri Alkartuetan, 4 Kanada'n eta bana Australi'n, Brasill'en, Frantzi'n, Alemani'n, eta Ingländerrian.

Katolikoa zan Lituani ere. Protestalaria Estoni, eta Katoliko eta protestalari Letoni. Alperrik egingo duzu, indarkeriz Errepublik Sozialista Sobietar biurtutako Laterri auetako kristautasunaren egoerari-buruzko galdera. Auxe soilki erantzungo zaizu, kristautasuna ezerezteko ez ezê, Erri onuragarri oien nortasuna ezerezteko ere, aski saiatuak dituzula Mosku'ko agintari komunistak. ¡Baita deportazio edo jende-aldaketen bidez ere!



Errusi'tik kanpora beste lurraldeetan ere nolako amorrurekin eraso dion komunismoak kristautasun orori eta batez ere katolikotasunari, xeetu bearrikan ez da; edonork ondo dakian gauza bait da. Eta komunismoaren amorru ori batez ere guda amaitu ondorengo aurreneko urteetan gogorrera eta zoroena izan zalako, ez zaizu arrigarri gertatuko Pio XII'ak komunismoari-buruz erabilli zuan jokaera.

- Pio XII'ak ez zuan sekulan komunismoarekin alkarrizketarik asi

zezakeanik pentsatu ere, eta begi okerrez begiratu zien "Katoliko Progresistak" bezala alkarrizketa aren aldeko ziran eliztar guztiei. "He adopted a very cautious attitude toward attempts by some of the clergy in countries under Soviet regimes, especially in Poland, at peaceful coexistence with their communist rulers": "Sobiet-peko errietan, batez ere Poloni'n, elizjende sail batek-eta beren agintari kommunistekin pakean bizi eta aiekin batera lan egiteko zerabilzkiten asmoak, kezka aundiarekin ikusi zituan beti" XII Pio'k. (Encyclopaedia Britannica).

- Bere itza besterik ez zuan, --Pio XII'ak--, komunisten azpira jausitako kristauei laguntzeko, eta al izan zuan guztia saiatu zan itz orren bidez, oiñazepetu guztiei laguntzen. Jendearentzako askatasuna eta Elizarentzako pakea eskatzen zien agintari komunistei. Ona Wyszynski Kardenala Barsobi'ko bere Goigotzai-Aulkira itzuli zanean telegrama batean Aitasantuak idatzi zituan itzak:

Gertakizun ura pakearen asiera izatea nai zuala adierazi ondorean onela zion: "Illius pacis Poloniae sit auspiciū quae iustitia, caritate debitaque Ecclesiae libertate innitatur": "Bedi Poloni'ren pakearen siñale: zuzentasunean, maitasunean, Elizari zor zaion iaretasunean oiñarritutako pakearen siñale".

Pozik agurtu zuan Ungari'ko Erriaren eta ango Mindszenty Kardenalaren askatasuna 1956'ean: "Vehementi cum solatio comperimus, universis terrarum orbis catholicis una cum patria tua plaudentibus, te esse in libertatem restitutum": "Poz aundi-aundiarekin jakin dugu zure askatasunaren berri, eta gurekin batera txalo dagizute, zure aberriarekin bat egifilik, ludi guztiko katolikoek".

Zori txarrez laister menderatu zuten urte ortan bertan Ungari gaixoa Errusi'ko guda-gurdiak Krustxef'en esanera.

Egiazko oiñazea suma zuan biotzean Pio XII'ak; eta 1956'eko azillaren 5'ean izenpetutako "Datis Nuperrime" entziklikan ustua nai izan zuan oiñazea ura. Entziklika ortakoak dira itz auek: "Iterum nempe acerrimo maerore novimus per hungarorum urbes, per oppida, per pagos, civium cruorem profluere iustam libertatem ex imo pectore anhelantium; atque impositam exterorum armis cruentato populo servitutem. HUNGARICA GENTIS CRUOR CLAMAT AD DEUM".

Euskeraz: "Acerrimo maerore", "samintasun garratzarekin", jakin omen du "Ungari'ko urietan, errikozkorretan eta baserrietan, bularraren barren-barrendikan "ex imo pectore". askatasun zintzoa irrikatzen zuten laterkideen odola ugari ixuri dala; Birrezarri-berri ziran aberri-erakundeak, ostera indarrez porrokatuak izan dirala eta zearo deuseztuak; eta atzerritarreen izkillu-kolpez erri odolustuari ostera morrontza ezarria izan zaiola. JAINKOARI DAGIO ORRU UNGARI'KO ERRIAREN ODOLAK".

Bost egun geroago, irratiz agertu zuan bere samina "per la iniquità

consummata a rovina del diletto popolo magiaro", "magiar-erri maitearen ondamererako egin dan gaiztakeritzarra zala-ta". Ungari'ako erria, soilki, "gizakumearen izate berari dagozkion eskubideen maitale izatearen errudun" omen zan: "reo di aver voluto il rispetto dei fondamentali diritti umani".

1949'garren urtekoa da komunismoaren aurkako Pio XII'aren ekintzarik gogorrena, urte ortako uztailaren 13'an eskomikatu bait zituan "qui communistarum doctrinam materialisticam et anticristianam profitentur et in primis qui eam defendunt vel propagant": "komunisten dotriña materialista eta kristautasunaren aurkakoa onartzen dutenak, eta batez ere ura babestu edo zabaltzen dutenak" (Acta Apostolicae Sedis). Komunisten alderdi bati beren izena ematen ("affiliare") eta komunist-idaztiak ("edere, propagare vel legere") argitaratu, zabaldu edo irakurtzen dituztenetara ere iristen da eskomika.

Eskomika onek badu, eunen bat urte leenago Gregorio XVI'ak eta Pio IX'ak liberaltasunaren aurka jaurti oi zituzten gaitzespenen antza. Arrazoi berak ditu bere alde eta utsune berak aurka.

- Aldeko arrazoa: Pio XII'ak zekusan komunismoa, Gregorio XVI'ak, Pio IX'ak eta Pio X'ak zekusaten liberalismoa bezala, argi-argian kristautasunaren aurkakoa zala, eta oraingo komunismo au orduango liberalismoa baiño askoz geiago. Liberaltasuna, erlijioaren etsai baiño geiago, klerikeriaren etsaia zan. Komunistasuna, zuzen-zuzenean erlijio ororen arerio eraillea duzu; ori ez dizu berak ere ukatuko.

- Aurkako utsunea: gogorregia izateaz landa, --gogorra bait da orri bat irakurri besterik egiten ez duana "ipso facto"ko eskomikaz zigortzea--, itzez ez bada ere izpirituz beintzat orokorregia dala. Ta ona zergaitik:

Pio XII'ak zuzenean komunismoaren materialismoa eta kristau-aurkatasuna gaitzesten ditu; Orrelako zerbait gaitzesten zuten iru Aitasantu aiek ere liberaltasunean.

Pio XII'ak, "kristau-aurkako" eta "materialista" ez litzaken komunismo bat izan daitekeanik ez du ukatzen, Gregorio XVI'ak, Pio IX'ak eta Pio X'ak orrelako liberalismo baten posibilitaterik ukatzen ez zuten lez.

Baiña, aiek eta onek, lau Aitasantuek, aitortu bear zuten, zabal-zabal, "posibilitate orren egiazko posibilitatea", gaitzespen aiek danak oker ulertuak izaterik nai ez ba'zuten. Kalte aundia egin zion aitorten leial orren ezak emeretzigarren mendean Elizari kulturazko jendearen artean; eta egin dio gaur langillediaren baitan; orduan autokraziaren adiskide bezala, kapitalismoaren aldeko bezala agertarazi bait du orain Eliza.

Ez dugu gaiñera aztu bear gaurko jendeak ariñegi, --bai noski--, baiña uste osoan, gauza bat bera lez dauzkala Iparramerika eta Kapitalismoa, --edo Errusia eta Komunismoa--.

Orregaitik, arriskugarria zan, Pio XII'ak egin zuan bezala, Roosevelt

Lendakariarekin aurrena eta Truman'enik gero, Europa'tik eta batez ere Itali'tik komunismoa uxatzearen, alkarrizketan astea. Jakiten bait dira azkenean izkutuko esamesa oiek danak. Ala argitaratu ziran 1948'an Aitasantuak eta Truman Lendakariak batak besteari idatzi zizkioten eskutitzak.

Ederki etorri zitzaizkion Stalin'eri eskutitz oiek Aitasantua langillediaren aurrean Kapitalismoaren adiskidetzat agertzeko.

Iparramerika'k Europa'ko Laterri Sarkaldetarrekin "The Atlantic Treaty" edo "Atlanti-Iltuna" osotu zuanean ere, bere poza izkutatzeko ardura aundirik erabili gabe agertu zan Pio XII'a Itun au onesten. Kapitalismoaren, aberatsen, eta inperialisten laguna duzute Aitasantua, berri-eman zieten langillei mundu guztian izparringi komunistek.

- Ai zuan guztia egin zuan komunismoari aurrerapena eragozteko. Kezka aundiarekin zekusan komunistek Frantzi'n eta Itali'n artu zuten indarra. Paris'en eta Erroma'n agintaritza artzen ba'zuten, zalantzarik gabe, Poloni zegoan bezala geldituko ziran, bere ustez, Frantzi eta Itali. Ori gerta ez zedin asi zan, Roosevelt Lendakariarekin alkarrizketan eskutitzen bidez, guda amaitzerakoan. Izan zuan alkarrizketa orren berri Stalin'ek, eta "Ameriketako kapitalismoaren morroitzat" salatu zuan Aitasantua.

Komunismoaren garaitza eragozteko asmo orrekin ber-eratu zuan, XII Pio'k, Itali'ko Katoliko-Ekintza 1945'ean, guda amaitu bezain laister, eta asmo berarekin ats eman zion, puska aundian Katoliko-Ekintzatik sortua zan Itali'ko "Democracia Cristiana" Alderdiari. Era berean lagundu zien Europa'ko beste Laterrietan antza bereko Alderdiei.

Aitortu bearra da politikaren arlo ontan egoki jokatu zuala Pio XII'ak, Europa'ren itxarkundean, --oroi Adenauer'en Alemani edo De Gasperi'ren Itali--, parte aundia izan bait zuten Alderdi Demokrazitar Kristau auek; eta baita Europa'ren batasunerako bideak sendotzen ere. Ain zuzen alderdi auetako batekoa bait zan Schuman frantziarra, "Europa Batuaren aita".

Beti izan dira Aitasantuak Europa alkartzearen zale, eta ala izan zan orain ere Pio XII'a. Baiña bazuan onek ortarako beste arrazoi bat, berebera: Alderdi Demokrazitar Kristauen bidez egindako Europa Batu ura ikusten bait zuan komunismoa eragozteko biderik egokiena.

Ikusten zuten ori "gorriek", eta "Batasun Batikandarra" esaten zioten sozialistek, Schuman'ek-eta, De Gasperi'k-eta, Adenauer'ek-eta iardetsi nai zuten Europa'ko Laterrien batasun ari.

Politikari buruzko auzi ontan ezberdiña izan zaigu mende ontako Aitasantuen jokaera.

Pio X Deuna ez zan potikazko gizona. Benedikto XV'a, bai, eta abegi onarekin so-egin zien alderdi katolikoei, katolikoan politika-ekintzaren bidez, uste bait zuan, abertzalekeria gaindu-ta, erriarteko adiskidetasuna eta munduko pakea bizkortu aal izatea. Aren itzalpean lan egin zuten Don

Sturzo apaiz onuragarriak, eta onen "Partito Popolare Italiano"k, "Italiar Alderdi Errikoiak".

Pio XI'ak ez zuan Alderdietan usterik. Agian, Don Sturzo'ri batere lagundu ez ziolako, ezereztu zuan ain errez fatxismuak "Alderdi Errikoia". Ez zuan Don Sturzo'k orrelakorik merezi. Baiña, Pio XI'aren teokrazi-kutsuzko oldozkizunetarako, alderdiek ez zuten balio; Eliz-Jerarkiarengandik iareegiak bait ziran.

Katoliko-Ekintza bear zuan bere asmoetarako Pio XI'ak, eta Katoliko-Ekintza sendotzeari ekin zion leiatsu.

Pio XII'ak, ostera, alderdietara itzuli zuan begia. Komunismoak alderdi baten bitartez lortu nai zuan Frantzi'n-eta, Itali'n-eta, errien jaurlaritza. Sarkaldeko Laterrietan komunismoari bideak isteko, bear-bearrezkoak zituan Aitasantuak alderdi katolikoak.

Alderdi oiei indar-emateko asmoz, izan zan pentsatua komunismoaren aurka jaurtitako eskomikapena.

Pio XII'ak bezala, naiz komunismoari ain bildur aundirik gabe, zuzentasuna gizarteko bizitzara eramateko, katolikoak eta baita borondate oneko gizakume guztiak ere, alkar artu-ta, politikan sartzera beartuak daudela erakutsiko digute Jon XIII'ak eta Paul VI'ak.

Leon XIII'a ezker Aitasantuek ekonomiari-buruz eta soziologiari-buruz eman dituzten arauak aurrera atereazteko ere, naitanaiezkoa dute katolikoek politikan sartze ori. Eta soziologi-ekonomiak aipatu ditugun ezker, agertu dezagun laburki, gai oietan Pio XII'aren jarduera nolakoa izan zan.



"Goraipatu zituan, esaten digu "Encyclopaedia Britannica"k, langilleek olagintzari-buruzko arremanetan dituzten eskubideak"; "He emphasized the rights of the worker in the sphere of industrial relations"; eta, orrela da. Baiña aitorketa orri zerbait erastera beartuak gaude: 1950'garren urtea ezker, gai ontan ere besteetan bezala, zугurregia eta kezkatua biurtu zitzaigula Pacelli Aitasantua.

Azkeneko garai ontakoak dituzu, "Kristau Progresisten" gaitzespena; komunismoaren aurkako, Aulki Donearen ekintzaren gogortzea, langilleek olen zuzendaritzan parte artzeko duten eskubideaz zakartxoegi-edo itzegitea; "Apaiz Langille"en ariketa debekatzea, eta abar.

Bearbada, bildur geiegirekin, eta nekeak-jota lez, ituntasunean sumindutxoegia bezala ibilli zan azkeneko urte oietan Pio XII'a. "On put se demander au cours de ces années qui coïncidaient avec le fin pénible du pontificat de Pio XII, si l'Église ne souffrait pas réellement de cette sclérose que ses adversaires dénonçaient depuis" (Roger): "Galdetu daiteke, Pio

XII'aren Aitasantutzaren amaiera oiñazetsuari dagozkion urte oietan Eliza ez ote zegoan, gero etsaiek aurpegira jaurtiko dioten bezala, zain-gogortasunaren gaitzak joa".

Esan dezagun ala ere, Pio XII'aren izena zuzentasunaren aurka arifnegi ez erabiltzeko,

A)- Bazuala, kezkatu ibiltzeko, arrazoirik aski. "Apaiz Langilleak", kristautasunaren erakutsiak laga-ta, arifnegi eta errezege ari ziran marxismoaren aburuak onesten. Batzuek apaiz baiño gelago ziran ordurako, komunismoaren aldeko borrokalari.

Katoliko soziologilarien artean ere asko, kristautasuna gizarteko politika eta ekonomia zuzentzeko bakarrik eraturako dotrin bat ez dala aztutzen ari ziran: Jainkoarekin eta gogo-barrungo bizitzaren eta ludi onen ondorengo betikotasunarekin ere zer ikusirik baduala gogoan ez artzen.

Oituztilariek berriz, moralistek, "Moralitas Situationis" edo "Ateka-Moralitatearen" bidez Jainkoa baztertuta gizakumea ipintzen zuten; "zer ona eta zer gaiztoa" dalaren maixu guren.

Ateka bakoitzean, --ots, zori bakoitzean, gertakizun bakoitzean--, gizakumearen kontzientziak erabaki bear bait zuan, aiek ziotenez, nola jokatu. Jainkoaren legea, denbora guztietarako, toki guztietarako eta gizakume guztientzako berdiña ez dala esaten zuten bâ.

Jaungoikoaren legeak ez baiña ateka bakoitzeko zer-nolak, zori bakoitzaren bereiztasunak, gertakari bakoitzaren xeetasunak erakutsiko zioten kontzientziari arazo bakoitzean nola jardun.

Ta, Oituztitan bezala, baziran Teologian eta Idazti Doneen Jakintzan, ez moralistak bezain nabarmen, baiña bai okertxo-antzean zebiltzanak.

Bearbada zakarregi ibilli zan auekin Pio XII, baiña,

B)- Zakarkeri aren errua berea baiño gelago zan agian aren inguruko ixillezko aolkulari iñakitar doixtarrena. Oroi Alcide De Gasperi politikari bikain-bikañaren esaria: "Pio XII'ari berari zor zitziola aldakuntza ura gogorragoa ez izatea". "Bien au contraire, c'est grâce à la résistance de Pie XII que l'évolution que vous déplorez n'est pas le plus accentué", esan zion, XII Pio'k egindako aldaketa batzuen aurka mintzatu zitzaion diplomazilari bati. Ta, orduan Itali'ko Jaurlaritzaren Lendakari zan De Gasperi demokrazizaleak ondo ezagutzen zuan "bere" Aitasantu aren oldozkera.

D)- XII Pio'ren erabakirik zorrotzenek ere ez zuten beiflere zeero aurrebideko aterik itxi. "The more cautious attitude on Pius'part during the last years of his pontificate caused some uneasiness, particularly in the affairs of the Worker-Priests (1954), which had repercussions beyond of the Catholic Church; but it did not jeopardize the steady move forward in readjustment to conditions after world war II" (En. Brit.).

Euskeraz: "Pio XII'ak azkeneko urteetan erabillitako era kezkatuak, sortu zuan zenbait naigabe; baitipat, Eliza Katolikoaz-at ere ondorio-ekarle



izan zan Apaiz Langilleen arazo ura zala-ta; baiñan, Bigarren Ludi-Guduaren ostean, bearkizun berriei erantzuteko, Elizak berekin zekarren eraberritze-igikunde azkarrarentzat ez zuan (Pio XII'aren "era" ark) eragozpen orokorrik sortu".

Gaitzetsi zuan marxitasuna; baiña baita Sarkaldeko Laterri kapitalzaleetako langillediaren zoria ere, zori au Izadi Legearen eta Jainkoak esandakoaren aurkakoa zala oiu egiñaz. Ikusi zuan, ortaz gaiñera, munduko ekonomia gaizki eratua egoteak egiten duala komunismoa ain indartsu eta arriskugarri, eta ekonomiaren egoera oker ori aldatzeke ez dagoala komunismoa eragozterik.

E)- Era berean "Prêtres-Ouvriers" edo "Apaiz Langilleen" debekua ere, naiz orokorregia bearbada, ez zan Aitasantuaren asmoetan erabateko eta betirako debekua. Une berean, zalantzarik gabe eman zion ats, Pio XII'ak, "Mission de France" edo, 1941'ean A. Chenu domingotarra gidari zalarik sortu zan "Frantzi-Mixio" izeneko igikuntzari.

F)- Ezin ukatu, azkeneko urte aietan geiago izan zirala "Index"era jaurtitako liburuak, eta batez ere mingarriak izan zirala Congar, Chenu eta De Lubac bezalako irakasle bikain ospetsuei Erroma'tik egin zitzaizkien asarrezko oarpenak, baiña ezin ukatu jakintsuei azterketarako bideak aski iare utzi zitzaizkiela, dala teologian, dala moraliztian, dala Idazti Doneen azterketa-ekintzan.

Ordurarte Erroma'ko biblilariek ainbesteko bildurrarekin ikusi izan oi zuten "Formgeschichte" edo "Elerti-Eraen-Edestia", Idazti Donearen azterketarako erabilli aal izatea aske utzi zitzaien jakintsu katolikoei.

Oroigarria eta benetan eskergarria da, gai ontan, 1943'eko "Divino Afflante Spiritu" entziklika. Eta baita're, Eliziztiaren arloan, urte bereko "Mystici Corporis" beste entziklika aundia, "a majestic exposition of the nature of the Church" (Enc. Brit.), "Eliz-zertasunaren azalpen yaukala".

Bi entziklikak, egia da, aitasantutzaren aurren-urteetakoak dira, baiña azkeneko urte illunagoetan ere ez zuan Pio XII'ak Idazki aietako erakuskintzarik aldatu.

Ain zuzen bigarren Entziklika ortatik dator gero II Batikandar Kontzilioak sagaratuko zigun Elizaren irudia.

Ordurarteko katolikoan-baitan bizi zan Eliz-irudia, teologilariek baiño geiago legedilariek antolatutako irudia zan, autokraziaren aroan, protestalaritzari eta galikeriari aurpegi emateko antolatua, Eliza, batez ere, jerarkizko Erakunde bat bezala ikusten zuana, eta jerarki orren agintzeko-aala bereiziki sendotu nai zuana. Orain Pio XII'ak, Erakunde ori izkutuzko izaki bizi bat dala batez ere, erakutsi zigun, Gogo Deuna animatzat duala, Kristoren bizitza bizi duan Gorputza.

Entziklika ortako dotriña ez zuan berea Pio XII'ak, bere aurretik lan aundia egin bait zuten Eliziztiaren arlo ortan 1924'a ezkerro Karl Adam'ek, Congar'ek, Tromp'ek, Mersch'ek eta De Lubac xaloak.

1938'an asi zan De Lubac'en "Catholicisme" aldizkaria. 1937'an Congar'en "Unam Sanctam" bilduma. Leenagokoa berriz, 1924'a, da, Adam'en "Das Wesen der Katholicismus": "Katolikotasunaren Zer-izatea". Teologilari oien erakusketa Elizaren dotriña biurtu izatearen meritua, ordea, Pio XII'arena da.

Idatzi zuan urte batzuk geroago gai ortaz Congar'ek beste liburu garrantzitsu bat: "Vrai et fausse Réforme dans l'Église" (1950), baiña urte ori, Erroma'n, aldakuntzaren urtea izaki-ta, poza baiño atsekabe geiago jaso bear izan zuan egilleak.

Urte ortakoa duzu, ain zuzen, aldaketa aren lenengo aztarna: "Humanae Generis" entziklika, gizakumearen nortasuna eta zertasuna beren osotasunean babestearren idatzia. Gogorregia zalako, izan ziran jakintsu katolikoan artean, entziklika ura Pio X'ak argitaratutako "Pascendi" izenekoaren jarraipena lez artu zutenak.

Bada, ala ere, bi entzikliken artean ezberdintasuna! "Pascendi"k teologiaren azterketari ia lepo egin zion; "Humanae Generis"ek, ordea, ez zuan teologi-azterketarik eragozi.

Badirudi azkeneko urte aietan Pio XII'ak Sekularren Apostolutzari bildur euki ziola ere. Naiko ugari ziran leendik apostolutza orri begi okerxamarrez so-egiten zioten gotzaiak. Maritain bera ere, "Dans la Cité" edo "Laterria-Baitan" izeneko azalpenetan apostolutza orri ats-eman zion Maritain filosofilaria, oker ikusia bait zan gotzai askoren aldetik!

Pio XII'ak ez dizu esango Pio XI'ak esaten zuan bezala sekularrak Elizaren jerarkizko apostolutzan erdikide izan bear dutenik; Pio X'ak bezala, sekularrak apostolutza aren laguntzaille izan bear dutela esango dizu soilki.

1957'an apostolutzarako asmatutako Erakunde sekular guztiak, eta baita, iñoiz apostolutza-asmu ezagunik izan ez duten, iñakitarren "Kongregazio Mirendarrak" ere, Katoliko-Ekintza zirala aldarrikatu zigan.

Baleike Aitasantuaren urrats au iñakitarren beraiek eskariz emana izatea, baiña Katoliko-Ekintzari on gutxi egin zion eta "Kongregazio Mirendarrei" ez zien batere apostolutzarako kemenik kutsutu.

Ez daiteke, ala're, aantzi, Pio XII'a "Istituto Sekularren" Aitasantua izan zanik; eta, "Katoliko-Ekintza"tik politikarako gidari katolikoak espero zituan Aitasantua, ta, Mixiolari Sekularren Aitasantua..., eta Ego-Ameriketako apaizarik-eza eta ludi guztiko mixiolari-falta konpontzen egiaz saiatu zan Aitasantua...

"Fidei Donum", "a far sighted encyclical" (Ibdm) "begi luzeko entziklika", apaiz-urritasunaren arazo ori konpontze-bidean, aurreruntzako urrats ederra izan zan 1957'an.

Oroi dezagun berebat, Pio XII'ak onartu zituala 1948'an gure eusko "Elizbarrutien Mixioak", eta arrezkero lan ederrik asko badagitela gure apaiz eta sekularrek Ekuator'en, Benezuela'n Brasill'en, Txile'n, Angola'n,

Ruanda'n, eta Katanga'n..., eta Elizbarruti bateri mixio-emate ori zearo gauza berria zala.

Gasteiz'ko elizbarrutia izan zan, izan ere, mixiokuntzaren edestian, eginkizun ori aurrena eskatu zuan elizbarrutia, eta Pio XII'a, eskari ori onartzen aurreneko Aitasantua.



Zer esan, amaitzeko, Eukeni Pacelli, XII Pio Aitasantuari-buruz?

Akatsak, noski, edonork bezala, bazituala, baiña alatagutziz gizon aundia zala, eta Aitasantu aundia izan zala. Eliz berri baten susmoa izan zuala, eta baita Eliz berri baten guraria ere, baiña Eliza berritzearen arriskuek, maiz, kezkatu biurtu oi zutela, eta, orregaitik, gai askotan nortasun bikoitzeko gizakumea agertu zitzaigula.

Bitez, diogunaren adigarri, ondorengo itz auek: "He was particularly insistent on teaching the doctrine that the government of the Church resides in the whole episcopate, and is not to be thought of as monarchy. But he was himself an autocrat, who expected not advisers but executors of his will". (Ibdm.).

Euskeraz: "Setatsu ari izan zan Pio XII'a Eliza-baitan jaurketa gotzaidi osoaren eginkizuna dala, eta Elizaren jaurlaritzari ori, monarki edo bakalduntza baten antzekoa danik uste izatea zillegi ez dala, erakusten. Bera ordea "autokrata" bat, bakarragintzaille bat, izan zan; ez zuan aolkularien bearrik sekulan sentittu; bere naiaren egille utsak bakarrik nai izan zituan bere inguruan".

Egia da bakarragintzaillea izan zala; ezi ere, agintzeko! izan bait zan diplomazi-ikastetxetan ezia, eta bizi berriz, diplomaziaren gaillurrik garaienetan, agintzen, bizi izan bait zitzaigun beti. Baiña naiz bakarragintzaille izan, ordurarteko Aitasantuek ez bezala ikusi zuan... bera Elizaren agintari bakarra ez zala; gotzaiak ere, Josukristo'ren naiaz, Elizaren agintaritzan Aitasantuarekin erdikide zirala.

Ez zan noski, ori dana, dotriña berria, baiña berria zan Pio XII'ak liburuetan aantzirik zegoan dotrin ori Elizaren bizitzara erakartzeko ibilli zuan leia.

Ariketa berri guztietan bezala, ordea, ariketa aren gaiak ere ez bait zeuden oraindik ondo mugatuak..., eta ordurarte Aitasantuek bakarrik bakaldun lez agindu bait zuten beti..., eta gotzaien almenaren zabaltasuna eta luzetasuna ez bait zeuden oraindik, --ez daude gaur ere--, bear bezain argi zeaztuak (naiz agintaritzari, Eliza-baitan, gotzaidi osoarena izan Aitasantuak badu bñ zerbait berea, gotzaiena ez dana)..., zalantza-laiñoz illunxamartutako giro ortan, Aitasantua gotzaiekin agintaritzari erdikidetzen asteak iskamil arriskugarri bat baiño geiago sortu zezakeala uste izan zuan gure XII Pio'k.

Orregaitik, gauza bat erakutsi oi zuan eta beste bat egin: Agintaritza gotzai danena zala oles egin, baiña, berak, bakarrik agindu.


Elizaren agintaritzari-buruz gertatu zitzaiona bera gertatu zitzaion beste gaietan ere. Pio XII'ak aurrera eraman nai izan zuan Eliza, eta Eliz ori, gaur-eguneko munduari erantzuteko gai izan zedin, bear zan guztia eraberritu, -- ez dezagun aztu "aggiornamento" itza berea dala--, baiña ez bait zekian, eta ez zezakean oraindik jakin ere, aldakuntza oiek nolakoak eta noraiñoakoak izan bear zuten, zalantzan bezala ibilli zitzaigun askotan.

Neurri ederrean, Pio XII'aren zalantz oiei eskerrak aurrera atera aal izango ditu Jon XXIII'ak bere asmo bikaiñak, II'en Batikandar-Kontzilioaren bidez. Gero, Kontzilioaren erakutsiak mami biurtzerakoan, ostera berriz Pio XII'a bezala zalantzaz inguraturik ari izango zaigu Paul VI'a.

Pio XII'aren maixutzak, nazio arteko bizitzan, gora-ta-gora jaso zuan Elizaren ospea; eta irabazi zuan, Aitasantutzarentzat, mundu guztiaren eraspøna; biziro arrigarria eta guragarria azaldu bait zuan bere idazti ta itzaldietan Elizaren gizarte-bizitzari-buruzko dotriña.

Berebat, igalitsua izan zitzaigun "aren Aitasantutza Elizaren barne-bizitzarako". "Anitz bidez berak prestatu zuan giroa II Batikan-Kontzilioarako": "Pius XII's pontificate was fruitful in the internal life of the Church". "In many ways prepared the ground for the second Vatican Council" (Ibdm).

Ez da goratzarre makala.



## XXIII JON (1958-1963)

Ariña ta sakona, azkarra beti, izan da Pio XII'az gero, Elizaren eraz-aldatzea. Garrantzi aundikoak izan dira beti, azkeneko ogei urte auetan Eliza-baitan ikusi ditugun gertakizunak: Jon XXIII'aren aitasantuketa; "Mater et Magistra" ta "Pacem in Terris" izeneko bi Entziklika dizdiratsuak; II Batikan-Kontzilioa; Elizaren Billera Nagusi onen ondorioak, ondorio oparoak; Jon XXIII'aren bidetik ibilliz Paul VI'ak burututako ekintza egoki ta erakusketa zuzen osasungarriak..., baiñan, era berean, baita're Aitasantu zintzo estu onen zalantza mingarriak. Ez ditzagun aantzi Jon Paul I'aren irriño gozo itxarogillearen agerpen laburra, ta Jon Paul II'aren autaketa uste gabekoa; ezta're...

Baiña Elizan azkeneko urte auen epe azkarrean gerta izan dan guztia, ¿nola itz urri labur batzuen neurri motzean egoki ta zuzen aztertu?

Gaiñera... gaiñera, gertakari auek danak urbillegi dauzkagu, "ezeegiak" dira oraindik, Edestiaren mami biurtuak izateko, "Oraiña" ez baiña "Leena" bait da Edestiaren mamia, gaia. Oraindik idatzi ez daitekean Edesti baten azi-ale dira gertakizun oiek: etorkizunaren azi-ale; ez dute oraindik ziturik eman aal izan. Idatzi beza, beraz, geroak, gure egun auetako gertakizunen edestia.

Gaurko azitik ordea igarri bait daiteke biarko igaliak nolakoak izan daitezkean, saiatu gaitezke, laburki ba'da ere, gaurko Eliz onen oraiña aztertu ta ikertzen, Eliz onen geroa, al dan neurrian, usmatu beintzat egin dezagun.



JON XXIII'A, AITASANTU-: "Izan zan gizon bat Jainkoak bidalia. Aren izena, Jon"--. Zenbat aldiz ez ote ziran esan-da-birresan Ebangelioko itz auek mundu guztiaren zabaleroan, 1963'aren ekainean eriotz baten berri jendeak jakin zuanean?

"Gizon Jainkoak bidali" ori, ekain aren iruan gorputz zegoana, Gotzon Roncalli Mazola zan, Itali'ren iparreko Soto il Monte, euskeraz, "Mendibe", izeneko baserriskan jaioa.

Baserritar langille, bakun, umore oneko ta osasun sendokoak izan ziran bere gurasoak. 81 urterekin il zitzaion aita, Jon Batista; 84'ekin ama, Mari.

Jatorri ortatik jaso zituan Jon Aitasantu izanen zanak bere osasun sendo, umore gozo, eta patxada. Baita sendi ugariei beti izan zien zaletasuna ere; amar senide izan bait zituan berak.

Tontsura artu bezain laister egin zan Frantzisko Deunaren Irugarren Ordenakoa. Gerontzean, esplikazio geigirik bear ez duten eraspen errikioen maitale agertuko zaigu beti Gotzon Roncalli, Jon XXIII'a biurtu ondorean ere, Asis'ko Frantzisko maitagarriaren jarraille zintzo bezala.

Adimen azkarrekoa zalarik, errez irabazi zuan teologizko Doktoretza.

Apaiz, kargu auek erabili zituan eskuetan bere sorterriko elizbarruti Bergamo'n:

- Apologetika, Patrologia eta Eliz-Edestia'ren irakasle Seminario Nagusian; idatzi ere idatzi zituan edesti-idazki batzuk.

- Gotzaiaren idazkari. Gotzai au, Radini Tedeschi zan, soziologi-arloan jende landerraren alde egin zituan lanei eskerrak, txit gizon ospetsua. "Nere apaiztasun osoaren izarra" deituko dio Jon XXIII'ak.

- Katoliko-Ekintzako gaztediaren Aolkulari Nagusi, eta Apaizgaitegiko gogo-zuzendari.

1915'ean, gudatekoan, gudaroztean gaixozaiñen sarjento izan zan, eta geroxeago gaxotegi bateko kapillau, teniente graduarekin.

Guda amaitu ostean, ibilli zituan Europa'ko lurralde batzuk, aundia bait zan aren jakiteko guraria.

Benedikto XV'ak ekarri zuan Erroma'ra, Itali'ko Sinismen-Zabalkundearen Kontzejuko lendakari izendatuz. Pio XI'ak, Opera Pontificia izeneko Aitasantuaren Mixio-Ekintzen Nazioarteko Batzar Nagusiaren Batzarkide egin zuan, oartu bait ziran bi Aitasantu argi aiek, Gotzon Ronkali balio aundiko gizona zala.

Pio XI'ak izendatu zuan goigotzai eta, aurrena Bulgari'n, eta gero Grezi'n eta Turki'n, bere ordezkari egin; kargu zaillak, Aulki Donearen diplomaziko karguen artean; aundiak bait ziran an ortodoxiar berezian aldetik Erroma'ren aurkako kezkek. Yayoki jokatu zuan Gotzon Roncalli'k eta ederki bereganatu zituan bai ortodoxiarren bai islamitarren biotzak. Lurralde aietan arrapatu zuan II Ludi-Gudak, eta aipatu dugu andik judutarren alde egin zuan lana.

Maitasun aundiarekin aztertu zuan Eliz Ortodoxiarren biziera, eta anai bereizi aien benetako adiskide zintzo joan zan Frantzi'ra, Pio XII'ak 1944'ean, oraindik gudua amaitu gabe, Frantzi'ko Nuntzio izendatu zuanean.

Uraxe bait zala une artantxe Elizaren diplomaziak zuan kargurik gogorrena; Frantzi beti Frantzi dalako, bai noski, baiña, batez ere, une

aietan, Frantzi, gorrotozko labe zalako. Uxatu berriak ziran alemaniarrek. Garaille ziran ia, ordurako, abertzaleak; baiña asko izan bait ziran Frantzi'n alemaniarrei alkartuak, "saldu" aien aurka gogor zegiten abertzaleok.

Petaïn mariskala bera, Alemani'ren aldeko Frantziar-Laterriaren Buruzagia, katigu zegoan, eta laister eriotzara galdua izanen zan; eta, Aberriaren alde Lenen-Ludi-Guduan irabazi zituan merezimenduei eskerrak erailla izatetik liberatuta, bizi guztirako katigutzara jaurtia. Baiña aren Jaurlaritzako Lendakaria, Laval, eriotzara galdua eta erailla izan zan.

Ez zegoan Eliza ere Frantzi'n batere seguru, gudatekoan Gotzaiak, ia danak, Petaïn'en Jaurlaritzaren laguntzailleak izan bait ziran; traizio-egille aberri-saltzailleak, abertzale garailleen ustez. Garaille auen artean, berriz, asko ta asko komunistak ziran.

Arazo larria Pio XII Aitasantuarentzat, baiña baita egiaz katoliko eta benetan abertzale zan De Gaulle Frantzi'ko Buruzagi berriarentzat erel Bâ..., une artan, arazo artarako, ez zuan, ain gizon argi eta diplomazilari yayo zan Pio XII'ak, Gotzon Roncalli baiño gizon egokiagorik aurkitu; Gotzon Roncalli au gizon txit azkarra zalaren oarpide galanta; izan daiteken aundienetakoa, Roncalli Nuntzioak berak Frantzi'n erabillitako trebetasuna, oraindik aundiagoa ez ba'litz.

¿Zergaitik izan ote zan bâ, Erroma'ko kuriatar askoren artean, Gotzon Roncalli gizon urrixamartzat eukia? Itxurei jaramon gutxi egiten zien gizona zalako: aundia, lodia, patxada borobillekoa, irri gozo errezaren jabea, bere trebetasunetaz iñoiz mintzatzen ez zana, eta bere egintzei garrantzirik ematen ez ziena.

Kuriatarren bizimodu zirimonizkoa baiño atsegiñago zitzaion Sotto il Monte'ko bere baserrikoen biziera zabal tolesgabea. Ez zuan kuriatar izateko balio. Baserritarra zan biotzez, eta baita adimenez ere. Ortik zetorkion "zailla zana erreza biurtzen saiatzeko joera". Berak esan oi zuanez, joera ori izan omen arazo guztietan ekintza-arau nagusia. Izpirituz baserritarra noski, baiña baserritar bapo ura duzu urte biurri aietan ludiak izan zuan diplomazilaririk yayoena; Pio XII'a bera baiño yayoagoa oraindik.

Paris'en Nuntzio zala UNESCO-baitan Aulki Donearen ordezkari ere izendatua izan zan, eta kultur-bazkun ontan, diplomazi-aretoetan lez, bere umore gozoa ta bere zentzu sendo zuzena lagun, laister bereganatu zituan berarekin zer ikusirik izan zuten guztien biotzak. Txit atseginki artuak izan oi ziran Paris'ko Nuntzioaren ateraldi gaxi-goxo bikain zorrotzak, buru-biotzez baserritar zalarik bai bait zizun Roncalli'tar Gotzon'ek gure bertsolarien antzera ziri egokiak une egokian egokiro erabiltzeko doai zorrotz berezia.

1953'an Kardenal izendatua, Auriol Frantziar-Errepublikako Lendakariak berak ipiñi zion bere eskuz buruan "birreta", --Aitasantuaren eskuetatik artzekoa bait zan "capello"a--, eta Auriol'ek berak ezarri zion



baita're Frantzi'ko dedu-ikurrik aintzagarriena: "La Grand Croix de la Légion d'Honneur".

Lau urte geroago, Paris'ko Nuntzitegiaren arazorik latzenak eroso konpondurik zeudela-ta, Benezi'ko Patriarka egin zuan Pio XII'ak Paris'ko Nuntzio bezala guda-osteko zurrunbillo arriskutsuan ain ordezkari yayoa irten zitzaion baserritar ura.

Paketsu laga zuan, eta sendo, eta igikor, Frantzi'ko Eliza, Gotzon Roncalli'tarrak.

Jaungoikoaren eskua ikusi izan oi zuan Roncalli'k berak, ibilkizun auetan danetan.

Bulgari'n eta Grezi'n eta Turki'n diplomazilari izateak, Sorkaldeko erri aietako bizitza, eta batez ere ortodoxiarren kristaukera bere-berez ezagutu aal izateko adiontasuna eman zion. Eta baita, --Turki'n--, musulmanak ezagutu aal izatekoa ere. Gero, gudakoan lurralde aietan zegoalako, bere begiz ikusi aal izan zuan totalitarien jokaera, italiarrek maltzurkeriz eraso eta alemaniarrek ankerkeriz zapaldutako Grezi'n gertatu ziranen lekuko izan bait zan.

Orduan asi zan apika Jon XXIII'a izanberraren biotz-barrenean ernetzen "Pacem in Terris" entziklikan mamiturik agertuko zaigun demokrazizko oldozkera.

Ez zan, Frantzi'tik ere, bere ondorengo eginkizunetarako zerbait adionsu ta txit garrantzitsurik ikasi gabe irten. Gotzon Roncalli mardula, baserriko semea izaki-ta, bere joeraz "kontserbatzaillan" alderdira iraulixea-edoo izan genduan.

Frantzi'n ordea, ikusi aal izan zituan bertatik-bertara, kontserbatzaillan agoz "progresiste" izendatu oi ziran kristau urduri aiek lanean.

Aguro oartu zan progresiste aiek, banaka batzuk kendu ezker, sinismen sendo eta bizkorreko kristauak, naimen oneko gizonak eta egiazko eliz-maitaleak zirala; ikusi zuan aien ekintzak zitu ederrak zekarzkiola une naasi galgarri aietan Frantzi'ko Elizari.

Igikunde auek danak albo-albotik ezagutu aal izateak eta igikunde auetako zuzendariekin luzaro alkarrizketa leialean jardun izateak, on aundia egin zion Gotzon Roncalli'tarrari geroagoko aitasantutzarako ez ezê baita Aitasantu izan aurretik beneziarren-artzaintzarako ere.

Ain zuzen, komunista izanen bait zuan Benezi'n bertan alkatea!

Ez zuan alkatearekin iskamillik izan, ez bait ziran, ez alkatea, ez patriarka, alperrikako iskamillen maitale, eta are gutxiago ifior zauritzearen zale. Aski "gorria" zan Benezi artan ez zuan "politikan sartu" nai izan: "Eschewed politics" (Enc. Brit.). Alare komunistekin ez eze sozialista ezkertiarrekin ere katolikoak alkartzearen etsai agertu zitzaigun.

Sozialistak, Itali'n, bi zati egiñik zeuden. Saragat'ena zan bi zati aietako bat; Nenni'rena bestea: aundiena, ezkertiena. Nennitar auekin

alkartzekotan zebillen an "Kristau-Demokrazia" Beneto'ko gotzairik geienen onesprenarekin. Aurka irten zitzairen ordea Roncalli Patriarka.



1958: Gotzon Roncalli'tarra Aitasantu!!! 77 urte beteak zituan-da, beste norbaiten aukeratzera bateratzen ez ziralako, uste izan zuan munduak, autatu zutela agure ura kardenalek Aitasantu: laister ilko zalaren ustean.

Bitarte baterako Aitasantua besterik ez genuan, beraz, Jon XXIII'a.

Ez zan berea, autaketa errezegia izan. Eusle asko omen zituan bâ Konklabe artan Armeni'ko Agagianian Kardenalak; Montini Milan'go Goigotzaiaren izena ere aipatu omen zan an aitasantu-gaitzat maiz aski, gotzai kuriatar au diplomazi-lanetan Pio XII'aren laguntzaille izan zalako. Baiña, ain zuzen, ori omen zan kardenal askok nai ez zutena: diplomazilari bat, politikoezia etsitzen omen zuten bâ azkeneko Aitasantuak, Pio XII'ak, erabillitako jokaera.

Artzai baretsu patxadako bat gura omen zuten, eta orregaitik so-egin omen zioten Roncalli zaarrari: au, Benezin, paketsu-paketsu, danak maitatutako Artzai gozoa izan zalako.

Artzai gozo ura politika ta diplomazi gaietarako beste inor ez bezala bizkorra zanik ez zuten oroituz ere egiten, eta aren gozotasun-pean zetzan indar igikorra ez zuten inñolaz ere usmatzen.

Aitasantu berriak bere buruari ipiñi zion izen ustegabekoak berak aski arritu zuan mundua, ez bait zan erdiaroz gero izen ortako Aitasanturik Aulki Donean eseri: Jon XXII'a azkenekoa, Abiñon'en.

Izan zan gero --1410'etik 1415'era-- beste Jon XXIII bat ere, baiña sasi-aitasantua, Baltasar Cossa, Pisa'ko Kontzilioan era ustelean izendatua. Ain borrokalaria izandako elizgizon onen izena artu zuan Roncalli baretsuak. "Bere ateraldietako bat"!, esan zuten askok kristaudian. "Cést un brave homme" "auxe bai gizon berebizikoa"!, oiuz egin zuten, erdi-asarreturik, Frantzi'ko elizgizon eskubitar burutsu zугurrek, "berebiziko" itz orri askotan oi duan zentzu murrizta emanaz. "Ez duk noski orren aitasantutza edestira sartuko"!, zegiten marmar Erroma'ko Kurian Pio XII'a zanaren miresleek.

Atzipeturik zeuden danak. Gauza batean bakarrik zuten arrazoi: Jon XXIII'a "un pape de transition" "igaroaldi bateko Aitasantua" izanen zala, ain seguru uste izatean; izan ere, egi-egiaz, "igaroaldi" bateko Aitasantua izan bait zan; baiña ez aiek uste zuten bezala, Aitasantu baten eriotzatik beste baten etorrera arteko asti laburra era paketsuan "igarotzeko", ez; askoz zentzu sakonagoan izan zan Roncalli "igaroaldiko" Aitasantu. Berak "igaroarazi" bait zuan Eliza egoera zar batetik beste egoera berri batera. Laburra, bere aitasantutza, baiña bai benetan garrantzitsua, ta oparo betea.

"Fuit homo missus a Deo". "Jainkoak bidalitako gizona"!

Begi berriekin begiratzen zion Jon XXIII'k munduari, ari bait zan bere izpirituan aldakuntza sakon bat egiten. Aski kontserbatzaille oraindik, erne zitzaion ordurako, uste ezean bezala, berritasun iriki ausartien zaletasuna. Ala, bere aurreneko urratsak Aitasantu berriaren sentipen bikoitz ura agertzen digute:

- Aurreneko itzaldia, Aitasantu autatua izan zaneko egunaren bigaramonean emana, gozoa zan, lau-laua, gau artan bertan berak prestatua, adiskideak adiskideekin erabiltzen duan izketaren antzekoa.

- Baiña, Tardini kontserbatzaille ezaguna izendatu zuan Estadutza'ko Idazkari.

- Aspaldian iñork ez eta, ugariagotu zuan berak, ordurarte irurogeita amarrekoa izan oi zan kardenalen taldea.

- Baiña, 13 italiar izendatu bait zituan, sendogoa egin zuan auen indarra. Pio XII'a iltzean italiarrak kardenalen kopuruan % 30 bakarrik ba'ziran, % 40 izango bait ziran orain.

- Aitasantuarekin itzegiten zuten gizon aurrerakoi guztiak itzultzen ziran, arengandik, itxaropenez beteak,

- Baiña, Itali'n zan seminariorik integristeenetako irakasleak eginen ditu bere aolkulari: laister Unibersitate izanen dan Letran'go Seminarioko teologilariak.

- Aski kontserbatzaillea izanen da oraindik, Aitasantuak berak bildutako Sinodo Erromatarra ere, baiña Jon XXIII'aren biotz beti-gaztean, ari zan igitzen, leena gordetze utsa laga-ta, Elizari aurrera urrats luze bizkor ausarti bat emanarazteko gogo. "Pape de transition"!

Iru bidetik nai zuan aurreruntz Elizaren lemazain berriak igaro. Ekumenegintzara daraman bidetik, Sinistegabeko mundu zabalera daramanetik, eta, nola ez, Eliza beraren bir-gaztekunderako bidetik.

Ikusi dugu nola zegoan Roncalli'tar Gotzon Sorkaldean jaso zituan gogapenei eta sentipenei eskerrak, Elizen batasunerako-azua era bereizian ulertu aal izateko prestatua. Biotzez maite zituan, Sorkaldeko Eliz aiek eta Eliz aietako legeak, liturgia, kristau-kera guztia.

Protestalaritzatik jaiotako Kristau-Elizetara ere iristen zan Aitasantu Berriaren maitasun ziña, Kristo sinisten zuten guztien "Artzai" etsitzen bait zuan arek bere burua.

Aspaldi, ukitzeke zegoan Ekumenetzaren azua.

Pio XII'a ez zan barruti ortan geiegi saiatu. Bere ardura guztia Uniatentzat izan zan, ots, Erroma'rekin alkarturik zeuden kristau sorkaldetarrentzat. Auekingo ardura ere, ia-ia soilki, komunisten menpeko errietatik iges egindako uniatei beren eliz-bizitza bereizia atzerrian bir-eraikitzen laguntzeraiño iritxi zan. Mediterraneo-itxasoaren ertzetako Eliz Uniatei-buruz, ez zuan gauza garrantzitsurik egin. Deus ez, berriz, Eliz Bereiziei-buruz.

Eta bazan zerbait egiteko garaia, ari bait zan Eliz Bereizien altzoan batasun-leia piztuzten.

- 1951: I Atenagoras, Kostantinopla'ko Patriarka oraindik autatu-berriak, Eliz Ortodoxiar guztien Sinodo baten prestaketara dei dagie Sorkaldeko Kristau ortodoxiar guztiei. Areago dioa oraindik Atenagoras'en gogoa, Eliz Ortodoxiar guztiak Kristaudi osoaren Batasunerako bideruntz eraman nai bait ditu.

- 1953: Antioki'ko Alexander III'aren eta Kostantinopla'ko Atenagoras l'aren alkarrizketa; gertakizun oieza; Sorkaldeko Patriarka Bereziak, beren artean ere, zero bizi oi bait dira bereizirik! Kostantinopla'n, Atenagoras'en Jauregian, izan zan bi Eliz-Buruzagi aien billera. (Alexander III'a melkatarra zan: Atenagoras'en sinispidekoa, baiña "bere buruaren jabe" edo "autekefalu" zan Eliz iare baten Patriarka).

XII Pio'ren denborak ziran; Eliz Ortodoxiarrari eta Katolikoari, alkarrizketan asteko, eskatzen zien Atenagoras'ek, gutun batean eta ortarako txit egokia iduritzen zitzaioa zion, Pio XII'a eta Atenagoras l'a alkarrekin biltzea.

Teologilari greziar arek, --ots, Atenagoras l'ak--, ez zekian zortzi urte leenago orixe bera eskatu ziola erantzunik gabe gelditu zan eskutitz batean Medawar Gotzai "melkit" uniatak Aulki Doneari. Ori jakin balu, oiñaze geiagorekin idatziko zituan bere eskutitzaren azkeneko itzak: alegia, Katolikotasunaren Aitasantua eta Ortodoxi guztiaren Patriarka Nagusia alkarrekin biltze ori gerta ezin zitekean gauza zala, ain omen zeuden ba bi Kristaudi aiek bata bestearengandik urruti.

- 1954: "Conseil Oecuménique des Eglises" edo "Elizen Kontzeillu Orokorren" billera Ebaston'en. An ziran Kostantinopla'ko Patriarkaren ordezkariak.

Ez ordea komunist-errietako Elizenak, "Kontzeillu Orokor" aren etsai agertu bait zan Errusi'ko Eliz Ortodoxiarra:

Mundu ontako gauzetaz Jaungoikoari dagozkion gauzetaz baiño ardura geiago erabiltzen omen zuan "Elizen Kontzeillu Orokorrak", eta "deabruek berak ere onartu aal izango omen luteke, Kontzeillu arek erakusten duan kristautasuna", artaraiño omen zegoan bâ aldatua, murriztua, eta beeratua aren kristautasuna. Aulki Donea berriz, "langillediaren etsaia zala" zion, eta "inperialista guztiakin bi Ludi-Guduen sortzaillea, oraindik ere beste irugarren guda baten prestaketan zebillena".

Alexis Patriarkak berak ori pentsatzen ez ba'zuan ere, oiek izan ziran beintzat, 1948'an Mosku'ko Ortodoxi Orokorren Batzarrak aizatu zituan oldozketak.

- 1956'ean Aita Wenger, Paris'ko "La Croix"en zuzendariak, idazlan garrantzitsu bat argitaratu zuan bere izparringian Errusi'ko Elizaren baitan gertatzen ari zan aldaketaren berri emanaz, eta aldakuntza orren edestia

egiñaz: Alkarrizketan asiak omen ziran Mosku'ko eta Kostantinopla'ko Patriarkak, eta baita, eskutitzen bidez, Errusi'ko Eliza eta "Elizen Kontzeillu Orokorra" ere. Aipatu dugun Alexander antiokitarra omen zan ariketa orren eragille yayoa.

- 1958'a garrantzi aundiko urtea izan zan, Mosku'ko Patriarkadutzaren berbizkundearen berrogeigarren urte-betetzea zalako. Orduantxe egin ziran Ortodoxiar-Eliz guztien aurrean alkarren adiskide Kostantinopla'ko eta Mosku'ko Elizak. Aingeru alkartzaillea, Antioki'ko Alexander III'a.

- Gogor zeuden oraindik urte aietan, ofizialki beintzat, Sortaldeko eta Sarkaldeko Elizen arteko arremanak. Sartaldea, (Erroma batez ere), Sortaldeaz arduratzeke bizi zan. Sortaldeak berriz, ez zuan Sarkaldean eta bereiziki Erroma'n akatsa ta errua eta obena besterik ikusten. An, eta emen, eliztar askok uste zuten asmorik zuzenenarekin, beren Eliz bakarrarena zala soilki santutasun guztia.

Ona nola agertu zuten bost-sei ataletan pentsaera ori, Sortaldeko teologilariak, Ohio'ko Oberling'en 1957'garren urtean bildu zuten batzarrean:

A)- Egiatzko Kristau-Batasuna, Ortodoxiaren altzoan Eliz Ortodoxiarrek bizi dutena da;

B)- Eliz aiek "Autokefalidunak" dira, "beren-buru-jabetasuna" dutenak, baiña autokefali orren gaindik, eta autokefali orri eskerrak, Sortaldekoa da egiatzko Eliz-Batasun kristaua: Bereiztasunean Batasuna.

D)- Sarkaldea Katolikoen eta Protestalarien artean zatitua dago. Sarkaldean Batasunik ez da; Bereizitasuna bai, baiña Batasunik ez: Batasunik gabeko Bereizitasuna.

E)- Protestalariak ere zeoro zatiturik dabilta. Ta Protestalarien arteko zatiketa ta bereizitasuna, Bereizitasuna baiño geiago dira alkarren arteko Areriotasuna: Batasun ororen aurkako Bereizitasuna.

F)- Katolikoen artean ez dago indarkeria eta gogorkeria besterik: Bereizitasunik gabeko Batasuna, indarrez ezarria, indarrez iraunarazia. "Il dira Erroma'n Karitatea, Goi-Arnasaa, eta Askatasuna" (Zander).

- Zorionez, ez zeuden danak Sortaldean, beren izaerarekin ain pozik.

Errusi'tik aldeginako Zander teologilaria bera ere, naiz aipatu-berri ditugun itz oiek idatzi, ez zan adimen ertsiko gizona. Irikiak ziran aipatutako Alexander eta Atenagoras bezalako gizonak; eta baita, Errusi komunistaren ankapean bizi bearrak uzten zion neurrian, Alexis Patriarka moskutarra ere.

- 1957'garren urtearen asieran Kontzilio Ekumeniku baten biltzea eskatu zuan "Apostolos Andreas" deritzan Kostantinopla'ko Patriarkadutzako aldizkariak. Oartzun txikia izan zuan Sartaldeen Bizanzio'tiko dei orrek. "The Tablet" eta "La Palestra del Clero" aldizkariak bakarrik erantzun bait zioten emendik. Ori bai: ondo erantzun.

Garai egokian zetorren beraz Aulki Donera Gotzon Roncalli

ekumenezalea. Ats berri bat sortu zan Elizan Jon XXIII'ak Kepa Deunaren giltzak eskuetan artu zituanean; bera ere, ain zuzen, Eliza Kontzilio batera deitzeko asmoarekin bait zetorren.

"L'initiative conciliaire de Jean XXIII bouleversait certes toute une tradition fermement établie, même dans les milieux les plus ouverts... Le pape avait lui-même, dès le début, lié la perspective conciliaire au problème de l'unité chrétienne, considéré sur tout sous son aspect oriental. Sans nier les difficultés il se montrait optimiste". Euskeraz:

"Irauli zuan baiki Jon XXIII'aren kontzilio-biltze-asmoak, jenderik irikien artean ere ezarria zegoan aspalditiko jardunkera. Asieratik alkarrekin lotu zituan Aitasantuak berak Kontzilio-egintza eta Kristau-Batasunaren auzia, batez ere Sortaldeko Kristau-Batasunari dagokionez. Arazoaren zailtasunik ukatu gabe agertu zan "usteontsu". (J. Hajjar).

Berak zionez, Elizen batasunik-ez ortan, "guztiona omen da egitan erantzukizuna", "les responsabilités étaient en fait partagées", "eta alperrikako eztabaidak utzi-bearrak omen ziran betirako; bi alderdietatik, utzi-bearrak, biar-eguneko batasun-bideak gaur-gaurtik zabaltzen asi aal izateko".(Id).

Bai Sarkaldean bai Sortaldean izkera auek zeoro berriak ziran. Ordurarte, edestiari begira, atzera begira egon oi ziran Ekumenetzari-buruzko arazo ontan kristauak. Leenaz azturik, etorkizunera begira ipiñi nai izan zituan Jon XXIII'ak.

Kristaudi guztian sortu zuten zirrara bizia Aitasantu berriaren jerdunbide berriek. Baita kristau bereizien artean ere:

- Jakobitarren adarra, Eliz Jakobita, iru Elizetan zatitua dagoala, gauza jakiña da: Bâ, Antioki'ko Patriarka Jakoub III'ak beste bi Elizetako patriarkei, Alexadri'koari eta Armenitarrenari, Eliz "Jakobitarren" batasuna egiteko alkarrizketan astea aurkeztu zien, laister ortodoxiar guztiek egitekoa zuten Kontzilliora, bat egifik agertu zitezen.

- Orixe bera eskatu zuan Antioki'ko Patriarka Melkatar Alexander III'ak ere, Eliz Melkatarraren altzoan.

- Kostantinopla'ko Atenagoras I'ak, metropolita edo goigotzai bat bidali zuan Erroma'ra, bere izenean an Aitasantuari agur egin zezaion. Auxe izan zan Sortaldeko Elizaren Buruzagiak Aulki Donera bidalitako lenen ordezkaria.

- Grezi'ko Eliza izan da beti Erroma'tik urrutiratuena agertu oi dan ortodoxiar-Eliza. Bâ, Grezi'ko erregeek, Paul eta Frederike'k, Aitasantua Batikan Jauregian omen aundiz ikustatu zutenean, ez zan Grezi'ko Elizaren Jerarkia oi izan duan bezala zapuztu.

- Esnatu ziran biziki protestalariak ere. "Conseil Oecuménique des Églises" deritzan Bazkunak batasunerako bidea aurkitzearren Erakunde bereizi bat nai izan zuan osotu; ta, ortarako, Billera bat eratu zuan.

Kontzilio-aurretik sortaldetarren naimen ona nai zuan batez ere ekintza orren bidez irabazi.

- Itxartu ziran katolikoak, protestalariak ain langille ikusi-ta, aien atzetik ez gelditzeko. Benezi'n katolikoen eta sortaldetarren arteko Billera bat prestatzea pentsatu zuten. Goizegi zan ordea oraindik, orrelako billerarik osotzeko.

- Atenagoras I'ak Kaltzedoni'ko Kontzilioa onartzen duten sortaldetarren Batzarra nai izan zuan prestatu urte baten buruan; eta, ortarako, kristaudi artako "autokefali" edo "bere buruaren jabetasuna" duten Eliz guztiak aurre-ikertu zituan. Ortodoxiaren batasuna lortu nai digu Atenagoras Patriarka'k!

Ori dena Jon XXIII'aren aurreneko 12 illabeteen epe laburrean gertatu zanaren sortarik garrantzitsuena besterik ez da. Urrango urteetan, geroago ta aundiagoak eta garrantzitsuagoak izan ziran gertakizunak:

- Aitasantuak, "Kristau-Batasunari-buruzko Auzientzako Idazkaritza" sortu zigun 1960'ean.

- Urte ortan bertan, Alexis Mosku'ko Patriarka'k, Leningrado'ko Metropolita, Nikolas, kenduta, Nikodemo Gotzai gazte irikiagoa, ipiñi zuan aren tokian Patriarkadutzako Arrotz-Auzietarako Idazkaritzaren buru. Laister, Leningrado'ko Metropolita izango da Nikodemo au bera. Alexis'en jokaera ori, Errusi'ko Eliza munduruntz begiak zabaltzen asi naiean zegoalaren adigarri zan.

Baita irten ere, irten zan mundura Alexis Patriarka Sortalde Urbilleko Eliz-Buruzagiak ikustatzera, bazter guztietan, Ortodoxiarren bateratu bearraren alde sutuki mintzatuz. Aundiagoa dana, Kostantinopla'ko Patriarka'rekin batean meza-eman ere egin zuan: ordurarte iñoiz gertatu ez zan gauza, mendeak-zear alkarren arerio izan bait ziran beti Mosku'ko ta Kostantinopla'ko patriarkadutzak.

Bazirudian Atenagoras'en ametsa, --Ortodoxi Guztiaren Batzar Orokorra--, mami biurtzeko une-unean zegoala.

- 1961'ean Jon XXIII'ak sorkaldetar bat, Acace Cussa, Gotzai Melkatarra, ipiñi zuan "Kongregazio Sortaldetarraren" zuzendari.

- Udazkenean izan zan, Rodas ugartean, Atenagoras'ek eskatu ta antolatutako Ortodoxi osoaren Biltzarra: "Synodos Panorthodoxa".

Zitu geiegikorik gabe. Eliz Autokefalidunen artean bai bait ziran ezberdinkeritxoak.

Alatagutziz onurakorra izan zan ekumengintzarako Rodas'ko Batzar ura, iñoiz baiño baretasun geiagorekin mintzatu bait zan an Ortodoxia, Erroma'ko Elizari-buruz.

- Onuragarria izan zitzaigun "Conseil Oecuménique des Églises" dalakoan Errusi'ko Eliza, azkenean, sartu izatea; naiz Alkarte ori protestalaria izan, ostera berriz Errusi'ko Eliz ura ekumenegintzan pentsatzen asia

zalaren sifiale bait zan. Ain zuzen, illabete batzuek lenago, Batikan-Kontzilioa ez zuala ordezkorik bidaliko arrandi egin zuan Alexis Patriarkak.

Erlijiozko eta politikazko arrazoiak omen ziran Patriarka Kontzilio artan erdikide ez izatera bultzatzen zuten arrazoiak.

Bitartean, ordea, sobietar ospetsu batzuk eta XXIII Jon, alkar-agurtzen asiak genituan, --eta Kremlin'en eta Aulki Donearen arteko izotz gogorra ere zerbait urtzen asia bait zan ordurako--, atzerritarrekin, protestalariekin oraingoan, adiskidetasunak edatzea pentsatzeko aski iare izan zan Alexis Patriarka, eta, aipatua dugun Nikodemo Metropolita "Conseil Oecuménique des Églises" edo "Elizen Ekumenik-Kontzeilluak" Indietako Deli'n tajutu zuan Batzarrera bidaltzea erabaki zuan.

Iare izan zan Patriarkaren Ordezkari au ere, Deli'ko Batzarretik zetorrela "La Croix" egunkari frantziar katolikoari "Errusi'ko Elizak Erroma'koari begirune aundiz" so-egiten ziola ezpairik gabe sateko.

Ez dute gertakizun oiek esan nai Eliz Osoaren Batasunerako eragozpenak garaiturik zeudenik. Ez, iñolaz ere. Bai alde batetik bai bestetik, eragozpen oiek danak argitara atereak izan ziran urte aietan, baita lotsa ustelik eta bildurrik gabe, eta baita gorrotorik gabe ere: gorrotorik gabe, leialki, alkarri maitasuna eta eraspena gordez, asmo okerrrik gabe jokatu. Auxe izan zan urte aietako igikundearen irabazpenik aundiena; ez noski kaxkarra; kristauok bereiziki Jon XXIII'ari zor dioguna!



II Batikan Kontzilioaren asieran iru ziran sortaldetarren kezkarik aundienak:

- Erroma'ren asmo izkututetaz ez ziran oraindik fiatzen;
- Erroma'ren latin-zaletasunari eta sarkaldekeriari bildur zioten;
- "OUNIA edo "uniatasuna", ots, Sortalde-Sartalde arteko Eliz Uniaten sare "ez-ango-eta-ez-emengo" ura oso begi illunez ikusten zuten.

Kezka oietatik bat beintzat, bigarrena, betirako lurrindua dugu puntu batean eta poliki goxatua bestean; II Batikan-Kontzilioan liturgiako izkuntzari buruz lurralde bakoitzean bertako izkuntza nola erabili eta liturgia bera nola eratu erabakitzeko lurralde bakoitzeko gotzaidiari esku aundia eman zitzaion ezker, ezerezturik gelditzen bait ziran erabat, latiniak izan duan bakar-nagusitasuna, eta aski biguindua Erroma'ko Kuriak liturgi-antolaketan ukan duan geiegizko bakar-agintzekeria.

Beste kezka, lenengoa, puntu minkatza zan oraindik Kontzilioaren asieran, konfiantzaren faltaz. Ala, Kontzilioa irikitsera zijoan une berean, Aulki Doneak "ortodoxia zati-zati egiteko asmoa zerabilkiala", oi u egin zuan Jakobos Ameriketako Metropolitanak, Alexis Errusi'ko Patriarka'ren ordezkari bezala Erroma'ra iritxi zanean.



Arrazoi beragaitik, konfiantza-faltaz, Atenagoras'ek berak, "artisan infatigable de l'unité au sein de l'orthodoxie et sur le plan interecclésial" (ibdm): "ortodoxiaren altzoan eta baita Eliz guztien artean ere batasungille asper-eziña genduan" Patriarka kostantinoplatar arek, ezin izan zion XXIII Jon'i Kontzilia Kostantinopla'ko Elizaren ordezkariarik bidali: bere Eliz artan ere jende askok Erroma'ren asmo onetan zearo sinisten ez zualako; naiz berak bai, berak oso-osoan sinistu.

Orretxegaitik, konfiantza faltaz, izan oi ziran Aulki Doneak Laterri ortodoxiarrekin izenpetzen zituan konkordatoak sortaldean beti begi gaiztoz ikusiak. Erroma'ren erdirakoikeria, zentralismoa, eta aitasantuen bakarragintzeria, autokrazia, usmatzen omen zuten ortodoxiar kontserbatzaileek, ots, leena-gordezailleek.

Baiña, arrazoi beragaitik beti, irugarren puntuan aipatu dugun "Ounia", edo "uniatasuna" izan da Sortaldeko kristau bereizi guztien gorrotoak geienik piztu oi dituan auzia. Eliz "Erromari-Alkartuak", Eliz "Uniatak", azpilanean Ortodoxia jendez ustutzeko Erroma'k sortuak omen dira; Sorkalde guzia Aitasantuaren bakarragintzepera eramateko; Sortaldeko Elizen autokefalia ezerezteko, eta autokefali ori ezereztean Eliz aien izatea bera ezabatzeko.

Orretxegaitik Alexis moskutarrak Kontzilia bere ordezkariak bidaltzeko Erroma'ri ipifi zizkion iru baldintzetatik bi, gai orri dagozkion auek dira: "Errusi'ko Eliza Kontzilia pertsonalki deitua izatea": ("Eliz iarea lez", adierazi nai zuan Patriarkak); "Kontzilia ordezkariak bidaltzea, ez zala Aitasantuaren Nagusitasuna ("primauté") on-ezagutzen zalaren siñaletzat artua izango".

Irugarren baldintza beste era batekoa zan, Jaurleri sobietarrek baretzearren ipiña: "Kontzilioa ez zala, alegia, Politikazko Batzarra biurtuko".

Kontzilioakoan ere ez ziran zearo Sortaldetar bereiziak baretu. 1963'ko udazkenean izan zan Rodas'en Ortodoxi Osoaren II Batzarra, eta billera artan, eta urrengo urteko III Batzarrean ere, argi nabari ziran Kaltzedoni'ko Eliz Ortodoxiarren kezkek. Grezi'ko Eliza, ez zan joan ere, eta beste Elizek atal auek ezarri zituzten Erroma'rekingo alkarrizketarako arau nagusi lez:

- Alkarrizketa ori "berdiñen alkarrizketa" izan bear zuala; ots, Erroma'ko Elizak Sorkaldeko autokefalidun Eliz bakoitza Erroma'koaren berdintzat ezagutu bear zuala alkarrizketan.

- Eliz Uniatak ez zirala, ortodoxitarren ustez, Batasunerako bide egokiak.

Erroma'ko Elizaren altzoan "aldakuntza onuragarri bat burutzen ari zala" ezagutzen omen zuten Rodas'en Batzarrean bildutako Eliz aiek. Baiña, "aldakuntza ori ez zala oraindik osoro burutu-ta, gerorako, aldi obe baterako, uzten zuten Ortodoxiaren eta Katolikotasunaren arteko alkarrizketen asiera".

Bitartean Eliz aiek guztiek lagunduko omen zioten otoitzez Erroma'ko aldakuntza aren sendotzeari; baiña, bitartean, Eliz bakoitzari, Erroma'rekingo alkarrizketei ekitea ez omen zitzaion zillegi.

Kaltzedoni-aurkako Eliz Ortodoxiarrek edo "monofisiarren Elizek (Ejito'koak, Siri'koak, Armeni'koak, Abisini'koak eta Indi'koak) ere egin zuten beren Batzarra Addis-Abeba'n 1965'eko ilbeltzean. Auentzat ere Eliz Uniatak ziran Sortaldea eta Sartaldea-arte arantzarik mingarrienak. Uniatak eta uniaten proselitismoa edo "jendea beste Elizetatik aterata berenganatzeko erabilli oi zuten leia".

Ala ere, Rodas'ko Elizek bezala, edo bear bada aiek baiño poz aundiagoarekin agurtzen zuten Addis-Abeba'ko aukerak "Erroma'ren aldakuntza". Baziran noski, pozezko agurtze oiek, Erroma'n ez ezé Sortaldean ere, --Eliz Osoan!--, gogoak aldatzen ari ziralaren aztarna pozzarria.

Poz ori sakonagoa, mardulagoa egingo zaigu Kontzilioko eta Kontzilio-ondorengo gertakizunekin.

- Sortaldetarrak ikusi aal izan zuten Kontzilioko Asabek Sortaldeko Elizei eta Eliz aien liturgiari eta kristaukerari zioten eraspenera eta maitasuna. Baita Kontzilioan bertan Eliz Uniatetako gotzaiek, batez ere Maximos IV Patriarka melkatarrak, izan zuten autoritatea ere; ots, sortaldetar kontziliokide auen iritzia nola izan zan askotan, gai garrantzitsuenetan ere atsedenki entzuna eta gogo onez ontzat artua. Sortaldeko oldozkerak Sarkaldeko Elizan sartzen ari ziralaren sinale zan ori.

- "Giro" bat sortu zitzaigun orrela: Alkarrenganako uste onaren giroa.

Oso urruti dago oraindik batasunaren eguna, baiña gaurgero ez zaio ifñori bestea asmo txarrarekin dabillela uste izaterik zillegi izango. Sartu gera orrela alkar maitasunaren barrutira, eta "eriotza baiño indartsuagoa dan maitasun" orren bidea da Batasunerako bide bakarra. Bidean gaude beraz. Maitasun orrek aundiagoa izan bearko du, bearbada, Sortaldearen eta Sarkaldearen artean, eta an, Sortaldean bertan, "Erroma'tik Bereizitako" eta "Erroma'rekin Alkartutako" Elizen artean.

"Bereiziek", ulertu bearko dute liturgiz sortaldetarra eta sinispidez aitasantutarra izan nai duan orok baduala Eliz Uniata batera sartzeko eskubidea;

"Alkartuek" berriz, Uniatek, "ereji" edo "zizma" itzek bezala, ifñoren errua eta obena adierazten dituzten izkera zakar guztiak oso-osoan betirako azturik uztera beartuak daudela, erabat sinistu bearko dute.

- Pozgarria da azkeneko aitasantuek erabilli duten apaltasun xaloa. Jon XXIII'ak, irabazi zituan Sortaldean elizgizonen biotzak. Eta baita jaurle komunistenak erel Ala eman zion Errusi'ko jaurlaritzak askatasuna 1963'an Joseph Slijp Lwow'k Patriarka ukranitarrari.

Ukraniar Uniaten Buruzagi zan Gotzai au, ain elizgizon bikain ezagutu

dugun Ander Szeptickij aren ondorengoa, eta 1945'ean sobietarrek Ukrainiar Eliz Uniata deseginda Eliz artako kristauak Errusi'ko Eliz Ortodoxiarraren barrura indarrez sartu zituzten ezkerro espetxean baiturik zegoana.



Urte ortan bertan il zan Jon Aitasantua, baiña urte ortan bertan igo zan Paul VI'a, Sortaldeko gai auei dagokion guztian aren itxura berekoa.

Zirrara gozoa sortarazi zuten bere lenengo itzaldiek; batez ere, Erroma'ko Elizak zezazkean erruak oroiturik, Erroma'tik berezitateko kristau guztiei barkapena eskatuaz eta barkapena eskeñiaz egin zuanak, eta, Lur Santurako ibildeunean jartzeko artua zeukan asmoa munduari azaltzeko egin zuan beste arek.

Berealaxe erantzun zion, Atenas'ko Goigotzaiaren asarreari jaramonik egin gabe Atenagoras Patriarkak bera ere Lur Santura joango zitzaiola "Kristatutasunaren iturburu dan lurraldean Sarkaldeko Elizaren buruzagia besarkatzeko". "Rencontre spectaculaire, décisive pour les destinées des rapports entre l'orthodoxie et la catholicité romaine" (J. Hajjar). "Alkar-billatze ikusgarria izan zan ura, ortodoxiaren eta katolikotasun erromatarraren arteko arremanen etorkizunerako: itzulketarik gabeko urratsa". 1964'aren ilbeltzean gertatu zan ori.

Eta azkenik, 1965'aren abenduko 7'an, Kontzilioaren amaieran, Kontzilioko Asaba guztien aurrean, Erroma'ko Elizak eta Kostantinopla'koak, jaso zituzten, millakada bat urte leenago bata besteari jaurtitako eskomikapenak. Bi urte geroago, Paul VI'a Kostantinopla'ra joan zitzaigun uztaillean, eta Atenagoras Erroma'ra ondorean etorri, urrillean, alkarri muin emanaz, Kontzilioaren amaieran emandako barkapenak, eta pakea, mundu osoaren aurrean egiztatzeko.

Ontan gaude gaur, ango, Sortaldeko, eta emengo, Sartaldeko, kristauok. Ez gaude gaizki. Orain dala urtetxo batzuk baiño milla aldiz obeto gaude. Eta biar? Ez dut zure galdera orrentzako erantzunik. Ango kristauen eta emengo kristaun zuzentasunezko gogo garbiak eman bearko dizu, biar, erantzuna: zuri..., eta edestiari..., jeta Jainkoaril

Bitartean, bedi gure esker on itxaropentsua Jon XXIII'arentzat, Paul VI'arentzat, eta Atenagoras Patriarkarentzat; eta izan bedi gizon oien oroitzza Eliz Osoarentzat akullu bultzagillea.



Jon XXIII'ak, izan zituan, eta aren atzetik Eliz berri osoak izan ditu, beste bi elburu kuttun ere, aipaturik utzi degun lez: Eliza eta Mundua. Bi elburu

oiek, bat ziran Jon XXIII'arentzat. Mundua, salbatu bearra zan gaurko Mundua. Eliza, mundu ori salbatu bear zuan Izaki Jainkotiarra.

Baiña Mundua salbatzeko, naitanaiezkoa zan Eliza "aggiornamento" edo gaurkoratze bizkor batez salbakuntza ortarako prestatzea:

Diplomaziketan asi bear izan zuan une beretik oartu zan Gotzon Roncalli, Eliza, munduan, bakarrik zegoala: aspalditik ez ziola munduak Elizari jaramonik egiten.

Beste askok ere ikusten zuten Eliza-baitan ori; baiña elizgizon askori "splendide isolement" edo "bakartasun bikain" ori zearo atsegina zitzaien; jorrela uste bait zuten Eliza "gaurko okerretatik", "des erreurs modernes", gaizkatzea!

Gotzon Roncalli'ri ordea min ematen zion egoera orrek, bai bait zekian Elizaren eginkizuna bere burua gaurko okerretatik garbia gordetzea ez baiña, oker oietatik mundua salbatzea zala.

Bere bizi guztian munduarekin alkarrizketan sartu naiean ibilli zitzaigun, eta saiaketa ori ez zan inoiz ere alperrikakoa izango. Bere izaerak ere alkarrizketara zeramakian Gotzon Roncalli, berez xaloa bait zan, eta arraia, apala, aundikeri ororen etsaia, edozeinekin itzegiteko prestatua, gizon guztietan bakoitzaren alderdi ona bereiziki ikustearen zalea, eta guztiok-omen-dugun alderdi on ori alkarrizketarako oiñarriztat artzearen maitalea.

Gizakume guztion altzoan beti bizirik dagoan ontasunaren pusketa orri, "Erri guztien jatorrizko-aberastasuna", "patrimoine primordial de tous les peuples" deitu zion bein, nuntzio zala; eta guztiok berdiñak eta alkarren kideko egiten gaitun aberastasun ori ulertzea eta maitatzea ta zabaltzea dala, esan oi zuan, gizadiak geienik bear duan gauza. Ori egin bearrean, bata besteengandik bereizten gaituan oro puztutzen asti geiegi galdu omen dugu tamalez.

Pentsakizun orrek eraman zuan Gotzon Roncalli Jon XXIII'a, Elizari Kontzillorako dei egitera.

Gizakume guztiok mundu ontan alkarrekin bizitzera beartuak gaude Jaungoikoaren naiez. Danok dugu gure aburu berekoak, gure aberrikoak, eta gure Elizakoak ez diranak ere senide lez maitatu bearra, danok dugu mundu au alkarrekin egokiagotzeko bearkuntza. Baiñan eginkizun orri asiera emateko, naitanaiezkoa zuan Jon Aitasantuak, gaztetasan berri batez Eliza berbiztuaratzea.

Ori buruan zuala egin zuan Kontzillorako deia. Eta Kontzilioaren gertuketa aurrera zijoa neurrian joan zan irikitzen eta zabaltzen ordurarte aski integristaxamarra izan zitzaigun Jon XXIII'aren oldozkera; unetik unera ikusten bait zuan argiago "aggiornamento" edo "gaur-egunerakotzearen" garrantzia.

1960'ean Fanfani zan Itali'ko Jaurfaritzaren lendakaria, eta Fanfani aren aurka zeuden Aulki Donean kuriako jaun altsuetatik anitz, ura

politikagintzarako ezkertiarrekin alkar artzearen adiskide zalako; eta jaun altsuok saiatu ziran Aitasantuagandik jokaera "arriskugarri" aren gaitzespena lortu naiean.

Alperrik, Jon XXIII'a ez zan aien eskabideetara makurtu.

1961'ean "Mater et Magistra" edo "Ama ta Irakasle" izeneko Entziklika argitaratu zigun Aitasantuak.

Ez du gutun orrek deus ere berririk, "baiña zirrara aundia sortu zuan munduan, berria bait zan bere itzen doiñua; berria, zuzentasunaz eta zintzotasunaz (on justice and honesty) eta gizonki jokatu-bearraz ta alkar maitatu-bearraz mintzatzeko zerabilkian izkera lau unkgarria.

Ez zituan Entziklika onek kristau-erakundeak bakarrik goraipatzen; gizadiak bere barne-muñean daraman zuzentasun-leiak eraginda lanean ziarduten erakunde eta gizakume guztiak goraipatzen zituan" (Van Acker); eta ori, bai alajaiña, atsegin izan zitzaion bizi munduari.

Jon XXIII'ak bazekian Kontziliara bilduko ziran Asaben artean asko izango zirala eskubitar estuak. Bazekian baita're, gizon oiek gaurko oraintasun gorritik urruti, beste mundu batean bizi oi izaten dirala: antziñako oroitzapenez bereiziki mamitutako mundu batean.

Frantzi'n Nuntzio zala ikasi zuan ori. Roncalli'ri, an, gotzaitegietatik bidaltzen zitzaizkion txosten idatzi soilletaz fiatzeke, elizbarruti eta parroketako bizitzan pertsonalki maiz sartzea, --maizegi batzuen ustez--, izugarri atsegin bait zitzaion!

Elizgizon extu oiei kontzientzia lasaitzearren, --eta, baita, bat edo bateren egoskortasuna biguintzearren ere--, Kontzilioan urduritasunik aundiena sortu zezaketen gaiak aurretik Elizaren Irakasle lez Entziklika batean agertzea pentsatu zuan Aitasantuak.

Ola agertu zan 1963'an "Pacem in Terris", --"Pakea Lurrean"--, Entziklika.

Gogoan izango duzu nolako arrera egin zitzaion Entziklika orri ludi guztian. Altagutziz, "Pacem in Terris"ek ez zekarkian, esan dugun bezala, ezertxo ere berririk.

Berrogeitamar urtetik gorako euskaldun kristaua ba'zera, oroituko zera, entziklika arek zion guztia esan zutela emen Euskalerriko Apaiz Jaunek ainbeste zalaparta atera zuan " 339 Eusko Apaizen Dokumentu" bikain artan. Apaiza ba'zera berriz, oroituko duzu, baita're, nolako arrera zipotza eta zuzentasun oren aurkakoa egin zioten Dokumentu onuragarri eta sendo ari Euskadi'ko lau Gotzaiek... eta Nuntzioak berak.

Egia da, eusko-apaizon pozerako, aipatutako eliz-jain oiek eta Españi'ko Gotzaldi osoak Jon XXIII'aren Entziklikari ere ez ziotela gure Dokumentuari egin ziotena baiño arrera askoz gozoagorik egin. Ikus, adigarri lez, Gazteiz'ko Elizbarrutian gertatua:

Elizbarruti ontan aipu aundikoak ziran orduan "Kristaudi-Kurtsilloak";

Gasteiz'tik zabaldu ziran Españi'ko beste elizbarruti batzuetara, Portugal'ekoetara, eta Ameriketako batzuetara. Aitzindari zan, garai aietan, "Cursillos de Cristiandad" zeritzan igikunde oni-buruzko gauzetan, Gasteiz'ko Elizbarrutia, eta bazan baita're beste askoren irakasle ere. Bâ..., Gasteiz'ko Elizbarrutian, urteetan eta urteetan ez zan "Pacem in Terris" bazanik ere aipatu. Gauza lotsagarriak gorde oi diran bezala izan zan, luzaroan, isillik gordea. Munduko gizarte-bizitza kristauki bir-antolatzea omen zan "Kurtsilloen" elburual Itxuraz, Franko'ren Españi'ko gotzai ta "kurtsillistentzat", Jon XXIII'aren entziklikak ez zuan deus ere balio! Ez ote zuten kaltegarria etsitzen?

Franko'ren Españi Katolikotik landa, ordea, bai Berlin'dik aruntzko komunist-errietan, bai Berlin'dik onuntzko erkalderrietan, Aitasantuen beste Entziklikek iñoiz sortu ez duten arreta sortarazi zuan onek. Zergaitik ote?

- Lendabizi, eta batez ere, Entziklika ontan "Mater et Magistra"n baiño oraindik geiago, itzetan doiñu berri bat "un accent nouveau" (Roger Aubert), nabari zalako;

- "Parce que Jean XXIII était apparu au cours des années précédentes comme un homme sincèrement préoccupé de contribuer à la détente entre les deux blocs antagonistes, sans calculs ni arrière-pensées" (Idm). "Aurreko urteetan Jon XXIII'a bi erri-talde etsaien arteko baretasunaz, egitan eta asmo izkaturik gabe, arduratua agertu zalako";

- Jon XXIII'ak, politikaz kutsututako "Chrétienté" edo "Kristaudi" erdiarotarrari uko egin ziolako: ots, ludia erdiaroko Kristaudia bezala antolatu nai izateari.

Beste Aitasantuek ez zuten ordurarte, "munduko erriarteko pakea Aitasantuaren goi-zuzendaritzan oiñarritu nai izateari", zearo, erabat, eta betirako, azken-agurra egiteko gaitasunik izan. Jon XXIII'ak, bai. Bai bait zekian Aitasantua gidaritzat artu nai ez dutenak, ludian, jenderik geienak dirala. Orregaitik, gizakume guztiek, bai-kristau, ez-kristau, beren zertasun berberetik duten senidetasuren oiñarritu nai izan zuan, pakerako, errien arteko politika-ekintza.

Batez ere Franko'peko Euzkadi'n jaso genduan, zaurian gantzua lez, Jon XXIII'aren Entziklika.

Ez zan ezertan berria; gure erriak betidanik berez izan duan zentzu argia besterik ez zan ura; "le bon sens frisant le genie" (Maritain): "gizarte lander burutsuaren zentzua, goi-jakintzaren izpiz argitua"; baiña guk beti erakutsi genituan gogaiak, an ikusten zituan guretako bakoitzak, Aitasantuak aldarrikatuta Elizaren dotriña biurturik.

Aberriaren Askatasunaren alde, barren-barrendik, sentitzen genduan leia ere, an zetorren sagaratua. Bearbada Aitasantuak berak erabilitako itzak ezagutzeko erosotasunik ez duzu izango-ta, ara itz oiek "Acta Apostolicae Sedis" aldizkari ofizialeetik artuak.

Gizadian asarrea eta borroka sortu dezaketen arazoak beti izango dirala, eta arazo oiek errien artean indarkeriz ez baiña pakezko bidetik konpondu bear dirala aitortu ondorean, ona zer dion 93'garren zenbakian:

"Quam ad rem peculiari modo pertinet ille publicarum rerum cursus qui inde a saeculo XIX ubique terrarum increbuit passimque atque invaluit, quo fit ut homines eiusdem stirpis sui juris esse velint atque in unam nationem coire. Quod cum pluribus de causis non semper effici possit, illud exinde oritur ut gentes pauciores numero intra fines nationis alius stirpis saepe contineantur, atque ex hoc quaestiones magnae gravitatis existant. Hac in re, --dio 94'garren zenbakian--, aperte profitendum est, quidquid contra has gentes agatur ad cöercendum stirpis vigorem atque incrementum, iustitiae officiis graviter adversari; idque multo magis si prava uisumodi molimina ad ipsam gentis interneccionem spectent".

Euskeraz:

"Naiz borroka-bide izan, era paketsuan konpondu-bearrak diran arazo oietako bat da bereiziki, XIX mendea ezkerro gaillentzen eta orokorragotzen ari zaigun joera au: enda bakoitzeko erri danak, beren buruen jabe eginda, Laterri bat osotu nai izatera daramazkian joera.

"Baña, zio askoren erruz, ori, (ots, enda bakoitza Laterri iare izatea), ezin bait daiteke askotan lortu, erri aundiago baten altzoan naitanaiez gelditu bearrean arkitzen dira erri txikiak maiz aski. ¡Sortzen da ortik gaitz eta oker aundiko arazorik aski!

"Gai oni-buruz, ordea, agiri-agirian aitortu bear da onako auxe: enda txiki oien aurka beraien bizkortzea edo azitzea eragozteko egin daitekean oro, zuzentasunaren arauen aurka dijoala era astunean; batez ere, ekintza oker oiek endaren bat erailteko egiten ba'dira".

Lerro oietan argi dago erakutsia erriek bere "autodeterminazio" edo beren buruen eraketarako duten eskubidea. Geiago oraindik; terro oietan, Eliza erri bakoitza Laterri iare biurtzearen aldeko agertzen zaigu. Ikus:

- Erri bakoitzak Laterri iare biurtu nai izate ori, ez dala gaur goizeko kontua, XIX mendetik dakarrela bere iturburua, dio Aitasantuak.

Euskaldunok badakigu emen Euskalerrian millaka urtez leenagokoa dala askatasun-egarria. ¡A nolako poza gurea Jon XXIII'ak gure lelak onetsi zituala ikusi genduanean! Ordurarte, Españi'ko elizjendeak beti iraiñik aundiena lez "separatistas" itza jaurti oi bait zigun aurpegira. Españi'ko eskubitarrentzat Komunista izatea baiño okerragoa zan ori: separatista izatea. Eskubitarren buruzagia zan, "prefiero una España roja a una España rota" esan zuana.

- Laterri iare izateko gurari ori, --lateraz "sui iuris esse"--, "formar nación independiente" gazteleratu zuan itzulpen ofizialak. Bâ, Entziklikak dionez, gurari ori, "eragozi-eziñagoa biurtu da eta munduan zabalduagoa egin da azkeneko urte auetan": "Se ha ido imponiendo y generalizando", Jon XXIII beraren itzetan, gaztelerapen ofizialak dionez.

- "Homines eiusden estirpis", ("los grupos étnicos y nacionales" gatzel-itzulpen ofizialean), ots, odol bereko eta enda berdiñeko Erriak, Laterri iare biurtze ori, eragozi ezin leiken gauza dala gaur. Bere arrazoiaren indarrez egin dala geldiarazi-eziña: "increbuit"; "se ha ido imponiendo", dio Entziklikak.

Alperrik dabilta, beraz, Laterritar aundi enda-zanpatzaille batzuk oraindik, era geldi-eziñean aurreruntz datorren erri-iaetasun-leia indarkeriz eragozi naiean.

- Bizkortzen ez ezê, ludian zear gero ta geiago zabaltzen ere ari dala, egunetik egunera lei ori: gero ta geiago dirala iaetasuna gura duten eta iaetasunera iritxi diran erriak. "Increbuit passimque atque invaluit"; "se ha ido imponiendo y generalizando", itzulpen ofizial berean.

- Erri txikiagoak Erri aundiagoen altzoan askatasunik gabe gelditu-bearra, arazo gaitz larria omen da, iskamilla zakarren sortburu: "graves problemas consiguientes" --;obeto Aitasantuaren latiñean: "questiones magnae gravitatis". Ez al da ori, aditu nai duanarentzat, Erri bakoitza Laterri iare izan bearko lukeala, Aitasantuak argi esatea?

Laterri aundiak, ordea, beren lurralde-barruan bizi dan Erri edo Enda txikiago orori askatasuna ta nortasuna ukatzearen zale izaten bait dira, ortarako Laterriaren "Batasun Ausieziñaren Donetasuna" aitzakitizat artuaz...

- Laterri aundi oien barruan aurkitzen diran Erri txikien bizkortasuna, -- "vigorem", "vitalidad"--, eta gorakuntza, --"incrementum", "desarrollo"--, eragozteko egin leikean orok, --"quidquid", "todo cuanto"--, zuzentasuna astunki, --"graviter"--, zauritzen duala, jakifiarazten die Laterri aundi oiei Aitasantuak: "iustitiae graviter adversari". Era astunean: "Graviter".

Aitasantuak ez zuan esaten Erri bakoitza bere burua Laterri iare biurtzera beartua dagoanik. Ez zezakean ori esan ere, erri bakoitzak bai bait du, bere bizibidea nai duan bezala antolatzeako eskubidea. Baiña argi adierazten zuan Entziklikak Erri orok Laterri iare izateko duan eskubidea. Are geiago, gauza txit egokia iduritzen zitzaion Jon XXIII'ari Erri bakoitza Laterri iare biurtzea; ori, lortu-eziña izatetik, "ondorio larriak" sortzen oi dirala aitortzen bait zuan.

"Pacem in Terris"ek ez zuan "demokrazi" izenik aipatzen. Paul VI'ak aipatu eta sagaratuko du itz ori "Octogesima Adveniens" deritzan Eskutitz ospetsuan, baiña, naiz izenik aipatu ez, argi ta garbi erakusten zituan gauza bi "Pacem in Terris" Entziklikak:

- "Erriarte", (gizakumeak alkarrekin bizi aal izateko "erari", "gizarte" esaten ba'zaio, zillegi bezaigu Erriek alkarrekin bizi aal izatekoari "erriarte" esatea), erriarte, bâ, zuzentasunaren araura eratu aal izateko bide bakarra, gaur, "autodeterminatio" esaten diogun "ber-eraketa" dala; ots, "erri bakoitzak bere gogoz bere politikazko-nolatasuna eratu aal izatea".



- Gizartea antolatzeko era, berriz, gaur egun, kulturaren maillara iritxi diran errietan beintzat, iareki gizartekideek beraiek erabaki bear dutela.

Euskotarrok ez eze mundu guziko gizakumeak poztu ziran gurekin batera Aitasantuaren itz aiek entzutean. Ta arritu zaitezte. Badira noski komunista marxitarrek gizarteko askatasuna eta errien nortasuna bazter guztietan lotsarik gabe zapaltzeko yayoak...! Bâ alatagutziz, Lituani, Estoni, eta Letoni'n bezala ainbat tokitan erriei beren-buru-jabetasuna ukatzen dieten komunistek berak, abegi ona ipiñi zioten, --eztakit zergaitik--, XXIII Jon Aitasantuaren Entziklika oni.

Españi bakarrik, eta baita zerbait Portugal ere, baiña Españi bereiziki gelditu zan mututurik eta zipozturik.

Belarrietako min aundiz entzun zituzten Aitasantuaren itz itxarongabeko aukerak, euskotarroi "gorri" ta "separatista" esaten ziguten Españi'ko gotzai ta politikalarri artxikatoliko guztiek.

Ez zuten ezer esan Entziklikako itz oien aurka. Ez zezaketen esan ere. Itz oiek Jon Aitasantuak Entziklika batean sartu zituan ezkerro Elizaren Dotriña bait ziran ofizialki.

Ez zuten, aien alde ere, ezer esan. Isillean gorde zituzten. Eta baita laister aantzi ere! Ori izan zan Españi'ko Elizaren obenik aundientako bat.

Entziklikaren itzak komunisten jardun-bidearen aurkakoak izanik, nolaten komunistek Entziklika ura ain arrera onez jaso zuten?

Itzetaz gaiñera an beste zerbait bazegoalako! Aitasantuaren gizatsuna zegoan; baserritarraren gizatasun xumea. "Nere aitak bezala, Jon XXIII'ak nekazarien eskuak ditu", zion Nikita Khrushchev'en alaba Rada'k, Aitasantuaren langelatik irretzean.


¡Ain goxoki artu bait zituan Jon XXIII'ak andre au ta bere senarra Batikan-Jauregian, ikustaldi bat egitera urbidu zitzaizkionean! Senarra, "Izvestia" izeneko izparringi maiz aipatuaren zuzendaria zan.

Ez da, ez noski, Khrushchev'en alaba, Jon XXIII'ak lilluratutako pertsona bakarra; andre au bezain "jontzale" irten oi bai ziran Batikan Jauregitik Jon Aitasantua ikustatzera etortzen ziran guztiak. Ta..., jainbeste jende joan zan Jon Aitasantuarengana...! Sinispide guztietako eta sinismenik gabeko jendeak, Laterrri-Buruzagiak, era guztietako jakintsuak, margo oroko politikalarriak...

Elizaren edestian Aitasantu agureak asko izan dira; eta bikaintasun arrigarrikoak danak, bat edo beste kendu ezkerro. Aitasantu agure bikaiñen saillekoa izan zan, beste iñor ez bezala, Jon XXIII'a ere. "Indeed, it is probable that no pope ever made such an impression on world opinion as did this octogenarian pontiff" (En. Brit.): "Benetan; ez zuan ordurarte iñor Aitasantu batek mundu osoan, larogei urtetik gorako Aitasantu onek aiñako zirrara bizirik sortu izango!"

Aitasantu itxaropen-sortzaille onen ekintza gurena, II Batikan-

Kontzilioa izan zan. Ta, al nolako barren-itxaropenarekin so-egin zion munduak, --mundu guztiak--, Kontzilio aren prestaketari...!



## II BATIKAN-KONTZILIOA (1962-1965)

Ez zan berria Kontzilio bat egiteko guraria. Esan degu nola Pio XI'a lendabizi eta Pio XII'a gero kontziliogintzan asteko asmoetan ibilli ziran.

Baiña asmo aiek ixillean gordeak izan ziralako, ez zituan kristaudiak ezagutu. Gaiñera, kontzilio-asmo aiek utsean gelditu ziralako, kontzilio-lan aietan sarturik ibilli ziran guztiak ere, etsita geratu ziran: kontzilioen aldia betirako joana zala etsita.

Orregaitik, ago-zabalik gelditu zan mundua Jon XXIII'ak Kontzilio berri bat biltzearen albistea aldarrikatu zuanean.

1959'ko urtarrilaren 25'ean egin zuan aldarriketa ori Aitasantuak.

17 kardenalen aurrean "Sancti Joannis Extra Muros" edo "Arresizat'eko Donibane'ren" Abat-Jauretxean ari zan Aitasantua mintzatzen, Erroma'ko eta ludi osoko kristautasunaren egoerari-buruz. Antxe esan zuan aurreneko aldiz Kontzilio Orokorra biltzea erabakita zeukala. Arriturik so-egin zioten alkarri 17 kardenalek. Aurrera ziardun Aitasantuak ezer arrigarririk esan ez balu bezala Kontzilioaren elbururak azalduz: Elizaren barne-bizitza bizkortu; Elizaren "aggiornamento" edo "gaurkoraketa" egin; eta, Elizen arteko Ekumenegintza ostera berbiztu eta sendotu.

Jon XXIII'a ez zan, puntu askotan, aurreko bi Aitasantuen antzekoa.

Aiek liburu-gizonak eta idaz-gela-gizonak ziran; gauzak egiten asi baiño len prestaketa asko eta luzeen zaleak.

Jon XXIII'a, ekintza-gizona zan, prestaketetan asti geiegirik ez galtzearen maitalea. "Asi gaitezen beintzat, bein asitakoa gero naitanaiez amaitu bearko dugu-ta", esan oi dute maiz baserritarrek. Jon XXIII'a, berriz, baserritarra izaki jatorriz!

Eta, --ez dezagun aztu diplomazilari lez Roncalli onenetan onenetakoa izan zala--, adimen zorrotzekoa zalako, ta baita're gizarte-sikologiaren ezagule yayoa, ondo zekian berak, argitasun-billa zebillen mundu artan gizadi osoak onartuko ziola Kontziliorako deia; kristaudiak bereiziki. Siniste betea izan zuan beti Jon Roncalli'tarrak kristaudiaren gaitasunean, Elizaren barne-bizitzaren indarrean, eta... goitik peituko ez zitzaion Gogo Deunaren laguntzan.

Eta Elizaren ertzetatik aruntz so-egiaz ere, konfiantza osoa eta uste neurrigabea izan zituan Jon Aitasantuak gizadiaren barren-ontasunean.

Kontzilioaren lenen aldarriketa egin zuanez gero, atertu gabe ari izan zan Eliz osoaren Billera Orokor artaz itzegiten. Aitasantuak ainbeste aipatzen zuan "aggiornamento" itza ere laister egin zan kristaudi osoan eta mundu osoan ezaguna.

Oso gauza larria eta izugarria da Kontzilio Orokor bat egitea. Aitasantuak, ordea, ez zuan Kontzilioa nola eratu pentsatzen denbora askorik galdu: "Egin bear da, eta egingo da". Kontzilioaren arauak nolakoak izan bear zuten, Kontzilioak bere bidea nola ibilli bear zuan, galdetu ba'zenion, ez zekiala erantzungo zizun Jon Aitasantuak: ez zekiala Kontzilioak bere lana egiteko zer "era" artu bear zuan, baiña bazekiala Kontzilioaren elburu zerk izan bear zuan.

Orrelakoa zan Jon Aitasantua. Bertsolariek bezala nora-jo jakin ezkeru, bat-batera ekitearen zalea.

Baiña, elburura iristeko era egokiak ere bearrezkoak bait dira, ikus Kontzilioaren izaera eta lankera prestatzeko aurretik antolatu zituan bazkun eta batzordeak:

- "Gertuketarako Bazkuna", Tardini Kardenal Estadutzako Idazkariaren zuzendaritzapean.

Aski integrista zan Tardini au. Izan ere, asieran Kontzilioko leku garrantzitsu ia danetan, integristak egon bait ziran nagusi! Orrek zerbait poztu zituan Kuriako kontserbatzailleak, kontzilioaren egitea eragozi aal izan ez zutelako, aski naigabeturik bait zebiltzan.

"Gertuketarako Bazkun" onen eginkizuna izan zan ludi guziko gotzaien erantzunak aztertzea. Gotzai, Erlijosos-Anaidietako Buruzagi, Unibersitate, eta Teolojiko eta Kanoniztiko Fakultate guztiei egin bait zien, ludi osoaren biran, Jon XXIII'ak aolku ta iritzien eskea.

Bi milla erantzun iritxi ziran, erantzun motzak eta kazkarrak geienak, ezertarako balio ez zuten aldakuntza txiki batzuek egitea, ta soilki integristentzako pozkarri zitezkean "anatema" edo gaitzespenak jaurtitzea besterik eskatzen ez zutenak: Jon Aitasantuari gutxien atsegin zitzaizkion gauzak ain zuzen.

Gertakizun onek adierazi lezaiguke Jon Aitasantua bere Elizagandik zeñen aurreruntz urruti zebillen eta bere Elizaren erdian zeñen bakarrik, -- saminki bakarrik--, bizi bear izan zuan.

2.000 erantzun aiek aztertzeke, Felici "kanonista" edo legedilaria artu zuan Tardini'k laguntzaille. Ez zan oker ibilli. Gizon argi eta langille aundia zalako, lan bikaiña egin zuan Felici onek Kontzilioaren luzaera guztian.

Kontzilioaren araudia tajututzeko eta gaiak aurre-lantzeko, amar "Delegaciones" edo "Batzorde" izan ziran osotuak eta bi "Secretariati" edo "Idazkaritza".

Ona amar Batzorde oiei eman zitzaizkien gaiak: 1<sup>a</sup>: Teologia; 2<sup>a</sup>: Elizbarruti-barrengo zuzenketa; 3<sup>a</sup>: Apaizen eta kristau arrunten bizitza; 4<sup>a</sup>: Lekaideen bizitza; 5<sup>a</sup>: Sakramentuak eta Liturgia; 7<sup>a</sup>: Ikasketak eta ikastetxeak; 8<sup>a</sup>: Sortaldeko Elizak; 9<sup>a</sup>: Mixioak; 10<sup>a</sup>: Kristau arrunten Apostolutza.

Azkeneko au kendu ezkerro, beste amar "Bazkunak" "Congregationes Romanae" deritzaien Aulki Doneko "Bazkun Nagusien" erara tajutuak ziran eta aien lendakariak berak zituzten lendakari, integristen atsegin osora.

Bi "Idazkaritzak", bata "Gizarteko Mezubidei-buruzkoa" zan; bestea, "Kristauen Batasunari-buruzkoa".

10 Bazkun eta 2 Idazkaritza auen gaindik "Erdiko Bazkun Kidetzaille" bat ipiñi zan besteen ekintza guztia goitik zuzendu eta aien lanak aztertu, orraztu, eta Aitasantuari aurkezteko. Bazkun onek tajutu bear zuan Kontzilioaren araudia ere. Felici izan zuan Idazkari Nagusi.

Erakunde auetako jenderik geiena Kuriakoa zan, integrista beraz, aldakuntza sakon ororen etsaia. Ez zan ala ere, aztarna itxaropen-sortzaillerik falta.

Ona aztarna oietako batzuk:

- Aipatutako Erakunde oien barnean, baziran Kuriatik kanpoko Gotzaiak ere;

- Eta gotzaietaz gaiñera, Erakundeen barruan zeuden Erroma'ra aolkulari lez deitutako teologilariak, eta auen artean asko, --Congar eta Lubac bezala--, teologiari "era" eta "bide" berriak antolatzen bikainki lan egindako gizonak ziran;

- Orduan sortutako Idazkaritza berria: "Kristauen Batasunerako" sortutakoa, eta Idazkaritza onen Lendakariaren pertsona bera, Bea Kardenal alemaniarra, gero, kontzilioaren luzaro guztian ain bikainki jokatu zuan Bea kardenala, pentsaera egoki zabalekoak ziran.

- Era berdiñean izan zitzaigun itxaropengarri, "Laiku edo Kristau Landerren bigarren Idazkaritza berri aren sorketa... Aldaketa-naiaren adierazle bait ziran bi Idazkaritza berri auek.

Oroitu genezazke beste aztarna alaigarri batzuk ere, baiña, guztien gaindik Jon Aitasantua bera zan aztarnarik sendoena eta pozgarriena: bere asmoetan tinko zegoan Aitasantu zarra.

Ez zan borrokarik peitu; borroka isilla baiña latza..., eta iraunkorra.

Irurogeitamairu "Schemata" edo gaien "Azalpen labur" gertutu zituzten aipatutako amar Batzorde Eratzailleek. Batzorde auetan integristak nagusi ibilli ziralako, itxura gaixo motzekoak irten ziran oso, 73 Azalpen-Labur aiek. Alaber, munduko gotzai guztien artean zabalduak izan ziran.

Pillo Aunditxoegia zan, noski, 73 Eskema aien pilloa Kontzilio bakar baterako. Ala gelditu ziran asko, astiaren faltaz, Kontzilioan aipatuak ere izan gabe.



II Batikan-Kontzilioaren araudia, I Batikan-Kontzilioak erabillitako araudian oinarritua agertu zitzaigun:

- Iru billera mota izanen zitzuan, eta iruetan, erabaki batek onartua izateko, billerakideen bi irurdenen autarkiak bearko zitzuan. Iru motako billera oiek auek ziran:

1<sup>a</sup>- "Congregationes Generales", "Batzar Orokorak", Asabek gaien azterketan jardun zezaten. ¡Amar minutu bakarrik Asaba bakoitzak! Aurreneko Batikan-Kontzilio artan erakutsi zuten bâ Asabek berriketalarari asper-eziñak zirala maizenik, eta baita berritzuketalarari portitzak ere noizean bein. Aitasantuak aukeratutako amar kardenalen "gorputz" bat izanen zuten lendakari "Batzar Orokor" auek.

2<sup>a</sup>- "Comisiones", "Batzordeak". Amar izanen ziran, Kontzilioaren prestaketako beste amar aien erara tajutuak, lengo aien lendakari kuriatarrekin bakoitza. ¡Bazegokean lasai integristen multzoal Ai, baiña..., "Batzorde" bakoitzaren ogeitalau bazkideetatik emezortzi Kontzilioko Asabek aukeratuak izango ziran, eta beste lauak, Aitasantuak, ez Kuriak. Eta..., "Batzorde" bakoitzaren altzoan, gotzaietaz landa, teologilari eta legiztilari "periti" edo "yayo" asko bait zan, bazuten aldakuntza ororen etsaiek zertaz larriturik naiko.

Gaiñera..., ¡"Batasunerako Idazkaritza" ere beste amarren kideko "Batzorde" biurtua izan zan! Gizon irikiak ziran Idazkaritza ontakoak, Bea Lendakaria beragandik asita. Ez zuten, orregaitik, sekulan kuriatarren maitasunik izan. Baiña, Jon Aitasantuarena eta gero Paul VI'arena bazutela jakiñik, itzal aundia izan zuten Kontzilioakoan eta lan ederra egin zuten.

3<sup>a</sup>- "Sessiones Publicae", edo "Eseraldi Irikiak". Aitasantua bera zuten Lendakari.

Bi "Idazkaritza" eratu ziran Kontzilioko Asabei laguntzeko: Prestaketa-aroan bezala "Erdiko Bazkun Kidatzaille" bat, eta "Oiz-Besteko Arazoentzako Idazkaritza" bat. Biak, Cicognani Estadutzako Idazkaria izan zuten Lendakari, eta aurrenekoak, Felici, idazkari.

Esku luzea erabili ziguten Cicognani'k eta bere kuriatarrek, eta ez, ain zuzen, onerako, Asabak udazkenetik udazkenera beren elizbarrutietara itzulirik zeuden artean, kuriatar aiek, Erroma'n, lortu bait zuten bein baiño geiagotan, --Kontzilioko geiengoaren ordezkariak saiestuta--, Kontziliorako prestatutako gaiak zentzu estuagora biurtzea: "isoler les représentants de la majorité et amender les textes dans un sens restrictif" (Grootaers).

2.778 izan ziran 1962'ko udazkenerako Erroma'ra deitutako Asabak; 2.500 etorri ziran, eta auekin asi zuan Jon XXIII'ak II Batikandar Kontzilioa.

2.500 aietatik, %33 Europa'ren Sarkaldekoak ziran; %13, Kanada eta Laterri Alkartuetakoak; %22, Iber-Ameriketakoak; %10, Afrika Beltzakoak eta beste %10, Asi'akoak; %3'5, arabitarrak, eta %2'5 ozeanitarak.

Baziran, kontziliorakoan, 150 gotzai komunisten menpeko

lurraldeetan, baiña oso gutxi etorri ziran Kontzilioaren asierara. 27 gotzai zituan Yugoslabi'k; 24, etorri ziran. 65 Poloni'k; 20 etorri ziran. 8 Sortaldeko Alemani'k; 4 etorri ziran. 16 Ungari'k; 2 etorri ziran. Eta, azkenik, Txekoslovakia'ko 15'etatik, 3 izan ziran etorriak. Sozialist-Sobietar Errepublikan Alkartetik ez zan bat bakarrik etorri; Ezta Errumani'tik, Txina'tik, Ipar-Bietnam'etik eta Albani'tik ere.

Esan dugun lez, 2.540 bildu ziran aurreneko Batzar orokorrean; Azkenekoan berriz, 2.399. Kontzilioaren luzaroko Batzar Orokorretan ez zan orrenbeste Asaba biltzen. 1.200'dik 2.200'erakoa izan oi zan, Batzar auetan, Asaben kopurua.

Atsegin izango zaizu iñolaz ere Eliz-Batzar Nagusi artan geiena nabarmendu ziran Asaben izenak ezagutzea.

Ona "progresisti" izendatuak izan ziranenak: Bernard Alfrink (Utrecht); Agustin Bea (Kristau-Alkartarako Idazkaritzaren Lendakaria); Julius Döpfner (Babari'ko Monako); Joseph Frings (Koloni); Franziskus Köning (Biena); Paul Émile Léger (Montreal); Giacomo Lercaro (Boloni); Achile Liénart (Lille); Albert Meyer (Txikago); Joseph Ritter (Ipar-Amerika'ko San Luis); Lawrence Shehan (Baltimore); Raul Silva Henriquez (Txile'ko Santiago); Leon Suenens (Malina-Brusela); Maximos IV Saigh (Antioki'ko Patriarka Melkatarra); Emile Smedt (Belxika'ko Bruxas); Eugene D'Souza (Indi'ako Bhopal); Arthur Alchinger (Estrasburg'eko Laguntzaillea); Gabriel Garrone (Frantzi'ko Tolosa); Emilio Guano (Itali'ko Liborno); Maxim Hermaik (Kanada'n Winnipeg'eko metropolita ukranitarra); Denis Hurley (Ego-Afrika'ko Durban); Sergio Mendez Arceo (Mexiko'ko Kuernabaka); Elias Zoghbi (Ejito'ko melkatarren Goigotzaia); Cristopher Butler (Beneditarren Inglandar-Anaidiaren Abata Lendakaria).

Ona berriz orain, "integrista" esan oi zitzaien asaben izenak: Alfredo Ottaviani ("Sancti Officii" izeneko Bazkunaren Lendakaria); Michael Browne (Bazkun berekoa, domingotarra); Ernesto Ruffini (Palermo. Kontzilioan maizena itzegin zuana); Dino Staffa ("Unibersitateen Kongregazioko Idazkari Zuzendaria); Frane Franic (Yugoslabi'ko Split); Aniceto Fernandez (Domingotarren Zuzendari Orokorra); John Heenan (Westminster); Stefan Wyszinski (Bartsobi); Valerian Gracias (Bonbay); Laurean Rugambwa (Tanzani'ko Bukola); Luigi Carli (Itali'ko Segni); Marcel Lefévre (Goigotzaia); Gogo Deunaren Anaidiaren Zuzendari Nagusia; gero Paul VI'aren aurka jeikiko zana); Gerard de Proença Sigaud (Brasill'eko Diamantina)...

"Integristek", kuriatarrek batez ere, egiñaal guztiak egin zituzten Kontzilioa-aurretik Kontzilioaren egitea eragozteko. Alperrik. Baiña orain, Kontzilioaren asieran, eta gero, Kontzilioaren ibillera guztiaren luzaroan, Kontzilioari egalak moztunaiean ari izan ziran, Kontzilioak aldakuntzarik Eliza-baitan egin ez zezan. Neka-eziñak izan genituan eginkizun ortan, eta lortu aal izan zuten, agian, iñor uste baiño geiago. Gutxi ziran; oso-oso gutxi. Baiña bizkorrek, ausartak, langilleak.



1962'tik 1965'era, lau udazkenetan izan zan egiña II Batikan-Kontzilioa. Urrillaren 16'ean eman zion asiera Jon XXIII'ak itzaldi ospetsu baten bidez: Kontzilio au ez omen zan ezer gaitzesteko bildua, Eliza, --anai bereiztuei eta mundu urrunduari begira--, gaur-egunekoa egiteko baizik.

Ez zan "gaur-eguneratze" ori gauza lau eta erreza izaneni

Urrengo egunean, aurreneko Batzar Orokorrean, Kontzilioan aztertzeokoak ziran gaiak gertutu bear zituzten Batzordeetako bazkideak aukeraterakoan, Lille'ko Lienart Kardenalak egun batzuetako epea eskatu zuan, bazkide nor izan zitekean Asabek ondo oldoztu aal zezaketen, errialde bakoitzeakoak ortarako, egoki zan bezala, aurretik alkarrekin bilduta.

Ontzat artu zuten Kontziliokideek Lienart'en eskaria eta au izan zan integristentzat lendabiziko koskorrekoa; Errialde-Billeretan prestatuta, Asabek Batzordeetarako aukeratu zituzten Ordezkariek, Kuriatarrek aurretik osatuta zeuzkaten zerrendetakoak baiño askozaz gizon irikiagoak bait ziran!

Batzorde bakoitzak 16 Asaba zituan. Orain ordea Aitasantuak, 9 geiago izendatu zituan bakoitzarako. 25 Asabek osatuak izan ziran beraz Kontzilioaren aro ontako Batzordeak, (25 bakoitzak), eta, Lienart'eri eskerrak, aski egoki aukeratuak.

Nazio bakoitzeko Asaben Billerak, eta Nazio Kidetsu-Arteko Asaben Billerak, --askotan nazio bateko Asabak ez bait ziran billera bat osotzeko naikoak--, garrantzi aundia izan zuten Kontzilioaren ariketan, billera oietan aztertu eta gertutzen bait zuten Asabek Batzar Orokorretan erabili gura zuten jokaera.

Legez, ez zuten Billera aiek izaterik, Kontzilioaren araudian ez bait ziran agertzen, baiña egitez, aundia izan zan aien garrantzia.

Laister artu zuten "integristek" bigarren koskorrekoa, eta ikusi aal izan zuten Kontzilioko Asabak ia danak, --geien-geien-geienak beintzat--, "progresisten" alderdikoak zirala.

Abenduaren 1'ean asi zan Batzar Orokorrean "Elizaren Eskemaren" azterketa. Teologi-Batzordeak eratua, Eskemarik onenetakoa zan. Ez zitzaien, altaguztiz, Kontzilioko Asabei egokiegia iduritu, eta atzera bota zuten, ostera bir-idatzia izan zedin.

Ez ori bakarrik. Aurretik Jon Aitasantuarekin itzegiñak ziran Leger, Montini eta Suenens Kardenalen eskarira, Eskema ura ez ezé beste guztiak ere, "Munduarentzat asmatua izan zan Kontzilio batek eskatzen zuan erara", bir-antolatzeko agindu zieten Batzordeei Kontzilioko Asabek.

Azkar ari zan bere eginkizunean Kontzilioa. Inork uste zuan baiño azkarrago. Asabak ere, Batzar orokorretan, uste baiño iritzi berdiñagokoak ari bait ziran agertzen.

Askotan esan oi da "iritzi-batekotasun" ori, aolkulari yayo edo "periti" esan oi zitzaien teologilari eta legiztilarien ariketaren ondorio izan zala. Bai noski, neurri aundian.

Ugari izan ziran "gizon yayo" aiek. Aitasantuak berak, Kontzilioaren Batzordeetan aolkulari izateko deituak bai bait ziran irureun! Gogora itzezu, baita ere, Gotzai bakoitzak berekin eraman zituanak. Errez ulertuko duzu gizon yayo auek Asabak baiño ugariagoak izan zirala; eta jakintsuagoak. Orregaitik izan bait ziran ain zuzen, jakintsuak ziralako, Erroma'ra deituak edo eramanak.

Aundia zan gizon auen itzala, eta luzea:

- Berak bir-erakutsi zioten gotzai bakoitzari gotzaiek aspaldi aztuxea-edo zeukaten teologia;

- Berak idatzi zituzten gotzai bakoitzak Batzar Orokorretan izan zituan mintzaldiak, eta Kontzilioari bidali zizkion txostenak.

- Asaben Nazio-Alkarteek eta Nazio-Kidetsu-Arteko Bazkunek eratutako lan-geletan, berak, --gizon yayoak--, izan ziran lanaren egille eta zuzentzaille.

- Teologi Berriari-buruz itzaldi ugari eman zizkieten Asabei.

- Maiz, atertu gabe, mintzatzen ziran aurpegiz-aurpegi Kontzilioko Asabekin, eta mintzaldi oietan txertatzen zieten Asaba ez-ain-berri-zale aiei Teologi berrituaren muiña.

Ori egiteko, gaiñera, bazuten astirik naiko; beste zer egiñik ez bait zuten Erroma'n.

Ez zituzten Kontziliaora aurkeztutako Eskemak prestatu. Eskema aiek kuriatarrek autatutako teologilari integristen eginkizuna ziran.

Baiña orain, Kontzilioa egitekoan, Erroma'ko teologilari "integrista" aiek beren betiko egin-bearretan eralgi bear izaten zuten astia: Kuriako idaz-geletan edo Unibersitateetako irakas-geletan.

Atzerritik etorritako yayo aiek, ordea, zearo iare ziran kontzilio lan utserako.

Eta, ludi zabaleko gotzaiek beti begira izan bait diete kuriatarrei begi okertxo, gustora entzuten zituzten kuriatar ez ziran, are geiago, kuriaren aski aurkako ziran Belxika'ko, Alemani'ko edo Frantzi'ko teologilari ospetsu aien gogoetak.

Egia da, zalantzarik gabe, garrantzi aundikoak izan zirala "gizon yayo" edo "periti" auek; aipatutako iru lurraldetakoak batez ere, eta Kontzilioaren aurreneko bi "sesio" edo "eseraldietan" bereiziki.

Baiña ez dezagun aantzi Asaben artean ere bazirala Elizgizon jakintsu, ospetsu, irikiak, goraxeagoko zerrendan aipatu ditugunak adi bidez, eta izugarria zala orduan gizon oien izena Eliza osoaren baitan.

Eta ez dezagun aantzi ifolaz ere, danetan irikiena, an zegoala danen atzean Aitasantu zaarra: Jon XXIII'a, eta Aitasantua Eliza berritzeko eta Eliza munduari irikitzeko asmoetan tinko zegoala. Ifolaz ere, eta iforengaitik, atzera-egiteko asmorik gabe. Tinko.

Bazekiten ori "progresista" ziralako aiek, eta orrek ematen zien indar;

bazekiten "integristek" ere, eta orrek makurtzen zituan arreta aundiz ibiltzera; Bazekian ori Kontzilioko Asaben multzoak. Orregaitik ain abegi onez artzen zituan eraberrizaleen asmoak.

1962 artako Abenduaren 8'an itxi zuan Aitasantuak Kontzilioaren lenengo Ekiñaldia. Baiña aurretik, artu zuten integristek irugarren koskorreko bat:

Kontziliora, asieran, aurkeztuak izan ziran 70 Eskemak, 20'era bilduak izan ziran, eta 20 egitarau oiek jorratu eta antolatu bear zituzten Batzordeen lana goitik zuzendu eta bateratzeko, beste Batzorde Goien bat eratu zan, eta Batzorde ortan Asabarik geienak, integristen oñazerako, Erroma'tik kanpokoak ziran.



Gertakizun aundiak ikusi bear zituan kristaudiak Kontzilioaren bigarren Ekiñaldia asi baiño len.

1963'ko Ekaiñaren 6'ean Jon XXIII'a il zan. 21'ean, Aitasantu zan Paul VI'a eta urrengo egunean, 22'an, jakiñarazi zion ludiari, Kontzilioa aurrera eramango zuala. Iraillaren 22'an iriki zuan itzaldi garrantzitsu batez, Kontzilioaren bigarren "sesioa", eseraldia.

Poz aundia ekarri zien Eliza-berritu-zalei itzaldi arek: Lau elburu zituala Kontzilioak, zion Aitasantu berriak: Elizaren zertasuna eta nortasuna --batez ere gotzaien almenari zegokion arloan-- sakondu eta argiagoa ta ulerterrezagoa egitea; Eliz beraren era berritzea; Kristau bereiziekin batera etortzeko bideak billatzen saiatzea; Eliza munduarekin alkarrizketan ipintzea.

Aurretik, aldakuntza bat egin zuan Paul VI'ak Kontzilioaren araudian. Ordurarte, 10 kardenalek osotutako kopuru batek zuzentzen zituan Asaben Batzar Orokorrak. Paul Aitasantuak lau kardenalen kopuru laburrago baten eskuetan laga zuan eginkizun ori.

Eta berak aukeratu zituan lau kardenal oiek; ez integristen gustora, lauetatik bat bakarra bait zan kuriatarra: Agagianian. Besteak, aski progresistak ziran: Lercaro (Boloni), Doepfner (Babari'ko Monako), eta Suenens (Malina-Brusela).

Lambert beneditarraren ikasle zan azkeneko au, ura bezala ausarditsua. Doepfner, Ipar-Europa'n izen aundikoa. Eta, naiz italiarrak ia danak arras integristak izan, oso gizon irikia genduan Lercaro.

Autaketa auek argi erakutsi zioten munduari Aitasantu berriaren asmoa Jon XXIII'aren bidetik jarraitzea zala.

Baita're, izendatu zituan "Observatores" edo "Begirari" berriak. Begirari auek, itzegiteko eta autarki-emateko eskubiderik gabe, Kontziliora deitutako jende ospetsuak ziran; amar, asieran, --Jean Guiton aurrenekoa, Jon Aitasantuak deitua--; ogeitamasei izan ziran Kontzilioaren amaieran, ta

auen artean zazpi emakumezko; guztiok, Paul Aitasantuak ekarriak.

Kontzilioaren bigarren Ekiñaldi au, "Elizari-buruzko Eskema" aurkeztuz asi zan. Eskema ederra zan ura, Lobaina'ko G. Philips'ek gertutua. Irakasle ospetsua izateaz gaiñera, Belxika'ko parlamentuan Senatore ere bai bait zan, ondo zekian Philips'ek Batzordeetan eta Batzarretan nola jokatu; eta naiz gizon irikia izan, Eskolastika ederki ezagutzen zualako ondo konpondu oi zan beti Erroma'ko teologilari eskubitarrekin. Altagutziz, ez zuten Kontzilio'ko Asaba integristek aren eskema ontzat artu. Zergaitik?

- Andre Mari, Eliz-Eskemaren atal bat bezala agertzen zan Philips'en idazkian. Ori, Andre Mari'ri irain egitea omen zan; ondo merezi omen zuan bâ arek eskema oso, bereizi bat. (Gero ordea, Kontzilioa amaitzerakoan arrazoi eman zion Paul Aitasantuak, Lobaina'ko irakasleari, Andre Mari Elizaren Ama izendatu zuanean, ori, itxuraz beintzat, Andre Mari'k bere tokia Elizaren baitan zuala esatea bezala bait zan).

- Eskema arek, diakonutza ezartzen zuan Elizan berriro; eta Diakonutzarako gizon ezkonduak sagaratu aal izatea. Ori, integristentzat, Apaizak ez ezkontzeko legeari gaur-egunean egokitasuna ukatu zetzaiokeala adieraztea zan.

- Gotzaigoa sakramentua zala, aitortzen zuan Eskemak. ¿Ez al zan ori -- pentsatzen zuten integristek-- gotzaien nortasunari garrantzi giegi ematea? Eta, gotzaiei garrantzi giegi ematea, ¿ez al zan Aitasantuaren nortasuna moztutzea? (Integristek, kuriatarrei jarraitzen zieten; kuriatarrak, berriz, gotzaiei al daitekean guztian aimenak kentzearen eta Aitasantuari al dan almenik geiena ematearen aldeko izan oi dira beti; eta ez da arritzekoa, zenbat eta gotzaiek almen gutxiago eta zenbat eta Aitasantuak almen geiago, ainbat eta almen geiago izango bait dute kuriatarrek ere. Elizbarruti bakoitzeko jaurilaritzaren murriztasunak sendoagotzen du Erroma'ko jaurlaritza, ta an, jaurle, kuriatarrak dira).

Eskema ura lurrera botatzeko naikoa zuten integristek Kontzilioaren ibillera eragozte; eta ortarako aski zitzairen, banaka banaka, bata bestearen atzetik danak Batzarren altzoan itzegiten astea.

Oartu ziran ortaz lau kardenal zuzendariak eta jardunkera orri ateak isteko, eta Asaben asmoa zer aldetara makurtu zitekean jakin nai zutela aitzakitza ipiñiz, auteskunde bat egitea erabaki zuten urrillaren 30'ean. Eta eskemaren aldeko agertu ziran Asabarik geien-geienak auteskunde artan.

Baiña orduan integristek, "soilki-Asaben-iritzia-aztértzeko" auteskunde ura, ez zala legezkoa oi u egin zuten. Izan ere Kontzilioaren Araudian ez zan orrelako auteskunderik aipatzen, eta ez zan, gaiñera, Kontzilioen edestian ezaguna.

Bazekiten ordea Aitasantua geiengoaren alde zegoala-ta burua makurtu bearrean aurkitu ziran.

Zalaparta aundia atera zuan "Gotzaiei-buruzko Eskema" k. Kuriaren

aurka gogor ekin zuten Frings Koloni'ko Kardenalak eta Maximos IV Melkatarren Patriarkak.

Frings kolonitarrak, "Eginkizun Done" edo "Sactum Officium" izeneko Epai-Mai Nagusiaren aurka itzegin zuan. Ottaviani Kardenalak erantzun zion garratz, bera bait zan Epai-Mai artako Zuzendaria.

Maximos melkatarrek Kuriaren erdirakoikeriaren aurka, zentralismoaren aurka, jo zuan, bere mintzaldi guztietan erabili oi zuan txorroxtasunaz. Kontziliooko Asaba ospetsuen artean Patriarka au izan genduan ospetsuenetako bat.

Ekumenegintzari-buruzko Eskemak iru zati zituan.

Aurrenekoa iru atalek osatzen zuten, eta Cicognani Kardenalak aurkeztu zuan Kontzilioaren aurrera.

Bigarren zatia, Judutarrei-buruzkoa, Bea Kardenalak. (Cicognani'ren "Sortalde-Auzietako Kongregazioaren" eta Bea'ren "Kristau-Batsunerako Idazkaritzaren" artean baziran bâ nor-aurren-izateari-buruz ixkamillatxoak-eta, eskema au nork aurkeztu erabakitzeke ere izan zituzten eztabaidak).

Irugarren zatiak Erlijio-Askatasuna zuan gai, eta Smedt Bruxas'ko Gotzai belxikatarrak aurkeztu zuan.

Aurreneko zatiaren aurka irten ziranak, danak, edo espafiarrak edo italiarrak izan ziran.

Bigarrenaren aurka maometarren mendeko lurraldeetako gotzaiak; bildur ziran bâ --gotzai aiek-- Jaurleri maometarrak --Israel'ko Errepublikaren aurka gudan zeuden arabitarrek bereiziki-- asarretuta kristautasunari biziera laltutzen asiko ez ote ziran. Ekumenetzari bildur bait zioten!

Irugarren zatiaren aurka integrista guztiak altxa ziran. Integrista auek gutxiengo, minori, txiki baiña urduri bat osatzen zuten. Gutxiengo ortan zeuden bereiziki espafiarr asko, italiar batzuk eta baita iber-amerikatarren taldetxo bat ere. "A small but active minority, consisting mostly of many Spanish, some Italians, and some Latin-American fathers" (Encic. Brit.).

Eskemaren azkeneko bi zati auek, urrengo urterako utziak izan ziran "with the consternation of many fathers": "Asaba askoren larritasunerako", Asaba auek bi atal aiek osoki baztertuak geldituko ote ziralaren bildur bait ziran.



Urrengo urteko ekiñaldi ura; Kontzilioaren irugarrena, azkenekoa izango zala pentsatzen zuten Batzordeetako jendeek-eta, orregaitik, eskuartearen zuten lan guztia ekiñaldi ortarako gertutu bear zutela uste izan zutelako, bear aiñako azterketarik gabe burutu zituzten ordurarte borroka aundirik sortu ez zuten Eskema batzuk: Apaizena, Erlijiosoena, Mixiolariena, Apaizgaiena, Ezikuntzarena, Ezkontzarena...

Zalantzarik gabe esan daiteke Eskema aiek ondo landu gabe izan zirala Batzar-Gela-Nagusira aurkeztuak, geiagoko eragozpenik gabe an onartuak izango ziralaren ustean.

Baiña Asabak ez zeuden gaiak arin ikusi eta arin epaitzekotan. Ala, astiro ta sakonki jorratuak izan ziran, beste guztiak bezala, presaka laburtutako azken-eskema auek ere. Jorratuak... eta okertzat artuak! Eta ostera Batzordeetara bidaliak itxuraz eta mamiz egokiago borobilduak eta bir-eratuak izan zitezten.

Berreun Asabek komunismoa gaitzestea eskatu zuten. Baiñan ezer lortu gabe gelditu ziran. Lurralde komunistetatik etorritako Asabak bereiziki, ez bait zeuden orrelako gaitzespenetan asteko prest.

Iñoiz baiño borrokariagoa agertu zan bigarren ekiñaldi ontan gutxiengo integrista. Kontzilioan deus lortzerik ez zeukatela ikusi zutenean Paul Aitasantuaren buru-biotzak lantzen asi ziran, Aitasantua berenganatuko zutelako itxaropenaz. Eta lortu ere lortu zuten zerbait.

Bildurtu edo egin zan bâ Paul VI'a. Bildurtu..., ¿munduak, Elizaren altzoan ain ezberdintasun aundiak bazirala jakin aal izatea, bildurgarri zitzaiolako? ¿Kontzilioa, berak nai baiño aurrerago joango zitzaiolari-buruz kezkatzen asi zalako?; soilki ¿integristek beren ikara kutsatu ziotelako?...; danadala, BazkUNETARA oarrak eta zuzenketak bidaltzen asi zan, batez ere Gotzaien eta Aitasantuaren almenari zegozkion gaietan.

¿Zerk kezkatzen ote zuan orduan, beti ain kezkatu eta zalantzakorra izan zitzaigun Paul VI'a? "Hamlet" izen-ipiñi zion, bertsolarien zorroztasunaz Jon XXIII'ak, orduan Milan'go goigotzai besterik ez zan Montini Kardenalari.

Alatagutziz, irugarren ekiñaldi onen azkeneko egunak alaiak izan ziran.

Integristak oro-ezezko ziralako, "Amairugarren Eskema" aurrera eramaterik ez zegoan. Eta, jura izan berriz jendeak geien itxaro zuan Eskema, Elizaren eta Munduaren arteko arremanak argitzeko pentsatua izan zalako!

Aren zai zeuden teologilariak ere, Eskema arek, Teologiak ordurarte ia ukittu ere egin ez zituan gaiak bait ziran zerabilzkianak.

Argi berri eta bide berrien zai zeuden teologilariak. Eta zer esan ez giziztilariak. Kontzilioa Munduari Elizaren garrantzia jakiñarazteko sortua izan zalako, Eskema ura zan Kontzilio osoaren ardatza.

Naitanaiezkoa zan Eskema ura, aurrera ateratzea; eta era egokian ateratzea gaiñera!

Orduan, Kontzilioko geiengoak, Batzorde bakoitzean bost bazkide geiago sartzea eskatu zion Aitasantuari, eta bost bazkide oietatik lau Asabek berak autatuak izatea. Baiezkoa erantzun zuan Paul VI'ak. Batzorde bakoitzerako, gaiñera, Lendakari-Ordezko berri bat eta beste idazkari bat geiago aukeratu ziran.

Paul VI'aren baiezko onek arindu zuan Kontzilioaren ibilketa.

Ordurarte, zentzutasun guztiaren aurka, nagusi zan Batzordeetan gutxiengoa, naiz Asaben kopuruan ain urria ta txikia izan. Kuriatarrek gertututako batzordeak izan bait ziran aiek!

Abenduaren lauean izan zan onartu eta lege egiña, "Liturgiaren Kostituzioa", "Sacrosanctum Concilium" itzekin asten dana, Kontzilioaren lenengo zitua, asieran bere aurka ainbeste iskamil sortu zuana. Orain, 4, (lau), asabek bakarrik eman zioten ezezko autarkia. Bi milla ta geiagok, (2.143'k), baiezkoa.

"Kostituzio" edo "Oinarrilege" onen elburua, kristau guztiak liturgiaren ariketan erdikide egitea da. Ortarako,

- Liturgi-idazkien berriztea erabakitzen du;
- Aintzat artzen du tokian-tokiko erri izkuntza, naiz oraindik latera, ots, latina, gorde liturgiaren atalik nagusienetan. Ez dakizu nolako zaratak, asarreak, kezak, eta bildurrak, sortzen zituan orduan, latera kentzearen auziak! Oso gutxi lortu zan izkuntzen gai ontan..., ¡baiña lortu zan zerbait!

- Gertakizun batzuetarako, ematen du kristau landerrek, ogiaren eta ardoaren itxurapean Jauna artzeko eskubidea. A! Luter'en denboran baimen ori eman balitz... ez zan protestalaritzaren sorkuntzarik eragoziko, baiñan, ¿ez ote zan agian protestalaritzara jende gutxixeago joango? Ez dezagun ametsik egin. Orain bertan ere bildur geiegi darabilki Elizak baimen ori geiago zabaltzeko.

- Garrantzi aundia ematen dio erriaren abesketari. Baita irakurgaiei, eta mezemaillearen itzaldiari ere. Ain zuzen irakurgaietarako eta abestietarako ematen du bereiziki erri-izkuntza erabiltzeko eskubidea.

- Zillegi egiten du alkar-meza. Mixiolariei, mixiolurretako oiturak liturgiara ekartzeko eskua ematen die. Zentzu berria eta zabalagoa damaio Gaixoen Ihurtzari...

Gauza aundiak ez dira; baiña garrantziko gauzak dira. Eta, batez ere, aurreruntz joateko bideak iririkirik gelditzen dira.

Gero etorri zan Paul VI'aren Lur Santura erromes joatea, eta, an, Kostantinopla'ko Patriarka Atenagoras I'arekingo alkar ikustea, eta bi Elizgizon Goitiar aien arteko besarkada. Arrezkero, II Batikan-Kontzilioan izan genituan Bizanzitar-Elizaren ordezkariak. Irugarren ekiñaldian zegoan Kontzilioa aiek etorri ziranean.

Len ere, Kontzilioa asterakoan, maitasun aundiz izan ziran Sortaldeko Elizak agurtuak, eta Kontzilioa deituak. Jon XXIII'ak egin zien deia; aiei, eta baita protestalariei ere. Ta etorri ziran. Oso naimen onenerik gaifera. Baita, iñork itxaro ez zituala, Errusi'ko Elizaren ordezkariak ere.

Kuriatarren aolkuaren aurka egin zuan dei ura Jon Aitasantuak. Oparo erantzun zioten Anai Bereziak.

28 Eliz bereizi egon ziran, ordezkarien bidez, Kontzilioan. Astero eskatzen zien aolkua edo iritzia "Kristauen Batasunerako Idazkaritzak", eta

oso maiz beste teologilari ta asaba askok eta Batzordeetako bazkideek.

"Sa présence devint réellement significative" (R. Roux). "Egiatz garrantzitsua izan zan aien Kontzilioan-egotea".

Itxaropen aundiak ernarazi zituan Anai Bereizi askoren biotzetan Jon Aitasantuaren jokaera arek. "Nostra res agitur", esan zuan "Elizen Bazkun Ekumenikuaren" Idazkariak, Vissert Hoofek: "Bagoaz aurrera". "Gure arazoaz ari bait dira"!

Elizaren edestian ez zan iñoiz Kontzilio batean erejerik edo zismatikurik sartu. Oraingo ontan "adi egote utsa" baiño geiago egin zuten Anai Bereiziek, "Kontzilio onen ekumene-zaletasunean zer-ikusit aundia izan bait zuan aien etorrerak: "Une rôle essentiel dans l'ouverture oecuménique du concile" (R' Aubert).



Poz aundiarekin asi zuten Asabek 1964'eko Iraillaren 14'ean Irugarren "Sesioa", "Ekiñaldia". "Gotzaien Eskemak", urduritu zuan osterata gutxiengoaren kopurutzua.

Gero, "Sortaldeko Eliz Alkartuen Eskemak" biziro astinduarazi zituan Asaben mingaiñak. Oso aula bait zan gaiñera Eskema ura!

"Apaizena", balio urrikoa zala-ta, atzera botea izan zan, eta "Erlijosoenak" ere ez zuan goratzarre aundirik Asabengandik jaso; biridatzia izatekotan gelditu zan.

"Gaurko Munduko Elizari"-buruzkoak, --ots, "13'garren Eskemak"--, beti bezala, zurrunbillo aundia sortu zuan, ez bait ziran errezak bere gaietako batzuk: Atom-Bonba, Erri Aberats eta Txiroen arteko Ezberdintasunak, Ondasunen Jabe izateko Eskubidearen Mugak, Munduko Jendetzaren aziketak sortzen dituan Arazoak...

Asabak oartzen ziran gai oien zailtasunaz, eta Batzorde Eratzaillean "experti" edo "yayo" geiago sartzea erabaki zuten, gai oietan jakintsu ziran gizon yayoak, apaiz ez ziranak ere bai.

Iskamillik aundiena ekiñaldiaren azkenean sortu zan, "Erlijo-Askatasunari"-buruzko Eskema, oraindik aski landua ez zegoala aitzakitatzat artuz, urrengo ekiñaldirako utzia izango zala jakifirazi zanean.

Ez ziran asko urrengo urterako uzte ori eskatu zutenak: berreuren bat Asaba, integristak danak. Aski gutxi Kontzilioako asaba guztiak bi millatik gora zirala gogora ekartzen ba'duzu, baiña integrista aiek setatsuak zirala esan dugu. Gogor jardun zuten isillan, beren asmoak garaille ateratzeko! Eta lortu zuten, Zuzendariengandik, ain gura zuten atzeraketa.

Aundia izan zan asarrea geiengoaren baitan, Kontzilioaren Zuzendarien erabaki arrigarri, "surprising decission", ura jakin zanean. Erabaki arrigarria... Kontzilioako Asaben artean ordurako bein-da-berriro gai ura agirian jorratua izan zalako.



Erabakia jakin zanean, Erlijio-Askatasunaren gai ura berealaxe autarkien bidez erabakia izatea eskatzen zuan txartel bat ibilli zan esku batetik bestera Kontzilioko Batzar-Gelan. Laureun eta berrogei ta bat Asabek izenpetu zuten orduantxe bertan txartel ura, eta eundaka geiagok geroxeago.

Zuzendarien erabakia Aitasantuaren ezaguerarik gabe artua ez zala izango-ta, Paul VI'arengana jo zuten Meyer, Ritter, eta Léger Kardenalek. Ez zioten Aitasantuari asmorik aldaarazi, baiña itz eman zien arek, urrengo ekiñaldian Erlijio-Askatasuna izango zala Kontzilioak lenen aztertuko zuan gaia.

Baiña, alakoxeko zerbaitxo bat-edo gelditu zan, gandua lez, aidean, Aitasantuaren eta gotzaien artean.

Gogor ari ziran Aitasantuaren alboan integristak Paul VI'aren onginaia berenganatu naiean. Badirudi bildur ziola arek integrista-pillo koxkor oni. ¿Gero aietako batek, Lefévre'k, eginen zion bezala, zarata gogaikarriren bat sortuko ote ziolaren bildurra?

Lenengo-Batikandar-Kontzilioan kristau sail bat zismara joan bait zan, ¿oraingoan integrista auk ere beste orrenbeste egingo zutelaren bildur ote zan Paul VI'a?

Irugarren eseraldian ontan nagusitasun geiagorekin lan egin zuten Asabek. Kontzilioaren aurreneko eta bigarren Eseraldiak "periti" edo gizon yayoek eginkizun izan ziran lez, irugarren au Asabena izan zan, eta baita laugarrena ere. Ari ziran auk teologiaren auzietaz jabetzen eta lasaitasun ta askatasun geiagorekin jokutzen.

Ez uste, ala ere, beste "yayo" aien nortasuna lurrindu zanik; Asaben atzetik aiek jarraitzen bait zuten len bezala, isilki, lanean.

Eskolastikaren izkera ondo ezagutzen zuten teologilari yayo aien zitu ditugu, neurri aundian, Kontzilioaren emaririk onenak. Aipatu dugu Philips. Willebrands'ek tajutu zuan, teologi eskolastikoz jantzia, "Ekumenegintzari"-buruzko Eskema; Hamer'ek "Erlijio-Askatasunarena"; Mertimort'ek, "Liturgiarena"; eta Onclin'en, "Gotzaiena". Teologilari auetako bakoitzak bere laguntzaille-taldearekin batera egin zuan lan.

Bultza eta bultza ari izan zitzaizkion Aitasantuari 3'garren ekiñaldi onen azken-egunetan integristek.

Ariketa orrek eraginda sarrarazi zituan aldaketa batzuk Aitasantuak Elizari-buruzko Kostitutuzioan eta Ekumenegintzari-buruzko Erabakian. Aldaketa eta zuzenketa auk ez ziran, batzuentzat, atsegifegiak izan. "Amendements inamicaux", "adiskidetasun motzeko zuzenketa" bait ziran, Laurentin Gotzaiaren aburuz.

Ez ziran Anai Bereizien gustokoak ere izan. "Eskemaren zentzua argitzeko bakarrik" izan zirala pentsatuak, esan zuten integristek, baiña Asaba geienak ez zituzten, zuzenketa auk, era goxoegian onartu.

Aitasantuak ez zizkien Asabei zuzenketa aiei-buruz azterketarako bideak isten, ez zituan Asabak baiezkoa beartzen, alatagutziz, baiezkoa eman zieten aiek; "bestela, berez ondo zegoan eskema ura dana galtzeko arriskua ikusten bait zuten": "They were accepted by the fathers only because otherwise the whole draft might be lost" (Encic. Brit.).

Baita're, arrigarria iduritu zitzaion munduari VI Paul Aitasantuak, naiz Eliz osoko gotzaiak an, Kontzilioan, euki, aiekin itzezin gabe, eta Kontziliotik at ere iñori deus esan gabe, bere kasa, bere erabaki utsez, Andre Mari Elizaren Ama izendatu izatea. Ez zuan, orduan beintzat izendatze onek oiartzun aundirik izan kristau erriaren baitan. Ta muzindu egin zituan anai bereziak, batez ere protestalariak.

Irugarren ekiñaldi onen azkeneko Batzar Orokorrean iru dokumentu izan ziran legezko egiñak:

- "Lumen Gentium" deritzan Elizari-buruzko Oñarrilegea. Kontzilioaren "chief business and central theme", "arazo nagusia et gai guztien biotza", askoren ustez (Encic. Brit.). ¡Eman zuan majiña bat nekel 33 Batzar orokorretan izan zan jorratua iru urteen luzaroan.

Oñarrilege onen erakusketarik garrantzitsuena Elizako agintaritzaren "gorpu-batasuna" da: "kolejialitatea", Elizako Agintari guztiak gorputz bat, "Collegium" bat osotzen dutela, alegia: gotzai bakoitzak bere gotzaidide guztiakin, eta gotzaidi guztiak Aitasantuarekin.

Gorputz ori utseziña da. Utsezintasun ori ez dijoa Aitasantuarenaren aurka, aitasantua ere Gorputz orren barruan bait dago. Utsezin jarraitzen du Aitasantuak berak, bakarrik "ex cathedra" itzegiten duanean ere, Gorputzaren buru dalako beragan mamitzen bait da gorputz-osoaren utsezintasuna.

¿Ezer gutxitan osoagutzen duala gai oni-buruz Bigarren Batikandar Kontzilioak Aurrenekoaren erakuskizuna? Ez ala uste izan.

Gotzaidia Aitasantuaren gorputz-izate orrek, edozer erabaki artu aurretik Aitasantuaren kontzientzia era larrian zamaten bait du. Aitasantua ez daiteke obenaren antzeko zerbait egin gabe, gotzaidirik ez balitz bezala Eliza gobernatzen ari. Gotzaidiaren aolkua eskatzera nolabait bearturik dago. Kontzientzitik elduaz, ori eskatzen dio Oñarri-lege onek, "thus reversing the trend which, especially since the first Vatican Council, had emphasized the monarchical structure of the Church at the expense of the bishops": "Lenen Batikan-Kontzilioa ezker bereziki, gotzaien almenaren lepotik Elizaren Bakalduntasunari indar geiago eman nai zion aburuari itzulpen-emanaz".

Gorpu-Batasun orrek, gotzaidi osoa ez ezê gotzai bakoitza ere mundu guztiko Elizaren arduradun egiten du; Gotzai bakoitza Eliz osoaren gotzai bihurturik gelditzen da. Badu or teologiak lanik aski, gotzai bakoitzaren Eliz-Guztirakotasun orren zertasuna, nolatasuna, eta noraiñotasuna aztertzen.

Asabek gai auek jorratzen ari zirala, inork uste ez zuala aurkeztu zizkion Kontzilioari Aitasantuak, esan dugun bezala, aipatutako bere 19 "zuzenketak".

Ez zitzairen Asaba geienei oso atsegin izan Paul VI'aren jokaera ori, baiña pakean jarraitu zuten beren eginkizunean, eta urrengo egunean, 1964'ko azaroaren 21'ean, amaiturik zegoan "Lumen Gentium", "Jendeen Argi" izeneko Oifñarrilegea. Bost autarki izan zituan aurka; alde berriz, bi milla ta eun da berrogei ta amaika.

Egun berekoa da, --azaroaren 21'ekoa--, beste dokumentu bat ere: "Unitatis Reintegratio" edo "Batasunaren Bir-Osoketa" izeneko Erabakia. Auetxek dituzu Dekretu onen atalik jakingarrienak:

- Eleiz-Bereizketaren arazo negargarrian, Zismaren arazoan alegia, alde batekoak eta bestekoak, danak, errudun dirala aitortzea.

- Bataiatu guztiak, naiz era osoan ez, danak Elizari itsatsiak daudela, argi esatea.

- Egiatzko Elizaren "ki" asko, "elementu" asko, Eliz Katolikotik at ere aurkitu daitezkeala aldarrikatzea.

- Gogo Deunak gizakume asko zeruratzeko Eliz Bereiziak erabilli dituala onezagutzea.

(Oso neurri txikian, baiña ematen zaie ala ere katolikoei beste Elizetako kristauekin alkarrekin otoitz egiteko baimena; beti, gotzaien aurre-baimenarekin).

"Sortaldeko Eliz Alkartuei-buruzko Erabakia" ere egun berekoa da, 21'ekoa. 2.110 autarki alde eta 20 aurka zituala izan zan onetsia. Ez da mami geiegiko gauza.



Bazuan Paul VI'ak geiengoa oso pozik ez zebillelaren aditza-ta, Irugarren ekiñaldi onen amaitzekoan, aien naimena irabaztea buruan artu zuan. Ortarako, orduan "liberaltzat" artuak izan ziran iru azalpen egin zituan:

- Kontzilioaren aginduak betearazteko Batzorde batzuk antolatzeke asmoa zuala, eta Batzorde oietara mundu guztitik ekarriko zituala gotzaiak, Bazkide izan zitezen.

- Mundu zabaletik artutako gotzaiak Aulki Doneko Kongregazioetara ere sartuko zituala, orrela kuriatarren almen orokorrari egalak moztuz.

- Asmo berarekin jakiñarazi zuan Kontzilioaren 4'gan ekiñaldiari asiera ematerakoan, "Gotzaien Sinodoa" antolatzerara zijoala; Mundu guztitik deituko zituala Erakunde ortara gotzaiak; eta maiz bilduko zuala Sinodo ori, era ortan gotzaiekin arazorik larrienak aztertzeke.

Laugarren ekiñaldi edo "sesio" au, azkenekoa, 1965'eko irailaren 14'ean asi zan.

Bigarren ekitaldian berreun bildu ba'ziran komunismoaren gaitzespena eskatzeko, laureun izan ziran oraingoan eskari bera bir-egin zutenak. Alperrik oraingoan ere. Kontzilioa ez bait zegoan eskomikak jaurtitzekotan.

Nasketa aundia sortu zuan, --ostera--, Murrey josulagun iparramerikatarrek bir-antolatutako "Erljio-Askatasunari-buruzko Eskemak".

Oso biguindua zetorren oraingoan eskema borroka-sortzaille au; gutxiengo integristaren omenez biguindua eta goxotua. Ala ere aurka irten zitzaion gutxiengoa. Oraingoan ordea Aitasantua geiengoaren aldeko agertu zan argi-argian, eta ordura ezkeru, ez zuan Kontzilioak bere asmoak aurrera ateratzeko eragozpenik ezagutu. Arin joan ziran aurrera azterketa guztiak.

Orain, gutxiengokoek, ezer geiago lortzerik ez zutela ikusita, len-bait-len Kontzilio amaitu beste gauzarik ez zerabilkiten gogoan. ¡Etxera bidali len-bait-len Erroma'tik, Aulki Donearen baretasuna ta pakea urratzera etorri zan gotzai-pillo ura dana! Bakarrik gelditu nai zuten Kurian, atzera berriz.

"13'garren Eskema" ain aipatua, "Elizaren eta Munduaren arteko Arremani-buruzkoa", azkenean Hautbmann frantziarrak tajutua, aulxamarra iduritu zitzaizen askori. Izan ere, teologi katolikoak oraindik ia ukittu ere egin gabeko gaiak bait ziran Eskema arek zerabilzkianak!

Ez zan erreza izan Eskema aren moldaketa. Begi txarrez so-egin zion gaiñera beti gutxiengo integristak. Azkeneko orrazketa Garrone'k eman zion. Ala're, 1965'eko abenduaren 6'ean, 251 autarki izan zituan aurka. Bigaramonean ere, oraindik, 75 irten zitzaizkion aurka. Bi milla irureun eta bederatz berriz alde, eta orrela, Garrone'k azken-eraturik aurkeztu zuan bezalaxe izan zan Kontzilioan onartua.

Naiz oso borobilla izan ez, bide ederrak irikitzen dizkio "Gaudium eta Spes" edo "Poz eta Itxaropen" izeneko Oñarrilege onek teologilarien ariketari; eta orduan, diktaturtzapean bizi giñan guztiontzat, biziro izan zan atsegiña.

Oñarrilege orren azterketakoan egin zuan Zoghby melkatarrak, Batzar-Gelatik kanpora ere aski oiartzun aundia izan zuan bere ezkontza urratu dutenen aldeko eskaria.

Mixiogintzaren Eskema, gogorki astindua izan zan. "Interventions orangeuses" izan omen ziran sartarazi zituanak: "ekaitz-giroko iskamillak" (R. Aubert); ala ere, Abenduaren 7'an, 2.394 Asabek eman zioten baietza; 5'ek bakarrik ezezkoa.

Egokia zaigu "Ad Gentes", "Jentillei", deritzan Erabaki onen edestia, Asabek Kontzilioan Aitasantuaren morroi bezala ez zirala ibilli adierazteko. Ikus:

Paul VI'ak berak aurkeztu zion Kontzilioari, urtebete lenago, 1964'eko azaroaren 6'ean, Eskema au aurreneko aldiz. Eta aurkezketa egitean

Eskemaren alde itzezin zuan eta Eskema arentzat Asaben iritzi ona eskatu. Altaguztiz, mottela zala-ta, Eskemaren aurka mintzatu ziran, bata bestearen atzetik, itzegitera jeiki ziran Asaba geienak. Eskema, bir-eraketa bat jasan zezan, atzera-botea izan zan.

- "Presbyterorum Ordinis", "Apaizgoaz", ziardun Erabakia, Abenduaren 7'an izan zan onartua. Naiz lendabizi aurkeztua izan zan Eskema baiño ohea izan, --oso txarra bait zan ura--, ez da bigarren au ere beste munduko gauza. Kontzilioa amaitu zanez gero iñork sekulan ezertarako Erabaki au aipatu ere egin duanik entzun al duzu?

Kontzilioko Asabak apaizgoaren gaia aztertzen asi ziranean, apaizen ezkontzari-buruzko arazoaz mintzatzea debekatu zien VI Paul'ek. Eta munduari Aitasantuaren debeku orrek alako zirrara bat egin ziola, ezin isilik utzi izango dugu.

Izugarriki lanez beterik ibilli ziran Batzordeak azkeneko lau asteetan. Oraindik onartuak izan ez ziran eskemen prestaketa bereala egin bearra bait zuten! eta ez era lasaiean gaifera, jezkerretik eta eskubitik erasotzen bait zitzairen Batzordeak!

Geiengoaren iritzi, gutxiengoari amore geiegi ematen ari ziran Batzordetakoek. Gutxiengoa berriz, Batzordeek ezkertiarren alde jotzen zutela-ta, kezkatu zebillen. Aitasantuarengana urbildu zan gutxiengo integrista, azkenean, beti bezala. Integrista auen eskariak entzunaz iru zuzenketa egiñarazi zituan Paul VI'ak "de Revelatione" edo "Jainkoagandiko Jakintzaren" Eskeman.

"Badut nik ere Kontzilioan esku izateko almena, ni ere kontziliokide bait naiz", esan zuan bere burua txuritzeko Aitasantuak.

Orrela, isildu zan azkenean gutxiengo eskubitarra, eta errez jaso zuten, arrezkero, falta ziran eskemek Asaben onetsia.

- "Christus Dominus", Gotzaien Eginkizunari-buruzko "Kristo Jauna" deritzan erabakiak, 2.315 baiezko eta 2 ezezko izan zituan auteskundean. Bere xeetasun jakingarrienak, bereizienak, auek dituzu:

- Erroma'ko Kurian errialde guztietako jendea sartzea eskatzen du.

- Gotzaiak Laterrietako agintariek izendatuak-edo izateari uko egiten dio. (Laterri-buru guztiei eskatu zien Kontzilioak itxura ortako eskubide oro lagatzeko. Danak erantzun zuten ederki; Franko'k bakarrik ez zuan erantzun).

- Gotzai-Batzar bat eratzen du nazio bakoitzean.

Eta ori da ain zuzen, Erabakiaren puntturik garrantzitsuena: Gotzaiak alkarrekin lan egin bear izatera beartzen dituan Batzar-eratze ori.

Kontzilioak ez zuan, gotzaiak, gotzai adintsuak, zar-atsedenera beartzeko gaitasunik izan, naiz arazo orrek asaben artean eztabaida bizkorra sortu: "spirited debate".

- "Perfectae Charitatis", edo "Maitasun Bikain" deritzan Erabakia

erlijiosoetaz mintzaten dan Erabakia da. (Urrillaren 28'koa). 2.321 baiezko; 4 ezezko, izan zituan. Anaidi bakoitzaren eratzaillearen garaieko izpiritu zarra eta gaurko egunak eskatzen duan berritasuna alkartzen saiatzeko eskatzen die Anaidi guztiei: antziñatasunaren eta oraingotasunaren arteko balantza-puntu zaila aurkitzen egiñalak egiteko.

- "Optatum", "Guragarria", izeneko Erabakiak, apaizgaitegiak ditu mami. Ez da balio aundikoa. Ez du beintzat apaizgaitegien arazo larriak konpontzeko ezer askorik lagundu.

- "Gravissimum Educationis Momentum", Kristau-Ezikuntzari-buruzko Azalpena. "Declaratio", edo "Azalpen" balio urrikoa duzu au ere (28.Urril.65). 2.290 baiezko izan zituan eta 419 ezezko.

"Dignitatis Humanae Personae", Erlijio-Askatasunaz mintzaten dan Azalpena, Abenduaren 7'an izan zan 2.308 autarkiz onartua; 70 izan zituan orduan aurka, baiña bi illabete lenago 70 oiek, 224 izan ziran!, azken-azkeneko unea arte "opositions tenaces" (R. Aubert), "jazarketa setatsuak", jasan bear izan bait zituan zorioneko Azalpen onek.

Ez du ordurako Kristauek ez zekiten gauzarik esaten: gizon orok baduala bere kontzientziari jarraitzeko eskubidea; Erlijio-gaietan gizonak Jainkoari eman bear dion erantzuna, zearo indarkeri oroz iarea izan bear duala; Jaurlariek ezin dezaketela gurketa-era bat indarrez ezarri; Jaurlaritza guztiak begirunez zaindu bear dutela gizakume guztientzat erlijio-askatasuna...

Ezer ez berririk, baiña atsegingarri izan zitzaigun Eliza ofizialki gauza oiek esaten entzutea. Joana zan, zorionez, Inkisizioleta guztien denboral Franko'k aukeratutako gotzai inkisizio-zaleen Elizan bizi giñanoi izan zitzaigun batez ere atsegiña, Eliz Orokorraren izkera berri au.

- "Apostolicam Actuositatem", "Apostoladugintza" izen duan, Kristau-Soillei-buruzko Erabakiak 2.394 baiezko autarki jaso zituan eta 2 bakarrik aurka, Azaroaren 18'an. Ez zuan beñere Erabaki onen gaiak jazargorik izan. Joran aundiarekin aipatzen du Katoliko-Ekintza, baiña ez du arlo ontan, orain arte beintzat, deus aundirik lortu: Ludi guzian illik bait dago Pio XI'ak sorturiko "Katoliko Ekintza" azalez dizdiratsu ura!

- "Dei Verbum", "Jainkoaren Itza", Jainkogandiko Jakintza gai dun Oiñarrilegea, ia dana, teologilari doixtarren laguntzarekin Betti frantziskotarrak tajutua izan zan. Ona da, dokumentu au, ederra. "Une étape décisive vers l'unité des chrétiens", "Kristaunen batasunerako urrats garrantzitsua", Thurian "artza" protestalariaren iritiz.

Lan zaila eta neketsua izan zan Oiñarrilege au antolatzea. Bere atalik iskamiltuena, "Fontes Revelationis" edo Jainkoagandiko Jakintzaren Iturriei dagokiona izan zan: Idazti Deuna eta Agoz-Agozko Jainko-Jakintza, ots, "Tradizioa", bi "iturri" al dira, ala bat?

Oiñarrilege onek ez du auzirik erabakitzen. Soilki, biak, sorkuntzan eta

elburuan, alkartuak daudela dio; biek altxor bat osatzen dutela; Jakintza-Altxor orren azalpena Elizaren "Magisterium" edo "Irakaskuntza"ren baitan dagoala.

Agoz-Agozko Jakintzak erakusten omen digu Idazki Deuneko liburuak zein diran, eta liburu oiek zuzenki aditzeko argia ematen. Elizak ez ei du Jainkoagandiko Jakintza, ots, "Jainkoak erakutsi diguna" jakiteko Idazki Donea bakarrik erabiltzen; "agoz-agozko iturria", "tradizioa", ere erabiltzen omen du.

Idazki Doneak, Jainkoak "gure salbamenerako Idazki Deunaren bidez erakutsi izan nai diguna bakarrik" erakusten omen digu utsik eta okerrik gabe.

Idazki Deunaren azterketan eta azalpenean, "genera litteraria" edo "Elerti-Erak" kontuan artzekoak omen dira; baita Anai Bereizien laguntza ere, kontuan artzekoa omen da, Idazki Deuna gaurko izkuntzetara itzultzerakoan.

Azaroaren 18'an izan zan Oñarrilege au onartua. 2.344 autarki izan zituan alde; 6, aurka.

- "Nostra Aetate", "Gure Aroa" du izena kristau ez diran erlijioei-buruzko Azalpenak. Beti izan zituan aurka errialde arabitarretako Asabak. Baita Estadutzako Idazkaritza ere. Bildur bait ziran; Arabitar-Jaurlaritzen bildur. Arabitarrak Palestina'n judutarren aurka gudu batetik irten eta bestean sartu zebiltzala, ez omen zan ura garai egokia judutarren alde itzegiten asteko.

Ederki egin zuan lan azkeneko illabeteetan Bea Kardenalaren jendeak Jaurlaritza arabitarren alboan jaurleri aiei judutarren erlijio eta endaren alde itzegitea gauza bat zala, eta Israel'ko Errepublikaren alde itzegitea beste gauza bat zala adierazteko.

Kontzilioaren Azalpen ontan argi gaitzesten dira judutarren aurkako gorroto oro eta ekintza guztiak: Judu-zigorketak eta judu-erailtzeak batez ere. Baita're, aldarrikatzen du Elizak Azalpen ontan, Kristoren eriotzaren errua judutarrei botatzea, ez dala zillegi. Judutarrak Jainkoak gaitzetsiak dirala esaterik ere, ez omen zaigu zillegi.

Zerbait geixeago eskatzen zuten Asaba batzuek: Judutarrak jainko-eraille, "deicidi", ez dirala agirian aitortzea. Ez zuan Kontzilioak orrelako aitopenik egin; baiña, aski adierazi zuan ori Azalpen ontan erabili zuan izkeraren bidez.

Judutarren endaz eta erlijioaz landa, beste munduko endaz, jende, eta erlijioei-buruz ezer gutxi aurkituko duzu Dokumentu ontan. Oso-oso urria eta txiroa da gai oietan.

Urrillaren 28'an izan zan onartua: 2.221 baiezko, 88 ezezko.

Judutarrek berak, bai pertsona soillek, bai erakundeek ere, asko saiatu ziran Kontzilioagandik, ain gurazko zuten Azalpen orren argitaratzea lortzeko.

- "Inter Mirifica", "Miragarrien artean bat", esan zitzaion "gizarte-mezu-bideetaz" mintzatzen dan Erabakiari.

"Ars gratia artis", "Ertiaren arrazoi bakarra, ertia bera", idatzi zuten antziñakoek. Ezetz, ordea diosku Erabaki onek: Ertiaren "criterium" edo arau nagusia ez dala ertia bera; moralitatea dala: oitura zintzoetatik sortzen dan eta oitura zintzoen babesle dan legea dala, ertigintzarako, Arau Nagusia. 1.960 baiezko eta 140 ezezko jaso zituan abenduaren 4'ean.

Egun ortan bertan amaitu zan Kontzilioa ere. Orduan, aurreneko aldiz, kristau ez-katolikoek Aitasantuak zuzendutako elizkizun batean artu zuten parte, an bai ziran kontzilioan Eliz Berezien ordezkari izandako guztiak.

Andik bi egunera, Frings Kardenalaren eskaria ontzat artuz, "Sanctum Officium" zeritzan Epai-Batza, izenez aldatuta, "Sinismen-Irakasbidearen Bazkun" biurtua izan zan. Giro berri baten asiera adierazi nai zigun aldaketa orrek.

Askoz geiago zan aldakuntza baten adierazle urrengo egunean, abendu aren 7'an gertatu zana: Erroma'ren eta Kostantinopla'ren arteko eskomika zârraren ezereztea.

Bai gauza goxoa, bai gauza xamurra eta ebangelio-guriña dariona, eskomika ura deusezteko Erroma'n eta Kostantinopla'n irakurri zan idazkia! Erroma'n, Willebrands Kardenalak irakurri zuan, frantzeraz; Kostantinopla'n, Aitasantuaren ordezkari zan Shehan Baltimore'ko Kardenalaren aurrean, Atenagoras Patriarkak berak;

Erroma'n, Paul VI'ak, meza-ostean, danen aurrean besarkatu zuan Ateanagoras'en ordezkaria.

Bereala jarri zituan gertakizun aren jakînean Atenagoras'ek Mosku'ko Patriarka, Antiokia'koa, Alexandri'koa, eta Jerusalem'goa; baita Serbi, Bulgari, Grezi, Poloni, Txekoslobaki, Azerbaiyan eta Txipre'ko Eliz iareak ere.

Gertakizun pozgarria benetan, Erroma'n Batikan-Jauretxe Nagusian eta Kostantinopla'n Phanar'ko Katedralean, Sarkaldeko eta Sorkaldeko Elizen Buruzagiek ospatu zuten ura: Eskomikatzerik mingarrienaren alkar-barkapena!

Bi Elizak bata bestearekin asarretu ziranean, 1054'ean jaurtitako eskomika zan ura. Leon IX'ren izenean Silva Candida'ko Unberto Kardenalak eman zuan aurreneko pausoa, berak, utzi bait zuan, zentzu geiegirik gabe, Sofia Deunaren Jauretxe Nagusiko aldare gaiñean eskomika-idazkia Migel Zerulario Patriarkaren aurka. Berealaxe erantzun zuan onek Erroma'ko Aitasantua eskomikatuz.

Gerontzean, andik onera eta emendik arâ, Kristogandiko karitatea zanpatuz, milla urte auen luzaroan izenbat alkarren aurkako gaitzespen, irain, eta gorroto!

Orain, ordea, pake-giroa zan berriro.



Giro ortan, ez zuan inork oroitzen Kontzilioa amaitu aurrean, azkeneko egunetan oraindik gaitzespenen maitaleak bazirala Asaben artean; Komunismoaren gaitzespen ura eskatu zutenak. Alperrik oraingoan ere. Beti bezala, Komunismoaren menpeko errialdeetan lan-zegiten gotzaiak izan ziran gaitzespen aren aurkakorik gogorrenak. Batere onik ez, eta gaitz asko ekarri omen zezazkean.

Orrela, pake osoan, inondiko eta inorentzako gaitzespenik gabe, maitasun giroan amaitu zan II Batikan-Kontzilioa.



¿Zer iritzi eman Elizaren azkeneko Batzar Orokor ontaz?

1<sup>a</sup>.- Esan dezagun lendabizi apaltasun giroan, garaitsukeririk gabe, "triumfalismorik" gabe alegia, egiña izan zala. "The fathers manifested a willingness to confess the faults of catholics and to admit the need of reform within the Church": "Asabak, katolikoek erruak ezagutzeko eta Elizak garbikuntzaren berrira bazuala aitortzeko prest izan ziran beti" (Encic. Brit.).

2<sup>a</sup>.- Asabek, itzegiteko askatasuna izan zuten, batez ere gutxiengoko, minoriko, Asabek. Ontan izugarria da I Batikandar-Kontziliotik II'era dijoan aldea.

An gutxiengoa, Asabek zanpatua izan zan eta bein baiño geiagotan era lotsagabea zapaldua. Gutxiengoaren aurka egon zan agiri-agirian Pio IX Aitasantua ere, ez noski bere izen onaren aintzarako.

II Batikandar Kontzilio ontan, merezi zituan eskubide guztiak izan zituan gutxiengoak eta baita, azpi-lanez lortuak, merezi ez zituanak ere. Berazegia izan zan ontan Paul VI'a.

Ala ere badu meriturik aski Aitasantu onek. Bi gai bakarrik gorde zituan beretzako, gai oietaz Asabei mintzatzea galeraziz: Apaizen ezkontza eta umeen sorkuntzaren eragozketa.

Kontzilioa amaituta gero bi auzietako aurrenekoari, erdizka iriki zizkion ateak, apaiz biziera laga nai zutenei ezkontzeko eskubidea emanaz; bigarrenari, erabat itxi zizkion ate guztiak "Humanae Generis" entziklikaren bitartez. Emakumeen illeroko odolketari dagozkion antzu-aldietaz landa, ez dezakete gurasoek aurren sorketa eragozteko ezertxo besterik erabili.

Gauza jakina da, auzia aztertzeko bereiziki deitu zituan aolkulari geienen iritziaren aurka eman zuala Paul VI'ak Entziklika au: orduan Elizaren altzoan bertan osteketa aundia sortu zuan eta oraindik munduak irentsi ez duan Entziklika.

Frantzi'n, Austri'n, Alemani'n, gotzaiak, Entziklikaren gogortasuna piska batean goxatu bearrean aurkitzen zirala uste izan zuten eta idatzi zituzten asmo orrekin beren eliztarrentzako azalpen bereziak; baiña Paul VI'ak ez zituan inoiz aien azalpen oiek agirian ontzat artu; Jon Paul I'ak ez

zitian dirudianeaz Paul VI'ak baiño geiago ontzat aldarrikatuko. Alderantziz, II Jon Paul gero-ta-geiago ari da, gogor, VI Paul'ek erakutsitakoari indar geiago ematen.

Paul VI'ak meritu aundia duala esan dugu; eta, Kontzilioak lortu zuan guztia ari eskerrak lortu zuala ere, esan dezakegu. "Much credit is also due to gentle but firm hand of Paul VI although some believed that he made unnecessary, excessive, and ill-advised concessions to the conservative minority" (Encic. Brit.). "Paul VI'arena da merituia neurri aundian, eta aren esku biguin eta era berean sendoarena. Askok ordea uste dute gutxiengo kontserbatzaileari, bearrik gabe, aolku okerre jarraituz, gauza geiegitan amore eman ziela".

3<sup>a</sup>.- Ekumenismua, Elizen-Batasungintza, izan zan Kontzilioaren luzaro guztian Asaben kezkarik aundiena: "Anai Bereziak" ez naigabetzea; danei Eliza Katolikoaren onginaia erakustea; Alkarren arteko zuloak ez geiago sakontzea. "Gai ontaz zer pentsatzen dute Anai Bereziak"?

Beti egon ziran Anai Bereziak Kontzilioaren barruan, eta pozik atera ziran Kontziliotik.

4<sup>a</sup>.- Gizakume guztientzako eraspina izan zan Kontziliokideen beste kezka bizi bat. Gauza asko eta ederrak esan zituan Kontzilioak gizakumearen eta errien eskubideei-buruz, Jon XXIII'aren eta aren aurreko Pio XII'aren bideei jarraituz. Gustora artu zuan munduak ere Kontzilioa; eta Kontzilioaren erakutsia. Batez ere, diktaturtzapean bizi giñanontzat gozoa eta atsegiña izan zan, Kontzilioaren itza.

Kontzilioak, Eliza eta Mundua alkarrekin ezkondurik laga zituan; eta, ezkontza ori, betirako izango da.

Arrezkero Elizak badaki, betirako, Munduari lotua dagoala eta mundu ori al dan neurri guztian "zerutar", "jainkotiar" biurtzea dala bere eginkizuna, eta eginkizun ori kristau ez-apaizek Munduaren erakunde orotan MAITASUNA eta ZUZENTASUNA txertatuz bakarrik lortu daitekeala.

Arrezkero, politikagintza ez da Eliza-baitan pekatu izango, birtute baizik, eta kristauak kristau ez diranekin politikagintzan erdikide izatera beartuak egongo dira, danon artean zuzentasunezko Mundu bat eraiki dezagun. Egin, lan ori, Elizak, elizkide ez-apaizen bidez egin bear du.

5<sup>a</sup>.- Diakonia: "Mirabetza". Orra or Kontzilioko Asaben beste kezka bat. Eliza ez da munduaren Erregin izateko sortua, munduaren mirabe izateko baizik. Eliz-barruan ere Aitasantua ez da, bereiziki, Elizaren Erregea, Elizaren mirabe nagusia baizik. Eta berdin gotzaiak eta apaizak beren eliz-barrutietan.

Alperrikakoak dira, beraz, Elizaren altzoan aundikeri-marra guztiak. Iriki zaigu orrela, bide berri bat eliztarroi, ez noski bide erreza, aundikero bizitzen oituei zailla bait zaie aundikeriei azken-agurra egitea.

Mirabetzak berriz berekin dakar agintekeri orori azken-agurra egin bear

ori: orain arte Elizako Agintariek ain kuttun izan duten Bakalduntza edo "Bakarrik Agintzea" betirako baztertzea. Eta, ontan, asko irabazi dugu asti laburrean. Oroitu ezazute adiñekoak zeratenok lengo jauntasunez jantzitako gotzai aundiki aietatik gaurko gotzai bakunetara dagoan alde.

Bakalduntza, "monarkia", ezin utzi dezake Elizak bere izakeran; Aitasantuak eta gotzaiak ez dute iñoiz erriaren izenean aginduko, Jainkoarenean baizik, erriarengandik ez baiña Jainkoagandik artzen bait dute Agintaritza. Egia da ori; Baiña orrek ez du esan nai "bakarrik agindu bear" dutenik, bakarragintzaille izan bear dutenik.

Orrela, bakarragintzakeririk itxuenean egin izan dira maiz aski gure artean gauzak; orrela nai izan da Eliza zuzendu, eta negargarriak izan dira jardunkera orren ondorioak bein baiño geiagotan.

Aundikeriari azken-agurra egiteak, bakarragintzeari azken-agurrra egitea eskatzen du: Elizaren agintaritzan, "Alkarrekin Agintzea", "Kolejialitatea", ipintzea. Ori egin du, edo ori egiten beintzat asi da Kontzilioa, eta ori izan da askoren ustez Kontzilio onen emaitzarik bikaiñena. Aitasantuak "Gozai-Sinodoaren" bidez, gotzaiekin batera erabilliko du bere Agintaritza, eta gotzai bakoitzak apaizekin batera berea, ortarako elizbarruti bakoitzean sortu-bearrak diran erakundeen bitartez. Eta Elizan ez-apaizak ere elizkide bait dira, sortu bearako dira, Elizaren Agintaritza erabiltzerakoan ez-apaizak ere kide egiteko erak. Kontzilioaren asmo oiek ez daude oraindik, ez noski.

Eta ortik iriki leike agian, eliza sumintzen duten arazoak askatuta, Elizari indar berri eman aal izateko bidea ere: Elizaren arazoak askatu eta argitu daitezken neurrian! Eliza ez bait da sekulan arazoetatik iare eta akatsetatik zearo garbi mundu ontan aurkituko.

Edozein erakundek du, gaurko egunean, "Alkarrekin Agintze" ori bear-bearrezkoa. Baita Elizak ere.

Oartu dira Eliza baitan apaizak, orain artean azkeneko mende luze auetan, apaizen bizkarrek batez ere jaso eta eutsi dutela Eliza, ez gotzaiena, eta Kontzilioa bera ere gotzaiena ez baiña apaizena izan dala neurri ederrean: apaiz teologilariek "egiña". Egia da ori, baiña badu bere arriskua: teologilariek beren buruak gotzaiena gaindiko uste izatearen arriskua. Eta apaizak gotzaiena agintaritza gutxietsi aal izatera iristea.

Apaizen azpitik, ari dira kristau soillak ere beren nortasuna adierazi naiean, esku ta abots eske. Elizaren zati dira auek ere eta badute Elizan zer esanik eta zer egiñik.

Gaiñera gaurko jende ez-apaiza ez dugu leengo jende lander ezjakiñaren antzekoa; mundu guztia joaten da gaur ikastoletara, eta asko unibersitateetara. Gero ta geiago, gure kristauak jakituriz ongi jantzitako jendeak dira, apaiz eta gotzai batzuk baiño obeto jantziak asko eta asko. Ez dira "gure arditxoak", eta arditxoak badira, arditxo erneak dira, artzaiak

bezain erneak. Ez daitezke kristau auek gaugerero artaldea lez erabili.

Eginkizun latza eta oztopo-zuloz beteā izango da noski kristau ez-apaizei Elizaren zuzenketan betiko beren "zer-izateagaitik" eta gaurko aien "nolako-izateagaitik" dagokien tokia billatzea. Baiña kristau-ez-apaizek, nai dute toki ori, gero ta obeki prestatu egonen dira toki ortarako, eta gero ta kementsuago eskatuko dute toki ori.

Elizak ezin izango dio eskari kementsu orri muzuñik egin.



Kontzilioa, mintzatu da kristau ez-apaizen nortasunaz, baiña gauza asko utzi ditu esan gabe. Eta ez gai ontaz bakarrik. Kontzilioak baditu utsuneak; baditu ondo jorratu eta bear bezala argitu gabe utzi dituan atalak ere. Ta ez da arritzekoa. Lau udazkenen luzaro laburrean ez dago arazo guztiak burutzerik. Ortaz gaiñera Kontzilioan aipatutako gai asko landare berriak ziran Teologiaren baratzan, artean teologiak ukittu besterik egin ez zituanak.

Orain ekin bearo diote teologiariek atal oien sakonketa-lanari.

Beste batzuetan, Kontzilioko atal batzuek duten osotasun faltaren itxura Kontzilioko Asabek eta batez ere Paul VI'ak kontziliogintzan erabili zuten kezka baten ondorioa da. Kezka ori Asaba guztien batasuna lortu nai izateā izan zan. Gai bakoitzean danak, edo ia danak beintzat, iritzi batera ekarri nai izan zituan Paul VI'ak. Ikusi beza munduak Eliza zauririk gabeko gorputz sendo bat dala! Ez bedi zulorik, ez bedi asarrerik, ez bedi zismarik sortu!

Ta lortu zan itxurazko batasun bat, gitxiengoaren eskariei amore ta amore emanaz. Iritzi bateko agertzen ziran Asaba danak autarki-ematerakoan. Ezezkorik geiena jaso zituan auteskundeak %8 besterik ez zituan jaso. Gizarte-Mezu-Bideei-buruzko Erabakia izan zan "orrenbeste", ezezko bildu zituana.

Baiña iritzi-batasun "arrigarri" ori gaien osotasunaren, argitasunaren, eta bikaintasunaren kaltean izan zan.

Alatagutziz, Kontzilio au izan da, besteak ez bezala, Erriaren Kontzilioa, Mundu guztiaren Kontzilioa. Eta besteek ez bezalako zirrara sortu du Elizaren altxoan.

Kristaudiak altziñako kontzilioak azturik zeuzkan. Trento'koa eta Batikano'ko Lenengoa zeuzkan oraindik gogoan.

Trento'koak ordea ez zion kristau-erriari zartadarik egin, aurretik kristau-erriak, bai katolikoak bai protestalariak onetsirik edo gaitzetsirik zeuzkan gaietaz ari izan bait zan. Kristau erriak ez zuan Kontzilio artatik ezer berririk itxaro.

I Batikan-Kontzilioa berriz Pio IX'aren Kontzilioa geiago izan zan Elizarena edo Munduarena baiño. Pio IX kezkatzen zuten gaiak erabili zituan; ez Eliza, eta askoz gutxiago Mundua, kezkatzen zuten gaiak.

II Batikan-Kontzilio au ordea Munduarentzat egiña izatea nai izan zuan Jon XXIII'ak: Eliza Munduaren mirabetzan ipintzeko, eta mirabetza ortarako gai izan zedin Eliza bera, Eliz osoa, gaurko Munduak eskatzen duan eran eraberritzeko. Kontzilio ontan Mundua ez da Etsai; ez da uxatu bear dan Arerioa. Adiskidea da; lagun-urkoa. Lur ontan Elizaren bide-laguna. Elizak zeruratu bear duan senidea.

Jon XXIII'aren izpiritua an egon zan bizirik Kontzilioaren luzaro guztian. Eta bizirik dago oraindik Kontzilio-ondorean Elizan eta Munduan.

Asko eskatu zioten Elizak eta Munduak Kontzilioari. Gaur, itxaropenak aski galdurik, etsirik-edo dago Eliza; eta baita Mundua ere.

Ez dezagun aantzi Elizaren aldaketak denbora bear duala. Gorputz aundia dala Eliza, bizitza luzekoa; eta, Elizaren edestian, ogei urte ezer ez dirala.

Eliza ez ezê Eliz ortako gizonak ere ez dirala ain errez eta ain azkar aldatzen. Eta badu onek bere garrantzia.

Kontzilioak ez zituan gizonak aldatu. Lengo gizonak jarraitu zuten Kurian, eta Elizaren buruzagitzan: gizon "integristak", Kontzilioa asi aurretik Kontzilio-egitearen etsai agertu ziranak; kontziliorakoan eragozpen-ipintzen ibilli ziranak, --oroi Kontzilioko gutxiengoa--, eta Kontzilio-ostean ai zan aldaketarik gutxiena egitekotan zeudenak.

"Nik ez dut sekulan Kontziliarik ulertuko" zion Erroma'tik etortzean Españi'ko gotzai batek.

Kontzilioak ez zituan Elizako Erakundeak aldatu: Erakunde zarrak denak, "Structures Décadentes" (Laurentin), Erakunde aguretuak. Oso txikiak, txit axalekoak, arras garrantzi gutxikoak izan dira orain artean egin diran aldaketatxoak.

¿Kontzilio-aroko gizon aiek geienak illak dirala? Bai noski. Baiña Legedi zarraren araura, Erakunde zarren bidez, lengo gizon aiek aukeratutakoak ditugu orain Elizaren buruzagitzan dauzkagun Agintariak.

Elizak asko ez aldatua, ez da arritzekoa. Aldatu dan pixka aldatu izatea da arritzekoa!

Gerora?

Dezagun itxaro!

Ekaitzak basamortuko zugaitza astintzen duan bezala astindu digu Kontzilioak Eliza; eta baita Mundua ere.

Jaungoikoaren egarri da gaur Mundua; eta egarriago izanen da oraindik biar. Ez dago mundua galdurik.

Ta Eliza? Ari da Eliza ere bere baitan bizitza berriaren garra sumatzen. Beetik gora ari dira teologi-era berriak, eta erakunde berriak sortzen. Kristau


lander eta kristau ikasien ibillera berri ontan, izango dira urrats okerrak, baiña baita aurrerakunde bikaiñak ere, eta auek geldituko dira gerorako. Beti izan da orrela.

Bizirik dago oraindik Elizan Kontzilioak erraietan sartu zion gaztetu-naia. Ta ori..., ez da beti orrela izan. Len-iñoiz-ez-bezalakoa bait da gaur Eliza-baitan zerbaiten erne-bearra. Ez da sekulan kontzilio bat gure au bezain "erriarena", "Elizarena", "munduarena" izan. Ta orrek danak ere zerbait esan nai du.

Iñoiz ez bezala begiratzten dio gaur Munduak Elizari; iñoiz ez bezala Elizak berak bere "zertarakotasunari". Bere Elburu Osoaren billa, eta elburu ori egoki betetzeko bide egokien billa dabil Eliza. Ta, esan nai du zerbait orrek ere.

Bizirik dago eta dizdiratsu dirau Jon XXIII'ak Elizaren eta Munduaren gaillurrean piztutako izar gidariak.

Ludiaren asieran "Lurra utsik eta ezer bagarik egoanean eta illunpeak leza-gana estaltzen ebanean Jaungoikoaren Izpiritua ur-azal gaiñean egaz ebillen" bezala (Kerexeta), gaurko gertakizunen urolde gaiñean ere "Jaungoikoaren Arnasa datza" (Orixe).



## VI PAUL (1963-1978)

Itali'ko politikan ondo sarturik egondako sendi baten seme jaio zan, Brescia'ren alboko Concesio deritzan erriska txiki paketsuan. Giovanni Battista ipiñi zioten izen.

Giorgio Montini izan zuan aita eta Judith Alghesi berriz ama.

Aita, bankalaria, kristau zintzo eta demokrazizale aundia, sendo saiatu zan politikaren arloan, bere pentsabideen alde. Liburuak argitaratzeko argitaldegi baten eta Brescia'ko izparringi baten sortzaille izan zitzaigun. Baita Itali'ko Legebatzarrean diputadu ere, 1919'tik 1926'ra.

Eta, beti, fatxismo mussolindarraren arerio menderakaitza. "El fascismo tuvo en él un enemigo irreductible" (Paul Lesourd-Jean Marie Benjamin; -- M. Ureña'k gazteleratua).

Giorgio Montini, Luigi Sturzo apaizarekin batera, 1919'an "Partito Popolare" izeneko Alderdi erkalazale ezagunaren sortzailleetako bat izan zan. "Con ello se puede ver en qué clima político fueron educados Juan-Bautista Montini y sus hermanos" (Id. Id.).

Bere antzekoak izan zituan iru semeak ere: Koldobika, lege-gizona eta Erroma'n senatorea; Frantzisko, sendalaria, diputadu eta senatore izana, Mussolini'ren eta, gero, alemaniar Itali-zanpatzailleen aurka izkutuan lan egiña, Kristau-Demokrazi deritzan Alderdian, Zuzendaritza Nagusirako, burukide izendatua.

Eta..., gure Jon Batista, Aitasantutzara igo aurretik, mundu guztian ezkertiarzat-edo eukia izan zala ¿nork ez daki?

Arras osasun auleko umea izan zan au, eta ala jarraitu ere jarraitu zuan, gero, bere bizitza guztian. Jaio-ostean ere, ta aurtzaro osoan, zaintza ta arreta bereiziak bear izan zituan, bizirik aurrera ateratzeko.

Brescia'ko oratoritarren ikastetxean sortu zitzaion apaiz izateko guraria. Mutiko sentikorra, gero ere gizon biotz-bera ta minkorra izango da beti, eta, ezin zuzendu zezazkean munduko okerkeri ta zorigaitzek sakon eta biziki ukitzen zutelako, arantz-arteon bizitu zitzaiguna.

Osasunik ezaren erruz, oratoritarren ikastetxetik-at, bere gurasoen



etxean biaz egin bear izan zituan ikasketa guziak. 1920'ean izan zan apaiz egiña.

Osasunik-ez ori zala-ta ain zuzen, gelditu zan gudaroztera joan bearrik gabe.

Erroma'n jarraitu zituan ikasketak, iñakitarren Gregoriana unibersitatean. Len, Brescia'n bertan, oratoritarrena bakarrik ez ezê, izan zan iñakitarren ikasle ere.

Erroma'ko "Accademia Pontificia dei Nobili Ecclesiastici" deritzan Ikastolan ikasi zuan diplomazia. Eta baita alemanieraz, inglanderaz eta prantzeraz bikainki mintzatzen ere. Ta, adimenn zorrotzeko gizaseme agertu zuan edonon bere burua.

"Aitoren Semeen Akademi" ori, 1701'ean izan zan irasia, apaizgaien bitoki lez; eta, gero, diplomazi-ikastola biurtua. Izena arroxko-xamarra zuala-ta, gaur, era apalagoan, "Accademia Pontificia Ecclesiastica" deritza.

Jon Batista Montini gaztea, Estadutzako Idazkaritzara eramana izan zan, bere ikasketak amaitu bezain laister, eta Elizaren atzerri-arazoetako ministeriotza dan landegi ortan egon zan 32 urtez Gasparri, Pacelli, eta Maglione, Kardenaien laguntzaille; eta zuzenean XII Pio'ren esanera azkenean, Tardini'rekin batera, "prosecretario" edo "izdazkari-ordezko" bezala.

Ogeita amabi urte oien epean, soilki illabete batzuetan bizi izan zan Erroma'tik urrun; Bartsobi'ko nuntzitegian, (1922-1923). Poloni'ko Jaurlaritzarekin Konkordato bat eratzera joan zan aruntz, Akiles Ratti nuntzioaren laguntzaille lez.

Ain zuzen, laister XI Pio izanen zan Nuntzio ura, alemanizale zalaren aitzakiz Poloni'tik bidalia izan zan. Silesi'ko Goierrietan autaketa bat egin bait zan orduan, lurralde ark Poloni'rena edo Alemani'rena izan bear zuan erabakitzeke. Alemani'ren alde agertu omen zan auteskunde artan Nuntzioa.

Montini laguntzaillea berriz, osasunak jaurti zuan Erroma'runtz, Poloni'ko giro otzetik igesi.

Erroma'n, Batikan-Jauregian bertan zuan, --Montini'k--, bere bizi-tokia, eta gela artako atea beti egon ziran edozeiñentzat zabalik. Bai noski, jendearengandiko adiskidetasun, laguntza, ta maitasunaren zale Jon Batista Montini bere bizitza guztian izan zalako, baiña baitare jendearekin itzegitea, jendeari laguntzea, eta gertakizunak lekuko edo testiguen ezipañetatik zuzenean jasotzea, arras gustatzen zitziailako ere.

Lagundua izatea, oso atsegin izan zitzaion Aitasantutzan urte batzuk igaro zituan arte. Gero, poliki-poliki, gero-ta-geiago, bakartasuneruntz jo zuan.

Gogorkeri ororen etsai, alkarrizketa izan zuan maite, "persuadido de que la discusión pacífica con comunistas era mucho mejor que las

condenaciones solemnes y la ausencia de diálogo. En realidad, Monseñor Montini, en el fondo de su corazón, realizaba una política, durante el pontificado de Pio XII, que no correspondía a sus sentimientos más arraigados.

"De ahí el beneplácito con el que recibía en las oficinas de la Secretaría de Estado a los miembros de los movimientos católicos de izquierda salidos de la Democracia Cristiana, que censuraban, en secreto, la actitud de Pio XII, y se vanagloriaban de poder contar con el apoyo de Monseñor Montini cuya ascensión al papado habían esperado siempre" (P. Lesourd-Jean M. Benjamin. M. Ureña'k gazteleratua).

Biziki saiatu zan "Ikasle Katolikoen" alde, erdi-izkutuan aurrena, eta osoki izkutuan gero, Mussolini'k "Ikasle Katolikoen Alkartea" debekatu zuanean.

Mussolini jausi zanean, Badoglio Mariskala izan zan Jaurlaritzaren Lendakari izendatua, (1943; uztailak 25). Fatxismua, ordea, arrezkero, garaiturik eta illik zegoan, eta, ala, guda amaitu zanean, Errepublikak bihurtu zitzaizun Itali.

1945'ean izan zan eraila Mussolini. Urte ortan bertan eman zion III Biktor Imanol'ek buruntza Unberto bere semeari, nolabait erregetza salbatu naiean; baiña onek ere agintaritzan utzi bear izan zuan berealaxe, erreferendum batean Itali, bi milloi autarkiren geiengoz, Errepublikaren alde atera zalako (1945; ekaiñak 2).

Katoliko-Ekintzako gaztediaren aldetik jaiotako "Democracia Cristiana" Alderdia izan zan orduan Itali anarkitik gorde zuten erakundeetako bat; garrantzitsuenak Bâ, Alderdi ortako jendeen aolkulari izan genduan Montini. Eta Alderdi ortako ezker-saietseko jendeen adiskide zala uste izan zan orduan ere!

1944'ean, iñorekin geiegi fiatzen ez zan XII Pio'k Estadutzako Idazkaririk ez izendatzea erabaki zuan. Idazkari baten ordean, bi "idazkari-ordezko" aukeratu zituan: Tardini, Elizatik-landako arazoetarako, eta Montini, Eliz-barrengoetarako. Andik amar urtera, ordea, 1954'ean, Milan'go goigotzaigoa eman zion gure Jon Batista Montini'tarrari.

Itali'ko elizbarrutirik aundiena eta ederrena eman zion. Alare, goigoratu ez baiña baztertu egin zuala, uste izan zuan jendeak. Milan'go Goigotzaia Kardenal egia izaten zan beti. Pio XII'ak ordea, oraindik bizirik jarraitu zuan lau urteetan, ez zion Montini'ri kardenaltzarik eman.

XXIII Jon izan zan gure Montini Elizako goi-mailla ortara jaso zuana (1958).

Maita izan zuan Jon Aitasantuak, eta argi ta garbi erakutsi zion maitasun ori II Batikan Kontzilioaren lanetara alkatu zuanean; eta, bereiziki, bere ondorengoa, Aulki Donean, ura izango zala aztiatu zuanean.

Ala gertatu ere zan; 1963'ko ekaiñaren 21'ean, berrogei orduko

konklabe labur baten ondorean, kardenalek, Aitasantu izendatu bait ziguten Jon Batista Montini Milan'go Goigotzaia.

Atsekabe mingarriz jakin zuten izendaketa orren berri Españi'n Franko diktatorearen lagun eta adiskideek.

Zergaitik? Aitasantu berria, Jon XXIII'a bezain demokrazizalea zutela ondo zekitelako; eta, oraindik denbora asko ez zala, Franko, Montini Goigotzaiarekin, onek bidalitako telegrama baten ondorioz, aski era baldarrean gelditu zala ezagutzen zutelako. Izan ere, sekulan atsegiña izan ez zitzairen Roncalli Aitasantuaren ondorean Montini Aitasantua... geiegizko zigorra bait zan, benetan, frankotarrentzat!

Ez aren --Jon'en-- ez onen --Paul'en-- biotz-adimenen zabaltasun gozorik ez zuten Franko'ren jarraille erretxinduek ezagutzen!

Galde bat gelditu zaigu erantzunik gabe. Zergaitik urrundu ote zuan Erroma'tik Milan'era XII Pio Aitasantuak Jon Batista Montini? Eta, zergaitik utzi ote zuan an Kardenal izendatu gabe? Batzuek, erabaki ortan integristen aolkua jarraitu zuala, erantzungo dizute. Beste batzuek berriz, XII Pio'k ez zuala Montini Aitasantu izaterik nai, eta ziur uste izan zuala, orduan kardenal egiten ba'zuan, bere urrengo Aitasantua uraxe bera izango zala.

Orregaitik bidali omen zuan Erroma'tik eta orregaitik ez omen zuan Kardenal egin, Milan'go Goigotzaiarekin oiturazko gauza zan bezala.

"Hamlet" izen ipiñi zion XXIII Jon'ek Montini Milan'go Goitzaiari, beti zalantzez inguratua ikusten zualako.

Izango ote zuan "Hamlet"ek, XII Pio'ren atzetik Aitasantu egiña izan balitz, II Batikan-Kontzilioa biltzeko ausardi santurik?

Zorionez, ura ez baiña Jon XXIII'a izan zan Aulki Donera jaso, eta onek bai, izan zuan Eliza Kontziliora deitzeko kemenik aski. Elizaren onerako ari izan zan beraz XII Pio, bera oartzeko, Milan'go Goigotzaia kardenal egin gabe laga zigunean.

Zillegi bezaigu, Eliza Gogo Deunak daramala, kristauok benetan sinisten dugula, berriro emen aitortzea: Gogo Deunak; gizonen erabaki zuzen edo okerren atzetik, ¡Gogo Deunak!

Ibilketa sendo azkarrean utzi zion Jon XXIII'ak Kontzilioa Paul VI'ari. Ibilketa ura aurreruntz eramatera zetorrela jakiñarazi zuan onek bere lenengo itzaldian, eta, Jon zanaren bidetik ain zuzen jarraitu nai zuala, bai Kontzilioaren zuzenketan, bai beste arazo guztietan ere.

(II Batikan-Kontzilioa azaldu dugunean, an gelditu da aurkezturik VI Paul Aitasantuak Kontzilioaren zuzenketan egindako lanak. Orregaitik ez ditugu lan aiek emen bir-aipatuko).

Ez daiteke VI Paul'en aitasantutza itz baten gunean mugatu. Bi itz bear dira ortarako: gaur egun nun-nai eta sarri entzun oi ditugun itzak: "Progresista", aurrerakoia; "kontserbatzaillea", lèna-gordezalea. Gauza batzuetan aurrezalea izan zitzaigun Paul Aitasantua; beste batzuetan lèna-

gordezalea. Orrela izan ere izan bear du gizakume orok. Zertan bata eta zertan bestea izan asmatzen, dago kokka.

Asmatu ote zuan Paul VI'ak? Bertaegi gaude oraindik beragandik, ori ziur jakin aal izateko. Orregaitik, berari-buruzko gure atal au, bere ekintzen azalpen bat geiago izango da ekintza oien azterketa sakona eta epaiketa estua baiño.

Ori bail Aurrez zalantzarik gabe olestu dezakegun gauza da, Aitasantu aundia izan genduala Jon Batista Montini Paul VI'a.



Ekintza oietan, garrantzi aundikoa, 1964'ko urtarrillean, oraindik urteterdi bat besterik aitasantutzan ez zeramakianean, Lur Donera egin zuan erromes-ibilketa dugu.

Jordani'ko uriburuan, Amman'en, Hussein Erregeak eman zion ongi etorria. Pakeaz bere sentimentuak agertuaz erantzun zion Paul VI'ak.

Pakea izango duzu, Pau'en elburuetan, garrantzirik aundienetako bat.

Sinismen sendoko eta barru-bizitza bikalifeko gizona zalarik, poz aundiz, eta gogoz otoitz egiñaz ikustatu zituan Jordan ibaia, Betani, Jerusalem'go gurutz-bideko karririk, Jetsemani, eta Obi Donea. Goizeko ordubata joa zan, etxera itzuli zanean. Izan zuan lenxeago, sei Patriarka sortaldetar katoliko eta bi ortodoxiar alkarrizketa gozoan berekin artzeko astirik naiko.

Sorkalde eta Sarkaldeko Elizen batasuna duzu, izan ere, bere aitasantutzako beste arazo nagusia.

Bigarren eguna Israel'ko Errepublikaren lurraldean igaro zuan.

Errepublika orren Lendakaria, Zalman Shazar, irten zitzaion bere Jaurlaritzaz inguraturik, ongi etorri zintzo bat ematera. Israel Zaarreko igarleak oiñarritzat artuta, pakea goratuaz mintzatu zan Lendakaria ere, gogorkeri odol-ixurtzaillea ta ludiaren ezereztea ekarri dezaketen izkilluak gaitzetsiaz. Izan zuan israeldarrak Israel'era itzuli aal izatea aipatzeko eta goresteko tartea ere.

"Danon alde otoitz egitera etorria nauzute" erantzun-eman zion Aitasantuak.

Eta pozik egin aal izan zuan otoitz Nazaret, Kana, Kafarnaun, Tabormendi, eta Josu'k Kepa'ri "tu es Petrus" esan zion Tabgka'n. Bazuan pozik egoteko arrazoi ederrik! Bera bait zan, izan ere, Kepa'z gero, lurralde aiek ikustatzen zituan lenengo Aitasantua ogei mendeko Elizaren edesti guzian!

Illunabarrez, israeldarren mendeko Jerusalem'en, "zenakulora", ots, Josu'k azken aparria egin zuan gelara sartu zan. Andik arabitarren menpeko Jerusalem'era egin zuan urrats. Aurretik, azken agurra, östera Shazar

Israel'ko Lendakariak berak, eman zion.

Israel'ko bigarren irratikateak zabaldu zuan Aitasantuaren, Israel-zearko, ibillera guzia.

Bigarren egun ortan etorri zitzaion, anai-lez, Kostantinopla'tik, Atenagoras, Eliz ortodoxiarraren Patriarka Nagusia. Aurreneko aldiz alkartzen ziran, XI mendean zisma sortu zanez gero, Erroma'ko Aitasantua eta Kostantinopla'ko Patriarka. Ospetsua izan zan munduan, eta garrantzi aundikoa, bi gizon aiek Jerusalem'go Uri Donean alkarri eman zioten besarkada.

Irugarren egunean, Belen ikusi zuan VI Paul'ek, ostera, pakea ezin lortu izateak ematen zion miña agertuaz. Jerusalem'era itzultzean Atenagoras'eri ikustaldia ordaintzera abiatu zan. Ordainketa bera itzuli zion Derderian armenitarren Patriarkari ere. Aitasantuarengana berriz, Jerusalem'go maometarren Mufti edo Buruzagi Nagusia urbildu zan agur-eginzale.

Jerusalem'dik, ltxas Illa'ren ertzetan geldi-une bat eginda, Amman'era, eta emendik Erroma'ra biurtu zitzaigun, orrela ibilketa guziari amaiera emanaz.

Izan zuan Paul VI'aren Ludi Santurako ikustaldi onek orban txiki bat aurreneko egunaren asieran, antziñako era gogorren maitaleen erruz sortua: Arriturik ikusi zituan Aitasantuak, Jerusalem'go kaleak erdiaroko gurutze-gudari aien soñekoz jantzitako Zaldun-Anaidi bateko anaiek militar-eran artuak.

Ori, iguingarri zitekean maometarrentzat, eta, baita, mundu guzian, zentzu oneko gizakumeentzat ere. Gaiñera, anai aiek, ez zuten Paul VI'aren jiterik ezagutzen. Ikusi zituan bezain laister agindu zien onek jendearen aurretik izkutatzeko. Makurtu zuten aiek burua Aitasantuaren agindura. Ez ziran geiago Aitasanturen beste agertaldietara azaldu.



Judutarren eta islamdarren artean erdibiturik aurkitu zuan VI Paul'ek Lur Donea, eta, erlijioari dagokionez ere, orrela jarraitzen du gaur-egun arte. Arrazoizkoa izango da beraz ango bi sinispide oiei-buruz zerbait esatea.

Israel'ko Errepublikak 4.200.000 biztanle ditu. %2'2, kristauak, katolikoak geienak (%1'2); beste %1'a, era guztietako ortodoxiarrak. Maometarrak %14 dira eta judutarrak %84'4, ia Errepublikaren biztanle guztiak beraz.

Judutar oiek ez ditugu an Elizarentzat arrisku, judutarra, berez, ez bait da proselitista edo "bere erlijioa-zabaltzaille". Izan daitezke alatagutziz, egunen batean egiazko arrisku aundia, an, Israel'ko lurretan, kristautasuna asko aziko balitz, berea-danaren-babesle-bizkorrak, bai, bai bait dira judutarrak.

Munduan, onela dauzkazu banatuak Moise'ren semeak: Iparameriketara, 6.500.000. Europa'n, 4.500.000, (oietatik ia 3 milloi sobietarren Alkartean; 550.000 Frantzi'n, eta 450.000 Ingalderrian).

Iberamerika'n 600.000 dituzu, erdiak baiño geiago, --350.000--, Arjentina'n. Afrika'n 150.000 dira (120.000 Egoafrika'ko Errepublikan, 20.000 Marok'en).

Asi eta Ozeani'n 150.000.

Estatistikarik onuratsuenek, gaur judutarrak munduan 18.023.700 dirala esaten digute, eta ortan jarraituko dutela; datorren mendearen asieran, 2000'garren urtean 20.173.600 izatera doi-doi iritxiko omen dira bā.

Tamalgarrria da kristauok judutarrekin arreman ugariagoak eta adiskidetasun geiagorik ez izatea, senide gera bā judutarrak eta kristauak: Abraan'en semeak. Eta Eliza, Itun Berriko Jainko-Erria, Jainko bat beraren begien aurrean Israel Berria bait da, Israel Zarraren eta Itun Zarreko Jainko-Erriaren jarraipena.

Musulman'en Palestina'n, zer esanik ez, geienak, maometarrak dira, Sunnazaleak ("sunnites") eta, baita, batzuk Xiitarren "alderdikoak" ere. ("Shiit", ain zuzen arabieraz "Alderdi" da. "Sunna"k berriz "tradizio" edo oitura zaar esan nai du). VII mendetik dator musulmanen zatiketa ori.

Xiitarrak askoz borrokalariagoak dira sunnatarrak baiño. Alatagutziz, badute auek ere adar gogor indarkeri-zale bat: Tunizi'n, Ejito'n, eta baita beste lurralde batzuetan ere, ain zakar agertzen zaigun "Anai Musulmanen" taldea.

Ez da erreza, Atlantik itxaszabalaren ertzetatik Filipinetaraiño, Maomet'en jarrailleak zenbat diran egiztatzea, estatistika asko falta izateaz gaiñera zabaltzen eta zabaltzen ari bait da, Afrika'n batez ere, jarraille oien kopurua.

Alatagutziz esan daiteke 837.308.700 badirala gaur egun, eta billoi bat baiño geiago, 1.200.653.000 izango dirala 2000'garren urtean.

¿Islam erlijioaren zabalketa gartsu ori zergaitik?

Lendabizi; erlijio orren siniste-arauean egi-sinisberrak gutxi, ta bere aginduak urri eta errezak diralako.

Bigarren, erlijio-era ortara sartzen diranak, geienak, oso kultur motzeko jendeak diralako.

Irugarren; Erlijio orrek bere jarrailleei munduko gizartean zer-izate eta nor-izate bat neke geiegirik artzeke eskeintzen dielako.

Laugarren; Erlijio orren oiturizti edo moralitatea, kultura gutxiko errialdeetan ain erroturik dagoan poligamiarekin ederki konpontzen dalako.

Eta, bosgarren, gaur egun arrolioak arabitarrei ekarri dien aberastasanak Mahomet'en semeei, ekintza ororako, izugarrizko diru laguntza aurkezten dielako.

Danadala, arerio gaitza da gaur maometarren sinispidea kristautasunarentzat.

Sunnazaleen lurretan, zabalketa azkar, errez, eta mardul orren bidez Elizari bere sinispidearen zabalkundea eragozten diolako.

Xiitarrek indarra dutenetan berriz, zabalkuntza ez ezik bizitza ber-bera ere eragozten diolako; xiitarrek, maometarrak bizi diran lur bakoitzean, Jomeiny'ren Iran'goaren antzeko "Islamdar-Errepublika" bat ezarri nai bait dute, eta, orrela, beste sinispide guztiei ariketa oro galerazi.

Leen ere arkaitza bezain gogorrek izan dira maometarren belarriak Josu'ren Berri Onarentzat. Ez da arritzekoa. Berri On ori ereiten duan Elizak, maometarrei, Gurutze-Gudarien ezpataren muturra besterik ez bai die mende luzeetan aurkeztu.

VI Paul'ek ordea, ondo zekian kristauok musulmanei ez eze, etsairik gogorrenari ere maitasuna zor diegula, begirunerik aundinez so-egin bear diegula beste sinispideetako jendeei, eta beste erlijioen ariketa, gorrotoaren eta gorrotoaren ondorio diran zikinkerri ta okerkerien bidez eragozteia ez zaigula guri zillegi.

Orregaitik abegi onez eta maitasun osoz artu zituan Jordani'ko Errege musulmana eta Jerusalem'go musulmanen Buruzagi Nagusia.



Urte ortan bertan, Lotazillean, Bonbai'ra joan zitzaigun Paul VI'a, ango Eukaristi-Batzarrera. Eta Bonbai'tik egin zuan, inglanderaz, "kristau ez diran erlijioentzako deia":

"Aspaldidanik egin naiean nengoan gauza da, Indi'rako nere etorrera au", --zion Aitasantuak deiketa artan-- Eta, "yours is a land of ancient culture, the cradle of great religions, the home of a nation that has sought God with a relentless desire, in deep meditation and silence, and in hymns of fervent prayer. Rarely has this longing for God been expressed with words so full of the spirit of Advent as in the words written in your sacred books many centuries before Christ: From the unreal lead me to real, from the darkness lead me to light, from death lead me to immortality".

Ez zan sekulan oraindik Elizaren bizitza osoan Aitasantu bat jentillen erlijioaz orrela mintzatu. Tokitan zeuden amasei amazapigarren mendeetako mixiolari aien izkerak! Ez da motza, denbora aietatik gaurko egun auetara ibilli dugun bidea!

Alare, ez zaitez antziñako mixiolari aiekin gogorregia azaldu, denbora bakoitzak bere oldozkera ta bere mintzaerak izaten bait ditu. Ona emen euskeraz, VI Paul'en itzak:

"Zuen lur au, kultura zaarreko lurra duzute, erlijio aundien sort-lekua, etenik gabeko gurariz, oldozketa sakoneko isiltasunaren bidez, abesti ta

otoitz sutsuen bitartez Jainkoari so-egiñaz egon dan Erri baten aberria. Gutxitan agertu izan da Jainkoaganako guraria Abendu-izpirituz betetako itzez, Kristo baiño mendez leenago idatzitako zuen liburu sagaruetako itz auek agertzen duten bezain egoki: Eraman nazazu ametsezko mundutik egiazko mundura, eraman nazazu illunpetik argira, eraman nazazu eriotzatik betiko bizitzara".

"Erljio zaarrak" aipatu zituan Aitasantuak, eta bada, bai orixe Indi'an erljio zaarrak. Jendetsuena, askoz eta askoz, "Hinduism" edo "indusinspidea" esaten zaiona.

760.000.000 gizakume dira Indi-Errepublikan. Laterria bera, laikua da, ots, "sinispide ofizialik" gabekoa, baiña, Laterri ortako jendea, munduan izan daitekean erljio-zaleenetakoa da.

Indutarrak 661.371.700 dira, (biztanleetan %79), eta 2.000'garren urtean 859.252.300 izango dira. Alare, ez daude lasai indutar erneak, berak baiño geiago ugaritzen bait dira Indi'n bertan maometarrak. Ikus: Errepublikako biztanleen kopurua %3'6'ean ugaritzen da urtero, eta indutarrena %2'4'ean bakarrik; (beste %1'2 ori, geiena, maometarretara dijoa).

Oridalata agian, Jaularitzak, naiz legez erljio-gabea izan, "indiar-kulturari" era berezian laguntzen dio.

Maometarrak, soilki %12'5 besterik izan ez, iristen dira 80 milloieraiño, eta urduri ari zaizkigu lanean, arrollo-jaun arabitarren aldetik bai bait dute diru-laguntza naroa, mezkita, ikastetxe, eta irarkolak eraiki ta oparo eraman aal izateko.

Indi'ko maometarrak, geienak sunnizaleak dituzu (Errepublikan %11'3'a, xiitarrak ez bait dira %1'2'a besterik. Auen artean, Aga Kan Rita Hayworth "Gilda"rekin ezkondu zanez gero, sarkaldeko itxas ertzean batez ere bizi diran "Ismaeldarrak edo "ismaelits" esan oi zaienak, zuk, irakurle, aski ezagunak izango dituzu noski).

Maometarren atzetik kristauak datoz Indi'n; 18 milloi guztira (Errepublikaren biztanle guztien artean %4). Oietatik, katolikoak, 11 milloi (%1'3); protestalariak, %1'1; eta ortodoxiarrak, %0'2.

Ugari dira Indi'n liturgi sarkaldetarreko kristauak. Bi Elizetan daude zatituak: Siri-Malankarrak eta Siri-Malabartarrak. Aurrenekoak 1.000.000 bat dira; 266.000, katolikoak. Malabartarren artean ordea geiago dira katolikoak (4.000.000) zismatikoak baiño, auek doi-doi iristen bait dira 15.000'ra.

Indi'ko kristau bereizi guztiek "ortodoxiar" esan oi diete beren buruei; baiñan, soilki, Erroma'tik bereizirik daudela adierazteko, egiazko Eliz ortodoxiarretatik ere, ots, Kostantinopla'ko patriarkadutzaren altxotik sortutako Elizetatik bereizirik egon bait dira. Orregaitik, "Kaltzedoni-Aurreko Elizak" dugu beraientzat izenik egokiena.

Aipatutako bi oietaz gaiñera, auek dituzu gaur mundua-zear



Kaltzedoni-aurreko Elizak: Ejito'n kopziarrak 2.500.000; (Erroma'rekin alkartuak, 150.000). Abisini'n 14 milloi; (alkartuak, 112 milla).

Libano'n marondarrak 1.669.000, danak, betidanik, alkartuak. Siri'n Jakobitarrak, 150.000; (alkartuak, 96 milla). Armenitarrak, 2 milloi; (alkartuak, 152 milla). Kalzedoni'ko Kontzilioa (451) ontzat artu ez zuten Eliz oiek baiño zaarragoak ditugu 431'ean Efeso'koa ontzat artu ez zuten nestoritarrak, ots, "Kaldear-Elizako" 100 milla kristauak (Iran'en eta Irak'en) oraindik Erroma'tik at; kaldear geienak Erroma'rekin alkaturik bait daude: 450.000.

Indi'ko kristau sarkaldetarrak danak nestoritarrak ziran 1664'garren urtera arte. Orduan alkartu ziran Siri'ko Eliz jakobitarrarekin. Gero bi zati egin ziran eta bi Eliz irasi zituzten: "The Malankara Jacobite Syrian Orthodox Church" deritzana, Siri'ko Elizarekin alkaturik jarraitu zuana; "The Malankara Orthodox Syrian Church" deritzana, leengo nestoritar kaldeatarren araura igaro zana.

Siri-malabartar katolikoei itzegiñaz, argi utzi zuan VI Paul'ek, Elizaren Katolikotasunaren adigarri aratza dala Elizaren altzoan liturgi eta arauera ez berdiñak alkarrekin pakean bizi aal izatea. Itxura ezberdiñeko Eliz guztiek saiatu bear omen dute beren biziera gaurreguneratzen, baiñan lengoa galtzekel

Maitetsu artu zituan Aitasantuak Bombai'n katoliko ez diran Elizetako berrogei ordezkari. Robinson Bonbai'ko gotzai anglitar ospetsua buruzagi zutela etorri zitzaizkion agur egitera. Itzaldian, "Kristo'ganako zaletasunean nere lagun maiteak" izen eman zien ordezkari aiei; eta alkarrekin batasunerako bidea egin bearrean daudela bai bera ta bai aiek, oroitu ondorean, bere onespena eman zien guztiei. Alkarrekin errezatu zuten "Gure Aita".



Aipatutakoetaz gaiñera beste sinispide asko aurkitzen dira Indi'ko lurretan. Aipa ditzagun aurrena, bertan sortuak diran buda-zaleak. %0'7 bakarrik Indian. Eta jendea galtzen ari dira an gaiñera. Eta baita mundu guzian ere. Gaur, munduan 300.146.900 dira, eta 359.092.100 besterik ez dira izango 2.000'garren urtean. Gutxi, munduan jendea aziko dan neurrirako.

Sikhs edo sik-tarren sinispidea, oiñarritzat maometasuna duan erlijio sinkretista edo naasi bat da. 16.149.900 sinisle ditu. Pakean bizi izan dira Indi'an azkeneko urte auek arte.

Parsitarrak ("the parsis") Persi'ko Zoroastro'k asmatutako sinispide zaararen jarraileak ditugu. 115.000, guztiak.

Ugariagoak dira jaindarrak ("jainists"), indutasunaren altzoan sortutako zisma baten jarraileak: 3.000.000.

Animistak ere badira oraindik 20'ren bat milloi, eta baita, millaka jende asko, beste "sekta" sinkretista edo erlijio-naasiko talde eta taldetxoetan ere.

Orrenbeste margo ezberdiñez ornitutako Indi'aren omena, Sarvepalli Radhakrishnan Errepublikako Lendakariak ber-berak aurkeztu zion Bombay'n Aitasantuari.

1965'eko urrillaren 4'ean, Yorke Berrian, aurkituko dugu Aitasantua, "Nazio Alkartuen Erakundeari" mintzatzerako joana. Erakunde artako nazio guztiak bildu ziran, Albani izan ezik, Aitasantuaren itza entzuteko.

Fanfani, Erakundearen Lendakariak, italieraz eta U Thant Idazkari Orokorrak inglanderaz eman zioten ongi-etorria. Prantzeraz erantzun zion VI Paul'ek: Itzaldi artan, Nazio Alkartuei bere onespina ematea, egin zuan aurren-aurreneko gauza: "Notre message veut être tout d'abord une ratification morale et solemnelle de cette haute Institution".

Orra or Elizaren aldetik O.N.U. deritzan Istituzio edo Erakunde orren oneste ta sendotze betea: "ratification morale et solemnelle". Ez zan ura Elizak O.N.U.'ri bere oniritzia ematen zion aurreneko aldia. Len, Jon XXIII'ak ere goratu ta goietsi bait zuan "Nazio Alkartuen Erakundea".

Bearrezkoa zuan O.N.U.'k bi Aitasantuen babes ori, oso era makurrean erabillia izan zan bâ katoliko eskubitarren artean, batez Españi'ko frankozaleen artean. Ez omen zuan O.N.U.-k ezertarako balio!

Ez da ori egia, naiz munduko istripu guztiak konpontzeko balio izan ez duala egia izan. Ez bait da ori konpondu dezakean erakunderik oraindik munduan sortu; eta ez bait da sortuko ere! Baiña iritxi ez dezakegun neurri ortatik onuntza, okerkeri asko zuzendu aal izan du O.N.U.-k eta on aundia egin dio munduari. Orregaitik, moralitatearen edo izpirituzko munduaren aldetik ain zuzen eman dio Elizak oparo, zuzen ari izan dalako eskieratasun bikain ori.

"Pakerako eta gizarte-bide zintzorako gaur-egun naitanaiezko bidea O.N.U. dala ziur nagoalako, nere aurreko Aitasantuen, munduko gotzai katoliko guztien eta ni-neronen onespina eskeintzen diot gaur Erakunde garai oni": "Nous apportons à cette haute Organisation le suffrage de Nos derniers prédécesseurs, celui de tout l'episcopat catholique et le Notre, convaincu comme Nous le sommes que cette Organisation représente le chemin obligé de la civilisation moderne et de la paix mondiale".

"Eskerrak zuei, aintza zuei, ogei urte auetan pakearen alde lanean jardun zeratenoi, eta elburu eder au lortzearen martiriak ere eman dizkiguzutenoi. Eskerrak zuei eta aintza zuei, eragozi dituzuten borroken eta zuzendu dituzuten auzien ordain lez! "Merci à vous, gloire à vous, qui depuis vingt ans travaillez pour la paix, et qui avez même donné a cette sainte cause d'illustres victimes! Merci à vous et gloire à vous pour les conflits que vous avez empêchés et que vous avez réglés".

"Orain arte zuen ekintzak lortutako zuzenketek, naiz askotan beinbetirakoak izan ez, ondo merezi dute nik, emen, nere burua mundu guziaren ordezkari egiñaz eskeiñi nai dizutedan zorionik eskertsuena". "Les résultats de vos efforts en faveur de la paix, jusqu'à ces derniers jours, méritent, même s'ils ne sont pas encore décisifs, que Nous osions Nous faire l'interprete du monde entier et que Nous vous exprimions en son nom félicitations et gratitude".

Pakea ostera VI Paul'en ezpaiñetara! Pakea..., eta aspalditik kezkatzen zuan beste arazoa: aurren jaiotzik ez eragoztearen arazoa. Entzun bere itzak: "Gizadi osoarentzat bear aiña ogi sortzeko erak billatzea da, zuen eginkizuna; ez jaio-bearrei artifizialki jaiotzarako bidea eragozteko moduak erakutsi ta zabalduaz, bizi aal izatea eskatzen dutenen kopurua laburtzea; ori, arrazoiaren aurka jokatzeta bait litzake. "Votre tâche est de faire en sorte que le pain soit suffisamment abondant à la table de l'humanité; et non pas de favoriser un contrôle artificiel des naissances, qui serait irrationnel, en vue de diminuer le nombre des convives au banquet de la vie".

1966. Epaillean Angli-Elizaren Lenen-Gotzai dan Kanterburi'ko Goigotzaiarekin alkarrizketa sendikorra.

Anaiarteko besarkada batek itxi zuan Jerusalem'en, era maitetsuan Atenagoras Patriarkaren eta Paul Aitasantuaren solasa.

Beste besarkada berdin batek eman zion beste oraingo alkarrizketa oni ere amaia. Eliz bereizien kezka bere biotzaren gune-gunean eraman zuala VI Paul Aitasantuak!

Kanterbury'ko Goigotzaiaz ari geran ezkeru, ikus dezagun nola dabillen gaur-egun bere Anglikan-Eliza.

I Elisabet'ek erabateko itxura eman zionez gero, Eliz onek, bedi errege bedi erregin, Inghlanderriko Bakalduna du Buru Nagusi, eta Kanterbury'ko Goigotzai erlijio utsezko gaietan zuzendari; Jerarkia eta liturgia Eliza Katolikoarenak ditu; sinispidea alare ez du punttu batzuetan gurea bezalako, ezta, apaizgintzako Sakramentuari dagokion punttuan adibidez, aski mugatua ere.

Berezkoa duan naasketa orrek zatiketa aundiak eta ugariak jasanarazi dizkio edestia-zear Anglikan-Elizari. Aundiena eta ezagunena, metodistena, XVIII mendean. Eta oraintxe bertan ere berekin darama zatiketa berrien arriskua.

56.600.000 biztanle dituan Jaurerri Alkartu osoan, 30 milloi dira geienaz anglitarrak; eta beste orrenbeste baiño geixeago mundua-zear. Guztira, 61.400.000 elizkide. Ez noski danak kristau biziera sendoegikoak; "Church Times"ek dioskunez, 1984'ean %4'ek bakarrik bete bait zituzten elizaren, mezari-ta-buruzko aginduak. Eta era berean dabiltza beste protestalariak an, eta baita gure katolikoak ere.

1987'an, Inghlanderrrian bertan, 16 urtefik gorako biztanleetan, %10

katolikoak ziran, eta %20 Eskozi'n; baiña %4 bakarrik joaten ziran igandero elizara Inghlanderrian eta %2 Eskozi'n.

Gales'ko Errialdean %5 dira anglitarrak eta ia beste orrenbeste katolikoak: %4'7. Gales'ko beste biztanleak, protestalariak dira: metodistak eta abar. Ipar-Irlanda'n, naiz protestalariak %60 izan, Katolikoa da Elizarik jendetsuena, %33; protestalariak oso puskaturik bait daude.

Gaiñera, inmigrazioak ekarriak, badira Jaurerri Alkartuan 1.000.000 musulman, 175.000 sikh, 140.000 indu, eta eundaka erlijio talde eta taldetxo txiki.

Badira 11.000 judutar ere.

Erljioarentzat, erlijio ororentzat, arriskurik aundiena Jaurerri Alkartuan, fedearen galera dugu. Izugarrizko arriskua. Ikus zenbaki batzuk:

Mende onen asieran, Eskozi'n 15 urtetik gorako jendeek, %45'ek Metodisten Elizaren elizkide aitortu zuten beren burua; 1986'ean, %23'k. Inghlanderrian, mendearen asieran, Anglikan-Elizakoak zirala erantzun zuten %9'5'ek; %4'6'ek bakarrik ordea 1986'ean: 27.600.000.

Ia jendearen erdia galdu dute beraz metodistek Eskozi'n eta erdia baiño geiago anglitarrak Inghlanderrian. Berdin datoz beera beste protestalari talde auendienak ere. Eta ez gabiltz obeto katolikook elizetara urbiltzen diranei-buruzko estadistika aipatu-berria oroitzen ba'dugu. Gaiñera... "ceux qui sont membres encore d'une Église deviennent plus libéraux, surtout en ce qui concerne des sujets comme la contraception" (Clévenot).

Euskeraz: "Elizkideak, --baita katolikoak ere-- gero ta liberalago, ots, oitura iareen zaleago biurtzen ari dira, baitipat aur-sorketa-eragozgailluei dagokien arazoan.



Dagonillaren 24'ean, VI Paul'ek, "motu proprio" edo "bere eragin bakarrez" idatzitako gutun bat eman zigun argitara. "Ecclesiae Sanctae" darama gutun onek izen. Bertan

- Gotzaiei elizbarruti bakoitzean Apaizen Kontzeju bat eratzeko agintzen die;

- Erljiosoei, aalmen-damaie beren Anaidietako erakundeak gaur-eguneratu aal ditzaten;

- Mixioetako mixiolariez, --24 mixiolariez--, osotutako Bazkun bat eratzen du. Bazkide oiek Aitasantu bakarraren esanera egongo dira. Beraz, "Propaganda Fide"ren gaindik ipintzen digu mixiotarako erakunde berri ori.

Bazan auxe, itxuraz, sorketa kiikagarria, baiña urte batzuk igaro dira arrezkero-ta, ez dirudi, ekintzen maillan, ezer askotarako balio izan duanik.

Sei illabete geroago, iraillaren 19'an eman zigun bere bigarren

entziklika: "Christi Matri" edo "Kristoren Amari"-buruz idatzia. Pakea du, Bietnam'go pakea bereiziki, idazki orrek, gai nagusia. Leen ere, bidalia zion Paul VI'ak (1965-XII-31) Ho-Chi-Minh Ipar-Bietnam'eko Lendakari komunistari gutun bat, pakea len-bait-len edatzearen alde arren eta arren egiaz eskari.



Gauza argia zan, VI Paul'ek azkeneko entziklika au idatzi zuanean, Bietnam'en komunistek guda irabaziko zutela. Ez noski, jendeak uste izan duan bezala, Errusi'k eta Txina'k izkilluz lagundu zielako. Komunisten garaizaren oiñarria ez dira, an, izkilluak izan; Egoaldeko bietnandarrek izkillu-laguntza geiago izan zuten iparraldekoek baiño. Iparraldeko aien garaizaren oiñarri bereizia, ideologi edo gogoeta komunista izan da. Ez Marx'ena, Lenin'ena baizik.

Gogabide orren araura, ederki asmatu dute komunistek, beren onturrerako bietnamdarren abertzaletasunez baliatzen, --demokrazizaleek asmatu ez duten gauza--, eta orrela lortu dute azkenean gurenda betea.

Marx'ek, --eta Engels'ek-- gorrotogarri eta isekagarri etsi zituzten abertzaletasun eta nazionalismo guztiak. Gauza oiek, aientzat, kapitalismo zikiñaren emaitza ustelak besterik ez ziran. Nazio bereziak, errialde iareak, endak, laterriak, ango-eta-emengo kultura ta izaera ezberdiñak... Ori guzia, kapitalismoari dagokion infraestruktura edo azpi-eraketaren ondorio diran sentipen giza-lilluragarri batzuen sorta besterik ez duzu.

Munduan, egiazko "endak" eta izaera ezberdin egiazko bakarrak, kapitalismoa eta proletaritzza omen dira. Gaiñerako bereizkeri guztiak, txatxukeri utsak; eta kaltegarriak gaiñera!

Lenin izan zan abertzaletasunaren indarraz komunisten artean aurrena jabetu zana, eta, abertzaletasuna bizirik zegoan errietan eta beren nortasunaz arro zeuden nazioetan, abertzaletasuna ta nazionalismoa beregin bearrean aurkitzen dala naitanaiez komunismoa, erakutsi zuan; eta sentimentu bi oiek komunismoaren serbitzura jarri bear dituala Alderdi Komunistak eta bietaz baliatu, komunismoa garaille ateratzeko. Bein Komunismoa mundu osoan edatu ezker, etorriko omen da garaia sentimentu giza-zatigarri oiek ezerezteko.

Ederki egin zituzten mami Lenin'en gogoeta oiek Bietnam'go komunistek. Ikus Frantzi'ko Indotxina izandako lurralde aren edesti laburra:

1902. Urte ontan asten dira Indotxina'ko abertzaleak Frantzi'gandik askatasuna lortu naiean.

1920. Alderdi Komunistaren sorkuntza. Askatasunaren alde datorrela, oiu dagio Alderdi berriak jendeari. Eta jendeak, sinistu egingo dio.

1940. Japoindarrek artu dute indarrez Indotxina.

1941. Komunistak mendira doaz, basa-gudara, japoindarren aurka eta "Indotxina'ren askatasunaren alde". Jendeak sinistu egin zien. Ho-Chi-Minh zuten komunistek buruzagi.

1941. Japoindarrek askatasuna damaiote Indotxina'ri, eta Jaurlaritza iare bat ezartzen dute bertan, baiña jJapoin'en esaneral Jaurlaritza orren aurka eta "askatasunaren alde" gudan jarraituko dutela oles dagite komunistek. Eta sinistu egiten die jendeak. Gero ta aundiagoa ta zabalagoa da Ho-Chi-Minh'en itzala.

1945. Japoindarrek Indotxina'tik irten ziranean inglanderriarrak sartu ziran arâ, an, frantziarrak itzuli arte, erriko pakea zaintzeko. Komunistek, atzerritar guztien aurka eta "askatasunaren alde" jarraituko zutela, eman zuten aditzera. Eta, jakiña, sinistu egin zien jendeak.

1946. Frantzi'k, artzen du ontzat, Bietnam'go Errepublika, baiña, soilki, Frantzi'rekin Alkartutako Laterri lez eta Frantzi'ren kerizpean. Eraketa orren aurka jeikitzen dira komunistak, eta gogor asten da Indotxina'ko borroka erioagarria. Komunistek, ¿nola ez?, "askatasuna" dute ikurritz nagusia.

1954. Garaille da Ho-Chi-Minh Dien-Bien-Fu'n. Frantziarrek, al dutena gordetzearren, bi zati egiten dute Bietnam: Iparrekoa, (Tonkin eta Annam'en erdia), komunista; eta Egokoa (Kontxintxina ta Annam'en beste erdia), demokrazikoia, izenez iarea, baiñan izatez Frantzi'ren esanekoa. Komunistek, "Bietnam osoaren askatasuna" lortu arte ez zirala geldituko bir-eman zuten aditzera. Ordurarte, eta baita geroago ere, apika komunismorik aipatuko duten; "askatasuna" eta "abertzaletasuna" izango dira erabiliko dituzten itz sagaratu zorabioagarriak.

1962. Egoaldea larri dabil-da, asten da Iparramerika, aruntz "aolkulari militarrek" bidaltzen. Komunistek, mundu guziaren aurka egingo dutela "askatasunaren alde" borroka, oles dagite ozenki.

1964'az gero, zearo sarturik dago Bietnam'go guduan Laterri Alkartuen gudaroztea, eta ala jarraituko du 1975'a arte.

Izugarrizko borroka odoltsua izan zan ura. Komunistek beti, askatasunaren-aldeko agertuko dituzte beren buruak. Izugarrikeri pentsa-eziñak jasan bear izan zituzten Bietnam'go jende gaixoek egazkiñen bonbaketen erruz.

Egazkin aiek Iparramerikatarrek ziran. Iparramerika'ri ezartzen zioten komunistek erriaren min-oiñaze guztien errua: Amerika, Bietnam menderatzera zetorren; amerikatarrek, "kolonialistak" ziran, Erri txiki txiroetako jendeen zanpatzailleak, eta erri txiro oietako aberastasun urrien urrupatzailleak. Ho-Chi-Minh eta bere basa-gudari bietnamdarrak bakarrik ziran, Bietnam'go erriari pakea ta ondasuna zekarzkietenak, Bietnam'en pertsonalitatea, nortasuna, eraspengarri eginen zutenak, eta Bietnam'go Errepublikari askatasuna ta iaretasun osoa itzuliko zizkietenak.

Ta, jendeak, jenderik geienak beintzat, sinistu egin zien, komunisten

alde jarri ziran, edo, beintzat, ez zuten, komunisten aurka eta Saigon'go Jaurilaritza izurritsuaren eta Amerika arrotzaren alde borrokan asteko gurari geiegirik sentittu; ta, jakiña, garaille irten ziran komunistak!

Lenin'ek erakutsitako bide ortatik dabiltz gaur egun komunistak munduko errialderik geienetan, Euzkadi'n batez ere Euskadiko Ezkerra ta Herri Batasuna izenez Alderdi Komunista bat bakarra osotzen duten bi talde oien bitartez.



Ona emen, nola dauzkagun gaur gauzak Frantzi'rena izandako Indotxina'n:

- Bietnam (garai bateko Tomkin, Annam eta Kontxintxina) erri budista da berez. 58.600.000 biztanle ditu eta oraindik, (komunisten menpean gauzak ziur jakiterik ez bait dago), %55'3 budazaleak dirala dirudi; sinkretistak, %11'4; katolikoak, %7; animistak, %4'2; eta maometarrak, %1.

- Kanboya'n 7 milloi biztanleen artean budazaleak %88'4 ditugu; kristauak, %0'6 (erdiak katoliko, beste erdiak protestalari); animistak, %3; maometarrak, %2'4.

- Laos, (3.600.000 biztanle), budista dugu erdia baiño geixeago (%57'8). Asko dira animista edo erlijio zaarretako jentillak (%33'6); kristauak, %1'8, (katolikoak %0'8).

Iru Laterrietan badira beste erlijioen jarraileak ere, baiña kopuru txikiagokoak.

Iru Laterriak dira zakarki komunistak eta iruetan izan da erlijio oro zigortua, katolikotasuna bereiziki. Orregaitik, ez da arritzekoa jende asko jainkogabe lez agertzea inkestalarien aurrean: %3'8 Kanboya'n, %4'8 Laos'en, eta %18'5 Bietnam'en. Jainkogabe oiek geienek ordea itzez bakarrik ukatu dute sinispidea, ez biotzez.

Beste iñon baiño zakarragoa, Kanboya'n agertu da komunismoa. Kristauek ez ezê biztanle guztiek jasan bear izan dute an "Kemer Gorri"en menpean izugarrizko zigorraldia. Millaka ez baiña milloika izan dira an erailketak. Milloi bat? Bi milloi? Geiago oraindik? Ez da eskier erantzuteko biderik. Katolikoan artean bereiziki "les massacres des prêtres, religieux et fideles notamment se sont multipliés. Les cathédrales de Phnom Penh et de Battambang ont été rasées. L'Eglise du Cambodge est détruite". (Id.).

"Apaiz, praille, lekaime eta kristau utsen erailketak pilloka izan dira. Phnom Penh'go eta Battambang'o katedralak ezereztuak ditugu. Ezabatua gelditu da Kanboya'ko Eliza".

Frantzi'renak izan ez diran beste bi Indotxina'ko Laterrietan ere, ots, Tailandi'n eta Birmani'n aski latza gertatzen zaio gure Elizari bidea. Zergaitik?

Tailandi'n (%92'1 budistak, %1'1 kristauak, katolikoak %0'4 bakarrik),

jendeak Buda'rena ez dan erlijio oro atzerritar ikusten dualako eta Jaurilaritzak, bere erlijioa bezala budismoa gordetzen dualako, naiz beste erlijioei askatasun osoa laga.

Birmani'n ez. Komunista bait da Birmani. Ia oso-osoa (%87'2) budista dan Birmani'n ez da askatasunik. An, misiolariak erbestera jaurtiak izan dira. Alare, kristau jarraitzen dute len ere kristau ziranak; biztanleen arteko %5'6'ek. Birmani'ko kristau oietatik geienak protestalariak ditugu (%3'2). Katolikoak %0'9. Badira ortodoxiar batzuk ere.

Badu noski Elizak Indotxina osoan zer-egini aski!



1967. Orrillak 13. Aitasantua Fatima'ra doa. Zalaparta biurria sortu zuten erlijio-garbi-zaleek: siniskeri utsa omen da Fatima'n Andra Mari agertu zala sinistea; ez omen da beintzat, Andra Mari Fatima'n edo Lurdes'en agertu zalako ori Elizak Josukristo eta Apostoluegandik jasotako egi-sinisbearretako bat, ez omen da "revelatio publica" edo "Eliz osoari Jainkoak erakutsitako gauza", "revelatio privata" edo soilki "kristau bati edo kristau-sorta bati" erakutsitako gauza bakarrik omen da, zerbait izatekotan; Aitasantua berriz, aurreneko egi aietan, egi-sinisbearretan, omen da soilki gidari, maisu eta epaile; Aitasantuak, beste bigarren mota ortako egi edo egi-diralako oietan bere burua nastearekin, erriko jende ameskeri-zaleari siniskerirako bide ematen omen dio.

Esamesa oiei erantzun-emanaz onela idatzi zuan egun aietan Paris'tik "Le Monde" eguneroko ezagunak: (1967-V-11):

"Lo que se puede achacar de impuro, de contestable, y de supersticioso a las peregrinaciones es evidente, pero no debe servir para ocultar el resto, que es lo esencial" (Lesourd-Benjamin. Ureña'k gazteleratua). Egia. Elizak ez du iñor Fatima'n Andra Mari agertu zala sinistra beartzen; ez du, ere, ez-sinisterik agintzen: iare uzten dio auzi osoa bere seme bakoitzaren kristau-senari eta kristau-argiz-jantzitako sinisle bakoitzaren adimenari. Egia, Fatima'ganako eraspenean siniskeria sartu daitekela iñor oartzeke jende batzuen jardueran. Baiña egia baitare arras sendoturik itzultzen dala erromesen kristautasuna Fatima'ko larretik edo Lurdes'ko leize-zulotik.

Portugal'eko Lendakariak, Américo Thomaz Almiranteak, eman zion Aitasantuari ongietorria Lisboa'ko egazkin-landan.

"Portugal se hallaba todavía entonces bajo un régimen político dictatorial, y, a causa de ello, (Pablo VI) hubo de soportar por parte de algunos medios políticos del país protestas y censuras desagradables (...) Algunos protestantes también hacían a Pablo VI objeto de sus críticas, como las del pastor Richard-Morland por ejemplo, quien escribía en



"Reforme": ¿Cómo se puede contribuir a la emancipación de los pueblos, a su educación, a su acceso a la libertad, tanto moral y espiritual como económicamente, siendo así que se bendicen formas religiosas que mantienen a estos pueblos en un trágico subdesarrollo cultural"? (Id.)

Ez zuan noski artzai onek luzeegia ta zorrotzegia adimenaren argia; eta berak ematen digun iritzi ori ez da protestalari guzien aburua.

Portugaleraz erantzun zion Paul VI'ek Errepublikaren Lendakariari:

"É con a maior satisfação que pisamos o solo portugues. Desta abençoada (bedeinkatua) «Terra de Santa Maria» partiu no passado, para as regiões mais remotas do mundo una generosa pléiade de arantos (goldalariak) do Evangelho. Para ella (beraganuntz) conflui (dator) no presente, de toda a parte, (alde orotik), uma piadosa multidao de peregrinos (...) Nos também viemos (gatoz) como peregrino. É Nosso ardente desejo render homenagem filial à excelsa Mae de Deus, na Cova de Iria para suplicar a Nossa Senhora de Fátima que faça reinar na Igreja e no mundo o inestimável ben da paz".

Pakea atzera berriz! Pakea eta mundo osoa deuseztu dezakean guda berri bat sortu daitekealako kezka!

Ortaz mintzatu zitzairen Lisboa'n bertan Diplomazilarien Multzokoei, ots, "Corpus" edo Gorputzekoei, (O.N.U.-ko bere ikustaldi artan bezala John Kennedy "grand disparu" edo "il-berri aundiaren" itzak aitatuaz): "Gizadiak ez ba'du bein betirako gudarik ezerezten, gudak ezereztuko du gizadia".

Fatima'ko meza nagusian, an egon ziran Américo Thomaz Lendakaria, eta Oliveira Salazar Jaurlaritzako buruzagia. Bederatzi minutu egon zan gero au, Aitasantuarekin izketan bakarka. Era berean artu zuan Paul VI'ak solasalditxo bakarti baterako Agustín Muñoz Grandes Españi'ko Kapitan Jenerala, Errusi'ren aurka joandako "División Azul" aren buruzagi izana; eta baita Itali, Portugal eta Españi'ko Errege-sendiak ere.

Jende askori, ez zion orrek batere atsegiñik egin. Aitasantu batek ordea, iñori, beregana urbiltzerik ezin eragozil

Elizaren batasuna beti eraman zuan berekin biotzaren muin-muiñean VI Paul'ek. Ala, Fatima'tik ere mintzatu zitzairen, frantzeraz, ez-katolikoei: Izan ere, Andra Mari'ganako eraspina bait da gaur-egun kristauak bata bestearengandik geien bereizten dituan arazoa. Ona Aitasantuaren itzak:

"Dans l'état actuel des divisions chrétiennes, il ne vous est possible, Freres, de partager toutes nos convictions sur Marie. Mais néanmoins nous avons en commun ce modèle de foi et d'humilité, que nous devons traduire à notre tour dans nos propres vies au service du Seigneur. Et nous pouvons légitimement espérer, avec la grace du Seigneur que ce service commun nous rapprochera les uns des autres".

"Zuek, Anaiok, ezin duzute, oraingo zatiketa onen giroan, gure aburu

guztiak ontzat artuaz gurekin bat egin, Maria'ri dagozkionetan. Altagutziz, sinispenaren eta apaltasunaren eredu da bera, zuentzat eta guretzat, Jaunaren serbitzura gu guztion bizitzak eratzeko. Ezagun itxaropen, guztiok batera Jaunari dagoiun serbitzu orrek alkartuko gaitula danok".

Mezan izan zan Sor Luzia, neskatoa zala beste biekin batera Fatima'n Andra Mari ikusi zuten ume aietako bat. Aitasantuarekin luzaroago itzezin nai zuala jakiñarazi zion Aitasantu berari, eta onek erantzun: "Tamalez, astiroago zurekin itzegiteko betarik ez dut. Mintza zaitez zure gotzaiarekin. Berak esango dit neri, zuk berari esaten diozun guzia". "La decepción de Lucía fue grande" (L.c.).



1967. Ekaiñaren 25 eta 36'ean Turki'n izan genduan Paul VI'a Atenagoras Patriarkari, onek Jerusalem'era egin zion ikustaldia ordaintzera joana. Egazkinlandan, Atenagoras bera, Istanbul'eko Mufti edo maometarren Buruzagia, eta Sunay Jauna, Turki'ko Lendakaria, izan zituan ongietorri-emailleak.

Santa Sofia edo Jakintza Donearen Jauretxean, 1054'ean Unbert Kardenalak Mikel Patriarka eskomikatzen zuan bulda ain arinki utzi zuan aldere aren aurrean belaunikaturik, apalki egin zuan orain Aitasantuak otoitza.

Turki musulmanean, Santa Sofia museo bihurturik dago. El Fanal esaten zaiona da gaur Kostantinopla'ko Patriarkaren Jauretxe Nagusia. An ere otoitzean dugu berriro Aitasantua, Patriarkaren alboan oraingoan, biok batera "Gure Aita" esanaz. Onela amaitu zuan VI Paul'ek bere itzaldia: "Que le Seigneur nous accorde le sens vif de l'unique nécessaire auquel tout le rest doit être subordonné or sacrifié:.

Ederki esana. Asko dira, Sarkaldeko Eliza ta Sorkaldekoa bata bestearengandik bereizten dituzten gauza ta gauzatxoak. "Jaunak bemaigu, beraz, bearrezkoa dugun bakarraren oarmena, gaiñerako guzia orren azpitik ipiñi edo zearo baztertu dezagun", orrela bakarrik lortu bait dezake Elizak ain gogoko duan batasuna.

"C'est dans cette espérance qu'avec une charité sans feinte nous vous embrassons d'une sainte besoin". "Itxaropen orrek eraginda eta aizunik ez duan goi-maitasunak bultzata damaizut musu santuz nere besarkada".

Kostantinopla'ko Eliza baiño askoz leenago bereizi zan Erroma'tik Armeni'ko Eliza. Eliz onek badu Kostantinopla'n Patriarka bat, Armeni'ko Katholikos Nagusiaren esanera. Bi elizgizon garai oiek, auetxek genituan, Aitasantua Kostantinopla'n zebillen egun aietan: Vasken I'a, Katholikos Nagusia Armeni'n, eta Shorhk Kalustian, Kostantinopla'n Patriarka. Joan

zan au VI Paul'eri omen-egitea. Itz ederrak izan zituan Paul'ek ari erantzuterakoan, bai Katholikos Nagusiarentzat, bai Eliz zismakoi artako kristau xeentzat ere:

"Through Your Beatitude, We also salute all the faithful of the Armenian Church (...) We greet the venerable Supreme Catholicos of the Armenians Vasken the First (...) May God spread abundant blessings of peace and prosperity upon these faithful of whom His Holiness Vasken the First is the chief pastor".

Ez dira gutxi aldatu, epe laburrean, elizjendeen oldozkera eta jardunbideak! "Zismatiko" batzuei-buruz, Aitasantu batek orrela itzegin zezakeanik, ¿nork pentsa oraindik denbora asko ez dala? Ikus euskeraz VI Paul'en itzak: "Armenitar-Elizako kristau guztiei dagiet agur Zure Duintasunaren bitartez (...) Armenitarren Katolikos Nagusi onuragarriarentzat, Vasken Aurrenekoarentzat, nere diosala (...) Ixuri beza Jainkoak oparo, Santutasundun Vasken Aurrenekoa artzai nagusi duten kristau armenitarren gaiñera pakearen eta ontasun ooren iturri dan bedeinkapena".

Diosala egitera etorri zitzaion judutarren buruzagiari, frantzeraz itzegin zion, Istambul'ko "judutar-gizate osoari agur egiñaz" ("Nous saluons a toute la communauté juive"). "Gogo-aberastasun aundia omen dute alkarrena judutarrek eta kristauak": ("grand patrimoine spiritual commun"). "Guk bata-bestea obeto ezagutzea, izan omen zan Kontzilioaren gogo bizia; ortarako, alkarriketa anaikorra, eta Bibliaren azterketa zintzoa omen ditugu biderik egokienak". "Danok gurtzen dugun Abraan, Isaak eta Jakoba'ren Jainkoa, pakea opa digun Jainkoa da". "Nous implorons sur vous et sur nous l'abondance de sés bénédictions": "Aren onespen naroa dut eskatzen, zuentzako, eta guretzako".

Maitetsu erantzun zion baita're Mufti, edo Maometarren Zuzendari Nagusiari, aiek eta guk Jainko bat bera gurtzen dugula gogoraziaz: "Jainko bizia, betierekoa, onbera, guzielduna". "Jainko Bakarraren gurtzaille danok" omen gaude "Pakearen eta Zuzentasunaren alde saiatzera beartuak".

Smirna'n pakearen arazoa erabili zuan osteraz ezpaiñetan. Efeso'n, kristau guztien batasuna.

Gai ortaz, Sorkaldeko Eliz Katolikoetako Patriarkei mintzatu zitzaion aurrena, eta Patriarka Ortodoxiar Bereiziei gero. Auei, "beren irudidone, zirimoni, eta oitura egokientzako", Aitasantu lez, "begirune osoa" eskeiñi zien ("plein respect pour vos images et traditions legitimes").

"Goi-maitasunez egiaeren alkarriketa" ("le dialogue de la vérité dans la charité") aurrera eramateko "gerturik omen dago Eliza Katolikoa".

Izenondo edo "adjetibo" astun bat jaurti zuan Aitasantuak itzaldi ortan: "legitimes", "legezkoak", "lege-arauzkoak", ots, "kristau-legearen araura" zuzenak, garbiak, egokiak, egiazkoak diranak. Orixe da, ain zuzen, auzi

guztiaren gunea: Sarkaldetar-Sorkaldetarrak alkarrengandik bereziten dituzten siniskera, lege, oitura, eta usteetan, kristau legearen araura zuzenak eta gorde-bearrak zein diran jakitea! Ez noski eginkizun xamurra! Orrenbeste mendeen ondorean, bakoitza bere eraetara zaleturik eta loturik bait dago bai biotzez eta bai adimenez ere.

"Legitimae", edo "legezko" izenondo ori bera dagerkigu, berealaxe Atenagoras Patriarkari zuzendu zizkion itzetan ere: bearrezkoa omen da ba "legezkoak ditugun ezberdintasunak bizirik gordetzea: "legitimae maneant diversitates".

Zuzenki galde zetzaiokean Atenagoras'ek: gure Elizen arteko ezberdintasunetan ¿"legezko ezberdintasun oiek zeintzuek dira? Zeintzuek berriz legearen arauen aurkakoak?

Ori, noski, ez dezake Aitasantuak bat-batean erantzun; ori kristau danek alkarrizketa zintzo, sakon, leial, eta luze baten bitartez argitu bear duten gauza bait da. "Legezkoa" ta "egokia" al da adibidez, Eliz osoaren Buru dan Aitasantuak ezer jakin gabe, Sarkaldeko Eliz bereziekin beren gotzai ta patriarkak izendatzen jarraitzea?

Alatagutziz, pozik aipatzen zizkion VI Pau'ek Patriarkari azkenaldi auetan egindako aurrerapenak:

- Gure artean sortutako asarre eta ongi-nai-eza zaar guztien ondorean, antziñako eragozpenen gaindik, Jainkoagandiko doaiez, gure Elizek, berriro, Aizpa lez ezagutzen dute batak bestea". "Sed nunc, post diuturnas utrimque ortas dissensiones variasque voluntates, Dei beneficio nostrae Ecclesiae se iterum sorores agnoscant, nihil impediens difficultatibus superiore tempore inter nos ortis".

- "Egin da, beraz, Alkartze bat, naiz ez oraindik osoa, gure Elizen artean".

"Landu ta sakondu dezagun aldaketa ori". "... in vita Ecclesiarum nostrarum, communionem illam quae quamvis imperfecta iam viget, foveamus et efficiamus".

Ez ditu Aitasantuak azturik uzten protestalarien Elizak, kristau-talde, ta taldetxoak; "Kristau-maitasunez agurtzen dugu, baita're, gure anaia, Kanterburi'ko Goigotzaia, eta beste Eliz eta alkarteetako Artzaiak. "Avec charité chrétienne Nous saluons Notre frere Sa Grâce l'Archêveque de Canterbury et les Pasteurs des autres Églises et communautés ecclésiastiques".

Aitasantua Kostantinopla'h aurkitzen dan ezkerre, auxe dugu noski, XI mendean Erroma'tik bereizi zan Ortodoxia gure egunotan nola aurkitzen dan ikusteko garairik egokiena:

Kostantinopla'ko Patriarkadutzak 2.000.000 elizkide ditu; Antioki'koak, 450.000; Alesandri'koak 100.000; eta Jerusalem'goak 50.000.

ERRUSI'KO ELIZA-. "Autokephaloi" edo "beren-buruen-jabe" diran Elizetan aundiena Errusi'koa dugu, Kostantinopla'tik XV mendean bereizi zana. 1917'an 100.000.000 elizkide bazituan. Orain, komunistek eman dioten zigorraren ondorean, ez da errez zenbat dituan ziurki jakitea. 60 milloi ematen zaizkio, baiñan seguruaski askoz geiago ditu, komunistek kristauen zenbakiak gutxitu eta sinisgabeenak aunditu egiten bait dituzte.

Gaiñera, Errusi'n ere, beste Laterri komunista guztietan bezala, sinismenik ez dutela esaten duten guztiak ez dira sinismen-gabeak. Askok, bearbada sinismengabe oietatik geienek, ori, bizitzeko era egoki bat billatzearren esaten bait dute. Badakigu Gudarozte Gorriko eta Alderdi Komunista ber-bereko askok beren umeak isilik bataiatu egiten dituztela.

Gogorra da Sobietarren Alkartean zigorra. Gorbatoxof Jaurlaritzara igo zanean milloi bat baiño geiago ziran espetxeetan eta langogortegietan baituak. Oietatik ia erdiak (%45), jertlijioari dagozkion arrazoiengaitik baituak! Eta gaur egun ez dira oraindik zenbaki oiek aldatu.

1917'az gero, pentsa al daiteken guztia egin du an Jaurlaritzak Alderdi Komunistaren bitartez sinispide oro ezabatzeko: dirutza mardula, urtero, ta irrati-telebista-izparringi-ikastola eta beste zabalkunde-bide oro izan dira erabilliak gelditu gabe. Eta espetxea ta eriotza: "Des morts suspects de prêtres notamment, continuent à se produire" eta kristau-soillentzat ere "vivre pleinement sa foi revient à choisir un itinéraire difficile". (Id.) Euskeraz:

"Apaizen eriotz zalantzagarriak jarraitzen dute oraindik. Kristau-uts diranentzat ere, bide gogorrean oiñak ipintzea da sinismena leialki bizi nai izatea".

Atzerriko Laterrien aurrean bere burua geiago zakartu nai ez dualako, eta bere 278.000.000 biztanleetatik geienak katakunbeetara jautitzeak bildur ematen diolako, eta gogorkeriarekin diplomazizko erak ere nâsteak zitu geiago emango diola uste dualako, ez da Sobietarren Jaurlaritza erabat sinispide oro agirian galeraztera ausartzen.

Ala, Nikita Khrutxef agintari zala, 1980'garren urterako sinispen oro erabat ezabatuko zuan egitamu edo "plan" bat eratu zuan Jaurlaritzak. Zigorra erabiltzeari uko egin gabe, egitamu aren puntturik garrantzitsuenak, jauretxeak banan-banan isten joatea, eta poliki-poliki Eliza apaizik gabe uztea izan ziran; ontarako, Jaurlaritzak bere eskuetan bait dauzka seminarioak.

Bide ortatik joaz, 1960'ean 20.000 Jauretxe zituan Errusi'ko Elizari, gaur 7.000 bakarrik utzi dizkio; eta, gero ta geiago iltzen ari diran apaiz zarren tokia betetzeko gero ta gazte gutxiagori irikitzen dizkie seminarioetako atek.

Ez dio ajolik. Altaguztiz, "Depuis quelque années, la religiosité, (...) sans qu'elle ait droit de cité à proprement parler, (...) imprègne de plus en plus la vie culturelle de façon protéiforme". (Id.) "Urte batzuk ezkeror,

erlijiotasuna, agirian agertzeko ia eskubiderik gabe, bai noski, baiñan gero ta geiago ari da bere mamiz kulturazko bizitza moldatzen".

Elizik gabe gelditzen diran tokietan, izkutuan egiten dituzte edozein estalpeaz baliaturik, kristauek, beren elizkizunak. Jerarki Ortodoxiarra Jaurlaritza Gorriaren menpera makurturik dagoala uste dualako, jende asko urrundu da berarengandik; eta, Jaurlaritzak seminarioetara jenderik joaten uzten ez dualako, eta Jerarkiak ori ontzat artu duala dirudialako, ez Jaurlaritzak eta Jerarkiak jakin gabe "isillean elizgizon eginda besteak bezala bizitzen jarraitzeko oitura asko zabaldu da".

Eta "l'intelighentsia semble s'étré baptisée en masse ces dernières années"; "Dirudianez jakintsuak pilloka bataiatu zaizkigu azkeneko urte auetan". (Id.). Ez al da au, gauza arrigarria?

**ERRUMANI'KO ELIZA.**- 1866'ean bereizi zan Eliz auu Kostantinopla'tik; Errumani'ko Jaurerria sortu zan urtean bertan. Ogei urte geroago on-ezagutu zuan Kostantinopla'ko Patriarka'k Errumani'ko Eliz berria, eta 1925'ean izan zan Patriarka-tituloz jantzia. Bukarest'eko Goigotzaia.

Gaur Eliz onek 14.000.000 elizkide ditu.

**SERBI'KO ELIZA.**- XIX mendean lortu zuan Turki'arengandik bere askatasuna Serbi'ko Jaurerriak, eta laister Serbi'ko Elizak ere berea Kostantinopla'ko Patriarkarengandik (1879).

8.000.000 elizkide ditu; eta 1920'az gero Patriarka du goi-izen bere buruzagi dan Belgrado'ko Goigotzaiak. Naiko lan badu bere osotasuna gordetzen, Yugoslabi'ren altzoan errepublika "iare" diran Bosna-Gora edo Mendi Beltz edo Montenegro'ko ta Mazedoni'ko Elizek beren burujabetza eskatzen bait dute.

Berekin du gaitz ori Eliz ortodoxiarrak. Kostantinopla Erroma'gandik bereizi zan ezker, lurralde batek askatasuna lortzen duan bezain laister, arrazoi beragaitik lurralde artako Elizak ere Kostantinopla'tik bereizita askatasuna eskatzen, eta lortzen, bait du.

Ez al zaie ori bera gertatzen protestalariei ere? Bereizi ziran Erroma'gandik. Zatitu zuten Eliza. Milla zatitan ari dira arrezkero beraiek ere zatitzen. "Tu es Petrus"! "Zu zera arkaitza"! Erroma'ko Aitasantua dala batasunaren oiñarri!!!

**GREZI'KO ELIZA.**- 7.500.000 elizkide ditu. 1830'ean lortu zuan Grezi'k askatasuna. Berealaxe, Grezi'ko gotzaiak, 1933'an, batzar batean bilduta bereizi zuten Kostantinopla'gandik Grezi'ko Eliza. 1850'ean on-ezagutu zuan Kostantinopla'ko Patriarkak Grezi'ko Elizaren "autokefalia", eta 1864'ean, Laterriaren Eliz izendatu zuan Eliz ori Grezi'ko Jaurlaritzak.

Grezi'ko Elizaren barruan erdi-iaie dira iparrean Greziar-Mazedoni'ko Eliza eta egoaldean Kreta ugartekoa, naiz azkeneko au Kostantinopla'ko Patriarkadutzari lotuagoa izan.

Ez du Grezi'ko Elizak Patriarkarik. Bere buruzagitza Sinodoagan datza. Atenas'ko Goigotzaia ez da Sinodoaren Lendakari besterik.

Erakunde orrek següruaski protestalarien Eliz eta Sektaen izaera ekarriko dizu gogora. Ez zabiltz oker. Grezi'ko Eliz Ortodoxiarraren oifarrilegea edatzean esku aundia izan bait zuten Alemani'tik etorritako irakasle protestalariak.

**BULGARI'KO ELIZA.**- Au ere beste Balkan-Laterrietako Elizak bezala, Eliz gaztea da Eliz larea lez. 1953'a arte ez zitzaion bere buruzagiari Patriarka-titulorik eman. 6.000.000 elizkide ditu.

Beste atal batean, Errusi'ko iraultzaz mintzatzerakoan, aipatu dugu Jeorji'ko Eliza. Zenbat elizkidez dagoan osoturik ez dakigu; 1917'an 2.500.000 ziran elizkide oiek.

**TXIPRE UGARTEKO ELIZA.**- Bertako Errepublikaren Lendakari izan dan Makarios Goigotzaiaren Eliza. 450.000 elizkide.

**TXEKOSLOBAKI'KO ELIZA.**- 350.000 ziran 1950'ean Eliz au osotzen zuten kristauak. Bere Goigotzai buruzagia Praga'n bizitzen da.

**POLONI'KO ELIZ ORTODOXIARRA.**- Bigarren Ludi-Guduaren ondorean Sobietar-Alkarteak Poloni'ren sortalde osoa arrapatu zualako, eta ango kristau sortaldetarrak, danak, Errusi'ko Eliz Ortodoxiarrara indarrez sarrazi zitualako, gaur ez ditu Poloni'n Eliz onek 350.000 elizkide besterik. Bartsobi'n bizi oi da bere Goigotzai buruzagia.

**ALBANI'KO ELIZA.**- Bere buruzagia, Tirana'ko Goigotzaia. Bere elizkideak 210.000 ziran 1944'an. Gaur..., jakiterik ez dago. Txina'koaren antzeko kultur-iraultza bat izan zuan bâ Albani'k 1966'ean, eta iraultza orrek legez-kanpo utzi bait zuan erlijio-usaiekoa izan daitekean orol Ez da arrezkero, erlijioari dagozkion gaiei-buruz Albani'tik albisterik etorri.

**SINAI-MENDIKO ELIZA.**- Mendi aren azpian dagoan Katalin Donearen Lekaidetxeko Lekaideeketa auen esanekoek osotzen duten Eliza. Munduko Elizik txikiena, --100'en bat elizkide--; alatagutziz, oso-osoan iarea eginkizun guztietarako. Bere buruzagia, Lekaidetxe artako Goigotzai-Abata.

Eliz "autokephaloi" oietaz gaiñera, badira Sortaldean burujabetza osoa ez duten Elizak. "Autonomoi" esan oi zaie gerkeraz Eliz oiei, eta gauza batzuetarako Eliz iare bateko Patriarkaren mendean dagoz:

**FINLANDI'KO ELIZ ORTODOXIARRA.**- 70.000 elizkide. Bere buruzagi garaia, Kostantinopla'ko Patriarka. Patriarka onen mendean dago goraxeago aipatu dugun Kreta Ugarteko Eliza ere.

**JAPOIN'GO ELIZ ORTODOXIARRA.**- 36.000 elizkide. Buruzagi nagusia, Mosku'ko Patriarka.

**KOREA'KO ELIZ ORTODOXIARRA.**- Iparramerika'ko ortodoxiarrekin alkarturik dago, naiz XIX mendearen azkenaldian Errusi'tiko mixiolariak sortua izan. Ez dakigu zenbat elizkide dituan. Ez asko.

**AFRIKA'KO ELIZ ORTODOXIARRA.**- Uganda'n Anglikan-Elizaren

altzotik jaioa, eta gaur Keni, Zaïre, eta Gana'ko lurretaraiño iritxi dana. Zenbat elizkidez osoturik dagoan ez dakigu. Alexandri'ko Patriarka artu du buruzagi nagusizat.

**TXINA'KO MIXIO ORTODOXIARRA.**- Orrela esan oi zaio Txina'ko ortodoxiarrek osotzen duten kristau-taldeari. Merezi du talde onen edestiak aipamen berezia.

Bere sortzailleak, aspaldi, 1686'ean, Errusi'tik Txina'ko Inperatorearen zaindari izateko etorri ziran kosak-endako zaldun gudariak izan ziran. Naiz Txina'ko emakumeekin ezkondu, gorde zuten gudari aiek beren sinispidea, eta gorde dute beren ondorengoek ere gaur-egunerarte. Mao'ren kultur-iraultzaz gero, ez dirudi 20.000 baiño geiago badirarik.

**AMERIKA'KO ELIZ ORTODOXIARRA.**- Polita da Eliz onen edestia ere. XVIII mendearen azkenaldean iritxi ziran Errusiarrek Alaska'ra eta Aleutiar-Ugarteetara. Aruntz joan ziran lekaide ortodoxiarrek ere. Aurreneko gauza, Ebangelioa eta Liturgi-Liburuak lurralde artako izkuntzara biurtzea eta elizkizun oro izkuntza artan egitea izan zan.

Errusi'ko Eliz ortodoxiarrak 1978'an egin zuan Santu, itzulpen orren egillea: San Inozentzio Veniaminof, eta lentxeago, 1970'ean, lekaide mixiolari aien zuzendari nagusia: San Kerman.

Europa'tik Ameriketara jendea joaten asi zanean, Alaska'ko gotzaiaren mendeko egiten ziran aruntz iritxitako ortodoxiar guztiak; ortodoxiaren arauetako bat bait da "territorialitatea", ots, "lur-eskubidea": "Lurra norena, arena lurreko jendea": Lurralde batean Eliz ortodoxiar bat ezarria ba'dago, Eliz artakoa izan bear du lur artara iristen dan ortodoxiar oro, naiz ordura-arte beste Eliz ortodoxiar batekoa izan.

Orrela, ia-ia gaur arte, Alaska'ko Gotzaiaren aalmen edo jurisdikzioa Alaska'tik Mexiko'ra Iparramerika guzira zabaltzen zan. Eginkizun ori obeto betetzearren, Yorke Berrira aldatu zan bizitzera 1905'ean gotzaia.

1917'an Tikon zan Iparramerika'ko Gotzai. Urte ortan bildu zan Mosku'n Patriarka aukeratzeko Errusiar-Elizaren Kontzilioa. Lortu zuan Tikon'ek bera izatea Patriarka aukeratua. Eta Mosku'n gelditu zan, jakiña.

Gero, Komunisten Iraultzaren aurreneko urteetako iskamillen erruz, berezirik aurkitu zan Mosku'gandik Amerika'ko Elizbarrutia, 1923'a arte. Urte ontan iritxi zan Errusi'tik Gotzai berria, Msr. Platon, baiña onek, anitz puska eginda aurkitu zuan ordurate bat izandako Amerikar-Eliza; enda bakoitzeko jendeak bere jatorriko Elizara jo bait zuan. Gaur-egun, ia Eliz ortodoxiar guztiak badituzte Ameriketean beren elizbarrutiak, eta baita Kaltzedoni'aurreko beste Eliz zaar aiek ere.

Gaur-egun munduan ortodoxiar guztiak, --Kaltzedoni'aurreko Elizetako kristauak ere ortodoxiarren kopuruan sartuta--, 171.489.300 dira, eta mende onen amaieran 199.819.000 izango dira.

Sendorik gorde du ortodoxiak sinispidea eta bere oitura zarrei beti izan



dien maitasuna. Sortaldeko Eliz guztien ezaugarri jakinak ditugu elizkizun luze margotsuak, santuenganako eraspina, eta batez ere Andra Mari'ganako zaletasuna. Bizirik dirau beraien artean lekaidetzaruntzko joera, eta ugari dira lekaideak eta lekaimeak Eliz aietako kristauen artean. Apaizdia, alabaiña, ez dago bear bezala jakitez prestatua. Agian orregaitik, illik aurkitzen da gure anai aien artean mixiogintza.

Ez da beti orrela izan: Ikusi dugu nola eraman zuten Alaska'raiño kristautasuna Errusi'ko mixiolariak. Askoz leenago, kaldear nestoritarrek kristautu zuten Malabar'ko jendea ugari Indi'aren egoaldean, eta Txina berberaraiño eraman zuten Ebangelioa. XI mendean, Kostantinopla zismara jausi baiño len beraz, Indi'aren egoaldean sendo ezarririk zeukaten kaldeatarrek Eliza. VII menderako sartu ziran Tibet'en eta Txina'n. XIII'ean bazituzten Txipre ugartetik Mantxuri'ra eta Turkestan'dik Indi'a-zear Jaba ugarteraiño, 250 elizbarrutil

Gero, Txina'ko politikaren aldaketak, Tamerlan'en zigorketa gogorrek, eta maometarren erasoak, zearo ezereztu zuten, dirudianez oiñarri sendoegirik beifere izan ez zuan kristaudi zabal ura.

Sortaldeko mixiolari ortodoxiarrek izan dute Sarkaldeko mixiolari katolikoek orain arte izan ez duten doai bereizi bat: Eliza nun-naitar egiteko yayotasuna. Orregaitik, aurreneko gauza, edozertarako, tokian-tokiko izkuntza erabiltzea egiten zuten. Ori dalata ez dira ifion, sarkaldetarrok izan geran bezala, atzerritartzat artuak izan. Ezta Txina'n erdiaroko kaldeatar aiek ere. Erlijio utsezko arrazoiengaitik izan bait ziran aiek ezabatuak.

Garrantzi aundikoa izan zan 1968'an, Paul VI'ak dagonillaz Kolonbi'ra egin zuan ibillaldia.

22'an, Carlos Lleras Restrepo Errepublika artako Lendakariaren ongietorria entzun ondorean, eunen bat apaiz berri eta lau betirako-diakono sagaratu zituan; lau diakono auetatik bi, ezkonduak, lege berriaren araura.

23'an, nekazariei mintzatu zitzairen, txirotasunaz, jakina, Kolonbi'ko erri nekazari gaixoa, ludian txiroenetakoa bait da.

Jende doakabe aien egoera negargarria aipatuaz asten da Aitasantua: "oiñazea nere-egifiaz, zuen gidari izan bear dedalaren erantzukizuna nere biotzean sentittuaz, eta zuen zoriona eta gaizkapena billatu naiez".

- "Zuetako batzuk, bizitzak bizi-aal-izateko eskatzen duanaren azpitik bizi zeratela badakit". "Condiciones de miseria para muchos de vosotros y a veces inferiores a la exigencia normal de la vida humana".

- Inditarren egoera omen da bereiziki negargarria: "... las poblaciones nativas casi siempre abandonadas en un innoble nivel de vida y a veces tratadas y explotadas duramente".

Ta, ori esan ondorean, "salbapenezko teologiaren" bidetik sartzen zaigu bete betean Aitasantua:

- "Habeis tomado conciencia de vuestras necesidades y de vuestros sufrimientos".

- "No podeis tolerar que estas condiciones deban perdurar siempre".
- "Nos seguiremos defendiendo vuestra causa".
- "Seguiremos denunciando las injustas desigualdades".
- "Seguiremos patrocinando la causa de los Países necesitados".

Baiñan, ekintza guztietarako, muga bat ipintzen die zuzentasunaren alde lan-egin-zale guztiei: odolkerizko indarkeria; eta muga ortaraiño ez eltzeko eskatzen die: "Permitid finalmente que os exhortemos a no poner vuestra confianza en la violencia ni en la revolución; tal actitud es contraria al espíritu cristiano y puede también retardar y no favorecer la elevación social a la que aspiráis".

Gai berdiñak erabilliko ditu, Landazuri Lima'ko Kardenal Goigotzaiaren zuzendaritzapean bildutako II Latinamerikatar-Gotzaien Batzar Nagusia irikitzerakoan, eta baita Batzar aren ostean ere.

Batzarrean bildutako gotzaiet, Iberoamerika'ko jende landerraren egoeraz mintzatu zitzairen:

- "La Iglesia se encuentra hoy en presencia de la vocación a la pobreza de Cristo".

- "Hay que aplicar los documentos que exponen la doctrina social de la Iglesia".

- "Señalamos particularmente como objetos de vuestra sabiduría y de vuestro amor, a los jóvenes, a los estudiantes, a los trabajadores, tanto rurales como a los del comercio y de la industria".

"Humanae Vitae" entziklika dakarkie gero gogora, eta entziklika artan esan zuana esatea gauza erreza ez zitzaiola izan, aitortzen die apalki:

"En la encíclica Humanae Vitae dijimos palabras muy fuertes en defensa de la honestidad, del amor y de la dignidad del matrimonio. Comprended la importancia de la delicada y difícil situación que en honor de la ley de Dios creímos nuestro deber reafirmar".

Batzar-ostean, indarkeria izan zuan berrito izketaren gai bereizia:

"Muchos, especialmente entre los jóvenes, insisten en la necesidad de cambiar urgentemente las estructuras sociales que, según ellos, no consentirían la consecución de unas efectivas condiciones de justicia para los individuos y las comunidades; y algunos concluyen que el problema esencial de América Latina no puede ser resuelto sino con la violencia".

"Con la misma lealtad con la cual reconocemos que tales teorías y prácticas encuentran frecuentemente su última motivación en nobles impulsos de justicia y solidaridad debemos decir y confesar que la violencia no es evangélica ni cristiana; y que los cambios bruscos o violentos de las estructuras serían falaces, ineficaces en sí mismos y no conformes ciertamente a la dignidad del pueblo, la cual reclama que las transformaciones necesarias se realicen desde dentro, es decir mediante una conveniente toma de conciencia, una adecuada preparación y una

efektiva participación de todos, que la ignorancia y las condiciones de vida, a veces infrahumanas, impide hoy que sea asegurada".

¿Zer egin, beraz?

- "Bat-batean ez baiña maillaka aldatu gizarteko baldintza okerrak".

- "Gizakumeak bezala bizi aal izateko erak eskuratu jendeari, orren bearrean bait daude biztanle geienak Latin-Amerika'n: "la gran mayoría". Jende gaixo aiei "beren duintasunaren ezaguera biurtu "la conciencia de la dignidad propia"; eta, beren bearbizun eta eskubideen ezaguera bir-eman, "ekonomiaren, gizarte-bizitzaren eta gogo-bizitzaren aurrerapena bultzatzeko gai izatera iritxi daitezten": "Ser un elemento válido del progreso económico, cívico y moral de la sociedad".

- Ori lortu gabe, "bat-bateko gizarte-baldintzen aldaketa, amets utsezko eginkizuna izango omen litzake, iraunpenik gabea, eta arriskugarria gaiñera": "un artificio vano, efímero, y peligroso".

Beti bezala, izan zuan kristau bereizientzat eta juduentzat ere zer esanik aski. Aurrenekoei, kristauen bateratzea ez dala "gizonek egindako lana izango, Gogo Deunak egiña baizik", oroitarazi zien. Bestei berriz, judutarrei, konbertsiorik aipatzeko, Isaias oiñarriztat artura, "lagun bezagu Jainkoa, --esan zien--, danok zeru eta lur berrian (en el cielo nuevo y sobre una nueva tierra) Bere Aintzaren erdikide izatera iritxi gaitezen".

Ikus dezagun nola dagoan kristautasuna Kolonbi'n, ori naikoa izango bait dugu Iberamerika'ko beste Laterrietan nola dagoan jakiteko.

30.000.000 biztanle ditu Kolonbi'k; ia danak, izenez beintzat, katolikoak. Izenez..., eta baita gogoz ere, naiz jende gaixo errukarri aien katolikotasuna oso garbia izan ez.

Protestalariak %1 dira; eta oso gutxi, %0'2, maometarrak; eta gutxiago budazale, eta beste asiar-sinispideetako jendeak.

Iberamerika'ko katolikotasunaren akatsik aundiena, katolikoek beren katolikotasuna ez ondo ezagutzea da. Ezjakiñak dira sinispenari dagozkion gauzetan.

Orregaitik, naiz Kolonbi'n agian beste Laterrietan aiña ez, katolikoen erlijioa oso erlijio naasia da; beste siniskera batzuekin naasia. Betikoa du akats ori Iberamerika'ko jendearen kristautasunak; lenen orduko mixiolari aiek ere bear aiñako prestaketarik gabe bataiatu bait zituzten inditarrak.

"Dans toute l'Amérique Latine, la double affiliation est courante: si l'adhésion au catholicisme est générale, elle n'empêche pas la pratique d'une autre religion, évangélique, charismatique, spirite ou syncrétique, et la diversité et vivacité des Églises indépendantes".

Euskeraz:

"Latin-Amerika osoan oiturazko gauza dute bi erlijioz baliatzea. Izenez

eta gogoz katolikoak izateak ez die beste siniskera baten erak erabiltzerik eragozten: protestalari "ebangelizazale" eta "karismazaleenak" adibidez, ezta "ispiritist" edo "illen-gogo-zaleenak"; eta "sinkretista" edo "erlijio-naasi-zaleenak" ere. Era berean, --jende aien katolikotasunak-- ez du eragozi eliz iareen ugaritasunik, eta berauen bizkortasunik".

Sinispena bizi-era bereizi baten eragille dan aldetik, Iberamerika'ko katolikotasunaren orbanik zakarrena, lurralde aietako inditar, nekazari, ta urietako jende xearen txirotasun ikaragarria da. Izugarritzko erantzun-bearra dute, ortan, Laterri aietako gotzaidiek.

Erriarengandik urruti bizi izan dira. Ez dute erriaren arazorik ulertu, eta jakifia, ez dute erriaren eskubiderik bear bezala babestu.

Baiñan errua ez da gotzai aiena bakarrik, Eliz osoarena da, ez bait ditu Elizak gotzai aiek beren eginkizuna betetzera beartu.

Badu Elizak zertaz barkapenik eskatu!!!

Baiñan, orrela badare, ez dezagun aantzi, gaurko begiekin atzoko gertakizunak ikusterik ez zaigula zillegi!

Gaur-egun gaiñera, zorionez, asko aldatu bait da giroa! Kolonbi'n ain zuzen, Medellin'go Batzarrean (1968) asi zan, eta Mexiko'ko Puebla'koan bizkortu (1974) giro berri ori; eta giro orren adiontasunean erne zitzaigun, -- orain arte naitanaiez ukan bear izan dituan akatsetaz bere burua garbituz gero-- Elizari eta Iberamerika'ko jendeari on aundia egin bear dien "Askapen-Teologia".

1969'garren urtean, O.I.T. ots, Organisation Internationale du Travail edo Nazioarteko Lan-Erakundearen sorkuntza ospatu zan Jinebra'n. An izan zitzaigun Aitasantua, ekaifia 10'ean. Arrera egoki baten egilleak, Suizi'ko Lendakaria, Ludwig von Moos, eta O.I.T.-ko Zuzendaria, David Morse, izan zituan.

Bere itzaldian, langilleak olaetako ariketa osoan diru-jartzailleekin erdikide izan bear dutela gogoratu zien O.I.T.-tarrei:

"il vous faut maintenant prendre les moyens d'assurer la participation organique de tous les travailleurs, non seulement aux fruits de leur travail, mais encore aux responsabilités économiques et sociales dont dépend leur avenir et celui de leur enfants". Euskeraz:

"Beraien eta beraien umeen etorkizunaren oiñarri diran ekonomiari ta gizarteari buruzko arazoetan erdikide izan bear dute langilleak, eta, ez, egiten duten lanaren emaitzetan bakarrik; ori lortzeko erak edatzea da orain dagokizuen eginkizuna".

Itz oiek esan aurretik, mintzaldiaren asieran, XIX mendeko lenen gizartiztilariak gorai patu zituan, Suizi bertako Mermillod Gotzaia, Friburg'eko Unibersitatea, Daniel Grand olagizon protestalaria, eta Gaspar Decartins

gizartezale katolikoa ta langintzari-buruz Nazio-arteko Erakunde baten azireillea, adibidez.

Azkenean, politikaren mundura zuzendu zituan begiak: "Munduaren eraketa egoki antoletzen saiatzeko, erri guztiek dituzte eskubide berdiñak. Saia zaitezte bâ zuek emen, erri guztientzat, erri txiroentzat batez ere, eskubide oiek lortzeko, zuzenki lanean".

Baitare, pozik gogoratu zuan O.I.T.-ren lenen-zuzendariak XIII Leon'en "Rerum Novarum" entziklikari egindako goratarrea.

"Conseil Oecumenique des Églises" edo "Elizen Bazkun Ekumenikoiak" Jinebra'n du bere egoitza nagusia. Arâ joan zan ezpairik gabe VI Paul, eta bera izan zitzaigun, etxe artan oiña jartzen, aurreneko Aitasantua.

Ongietorria ematerakoan onela mintzatu zitzaion Eujenio Carson Blake, Erakunde artako Idazkari Orokorra: "Kinka larria, gaur-egun gure Elizek bizi bear dutena. Gogo Deunagan datza ezarria gure itxaropen guzia, eta Gogo Deunak ez gaitu laguntzeke azturik utziko".

Erantzutekoan, bera Kepa, "Pierre", zala esan bait zien Aitasantuak, arriturik so egin omen zion entzuleen arteko batek baiño geiagok. Ona berak esan zituan bezala, frantzeraz, VI Paul'en itzak:

"Chers frères dans le Christ. Nous voici donc parmi vous. Notre nom est PIERRE. Et l'Écriture nous dit quel sens le Christ a voulu attribuer à ce nom, quels devoirs il Nous impose". "Ona bâ ni emen, zuen artean. KEPA duzute nere izena. Kristo'k, izen oni, zer zentzu eman nai izan zion, eta, izen onek, neri nolako eginkizunak ezartzen dizkidan, Idazti Doneak erakusten dizkigun gauzak dira".

Anaiak senide artean bezala jarraitu zuan izketan:

- Bataiatu guztiak senide dira. Senidetasun ortan dauzkagu oiñarrituak zuen Erakunde au eta Eliza Katolikoa bera.

- Bada alkartasun bizi bat oraintxe bertan kristau guztion artean, baiña ez osoa oraindik: "communio imperfecta".

- Gogo Deunak garamazki, ordea, kristau guztiok Kristo'k bere Elizarentzat gura duan alkartasun osora: "que le Christ veut pour son Église".

(Orra or koxka legunkaitza: dogma edo fedezko egietaz landa, Kristo'k bere Elizarentzat nai duan batasun orren mugak non asi eta non amaitzen ote dira? Ez zuan gai ori Aitasantuak Jinebra'n ukitu).

- Gauza pozgarria danontzat: 1965'ean Bea Kardenala etxe ontara iritxi zanez gero, eskuz-esku diardute alkarrekin lanean Eliza Katolikoak eta zuen Erakunde onek.

(Lankidetasun ori aipatzean, naitanaiez oartu bear zuan Aitasantuak

entzule guztien baitan galde bat ernetzen ari zala: Gure lankide izatea gauza atsegiña ba'da, zergaitik ez da Eliza Katolikoa Erakunde ontara sartzen? Ta galde ori erantzun egokia eman naiean onela jarraitu zuan VI Paul'ek):

- "A cause de cette collaboration croissante en de si nombreux domaines d'intérêt commun, on pose parfois la question: l'Église Catholique doit elle devenir membre du Conseil Oecumenique? Que pourrions Nous, en ce-moment, répondre à cette question? En toute franchise fraternelle, Nous, ne considérons pas que la question de la participation de l'Église Catholique au Conseil Oecuménique soit mure au point que l'on puisse ou doive donner une réponse positive. La question reste encore dans le domaine de l'hypothèse. Elle comporte de graves implications theologiques et pastorales; elle exige par conséquent des études approfondies et engage dans un cheminement dont l'honnêteté oblige a reconaitre qu'il pourrait être long et difficile. Mais cela ne Nous empêche pas de vous assurer que Nous regardons vers vous avec grand respect et profonde affection. La volonté que Nous anime et le principe qui Nous dirige seront toujours la poursuite pleine d'espérance et de réalisme pastoral de l'unité voulue par le Christ".

Osorik eman dut Aitasantuaren aapaldi luze au, garrantzi aundikoa dala bait derizkiot. Ona bera, gure izkeran:

"Lankidetza ori dala-ta, maiz egin oi zaigu galde au: Sartu bear al du Eliza Katolikoak Ekumene-Bazkun ontara? Une ontan, galde orri, nik... zer erantzun? Senide-arteko egitasun osoz dasaizuet: Nere ustez, ez dago oraindik bear bezala eldurik sarrera orren arazoa; ezin izango diot bâ galde orri baiezko erantzunik eman. Uste baikorren maillan datza oraindik auzia. Teologiaren eta "artzaintzaren" arloetan ondorio larriak dakarzkian auzial eta azterketa sakonen bideruntz bultzatzen gaituana! Zuzentasunak bearturik aitortzen dizuet aski luzea ta zaila gerta lezaigukela bide ori, baiñan orrek ez dit eragozten zuek danok begirune aundiz, maitasun guztiz, artzen zaituztedala ziur aitortzea. Kristo'k nai izandako batasuna billatzen, itxaropenez eta artzaiari dagokion zintzotasunez, etenik gabe saiatuko naiz. Ori izango dut gurari indar-emaille eta elburu gidaria".

Ikusi duzunez, "Kristo'k nai izandako batasuna" aipatzen digu berriro itzaldi ortan Paul VI'ak.

Gero, Jinebra'ko udaletxean, Suizi'ren goratarrea egin zuan, Suizi'ko demokraziaren bedeinkaketa. Al nolako pozaz entzungo zituan Gregorio Montini Paul VI'aren aita demokrazizale sutsuak oraindik bizi izan balitz, bere semeak an esandako itz eder aiek!

Onesgarri omen da Suizi, errikide danei eta norbakoitzaren nortasunari, --erlijioari, edo politikari, legozkien ezberdintasunak kontuan artzeke--, danei, onezagutzen dien askatasunagaitik: "liberté démocratique reconnue aux citoyens, quelles que soient leurs opinions personnelles, religieuses ou politiques".

"Ori, --demokrazia--, Jainkoari eskerrak, erri aurreratu guztien oitura izatera iritxi omen da; ori, suizitarren artean, berriz, antziñatiko araua omen da, kostata lortua, bikainki babestua". "Ce qui est devenu peu à peu, grâce à Dieu, l'usage normal de tous les peuples civilisés, est chez vous une tradition ancienne, chèrement acquise, fièrement défendue". Eta, amaitzeko, Il Batikan-Kontzilioan ontzat arturik utzi duala Elizak demokrazia, jakinarazi zion munduari.

"Jainkoari eskerrak"!, "Grace à Dieu" edatu omen da demokrazia mundua-zear.

Euskaldunok suiziarrek baiño leenagotik ondo ezagutua ta maitatua izan dugun Erkalak, Demokraziak, ¿onespen aundiagorik, sagaraketa sendoagorik, jaso al dezake Elizaren aldetik?

Protestalariak sortu bait ziguten, eta Protestalariak bait ditugu, Ekumenegintzarako Jinebra'n lan dagian Bazkun orri ats ematen diotenak, esan ditzagun itz bi gure egunotako protestalaritzari-buruz:

449.852.300 ziran mundu guzian protestalariak 1986'garren urtean (67 milloi lutertarrak, 53 milloi kalbindarrak), eta 589.327.000 izango dira mende onen azkenean.

Ortaz, gaur-egun 120.000.000, (ia protestalaritzaren erdia), Luter'en eta Kalbiñ'en jarrailleek osotzen dute. Beste erdia, gaiñerako Eliz txiki eta eundaka talde eta taldetxoek osotua dugu. Aipa ditzagun, adibidez, metodistak (30 milloi); baptistak (32 milloi); adbentistak (5 milloi); eta ia 3 milloirekin Jeoba'ren Lekukuak, naiz auek, --ez Irutasunik ez Kristo Jainkoa danik sinisten ez dutelako--, egiatzko kristauak izan ez.

Sendo eta aski arin ari da protestalaritza "irugarren munduan" zabaltzen. Europa'n bertan ere ez du "artzaintzarako" bokazio faltarik. Alderantziz leku batzuetan, ala Alemani'n, geiegi ditu "artzai" izatea eskatzen diotenak, ez bait du eskari oiei erantzuteko bear aña ikastetxerik.

Oztopo-arri mardula izango zaio gure Elizari, protestalaritzaren irugarren munduko zabalkunde ori, arek bezala alderdi oietara mixiolari-taldeak ugari, misiolari sekularrak batez ere, len-bait-len bidaltzen ez ba'ditu. Edo ta toki bakoitzeko Elizarentzat toki artan bertan toki artan-bertako apostoluak sortzen ez ba'ditu.



1969. Uganda. Uztailaren 31'ean iritxi zan VI Paul Afrika'ren sortaldeko Errepublika artara eta an egon zan Dagonillaren 2'a arte.

Milton Obote Lendakariaren diosalari erantzun ondorean, gotzaiei itzegin zien. Gaia: Elizak, Afrika'n, afrikar egin bear duala bere burua. "Must

the Church be European, Latin, Oriental, or must she be Afrikan? The solution is rapid with two replies: First, your Church must be first of all catholic" (...) "We are not the Inventor of our faith; we are the custodians". Euskeraz: "Elizak ¿Europatarra izan bear al du? Ala Latindarra, Sortaldetarra edo Afrikatarra izan bear du? Azkar garbitu daiteken auzia, erantzun bikoitz baten bidez: Lendabizi, zuen Elizak, katolikoa izan bear du beste ororen gaindik. Sinispide onen asmatzailleak ez gera gu, soilki bere zaintzailleak gera".

Auziaren aurreneko puntua orrela argitu ondorean ikus nola garbitu zuan bigarrena:

"The expresion, that is, the language and mode of manifesting this one Faith may be manifold; hence it may be original, suited to the tongue and style, the character, the genius and the culture of the one who professes this one Faith. From this point of view a certain pluralism is not only legitimate, but desirable". Euskeraz:

"Aurkezpena, ots, Sinispen bakar au azaltzeko bideak eta izkerak, izan daitezke era askotakoak. Orregaitik izan daiteke tokian-tokikoa; erri bakoitzeko izkuntzari, jardunbideei, jite, izakera, eta kulturari dagokien bezalakoa, ain zuzen. Auziari alde ortatik so-egiti ezker, aniztasuna, soilki-legezkoa ez ezê, guragarria ere badugu".

Gogapen berdiñak erabilli zituan parlamentariei zuzendutako izketaldian ere. Ez zitezela, arren, europar biurtu, eskatu zien aurrena; eta gero, Eliza ez zetorrela Uganda europar egitera, azaldu nai izan zien: "Eliza ez dator mundu ontako ("temporal interests") onturreen billa"... "Ezta're, ez dator emen, bertako afrikar-kulturaren alde-on-gizakoiak-zapalduta, sarkalde-kultura esan oi zaion orren erak zuei arrezterta"; ("to impose the particular traits of so called western culture, at the expense of the good, human characteristics of African culture".

Afrika'ko errien askatasuna oroitzera, Erri bakoitzak askatasuna lortu nai izatea, gure aro onen adigarrietako bat dala esan zuan, XXIII Jon'ek munduari jakiñarazi zion lez. Jon XXIII'ak berriz, Jainkoak "denboren siñale" oien bidez itzegiten zigula esan oi zuan.

Jarrai dezaigun VI Paul Aitasantuari: Indarkeria "gauzak adierazteko era bat, ots, gizakumeek "itzegiteko era" bat dala esan ondorean, onela jarraitu zuan: "Elizak, bere izaera beraren ondorioz eta indarkeririk-eza ebangelioaren erakuskizunetako bat dalako, ez dezake izketa-modu ori iñoiz erabilli", "The Church, by her very nature, by her evangelical principle of non-violence, cannot adopt this human language".

Indarrezko mintzaera orrek ordea bere sustraiak bai omen ditu, arras negargarriak askotan; eta baita bai omen ditu bere ondorioak ere, negargarriak eraberean. Aiek eta auek mintzen omen dute Elizaren biotza. Entzun: "She suffers inwardly because of the causes such language



supposes and the effects it engenders", "Barru-miña damaiote Elizari izkera orren ondorio ta sustraiek".

"Populorum Progressio" entziklika eta "Africae Terrarum" gutuna, (VI Paul berak 1967'ko Urrillean emandako gutuna) Elizaren egitarau bezala gogora ekarri ondoren, "Elizak beti txiroen alde ardura bereizia erabilliko duala" oles egin zuan.

Uganda'ko martiriak, batzuk katolikoak besteak protestalariak izan ziran. Bai aiek eta bai auek, badute beren jauretxe bereizia. Bietan izan zan VI Paul, eta martiri aien eriotzak Elizaren batasuna eskatzen digula, azaldu zien, bi jauretxeetara bildu zitzaizkion entzuleei.

Maometarrentzat ere izan zuan zer esanik: Gure bi sinispideetan bai omen ditugu aiek eta guk gauza berdin asko. Bionak ditugun gauza oiek, "egiazko senidetasunaz lotzen" omen gaituzte. Guk eta aiek bear omen dugu Jainkoagandiko barkapena, eta alkarrenganako gorrotoak aztu bearra.

"Egizute otoi, --esan zien--, barkapenaren grazia lortu eta gure artean adiskidetasuna berbiztu dezagun, Ebangelioak eta Koran Liburuak gomendatzen diguten bezala" (...) Pakezko Eguzki dizdiratsuak estali beza argi berriz, katolikoek, kristau guztiek, eta islamdarrek, bere odolez ain naroki margotu duten lur bikain au. Eta gaurko gure alkar-ikustatze auxe izan bedi, Islam'en Ordezkarri agurgarriok, Jainkoak bere aintzarako eta lur bedeinkatu onen onerako eskatzen digun pakea lortu aal izateko gure lenen urratsa".

Aro artan guda gorrian zebiltzan alkarren aurka Nijeri ta Biafra. Biek zituzten ordezkarriak Kampala Uganda'ko Uri Nagusian eta bien ordezkarriak izan ziran Aitasantuaren aurrean maitekiro artuak. Borrokalari ez zan jendearen zoria ta umeen eta gaixoen biziera baitipat nola goxatu ta legundu, izan zan aiekin VI Paul'ek jorratu zuan gaia.

Ederki erakutsiko digu Uganda'ren egoerak Afrika beltz osoaren egoera bereizia: Laterri aiek danak ia batera lortu bait ziguten askatasuna eta berdiñak bait dituzte gaur-egun arrisku, arazo, eta nekeak.

15 milloi biztanle ditu Uganda'ko Errepublikak; erdiak baiño geiago kristauak.

Kristauak geiengoa izate ori, gertatzen da Afrika'ko beste Laterri askotan ere. Ala, Gana'n %62'6 dira kristauak; Oraintxe arte Portugal'enak izandako Kabo Berde'n 98'9, eta Santo Tomé-Printzipe'n 91; Kamerun'en 55'5; Afrika'ren Erdialdeko Errepublika'n 84'5; Kongo'n 93; Zaire'n 94'5; Gabon'en 96'2; Ekuato-Ginea'n 88'8; Rwanda'n 73; Burundi'n 85; Etiopi'n 57; Malawi'n 57'2; Keni'n 73; Zanzi'n 72; Zimbawe'n 58; Angola'n 90; Botsuana'n 50'2; Lesoto'n 92'8; Namibi'n 96'3; Swatziandi'n 77; Madagaskar'en 51; Reunion Ugartean 96; Seixele ugarteetan 97'8.

la-ia erdia dira kristauak Tanzani'n (%44) eta Nijeri'n (49). Afrika'ko Laterri kristauak, katolikoak dira batzuk geiengoz, eta protestalariak beste batzuk; onela adibidez: Nijeri: (%12 katolikoak, 15'8 protestalariak eta 10 anglikandarrak). Egoafrikar-Errepublikan kristauak %79 dira: (Katolikoak %11'2). Etiopi'n, geienak, kopziarrak: %52'2. (Protestalariak 3'8 eta katolikoak 0'7).

Ez zaigu katolikooi erreza gertatuko Afrika'n misiokuntza. Iru eragozpen aundi aurkituko ditu an gure Elizak: errez zabaltzen dan islamkera, eta era miresgarrian Saara-Lekarotik ltxaropen Oneko muturreraifio era miresgarrian millaka sortzen ari zaizkigun "Afrikar-Eliz-Sinkretistak".

"Eliz" auek kristautasunetik eta afrikar-oitura zaarretatik jasotako gauzak naasten dituzte, eta arrakasta aundia lortzen dute erri ezjakiñaren artean. Kristauek Afrika'n egindako uts eta okerkerien erruen ondorio lez, ango jendeak bertako oiturei dien zaletasunatik sortuak dira "eliz" oiek danak. Misiolariak, luzaroan, beren aberrien kultura goratuaz eta beren Laterrietako Jaurleen babesean ari izan diralako, erbesteko gauza balitz bezala ikusi dute bâ afrikar askok kristautasuna.

Europa'tik Afrika'ra joan dan kristau orok erdi-abere bait liran so-egin oi dio ango jendeari, eta abereak bezala erabilli oi ditu lanerako. Ondorioz, atseginki artu du Afrika'ko jendeak maitasuna erakusten duan kristautasuna, baiña gorrotogarri irudituz zaio maitasun ororen zanpatzaille agertu zaion "europar-kristautasuna".

Afrika'ko jendeak zaletasun aundia die bere oitura ta gauzei: ildakoenganako eraspinari adibidez, bere endako izkuntzari, bere leiñu edo sendi zabalari, bere dantza eta sustrai guztiei. Elizak ez du jakin gauza oiek bere-egiten, Europarra izan da an Eliza. Europarra, kristautasuna. Erantzun lez, "Afrikar-Kristautasunaren" aldeko igikunde oiek sortu zaizkigu Afrika'n.

Urrengo urtean, 1970'ean Urrun-Sortaldera egin zigun Aitasantuak egaldi. Azaroaren 26'ean irten zan Erroma'tik, eta abenduaren 3'an itzuli. 50 minutuz egon zan Teheran'en Sha'rekin izketan; eta izan zuan, orduan Pakistan'ena zan Bangladex'ko Dacca'n, Yahia Kan Lendakariarekin itzegiteko betarik aski. Bazuan geldi-aldi ontarako arrazoi garratza; egun batzuk lentxeago, milloi bat gorpütz illik utzi zituan ekaitz batek zigortua bait zan lurralde ura.

Manila'n Ferdinand Marcos Lendakariak egin zion ongiatorria egazkinlandan.

Izan zuan, Aitasantuak, Manila'n, erailla izateko-edo arriskua ere. Beintzat, eskuan zapitxo batez estalitako aiztoa zuala, apaiz-jantzian

margolari kolonbiar subrealista bat urbildu zitzaion, eta gizakume arlote au gelditzerakoan, naiz sakonki ez, zauritua izan zan Kim Kardenala.

13 unibersitate zituan orduan Filipinetako Laterriak. 150.000 (eun da berrogeitamar milla) ikasle bildu zitzaizkion Aitasantuari, eta iru arazotaz mintzatu zan guzi alien aurrean:

- Nora zoazten da, aurren-aurrena ikasi bear duzuten gauza;
- Zuen ekintza guztien elburua, gizartearen serbitzua izan bear duzute.
- Jainkoagandiko egia da ororen azken-arrazoaia, galde guztien azken-erantzuna.

Asiar-Sortaldeko Errialdeetatik etorrita 200 gotzai zeuden ordurako Manila'n Laterri aietako Eliz-arazoak aztertzeko batzarturik. Elizak "Bat eta Katolikoa, eta, alaber, bere bizieran ezberdina", "One and Catholic, and yet different in its life", izan bear duala esan zien Paul VI'ak. Ortarako bearrezkoak zituala non-bertako apaizak, "asiar batek baiño obeki ez omen dezaieke bâ asiarrei iñork itzegin", "None better then an Asian can speak to en Asian".

Ferdinand Marcos, egiazko diktatorea zalarik, ez zan, Filipinetako Eliza, arekin ondoegi konpontzen. Urte bete lenago, uztaillaren 9'an, demokraziaren alde mintzatu ziran gotzaiak. Aiek orduan erabillitako itzak berak bir-erabilli zituan orain Aitasantuak, gotzaien jarduera sendotzeko: "Christianity and democracy have one basic principle in common: the respect for the dignity and value of the human person, the respect of these means which man requires to make himself fully human". Gure izkeran:

"Gogoeta bat bera dute oiñarri Kristautasunak eta Erkalak: gizakumearen duintasun eta balioaganako begirunea: gizakumeak gizatasun osora iristeko bearrezkoak dituan bide ta gauza guztientzako begirunea.

Asiar Laterrietako Nuntzioei berriz, batasunari-ta-aniztasunari-buruz onela jardun zitzaien: "Kristaudiaren erditik, (ots, Erroma'tik), etorriak zeratelako, zuek, Kristau-Mezuak berea duan katolikotasunaren, ots, toki-ororakotasunaren lekuko zerate.

Kepa'ren karisma edo doai bereizian erdikide ere bazeratelako, sinismen bat beraren batasuna eta azaltze-eraren-ezberdintasuna beste iñor gutxik bezala aurkezten duzute".

"Venendo dal centro della cristianità voi siete i testimoni della catholicità e della università del messaggio cristiano. Partecipando del carisma particolare di Petro voi rappresentate in maniera privilegiata le esigenze della unità nell'auspicata diversità delle espressioni della medesima fide".

Bi milloi kristauren aurrean Aitasantuak eman zuan Meza Nagusian, an ziran, aldarean, toki garaienean, jakiña, Ferdinand Marcos diktatorea eta Imelda bere emaztea, gaztetan Miss Filipinas izandako emakume trebea, Aitasantuaren etorreraz bere senarraren onturrerako baliatzen ederki saiatuko zana.

Irratiz asiar guztiei itzegiñaz onela mintzatu zan VI Paul:

"contemplating the past history of your nations, brethren, we are impressed most of all by the sense of spiritual values dominating the thoughts of your sages and the lives of your vast multitudes. The discipline of your ascetics, the deep religions of your peoples, your attachment to the family, your veneration of ancestors..., all of these point to the primacy of the spirit". Gure euskeran:

"Zuen errien antziñatik edestiari so-egiñaz, senideok, geienik unkitu naun gauza, zuen jakintsuen oldozketan eta zuen jende-multzo neurkaitzen bizi-eran izpirituari dagozkion obariak nagusi dirala ikustea, izan da. Zuen penitentzigilleen nor-bere-jabetasuna, zuen errien erlijio-gogo sakona, zuen, gurasoenganako maitasun eta sendiaganako zaletasuna, arbasoei diezuten eraspena..., ori dana, izpirituaren nagusitasuna ezagutzen duzutelaren adigarri dugu".

Filipinetatik irten aurretik, beste toki guztietan bezala, txiroekin, izparringilariekin, ez-katolikoekin, eta baita Ego-Bietnam'dik etorritako berrogeitamar buruzagiekin ere, izan zituan solas-aldiak. Bietnamdar auek, Nguyen-Van-Huyen Errepublikaren Senatuko Lendakariarekin urbildu zitzaizkion, eta pakeaz aritu zan Aitasantua beraiekin izketan.

Filipinetatik, Samoa deritzan ugartedira joan zitzaigun. An, bertako Jaurle Nagusia ta Pio Taofinu'u bertako seme Gotzai zeuzkan zai egazkinlandan. Lenen-itzaldien atzetik, Gotzaiak, Nixon Lendakariak bidalitako agur-itzak irakurri zizkion, Samoa'ren Sortaldea Laterri Alkartuen zaintzapean bait zegoan.

Aitasantuak, Upolo ugartetik, Ozeani'ko Gotzai, apaiz, praille eta mixiolari guztiei mintzatu zitzaien irratiz. Izan zuan gotzaiantzat, --mundu guztiko gotzaiantzat--, oarpen bereizia: "Gotzaidia gorputz bat dalako, gotzaiak Eliz osoaren onturreari dagozkionetan lankide dirala eta beren ardura ludi guziruntz zabaldu bearrean aurkitzen dirala": "... by virtue of the collegiality of the episcopate, they share the concern for the welfare of the whole Church...".

Samoa'tik Australi'ra igaro zitzaigun gure Aitasantu ibiltaria.

Sidney'n genduan, Azaroaren 30'ean. Agur-egintzaille, Paul Hastuck Jaurle Orokorra II Elisabete Erregiñaren izenean, John Curton Australi'ko Jaurlaritzaren Lendakaria, eta Gilroy Sidney'ko Goigotzai Kardenala. Aiei erantzuterakoan, ez zitzaion aantzi VI Paul'i, egazkinlanda bertatik katolikoak ez diran beste Elizei agur egitea: "Jainko Aitak eta Josu gure Jaunak bezaizute "peace, love and faith": "gentza, maitasuna, eta sinismena".

Ozeani'ko gotzaiak, Sidney'n Batzar Orokorrean zeuden. Batzar aren altzoan Elizaren "batasunaz eta aniztasunaz" jardun zuan osteria Aitasantuak: "Far from smothering what is good and original in every form of

human culture it, (mixioketak), accepts, respects and puts to use the genius of each people, endowing with variety and beauty the one seamless garment of the Church of Christ".

"Ez du gure mixio-erak giza-kultura bakoitzean on eta bereizia danik ezabatzen, alderantziz begirunez artu ta erabiltzen ditu erri bakoitzaren gogo-aberastasunak; orrela, Kristo'ren Elizaren josturik gabeko jantzia, bixitasun ederrez ornitzen bait da".

Aniztasunaren arlo ontan, arriskua, arriskurik aundiena, sinist-egiak era baldarrean erabiltzea omen da. Ortik aria artuta, arreta aundiz ibiltzeko, eskatu zien teologiariei.

Australi'n bada bertan irasitako lekai-me-erakunde bat, australiar batek irasia gaifera. Lekai-me aiek erakusketan jarduten bait dira, gai ortaz mintzatu zitzairen Aitasantua, Australi'ko Jauriaritza ta Ikastetxe Katolikoan arteko arremanak pozik aipatu ta goratuaz. Ia-ia eredu bezala ipiñi ere ipiñi zizkigun arreman aiek, gure Aitasantuak.

Australiar-jatorriko jendeei, "beren kultura begirune osoz artzen duala Elizak, eta aiek ez dutela inñolaz ere kultur ori galdu bear", jakifiarazi zien.

Berandusamar agian, 13 milla besterik ez bait dira, enda zarreko jende aietatik, oraindik bizirik gelditzen zaizkigunak.

"Guretzako, zuek, eta zuen kulturaren aberastasunak, baliorik aundienekoak zerate". "For us, you and the values which you represent are precious", esanaz jarraitu zuan VI Paul'ek: "Elizak dio, bai zuek eta bai enda txiki guztiek, Laterri-barruan beste laterkideen eskubide guztiak badituzutela".

"The Church proclaims that you like all other ethnic minorities, have all human and civic rights; in every way, the equal of those in the majority": "arlu guztietan geiengoak dituanaren berdin-berdiñak".

Eta, senide lez beste endaetako laterkideekin lankide izan bear zutela esan zienez gero, onela jarraitu zitzairen:

"Lankidetza orri-buruz ordea, gauza bat esan bearra eta argi ipiñi bearra da, --eta nai nuke nik ori gaur indarrez oiukatu--: Laterri guziaren ontasuna ezin daitekela zuen bizikeraren egiazko aberastasunari kalte egin aal izateko moduan erabilli. Gizarte bera aberasten bait dute kultur eta enda ezberdiñek beren izate utsarekin":

"In this regard, however, it must be clear --and we would like to stress it - that the common good never can be used legitimaly as a pretext to harm the positive values of your particular way of life. Society itself is enriched by the presence of different cultures and ethnic elements".

Aidean zebillen galde bateri, ots, katolikoak katoliko ez diran beste kristauekin liturgian alkatu daitezken argitzea eskatzen zuan itaunketari alegia, onela erantzun zion beste itzaldi batean:

- Lenengo: gauza zailla dala alkarrekingo liturgi ori, ekumenegintza

bera're arras gauza latza ta neketsua dalako. Aundiak omen dira bâ oraindik Kristau Elizen arteko ezberdintasunak.

- Bigarren: Ez dugula, alatagutziz, iñolaz ere etsi bear, eta aurrera jarraitu bear dugula "eginkizun geldi-ezin eta neketsu ortan": "continuing and costly task". Baiña arrokeririk eta garailkeririk gabe. "Triumphalism" izan zan erabilli zigun itza: "Gurendakeri aizuna". "Orrelako gurendakeriaren itxurik ere gabe" jardun bear omen dugu. Apakil

- Kristo'k, gurutzean!, alkartu ginduala; eta gu-gerok alkartzea, guri ere kostako zaigula beste orrenbeste.

Abenduaren 3'a. Sidney'n egoteko bere azkeneko eguna. Egun ortan sagaratu zigun, Ginea Berrian jaiotako lenen gotzaia: Louis Venga. Ez zan, orduan ere, tokian-tokiko apaizek Elizarentzat duten garrantziaz mintzatu gabe geratu.

Egun ortan bertan, egazkiñez, jauzi arin batean, Australi'tik Indonesi'ra aldatu zan.

114.000.000 biztanle zituan orduan Indonesi'k. Oietatik, 2.200.000 bakarrik katolikoak.

Egazkinlandan Suharto Lendakaria, Aitasantuari ongietorria ematen. Erantzuterakoan, VI Paul'ek, Xabier'ko Frantzisko'ren gorazarrea egin ondorean Indonesi'ko jendeen ezberdintasuna aipatzen du: Musulmanak (%80), Budatarrak, indu-sinispidekoak, konfuziotarrak, eta era askotako kristauak. "Ondo ezagunak ditugu erlijio ez-kristau batzuen gogo-bizitzari eta oitura zintzoei buruzko egokitasun ederrak, eta erlijio oiekin alkartu naiean gaude, guztionak ditugun aberastasun oiek bizkortu ta babesteko".

Kristau ez diran sinispideen gaia atsegin aundiz erabilli zuan, Yakarta'n egon zan bitartean. Erlijio oiek bai omen dituzte "gizakume guztiei argi dagien Egiaren printzak" eta "Elizak ez omen dezake sekulan egia danik gaitzetsi". "Ecclesiam Suam" entziklika aipatuz, Maomet, Buda eta indutarren sinispideak dakarzki gogora, bakoitzean ikusten dituan "egiazko Egiaren printzak" banaka agirian ezarriaz.

Ez zitzaien aztu, tokian-tokiko apaizdiaren auzia. "Darmojuwono Kardenala, zuen erri ta odoleko gizona dalarik, Indonesi'ko Elizaren Buruzagia eta beste lau gotzai indonesiar alboan ikusten ditudalako", pozetan omen zeukan biotza.

Yakarta'tik Hong-Kong'era joan zan Abenduaren 4'ean. 4 milloi biztanle, eta, soilki, 252 milla kristau. An, Sir Hugh Norman Walker Jaurlearen eta Txen-Pin-Hsu Gotzaiaren agurra entzun, ango katolikoei uriaren zaldi-landan itzegin, eta Kolonbo'ra etorri zan egun berean.

Emen, ongietorri emaille, William Gopallawa Jaurle Orokorra, Sirimavo Bandaranaike Andrea Zeilan'go Jaurlaritzaren Lendakaria, eta Cooray Kardenala Kolonbo'ko Goigotzaia, izan zituan. Laburra izan zan emen egin zuan egonaldia, baiñan Erroma'runtz itzuli aurretik argiratu nai izan zigun bere ibilladi osoaren zioa:

- Bazter guztietako katolikoei bere ardura jakiñarazi;
- "Ain eraspengarri diran Asi'ko oitura ta kulturaren altzoan" Eliza nola lanean ari dan ikusi;
- Kristau ez diran erlijioetako sinisle zintzoei eta borondate oneko jende guziei, beraiekin lankide izateko Elizak daraman asmo zintzoa erakutsi.

"Danen arteko ongi-nai eta bata-besteaganako begirune osoaren giroan" egin bear omen da alkarrekingo lan ori. Lurralde aietako gizakumeei, --gazteei eta txiroei bereiziki--, osoki gizon-emakume izateko bearrezkoak dituzten erak eskeintzea, omen da lan orren elburua.

Bigaramoneko egunsentian, Abenduaren 5'ean, iritxi zan Erroma'ra.

Era askotako lurraldea aurkitu zuan VI Paul'ek Urrun-Sortaldea. Erlijio ugari eta ezberdiñetako erridia; eta politika-giro zearo ezberdiñekoa gaiñera. Komunista, Txina'n, Mongoli'n, Ipar-Korea'n eta Frantzi'rena izandako Indotxina'n. Erkala, dmokrazia, beste Laterrietan, Filipinetan eta Ego-Korean izan ezik. Bi Laterri auk diktaturtzapean bait zeuden.

Erljioari dagokionez, Australi (%84'1) eta Zelanda Berria (%91) kristauak dira. Eta, baita, oraintsu askatasuna lortu-berri duten Ozeani'ko Ugarte-Laterri txikiak ere, baiña protestalariak geienak. Samoa adibidez %94'ean kristaua da, baiñan katolikoak %19'1 bakarrik dira bertan. Australi'n %30'6 gera katolikook; askoz gutxiago Zelanda Berria'n: %17.

Filipinak ere kristauak dira ia oso-osoan: %94'3. Eta oietatik, ia danak, katolikoak: %84'1. Gure elizkide oiek ez dira noski asko-jakiñak; baiñan bai sentimentuz zearo erlijiozaleak eta Elizako Jerarkiari eraspen aundia beti izan dioten jendeak.

Sarkalderago, Bangladex, zearo eta, Jaurlaritza beintzat, gartsuki maometarra dugu. Baita, geiengoz, Indonesi (%43'4) Malasi (49'4) eta Brunei ere (%64'2). Laterri oietan kristaurik geiena Indonesi'k du (%11) eta gutxiena Bangladex'ek: %0'3. Ez dira Elizarentzat erridi oiek alor erreza, arabitarren arroliotik sortutako diruak urduritu bait ditu bertako jaurle maometarrak.

Sri-Lanka budista dugu (%66'9), eta berdin Birmani (%87'2) eta Tailandi ere (%92'1): Budistak ziran komunismopera jausi aurretik Laos (%57'8), Kanboya (%88'4) eta Bietnam ere (%55'3). Laterri oietan kristaurik geiena Sri-Lanka'k ditu: %8'3. Geienak katolikoak: %6'8. Bietnam'ek baditu %7'4 kristau ia danak katolikoak: %7. Kristaurik gutxiena duana, Tailandi: %1'1.

Birmani'n izan ezik, komunismopera jausi ez diran Laterri budazaleetan ez du Elizak legeen aldetiko eragozpenik, baiña latz gertatzen zaio ebangelioaren ereintza; atzerritartzat jotzen dute bâ kristautasuna, beren kultura ain maitea duten lurralde aietako jendeek.

Grezi'ko filosofi zarra, Donetomas'ek kristautu zuan. Filosofi ura bezain zarra da asiatar-errietako filosofia ere. Betorkio len-bait-len Elizari, Donetomas'en lana bir-egina, induismoaren, Konfuziotarren, budismoaren, filosofia kristautu dezakean gizona!

Erljio-mota orok badu Singapur txiki bizkorrean kabi. Kristauak %10'2 dira, erdiak katolikoak; Maometarrak %16'2; Budazaleak %7; indutarrak %5'7; siktarrak %1; Txina'ko erlijioen jarraileak %57'2; eta badituzu an sinkretistak eta siniskera zaarretako jendeak ere.

Pazifik-ltxaszabalaren iparrean, Korea komunistaren berririk ez dugu. An, %0'9 bakarrik ziran kristauak. Beste Korea'n badira %30'5, geienak, %14'2, "eliz iare"etakoak. Katolikook ez gera %3'9 besterik, baiñan Laterrian eragipen aundikoak. Gaiñerako jendeak, edo budazaleak (%15'5), edo konfuziotarrak (%13'3) edo sinkretizaleak (%14'2) edo xamandarrak (%25'9) dituzu ia danak. Azkeneko auek, "xamantasun" ("shamanism") izeneko asiar-sinispide jentillaren jarraileak ditugu).

- 121.000.000'ko Japoi langille azkarra, budista dugu geienbat: %59'6. Xintozaleak %3'ra doi-doi iristen dira; eta, kristauok, %3 besterik ez gera. (%0'6 katolikook). Sinkretistak ugari aurkitzen dira ugarte aietan: %22'4.

- Ezer gutxi dakigu Txina komunistaz. Are gutxiago Mongoli'n gertatzen danaz.

Errusi bera izan ezik, Mongoli dugu aurrena komunista egin zan Laterri iarea; 1924'ean. 1.500.000 kilometroko zabalean, 1.900.000 biztanle besterik ez zituan 1985'ean: ia danak nomadak, ots, bere abereekin tokiz-toki ibilli oi diran jendeak. Jaurlaritzak eman-berri digun estadistikaren araura, %69'6 jainkogabeak dira jende oiek, baiñan zenbaki komunistak ez ditu iñork egiazkotzat artzen.

1924'ean oso gutxi ziran an kristauak eta auek danak ortodoxiarrak. Jendea budazalea zan. Gaur budazale oiek %1'9 bakarrik dirala diosku Jaurlaritzak; eta %1'4 maometarrak; %30'9 berriz animistak. Baiña badakigu Jaurlaritz komunistek zenbakiekin zer egiten duten: zenbaki batzuk goratu, besteak jetxi. Altaguztiz, egia da gogor eraso diola Mongoli'koak erlijio orori. Bezaigu gogorkeri orren adigarri "lamategi" edo lekaidetxe budazaleei gertatua: 2.500 lamategi zituan Mongoli'k. Bat bakarrik gelditzen da gaur, eta Ulan-Bator'en (Laterriko uri nagusia) ain-zuzen; atzerritarrei erakutsia izatekol, ori ikusita atzerritarrek Mongoli'n erlijiorako askatasuna badala sinistu dezaten.

Txina'n ere sinismenik gabeak %76 dirala diosku Jaurlaritzak, baiñan emen ere zenbakietaz fidatzerik ez dugu. Katolikoak %2 omen dira, maometarrak %1'4 (¿?), budazaleak %6, animistak %0'1 eta "Txina'ko erlijioaren jarraileak" %20'1.

1.061.000.000 biztanle zituan Txina'k 1985'ean, eta gauza zaila da



jendetza orren erlijioari-buruz zenbaki ziurrak ematea. Eta ez, ain zuzen, Jaurlaritzak zenbakiak okertzen ditualako, eta jendeak, naiz barrundik sinisle jarraitu, pakean bizi aal izateko, kanpotik beren buruak ez-sinisle agertzen dituztelako bakarrik, baizik eta beti Txina'ko jendea erlijio bat bakarraren jarraile izan ez dalako.

Iru izan dira Txina'n erlijio nagusiak. Konfuzio'rena, Buda'rena eta Tao'rena. Ez dituzte, Txina'ko jendeek, sinkresi bat eginaz irurak naasi; ez; naasketarik egin gabe, konbeni zaien araura, gauza bat gaur emendik, biar beste bat ortik, eta etzi beste bat beste artatik artuko dizkizute. Iru siniskera oiek iareki erabilili aal izateko oiturari esan oi zaio "erlijio Txinatarra" estadistiketan.

Orrelabadare, konfuziotasunak gizarteko biziera garaiean beste biek baiño eragimen aundiagoa izan duala aitortu bearra da. XVII mendean gure mixiolarien ekintza naroa bertanbera ito zuan "rituum" edo "oituren arazo" doakabe ura konfuziotasunaren oiturei-buruz izan zan. Budatasunak, alderantziz, barne-erlijio-ko-bizitzan izan du eragimenik sendoena; taotasunak berriz, ertian, filosofian, elertian, eta jakintzetan.

Jardunkera orrekin eraspentsuak izan dira beti Txina'ko agintariak. Berentzako arriskurik ikusten ez zuten arte!, jakiña. Ala zapaldu eta ia ezereztu zuan Jaurlaritzak 845'garren urtean Buda'ren erlijioa. Budazaleak ainbeste aberastasun eta ain eragimen aundiaren jabe ziralarik, beretzako arrisku-bide izan zitezkeala uste izan zualako.

Badugu gaiñera beste oztopogaillu bat gaur, Txina'n erlijiotasunaren egoera eskierki argitu aal izateko: 1949'an egin zan Txina komunista. Bâ..., 700 milloi txinatar, --Laterriaren %70!!!--, 1949'az gero jaioa dugu: erlijiorik gabe, --okerragoa dana--, erlijioa gorrotatzen ikasiaz ezitako jendea! Eta jende orrek nola pentsatzen duan jakiterik ez dugu.

Ala're, Errusi'n gertatzen ari zaigun erlijioaganako gazteen zaletasuna- edo oroitzen ba'dugu, eta Txina'n gaur oraindik %80, --ia Laterri osoa--, nekazaria dala kontuan artzen ba'dugu zail egingo zaigu 700 milloi txinatar gazte oiek danak jainkorikgabeak izan daitezkeala sinistea. Nekazaria, zarragordezalea bait da berez, eta gazte oiek beren sendien altzoan jasoko bait zuten, asabengandik, erlijioaren berri.

Gaiñera, Txina Komunista kristautasunarekin bakarrik izan zan 1966'a arte gogor eta zipotza; ez, "erlijio txinatarrekin". Marx'eri jarraituz, erlijioa ekonomi kapitalistaren "epifenomeno" edo "axaleko gertari" uts dalaren ustean, komunismoa ezarriz gero berez ezereztuko zala iduritzen bait zitzaien agintari berriei.

1966'ean piztu zan "kultur-iraultza"; eta 1976'a arte iraun zuan. Amar urte oietan bai, gogor jo zitzaion erlijiotasunari. Erljio oro izan zan debekatua.

1976'a ezkerro iriki zuan ostera pixka bat Jaurlaritzak eskua, baiñan

jatorriz txinatar ez ziran Elizei atzerriko beren Eliz senideekin lokarri oro ebakitzea, baldintzarik gabe eskatuazi Errez makurtu zuten protestalariak burua, protestalariatzat bereizketa ta zatiketa ez bait dira gauza arrigarria. Gaiñera oso gutxi ziran Txina'n protestalariak: 51.300 bakarrik Laterri guztian. Izan zuten, alare, beren artean komunismo-aurretik garrantzi aundiko gizon ospetsu bat: Txiang-Kai-Xek mariskala; eta protestalaria zan, baita're, aren emaztea.

Txina'ko kristauak ia danak katolikoak ziran. Eta auentzat bai, mingarria danentzat, --eta eriogarria askorentzat--, izan zan Jaurlaritzaren eskaria. Tamalez, gotzairik geienak, XII Pio'ren aginduei entzungor egiñaz, "Txina'ko Eliz Abertzalea" sortu zuten; baiñan gotzai batzuk, eta apaiz askok, tinko jarraitu zuten zismara jausi gabe, eta baiturapean dagoz oraindik.

Soiñu gutxiagokoak izan ziran Itali'n bertan VI Paul'ek egin zituan beste iru ibillaldi. Aurrenekoa, Zerdefña'ko ugartera. Meatzariei itzegiñaz, ez zala bera, Zerdefña ikustatzen, aurreneko Aitasantua, esan zien. Bera baiño lenago etorri zala beste Aitasantu bat, 235'garren urtean, Alexander-Sebero ta Maximo Inperatore zirala. Meatzetako lan gogorretara epaiturik etorri omen zan, eta emen il, Kristo'ren ziñopa, 235'garren urtean, "affictus et maceratus fustibus", ots, "oiñazetua eta makilka porrokatua".

Bonaria'ko Andra Mari da Zerdefña'ko zaindaria. VI Paul'ek esan zigunez, Andra Mari onen omenez eman omen zion Mendoza'k izen, Plata ibaiaren alboan eraiki zuan uriari, Santa Maria del Buen Aire, gaurko Buenos Aires.

Benezi eta Udine'ko ibillaldia'n, Elizak "agoz-ago gorde duan egi-kopuru" edo tradizioari-buruz itzegiterakoan, izan zuan esaldi borobil pitxi bat: "É facile togliere, suprimere, ma non è facile sostituire". "Togliere", laterazko "tollere" bezala "kendu" esan nai duala kontuan artu ezker, ez dut uste gaiñerakoak itzulpenik bearko duanik.

Irugarren ibilketa, Roccasecca'ra egiña izan zan: Akino'ko Toma Deunaren errira. Gogo-arrazoiketa utsean oiñarritutako jakintzari dago-kionez, "bai jakintza orren zabaltasunaren aldetik, eta baita zorroztasunaren aldetik ere, berdiñik gabeko denbora" izan omen zan Donetomas bizitu zan denbora: ("tempo incomparabile per ampiezza e per acutezza di studio speculativo). Berdin-gabeko aro artan Akino'tar Toma omen dugu, jakintsurik garaiena. Bere lana, bere aurretik beste irakasle garai batzuek aurkitu ta ondarean utzi zigutena, bilduma batean biltzea izan omen zan: ("come una sintesi de ciò che altri sommi maestri prima de lui hanno studiato e lasciato in eredità").

Tomas Done akinotarra gorai patu digu Aitasantuak. Aren antzeko filosofigille bat bear luke orain Elizak gaur-eguneko oldozkera kristautzeko. Gaur-egungo Filosofi au jainkogabea dala? Ez zazula uste Tomas doneak

kristautu zuan Aristoteles ura ere oso sinismen sendoko gizona zanik!

Mundu guziak fedea galdu duala-ta, ikaraturik dagoz Elizaren barruan sinismen auleko kristauak. Munduak fedea galdu duala... ¿egia ote?

Badira eun urte Nietzsche'k, "Ecce Homo" deritzan liburu batean, "Jainkoa il da" idatzi zigula. Ona emen, liburu ortatik jasoak., ainbeste aldiz aipatu izan diran itzak berak:

"Jainkoa non dan? Jainkoa il dala oi u egingo dizuet nik; zuk eta nik il dugula Jainkoa. Nola, ordeá, izan ote gera gu ori egin aal izateko gauza? Bai al gera itxasoá urez ustutzeko gai? Tá, Jainkoaren erailketa ¿ez ote da guretzat ekintza mardulegia? Ez da sekulan, guk orain egin dugun au baiño ekintza aundiagorik burutu. Orregaitik gure ondorean etorriko diran guztiak, emendik aurrera edestia bera baiño "edesti" gurenago batean biziko zaizkigu. Il bait da Jainkoa" Bai; il da Jainkoa! Eta gu izan gera, gu, Jainkoaren erailleak. Guk il dugu Jainkoa!"

Itz oiek argitaratuta laister, ero-etxe batean il zan Nietzsche. Jainkoa bizi da oraindik. Eta gaur ez dizu iñork Jainkoa il danik alako eskiertasun txoroz oiukatuko.

Badira eun urte Nietzsche'k "il da Jainkoa" oi u egin zuala. Baiñan bizi da oraindik Jainkoa eta gaur ez luke iñork alako oiurik jaurtiko.

Jainkorik ez dala diotenak ere, ez zazula ainbeste diranik uste. Eta arrigarrigoa dana, ez dira mende onen amaieran askoz geiago izango. Begira: 5 milla milloi biztanle dituan gure ludi ontan, jainkorik gabeak, 213.893.500 ditugu. Baiñan, gogoan artu bearra duzu, zenbaki oietan Txina'k, Sobietarren Alkarteak, Kuba'k, eta beste Laterri komunistek emandako "ateoak" ere sarturik daudela, eta auek ez dirala, len ere esan dugun bezala, egiazko jainkogabeak; eta gaiñera, komunistek emandako ateo oien kopurua arrokeriz anpatua dagola.

Mendearen amaieran, 262.447.600 izango omen dira munduko Jainkogabe guztiak. Baiña zenbaki au ere ez da fidagarria. Zergaitik? Konfiantzarik merezi ez duala esan dugun beste zenbaki artan oiñarri artuz aurre-pentsatua dalako.

Geiago dira "agnostikoak", ots, "Jainko bat badan edo ez dan jakiterik ez dagola" diotenak: 825.072.900 gaur. Eta 1.071.888.400 izango dira mendearen amaieran.

Agnostikeri orri ere ateotza deitu nai ba'diozu, iru eratakoa dala gure egunetako jainkogabekeria, esango nizuke nik: Marxitarrena, positibistena, inmanentista erromantikoiena.

So-egiogun Jainkogabekeri irukoitz orren etorbideari.

- Birjaiotzako "umanismo" edo "gizazalekeriak", jakintza ororentzat Gizakumea ipiñi zuan gai nagusi. Jainkoa izan zan ordurarte gai ori. Gizakumea izanen da orduandik aurrera. Jainkoa, orreña, illunpean bezala gelditu zan. Gizakumeak artu zuan, ordurarte Jainkoak eukitako tokia.

- Argikuntzakoan, gizakumeagan Arrazoia izango da bereiziki goiapatua: Arrazoiak oro jakin eta oro ezagutu dezake, eta arrazoiak ezagutu ez dezakean gauza, izan ez daitekean gauza da: ameskeri utsa.

Arrazoia oso-osoan ona eta zuzena da. Orregaitik, arrazoi argituak daraman gizonak ez du kanpotiko lege bearrik, ez du autoritate bearrik, naikoa du bere arrazoi argituaren argia; ortik jaioko zaizu anarkitasuna.

Arrazoia gizakumearen Argi nagusia dalako, zentzuen bidez eta matematikaren legeak erabilliaz Arrazoiak egiztatu dezakeana bakarrik sinistu dezake gizakume argituak. Ortik "positibitasuna".

Arrazoiak ordea, gizakumearen argi nagusia danez, gizakume beraren onturrearen serbitzura egon bear du. Ortik "edonikeria": "nor-beraren atsegifaren zaletasuna". Jakintza orok, gaiñera, eta gizakumearen ariketa orok, "utilis" izan bear du: gizakumearen onturrera zuzendua. Auxe duzu "pragmatikeria".

- Kant'ek, "giza arrazoi-garbiak", "ratio pura" dalakoak Jainkorik ezin dezakela atziki, oles egin zuan; Jainkoa, "ratio practica" edo egoneroko arazoetarako erabilli oi dugun arrazoiaren bitartez bakarrik ezagutzen dugula. Eta, ori esatean, teologia adimen-oiñarri sendorik gabe utzi zigun. Ortik agnostizismoa.

Hegel'ek, bereala, Jainkoa eta Izadia bat egin zituan. Jainkoari, maiz, "Gogapen", "Idea" esaten zion. Izadia, arentzat, Jainkoa izadi biurtua zan; eta, Jainkoa, Izadia bera, gogapen --"Idea"-- biurtua. Ots, izadi Jainko biurtua.

Baiñan Jainkoa Gogapen bat besterik ez ba'da, gogapen guztiak giza-adimenaren sorkari diralako, giza-adimenaren sorkari da Jainkoa bera ere: (Feuerbach). Jainkoa gizonak egiten du. Oroi Unamuno'ren "yo creo a Dios". Esaldi ontan "creo" itza ez da gaztelerazko "creer" aditzaren era bat; "crear" aditzarena baizik. Ortik inmanentismoa, edo inmanentzitasuna.

Iru bide irtengo zaizkigu Hegel'en pentsakizun ortatik:

- "Inmanetzitasuna": Jainkoak, eta erlijiozko izaki eta gai guztiek, giza-adimenaren barruan bakarrik dute beren izate guztia. Elertiko izakiak bezalakoak, adibidez Mantxa'ko On Kixote bezalakoak, dira. Oldozkera ontakoa izan-genduan Unamuno.

Erromantikeriak kutsututako pentsalari auentzat, "Jainkoa", gizakumeak oldozten dituan egi, maitatzen dituan edertasun, eta beretzako opa dituan ontasun guztien bilduma besterik ez da: gizakumearen atsegiferako, adimenak, idurimenak eta naimenak Pertsona --olertizko Pertsona-- biurtzen duten bilduma. Unamuno'ren oldozkera ezagutzen ba'duzu, errez ulertuko duzu filosofikera ameskoi ori.

- "Marxikeria". Marx, Hegel'en ikasle eta --erlijioari-buruzko gaietan-- Feuerbach'en jarraile izan zitzaigun. Feuerbach bera ere Hegel'en ikasle bait zan. Marx'entzat ordea, izadian gauzarik garrantzitsuena ekonomia zan.

Ekonomiak eraten omen ditu gizkumearen izaera, pentsaera, eta biziera. Nolakoa ekonomia, alakoa gizakumearen oidozkera. Erljioari berari ekonomiak ematen omen dio bere izakera. Nolakoa erri baten ekonomia, alakoa erri orren Jainkoa. Jainkoa --eta Jainkoa bezala gorpuzki ez diran beste gauza guztiak--, bere burua poztutzeko gizakumeak sortutako ameskeriak besterik ez omen dira. Orrela, marxistak egiazko ateoak ditugu: Jainkorik ez dala eskier esaten dutenak.

- "Positibitza". Zentzuen bidez ezagutu eta matimatikaren legeen bidez mugatu ez dezakegun gogapenak zer izan daitezkean ez omen dakigu; ezta badirarik ere. Soilki zentzuetaz ezagutu eta matematikeetaz mugatu dezakeguna bakarrik esan omen dezakegu egiazko izate-dun gauza dala. Orregaitik, gaur egungo positibizaleek ez dizute "Jainkorik ez dala" esango. Agnostikoak dituzu: Jainkoa badanik ezagutzerik ez dugula aitortuko dizuten jendeak.

Esan duguna gogoan artuaz, onela margoztu genezake gaurko jainkogabe geienen antz-irudia:

- Jainkorik badanik jakin ez daitekean ezkerro, ez dira Jainkoaz arduratzen.

- Baiñan zerbait sinistu eta zerbait itxaron gabe bizitzerik ez dagoalako gure gaurko jainkogabeak bere burua sinisten du eta bere buruaren atsegin betea itxaroten du. Bere burua biurtu du Jainko.

- Bere Jainkoa bere burua ba'da, bere zerua, bere buru orren atsegiña da; mundu ontan lortu bear dan atsegiña, jakiña. Ortik, gure egunotako "production-system" edo "al dugun gauzarik geiena sortu, al dugun gauzarik geiena gureganatu" lege gurentzat ipintzen digun gizarte-era. Ortan dago gure gizadi jainkogabearen salbamena: mundu ontako gozapenean.

- Salbamen ori lortuko dioten sakramentuak, jakintza --zientzia--, teknika eta politika dituzu, bedi azkeneko au komunismoa bedi demokrazia.

- Bere moralitatearen azken elburua, gozamenerako askatasuna lortzea da. Askatasun osoa, edo beintzat al dezakeanik osoena. Erabateko askatasun orokor orri deitzen dio "demokrazi", eta ortik, gaur-eguneko oituren lasaikeria, autoritatea-ganako eraspenik-eza, eta legearen zamarik jasan ezifia.

(Laterri komunistetan ere, marxismoaren dogma itxuetaz gogaiturik eta komunismoaren autoritatekeri zakarrez nazkaturik askatasuna eskatzen dute jendeek, --batez ere osoki komunismoaren giroan bertan ezitako gazteek-- gero ta indar geiagorekin).

Galdurik ote dago sinismenarentzat jende talde ori dana? Ez dirudi.

- Gure jainkogabeek ziur uste izan dute askatasun osoan egin dituztela bere bizitza guztiko aukerak eta askatasun osoan aukeratu dutela beren bizi-era ber-bera ere.

Baiña asi dira ikusten egiazko askatasunik ez dutela izan: gizarteko giroak, mezu-bideen indar guztialdunak, eta kontzientzipeco milla "prejuizio" edo "aurre-iritziek" beartuta egin dituztela beren aukera guztiak. Jainkogabekeria bera, ots, Jainkorik badan edo ez, jakin ez daitekean gauza dala sinistea, egiazko aurre-iritzi mardula bait da.

Zer esanik ez, marxitarren oñiarri-dogma: edozer gauza pentsatzen asi-aurretik, "dan guztia gorpuzki uts" --"materia"-- dala sinistu-bearra; Marx'ek berak ere, ori, aurretiko arrazoiketarik gabe "esan" eta "sinistu" bakarrik egin bait zuan! Gero ere, ori egia dan erabakitzeke ez bait zuan sekulan saio sakonik egin!

- Gure jainkogabeek, galdu dute politika-eraetan ipiñirik zeukaten itxaropena. Sumatu dute bâ, ez demokraziak ez komunismoak ez dutela mundu au zoriontsu egiteko gaitasunik; ez dirala gizakumearen biotzak eskatzen duan zorion beterik emateko gauza!

- Galdu dute baita're izadi-jakintzetan eta jakintza oien ondorio diran teknikaetan ipiñirik zeukaten itxaropena, ots, "munduaren aurrerapenean" ipiñirik zeukaten uste alai gozoa. Ikusi bait dituzte "munduaren aurrerapen" orrek ekarri dezazkean gaitz neurrigabeak; eta, daraman biderik zuzentzen ez ba'du, atom-lergailluen estandaz munduaren amaia duala aurrerapen orrek elburu!

- Galdu dute gizakumearen azken-zerua mundu au bakarrik izan daitekealaren ustea ere. Bere biotzetako muñfean auteman bait dute gauz ugarien jabe izateak ez duala gizakumearen gogorik asetzen, atseginkeri lizunek nazka sortzen dutela, egiazko maitasunik-ezak eta mami biurtu daitekean itxaropen ziur baten faltak, utsik uzten dutela bizitza.

Eta utsunbe ortatik iges-egitearren, drogaetara jo dute, axolagabekeria, eta, beren eskuz, eriotzara.

Asko ta asko ordea beste mundutiko itxaropen baten billa asi zaizkigu; itxu-itxuan, nora jo ez dakitela, beren ardura guztia Sortaldetik datozen "guru" edo sasi-profetaetan, astrologi edo izar-sasi-jakintzan, "sinispide iareetan", eta milla siniskeritan ipiñiaz, bai noski.

Baiñan alatagutziz, gauaz baso beltzeko illunpean ardi galduak bezala, Jainkoa galdu duten gizakume oiek danak, galdutako Jainkoaren billa dabilta.

Badu gure Elizak zer egiñik!

Akino'ko Tomas Donearen kide litekean filosofigille baten falta aitatu dugu goraxeago. Eta egia da gaurko munduak filosofi sendo baten bearra baduala. Arrazoa zuzendari duala egin bear bait du gizakumeak dagian guztia. Baiñan gure jainkogabeek ez ditu arrazoiketaren faltak kezkatzen, maitasunaren faltak baizik. Galdu dute Arrazoean ipiñi zuten itxaropena. Sentimenak bultzatzen ditu. Arrazoi mardul-pillo bat ez baiña "zer maitatu" eta "nork maitatua izan" eskatzen digute.

Ez al da ori "askapen-teologiarentzat alor egoki bikaiña"?

Diplomaziaren barrutian, VI Paul ez zan, bere aurreko Aitasantuak bezala konkordatoen adiskide izan. Konkordato zaratatsuak baiño naiago izan zuan Laterriekin zarata gutxigoko Itunak izenpetu.

Itun oietan, badira, Haiti eta Tenez'ekin egindakoak bezala, garrantzi gutxikoak, baiñan badira garrantzi aundikoak ere; Yugoslabi, Arjentina eta Espaiñ'renak adibidez. Bereiziki aurrenekoa, Yugoslabi'rekin izenpetua. Yugoslabi izan bait zan Aulki Donearekin alkarrizketan asitako lenen komunist Laterria; Yugoslabi berak eskatuta gaiñera!

Ematen zion Elizari Itun arek askatasuna, baiña politikan ez sartzeko baldintzarekin; eta, Itun ura eguneroko gertakizunetan egi-egiten astera-koan eztabaidarik sortzen ba'zan, alkarrizketan astera beartzen zituan Jaurlaritza ta Aulki Donea, Itun arek berak.

Diktaturapeko Laterrietan, batez ere diktatur-komunistapeko Laterrietan, edozer gauzari usmatzen diote politika-usaia diktatoreek. Orregaitik, ez zan ezer asko Yugoslabi'rekingo Itun ura, baiña alatagutziz, zerbait bazan. Pozik gelditu zitzaigun beintzat Aitasantua.

1966'ko urrillaren 10'ekoa dugu Arjentina'rekin egiña. Kostata egiña gaiñera, Arjentina'ko Jaurlaritzak gotzaiak aurkezteko-ta antziñako "erregekeri" doakabe aren giroko eskubideak gura bait zituan beretzat. Azkenean Aulki Donearen eskuetan gelditu zan gotzaien izendaketa; baiñan izendaketa bakoitzari-buruz aurretik Aulki Doneak Jaurlaritzarekin itzegitekotan!

Miguel Zabala zan Kantziller, konkordatoa eratzerakoan Arjentina'ko Jaurlaritzan, eta Arturo Uria Errepublikaren Lendakaria. Baiña konkordatoa ez zuan onek izenpetu; bere ondorengo Juan Karlos Onganía'k baizik.

Espaiñ'ko Franko bizirik egon zan bitartean ez zuan Aulki Doneak ezer egiterik izan, 1953'an, Franko'k eta XII Pio'k, izenpetutako Konkordato ura aldatzeko.

Kontzilioak, jaurleri gutzietan, zituzten "pribilejio" edo "eskubide bereiziak" uzteko eskatu zien, eta ederki erantzun zuten aiek, Franko'k ezik.

Onek ez zituan utzi; ezta, sekulan utziko zituanik ere agindu. Soilki, eskubide aiek, batez ere gotzaiak aurkezteko eskubidea, ots, "el derecho de presentación", eta orren antzeko beste arazoak, Laterriak eta Elizak egin zezaketan alkar-artze berri baten altzoan "aztertu zitezkean gauzak zirala", jakiñarazi zion Aulki Doneari.

Castiella'ren atzetik Lopez Bravo'k artu zuan Atzerri-Arazoen ministeriotza, eta, berarekin, gogorragoa egin zan diktaturaren eskua. Izan ere, ordurako arras gogorrak bait ziran apaiz askoren aldetik Jaurlaritzaren aurkako itzak eta jokaerak ere.

Alperrik izan zitzaizkigun Casaroli ta Benelli diktatorearen diplomaziariekin solasean asi izatea, Franko il arte ez bait zan ezer igitu.

Gotzaiek bai; Españi'ko gotzaiek, 1966'garren urtean, jakinarazi zioten Aitasantuari diktatorearengandik artutako "eskubide bereizi" guztiak uzteko gerturik zaudela.

1976'ean, --uztaillak 15--, I Juan Karlos Erregea izan zan, Franko'ri XII Pio'k emandako eskubide guzti aiei uko egin ziena. Ordain lez, 28'an, apaiz eta erlijioso-jendeak epaiketari buruz zituzten eskubide bereizi danei egin zien uko Aulki Doneak.

Izenpetu zan, "arazo auek aztertzer" Aulki Donea ta Jaurlaritza beartzen zituan gutun bat ere Jaurlaritzaren eta Aulki Donearen aldetik; baiña, asmo oiek, VI Paul ilda ondorean izan ziran Itunben batean mamituak, eta 1979'ko urtarrillaren 3'an izenpetuak.

Naiz, Aitasantu izan aurretik ia bere bizi guzian diplomazi-lanetan ari izan, diplomazilari baiño geiago, artzai, irakasle, izlari, apaiz!, izan zitzaigun VI Paul.

Itzaldi oparo ugarietaz landa, iru entzikliken bidez bereiziki eman zigun bere irakasketa: "Ecclesiam Suam", "Populorum Progressio", eta "Humanae Vitae" dituzu iru entziklika oiek.

Naiz zalapartarik geiena atera zuana, "Humanae Vitae" izan, iruetan garrantzitsuena "Populorum Progressio" dugu.

Frantzeraz idatzia izan zan, eta 1967'ko orrillaren 26'ean irten zan argitara, baiña askoz leenagotik ari zan VI Paul eskutitz ura gertutzen. 1963'a ezkerrean, ingi-sorta batean bere eskuz oarrak eta lenen zirriborroak idazten. Gizartizian yayo ziran gizonekin batera, maiz aztertu zituan bere asmoak; Dominic Lebretekin eta Marcelo Larrain Errazuri Talca'ko Gotzaitzeekin, adibidez. Arras ezaguna zan gotzai txiletar au; beartsuen adiskide ta lagun zintzoa, aien alde lan aundia egiña, CELAM'en sortzaileetako bat eta, geroago, CELAM beraren Lendakaria.

Bestea, Lebrete, ONU'k eraturiko Erri Atzeratuen Aldeko Batzarrean Aulki Donearen ordezkari, gai auetan jakituri aundiko gizona zan.

Idazketa asko izan zituan entziklika oiek; aurrenekoa, 1964'aren iraillekoa; azkenekoa, 1967'aren otsaillekoa. "Sta tutto bene", esan omen zuan Aitasantuak azkeneko au irakurri zuanean, eta latiniñera itzultzeko agindu.

Entziklika onen prestaketa guzian, eskurik geiena izandako gizona, Mos. Poupard Paris'ko Unibersitate Katolikoaren Erretorea izan zan.

Bi zati ditu "entziklika" edo "zabaldua izan dedin idatzia" izandako eskutitz oiek. Aurrenekoan etika edo izadi-legearen aldetik aztertzen du gizarte ta erridi txiro atzeratuen egoera negargarria; eta, bigarrean, egoera ori obeagotzeko aolku batzuk ematen ditu.

Orregaitik, ez zan entziklika au irakurle danek ontzat artua izan. Esan



era esan daitekela uste dut, aspaldi ezker, au izan zala geienik eztabaidatutako entziklika; batez ere, ekonomilari batzuen aldetik. Bat-egitziak zeudela, esaten zuten auek, entziklikaren aurreneko atalarekin, ez ordea bigarrenarekin: "Txirotasuna ezabatzeko, Aitasantuak egin bear dala esaten duan ori egiten ba'da, konpondu bearrean orain dauden baiño okerrago jarriko bait dira gauzak", aietako batek idatzi zuenez.

Naitanaiez ukitu bear-eta, ukitzen du VI Paul'ek entziklikaren 11'gn. 30'gan. eta 31'gn. zenbakietan indarkeriaren eta iraultzaren arazoa.

Gaia, gaur ere, eta Euskalerrian bereiziki, garrantzi aundikoa dalako, ona emen frantzeraz idatziak izan ziran bezala, iru zenbaki oiek:

"Dans ce désarroi, la tentation se fait plus violente qui risque d'entraîner vers les messianismes prometteurs, mais bâtisseurs d'illusions. Qui ne voit les dangers qui en résultent, de réactions populaires violentes, de troubles insurrectionnels et de glissement vers les idéologies totalitaires? Telles sont les données du problème dont la gravité n'échappe à personne" (11'gn. zenbakia).

Il est certes des situations dont l'injustice crie vers le ciel. Quand les populations entières dépourvues du nécessaire, vivent dans une dépendance telle qu'elle leur interdit toute initiative et responsabilité, toute possibilité aussi de promotion culturelle et de participation a la vie sociale et politique, grande est la tentation de repousser par la violence de telles injures à la dignité humaine (30'gna).

On le sait pourtant: l'insurrection révolutionnaire, --sauf le cas de tyrannie évidente et prologée qui porterait gravement atteinte aux droits fondamentaux de la personne et nuirait dangereusement au bien commun du pays--, engendre de nouvelles injustices, introduit de nouveaux déséquilibres et provoque de nouvelles ruines. On ne saurait combattre un mal réel au prix d'un plus grand malheur (31'gna).

Euskeraz:

"Ibillera oien ondorioz, gero ta aundiagoa da, --naiz askenean amets utsetan gelditu-- aurretik asko eskeintzen duten mesiakeritara jausteko arriskua. Ortik sortzen diran gaitzak, --zalaparta gogor, iraultza, ta totalikerirunzko joera-- ikusten ez dituanik bai al da? Orra or, edonork errez ulertu dezazkean arazo onen kinka larriak".

"Badira baike apentza zeruari eskatzen dioten egoera makurrak. Bai bâ; bizitzeko bearren-bearrenezkoa dana ere gabe, ekinbide ta ardurabide oroz erantzita, kulturaren jabe izateko eta gizarteko bizitzan esku-artzeko almena eragozten dien menpetasunean, errialde osoak bizi ba'dira, aundia da, erri oien artean, giza-duintasunaren aurkako gaiztakeri oiek indarkeriz ezereztu nai izateko barren-zirika".

"Bai baiña..., --nagusi-makurkeri edo tirani argi ta iraunkor batek giza-oñarri-eskubideak astunki zapaldu ta erri-ondasun-orokorra era

arriskugarrian suntsitzen dituanean izan ezik--, jakina da indarkerizko iraultzak, okerkeri berriak piztu, eskiertasun-eza berriak sortu eta ondamen berriak ekartzen dituala. Ez da zillegi okerkeri bat, beste okerkeri aundiago baten bidez zuzendu nai izatea".

Entziklikaren azken-idazkera, Elizak, betidanik oitura duan bezala lateraz eman zigun, baiña laterazko idazkera onek ez digu frantzerakoaren zentzurik ezertxo ere aldatzen-da, ez du euskeratzerik merezi. Alataguzti, indarkeria arazo gordina bait dugu oraingoz Euzkadi'n, ona emen gai orri dagokion atala, lateraz Acta Apostolicae Sedis aldizkarian datorren bezala:

"Est quidem res pernosa, seditiones et motus --nisi agatur de tyrannide aperta et diuturna, qua primaria iura personae humanae laedantur et bono communi alicuius civitatis grave iniungatur detrimentum-- novas parere iniurias, novas ingerere inaequalitates, ad novas strages homines accendere. Malum autem quod revera est, non ea licet condicione propulsari, ut maior inducatur calamitas".

Ori idaztean, VI Paul'ek, ez zuan ezer berririk esaten. Iraultza onesgarri egiteko eskatzen dituan baldintzak, betidanik teologi katolikoak eskatu dituanak berberak bait dira.

Arazoi du Aitasantuak iraultzek on baiño gaitz geiago, askoz geiago, ekarri dutela dionean. Ori erakusten bait digu edestiak berak:

Frantzi'ko iraultza biurriak "demokrazi", "errepublika" eta "askatasun" itzak iguingarri biurtu ez balitu, askoz leenago zabalduko zan mundura, Argikuntzaren igikundeari jarraituz, gaur Elizak berak jaur-biderik onena lez aitortzen duan erkala, demokrazia.

Eta Marx-Lenin'en errusiar-iraultza makurrak, langilleen igikunde oro bildurgarri biurtu ez balu, azkarrago joango ziran auek aurrera beren eskubideen lorketan, eta, ziurki, 1917'an, Errusi'n Errepublika ezarri zanean, iraultzak Errepublika ura odoletan ito ez balu, gaur Errusi'ko langilleak, demokraziaren bidetik, Laterri Alkartuetako langilleak bezala egongo ziran; lurrez eta lurpez, Laterri Alkartuak baiño aberatsagoa bait da Errepublika Sozialist Sobietarren Alkartea.

Iraultzen ondorio okerrak ain argi azpimarratzean, ezpairik gabe agertzen digu Aitasantuak Eliza, --naiz gogoeta utsen barrutian iraultza zearo gaitzetsi ez--, eguneroko gertakizunen mundu ontan iraultzarik ez erabiltzearen aldeko dala.

Bein baiño geiagotan ikusi dugu VI Paul, itzaldiz-itzaldi iraultzarik ez erabiltzeko eskatzen.

Iraultza bat izadi-legearen araura piztu aal izateko baldintza guztiak ifion betetzen ba'dira, ifion ori, Iberamerika dugu; Kolonbi bereiziki.

Bâ ikusi aal izan duzunez, Kolonbi'n bertan, ango nekazari gaixoei eta inditar errukarriei, iraultzara ez biurtzeko aolkua eman zien VI Paul'ek. Eta, itxuraz, bazan ura, aolku baiño geiago, benetako agindua ere.

"Populorum Progressio" entziklikak, aurka, irizpide bat baiño geiago izan ba'zitan, askoz ugariagoak, gogorragoak eta minkatzagoak izan ziran "Humanae Vitae" k jaso zituanak. Esan ere esan bait daiteke mundu guzia, eta Elizaren erdia baiño geiago, entziklika onen aurka jeiki zala.

Idazki ontan, VI Paul'ek, gizon-emakumeen gorputz-duintasuna-tadonetasuna babesten ditu; eta bi gorputz oien alkartzea, beti, bizitza berrien sorkuntzarako egokia izan bear duala erakusten digu; eta bizitza berri orren sorkuntza eragozi dezaketen era guztiak galeraztten ditu, emakumezkoaren illekoari dagokiona izan ezik.

Astiro ta arreata aundiz ibilli zan, --berak oitura zuan lez--, entziklikaren prestaketan. Aurreneko unetik, arazoa egoki zeatz eta sendo aztertzeo Bazkun Bereizi bat eratu zuan.

Bazkun artako bazkideek, geienak, eskua zabaltzearen aldeko agertu ziran. Jakin zan ori munduan, eta izugarrizko gaitza egin zion orrek, gero entziklika osoaren mami izango zan erakuspideari. Bazkun aren geiengoari jarraituz, danok, edo beintzat ia danok, asi bait gifan gure senar-emazteekin eskua zabaltzen.

Bazekian ori Aitasantuak Entziklika izenpetzerakoan. Bazekian mundu guztia era berrietara oiturik zegoala ordurako, eta bere itzak oso gaizki artuak izango zirala Eliza berberaren zatirik audienean ere. Altagutziz, bere eginbearra zala ziur uste zualako, ezbaiean ibilli gabe, tinko gaitzetsi zituan era berri oiek.

Eta asarretu zitzaion mundua. Egia esateko, uste-ezean arrapatu bait gindun danok, bai "ardiak" eta bai "artzaio", "Artzai Gurenaren" erabakiak. Miñ aundia sortu zuan entziklikak bai "ardien" bai "artzaien" artean, eta saminetan makurtu zuten, makurtu zutenek, Aitasantuaren esanetara burua. Eta ez dute, askok, oraindik ere makurtu.

Gotzaiak berak uste-ezean arrapatuak izan zirala dirudi, gotzaidi bat baiño geiago saiatu bait zan Aitasantuaren itzak zuritzen eta gozutzen.

Aitasantuak ordea tinko iraungo du bere egoeran. Artzai eta ardien oiñaze ta kezka guztiak aurre-ezagutzen eta aurre-sufritzen zituan berak. Altagutziz, zalantzaz ibilli gabe izenpetu zuan entziklika, eta zalantzarik gabe jarraitu zuan izenpetu zuana aldarrikatzen... eta agintzen.

Hamlet'en antzekoa zala-edo gure VI Paul, baiñan, entziklika au ematerakoan, Dinamarka'ko Hamlet baiño geiago izan zitzaigun bere Alpe-Mendietako tantai irmo aietako bat.

Eta..., egoera ortan iraun zuan il-arte. Eta egoera ortan dago, tinkoago oraindik bear bada, Jon Paul II'a.

Entziklikan, Paul VI'ak, --II Batikan-Kontzilioko "Lumen Gentium" oiñarri-legearen 25'gn atalak dionaren araura--, naiz bere utsezintasunarik erabilli gabe, animako osoasunari buruz Aitasantuak zerbait erakusten duanean, zerbait ori kristau orok egiazkotzat artu bear duala oroitzen digu.

Auxe da "Lumen Gentium" en 25'gn atal orrek dioskuna gaztelerazko itzulpen ofizialean: "Los fieles por su parte, tienen obligación de aceptar y adherirse con religiosa sumisión del espíritu al parecer de su obispo en materias de fe y de costumbres cuando él las expone en nombre de Cristo. Esta religiosa sumisión de la voluntad y del entendimiento de modo particular se debe al magisterio auténtico del Romano Pontífice, aun cuando no hable ex cathedra; de tal manera que se reconozca con reverencia su magisterio supremo y con sinceridad se adhiera al parecer expresado por él según el deseo que haya manifestado él mismo, como puede descubrirse, ya sea por la índole del documento, ya sea por la insistencia con que se repite la misma doctrina, ya sea también por las fórmulas empleadas".

Ez du atal onek ezer berririk agertzen; oroitzen ba'zera, orixe bera "barrendiko onezagutzea" eskatu bait zien Elizak XVII mendeko jantsenistei, aiek eskeintzen zioten "silentium obsequiosum" ura naikoa ez zala erabakiaz.

Baiñan 1968'an VI Pau'ek agintzen zuana, adimen osoz eta naimen apalez gogo-barrendik ontzat artu eta egizkotzat sinistu bearrak, samintasun, zalantza, ta kontzientziko kezka latzak sortu zituan elizgizon askoren artean.

Bearkizun ori arindu, eta baita kendu ere, egin nai izan zien Belxika'ko gotzaidiak kinka larri oietan aurkitzen ziranei, 1968'ko dagonillaren 30'eko "Azalpen" baten bidez. Entzun:

(Goian esan dugun "barrendiko onartze" artaz mintzatu ondorean), onela diote: "cette adhesion ne dépend pas tant des arguments invoqués par la déclaration, que du motif religieux auquel fait appel l'autorité sacramentellement institué dans l'Église".

"Si toutefois quelqu'un, compétent en la matière et capable de se former un jugement personnel bien établi, --ce qui suppose nécessairement une information suffisante--, arrive, sur certains points, après un examen sérieux devant Dieu, à d'autres conclusions, il est en droit de suivre en ce domaine sa conviction, pourvu qu'il reste disposé à continuer loyalement ses recherches".

Euskeraz:

Aitasantuari zor zaion eraspen ori ez da berak eman dezazkean arrazoietan oiñarritzen. Elizaren Agintaritza sagaratuak berea duan erlijiozko aalmenean oiñarritzen da".

"Alatagutziz norbait gai bateren-batean, azterketa zugur baten ondorean, eta, --norbait ori gai oietan yayo izanik--, azterketa ori egiteko argibide egokiak erabili ba'ditu..., eta bere aburua, naiz aitasantuarena bezalakoa izan ez, egiazkoa dala iduritzen ba'zaio, badu gai ortan bere aburua jarraitzeko eskubidea. Baiñan, bere azterketak leialki egiten jarraitzeko asmotan egon bear du".

Gero, eskubide ori erabiltzeko gai dirala uste dutenei, Elizaren almenik ez dutela arbuaiatu bear, esaten diete. Era berean, kristau-erriaren baitan, naasketa okerren bidez ("par une agitation malsaine") edo agintaritzaren izamena kolokan ipiñiaz ("par une mise en question du principe meme de l'autorité"), ez dutela animen osasunik arriskuan ipiñi bear.

Belxika'ko gotzaidiak ontzat artzen ote zuan XVII mendeko jansenitarren "silentium obsequiosum" ura? Ez noski. Bearbada, Akinas'ko Donetomas zeukaten gotzai aiek buruan; bai bait du arek itxura ortako iritzi bat, II Batikan-Kontzilioan asabek "Erljiorako Askatasuna" onartzeko oiñarritzat erabilli zutena.

Danadala, gotzaien esamesei jaramonik batere egin gabe tinko jarraitu zuan VI Paul'ek Entziklikan agindutakoa oso-osoan betetzeko eskatuaz. Eta aren bidetik dabil gure II Jon Paul bera.

Alabadare, gaur-egun senar-emazte katoliko asko, entziklikari bizkar emanaz, nai duten bezala dabilta, iare, aur-sorkuntzari dagozkion gai auetan.

VI Paul'en beste entziklikek ez dute artaraiñoko garrantzirik. Aurrena argitara emanak, "Ecclesiam Suam" izen darama. 1964'ko dagonillaren 6'koa da' Gaia: Elizak bere buruaz eta bere eginkizunetaz zer pentsatzen duan; eta gaurko gizadia irabazteko nola egokiagotu daitekean.

"Mysterium Fidei" deritzana (1965-IX-65) Eukaristiari-buruz idatzia da. Baditu iritzi oker batzuentzat zuzenketak.

"Mense Maio" (1965-IV-29) eta "Christi Matri Rosarii" (1966-IX-15) izenekoek Andra Mari'ren eraspenaz itzegiten digute. Azkenekoaren bidez Aitasantuak "Pakearen Eguna" eratu zuan; Jorraillaren 4'ean ospatzekoa; egun ori bait da ONU'n bere itzaldia pakearen alde egin zuan eguna.

1967'ko Ekaiñaren 24'ean, apaizak ezkongeak izateak berez duan duintasuna eta Elizarentzat duan egokitasuna goresteko, "Sacerdotalis Celibatus" idatzi zuan, birjintasunaren maitale aundia izan bait zan beti bera.

Ezin aipatzeke laga, alatagutziz, VI Paul izan genduala apaizei, apaizgoa utzita, ezkontzeko baimena ematen lenengo Aitasantua. Ots, apaizgoa, apaiz-kargua utzita, ez apaiztasuna; apaiz izatea, apaiztasuna, sakramentu baten emaitza dalako, betirakoa bait da; ezabatueziña.

Bost aldiz bildu zituan ludi osoko gotzaien ordezkariak Erroma'n beste orrenbeste Gotzai-Sinodoetara. Egia esatekotan ordea, orain arte beintzat, Elizaren altzoan Erakunde berria dan "Gozzaien Sinodoak" beragandik itxaro zan ziturik ez duala eman, aitortu bearrean aurkitzen gera.

Ez dira, alare, alperrikakoak gertatu, gotzai bakoitzak beste gotzaien kezkek eta asmoak ezagutzeko egokiak izan bait dira. Baita Aitasantuaren aurrean Eliz osoaren arazoak, oiñazeak, eta oldozkerak agertzeko ere.

Baiñan eman dezaketen uzta narorik ez dute oraindik eman. Ez bait dute ortarako bide egokirik ere oraindik aurkitu.

1968'ko Ekaiñaren 30'ean, meza ematen ari zala irakurri zuan "Jainkoaren Erriaren Kredo" k ere ez du giei gi balio. Lengo gauzak birresan besterik ez bait du egiten. Zearo tradizionalista agertu zitzaigun Kredo ortan Aitasantua, baita, Adan'en arazoan bezala, Eliz osoak oldozkeraz aldatu duan gaietan ere.

Askoz zabalagoa ibilli zan eukaristia artzea errezteko eman zituan arauetan.

Esan dugun bezala, Eliza artu zuan gai VI Paul'ek bere lenengo entziklikan: "Ecclesiam Suam". Entziklika ori ordeza pozgarria da, arraia, baikorra, itxaropen sendoz mamitua. Agian, Elizaren barruan itun, kezkatu eta itxaropenik gabe ikusten zituan elizkideen biotzak bizkortu nai izan zituan entziklika orren bidez Aitasantuak. Badirudi bâ badutela kristauek zertaz kezkatu aski!

- "Mixiolurretatik datorzkigun albisteak iruzurgarriak zaizkigu: an, bataiatuak bi ba'dira, jaiotakoak lau edo bost izaten bait dira. Orrela, gero ta txikiagoa izango da lurralde aietan Eliza".

Egia da elizkide bildurtuen murmur itun ori, eta galde kilikagarri bat eskeintzen dio gure jakin-gura ase-eziñari: ¿Iritxiko al da noizbait Eliza gizadi osoa Eliz biurtzera? Erantzuna Jainkoak bakarrik eman dezaiguke. Ez da gaiñera Elizarentzat arazo larriegia. Elizak, egin bear duana, al duan erarik onenean Berri Ona zabaltzea da. Berri Onari erantzun-ematea ez da Elizaren arazoa; entzuleena da; eta Jainkoagandiko graziarena.

Orregaitik, lenen-denboretako Eliza ez zuan arazo orrek kezkatu. Eliz aundi eta zabal bat baiño Eliz txiki eta bizkor bat irasten geiago saiatu zirala dirudi Kepa, Paul, beste Apostoluek, eta aien ondorengoek.

Erdiaroa amaituz gero, Eliza "Kristaudi" erdi-politiko biurtzeko guraria kristauen biotzetan aspaldidanik ondo tinkaturik zegoanean, eta, portugaldarrei eta españiarrei eskerrak mixioetarako bide berri zurrak iriki ziranean piztu zan kristauen artean Eliza len-bait-len eta al zan geiena zabaltzeko irrika bizia.

Eta orduan, azkarregi eta ariñegi, eta batere aurre-prestaketarik gabe jendea bataiatzen asi ziran jentillen artean gure mixiolariak. Ez ditzagun zakartu. Ziur uste bait zuten gizon santu aiek, bataiorik gabe iltzen zan oro inpernura joaten zala. Bildurra damaigu gaur misiolari aien eskutitzak, Xabier'ko Donefrantzisko beraren eskutitzak adibidez, irakurtzeak.

Baiñan, lenen mendeetako Eliz arek ez zuan jendea ain errez bataiatzen. Oroi denbora aietako katekumenitza. Orregaitik gaur ere beste era batera ikusten dira gauzak. Alde batetik badakigu Elizaren alorra ludi

osoa dala. Bestetik, badakigu urezko bataiorik aartzen ez dutenak ere salbatu daitezkeela, gogozko bataioaren bidez.

Saia bedi Eliza mundu guziari Kristo'ren Berri Ona aldarrikatzen, eta utzi beza erantzuna entzuleen eskuetan.

- Garrantzi aundia eman oi zion VI Paul'ek kristauen batasuna lortu bearrari, eta saiatu zan al zuan guztia kristau eta ezkristauen arteko zuloaren gaindik zubi bat edatzen ere" (Grolier Univ. Ency.).

- Leiala izan zan Sortaldeko Eliz bereziekin. Ala, 1968'an, Ejito'ko Eliz Kopziar bereziari eman zion Marko Donearen gorpuzkifia.

1965'ean, lau Patriarka sorkaldetar katoliko egin zituan kardenal: Maximos Saigh melkatarra, Paul Kepa Meuchi marondarra, Ezteban Sidarus kopziarra, eta Jose Slipyj ukraniarra. Sarkaldetarrekin kidatu ezkerro, asko, baita geiegi ere, baziran lau kardenal aiek, beren Elizetako kristauak Sarkaldekoen aldean ain gutxi ta urriak izanik.

- Oso kutunki begiratu izan zion Inghlanderriko Eliz anglitarrari ere. "Egizu Kanterburi'ko Goigotzaia nere leiarik aundienaren jabe. Berak ondo dakian bezala, nere lei ori gure bi Elizen batasuna bait da. Egin bedi batasun ori Jainkoak ortarako aurre-erabakirik daukan egunean. Eman eiozu Kanterburi'ko Goigotzaiari nere gogo bizi orren berri", eskatu zion beregana urbildu zitzaion Inghlanderriko enbaxadariari.

Ondo ulertu zuten ori gure anai berezieiek. Ikus Aitasantua il zanean Jinebra'tik "Elizen Ekumene-Bazkunak" bidalitako naigabe-agurraren muiña:

- "Ez dugu aztu, eta esker onez oroitzen dugu, 1969'an Jinebra'ra egin zigun ikustaldia, eta, guk emendik daramazkigun lanei-buruz, agertu zigun ardura. Gure otoitzik ez zaio une ontan peituko.

- "Bere aitasantutzari eskerrak, urratu dira bide berriak, Elizen batasuna lortzeko.

- "Eredu zuzen izango da guztiontzat Ebangelioaren serbitzura erabilli duan zintzotasuna.

- "Argi erakutsi digu Eliza pakearen alde lan egitera bearturik dagoala, eta erakuskizun ori ez dugu beifere kristauok aztuko.

- "Beartsu guztien aingeru zaindaria izan da. Oiartzun sakona lortu dute, borondate oneko gizonen biotzetan, gu guztion erantzukizuna esnaarazteko egin dituan eta erakutsi dituan gauzek.

- "Eliza Katolikoaren altzoan, bere elizkideei, ekintza-bide berriak azaldu dizkie. Ez da ori azturik eta antzu geldituko.

- "Jinebra'n, iru baldintza aipatu zituan bearrezkoenak bezala, kristauen batasuna burutzeko: Kristo'ri eta aren Itzari leialtasuna; Gogo Deunaren ariketari erantzun apala; eta gure artean guk, batak besteari, laguntza zabal maitekorra.

Ondo ezagutu zuten Jinebra'ko gure anai berezieiek VI Paul Aitasantuaren gogo-biotz-adimenetako edertasuna.

- "Gero ta gutxiago dira Elizan apaizak. Zer egin bear du Elizak apaizik gabe"? Orra or bigarren arazo bildurgarria.

Arazo berdiña: ¿Zer da ohea Elizarentzat: apaiz aul asko, edo apaiz zintzo gutxi?

Danadala, egia dugu, apaizen kopurua era kezkarria urritu zaigula. Ona zenbaki batzuk:

1973'garren urtean apaizak eta mezako prailleak 433.089 ziran mundu osoan. 1983'garrenean, 406.376. Orrek, apaizen kopurua %6'ean jetxi zaigula, diosku, 10 urteen epean. Goitik-beeraketa ori nabarmenagoa da oraindik epe luzeago bateri so-ba'dagiogu. Iku:

Frantzi'n 1904'ean 58.400 ziran apaizak; 1985'ean, 28.629. Ots: erdial Eta bitartean, --apaizak bi aldiz gutxiagotu diran bitartean--, bi aldiz aunditu da Frantzi'n jendetza.

Apaizen urritze ori zergaitik? Saia gaitzen erantzuna billatzen, baiñan oroi dezagun aurretik, leen ere esanik utzi dugun bezala, gure anai protestalarien eta ortodoxiarren artean ez dala arazo au orren bizia. Geiago oraindik: toki askotan ez dutela, Alemani'n adibidez, orrelako arazorik protestalariak. Ezta Laterri komunistetako zigor-pean bizi diran katolikoeak ere --bokazioei dagokienez--.

Arrazoi asko aurkeztu oi dira, gure artean oraindik bizirik diran arazo au adigarri biurtzeko: Gaur-egungo sendiek seme gutxiago dituztela; jendea obeki bizi dala eta gaiñera gero ta bizitza atsegiñagoa ta lasaiagoa nai duala; sinismena auldu danez gero, apaizek ez dutela gizadian len bezalako itzalik, eta orregaitik, apaiz izatea ez dala gazteentzat kilikagarria agertzen.

Bedi. Baiñan ori dana gertatzen da protestalarien artean, eta gure anai oiek ez dute arazo au gurea bezain larria.

Elizak berak erabili duan ekintza-eran bertan ere idoro genezake arazo au argitzeko arrazoi bat baiño geiago:

- Elizak asko goraiatu du, --eta orrela bear ere--, ezkontzako sakramentuaren duintasuna; eta guraso izatearen edertasuna. Bizitzako egoera guztietan lortu dezakeala kristauak len, itxuraz, apaizgoak bakarrik eskeintzen zuan santutasuna, dio orain Elizak ederki; eta ori, len baiño sarriago eta sendoago erakusten du.

- XI Pio'k Katoliko Ekintza sortu zuanean, apostoladutzarako bide berriak iriki zituan gure gazteentzat: ordurarte apaizgoak bakarrik aurkezten zituan bideak.

- Len apaizek, "animak salbatzeko" asmoz artzen zuten apaizgoa. Orain, kristau sekularrak ere apostolu izatera beartuak daudela, gure gazteek badakiten ezker, "animak salbatzeko" ez dute apaiz egin bearrik.

- Len, pekatua, inperua ta bildurra, ziran gure jauretxeetako itzaldien gairik oiturazkoenak. Gaur, pekatua azturik-edo daukagu; inperurik ez du ifork aipatu ere egiten; maitasuna eta errukia, eta Jainkoaren ontasun orokorra dira gure itzaldietako gaiak.



Orrek danak, jakiña, Apaizgaitegietako bideetatik urrundu ditu gure mutilak, eta konbentuetako atarrietatik gure neskatillak. Zerua lortzeko gogozko bataioa naikoa dala jakiteak ere, ez al digu gure mixiolarien kopurua gutxitu?

Egia da, azkeneko urte auetan gero ta gieago dirala 1979'az gero, apaizgora iristen diran gizasemeak: 5.765, urte artan; 7.169, amar urte geroago. Azitzen ari da apaiz izateko ikasketak egitera urbiltzen dan gaztedia ere: 63.795, 1973'ean; amar urte geroago, 77.044.

Poliki-poliki bere apaizdia osotzen joango zaigula gure Eliza, adierazten digute zenbaki alaigarri oiek. Oso-poliki-poliki. Gure apaizak, gero ta zarragoak diralarik, iltzen ari bait zaizkigu; eta urtetik urtera sail aundiagoan: 7.259 il ziran 1973'an. Eta 7.325, 1983'ean.

Frantzi'n dugu larria, ildakoen tokiak betetzeko bear aiña apaiz ez sagaratze orren arazoa, urte askoz, gutxitzen joango bait da oraindik, era nabarmenean, ango apaizen kopurua. Estadistik-iztiak dioskunez, 1995'ean ez ditugu Frantzi'n 20 millatik 21 millara apaiz sekular besterik izango; eta 13 millatik 15 millara besterik ez 2005'garren urtean! Ori, Frantzi'n ere apaizgaitegietara dijoan gaztedia ugaritzen ari dala! Ez ordea bearrezkoa litzaken kopuruan, ilko diranen utsunea betetzeko.

Egia da estadistik-jakintza ez dala jakintza ziurra. Baiñan bai kontuan artu bearra dana.

Egia da baita're gaur-egungo apaizen urritasun ori ez dala Elizarentzat il-edo-bizizko arazoa. Apaiztasuna bizitzeko era aldatu bait dezake Elizak, gura ba'du. Gure anai bereizien artean apaizak eta "artzaiak" gizaseme ezkonduak diralako, errazagoa dute apaizgorako bidea. Bâ, apaizak ezkontzeko baimena eman lezake gure Elizak ere. Eta apaiz sagaratuei ezkontzeko baimenik eman nai ez ba'die ere, gizon ezkonduak apaiz sagaratu dezazke.

Ta..., dirudian bezala bere apaiz guztiak ezkongekak izatea nai ba'du ere, diakono ezkonduak ugarituaz, eta lengo "ordena txikiak" berbiztuaz, ederki azi dezake, beren bizia Elizaren serbitzura era bereizian ipiñi gura duten elizkideen kopurua.

Zearo beste erabateko auzia dugu, emakumeen apaiz-sagaraketa. Auzi ori teologiari dagokion auzia ote dugu?, edo, soilki, legiztiari bakarrik dagokiona? Ez da erreza erantzuna, gaurkoz beintzat. Baiña aztertu bearko du Elizak arazo ori sakonki, indarrez bait datorkigu azkortzen munduan, "emakuntza" edo "feminismoaren" ugalde zaratatsua.

- "Egunetik egunera ari da jetxiagotzen mezara joaten dan jendea, batez ere gaztedia. Fedea ukatzen ari zaizkigu kristauak"! Orra elizkide bildurtien irugarren kezka. Zer erantzun?

Lendabizi, arazo ori Eliz Kristau guztien arazoa dala. Bigarren, elizara ez joateak, mezara ez joateak, ez duala esan nai fedeari uko egin zaionik. Zabarkeri utsa izan bait daiteke!

Fedea ukatzea, apostasia da. Nik ez nuke esango gure kristau urrunduek apostasira jo dutenik. Zerbait esatekotan, geiago esango nuke zismara joan zaizkigula. Beraiek oartzeke, jakiña. Zismara, edo erejira.

Kristau oiek, fedea ukatu baiño geiago egiten dute, Elizaren egi batzuk edo agindu batzuk ez ontzat artu.

Europa'n eta Ameriketara jendeek, ia danek, kristau dirala esango dizute ezpairik gabe. Alatagutziz, bereala, galde egiten ba'diezu, beren Elizetako egi bat edo beste ez dutela sinisten aitortuko dizute. Ez dutela adibidez, inpernua sinisten, edo giza-gogoaren ezilkortasuna, edo Jesukristo'ren jaungoikotasuna. "Eta ori, gertatzen da mezara joaten diran katoliko batzuen artean ere. Gero, ez dutela lutasuna sinisten, esango bait dizute: "Chez ces chrétiens fidèles aux offices, mais qui pour une bonne part ne croient plus à des dogmes aussi centraux que la Trinité" (Clévenot-Le Corre).

Sinispidea baiño maizago, Elizaren aginduak dira iganderoko meza-entzule katoliko askok ezetsiko dizkizutenak. "Humanae Vitae" entziklikaren aginduak, adibidez. Eta baita ezkontzausteari eta aurgaltzeari-buruzkoak ere.

Beste askok, Elizako agintariei egingo diete muzin; "Eliz-Erakundeari", beraiek esan oi duten lez. Eta Jerarkiari bizkar-emanaz, "Eliz iareak" sortuko dizkigute. Edo "Oinarriko Elizak"; izen dotore onen estalketapean danetatik aurkitu bait daiteke: kristaudi zintzoak, eta ia osoki zismaraiño jausita dauden kristau-saillak.

Ezin ukatu dezaieke, iñork, Oinarrizko Eliz oiei sentipen on ederrik; ezta puntu askotan arrazoi dutenik ere. Baiñan gauza bat aztu zaie. Elizarik ez dala Eliz-Erakundetik kanpo. Ez beintzat Kristo'ren Eliz kristaurik.

Sentipena aipatu dugu. Eta orixe dago geienik igikunde oien azpian: sentimentala! Eta, oartzeke, arrazoiketari gorrotoa. Iare bizi naia. Norberekoikeria. Autoritateaganako erdaiña. Jainkogabekeria aztertzerakoan aurkitu aal izan genituan akats aiek berak.

Alatagutziz, badute kristau oiek erlijioaganako zaletasuna. Baita kristautasunaganantzko arrimena ere. Ez bait dute kristautasunik oinpetzen. Soilki, Elizaren dotriñatik atsegin zaiena bakarrik artuaz, bakoitzak bere apeten neurrira; eliz bereizi bat eratu nai dute.

Ez dago beraz antzu lur ori ere, bere erraietan Elizaren azia osterara artu aal izateko.

Oroi gaiñera elizara jende gutxiago joaten ba'da ere, len baiño zintzoago egoten dirala bertan arâ joaten diranak; eta sakramentuak artzera len baiño askoz geiago urbiltzen dirala.

Erljioaganako zaletasunaren adigarri dugu Josukristo'ren, Andra Mari'ren, edo Santuen, agerketei egin oi zaien arrera gozoa.

Agerketa oiek ludi osoan gertatzen dira; Europa'n, Ameriketean, Asi'n, Afrika'n eta Ozeani'n. Errialde kristauean, (Filipinetan edo gure kristaudiko erri zarretan adibidez), eta oraindik ia oso-osoan jentillak diranetan (Indi'n, Japoin'en eta abar), Errusi bezala komunismopean dauden Laterrietan, edo, Suizi'ren antzera, demokrazizkoetan.

Eta e'zazula uste agerketa oiek erri ezjakifiñen artean ugariagoak diranik. Suizi eta Japoin ez dira noski erri ezjakifiñak. Gaiñera bai al dakizu, Andra Mari-edo agertu dalako toki santu oiek non dituzun? Geienak Itali'n (82), Frantzi'n (66), Belgika'n (24) Alemani'n (beste 24), Laterri Alkartuetan (11), Suizi'n (6), Irlanda'n (beste 6), Olanda'n (4), Txekoslovakia'n (beste 4), Poloni'n (5), Portugal'en (4). Beste 4 Brasill'en eta 3 Kolonbi'n, eta beste orrenbeste Sobietarren Alkartean. Al; Ta Kanada'k 12 izan ditu edo ditu!, ta Españi'k (Euskalerrria ere bertan sarturik), 16.

Oker zabiltz agerkunde oiek gero ta gutxiago izango dirala iduritzen ba'zaizu. XIX mende osoan 216 izan ziran. XX mende onen aurreneko 75 urteetan 310. Guztira, epe bikoitz ortakoak baditugu munduan 571 agerkunde-toki.

Agerkuntza oietatik, 15 bakarrik onartu ditu Elizak. Ez zaie gure kristau askori orregaitik ajolik. Esan dugu, begirune gutxi diola gaurko jendeak Autoritateari. An edo emen Andra Mari agertu dala entzuten ba'du, aruntz abiatzen da pilloka gure jende kristaua. Elizaren iritziaren zai egon gabe.

"Zer nai duzute nik egitea?, --esan-berri du Nantes'ko Goigotzaiak, landa aietako menditxo batean Andra Mari agertu dala-ta, aruntz joaten dan jende-pilloaren eraspén biziari-buruz--. Nik agindu diet apaizei Eliza mintzatzén dan artean, andik urruti gelditzeko, baiña jendea ezin izango dut ertzaiñen bitartez uxatu. Badakizute noski. Gure garaiotako gizakumea, gizakume "moderno", mundu onek eskeiñi dezaiozkean gauzetaz asperturik dago. Oartu da ez diotela biotzik asetzen; ta biotz ori asetzeko, beste mundutikoa iduritzen zaion ororen atzetik dijoa".

Badu Elizak gizon "moderno" orren egarriari erantzuten zer-egiñik askil

Sentimenezkoa, arrazoiketarik gabekoa, iaretasunezkoa, adimenezkoa baiño geiago biotzezkoa dan erlijio-era orren antzekoa dugu, gure Elizan indar aundia artu duan Pentekoste-igikundeá.

Laterri Alkartuetan jaio zan; eta protestalarien artean. Eliz ofizialek biotzetiko Jainko-egarri ori asetzen ez zietelako, protestalari batzuk, taldean bildurik otoitzean asi ziran otoizketa aietako batean. "Gogo Deunaren bataioa artzen dudala sumatzen dut nere baitan", jakifiñarazi zien taldekideei Ines Ozman ikasle gazteak, Kansas'ko Bibli-ikastola batean, joan dan mendearen asieran.

Tximistaren arintasunez zabaldu zan protestalarien artean, egun artan jaiotako "pentekostalismoa".

Une berean, izan omen zan Bretaini Aundiko Gales'en Kansas'koaren itxurako "renewal" edo "bir-berritze" bat protestalari-talde baten altxoan, baiñan "the charismatic movement" Laterri Alkartuetatik zabaldu zitzaigun. Eta Eliz ofizialek begi gaiztoz ikusten bait zuten "kristau birpiztu" aien ariketa kutsukorra, Eliz Ofizial zarrak utzita Eliz berriak, "Eliz Pentekostetarrak" sortu zizkiguten lenen karismazale auek.

Katolikoen artera, pentekostalista protestalariengandik igaro zan karismazaleen igikunde. Laterri Alkartuetan gertatu zan ori ere. Pensilbani'n; Pittsburg'eko Dukese unibersitatean, 1967'an.

Protestalariak izan ziran katolikoei "Gogo Deuna emateko", buru-gaiñean eskuak ezarri zizkietenak. Urte ortan bertan igaro zan, pentekostetza katoliko au, Indiana'ko Notre Dame unibersitatara, eta Mitxigan'ekora.

Pizturik zegoan txinparta, bereala edatu zan Laterri Alkartu guztietara, Kanada'ra, eta Europa'ra. 1972'ean etorri zan, Mitxigan'dik, Frantzi'ra. Lenago, praille apaiz batek eraman zuan Kanada'ra. Protestalaria zan eskuak ezarriaz praille ari Gogo Deuna "eman" zion emakumea.

Zenbat diran karismazaleak gaur? Pentekostalista protestalariak, 14'ren bat milloi. Baiña beste Elizak baiño 9 aldiz geiago ari dira munduan ugaritzen Eliz Pentekostetarrak!

Karismazale Katolikoak zenbat diran jakitea zaillagoa da. Laterri Alkartuetan 50.000'tik gora ziran 1971'ean. Kanada'n, Kebek probintzian bakarrik 40.000 omen ziran 1979'an, baiñan gutxitzen joan omen dira arrezkero. Frantzi'n, "Emmanuel" izeneko talde batek bakarrik, bai omen ditu 3.500, eta oietatik 2.800, Frantzi'ren barruan; besteak, mundua-zear.

Igikunde, zabaldu da Komunist-Errietara ere. Alkarte Sobietarrak, Ungari'k, (amar taldekideko 100 talde Budapest'ek bakarrik), Sortaldeko Alemani'k, eta Yugoslabi'k, badituzte karismazale katolikoak. Yugoslabi'ko Kroazi'n, Zagreb'ko seminarioan 400 gazte biltzen dira astero; eta Eslobeni'ko uriburu dan Ljubiana'tik 200 gazte joan ziran Frantzi'ko Paray-le-Monial'en karismazaleek egindako billera batera.

Gaur, mundu guzian daude karismazale katolikoak zabaldurik. "Le mouvement du Renouveaus a, en quelques années, irrigé, voire submergé, l'Eglise catholique" (Clévenot): "Birberritze-igikunde onek ezetu ez ezé bere ugaldean murgildu ere egin du Eliza Katolikoa".

Beren oldozkera nolakoa dan jakiteko, entzun Lobaina'ko "Revue Théologique" k beraiengandik jasotako aitorpen auek.

- "Pentecostalism is not a theology, but an experience" (O'Conor): "Pentekostetza ez da teologi bat, ezperientzi bat baizik. "Teologisistema bat baiño geiago, izpirituzko igikunde bat duzute Pentekostetza". "A movement, a spirituality". "Gure barnean bizi dala sumatzen dugun zerbait da. Bizi orrek bizi gaitu. Bizi ori eman nai diegu

besteei". "Ez da pekatutik grazirako itzulpen bat; Jaungoikoaren aurrean egoteko era berri bat da". "Orain arte gure kristau bizitza, gure ekintza bat izan da. Orain ordea Gogo Deuna da gudan ari dana".

Orrela, zentzu berria artzen omen dute sakramentuek, otoitzek, liturgi osoak, eta Idazti Doneen irakurketak, Gogo Deunaren bataioak "karismen goxotasunaz gure karismazaleok igurtzi dituaneez gero".

"Karisma" itzak, "doaia" esan nai du, eta iru dira karismazaleek Gogo Deunarengandik artu gura dituzien emaitza bereziak: biotzeko barrenpoza, sendaketak egiteko almena, eta "glosolalia" edo "izkuntzetan mintzatzeko" doaia.

Glosolalia au, nik ezagutzen ditudan karismazaleen taldeetan, zentzurik gabeko bla-bla-bla bat besterik ez da, eta ala izan bear du beste talde guztietan ere, H. Hine, pentekostetza sakonki aztertu duan psikologilariak dioskunez.

Talde bakoitzean izan daiteke marmari ulerkaitz orren azalpena ("interpretazio"), ez itzulpena ("traductio"), egiteko doaia Gogo Deunarengandik arturik daukan taldekide bat ere.

Itzak-erabiltzen-ez-dituan-marmariketa ori kezka oroz zurituta pentekostalista ez geranoi ontzat arrerazteko, ona zer esan oi duten pentekostalistek: biziro adierazi nai duguna adierazteko itza baiño bide obeak bai omen ditugu; kiñua adibidez, edo irria, negarra, uluak, eta "ai"!, "ee"!, "oo"-ren antzeko zentzurik gabeko ago-otsak.

Idazti Deunak ere esaten omen du (Rom. 8,27) "itzak baiño adierazmen bizkorragoa duten asperenak" badirala.

Danadala, "interpretatio linguarum" doi berezia lez aurkezten digu Paul Doneak.

Igarketa edo profeziaren doaia artzen dutenak ere bai omen dira, naiz ain ugari ez, gure karismazaleen artean. Geienetan, igarle oiek diotena, danek lendik badakiten gauza izaten omen da, baiñan indar eta doñu berriz esana.

Karismazaleak, elizara oso maiz, al duten guztian, joaten diran kristau eraspenkorak dituzu, baiñan beraien ekintza kuttuna, taldeetan bilduta astero alkarrekin egin oi duten otoitza da. Amarren batek osatzen dute geinbat talde bakoitza, baiña geiago ere bildu daitezke. Talde bakoitzak badu otoitzerako "zuzendari" bat, eta askotan zuzendari ori ez da apaiza izaten.

Kezkatsu begiratu oi die Laterri guztietan gotzaidiak pentekostetza katoliko oni.

1969'an eman zien Laterri Alkartuetakoak karismazaleei aurrera jarraitzeko baimena, "meza, beste sakramentu eta Elizak beti erabilli oi dituan gañerako eraspen eta gurrketa-era zarrenganako zaletasuna karismazale aien artean berpizturik ikusten zualako".

Baiñan..., igikundearen ibilketari adi egotea erabaki zuten gotzaiek an!

Eman zien ongi etorria, karismazalei, VI Paul'ek ere. Eta ona zer esan zien II Jon Paul'ek 1981'ko orrillaren 7'an Erroma'n: "Le mouvement de Renouveau (Birberritze-igikundea) une chance pour l'Église et pour le monde, (Elizarentzat eta munduarentzat adiontasun bat) dala esan zizuen VI Paul'ek. Sei urte geroago esakizun arek adierazi nai zuan itxaropena ziturik gabe ez dala gelditu ikusteko eran aurkitzen gera. Ezagutu bait ditu Elizak, zuen, otoitzerako leia, bizitza donetutzeko ardura, eta gogo-bizitzari ta Jainkoaren Itzari diezuten maitasuna".

Alatagutziz, kezka begiraten omen dio Frantzi'ko gotzaidiak igikunde oni (Clévenot); eta ez arrazoirik gabe, karismazaleek beren otoitzaldi, otoitz-zuzendari, eta bitartekorik-gabeko-Gogo-Deunaren-ariketaz bakarrik baliaturik, Elizatik-at bizitzeko arriskua bait bait dute, naiz arrisku ori, gaur, aski ezabaturik dagoala iduri.

¡Ain errezki, gaiñera, karismazaleen giro epel gozoan edozeiñek bere iritzia Gogo Deunaren iritzi biurtu lezake...!

Badu, baita're, nere ustez, igikunde onek beste arrisku bat: "ebasio" edo "igeskuntzaren" arriskua. Kristauak, mundua kristautzen saiatu bear du. Eginkizun ortatik arrisku eta neke gutxigokoa dan otoizketara iges egiteko arriskua du igikunde onek, aundia.

Otoizketa, kristau guztien eginkizuna da, bai noski. Baiñan otoizketa utsa lekaide eta lekaime kontenplazaille edo "gorabegiratzaille" da. Beste guztion eginkizuna, apostoladutza da, kristau-ekintza, otoiz-egiterik aztu gabe. Eta kristau sekularrena berriz, bereiziki, mundua-zuzentzen-eta-gobernatzen-duten-erakundeak kristautzea.

Nik ezagutzen ditudan karismazaleen taldeak beintzat oso-osoan jausi dira igeskuntzako arrisku ortara, eta beren zer-egin nagusitik iges eginda, otoizgintzan izkutatu dira.

Eta dirudianez beste orrenbeste gertatu da emendik landa toki askotan ere, Kanada'ko taldeetan gelditu diran jendeen tankerak adierazten digunez: Jende oiek geienak "des femmes d'age mur", "adifnean sartutako emakumeak", eta; aien artean, asko, lekaimeak omen dira; eta kulturaz, eta lankerari dagokionez, "membres des classes moyennes", "erdi-maillako jendeak".

Orrelakoak dira nik ezagutzen ditudanak ere. Eta zearo kontserbatzaille edo lengoa-gordezaleak gaiñera, bait katolikotasunean, bai politikan.

Alatagutziz, arrazoi duala deritzait "digitus dei est hic", ots, "jainkoaren beatza eman dagoala" dionak (Giblet). Baiña orrek igikundea arras ona izan daitekela esan nai du, ez ona izango danik. Jainkoaren beatzak gure beatzen laguntza eskatzen bait du mundu ontan lan egiteko.

Ori eskatzen dute Gogo Deunagandiko karismek, eta Gogo Deunaren

etorrerak berak ere. Bataioan, kristau guztiongana etorri zan Gogo Deuna; Sendotzakoan ostera berriz; eta apaiz egin gifongana, sakramentu ori artzerakoan irugarren aldiz. Baiñan, alatagutziz, munduarentzat gureganuntzko etorrera oiek miresgarriki zitugarri izan dirala, ez dut uste askok beintzat esan dezakegunik.

Orregaitik pozik irakurri dut, Frantzi'ko talde batzuk, "Emmanuel" adibidez, beren doaiak apostolutza-lanerako erabiltzen asiak dirala; (C.F. Jullien).

Ez dut esan, karismazale asko komunitate-egifiaz, ots, danak batean sendi bat bezala, bizi dirala. Alkarte edo komunitate oietako batzuetan, duten guztia eramaten dute alkartekideek, danena izan dedin; beste batzuetan, irabazten duanaren zati bat eramaten du bakoitzak.

Gasteiz'en "Kristaudi Ikastalditxo" edo "Cursillos de Cristiandad" diralako oien altzoan, ssrtu zan pentekostetza, Nikaragua'tik ekarritako txinpartaren eragifiaz, eta Gasteiz'tik zabaldu zan Españiar-Laterriko baztar askotara. Gasteiz'en, igikunde orrek, zero moteldu zituan, ordurako ekintzaren arloan aski motel eta jendez usturik zeuden Kristaudiko Ikastalditxoak. Are geiago, il egin zituan; Ikastalditxoen erakundea, oso-osoan, pentekostetza biurtu bait zan.

Alatagutziz, onera etortzean Ikastarotxoetan aurkitu zituan ondar aiek ez bait zuten agian ekintzarako geiegi balio, on aundia egin du pentekostetzak emen jende aiek danak bere altzoan artzearekin.

Ekintzarako ez zutela balio esatean, Katoliko-Ekintzak bereiziki berea duan ekintzarako ez zutela balio esan nai dugu.

Gizadia tajutu, zuzendu, eta jaurtzen duten erakundeak danak kristautzea, eman zion Katoliko Ekintzari, zer-egin bereizia lez, XI Pio'k, ekintza berri au irasi zuanean. Eta ain zuzen, Mallorca'ko Palma'n Katoliko Ekintzaren altzoan sortu zan Kristaudiko Ikastalditxoen igikundea 1949'ren urtarrillean. Gero, bereala zabaldu zan Españi'ra eta Egoamerikara. 17 urte geroago, munduko bost zatietan ematen ziran Kristaudiko Ikastalditxoak.

Badute Ikastalditxoek pentekostetzarekin zer ikusirik, bietan arrazoiketa baiño geiago sentimena bait da nagusi. Baiñan Ikastalditxoak ekintzara pentekostetza baiño askoz itzuliagoak ditugu. Ez ordea Katoliko Ekintza Erakundeak berea duan ekintza bereizira, ots, Munduko Erakunde Nagusiak kristautzera, kristau bakoitza bir-kristautzera baizik, ori omen zan bâ beren elburua: kristauei "kristautasunaren mamia bizitzen erakustea": "la vivencia de lo fundamental cristiano".

Jatorrizko obena izan dute moztasun ori Kristaudiko Ikastalditxoek, Franko diktatore zala jaio bait ziran. Gauza ezifia zuten Laterriko Erakundeak kristautzen astea. Ez zitzaien orduan Españi'ko Erakunde Nagusiei kristautze sakon eta orokor baten bearrik peitzen. Baiñan Franko'k ez zien Ikastalditxoei orrelako ekintzarik utziko. Eta, ezta, Palma'ko Gotzai zan

Hervás beragandik asita, guztiak ain frankozaleak ziran beste gotzaiek ere.

Agian orregaitik, "irugarren munduko" errialdeetara bakarrik sartu ziran lkastarotxoak. Europa'n berriz, Españi'tik eta Portugal'etik iritxitako jende landerraren artean soilki zabaldu zitzaizkigun.

Gaur, erdi illik daude. Igikunde bikain ortako zuzendariak ez dute jakin bere barruan sortzen dan indar zoragarria elburu egokira zuzentzen, ots, XI Pio'k Katoliko Ekintzari eman zion elburu artara zuzentzen.

Katoliko Ekintza, "Erakunde" bat izateaz gaiñera, "Ekintza" bat ere bada. Gaur bearbada, iñoiz baiño garrantzitsuagoa dugun ekintza: politikaren, soziologiaren eta kulturaren arloan, gizadia tajutzen duten Erakundeak kristautzea! Eta ekintza ori karismazaleek eta ikastalditxozaleek egin dezakete ongien; bi igikundeetan ziurki bait dago "Jainkoaren beatza"! Asmatuko al du gure Elizak bi erakunde oien indar goitiaz balliatzen!

Ori baiño zaillagoa zaio oraindik gaur-eguneko Elizari Sorkaldeko Eliz "Uniata" edo "Erroma'rekin Alkartuetaz" zugarri balliatzea.

Ikus dezagun aurrena, Eliz oietako kristauak oraintxe zenbat diran:

- Kopziarrak, Ejito'n, 150 milla. Etiopi'n, 112.000. Oso gutxi, Ejito'ko Kopziar zismatikoak 2.500.000, eta Etiopi'koak 14 milloi bai bait dira.

- Libano'ko Eliz Marondarra. Beti, katolikoa izan da. 1.669.000 kristau ditu.

- Siriar-Eliz Jakobatar katolikoak, 96.000 elizkide ditu. Zismatikoak, 150.000.

- Ego-Indi'ko Siri-Malankar katolikoak 266.000 dira. Zismatikoak, 1.000.000.

- Ego-Indi'n bertan, Siro-Malabar Eliza 3.875.000 elizkidek osotzen dute; eta gaur-egun, siro-malabar zismatikorik ez da.

- Kaldear-Eliz katolikoak baditu 410.000 elizkide, Irak'en. Kaldear zismatikoak oso gutxi dira. Irandarrak danak.

Oiek danak. Kaltzedoni-aurreko Elizak dituzu. Ona, orain emen Kostantinopla'ko Eliz Ortodoxiarren altzotik sortuak. Eliz auetatik oraindik zisman dirautenen berri eman dugu beste toki batean-da, beraien alboan sortu diran Eliz Katolikoan aipua bakarrik egingo dugu emen:

Grezi'ko Eliz Uniatak, 2.700 elizkide ditu; Ungari'koak, 273.000; Itali'ko Greziar-Elizak, (Itali'ren egoan), 69.000; Melkatarrak, 978.000; Errumani'koak, 1948'garren urtean 1.562.000; Errusi'koak, 3.000; Erruteni'koak, 462.000; Ukrani'koak 4.340.000 zituan 1943'ean, Gaur bere berri askorik ez dugu. Ez dugu Txekoslobaki'koaren berririk ere. 1943'an 387.000 zituan. Yugoslabi'koak, Serbi'n, 49.000 ditu. Ukrani'ko eta Errumani'ko uniatak, legez, Laterri aietako Eliz Ortodoxiarretara sartuak izan dira, eta gaur nola dirauten ez dakigu.



Eliz auetaz baliatzea gauza zaila izango zaiola Elizari, esan dugu. Sorkaldeko Eliz guztien batasuna egitearren Erroma'ko Elizak denbora ontan artu duan bidetik aurrera jarraitzeko, oztopo omen zaizkio bâ Eliz Uniata oiek, ekumenezale batek baiño geiagok uste duanez. Egia da Sorkalde Kristau Zismatikoak oso begi txarrez ikusi dituala beti gure Eliz Uniata guztiak.

Ain bizitza latza izan duten Eliz oiek ordea ondo irabazia daukate katolikoon maitasuna. Gaiñera, Eliz guztien Batasuna noiz egingo dan ez dakigu-ta, bear-bearrekoak ditugu Eliz Uniatak. Kristo'k irasitako Elizaren Buru bakarra Aitasantua dala ezagututa, beren liturgi eta oiturak galtzeke katolikotasunera itzuli-bearrean aurkitzen dirala ikusten duten kristau sorkaldetarrentzat.

1968'ko dagonillaren 6'ean il zan, pake santuan, VI Paul Aitasantua, "gure aita" latifnez esanaz eta ingurukoei eskuz agur egiñaz. Fede aundiko, eraspén biziko, eta guztientzako maitasun sendoko gizona izan zan.

Ludiko politikari dagozkionetan "Pablo VI era profundamente democristiano. Creyó que era éste el camino que convenía a la Iglesia de su época. El futuro dirá si tuvo o no razón" (Lesourd-Benjamin. Gaztelera-tzaillea, M. Ureña).

Kristautasunari dagozkionetan berriz, bere bizi guzia eskeiñi zion Elizari. Elizaren batasuna izan zan bere ames goxoa, eta ez zituan kristau ez ziranak ere bere kezka ta naimen onetik at sekulan utzi.

"Like his predecessor, Pope Paul emphasized the necessity of uniting all Christians, and he also expressed desire to bridge the gulf between Christianity and other religions". Euskeraz:

"Bere aurrekoak bezala, garrantzi aundia eman oi zion kristauen batasuna lortu bearrari, eta saiatu zan al zuan guztia kristau eta ezkristauen arteko zuloaren gaindik zubi bat edatzen ere" (Grolier Univ. Ency.).

Bere eriotzakoan, ludiko baztar guztietatik Erroma'ra iritxitako naigabe-agerpenak, "Acta Apostolicae Sedis" aldizkariaren orrietan aurkituko dituzu.

Gizon aundi bat iltzen danean, gezur legun goxoa besterik ez dira izaten geienetan aren omenez egin oi diran goratarreak. Ez ala, VI Paul il zanean. Benetan sentitu bait zuan munduak aren eriotza.

"Cosa fa il nostro hamletiano cardinale"? galde egin zien XXIII Jon'ek Milan'go erromesei VI Paul, oraindik kardenal uts, uri artako Goigotzai zala. "Zer dagi gure kardenal hamletiar arek"?

"Kardenal hamletiar" orrek, Jon Aitasantu maitea, bein bera ere Aitasantu egiña izanez gero, zuk asitako Kontzilioa aurrera atera du. Zuk ain maite zenuan ekumenetzaren bidetik beste iñor baiño aurrerago joan da. Soziologiaren eta politikaren arloan zuk ereindako azia bizkortu ta loratuarazi

du. "Zoazte mundu guzira" agindu zuan Josukristo'ren esanari erantzunaz, munduko baztar guztiera joan da bera, Eliz osoa besarkatu naiez, eta aitasantutzaren ospea zure eskuetatik oso gora jasorik artu ba'zuan ere, artu zuanean baiño gorago jasota utzi digu.

Izan ere, Paul VI'aren eriotzakotan, Aulki Donera igo zanean baiño bi aldiz geiago ziran Aulki Donearekin arremanetan jarritako Laterriak. Geienak ez ziran gaiñera kristauak; ezta sarkaldetarrak ere.

¿Zerk ekarri zituan Erroma'ra? VI Paul'ek Aitasantutzari emandako aintza, ospe, eta izen onak.

"Era un espíritu dubitativo" (Jimenez Lozano). Ez da egia; ez beintzat oso-osoa egia. Ziur-ziur egiaren jabe zala uste izan arte ez zuan itz bat esango. Baiñan bein itz bat esan, naiz Elizaren barruan bertan jenderik geiena aurka zuala ikusi, sendo ta bizkor eutsiko zion emana zuan itz orri.

"Tremendamente escrupuloso, se preguntaba si no tendría también él una parte de responsabilidad en este estado inquietante y angustioso" (de la iglesia) (...) "Se podían adivinar en su rostro las huellas de una verdadera angustia a pesar de los esfuerzos que hacía para no dejar traslucir sus sentimientos más íntimos".


Bai ote? Ori gazteleratu zuan M. Ureña'k eta, leenago, ori frantzeraz idatzi zuten Paul Lesourd eta Jean M. Benjamin edestilariak baiño obeto ezagutzen zuan VI Paul Aitasantua Albino Luciani Benez'i'ko Goigotzai Kardenalak. Eta ona zer idatzi zuan VI Paul il zanean Benez'i'ko egunkari batean:

"Maiz egon izan naiz berarekin alkarrizketan Batikanoan. Nik ez dut sekulan Paul Aitasantua illun, negarti, kezkatu eta zalantzetan murgildurik ikusi. Batikanoan ez dut nik beñere idazle batzuek margozten diguten Aitasantu ori bezalako Aitasantu itunik aurkitu. Alderantziz, alai, baikor, irriñotsu ikusi dut nik an VI Paul Aitasantua. Era goxoan, bazekian noiz-beinka ziri txorrotxak sartzen ere!"

"Estado inquietante y angustioso", egoera "larri eta zearo kezkgarrian" utzi zuala Eliza, diote aipatutako edestilari aiek. Ez dut uste era obeagoan aurkitu zuanik; VI Paul'ek ez bait zuan Elizak zornea zeriotela zeuzkan zauriak iriki besterik egin. Eta sakonago sartuko zuan gaiñera aiztoa, bere inguruko integristei bildur izan ez balie, ots, aiek Elizaren alzoan sortu zezazketen istripuei bildur izan ez balie.

Zauriak irikitzea bearrezko gauza da gorputza sendatzeko. Inguruko eskubitar integristek, Lefebvre Goigotzaiaren bidetik, zisma bat sortuko zitotelakoaren bildurrak gelditu zuan VI Paul'en eskua.

Egoera larrian dagola Eliza? Eta noiz egon da, eta noiz egongo da egoera lasaiean Kristo gurutzatuaren Eliza?



## OARRA

Liburu au Bigarren Batikan-Kontzilioaren berri-emanaz amaitzea nuan asmo; andik onuntzko gertakizunak, oraindik urbillegi dauzkagulako, ez bait daitezke edestiaren gai izan.

Baiña, Bigarren Batikan-Kontzilioaz geroko gertakizun oiek arras garrantzitsuak izan diralako beraien azalpena egitea gauza egokia izango litzakela, aolko-eman didate.

Orixe da bâ nik, azken-atal auetan egingo dedana: soilki-soilki, gertakizun oiek irakurlearen begien aurrean ipiñi, urtez-urte, denboraren ariari jarraituz.

Ori egin aal izateko, aldizkari ofizialak, eta erdi-ofizialak, izan ditut iturri, bereiziki. Adibidez:


- Acta Apostolicae Sedis.
- Informations Catholiques Internationales.
- La Documentation Catholique.
- La Civiltà Cattolica.
- Ecclesia (Madrid'koa).
- Église Aujourd'hui.
- L'Osservatore Romano.

Oietaz gaiñera eskuetan izan ditut Gasteiz'ko Apaizgaitegiko liburutegira iresten diran aldizkari ugarien artean, teologiaren aldetik edo edestiaren aldetik gai auekin zer-ikusirik izan zezaketen ale guztiak.

Baita're, erabilli dizkizut Fliche-Martin'en, Rogier-Aubert, Knowles eta Jedin-Repjen'en zuzendaritzapean idatzitako Bilduma ugarien azken-liburu argitaratu-berriak.

Eta azkenik, iturri oietatik jasotako albisteak oro, al zan guztian, "Encyclopaedia Britannica"ren albisteekin nai izan ditut kidatu, eskiertasun aundiko liburu zugarra bait da, nere ustez, "Iztegi Britaniar" ori.

Zenbaki eta estadistiketarako, Paris'en 1987'an argitaratu-berria dan "L'Etat des Religions dans le Monde" ere maiz erabilli dut. Eta baita, nola ez, Aulki Doneak urtero argitaratzen duan "Annuario Pontificio".



## KUBA KOMUNISTA

Elizarentzat arazo mingarria izan da Kuba'ko lurraide kristaua komunismoaren atzaparretara nola jausi dan ikustea. Jausi ere... ia-ia ifior oartzeko jausil Jendea atzipetzen Fidel Castro yayoa izan dala aitortu bearra dal Kristau bezala agertu zuan bere burua Fuljenzio Batista'ren aurka jeiki zanean, eta berekin izan zuan Kuba'ko kristauen laguntza. Pozik jarraitu zion jendeak, Kuba'n mundu guzira pakearen eta askatasunaren egarri bait zegoan.

Mende onen asieran lortu zuan Kuba'k askatasuna eta ez du arrezkero egiazko zorionik izan. Ez du egiazko askatasunik ere izan. 1909'an irten ziran andik iparramerikatarrek, baiña gerontzean ere Laterri Alkartuak izan dira Kuba'ko politikaren eta ekonomiaren nagusi. Beraiena da neurri aundian Kuba'n gertatutako guziaren errua.

1924'tik 1930'era Jerardo Machado egon zan diktatore lez agintari Kuba'n. Borroka-aroa izan zan ura, 1940'ean Fuljenzio Batista'k lendakaritza artu zuan arte. Ez zan okerra izan bere lendabiziko lendakaritza au.

Grau San Martín etorri zan gero, aski diktatorea, eta, orregaitik, kubatarrek ezkerbegiz ikusi zutena.

Urrengo lendakaria, Prio Socarrás, ondo asi zan, eta bazirudian ala jarraituko ere zuala, baiñan 1952'an indarra-medio Fuljenzio Batista'k kendu zion agintea. Zearo baldarra gertatu zan Batista'ren bigarren agintaritza. Itxi zuan Legebatzarra, itxi zuan unibersitate, mututu zituan gizarte-mezu-bideak oro, eta ezabatu zituan laterkidei zor zaizkien askatasun eta eskubideak.

Ori dana, ez zan Laterri Alkartuen onespenerik gabe egiña izan. Baiña aurka izan zituan Batista diktatōreak langilleak; eta aurka izan zuan talde ederrean elizjendea ere.

Ederki baliatu zan giro ortaz Fidel Castro maltzurra. Maltzurra, bai noski, baiña baita ausarta ere. Eta trebea; ta buruz arras argia. Iñakitarren artean egin zituan bere ikasketak gaztetan.

Etsai gogorra jeiki zitzaion aurka Batista diktatoreari, Fidel Castro'tarra.

Ordurako zuzentasunaren alde zebiltzan lanean Katoliko-Ekintzako gaztediak: "Una parte de la población vive en circunstancias de miseria inadmisibles. Es tiempo de que cese esta repartición inicua de las riquezas nacionales", zion gazte aien azalpen batek.

1956'ko abenduaren 2'an asi zuan Castro'k Kuba'ren sortaldean dagoan Sierra Maestra'n bere bi urte eta illabete bateko basa-gudua. Aurretik ordea, 1953'an Santiago'ko "Moncada" gudaritegiaren aurkako erasoan ibilli zalako baitua izan zan, eta Santiago'ko Goigotzaiak, Perez Serantes'ek, salbatu zuan fusillatua izatetik. Berak ere aitortu izan du Goigotzai ari zor dioia bizia.

1957'an, basoan borrokan zebillenean, "Cuba inaugura una nueva era que irá en sentido cristiano", oles egin zigun Castro'k, "yo no soy comunista; mi movimiento nada tiene que ver con el comunismo" esanaz. Bere eginkizun guztietarako, XIII Leon'en irakasketa izango omen zuan gidari. Bere itzak dituzu auek ere: "El capitalismo sacrifica al hombre, el Estado comunista sacrifica los derechos del hombre, y por eso nosotros no estamos por ninguno de los dos sistemas". "Bejondeikela, jarrai ezak bide ortatik", oles eginen zion Leon XIII'ak ori entzun balio, ori bait da ain zuzen Aitasantu arek gizarte-bizitzari-buruz erakutsi zuan guztiaren mamia.

Castro'k ordea ez zuan bide ortatik jarraituko, bein agintaritzaz artzen zuenez gero.

Laister aztu zitzaion, garaitza Kuba'ko katolikoei zor zuela!

"No ha habido probablemente en América Latina el caso de una colaboración de los católicos en un movimiento revolucionario tan decisiva como la que conoció Cuba en su lucha contra la dictadura de Batista", diosku frantziskotarren "La Quincena"k.

Egia. Castro'k ez zuan sekulan agintaritzarik irabaziko, Kuba'ko katoliko-jendeak aren igikundea onartu ez balu.

Onartu baiño geiago; lagundu egin zioten katolikoek igikunde ari!

1953'az gero, zigorturik zebillen Katoliko-Ekintza, agiri-agirian Batista diktatorearen aurka lanean ari zalako. Lan ortan, artu zuten parte Katoliko-Ekintzako neskatilek ere. Mutillen artean, izan ziran espetxeratuak; baita illak ere. Neskatilek berriz ospetsu egin zuten beren burua, eskuan arrosario zutela eratu zuten kale-ibilketaren bitartez.

Apaizen artean aipa ditzagun, Julian Bazterrika, Batista diktatorearen okerkeri guztien salatari bizkorra; Ramon O'Farrell, baitua, oiñazetua, eta Manuel Arteaga Kardenalari eskerrak salbatua;

Habana'ko Gotzai genduan Kardenal au.

Castro'ren eskariari erantzunaz, Sierra Maestra'ra joan ziran bi frantziskotar (Iruretagoiena ta Sardiñas) eta bi iñakitar (Cabero ta Guzmán) iraultzalarien kapillau lez.

Adiskide kutunak bezala eskutik zebiltzan beraz, maiteki, Iraultza ta

Eliza. Ikus zer idatzi zion Habana'ko Gotzaiari 1958'an menditik William Morgan iraultzalarien buruzagietan ospetsuenetako batek.

"Podemos decir que (entre los revolucionarios) casi todos profesamos la religión católica que creemos la única verdadera en la que nacimos y en la que tenemos una fe profunda. (...) Es nuestro profundo deseo tener uno o varios sacerdotes católicos para que nos orienten y nos dirijan en la vida espiritual, celebren de tiempo en tiempo la misa por nosotros, nos expliquen la verdadera religión, aconsejen a nuestros moribundos y entierren a nuestros muertos".

Eskutitz ori, jakiña, ez zuan Morgan'ek Fidel Castro bere ugazabaren baimenik gabe idatzi.

Izan ere, Castro'k, bere aolkularietako bat, jelizgizona izan bait zuan aurren-denbora aietan!: Chabebe, Santiago'ko apaiza.

Ortaz gaiñera, Castro'ren idazkiak parroki eta konbentuetako irarkoletan argitaratzen ziran maiz. Santiago'ko Katoliko-Ekintzaren Elizbarruti-Bazkuna, isilllean Castro'ren diru-administrategia izan zala esan daiteke. Parrokietan, sarri esan oi ziran, jendeak "misas de resistencia" izenez ezagutu oi zituan mezak, eta noiznai entzuten ziran jauretxeetan diktaturaren aurkako itzaldiak eta sermoiak.

Ta..., gotzaiei-buruz ¿zer esan?

Luis Centoz Nuntzioak, eta Rovira bere idazkariak, jende askoren bizia salbatu zuten Batista'ren diktaturtzakoan.

Nuntzioak berak, diktatorearen aurrean zuzentasunaren aldeko gauzetan amorerik ez emateko eskatu zien gotzaiei, katoliko askatasunzaleen alde egon zan beti, ta bereala eman zion babes apaizen "Manifiesto" edo "Azalpenari". Baita Batista'ri, gudarekin zer ikusirik ez zuten erriak, arren, ez bonbaz zanpatzeko eskatu ere.

Kuba'ko apaizen "azalpen" ura, emen eusko-apaizek Franko'ren denboran beren gotzaiei aurkeztu zieten "eskutitz" ospetsu aren antzeko idazki bat izan zan. Emen ordea ez zuan apaizen eskutitzak Nuntzioaren babesik izan. Alderantziz, aurka irten zitzaien apaizei, Antoniutti Nuntzioa. Aski era zakarrean gaiñera! Era zakarrean... eta baldarrean!

Kuba'n Nuntzioaren azpitik, ederki jardun ziran ia gotzai guztiak ere.

- 1958'an, diktaturtzaren ordeztu "un régimen de derecho", ots, "legearen arauzko jaurkera" eskatuaz, idatzi zuan gotzaidiak gutun egoki bat.

- Enrique Perez Serantes Santiago'ko Goigotzaiarenak dituzu bi esaldi auek: Aurrenekoa, "a los que tienen el poder", "almendunei", egiña, "que nos den la paz que esperamos con tanto fervor y no la paz de los sepulcros" eskatuaz; Batista'ren diktaturtza-arokoa duzu. Baita bigarrena ere; au, gaiñera, zigor gogorak erabiltzeko gerturik zegoala zemai-zegian Batista ber-berari zuzendua: "La paz no es la exterminación". (La Quincena).



- Martín Valverde, Matanzas'ko Gotzaia zan. Sierra Maestra'ko iraultzalariak ez zirala komunistak, aldarrikatu zigun. "No son comunistas". (Ibdm).

- Garai berean, Pinar del Rio'ko Gotzaiak, erantzun aundia jasoko zuan "Pake-Otoitz" bat idatzi zigun, demokraziaren alde dei egiñaz.

- Cienfuegos'ko Gotzaia, Martínez Dalmau, bakarrik egon zan beti Sierra Maestra'ko iraultzalarien aurka. Baiñan gizagaixoak ain bakarrik ikusten zuan bere burua-ta..., bakartasun ura ezin eramanaz... ¡utzi egin zuan gotzaigoa!

- Habana'n Manuel Arteaga Kardenala zegoan Gotzai. Ez zuan, ez Castro'ren ez Batista'ren alde, borroka artan parterik artu nai izan, eta ez zuten demokrazi zaleek begi onez ikusi.



Al zuan guzia egin zuan Elizak Castro'ren alde, eta ezpairik gabe esan ere esan dezakegu egin zuana baiño geiago egiterik ez zuala izan. Ulertu ta aitortu zuan ori Castro'k ber-berak borrokaren amaieran:

"La Iglesia no ha podido hacer prácticamente más de lo que ha hecho, y con pocas excepciones los católicos estaban con nosotros". (La Quincena).

Orduan ez zan iñor oartu. Oartu ai zera zu, esaldi orren bidez, --egia aitortzeaz gaiñera--, katolikoak bere alderdikideengandik zeñien ederki bereizten dituan Castro'k? "Los católicos", "nosotros". Aiek, "los católicos", "gurekin" egon dira; baiña gauza bat dira aiek ("katolikoak"), eta beste gauza bat gera gu ("komunistak"). Castro'k ez zuan, orduan, orrelakorik azaldu. Goizegi bait zan ortarako. Etorriko da, estalkirik gabe komunismoa agirian agertzeko garaia!

Danadala, menditik garaille jetxi zanean, Santiago'ra sartzean, aurreneko gauza, Enrique Pérez Serantes Goigotzaiari ikustaldi bat egitea izan zan. Eskerrak emateko, jakiña! Oro gaiñera, berak, Goigotzaiak, salbatu ziola bizia 1953'ko matxinada artan.

Bein Habana'n Agintaritzza artuz gero asi zan Castro bere egiazko izaera agertzen. Baita jendea ere bata besteari galdetzen: "gizon au... komunistak ote da"? Ezetz, erantzuten zuñen batzuek; batez ere, berarekin mendian egondako kapillau batzuek.

1959'garren urtea zan. Urtarrillaren 1'ean iges-egin zuan Habana'tik Batista'k. An ziran bigaramonean nagusi, iraultzalariak.

Ekaiñean eman zuan Castro'k aurreneko lege nagusia; nekazaritzza ankanz gora iraultzera zetorren legea.

Legea ordea, beartsuen onturrerako bait zan, bereala jaso zuan Evelin Diaz Habana'ko Gotzai Laguntzaillearen onespena. Entzun gotzaigoaren

ardura osoki bere eskuetan zeukan Jaun onen izkera:

- Kuba'ko nekazaritzaren eraberritzea, "de acuerdo con la doctrina social de la Iglesia egiña izan da".

- Katolikoak, eraberritze orri beren laguntza ematera beartuak daude.

- "Si los católicos comprendieran verdaderamente todo lo que significa el doble mandato de amar a Dios y al prójimo como a sí mismos, aceptarían de todo corazón los cambios necesarios al bien común. Los que tienen todo y desean vivir como cristianos, decidan por sí mismos si su conciencia puede quedar en paz ante las lágrimas, la pobreza, el abandono de aquellos de sus hermanos que no tienen nada".

Baiñan Castro'ren jarduera gero-ta-geiago ari zan Elizaren aurkakoa biurtzen, eta, etsai izan zitzaizkionaren aurka, gogorkeri odoltsura jausten.

Ala, Unibersitate katolikoari-buruzko zipozkeriak, askatasunaren aurkako ekintzak, korreora bidalitako eskutitzei zor zaien itzala urratzeak, eta maizegi ta geiegi gertatzen ziran arerioen-fusillaketak, kezka mingarria asi ziran sortzen Kuba'ko katoliko zugar eta elizgizonen artean.

Baziran laureun, fusillatuak, Perez Serantes Santiago'ko Goigotzaiak, len Batista'k eraildakoena salaketa egin zuan bezala, orain, 1959'an, Castro'k eraildakoena egin zuanean.

Urte ontan bertan, "Talion-Legearen araura, jendea iltzen asteko eskubiderik ez zuala, naiz aurretik Batista jende-iltzen ibilli ba'zan ere", oi u egin zion Castro'ri idazlan batean Boza Masvidal Santiago'ko parrokoak. Arrazoi bat aurkezten zuan salaketa ori egitera orain ausartzeko: "porque (yo) había denunciado los crímenes del gobierno de Batista desde este mismo Boletín a pesar del terror imperante".

Laterri komunistetan oiturezkoa duten bezala, Castro'k Jaurlaritzako eta Alderdiko agintaritzaz bere eskuetan gordeaz, Urrutia'ri eman zion Errepublikaren Lendakaritza, eta Oswaldo Dorticós'eri gero, arek, --zergaitik ziur ez dakigu--, lendakaritza utzi zuanean.

Katolikoek, bitartean, "Nazio Guziko Batzar" bat eratu ta ospatu zuten 1959 artako azaroan. Milloi bat bildu ziran, eta bat bakarria izan zuten izlari: XXIII Jon Aitasantua, irratiz. "Un gesto de reconciliación sobre las ruinas del egoísmo y la incomprensión", eskatu zien kubatar guztiei izlari bereizi ark.

Joan zan Castro, billera artara, Dorticós lagun zuala.



Urrengo urtean, 1960'ean, gogorrigo jarri ziran oraindik gauzak Elizarentzat, naiz oraindik gotzaiak, giroa gozatzeko al zuten guztia egin:

"Ley Agraria" edo "Nekazaritzari-buruzko Legearen" alde mintzatu zan ostera Habana'ko Goigotzai Laguntzaillea, (Goigotzai "Administralaria", orain).

Erri kristaua, altaguztiz, ordurako Castro'ri komunismo-usaia artzen asia bait zan, komunismuari jainkorikgabea eta totalikerizale dalako aurka egiten ba'dio bakarrik dala gauza zuzena "el anticomunismo", ez ordea "si sólo pretendía defender intereses egoistas", esan zuan telebistaz Pinar del Rio'ko Gotzai izendatu-berria zan Rodriguez Rojas'ek.

Giro latzean igaro zuten katolikoek urte ortako astesantua. Habana'ko Goigotzai aipatuberriak, beren buruak kristau "sin ostentación pero también sin temor" agertzeko, eskatu zien eliztar guztiei.

Orrillean, Castro'ri ainbeste lagundu zion Perez Serantes "el Arzobispo Revolucionario" (Revista Latinoamericana), izan zan oiua jaso zuana: "No podemos decir que el comunismo esté ya a nuestras puertas, porque en realidad está dentro de nuestros muros hablando muy alto como si se encontrara en su propia casa". Gero, argi ta garbi, Castro ta kastrotarren totalitarismua salatzen du; "porque tratan de imponer el pesado yugo de una nueva esclavitud". Asmo orren aurka egongo omen da beti bera; "porque el cristianismo no puede vivir sin libertad".

Motza izan zan "Radio Libre de Cuba" kastrotarraren erantzuna: "Patrañas".

Gero ta maizago ari da Castro'ren ertzaindia apaizen eta katolikoek aurka; eta gero ta aundiagoa da katolikoek artean batzuen asarrea, beste batzuen bildurra, ta guztien kezka.

Egunetik egunera gogorrakoak dira erakunde katolikoek osteketa edo protestak ere. "Ezer egiterik ez omen dute bā. Kuba'n askatasuna, askatasun orokorra gairera, komunisteri bakarrik ematen zaielako". (Inf. Cat. Inter.).

Alperrik guzia. Mingaiñez legun, eskuz gogor, jarraitzen zuan Castro'k. Itzak ederrak, ekintzak maltzurak. Ori jaurti zion Elizak aurpegira: "Esan, elizari ez ziola gaitzik egin nai" esaten zuala, baiña bitartean, ikastoletan sartu zituan liburuak marxistak zirala danak!

Erakunde Katolikoek gogor erantzun zien Juan Marinello'k, "iraultzaren aurka lanean jarraitzen ba'zuten, bizkor erasoko ziela iraultzak", oiua egiñaz. Marinello au, Batista'ren diktaturtzakoan ezer egin ez zuan gizona, orain Kuba'ko Alderdi Komunistaren zuzendari zan, eta Habana'ko Unibersitate Katolikoaren etsai agertzen zan oso-osoan. Beraz, gauza berdiña zirala komunismoa ta kastrismoa!

Alare, ez ziran aburu batekoak Kuba'ko katoliko guztiak, Castro eta kastrotarren komunismoari-buruz.

Ekaiñean, ekintza oro uzten zuala jakiñarazi zuan Kuba'ko "Movimiento Demócrata Cristiano"k, lan egin aal izateko askatasunik ez zualako; eta Boza Masvidal Unibersitate Katolikoan Erretore izan ondorean gotzai eginberriak Laterriak laterkideen pentsaera erabiltzeko eskubiderik ez zuala oles egin zuan; eta Laterria laterkideen bizitzan gelegi sartzen zuala salatu.

Baiña ekain artan bertan "La Quincena" frantziskotarren aldizkariak, Kuba'n Laterriaren eta Elizaren arteko arremanak "cordialísimas" zirala idazten zuan, eta komunismoa "peligro prácticamente inexistente" zala.

Uztaillean, meza bat izan zan Habana'ko katedralean isilpeko Elizaren alde: "por la Iglesia del silencio". Irteeran, zai zeuden kastrotarrak, "Cuba sí; USA no", oiuka. "Cuba, sí; Rusia no", izan zan meza entzutetik irtetzen ziranen erantzuna.

Iru ordu luze egon zan Castro telebistaz zalaparta aietaz mintzatzen. Ura izan zan Castro'k, estalkirik gabe, Elizari eraso zion aurreneko aldia: Apaizena omen zan zalaparta aien errua, eta "curas fascistas", "curas falangistas" omen ziran apaiz aiek danak, ta, meza ura entzutera joan ziran katolikoak, "cristianos que van al templo a conspirar y no a rezar". Zalapartei, "conspiración organizada por los Estados Unidos" esan zien, eta Unibersitate Katolikoak, "contrarrevolucionaria" omen zan.

Jaso zion Elizak sakea eta ederki itzuli zion errestoa:

"La Iglesia no tiene miedo a reformas profundas; estará hoy y siempre del lado de los humildes, pero no está ni estará jamás del lado del comunismo. (...) Nadie pues venga a pedir a los católicos en nombre de una unión mal comprendida que se callen en cuanto concierne a su oposición a estas doctrinas, porque no podrían hacerlo sin traicionar a sus principios más fundamentales".

Zapuztu zan oso-osoan Castro gotzaien izketa ori entzutean; badirudi kristau-erria jerarkiarendandik bereizi-edo nai izan zuala ere. Entzun:

"La jerarquía sólo sirve a los ricos. Yo quisiera ver una pastoral que condenara a las compañías explotadoras de nuestro pueblo". "Cualquiera que condene una revolución como la nuestra traiciona a Cristo, sería capaz de crucificar de nuevo a Jesucristo".

Zer erakutsi nai ote zien Castro'k Kuba'ko katolikoei? Jerarkiari bizkar-emanda ere, katolikoek katoliko izaten jarraitu dezaketela?

Danadala, itz aiek ez ziran Castro'renak. Uraxe berbera esan bait zuan Peron'ek 1955'ean!

Diktadoreak, zuriak, urdiñak, edo gorriak, berdiñak dirala danak!

Aitor dezagun egia dala puska batean, Castro'ren esaldi arlotea: Kuba'ko gotzaiek ezer gutxi esan zutela ola-lagundi eta salerosle-alkarte langille-ta-erri-zanpatzailleen aurka, eta, ori, Kuba'ko Elizaren oben enasa zala. Baiña, itz aiek esan zituanean, ez zan noski Castro'ren asmoa Elizaren aurpegia obenez garbitzea!

Gaiñera Castro bera, ¿ez al da lagundi eta alkarte aiek bezain erri-zanpatzaille gertatu? Kuba'n illabete egon dan adimen argiko emakume zintzo batek oraintxe, (1987'ko uztail ontan) esan didanez, otordu bat bakarra, ta ura motza ta urria, egiten omen du an jendeak. Angola'n, Mozanbike'n, Etiopi'n, eta Nikaragua'n, ondatzen omen ditu b̄a Castro'k

Kuba'ko aberastasuna eta kubatarren odola, kubatar beraien iritziz.

Elizari-buruz Castro'ren asmoak nolakoak ziran ezin esan dezakegu, baiña piztu zan Kuba'n Eliz Zismatiko baten aiena. "Cristianos Revolucionarios", esaten zieten kristau aiek beren buruei. German Lence, iraultzalarien kapillaua, zuten buruzagi, eta "con la Cruz y la Patria" erabilli oi zuten ikurritzat. Ugariak izan ziran egin zituzten billera ta ospakizunak, eta an izaten ziran beti komunisten buruzagiak.

Bazuan "Kristau Iraultzalari" aien alkarteak Errusi'ko "Eliz Bizi" eta beste Laterri Komunistetako "Eliz Abertzaleen" antza!

Kezkatsu ta artega zebillen gotzaidia. "Es claro que se quiere suprimir total y rápidamente la influencia de la Iglesia", eta "los católicos son considerados como ciudadanos de segunda clase", esan zuan, (1960, urrillak 2), Santiago'ko Pérez Serantes "Goigotzai Iraultzalariak".

Gero, Elizak eraberritzearen alde "lo dio todo, lo entregó todo" eta komunistak "ni se dejaron sentir", ots, Batista'ren denboran borrokara ez zirala agertu ere oroitarazi ondorean, azkenean marxitarrak egin zirala Kuba'ren jabe, samin aundiz azaltzen zuan: "los raros devotos de Marx y de Lenin vienen ahora a pretender robarnos los laureles bien ganados de la victoria". (...) "La lucha fue de los católicos, la victoria, de los comunistas". (Goigotzai beraren itzak dira).

Ez bait ziran ordea gelditzen kastrotarren erasoak, abenduaren 10'ean Castro berari idatzi zioten gotzaiek: "Si se atacara a nosotros, no nos defenderíamos pero sí defenderemos a Iglesia, curas y pueblo cristiano". Ez omen da egia, diote gotzaiek, atzerritik agintzen zaiela zer egin eta zer esan bear duten; eta pozik zabaltzen dute diktatorearen begien aurrean Elizaren jardueraren edestia: "Todo el mundo sabe que la Iglesia siempre ha defendido en modo inflexible, públicamente y en privado, los derechos del pueblo cubano".

Min eman zion Castro'ri gotzaien gutunak, eta, nola erantzun jakin ez ta, Arteaga Kardenal agurearen aurka itzuli zuan bere ezten edentsua: "(El Cardenal) dió el beso de Judas al tirano sanguinario y corrompido".

Ederki J. Nouvecelle edestilariak: "El octogenario cardenal estaba muy ajeno de haber dado besos a Judas. Su discreto ministerio episcopal se había caracterizado por la preocupación de formar un clero fervoroso y dinámico y por la atención prestada a un problema social que le impresionaba hondamente: la infancia abandonada". (Schenk Sanchis'ek gazteleratua).

Diktaturtza guztietan gerta oi dan bezala, Kuba'n ere asi ziran komunistak Castro jainkotzen.

Ala, urrengo urtean, 1961'ean, Castro, Kristo biurtu zigun Lan-Arazoetako Ministroak: "Sobre nuestra bella y santa tierra se ha producido la llegada de Nuestro Señor".



Telebista-etxearen aurrean iragarki aundi batek Castro, Guevara eta Almeida, Mari'rekin eta Jose'rekin aurkezten zituan. Sendi Donea... iru sendikide berriz aunditua!

Ilbeltzean, kastrotarrek, Habana'ren auzoetako elizak indarrez artu zituzten. Castro berriz "apaiz fatxisten" aurka zebillen orruka, aientzako "represalias implacables" aginduaz; eta, beretarrek, karriketan oiuka, "Fidel, seguro, a los curas dales duro", eskatzen zioten; ta berak, maiz, "a los curas les espera el paredón", erantzuten zien.

Izkutukeritan ibilli gabe mintzatu zan Raul Castro, Fidel'en anaia: Iraultzari ez omen zitzaion eginkizun bakar bat besterik gelditzen: "La destrucción total de la Iglesia Católica". Fidel'ek berak berriz, "ser anticomunista es ser antirevolucionario y no será permitido en Cuba.

Otsaillan, Kuba, komunista bihurturik zegoan.

Itxuraz, apaizen artean borroka sortu naiean ere bazebillela Castro dirudi: "apaiz onak" eta apaiz "contrarrevolucionarios". Apaiz "iraultzaren arerio" auek, "jendea iraultzalariak iltzera bultzatzen ibilli omen ziran eta abertzaleen etsai diran gaizkille guztiei ats ematen".

German Lence, "Kristau Iraultzalarien" buruzagi ikusi dugun ura omen zan beste "apaiz on" aien eredu. Lence au, gotzaiak "a divinis" erantzia izan zan. Orduan Castro'k, almenez erantzia bera izan balitz bezala egin zigun karraixi: "Meza ematea eragozi diote. Ortaz gañera, gotzaiak, bere aberria babestu besterik egin ez duan apaiz au eskomikatzea pentsatzen ba'dute, eskomikatu bearko dute Kuba'ko erri osoa; eta baita erri orren jaurlaritzaren ere".

Epifani-bezperan, beste pastoral bat idatzi zuan Pérez Serantes Santiago'ko Goigotzaiak, "pastoraletaz landa ez omen zuan bâ beste mezu-biderik, izparringiak, irratia, ta telebista, komunistentzat bakarrik gordeak ziranez gero".

Berriro, komunismoaren etsai izatea eta iraultzaren etsai izatea ez dirala gauza bera, adierazten du Goigotzaiak. Komunismoaren aurka beti egongo omen da bera borrokan.

Noski! Baiña extu-xamarra iduritzen zaigu Goigotzaiaren ikuspidea: "Borrokan ari gera, bai bait dakigu, munduan bata bestearen aurka bi indar, "dos fuerzas", besterik ez daudela: Bata, Kristo'ren alde beren bizia emateko gerturik daudenek osotua; bestea berriz, oartzeke edo oartzen dirala Jainkoa ezereztu nai dutenek osotzen dutena".

Bada munduan, bi talde oien, artean jende geiago ere; bai noski! Kuba'n ordea, orrela zegoan edatua jokua Castro'k agintaritzaren bereganatu zuan ezkerero.

Otsaillako zenbakian idazlan luze bat argitaratu zuan Kuba'z "Informations Catholiques Internationales" aldizkariak. Idazlan ortatik jasoak dituzu oldozketa auek:

- Kuba'n Elizak ez du askatasunik. Isilpeko Eliza da bera: "L'Église du Silence". 6 milloi katolikoek osotua.

- Jendea arriturik dago, Batista'ren diktaturtzapean deus egin ez zuten komunistek orain nola Jaurlaritzaren jabe egin diran ezin asmatuz.

- Badira oraindik iraultzalariekin bat egiñik jarraitzen duten katolikoak, giroa aldatu daitekealaren ustez.

- Gaztedia, politikaz mozkortuta bezala dago, eten gabe ari bait dira mezubide guztiak komunismoa zabaltzen.

- Mezu-bideak, an, danak, Jaurlaritzarenak dira edo Jaurlaritzaren esanera daude naitanaiez.

- Castro'k ez omen du izaeraz eta oldozkeraz aldatu. Beti izan omen da komunista. Len ordea ez omen zitzaion bere aurpegia agertzerik konbeni.

- Jendea izaturik omen dago izkutuko ertzaiñei bildurrez.

- "Elizaren aurka ez dala ari" oiuru egiten duanean Castro jende-iruzurle besterik ez dala adierazteko, "Face à l'Imposture", "Gezurri aurpegi emanaz", ipiñi zion izenburu aldizkariak bere idazlan oni.

Eta, ikasleen lan-uzte bat izan bait zan, eten gabe jarraitzen zuten fusillaketen aurka..., sumindurik jaurti zituan Raul'ek zipozkeri auek, 20.000 ikasleren aurrean: "Esbirros de sotana, organizadores de huelgas" izan zirala, ikasleen isillu ura burutu zutenak", eta "cartas pastorales limitadas a defender los peores intereses capitalistas" zirala Kuba'ko gotzaien eskutitzak; Jakin bear omen zuten bein betirako danek "que la paciencia del gobierno revolucionario ha llegado a su colmo".

Bere anaiarekin bat egiñik agertu zan Fidel: "Han desafiado a la revolución, y la revolución no dudará en librar la batalla inevitable con la misma energía con que ha librado las batallas anteriores. Afrontará a las fuerzas del fariseísmo internacional".

Umeak nola kristauki ezi, zan gotzaien kardabarik oiñazegarriena. Ikastolak galtzen zituztela usmatzen zuten; eta baita, laister kubarrak ez ziran apaizak erbestera jaurtiak izango ziralako, dotriñ-erakuslerik bage geldituko zirala ere. Sendia soilki izan zitekean arrezkero, umeen kristau-ezizaille bakarra.

Ori gogoan zutela, iragarki aundi bat ezarri zuten karriketan. Ume bat ageri zan bertan; eta itz auek: "Este niño, ¿será creyente o ateo? De Vd. depende. Rece por él y coopere con el catecismo".

Beste iragarki batzuk ezarri zituan berealaxe Jaurlaritzak: ume berarekin, baiña beste itz auekin: "Este niño, ¿será patriota o traidor? De tí depende. Enséñale la obra de la revolución".

Zaratatsua izan zan 1961 artako Aste Santua. 5.000 kristau bildu ziran Habana'n ibildeunerako. "Viva Fidel Castro" oiuka ongietorria egin zieten iraultzalariek; "Viva Cristo Rey", deadarka erantzun katolikoek.

Beti bezala "apaiz falanjistei" ipiñi zien lepotik guztiaren errua

Jauriaritzak, Armando Hart Eziketa-Ministroaren bitartez.

Egun batzuk geroago, jaun onek berak, Eliza "la quinta columna contra la revolución" zala, oles egin zigun; ots, Eliza iraultzaren etsaiek iraultzalarien artean sartutako izkutupeko gudari-taldea zala. Iraultza "más católica que la Iglesia" omen zan. Eta, bai-esan-ez-esan, gotzaiak erbesteratzea ez omen zan egokia izango ere, eman zuan aditzera.

1961, Jorraitak 21: Bahía de Cochinos. Izen egokia an gertatu zana adierazteko. Okerkeri aundia izan bait zan Laterri Alkartuek ain izen bitxiko itxas-ertz artan egin zutena.

Florida'tik irtenda, Bahía artan lurrartzen utzi zien USA'ko Jauriaritzak Castro'ren etsai Kuba'tik iges egiñei, Castro gudaren bitartez, Jauriaritzatik botatzeko; baiña bein borrokalari aiek Kuba'n oiñak ipiñi, ez ziran Laterri Alkartuek aiei laguntzeko gauza izan. Errusi'rekin Irugarren Ludi-Gudua asiko ote zalaren bildurrez noski.

Danadala, bereala izan ziran "bahía-de-cochinostar" aiek Castro'k menderatuak. Eta, ¿nola ez?, naiz Elizak ezertan parterik artu ez, bi gotzai, Díaz eta Boza espetxeratuak izan ziran. Argentina'ko Enbaxadategian aurkitu zuten babes Pinar del Río'ko Gotzaiak eta Arteaga Kardenal zaarrak. Castro'ri, ordea, dirudianez, aurrera jarraitzea ez zitzaion onurazkoa irudituta, laister eman zitzairen laurei askatasuna.

Urrengo illean, orrillaren aurreneko egunean izan zan aldarrikatua "la República Socialista de Cuba", Ameriketean aurreneko Errepublikak Komunista.

Aldarriketa orren ondorio, Laterriarena egiñik gelditu zan irakasketa oro. 326 ikastetxe galdu zituan Elizak. "Los curas españoles pueden ir preparando su equipaje", jakinarazi zuan Castro'k. Eta, "el solo nombre de cura es intolerable", ago beroz jaurti.

Komunismoa sendotzeko, uztailaren 26'ean "Castro'ren Igikundea" eta "Alderdi Komunista", bat-egiñak izan ziran; eta, Castro'k agindu bezala, atzeritik etorritako apaiz guztiak atzerrira biurtuak.

Iraillean, ez zan Kuba guzian apaiz atzerritar bat bakarrik gelditzen. 597 apaiz, 97 erlijioso eta 2.401 monja izan ziran erbestera bidaliak. Kuba'ko Eliza, 6 milloi elizkiderentzat 123 apaiz bakarrekin gelditu zan. Alatagutziz, baziran oraindik begiak itxita jarraitzen zuten apaizak. Ala, Gillermo Sardinás, Lence'ren adiskideari, "todo lógico" iduritzen omen zitzaion Castro'k egiña.

Castro'k naitanaiez egin bear izan zuan gauza izan zala Elizaren ikastetxeen laterrirentze ura, --apaiz arek zion--, ikastetxe aietan apaizak, matxinadak nola sortu pentsatzen aritzen omen ziran bā. Eta, "Ikastetxe oietan, pentsatzea ez da zillegi; an, sinistu egin bear da entzuten dan guzia. Oro da pekatu, infernuz zigortua izanen dan pekatua", --oiu egin zuan.

Atzerritar-apaiz-sail bati agur egitera jendetza ederra joan zan



Habana'ko kaiara, Andra Mari'ren irudi bat aurrean zuala, kantari. Laister izan ziran kastrotarrez inguratuak. "Fidel", "Fidel", oiuka asi ziran auek, eta "Kristo", "Kristo", erantzuten zuten katolikoek.

Ertzaindiak amaitu zuan zalaparta.

Kuba'ren zaindari, Karitateko Andra Maria da. Españi'ren aurka ta Kuba'ren askatasunaren alde borrokan gudari izanek eskatu zioten XV Benedikto'ri, zaindaritza ura ofizialki eratzeko.

1961 artan, eman zien Jaurlaritzak katolikoei, ibildeun bat egiteko baimena. Eta, naiz bildur aundiz, bildu zan sail eder bat, eta irten ziran karriketara. Baiñan baita laister kastrotarrak tiroka urbildu. Izan ziran zaurituak; eta baita ildako bat ere.

Gernika'ko bonbaketakoan Franko bezala sartu zan Castro, berealaxe, gezurrezko bidetik: erailleak katolikoak izan zirala zabaldu zuan; eta, ildakoa, beretarretako iraultzalari bat izan zala. Mutil gazte bat il ziotela katolikoek tiroka!

Franko'ren gezurkerikoan bezala, laister azaldu zan Castro'renean ere egia: ildako mutil ura Arnaldo Socorno zan izenez, Kuba'ko "Juventud Obrera Católica"n batzarkide.

Jaurlaritzak, gezurra egi agertu naiez, gudan-edo iltzen diran goi-gizakumeei egin oi zaizkien illeta zaratatsuekin obiratu nai izan zuan Arnaldo Socorno zana. Onen gurasoek ordea, egia lausotua izan ez zedin, ez zioten Jaurlaritzari artarako baimenik eman.

Erbesteratutako apaizen artean, berrogeitasei, kubatarrak ziran.

Erbestera botea izan zan Boza Masvidal Habana'ko Gotzai Laguntzaillea ere, zortzi egun espetxean baiturik egon ondorean.

Zortzi egun aien epean, atertze-gabeak izan omen ziran egin zizkieten galdeketak. "On persecute les prêtres, on les emprisonne, on les soumet à des tortures physiques", "apaizak, zigortuak dira, espetxeratuak, oiñazetuak", aditzera eman zuan, Europa'ra iritxi zan bezain laister (Informations Catholiques Internationales).

Dana omen zan bearrezkoa, Castro'k esan zuanez, "los curas contrarrevolucionarios" eta "el grupo de falangistas clericales" ezerezteko.

Itunak izan ziran 1961'ko Eguberriak katolikoentzat Kuba'n.

Eguberri aiek "navidades socialistas" izan bear omen zuten Jaurlaritza Komunistaren aginduz. Ala, debekatuak izan ziran kristau-usairik zezaketen irudi ta ekintza guztiak. Debekatua izan zan gauerdiko meza ere, "a fin de no turbar el reposo de los ciudadanos".



Orrela amaitu zan Kuba komunista biurtu zuan urtea. Orduantxe bertan jaurti zezakean PCC edo "Partido Comunista de Cuba"k, gero, 1976'ean

argitara eman zuan erronka: "La Iglesia ha sido barrida de la vida social".

Castro bera ¿beti komunista izan ote zan? Ezetz esan oi du bein-daberriro berak. Ez dala sekulan komunista izan, oles dagi gaur bertan ere.

Guk ordea, ikusi dugu, Kuba'ko Elizak, Castro'k Jaurlaritza artu zuanez gero, gizon ura lendik ere komunista zala uste izan duala, naiz Sierra Maestra'ko basa-borroka-denboretan orrela pentsatu ez.

Ikus Encyclopaedia Britannica" k diona: Castro komunista beti izan dala argi uzten omen du, Castro'k berak Jaurlaritza artu zuanean egindako aitorketa bikoitzak: "Kuba'n ez zala geiago auteskunderik izango"; "naiz bera leendik ere marxista izan, ori, iraultza aurrera ateratzearren, jisildu egin zuala"! "Castro's announcement that there would be no more elections in Cuba and that he has been a marxist for years but had concealed the fact in order to further his revolutionary aims".

- Zenbat jende erail ote du Castro'k Jaurlaritza artu zuanez gero? Ez dakigu. Batista'k baiño geiago? Bai seguruaski. Maizenik, fatxista itxureko eskubitarrak ezkertiarak baiño erailtzalleagoak izaten dira. Ala gertatu zan adibidez Paris'ko Komunaren borrokaldian eta Españi'ko gudatean.

Kuba'n ordea, Castro, komunista dalarik, Batista bera baiño fatxistagoa dala gogoan euki bear dan gauza da.

Zenbat izan ote dira guztira Castro'k eraildakoak? Ez dugu, oraindik, ori jakin aal izateko biderik. 1961'ean, urte bete zeramakian Castro'k agintzen. Ordurako "baziran zazpireun berak fusillatuak" (Nouvecelles).

- Ezin esan dezakegu, Castro'k Eliza zatitu nai izan duanik ere. Kuba'ko eliz-gizon askoren aburuz, Txina zuan Castro'k begien aurrean eredu.

Txina'n "Eliz Abertzale" zismakoi bat sortârazi zigun Jaurlaritza komunistak. Kuba'n ez zan orrelakorik gertatu. Zisma usaieko Alkarteak, bai; sortu ziran iru kristau ezkertiarren alkarte, Castro'ri laguntzeko. Ez zitzairen beraiei ere Castro'ren laguntzarik peitu; baiñan Castro ez zan geiegi nabarmendu. Kuba jez izaki Txina!

Oroitzea merezi duan gauza da, Castro'k bidalitako gotzai eta apaiz kubatarrak, Batista'ren diktaturtzakoan demokraziaren alde bikainki lan egin zuten gizonak izan zirala.

- "Apaiz Iraultzalariak" maiz aipatu ta goratzen zituan Castro'k. Adibidez, apaiz atzerritarrak erbestera zituanean, Kuba'n bear aiña apaizik gelditzen ez ba'zan, berak eratuko zuala katolikoek nola meza entzun jakifiarazi zuanean. "Apaiz iraultzalari" batek emango omen zuan meza, eta berak, Castro'k, aren serbitzura ipiñiko omen zuan Kuba'ko telebista, nai zuan guztiak meza igandetan entzun aal zezan.

Bere laguntza ere, zabal eskeiñi oi izan zien "a los católicos revolucionarios".

- Kuba'tik jaurtitako apaiz atzerritarren artean bederlatzi, kanadatarrak ziran, eta beren Jaurlaritzari aurkeztu zizkioten beren kezkek eta naigabea.

Estu kontuak eskatu zizkion Kanada'ko Jaurlaritzaren Lendakariak Kuba'ko Diktatoreari, eta burua makurtu bearrean aurkitu zan au. Eman zitzaizen apaiz aiei Kuba'ra itzultzeko baimena; baita beste apaiz atzerritar batzuei ere.

Alatagutziz, Kuba'ko Elizari 49.000 kristaurentzat apaiz BAT besterik ez zitzaion gelditul

- Castro'k bidalitako apaiz atzerritar aiek geienak emengoak ziran: euskaldunak. Franko'ren diktatutzapean zegoan orduan Euzkadi, eta askok begiratzen zioten begi goxoz emendik Castro'ri. Ona, egun aietan Bilbo'ko kaiean agertu ziran itz batzuk: "Fidel: no nos mandes más curas; ven tú".

Ugariak izan dira Castro'k Eliza arbuiatzeko egin dituan txepelkeriak. 1964'ean Jaurlaritzak, "los domingos la calle para los niños" izan bear zuala erabaki zuan. "Igandetan karririk umeenzat", baiña elizetako ateen aurrean, eta mezak ematen ziran orduetan, oiuka eta karraxika barrungoei meza entzuten ez uzteko.

Elizatik at ez zuten kristauek gurketarik zillegi. Eliz-barrengo gurketa bakar ori eragozi nai izan zien Jaurlaritzak, kastrotarren seme-alabatxoek zalaparten bidez. Zein ote umeago? Umetxo zalapartari aiek?, umetxo aiek bidaltzen zituan Jaurlaritzak? ala ori egitea agintzen zuan edo beintzat ori egiten uzten zuan Castro diktatorea?

- 1961'az gero, isilpe beltzean bizitzera beartua izan da Kuba'ko Eliza. Oso urriak, arrezkero, andik iritxi zaizkigun albisteak! Adibidez, 1962'an, "katoliko inperialisten" aurka Castro'ren itzaldi bat.

Urte oietatik gaur-eguneraiño ez duzu, Kuba'z, "Informations Catholiques Internationales" edo "La Documentation Catholique" aldizkarietan ezer aundirik idoroko.

1987'ko "Anuario Pontificio" k zenbaki auek ematen dizkigu Habana'ko elizbarrutiarentzat: 3.019.000 biztanle. Oietatik, katolikoak, 1.415.600; parrokiak, 76; beste eliz edo jauretxeak, 101: (gutzira, 177 jauretxe); apaizak, 35; praille apaizak, 49: (gutzira, 84 apaiz); bataioak, 15.664.

Orrenbeste jenderentzat orren apaiz gutxil Larogeitalau. Badakigu gaiñera apaiz oietatik geienak zaarrak eta gaixo daudenak dirala. Baiña, zar izan edo gaixo egon, 16.852 katolikotik gora dagozkio Habana'ko apaiz bakoitzari, eta 35.940'tik gora biztanle; --auek ere, naiz izkutuan, katolikoak ia danak, gure ustez, azalduko dugunez.

Aldizkari berak, 1958'an, Castro'ren azkeneko borroka-urtean, Habana'ko biztanleak 1.540.829 zirala esaten digu, eta katolikoak, 1.300.000. Beraz, 240.829 bakarrik, katoliko ez ziranak. Oso gutxi 1.300.000 katoliko aien aldean.

Aurten ordea, ez-katolikoak katolikoak baiño geiago dirala, esaten

digu: 1.603.400 aiek; 1.415.600, auek. Ogeita bederatzi urte auetan, Castro'ren diktaturtzapean, katolikoak oso gutxi ugaritu dira. 150.000 geiago gaur, orduan baiño. Ez-katolikoak berriz, 1.362.571 geiago dira gaur orduan baiño: izugarrizko ugariketa.

Gertaera orri dagokion bezala, 1.069 bataio besterik ez dira egin Santiago'n 1986'garren urtean. (Oroi, "Anuario Pontificio"k, aurtan, igazko zenbakiak ematen dizkigula). Bataio oiek oso-oso gutxi dirala konturatzeko, gogora ditzagun Gasteiz'ko elizbarrutiari "Anuario" orrek ematen dizkion zenbakiak: 2.808 bataio.

2.236.000 biztanle ditu Santiago'k; 277.794 Araba'k. Bâ, zortzi aldiz txikiagoa dan Araba onek Santiago'k baiño ia 3 aldiz bataio geiago izan ditu.

Kuba'ko kristautasunaren txikertze ori, ¿zerk sortua ote dugu?

- Apaizen urritasunak, zalantzarik gabe. Habana baiño okerrago aurkitzen da Santiago'ko elizbarrutia. Emen, 1958'an 40.000 besterik ez ziran ez-katolikoak, 1.960.000 katolikoan alboan. Gaur, aiek, katolikoak baiño askoz geiago dira: 1.682.000, bosteun eta berrogeitalau milla (554.000) katoliko gaixoen alboan. Zer gertatu da Santiago'n gauzak Habana'n baiño oraindik okerrago irtetzeko? Ia apaizik ez dala Santiago'n! 17 apaiz eta 10 praille bakarrik 2.236.000 biztanlerentzat. Ots: ia Euzkadi osoarentzat, 17 apaiz eta 10 praille!!!

- Giroaren egoerak. Ez-katolikoei-buruzko zenbakiak ez digute seguruaski egi garbia esaten. Ez-katoliko bezala agertu zaizkigun oiek, geienak katoliko dira. Katolikoak, baiña bearrezkoa ba'da, giroaren aurka goseak iltzeraiño beren sinispena agertzera ausartzen ez diranak.

Santiago'ko Goigotzaiak diona egia dala, eta zenbakietan ez-katoliko agertzen diran oiek beren biotzen barnean katolikoak dirala guk arrazoizki uste aal izateko, joan gaitezen urietatik baserrietara.

Pinar del Rio'ko elizbarrutia nekazari-lurra da bereiziki, eta nekazariak ango biztanle geienak. Ona bâ: Pinar del Rio'n askoz gutxiago dira ez-katolikoak katolikoan alboan, Santiago'n baiño. Pinar del Rio'n, gaur, katolikoak ez-katolikoak aifia dira: 406.000 auek, 406.000 aiek; Santiago'n berriz, ez-katolikoak katolikoak baiño iru aldiz geiago dira! Orrela, bataioak 3 aldiz gutxiago dira Santiago'n Pinar del Rio'n baiño.

Ori dana zergaitik? Baserrietako jendeek fedea estali bearrean aurkitzeko arrisku gutxiago dutelako; ez bait dute, urietakoak aifia, lanbillaketan ibilli bear izaten. Oroj irakurle, Laterri Komunistek, estadistiketan, sinisleen zenbakiak moztu eta sinisgabeenak puztu giten dituztela.

Oroi, lana aurkitzeko, Laterri oietan, sinisgabeek egokitasun geiago izaten dutela.

Kuba'n, lanerako onartua izan aurretik, txartel bat betearazten zaio langilleari. Txartel ortako galde bat, erlijioari-buruzkoa da. Bultzatua bezala aurkitzen da lanik ez galtzearren langillea, galde orri erlijiorik ez duala

erantzutera, edo beintzat galde ori erantzunik eman gabe uztera.

Jaurlaritzak ordea, erantzunik ez emate ori, erlijioari uko egitetzat artzen du, eta jainkorik gabeak bait liran, "ateos" edo jainkogabeen kopuruan zenbatzen ditu galdeari erantzutera ausartu ez diran guztiak.



Erroma'ko inperio-lurretan Dezio'ren zigorraldia bukatu zanean, itzuli ziran III mendeko "libellatici" aiek Elizaren altzora; Itzuli'ko dira Kuba'koak ere, Castro'ren zigorketa ugarte eder artan amaitzen danean.

## I JON PAUL

Aiztintxe aipatu dugu Albino Luciani Benezì'ko Goigotzai Kardenala. Ez zuan asko usteko, VI Paul'en eriotzakoan aren goratzarrea idatzi zuanean, bera izango zala aren urrengo Aitasantua.

Itali'ren ipar-iparrean jaio zan; Alpeetako Dolomita mendien kerizpean dagoan Canale d'Agordo erri koxkorrean, sendi txiro baten altzoan, 1912'ko urrillaren 12'an.

Apaiz egiñik, bere errian parrokoaren laguntzaille bezala egon zan aurrena. Gero seminarioan erretoreordezko, eta irakasle izan zan; eta Gotzaiaren Ordezkarì Orokorra. Teologiko doktoradutza ere irabazi zuan.

XXIII Jon'ek izendatu zuan Bittorio Beneto'ko Gotzai, eta VI Paul'ek Benezì'ko Kardenal Patriarka.

Izparringietan idazle yayo eta atsegiña izan zan. "Fino escritor, sabía conectar con todos, cultos y menos cultos; prueba de ello son sus numerosos artículos en revistas y periódicos, llenos de anécdotas y cargados de buen humor" (A. Alfaya).

Elizgizon bezala, "artzai", apaiz, izan zan batez ere bere eginkizun guztietan.

Adimen eta biotz zabaleko gizona, danentzat zeuzkan iririkik besoak: "Pluralismoa? Anitztasuna? Bai, jaunak, bai. --esan oi zuan--. Baiñan ez dogmaen arloan. Anitztasuna, baiñan maitasunaz igurtzia, eta Elizaren altzoan, antziñakoek erakutsi digutenari begirunea galdu gabe".

1973'an kristau sekularrentzat irasitako Teologi-Erakundearen irakastaldi batean Teologiaren elburuaz mintzatu zan. Elburu ori bikoitza omen da gure denbora auetan:

- Munduko biziera, eta munduko arazo danak goiargitzea;
- Eginkizun ortarako, kristau sekularrak era egokian gertutzea.

1974'ean izadizaleei egindako itzaldi ospetsu batean, "gizonak gaur ludia aldatzeko indarrik aski badu, --esan zien--. Ez bezate gizonek egindako aldaketek Jainkoak egindako mundurik ezereztu".

Bera ere izadiaren maitale sutua izan genduan beti. Alpe-Mendien babesean jaiotako baserritar bat izaki.

Urte artan bertan idatzi zuan ezkontzausteaz, Benezi'ko izparringi batean, arras irakurria izan zan gutun bat. Mamia:

- Ezkontzarakoan, ezkongaiak, maitasun orokorra eskeintzen diete alkarri. Maitasunaren orokortasun ortan, dan guztia ematen dio senarrak emazteari eta onek ari. Dan guztia; mugarik gabe; baldintzarik gabe. Osoki.

- Orrela emandako maitasun orri mugak ipintzea eta maitasun ori eriozauriz zulatzea, gauza bat berdiña dira. Maitasun orri ez zaioke ez baldintzarik ez mugarik ezarri. Eta ori, ez ezkongaiak orrela nai dutelako bakarrik, baizik eta ezkontzaren zertasunak berak ori eskatzen dualako.

Urte artakoa da "L'Osservatore Romano"n argitaratu zuan beste idazlan bat teologilarien eginkizunari-buruz. Teologia, jakintza donea omen da, eta teologilarien eginkizuna, ez, noski, beren buruak aipagarri egiteko gogapen eta esakizun bitxi arrigarrien billa ibiltzea.

Teologilari batzuen idazkiak, teologi-jakintza baiño geiago "theology-fiction" omen dira. Eta "lanerako-ipotesi" edo "uste-utseko-saioak", teologilarien-tzako argitaratzen diran aldizkarietan bakarrik argitaratu bear omen dira. Ez erriarentzat argitaratzen diranetan.

Apaizei idatziaz, "apaiztasunaren zertasuna zertan dagoan jakin naiean asti aundirik galtzeke saia gaitezen danok gure apaiztasuna zintzo bizitzen", oles egin zien idazlan batean.

Esaldi oiek danek gauza bat azaltzen digute: batez ere, eta beste gauza guztien gaindik, apaiza genduala I Jon Paul, Aitasantu izan aurretik.

Orrek ez du esan nai, teologi-doktore lez, adimen-gizona era berean ez zanik. Baita ertizale aundia ere. Ain zuzen bere irakurketarik maiteenak, elerti-eta-edesti-liburuak izan zituan.

Politika-gaietan VI Paul bezain demokrazizale portitza izan zan beti.

Samin bizia eman zion biotzean Aldo Moro bere adiskidearen erailketak. "Eriotz mingarri orrek bai, danok ikaratu gaitu, --idatzi zuan orduan--. Gure egunotan, bildurpean bizitzera bearturik aurkitzen ote gera? Ikaraz beti? Geiagoko eskiertasunik gabe? Zai gaude, baiñan ez zaigu inondik ez gizonarentzako maitasunik ez Jainkoaganako eraspènik agertzen".

Gizon xalo gozo au egin zuten Aitasantu 111 kardenalek 1978'ko dagonillaren 26'ean. Ez zuan konklabe edo giltzapeko batzarrak ogeitalau ordu besterik iraun.

Irriparrik xamurrena ezpaiñetan zuala agertu zitzaigun I Jon Paul Batikan-Jauregiko leiورا. Eta ala ikusi zuan mundu guztiak telebistaren bitartez. Eta bat-batean irabazi zuan mundu guzia irriño xamur arek. 33 egun bakarrik iraun zuan I Jon Paul'en aitasantutzak. Irriño ari eskerrak, irabazirik euki zuan egun oietan mundua. "En solo 33 días con su sonrisa conquistó a toda la Iglesia" (Id).

Apalki itzegiñaz, "nik ez dut, --esan zuan Aitasantu egiñik agur zegion jendetzaren aurrera Batikan-Jauregiko leioan agertu zanean--, ez dut XXIII Jon'ek bazuan biotzeko jakinduri eder ura. Ez dut ezta're, VI Paul'ek izan zuan aurre-prestaketarik, eta ezta aren kultura aundirik ere. Altagutziz, aien lekuan ipiñi naute-ta, al dedan guzia saiatu bearra naiz, Elizaren serbitzura".

Bere lenen itzaldi nagusian, dagonil aren 27'an agertu zizkion munduari, bere egitarauaren atalik nagusienak:

- "Nere gorputz-animen indar guztiak, Elizak mundu osoan bete bearra duan eginkizunaren serbitzura ipiñi nai ditut (in servitium missioni universali Ecclesiae), edo berdin dana (quod idem valet) mundu osoaren serbitzura".

- Munduak, gaur, Elizak bakarrik eman dezaiokean "goi-arnasa" (supple-mentum animae) eskatzen omen du, ondo ezaguturik omen dauka bâ (optime novit) jakintzek eta auen ondorio diran teknika edo ekintzarako yayotasunek eman lezaiketean aurrerapenaren erpiñeraiño igo dala.

"Eta ortik aurrera gerta daitekeanaren ikaragarrikeriak eta etorkizun illun-itudunak bildur omen damaie" munduari, (praestantissimam illam perfectionem ad quam pervenerit investigationibus et artibus technicis, iam attingisse verticem, ultra quem horret abyssus, caliginem oculis offundens). "Min dagie begiei illuntasun orrek".

- Eta ori, zergaitik? Gaur-egun gizakumea, egiazko Jainkoaren ordeez bere burua jainkotzat artzera okerturik dagoalako, (quoniam hac aetate homo adducitur ut semetipsum pro Deo substituat);

eta, orren ondorioz, gizakumea, bere aburu soilla beste legerik gabe (suo usus iudicio, quod leges morales neglegit), oitura onen arauak azturik, ludia lekaro biurtzeko arriskuan daukagu (periculum est ne terram in loca deserta redigat);

eta, baita, anaiarteko biziera, aurre-gertuturiko naitanaiezko ariketa uts biurtzeko arriskuan ere,

orrela, Jainkoak bizia nai luken tokian, maiz-aski eriotza nagusi ezarriaz, eta, pertsona, "automata" edo naimenik gabeko izakia biurtuaz, (et fraternum convictum in consortionem coactam et consiliis antea initis dispositam, atque haud raro mortem afferat ubi Deus vitam velit vigere).

Atom-bonba alde batetik, eta igarotako Hitler, Mussolini, eta oraingo komunista guztien diktaturak zeuzkan gogoan I Jon Paul'ek itz oiek jaurti zituanean.

Gero, XXIII Jon eta VI Paul goraiatuaz, aien bideetatik jarraituko zuala agindu zigun:

- II Batikan-Kontzilioaren bidetik ibilli. (Bi okerkeri egin omen daitezke bide ontan: naiz asmorik onenarekin, bidetik atera, Kontzilioaren aginduak gaizki ulertuz, eta, bildurrez eta ikaraz, bidean aurrera jo gabe gelditu; edo atzeruntz biurtu).

- Elizaren barne-bizia sendotzeko bidean aurreratu. Eta Elizatik-at,



ebangelioa gizadi osoari zabaltzen saiatu.

- Ekumenetzaren bidean aurreratu. Elizen zatiketa, kristau ez diranentzat oztopo-bide omen da bâ. "Divisio non desinit esse causa dubitationis, improbationis et scandali apud non christianos et non credentes". "Zalantza, gaitzeste eta uste okerren iturri, ez-kristaumentzat eta sinispenik gabe-entzat".

- Naimen oneko gizakume guztiekingo alkarrizketa bakun eta emakor ura, "dialogum serenum et efficacem quem Paulus VI constituit veluti fundamentum et formam actionis pastoralis suae", jarraitu nai omen zigun I Jon Paul'ek ere. "Alkarrizketa bakuna ta zituemaillea, VI Paul'en artzaintzaren oiñarri ta era izan zana".

- Pakearen alde al zuan guztia leiatu, ortarako "gizakume on, zintzo, aratz, eta biotz oneko guztiei, beren Laterrien baitan, zentzurik gabeko indar-keriari aurka egin dezaiotela eskatuz, "omnes homines bonos, iustos, honestos, recto corde insignes advocabimus, ut, intra singularum nationum fines, se opponant violentiae inconsultae".

Biotz oneko gizakume guztiei dei dagie Aitasantu berriak, eta aien laguntzarekin, gizadi osoa alkar-maitatzera eramán nai luke, eta gizarteko aurrerapena bultzatu, gosetiei ogia eta ezjakiñei kultura emanaz, eta bereiziki erririk txiroenei eta atzeratuenei lagunduz.

Ederrak asmoak. Baiñan ez zuan I Jon Paul'ek asmo oiek aurrera eramateko astirik izan, irailaren 29'an gorputz bait zegoan gaixoa.

Bazan bâ gizon langillea Jon Paul l'goa! Ikus aren eguneroko egitamua: 5'etarako jeikirik zegoan. Otoitzak egin, Meza eman eta zazpi t'erdietan gosaria; Izparringien azterketa eguneko berriak jakiteko.

9'etan asten ziran audientzi edo entzuketak. Elizaren Jaurlaritzako kardenalak izan oi ziran aurrena entzuten zituana, ondorean, berekin itzegitera Erroma'ra etorritako gotzaiak, eta erakunde ta igikundeetako jaun ospe-tsuak. Baita Jaurlaritzetako ordezkariak ere.

Bazkaria. (Azkeneko bere egunean Villot Estadutzako Kardenal Idazkaria-rekin bazkaldu zuan).

Atsaldea bere idazgelan igarotzen zuan bere idazkariekin lanean. 8'etan arrosarioa bere laguntzailleekin. Aparia gero. (Azkeneko aparian lekak eta gazta biguin zuria bakarrik jan zitan). Telebistako izparrak entzun eta bere lo-gelara.

An ordea irakurtzen eta idázten luzaro egoten omen zan. Bai beintzat 12'ak ondo jo arte, bere itzaldi eta idaztietako gogapen eta asmoak borobiltzen. Ori izan zuan irail aren 28'an ere orduz-orduko jardunketa.

Gero, bigaramoneko 29'aren egunsentiko une ezezagun batean, bat-bateko eriotzak lapurtu zigun Elizak eta Mundu osoak ain atsedenki onartutako Aitasantu maitagarri ura.

Goizeko 5'30'etan, Aitasanturik kapillatxora etortzen ez zala-ta, arriturik,

aren gelara joan zan apaiz laguntzaillea; eta an aurkitu zuan ogean illik. Pizturik omen zeukan maitxoaren gainean argia.

Az da arritzekoa I Jon Paul gizon langillea izatea, bizitzeko gogorki lan egin bear izaten zuan sendi bateko umea bait zan. Bere aita, Itali'tik kanpora joan bearrean aurkitzen zan txanpon batzuk irabazteko.

Frantzi'n zegoan, gero Aitasantu izanen zan bere semetxoak apaiz egin nai zuala idatzi zionean. Berealaxe eman zion aitak baimena. "Mon pere etait socialiste mais il n'était pas contre la religion et l'a toujours practiqué": "sozialista zan nere aita, ez, ordea, beti zintzo gorde zuan erlijioaren etsai", idatzi zuan gero seme arek berak.

Bazekian beraz gure Aitasantu berriak bizitza latza zer zan. Lenen Ludi-Guduaren atzetik gosea zabaldu zan Itali'n jende txiroen artean. Zortzi urteko mutikoa zala, bere erritik bost kilometrora, lantxo baten truke ogi zuri-zati bat irabazi zuan bein. Ogi zurial! Bere bizi guzian jan ez zuan gauza. Oroitu zan ordea, bere etxean anaitxo gazteago bat bazuala, eta naiz bera ondo goseak egon, anaitxo ari ogi zuri ura eramateagaitik, bost kilometro aiek laisterka igaro zituan (Documentation Cat.).

Pozik artu genduala, esan dugu, Aitasantu irriñotsu atsegin ura. Bai orixe! Ona egun artan bertan aipatu-berri dugun aldizkariak zer idazten zuan:

"C'est vrai que tout le monde a l'air content à droite comme à gauche (...) Conservateur ou progressiste? C'est ne pas dans de telles catégories qu'un homme de foi juge le pape". "Egia da mundu guzia pozik dagoala, bai eskubian eta bai ezkerrean ere. Lengoa-gordetzaille? Aurrera-jotzearen-aldeko?, ots, kontserbatzaille? edo progresista? Fededun gizonak ez du Aitasantua neurri oiekin mugatzen".

Oso ederra ta polita da Jon Paul l'ak diplomazilariei egindako lenen itzaldia:

"Aitasantuak ez du, ez izkilluek ez diruak eman dezaketen indarririk. Alatagutziz, emen dauzka aurrean ludiko Jaularitzen ordezkariak ugari". Mundua, mundu-ontakoa-ez-dan-zerbaiten billa dabillela, adierazten dio orrek Jon Paul Aitasantuari.

Nola Aitasantuak erantzun? Munduaren aurrerapenerako katolikoen laguntza eskeiñiz, eta naimen oneko agintari ta gizakume guztiei zuzentasunaren argia erakutsi eta etenik gabe emanez: "Les principes fondamentaux qui garantissent une véritable civilisation et une réelle fraternité entre les peuples": "egiazko aurrerapen eta benetako errien-anaitasunaren oiñari diran arauak".

Ederra eta oso polita Laterri Alkartuetako gotzai-talde bati egindakoa ere. Gurasoak omen dira umeen "lendabiziko dotriñ-erakusleak; eta onenak": "the first catechists and the best ones".

Sendia omen da apaizgaiak sortzeko arlorik onena: "primum

seminarium". "Arazo larrietan sarturik aurkitzen diran gurasoentzat izango dira gure maitasun osoa eta gure artzai-ardurarik bereziarena": "Parents with special problems are worthy of our particular pastoral care, and all our love".

Une oro aipatzen zituan Jon Paul I'ak Kontzilioa eta bere bi aurreko Aitasantuak. Bere izaera zabala, arraia, eta baikorra kontuan artuta, ziur uste genduan, XXIII Jon ezin aztuaren bidetik jarraituko zuan Aitasantu bat iritxi zitzaigula.

"Aitasantu ona izango da, sinismenaren eta Ebangelioaren zaintzaille ernea, biotz-bera, anaikorra", "mais il sera aussi le pape audacieux, parceque sera soucieux d'appliquer le concile", "kontzilioa mundura eramaten arduratuko dalako, Aitasantu ausarta ere izango zaigu", (id).

Eriotzak ordea ez zion ezertarako astirik eman. Jaso zituan bezala utzi bear izan zituan VI Paul'engandik artutako arazo aiek danak.

Unkigarriak dira, ludi guztitik, bereiziki Irugarren Munduko agintariengandik, iritxi ziran samiñ-adigarriak. Jon Paul I'ak Irugarren Mundu ortan nolako itxaropena ernarazi zuan adierazten digute andik iritxitako urrutidazki edo telegrama oiek.

Biotz-biotzetik aterea, Jinebra'tik Ekumene-Kontzeilluak bidali ziguna ere. Zugarri adierazten dizkigu Aitasantu il-berriaren doia bereziak: "open-hearted simplicity" (bere biotz zabalaren apaltasuna), "his spontaneous warmth" (ain bere-berea zuan xalotasun beroa), "his quickness of mind and action" (gauzak zuzen ikusi eta egoki egiteko azkartasuna), "his pastoral concern for all, especially the poor and needy" (guztien eta batez ere txiro ta beartsuen artzai izateko bere leia), "and above all his utter commitment to Christ and his Church" (eta, beste ororen gaindik bere Kristo-ta-Elizaganako ardura).

Bere itxaropen osoa Jainkoagan ipiñiz, "with gracious abandon", "grazi guztiko lasaitasunean" artu zuala I Jon Paul'ek aitasantutza, diote Jinebra'ko Kontzeillu aren zuzendariek.

Eta egia diote. Al nolako Aitasantu bikaiña izango zitzaigun I Jon Paul, XXIII Jon'en bidetik! Baiñan, beste era batekoak izaki Jainkoaren asmoak-eta, udazkeneko gau eder batean, iñor oartzeko, bat-batean gelditu zan Jon Paul I'aren biotza.

Aitasantuari telebistaz ezpafiñetan ikusi zion irriño lilluragarri ura etorri zitzaion orduan mundu guziari gogora; eta aren illeten berri ematerakoan, "el entierro de una sonrisa", "irriño baten illeta", izen-burutu zuan egoki bere idazlana izparringilari batek, Javierre'tar Jose-Mari'k.

Eliza ordea ez zan bere Buruzagiaren biotzarekin batera gelditu. Eliza ez da beñere gelditu. Ez da beñere geldituko. 16 egun geroago, Aitasantu egifiik genduan, Poloni eslabitarrean jaiotako gizaseme orail bat: Karol Wojtyla, Krakobi'ko Goigotzai Kardenala. XVI mendeko Adrian VI ura ezker, lenengo Aitasantu ez-italiarra. Eta, bera ere il-berriaren irriño

kutsukor arek irabazia izaki-ta, aren izenak ber-berak artu zituan aitasantutzarako, Jon Paul, mundu guzia orrela pozik eta alaitu bir-ezarriz.



Galilea'ko itxasoan, Kepa'ren ontzia, ur asarreetan zebilela diosku Eban-gelioak.

Orrela ibilli da beti, edestia-zear, Kepa'ren ontzia, eta orrela ibilli ere ibilliko da beti, edestiaren azken unera arte. "Ni zigorpean erabilli ba'nau, zigorpean erabilliko zaituzte zuek ere", aldarrikatu zien Josu'k Kepa'ri eta aren lagun apostoluei.

Baiñan baita laguntza agindu ere: "zuekin izango nauzute mendeen amaiera arte".

Eta, laguntzarekin, garaitza: "Zu, Simon, Arkaitza zera ("Kephas"), "Kepa" edo Arkaitz ortan oiñarrituko dut nik neure Eliza. Eta inpernuko indarrek ezin izango dute garaitu".

Ezin izango dute garaitu..., Arkaitz ortan oiñarriturik dagoan Eliza...,

Ezin izango dute garaitu..., Elizaren oiñari dan Arkaitza! Aitasantua!

Bijoa gure Eliza. Bijoa bildurrik gabe mendeak-zear aurrera.

Bijoa, lengoa izatez utzi gabe, bere edestiaren aro berri batera, illuntasun berriak argituz, gizadiari arazo berriak askatzen eta konpontzen laguntzeko Gogo Deunak barrendik damaizkion itxura ta indar berriez jantzirik.

Iru izan omen dira, orain arte, Elizak bere edestian izan dituan aroak, diosku Karl Rahner teologilariak: Aurrenekoa, Judutar-Kulturaren aroa; Bigarrena, Grezi'n eta Erroma'n oiñarri-duan Europar-Kulturaren aroa; Irugarrena, II Batikan Kontzilioak iriki diona, Erridi Guztien Kulturaz ornitutako "Ludi-Eliza", Ludi Guztiko Eliza. Ori izan omen da bâ gure denborako II Batikan Kontzilioa: "The inauguration of the Church as world church": "Eliza ludi-eliza izaten astearen lenen urratsa".


Ekin bezaio pozik Elizak ibilketa berri oni. Berekin izanen bait du iraslea. "Ecce enim vobiscum sum usque ad consumationem saeculi".

"Ona bâ:

Mende guztien amaia arte

Or, zuekin,

izango nauzute".



## AURKIBIDEA

ITZAURREA . . . . .	7
XI BENEDIKTO (1914-1922) . . . . .	35
ERRUSI'KO IRAULTZA . . . . .	57
BENEDIKTO XV'AREN POLITIKA-BIDEAK . . . . .	73
XV BENEDIKTO'REN 7 ATALTXOAK . . . . .	85
BERTSALLES'KO ITUNA . . . . .	93
XV BENEDIKTO ETA MIXIOKUNTZA . . . . .	105
XV BENEDIKTO ETA SORTALDEKO ELIZAK . . . . .	119
ERRUSI. KOMUNISMOA TA KRISTAUTASUNA AURREZ-AURRE . . . . .	123
XI PIO (1922-1939) . . . . .	145
XI PIO'REN DIPLOMAZI-KERA . . . . .	149
XI PIO TA FRANTZIKO FATXISMOA . . . . .	163
PIO XI'A ETA MAURRAS . . . . .	167
XI PIO TA SALAZAR . . . . .	179
PIO XI'A ETA MUSSOLINI . . . . .	185
XI PIO TA HITLER . . . . .	199
ESPAÑI'KO II ERREPUBLIKA . . . . .	215
XI PIO ETA FRANKO . . . . .	239
XI PIO MIXIOLARI. SORTALDEKO ELIZAK . . . . .	291
XII PIO (1939-1958) . . . . .	307
BIGARREN LUDI-GUDUA . . . . .	317
XII PIO ETA ALEMANI'KO JUDEAN AUZIA . . . . .	325
PIO XII'A JAINKOAREN ARTALDEAN ARTZAI . . . . .	339
XXIII JON (1958-1963) . . . . .	365
II BATIKAN-KONTZILIOA (1962-1965) . . . . .	387
VI PAUL (1963-1978) . . . . .	415
OARRA . . . . .	483
KUBA KOMUNISTA . . . . .	485
I JON PAUL . . . . .	501